

Xabier Amuriza

BIZKAIKO BERTSOGINTZA

II IZENDUNAK



Bizkaiko
Bertsozale Elkarte



limos
Kar
baldin
nik ga
erruk

BIZKAIKO
BERTSOGINTZA

II

IZENDUNAK

Bizk
Anb
gizon
baserr

Goizian sartzen ziran
tabernako atian
ez eben alde egiten
bihamon artian.

Arbola bat zan Bizkaian bere
neure anaia laztanak
zeinen azpian pozez beterik
egoten ziran asabak.
Kerizpe zabal hartan jarririk
eginda euren batzarrak
buztarri baya nasai ta libre
bizi ziran Bizkaitarrak.

Xabier Amuriza

Neskatilea zala
nire andra Jazinta
agertuten zan beti
ederto jantzita.
Garritik eukazala
beherantza jausita
larrosa koloreko
lau sedazko zinta.

Seigarren nobioa
Eustakio Eulea
prakazahar inuzente
koitedu pobrea.
Hik bere bahenduen
ezkondu gurea
baina eragin heunstan
erretiradea.

Komedi tokia da
gure okoilua
behiak adarrak dantzari
da hik akuilua.
Bi alditan hor habil
mutil kankailua
esnez bete ezinik
heure katilua.

**BIZKAIKO
BERTSOGINTZA
II
IZENDUNAK**

Xabier Amuriza

LAGUNTZAILEAK:



Azala: Juan M^a Perez

Autore eskubideak: Xabier Amuriza

Argitalpen eskubideak:

© **Kulturgintza**

Perro kalea, 1

48005 BILBO

© **Bizkaiko Bertsozale Elkartea**

Karmen kalea, 31

48340 AMOREBIETA - ETXANO

© **Zenbat Gara Kultur Elkartea**

San Vicente, 2 - 5.

48001 BILBO

Inprimategia: Imprenta RGM, s.a. (Bilbo)

L. G.: BI-752-98

I.S.B.N.: 84-89283-11-7

HITZAURREA

Liburuki honen eremua haseratik azken gerrararte da, hots, 1936 ingururarte. Hortik honantz beste liburuki baten gaia litzateke, gerratik gaur arte alegia. Kepa Enbeita *Urretxindorra* berez bigarren liburuki honetan tokatzen zen, 1942-an hil arren, gerra aurretik egin bait zuen egiteko nagusia. Hala ere ez dut hemen sartu, hirugarren liburuki posible horretan, gaur arte datozen bere ondorengo Enbeitar guztiekin batera, hobeto egokitzen zela pentsaturik. Honen aita, ordea, *Txotxojeuri* ziotsatena, hemen sartu dut, joan zen mendeko gizona bait zen.

Bizkaiko bertsogintza izenduna, XX. mendea aurrera samartu arte behintzat, ez da plazako bertsolaritza izan. Izan den apurrean ere, konstantzia gutxi dago, nik dakidala. Hala ere, Bizkaiko tradizioan uste baino bertsogintza ugariagoa izan da. Eta horretan beharbada bizkaieraren ezauzgarri nabariena jende ikasiak bertsoak jartzeko eduki duen joera handia da.

Bertsogintza zaharra hartzen badugu, hasi oso zaharrak direnengandik -Alzola, Mikoleta, Iturbe, Zubia, Migel Basterretxea...- eta hain zaharrak ez, baina nahiko zaharrak diren Soloaga, Agustin Basterretxea, Gandara, Olaetxea eta abarregana, ia denak dira kultoak. XIX. mendean eta mende honen hasera inguruan ere hor dauzkagu Astarloarrak, Mogeldarrak, Aboitiz, Zabala, Uriarte, Azkue, Arrese, Kirikiño eta abar.

Bertsolari edo bertso jartzaile ezikasiak ere badira noski, Durangoko Zidarginak, Pantxillon, Eulea, Añibarro, Markano, Txotxojeuri, Napparra eta abar, baina oro har ez daukate bolumen handirik, nahizta batzu oso interesgarriak izan. Pantxillon, Eulea, Añibarro, Lastra eta beste zenbait izen, batzu sorta bakardunak izan arren, arretaz begiratzekoak dira.

Azkenik, joan den mendearen azken aldeko eta mende honen haserako aldizkari ugariak garrantzi handia eduki zuten bizkaieran. Hauetan bertso asko argitaratu zen eta batzu, Bonifazio Latxarenak adibidez, ezin interesgarriagoak. Aldizkarietako material ugari hori pixka bat bahetu egin dut, pieza eskasak ere asko bait dira, bidezko denez. Baina hautua eginik ere, korpus mardula ateratzen da, alde askotatik arretagarria.

Iturririk agian oparoena, 1913-an atera eta 1937-an desagertu zen *Euzkadi* egunkaria, hustiatu gabe utzi dut. Alde batetik, bilduma osoa ikusten bakarrik hiletako lana legoke, eta beharbada saiatu ere egingo nintzen, beste aldetik, egiteko modurik ikusi banu. Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako kopia mikrofilmata, Bizkaiko Aldundiko orijinaletik egina, -hau ezin da kontsultarako erabili-, irakurtzeko, nire begiak ez ziren gauza izan. Teknikoki gaizki egina omen dago. Bada aski tamal hainbeste kostako zen lana erdi alperreko gertatzea. Ziur nago *Euzkadi* egunkariak liburuki honetan sartzeko moduko hainbat sorta dukeela, baina lan horrek beste noizbait izan beharko du.

Bertsokerari buruz, laster ohartzekoa da Bizkaiko tradizio herrikoia hango nagusi izan den koplartizatik hurbilago dagoela. Bertsogintza kultoan beste haize batzu dabilta, nahizta herria eta hizkuntza bera oso aipu presenteak izan beti. Neurrian berriz **zortzikoa** ageri da nagusi. Gandararengan lehenengoz ageri den hitz horrek beste gabe zortziko txikia esan nahi du, bi oin batera eta bi bestera errimatzen direla.

Azkenik, Bizkaiko bertsogintza herritarrak, mende honen hasera ingurutik honantz, gipuzkeraren menpetasun handikorra ageri du. Eta ez batuaren edo gisako arrazoi goragokoaren arduraz, konplexu soilez baizik. Bere euskalkia baino kategori gehiagokotzat jo du gipuzkera eta joera horrek gaur arte darrai. Eta sarritan, gipuzkeraren ezagutza ere tamainakoa izaten denez, emaitza nahasiak eta nahi-ezinekoak irteten dira. Lorrina.

Bertsogintza kultoak, ordea, ez du bere euskalkirik inoiz muzindu. Bidezko denez, jende ikasiak konplexu gutxiago edukitzen du. Areago oraindik, bizkaieradunak euren diferentziaz harro zeudela ematen du. Azken urteotan batuaren inguruan sortu den arazoa beste kontu bat da, non beharbada lorrina baino gaitz handiagoa zabaldu den: euskalkiaren zaputza. Hau euskalkiarentzat iraina izanik, batuarentzat ere oker handia da, ez bait dago baturik, euskalkien integraziotik ez bada. Ez da hemen garatzeko gaia, baina Bizkaiko bertsolaritzak badauka zer pentsatua.

XVII. MENDEA

JUAN BAUTISTA ALZOLA MUNTXARAZ (1638)

Juan Bautista Alzolak bizkaierazko –baita mendebaldekoen artean ere– texturik zaharrenetarikoa utzi zigun, Domingo Lopez de Hegiari eskainitako kopia sorta luze honetan. Oso izenburu luzea dakar gaztelaniaz:

“Canción vizcayna en metro vizcayno, hecha en alabanza de los hechos heroycos de D. Domingo de Heguia, natural de Deustua junto a la noble Villa de Vilbao, cauallero de la orden de Santiago: Y su Comendador, Maese de Campo General por su Magestad: Castellano del Castillo de Fuenterrabia, y su Governador perpetuo, y futuro sucesor de Pamploña, dirigida à Domingo de Lopez de Heguia, señor de la casa de su apellido, y a D. Francisco de Butron, Diputados Generales deste muy noble y leal Señorío de Vizcaya, por el licenciado Juan Baptista Alçola y Muncharaz, cura de la Iglesia de Castillo, Merindad de Arratia, natural de la noble Villa de Tabira de Durango, Predicador en todo el Obispado de Calahorra y la Calçada, por su Señoria Illustrissima del señor D. Gonzalo de Chacon, Obispo benemerito, su hijo y menor Capellan, adonde se narra todo el suceso feliz que tuuo España en el sitio de la plaça de Fuenterrabia à siete de Septiembre de 1638 años”.

Hondarribia frantsesen erasotik onez atera zuen Domingo Lopez de Heguia Labairuk ere aipatzen du bere *Historia General de Vizcaya* liburuan. Aipatu Hondarribiako garaipen horixe bide dela onduta daude koplok. Juan Bautista Alzolaz dakigun apurra ere izenburu horretantxe dakar, eta ez da gutxi nolako pertsonaia zen ohartzeko. Durangoko Tabirar semez, Arratiako Arteako (Castilloko) abade eta Calahorra eta La Calzadako Elizbarruti guztiko predikari. Ez zen, beraz, edonor.

PHELIPE HESPAÑAKO

(Domingo Heguiari kantua. *Textoa eta lexikoa*. Adolfo Arejita. *Euskeraren Iker Atalak* 4, 8. orrialdetik aurrera)

Phelipe Hespañako done handia
eskubetu dozu mundu guztia.
Alegradu bidi kristiau herria
libradu dalako Ondarribaia.
Hogei mila gizon Frantzia herriko
egozan aldi baten su emaiteko.
Harako Bizkaitar Domingo Hegiko
izan da bakarrik irabazteko.
Jaun Doneperi Deustuko batizadua
onradu izan dozu zeure lekua.
Etse infanzonaduko seme jaioa
Bizkaiko onetarik animosoa.
Mundu guztia dago atsegin onean
egin dozulako giza legean.
Jaunari alabanzak prozezinoak
Bizkaiak egin dituz gorde pazkoak.
Beste Moisen bat kumareanik
gizon hau egon da seinaladurik.
Jaunen eskurean gobernadurik
haenbeste egin dau Hespañagaitik.
Zegaiti eugi daben umildadea
merezidu ez eiteko hango plazea.
Obedenziagaz azeptadurik
lealtadeagaz ondo jagonik.
Traza handiagaz agindu guztiak
exekutatu dituz nola eg...ak.
Lorik egin бага leku guztia
ibilian da gehiago eugi egia.
Sei ontza bizkotxu jaki bagarik
edateko ura zerureanik
zegaitik zituezan iturri guztiak

hondatu hatxurraz Frantses hordiak.
Pazientzia handiagaz auzoen buruak
hurian ondo daukaz hegapetuak.
Jauna, orain gloria honek beroa
besteai bero dakien euren gogoa.
Irakatsi deuste sekula betiko
kastillau izaiten gazteluetako.
Honek egin deustezan burlen handiak
amurraturik daukaz Frantsez guztiak.
Frantses.....
bigarren.....
Julio Cesar....
errepublika....
Kapiu....
liburu....
Frantses....
atera b...
Txeldor bagarik minak farfulleteko
ez Domingo Egikori itxadeiteko.
Domingo Pazkoen izen handia
koronikagarri zeure egia.
Txakurren ogia emongo deustu
Domingo Egikok bazagiz hartu.
Martitzen susperroa heldu ekizun
Pheliperi egiteko guztiok oinean mun.
Txakurren amesagaz paluak asko
eroango dozuz Frantziarako.
Gaztelako Almiranten miserikordia
behar izan dozu neure Egia
zegaiti dalako kristiau handia
errege handitsuen ispilu argia.

Bederatzigarren kapituluan
S. Matheok dino Jaunen foruan:
“Eztot nik bilatuko sakrifizioak
eska badakidaz miserikordiak”.
Santu honen esanaz akordadurik
Kristiau zireanak arnasa esturik
belaunez lurrean Frantzia guztia:
“Almirante jauna, miserikordia”.
Ha legez izan baniz Iainkoen legea
erakutsiko neusten ganibetea
zegaiti eztakien berba osorik
jagoten inoz bere izorra bagarik.
On lizate bakea legerik baliz
hautsi ezpalegie berbea barriz.
Ostera eta laster alkar harturik
jupoak behar dituez aforradurik.
Deragiegun artean txil eraso
armaen indarragaz kristiau oso.
Hil zelegiezan Hespañakoak
negarrez egozan nola eskekoak.
Victor Hespaña ta Cola Frantzia
gedar minakaz jente handia.
Konfiantza larregaz bizi arren gu
larretan dinoe: si non bule bu.
Si bule bu e non bule bu
Frantsesai behar jate hausi buru.
Arzobispo Burdeosko Perladu gexoa
estuan darozu zeure kolkoa.
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

erraz ziratean beste hamar mila.
Berrogeta hamargino dira heriduak
dulabre eukezalako euren eskuak.
Hogeta hamalau tiro brontze onezkoak
han itxi zituen Frantziakoak.
Berrogeta sei bandera peleakoak
arkabuz da pistola munizinoak.
Arzobispoen ohea Prinzipen bagera
gureak ekardezan lepoaz etsera.
Kapusai granazkoak erropa asko
mutil pikaroak jantzi ezteko.
Moskete eta lantza kontu bagarik
laurehunda gehiago zaldiak hilik.
Ehunda laurogei mila dukat urrezko
Frantsesai pagea egin eiteko.
Sartu ziteanean Ondarribaian
Frantziarik ekardezan euren aldean
biziak, osasunak esperantza handiak
han galdu zituen Frantses guztiak.
Gaztelako Almirante generosoa
sar zidin orduan animosoa.
Ekusi egianean Domingo Egiko
kasi lurrean etxugi jako.
Esaten eutsala modu onean
berba honek haen artean izan zitean:
“D. Domingo Egiko balerosoa
beutso erregegaiti laztan osoa.
Bigarrena Hespaña guztiagaiti
hirugarrena barriz neuk zeugaiti.
Erregen Magestaden bihotz osoagaz
Maese de Campo zara bastoe honegaz.
Kastillau gobernadore Ondarribaiko
egiten zaituz zeu sekula betiko.
Panplonako gaztelu atxinakoa
zeure eskuetan etxuten doa.
Komendadore zara Jaundone Jakubeko
kurutze gorriagaz bularretarako.

Zu legez kurutze hau merezidurik
Hespañan eztago zaldun bizirik.
Asko eta gehiago merezidu ozu
dabelako Hespañak atsegin hartu.
Ezin gitxiago egin zendukean
parkatu Bizkaiari lealtadean.
Faltadu ezin lei berba errealak
ez zugan bere inoz amesak onak.
Eskribietan deitsun karta guztian
ifinten zaituz zeu zor handian.
Ekusiko dozu laster batean
nola zorretarik urten dokean.
Erregen Magestaden karten handia
zugan iminten dau bihotz guztia.
Konde Dukearen izar argia
zu izango zara Domingo Egia.
Zuti dagoan artean ene burua
Almirantea legez eutsi eskua.
Izango nozula adiskide handi
nazan artean munduan bizi.
Laguna, anajea adiskidea
izango natxazu ene fedea.
Ezin gitxiago esan neukean
parkatu Bizkaiari lealtadean.
Beto alkandorak ene kofrerean
zaxut bertati Domingo ohean.
Zegaiti ekusen Almiranteak
izerdiz baltziturik beaturik oheak
onra emaiterren Almirantea
egiten aginetan dau zuretzat ohea.
Bera zure mahaian zu haen aldean
ze ondo zirudian hak esatean:
animadu bitez Bizkaikoak
irudi eiteko atxinakoak.
Bizkaiko legeak handi foruak
erregen Magestadeak konfirmaduak

atxinarik dituz mereziduak
zegaiti dituezan garbi eskuak.
Principe de Condek tronpeteagaz
zematu zengizanean heriotzeagaz
emon zengiozala gazteluen giltzak
parkatu leizula guztioi bizitzak.
Zeu ez da besteok leku guztian
ifini egizan bildur handian.
Baia zuk Bizkaitarren lege onean:
"Buru hau ifiniko dot zudai ganean".
Eguntaino Bizkaikok horrelangorik
eztago egin dabela eskribidurik.
Bizkaitarrak giltzak Frantsesai emon
ez eta balira guztiak Sanson.
Onreagaz jaio onreagaz hil
gizona giza legen ez beti mutil.
Lurrean Viktoria zeruan gloria
irabazi dozu Domingo Egia.
Bazakioz birtuteari beti jarraitu
santutzat Jaungoikoa ekusi daizu.
Birjinearen bezpera egun guztia
sekula gorde eikezu Ondarribaia.
Domingo Bizkaikori zorra deitsazu
ezpa ia zinean guztiok Gabatxu.
Mila eta seirehunda hogeta hamazortzi
garrenean izan da biziak bizi.
Urrien zazpigarren egun guztia
Hespañentzat aurten izan zidia
hain egun alegrea akordetako
papera gehiago baltzietako.
Dagigun guztiok atsegin hartu
atsoak, albiste neuri indazu
zegaiti deitsudan negu guztiko
zer esan ifini sugaterako.
Gazteak egizu dantza eta saltu
Paris behar dogu urtera hartu.

Eztaukezanak pozik gogoak
izan dagiezala Paskoa gestoak.

Halan daukezala Holandakoak
zegaiti direan txakur osoak.

Textu hau ulertzeko, ni baino dakienago izan behar da. Hala ere, antzematen dudana azaltzera menturatuko naiz, gutxiago dakienari lagungarri izango zaiola pentsaturik. Adituek okerrak barkatuko ahal dizkirate.



Done: Jaun. / Santu.
Eskubetu: menperatu, eskupean hartu.
Bidi: bedi.
Egozan: zeuden.
Doneperi: San Pedro.
Batizadua: bataiatua.
Onradu: ohoratu, duindu.
Etse infanzonaduko: infanzotzi etxeko.
Infanzotzi: behe mailako noblea.
Bizkaiko onetarik: onetarikoa, onen artekoa.
Gorde pazkoak: pazko jaiak gorde, ospatu.
Kumareanik: kumatik, sehaskatik. Atzizki arkaikoa.
Jaunen eskurean: jaunaren eskutik.
Eugi daben: eduki duten.
Merezidu ez eiteko: ez merezitzeko.
Obedenziagaz: obedentziarekin.
Azeptadu: onartu.
Lealtadeagaz: leialtasunez.
Jagon: zaindu, begiratu.
Traza handiagaz: itxura, molde, antze handiarekin.
Baga: bage, gabe.
Jaki bagarik: janari, jateko gabe.
Zerureanik: zerutik.
Zegaiti zituezan: zeren zituzten, zituztelako.
Zegaiti honen zentzua sorta honetan kausala da gehienik, ez galderazkoa.
Hatxurrakaz: haitzurerekin.
Hordiak: mozkorrak, mozkortiak.
Handiagaz: handiz, handiarekin.
Hurian: hirian.
Daukaz: dauzka.
Hegapetuak: babestuak, hegapean hartuak.

Beroa: eroan, eraman beza.
Deuste: deutse, diete.
Deustezan: deutsezan, dizkien.
Txeldor: begitxindor edo bekatxo gisa dakar Azkuek.
Minak: mihiak. Nola txeldorra mihian? Izan liteke bikor edo granotxo. Beraz, txeldor bagarik minak edo *mihi jareinak*, trabarik gabeak.
Farfulleteko: parrastan eta murruska mintzatu, hitzak janez.
Itxadeiteko: itxoiteko, itxaroteko.
Koronika: kronika.
Koronikagarri: kronikatzea merezi duena.
Deutsu: dizu.
Bazagiz: bazaitza.
Martitz: gerrako jainkoa.
Susperroa: susperraldi, indarberritze?
Heldu ekizun: heldu zitzaizun.
Txakurren amesagaz: txakurren amesarekin, alperreko ametsez.
Dozuz: dituzu.
Eska badakidaz: eska badakizkit, eskatzen bazaizkit.
Akordadurik: oroiturik, gogoraturik.
Arnasa esturik: arnasa estuturik, arnas es-tuka.
Ha legez: hura bezala.
Baniz: banintz.
Neusten: nien.
Ganibetea: ganibeta, labana, aiztoa.
Zegaiti eztaikien: zeren ez dakiten, ez daki-telako.
Jagoten: zaintzen, gordetzen.
Inoz bere: inoz ere.

Izorra bagarik: izorratu gabe, hondatu gabe.
Lizate: litzateke.
Ezpalegie: ez balezate, hautsiko ez balute.
Barriz: berriz, berriro.
Ostera: berriz. / *Ordea* ere izan liteke.
Jupoak: ?
Dituez: dituzte.
Deragiegun artean txil eraso: txil esan erazten diegun arte. Ala behartu ditzagun artean (*bitartean*) txil esatera?
Txil: etsi dut, errenditzen naiz.
Eragin: erazi, behartu.
Eraso: gaur esan erazi zentzuz gordetzen da. Baita *meza eraso* edo lagundu ere. Hemen beste gabe esan dirudi, *erazi* esanahia *eragin* aditzak bait dauka.
Indarragaz: indarrez, indarrarekin.
Hil zelegiezan: hil ez egiezan, hil ez zitzaten Espainiakoek.
Egozan: zeuden.
Eskekoak: eskaleak.
Viktor... Cola: Espainia garaile eta Frantzia galtzaile edo *isats*?
Gedar: dei, oihu.
Minakaz: minekin, larriekin.
Larregaz: gehiegiz, gehiegirekin.
Larretan: lar alditan, gehiegitan, maizegi.
Dinoe: diote, esaten dute.
Jate: jake, zaie.
Perlada: prelatu.
Gexoa: gaizoa, gizajoa.
Estuan daroazu: estu, estuturik, larri daramaz.
Ziratean: izango ziren, izan zitezkeen.
Hamargino: hamarreraino.
Dulabre: indartsu, ekinkor.
Eukezalako: zeuzkatelako.
Itxi: utzi.
Peleakoak: borrokakoak, gatazkakoak.
Arkabuz: arma mota bat.
Bagera: ?
Ekardezan: zekartzaten.
Lepoaz: lepoan, bizkarrean.
Kapusai: euritik babesteko kapa txanoduna.
Grana: ehun mota fin bat.
Jantzi ezteko: ez jazteko. *Ez* atzera pasatzean, gaur ere normala da berari aditzaren

atzizkia ezartzea. Ez jateko edo *janezteko*, ez eitearren edo *eineztearren*. Edo *eziteko*, *ezitearren... Zer gertatu jatzu etorri eziteko, etorri ezteko?*
Kontu bagarik: kontatu gabe.
Pagea: pagua, ordaina.
Ziteanean: zirenean.
Frantziarik: Frantziatik.
Sar zidin: sartu zen.
Ekusi egianean: ikusi zuenean.
Etxugi: etxun, etzun, etzan.
Jako: zaio.
Eutsala: ziola.
Berba honek haen artean izan zitean: hitz hauek haien artean izan ziren.
Balerosoa: kementsua.
Beutso: har beza berorrek. Gaur *eutsi*-har ezazu- gordetzen da. Baita *eutso-n* (hik) ere.
Osoagaz: osoarekin.
Bastoe: makila.
Honegaz: honekin.
Zaituz: zaitu.
Atxinakoa: antxinakoa, aspaldikoa.
Etxuten doa: etzuten, etzatera doa.
Jakubeko: Santiagoko.
Zu legez: zu bezala.
Merezidurik: merezirik.
Merezidu ozu: merezi dozu.
Dabelako: duelako.
Faltadu ezin lei berba errealak: erret hitzak ez dezake huts egin.
Amesak: asmoak.
Eskribietan deutsun: idazten dizun.
Ifinten: ipintzen.
Urten dokean: urten dukan, irten, jalgi hai-zen? Raroa dirudi kolpera hiketa sartzeak.
Iminten: ipintzen.
Eutsi: tori, har ezazu.
Anajea: anaia.
Natxazu: natzaizu.
Ene fedea: halafede, halajainkoa, bai noski.
Esan neukean: esan nezakeen.
Kofreanean: kofretik, kutxatik.
Zaxut: ?
Zegaiti ekusen: zeren ikusten zuen, ikusten bait zuen.
Baltziturik: bezturik.
Beaturik: ?

Onra emaiterren: ohorea ematearren, emaitteagatik.
Egiten aginetan dau: egiteko agintzen du.
Haen aldean: haren ondoan, alboan.
Irudi eiteko atxinakoak: antxinakoak iruditzeko, hots, antxinako Bizkaitarren antze-koak izateko.
Atxinarik: antxinatik, aspalditik.
Zegaiti dituezan: zeren dituzten, dituztelako.
Tronpeteagaz: tronpetarekin.
Zematu: mehatxatu, mehatxu egin.
Zengizanean: zintuenean.
Zengiozala: zeniezazkiola?
Leizula: (?) gaur honek *lizukeela* edo *leki-zukeela* esan nahiko luke.
Egizan: zituen.
Zudai: ?
Eguntaino: egundaino, orain arte.
Horrelangorik: horrelakorik.
Ez eta balira: ezta balira ere.
Onreagaz: ohorearekin.
Giza legen: giza legean, gizon moduan.
Bazakioz: jarraitu bazakizkio, jarraitzen ba-diozu.
Ekusi daizu: ikus ezazu.

Sekula gorde eikezu: gorde ezazu beti.
Zorra deutsazu: zorra diozu.
Ezpa ia zinean: bestela ia zinen, zineten. Aditz forma hauen subjektua zuek ere izan liteke.
Biziak bizi: formula oso finkatua gaur ere. *Hilak hil, biziak bizi. Hilak hil, biziak aurrera...* etab.
Izan zidia: izan da, izan zen?
Akordetako: gogoratzeko, oroitzeko.
Baltzietako: baltzitzeko, bezteko.
Albiste: albiriste, berri onaren ordainez ematen den saria.
Indazu: emaidazue, egidazue.
Zegaiti deutsudan negu guztiko zer esan ifini: zeren dizuedan, negu guztiko zeresana ipini bait dizuet.
Sugaterako: sueterako, suterako, sutondorako. Orduan ere kontuak eta ipuinak neguan eta sutondoan, astiz eta epeletan.
Egizu: egizue.
Urtera: hurrengo urtean, urtebete barru?
Eztaukezanak: ez dauzkatenak.
Gestoak: gaiztoak.
Hala daukezala: hala eduki ditzatela.

Adolfo Arejitaren transkribapena jarraitu dut, gaurko ortografian jartzea neure kontua izan delarik. Hespania dagoen moduan uztea intergarri iruditu zait. Hispaniaren hatxea hor dabil oraindik. Irakurlea ohartuko zenez, aditz laguntzailearen formak gaurkoen oso ezberdinak dira oro har: *zitean, zidin, zidia, egian, zengizan, egiezan...* Aditz sintetikoak ordea berdintsuak dira: *egozan, dinoe, ekardezan, daukaz, beroa, daukezanak...* Horrez gainera, badira arkaismoak: *rean* atzizkia, aditzean zu-zuek subjektuen forma bera, *Ondarribaia, kristiau...* *Gabatxu* hitza ere, frantsesei aplikatua, ez dela atzo goizekoa agiri da. Buka dezadan esanez testu luze eta bitxi hau zehaztasun guztiekin argituta norbaitek ematerik balu, askok estimatuko lukeela, neu tartean naizela.

RAFAEL MIKOLETA (1653)

Mikoleta bilbotar abadeak 1653. urtean euskal gramatika gisako bat idatzi zuen: *Modo breve de aprender la lengua vizcaína*. Liburutxo honek 1880. urterarte ez zuen argirik ikusi. Gramatika horretan, euskaraz bi poesi jenero daudela dio. Bataren adibidetzat *Amoren kontenttuak* ematen du. “Bestea luzeagoa da, -dio gaztelaniaz-, soneto gisakoa”, eta adibidetzat *Denpora baten* dakar.

AMOREN KONTENTUAK

(Textos arcaicos vascos, Luis Mitxelena. *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, Ibon Sarasola. A.S.J.U., XI, 133. orrialdetik aurrera)

01 Amoren kontenttuak
ez daude irauten
kanpoan lorak legez
dira galtzaiten.

05 Honegaz amoreak
dau gogaituten
kanpoan lorak legez
dira galtzaiten.

02 Lar adi bazagokaz
fabore bateri
etorriko jatzu
gatxa bertati.

06 Aserrengo gino
kontentu izanik
ez da inor joango
amoreaganik.

03 Ta ahaztuten badozu
ez dozu ondo eiten
kanpoan lorak legez
dira galtzaiten.

07 Urtan bitsa legez
dira joaten
kanpoan lorak legez
dira galtzaiten.

04 Alkar on baderetxe
bertan zeloak
penaz betetan ditu
bien gogoak.



01. **Amoren:** maitasunaren.
Ez daude: ez dute.
Legez: bezala.
Galtzaiten: galtzen.
02. **Lar:** larregi, gehiegi.
Adi: begira, beha, so.
Bazagokaz: bazagozkio.
Lar adi bazagokaz: gehiegi begiratzen badiozu.
Jatzu: zaizu.
Gatxa: gaitza.
03. **Ahaztuten:** ahazten.
04. **Alkar on baderetxe:** elkar maite badute.
Oneretxi: maite izan. / Maitasuna.
Betetan: betetzen.
05. **Honegaz:** honekin.
Gogaituten: gogaitzen, aspertzen.
06. **Aserrengo gino:** Mikoletak berak *hasta el postrero* erdaratzen du. Azkeneraino, beraz.
Amoreaganik: amoreagandik, maitasunarengandik.
07. **Urtan:** uretan, urean.
Bitsa: aparra.

DENPORA BATEN

(Aurreko bera)

- 01 Denpora baten on oi neretxu
baia mudadu nindia
zerren penatan bihor ekida
emon zengidan gloria.
- 02 Alper alperrik iminikozu
zeure fuerzea ta izana
zerren ez dozu bihortuko
lehengo bihotza zeugana.
- 03 Zerren da duztiz haen gogorra
zein diamantezko harria
zerren penatan bihor ekida
emon zengidan gloria.
- 04 Borondatea forzadurik
berba labanez fingidu
esan zengida bestegatik
ez neidizula trukadu.
- 05 Baia besterren ahaztu zengia
nigazko oneretxia
zerren penatan bihor ekida
emon zengidan gloria.
- 06 Besten bihotza neugaz darabilt
bestek darabil enea
nik nola berri sufri ezazu
zeuk bere zeure penea.

- 07 Alper alperrik izango dozu
nigaz daukazun porfia
zerren penatan bihor ekida
emon zengidan gloria.



01. **On oi neretxu:** maite ohi zintudan.
Baia: baina.
Mudadu nindia: mudatu, aldatu nintzen.
Zerren: zeren.
Bihor ekida: bihurtu, bilakatu zitzaidan.
Zengidan: zenidan.
02. **Iminikozu:** ipiniko, jarriko duzu.
Fuerzea: bortxa, indarra.
Ez dozu bihortuko: ez duzu bihurtuko, itzul eraziko.
03. **Dutztiz:** guztiz.
Haen... zein: hain... zein, hain... nola, hots, diamantezko harria bezain gogorra.
04. **Forzadurik:** bortxaturik, derrigorturik.
Berba laban: hitz lerrakor, irristakor, hots, hitz engainagarri.
Zengida: zenidan.
Ez neidizula: ez zintudala, ezin zintudala trukatu.
05. **Besterren:** besteren, besterengatik.
Ahaztu zengia: ahaztu zenuen.
Nigazko oneretxia: nirekiko maitasuna.
06. **Neugaz:** neurekin.
Enea: nirea.
Bere: ere.
07. **Nigaz:** nirekin.
Porfia: seta, liskarra, lehia.

MARTIN ITURBE (1658)

1658. urtean, Salamancan, liburu bat argitaratu zuten izenburu honekin: “Relación de las demostraciones festivas de religión y lealtad que celebró la insigne Vniuersidad de Salamanca. En el deseado y dichoso nacimiento del principe nuestro Señor D. Felipe Prospero”. Liburu honen zati bati “Romances al Sexto Certamen” deritzo. Seigarren lehiaketa hartarako eskatzen zen “un romance, sin limitalle coplas, que heroicamente descriua todas las fiestas de la Vniuersidad; juntando las demostraciones de su vizarra juuentud, que liberal y magnificamente conspira en los regozijos y aclamaciones publicas”. Delako gaia, ohartzekoa denez, urrundik ere ez da poesia xeble honetan tratatzen, gainera poesi lehiaketaren antolatzaileek aurrikusi gabeko hizkuntzan idatzia bera. Argitasun hauek ia hitzez hitz Ibon Sarasolarenak dira, gaztelaniatik neuk euskaratuak.

FAMEA IGARO DA MUNDU GUZTIAN

(QUARTETAC GURE PRINCIPE IAVNEAN-ren D. Phelipe Prospero gaiocce dichosoan)

(*Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos. Ibon Sarasola. A.S.J.U., XVII, 90. orrialdetik aurrera*)

01 Famea igaro da
mundu guztian
Prospero jaio dala
Madrilko hurian.

03 Lurrean da itsasoan
zure izenak
bildurtu emen ditu
herrien bazterrak.

02 Handia bide zera
troxetan sarturik
bada mundu guztia
daukazu sorturik.

04 Ikaratu emen da
Asia guztia
Tartaria eta Txina
itsaso gorria.

- 05 Afrikan jausi dira
ilargiak puntuan
Espanian ekusita
eguzkia abenduan.
- 06 Nilo, Tigre, Eufrates
Asian da Afrikan
ibai handiak dira
Danubio European.
- 07 Handiak joan arren
itsaso gazira
Prosperoren izena
aditzean sortu dira.
- 08 Europak ekusi dau
bere buruan
Jupiter berri bat
aurtengo neguan.
- 09 Amerika zabalak
urrez jantzirik
salva egin deutsa
azpiko aldetik.
- 10 Askoren damugaitza
askoren bizitzea
Prospero, izan da
zure jaiotzea.
- 11 Borbonek uste eban
Espanian agindu
Austriak egun zugaz
eman dio ostiku.
- 12 Farrez horregati
Inperioko kortea
Milan da Polonia
eta Espania gurea.
- 13 Flandes haserrea
hori ekusita
Marte bihurtu da
etsaien kontra.
- 14 Zugati aurten, Jauna
Maoma urkaturik
zugati ekusi det
Cromuel errerik.
- 15 Napoles ederra
fiestak egiten
Portugalgo Atsoa
gorrotoz urtutzen.
- 16 Holandak ukatu arren
Austriako Etxea
zu izango zaitu
betiko Jabea.
- 17 Zizilia handia da
isleen artean
orain zabal jarri da
zure ustean.
- 18 Mallorca Mellorcagaz
Orfeo eginik
baleak dantzan dakaz
saltoka zugatik.

- 19 Jerusalem negarrez
lauren urtean
zure ustean dago
etsaien artean.
- 20 Afrikan Kristabak
gaizki trataturik
zure begira daude
malkoz handiturik.
- 21 Ea Prinzipe Jauna
goazen hazitzen
goazen Jerusalem
galdua irabazten.
- 22 Goazen Mairu herrira
Mairuen zatitzen
mendi Adlanteraino
guztia erretzen.
- 23 Horrekin ahaztuko da
Alexandro Handia
Ponpeion izena
Cesarren memoria.
- 24 Horrekin zure izena
mundua dan artean
luzaro biziko da
gizonen artean.
- ❧
01. **Famea:** fama, ospea.
Igaro: iragan, zabaldu.
Hurian: hirian.
02. **Bide zera:** zara noski, izan behar duzu.
Troxak: haur txikia biltzeko oihalak.
Sorturik: zurturik, txunditurik. Berdin
zazpigarren koplari ageri dena.
03. **Emen:** omen, ei.
05. **Jausi:** erori.
Puntuan: bat batean, "al momento" er-
daratzen du Mitxelenak. Gaur *oraintxe le-
hentxoago* edo *oraintxe gerotxoago* esan
nahiko luke: *Puntuan etorri da*, edo *pun-
tuan etorriko da*.
07. **Aditzean:** entzutean.
08. **Dau:** du.
09. **Salva:** gaztelaniazko *salva*, agurra. Ar-
mak tiratuz egin ohi den diosala.
Deutsa: dio.
10. **Damugaitza:** hondamena, kalte handia.
11. **Eban:** zuen.
Egun: gaur.
Zugaz: zurekin.
12. **Farrez:** barrez, irriz.
13. **Haserrea:** haserretua, sumindua.
Marte: Martitz, gerraren jainko erroma-
tarra.
14. **Cromuel:** Cromwell.
17. **Zure ustean:** zure itzaropenean, zure
konfidantzan.
18. **Mellorcagaz:** Mellorcarekin.
Dakaz: dakartza.
19. **Lauren:** laurehun.
20. **Kristabak:** kristauak, giristinoak.
21. **Prinzipe:** printze.
Goazen hazitzen: goazen haztera, haur-
txo jaioberria handi egitera.
22. **Mendi Adlanteraino:** Atlas mendiraino.

Benetan kopla hanpatuak haurtxo baten jaiotzarako. Prospero hura nor izan zen ez dakit, baina nor izan zitekeen pentsatzen hasita, zail da handiagorik irudikatzen. Zeru-lurretako elementu guztiak abian eta gor-te guztiak -batzuk pozez, besteak suminez- hankaz gora ipini ondoren, azkenean Alexandro Handia, Ponpeio eta Cesar ere memoritik ezabatzen ditu, handiaren handiak azken koplan inkongruentzia bitxia eragiten badio ere. Mundua dan artean luzaro biziko omen da. Zertan gara? Mundua dan artean ala luzaro? Gure Martinek, hainbeste handiespenek okatu ez gaitzan, *luzaro* soil baten normaltasunera itzul erazteko grazia egin nahi ez badigu. Prospero ez dakit, baina Iturbe bazen norbait.

NIKOLAS ZUBIA ARAOZ JOSE LEZAMIZ

1647an Durangon jaio eta 1694ko azaroaren 7an hil zen Nikolas Zubia Araozek bere *Doctrina Christiana en Bascuence* argitarara eman zuen Donostian. Liburu hau gaur galdua dago, edo aurkitu gabe behintzat.

Jose Lezamiz ere Durangoarra zen, 1654. urtean Durangon jaio eta 1708. urteko abenduaren 23an Mexikon hila. Honek, Mexikoko Katedralean apaiz zegoela, *Vida del Apostol Santiago* izeneko liburua argitaratu zuen, non hain zuzen Nikolas Zubiaren liburutik harturiko *Marijese* kopla hauek ematen dituen.

GAU ON SANTU HONETAN

(Textos arcaicos vascos. Luis Mitxelena. *Contribución a al estudio y edición de textos antiguos vascos*. Ibon Sarasola. A.S.J.U., XI, 138. orrialdetik aurrera)

01 Gau on santu honetan
Jaunaren jaiatzean
pozgatu gaitean
guztiok bihotzean.

02 Aita Adan egin zan
lurraren ganean
bekatu egin eta
jausi zan artean.

03 Linboan egoan
bost mila urtean
Jauna, jatsi zaitez
zeruetarean.

04 Negarrez dago han
hainbat urtean
Jauna, jatsi zaitez
zeruetarean.

05 Dontzeila eder batek
Belengo herrian
seina Jesukristo
dauko sabelean.

06 Eguzki dibinala
gauerdi batean
etorri zan lurrera
gizonen soinean.

Coloquio entre los pastores:

01 Matxinikito
zer dio, Txeru?
Atzorik hona
ze barri dogu?

02 Barri dogu ze
angeru mila
gure menditik
irago dira.



01. **Jaiatzean:** jaiotzean.
Pozgatu: poztu.

02. **Jausi:** erori.

03. **Zeruetarean:** zeruetatik. Atzizki ar-
kaikoa.

05. **Seina:** haurra, umea.

06. **Soin:** gorputz. Hemen eta zenbait textu
zaharretan *soineko* izan daiteke. Kopla
honen beste aldaera batzutan ere *gizonen
jantzian, gizonen trajean* agiri da.

01. **Atzorik:** atzotik, atzodanik.

02. **Ze:** ezen.
Irago: igaro, iragan.

MIGEL BASTERRETxea (1685)

Migel Basterretxeak Eibarko Untzaga plazan kantatu zituen ondo-
rengo kopla hauek. Herriko bikarioari, Don Antonio Elzarzagari, ez zion
tobera jotze hark grazirik egin eta koplaria auzitara eraman zuen. Auzi
horretakoxe sumarioan datoz hain zuzen kopla ustez hogendunok. Epaian
mutilari fidantza haundi bat ezartzen diote eta hura ordaindu arte, preso
dago. Bera morroi soila izanik, zerez ordaindurik ez zeukan, baina auzi
guztian bere morroiaren alde gartsuki jokatu zuen ugazabak, Untzaga
Dorreko Domingo de Olabek, mila marabedi ordaindu zituen eta orduan-
txe askatu zuten mutila. Migel Basterretxea ez zen segurrenik koplari
egilea bera izango, baina zigorra berak jasan behar izan zuen, gizajoak.
Kopla hauen historia bitxiar gehiago jabetu nahi duenak beherago aipa-
tzen den liburuan dauka argitasun ugari.

KONTU BARRI BAT SUZEDIDU DA

(1685eko Kopla Zaharrak. Juan Mari Lekuona, J. I. Lopez de Luzuriaga, Antxon Narbaiza. Juan
San Martinen hitzaurrea. **Ego Ibarra**. 1992. 6. Ehunda bi orrialdeko liburuskara, kopla hauei
buruzko monografikoa).

01 Kontu barri bat suzedidu da
errebaleko kalean
errebaleko kalean eta
andra gazteen artean.

03 Bikarioa dogoa legez
alegre eta librea
andra guztiok baterren beste
ha darabile maitea.

02 Zeloak gora zeloak behera
zeloak euren artean
Ugartek orain aterako dau
saltsea bere gainean.

04 Amodioa zoro da beti
amoraduen artean
Ugartek orain probatzen ditu
zeloak zertzuk direan.

- 05 Bariakua soila da legez arik zapatu goizeko ordu bietan presente dago Bikarioaren aurrean.
- 06 Zeloegatik enojaduta hasarre zitezanean bere bolsearen eskatu jako publiko kale betean.
- 07 Haek halanik irago arren Ugarte beti kalean Magdalentxori bentanarako bidea galdu artean.
- 08 Falta ez ditu adiskideak Ugartek bere aldean ibarrekoak egin ditue bakeak haen artean.
- 09 San Kristobalگو seinaladuta meriendea formadu San Kristobalez akordatuta Mirabailesen juntadu.
- 10 Aldatzetikan Bikarioa ta Matxarirean Ugarte Ibarrekoak aldean ditu bere laguntzat han bere.
- 11 Etxean ondo giadu arren hara ordu hotzitu berotu baga meriendea jan ezin leike ziertu.
- 12 Sua da legez gauza beharra aldean dabe ifini hango abarrak argi dakik herri guztiti.
- 13 Mirabailesko palazioak hobato dakiz kontuak ostera bere egingo dituz bakotxak bere kantuak.



01. **Suzedidu:** jazo, gertatu.
Errebal: aldiria, bazterrean dagoen auzoa. Gaur ere bada Errebal kalea Eibarren.
02. **Zeloak:** jelsia.
03. **Dogoa legez:** dagoan legez, dagoenez, dagoenez gero. *Dogoa* horrek *dogoa* izan behar du: *dagoalegez*. Erdian N galtzea normala da.
Baterren beste: bateren beste, batean batek eta bestean bestek esan nahi duela dirudi.
Ha darabile: hura darabilte.
04. **Amoradu:** maitemindu, enamoratu. *Amore*-tik *amoradu* zuzenean, *en* aurrizki gabe.
05. **Bariakua:** ostirala.
Da legez: dan legez, denez, denez gero.
Arik zapatu goizeko: esaldi iluna da hau, errimatzen ez duena gainera. Badirudi

- zapatu goizerarte, arik eta zapatu goizera* esan nahi duela.
Zapatu: larunbat.
06. **Enojaduta:** haserreturik, irriturik, ernegaturik.
Zitezanean: haserretu zirenean. Forma arkaikoa.
Bolsearen eskatu: bolsa, poltsa eskatu. Bizkaieraz esamolde arkaikoa, Iparraldean oraindik oso gaurkoa.
Jako: zaio.
07. **Haek halanik:** haiiek hala.
Irago: igaro, iragan.
Bentana: leiho.
08. **Haen:** haien.
09. **Formadu:** formatu, atondu, antolatu.
Akordatu: gogoratu, bururatu. Baita izan liteke *erabaki*, akordura heldu.
Juntadu: juntatu, bildu.
10. **Aldatz:** aldapa, malda.
Matxarirean: Matxaritik. Atzizki arkaikoa. *Aldatzekoek* eta *ibarrekoek* Eibar-ko goitarrak eta behetarrak dirudite, *Matxaria* leku-izen bat edo auzo bat delarik.
- Juan San Martinek *ibarrekoak* Ibarra jau-regikoak direla ulertzen du. *Aldatzetikan* ere Aldatze jauregia izango dela dio, beherago *Mirabailes* deitzen zaiona.
Aldean: ondoan, inguruan.
Bere: ere.
11. **Giadu:** gidatu. / Prestatu, zaindu, gobernatu.
Hara ordu: *hara orduko* izan behar duela dirudi, hots, hara heldu aurretik, hara iristerako.
Hotzitu: hoztu.
Baga: bage, gabe.
Leike: liteke.
Ziertu: ziur, segurki.
12. **Da legez:** dan legez, denez, denez gero.
Argi dakik: esaldi iluna, eta gainera gaizki neurtua, beraz, transkribapen okerra izan daiteke. Badirudi *argi dagie, egiten dute*, esan nahi duela, hots, abarren sua herri guztitik ikusten dela.
13. **Hobato:** hobeto, hobeki.
Dakiz: dakizki.
Ostera bere: berriz ere.
Dituz: ditu.

UNIVERSITY OF TORONTO

XVIII. MENDEA

MARIA ANTONIA SOLOAGA GERENAGOENA

J. R. Iturriza (1741-1812) historilariak badu liburu ospetsu bat, argitaratua dagoena, *Historia General de Vizcaya* deritzona. “Lan horren oinarri legez... beste hamar-hamabi tomo osotu zituan, *Antigüedades de Vizcaya* izenburupean... Tomook ez dira inoiz argitara emon... Laugarren tomo honetan, bada, eta 285gn orrialdean hain zuzen, aurkitu dogu euskerazko olerki hau”.

Ander Manterolaren argitasun hauek nahiko testu zaharraren aurrean jartzen gaituzte, Iturrizak aurretik ezaguna zena emango bait zuen noski. Bertsoen egile *Maria Antonia Soloaga* horren lorratzik ez dago, oraingoz behintzat.

ADISKIDE BAT DAUKAT

(Octabas de la agonía de la muerte y amargura de la sentencia final en el tribunal de Dios sacadas por M. Antonia de Soloaga y Gerenagoena. Aurkezpena eta transkribaketa: Ander Manterola. Hizkuntzazko oharrak: Adolfo Arejita. Euskeraren Iker Atalak 2. 1983, uztaila)

01 Adiskide bat daukat
gutziz amantia
da neure bihotzian
gutziz noblia.
Hemen nago bakarrik
asko penadurik
orain ausentadu naz
amantiaganik.

02 Kontu ataraten dot
kasu honetarik
neure heriotzia
konsideraturik
arimia ta gorputza
hain maitiak izanik
zelan apartauko dira
bada alkarreganik.

03 Heriotziak hartu nau
ai orain dakit nik
neure sentidu guztiak
ia dagoz hilik.
Oh ze larritasuna
konsideradurik
bua neure arimia
gorputz honetarik.

04 Guztiz ikara dago
neure arimia
orain konsideradurik
eternidadia.
Ai nik hau pentsau baneu
sarritan lehenago
honenbeste tristeza
ez neban eukiko.

05 Neure bizitziaren
kontu emotera
orain jua bihar dot
Juezaren aurrera.
Oh ze tribunalian
sartu bihar dodan
ai ze kontu estua
emon bihar dodan.

06 Juez magestoso bat
tronu handi baten
orain ikusten dot
kontua hartuten.
Ikaraturik nago
lehen baino gehiago
ze sententzia hemen
ezedot hartuko.

07 Hainbeste demoninok
inguratu nabe
neure pekatu guztiak
agertu ditube.
Juezaren aurrian
berba egiten dabe:
geuria izan da hau
oraingino bere.

08 Justizia zuzenak
kastigauta dauko
pekatu bat gaiti
infernuan asko.
Han merezidu dot nik
eternidadia
pekatu guztiena
nahi sepultura.

09 Neure aingeru guardia
anparau nagizu
nezesidade honetan
lagun egidazu.
Miserikordiazko
aita maitiari
arren sententzia on bat
emoteko niri.

10 Sarri abisau zaitut
zeure bihotzian
lantze triste honegaz
akordau zatian.
Gaztia izan arren
ez zagoz seguru
oraintxe bihar dozu
sarritan pentsadu.

11 Adiskide euki banitu
santu-santa asko
orain egongo nitzan
ni alegriago.
Ez dot bada inor euki
dabozinoerik
hagaiti nago orain
desanparadurik.

12 Jaungoikuaren ama
Birjina Maria
ama guztiz ona
da txito handia.
Lekua emongo bazeust
zerbait esateko
zeuri berba egitia
desiauta nago.

13 Zeure semia zein dan
Juez zuzen hori
haserraturik daukat
pekatuak gaiti.
Ama pekatarien
esaten deutzue
bada neuria bere
arren izan zaite.

14 Jaungoikuaren ama
zeu zara bakarrik
arren librau naizu
betiko penarik.
Ostera eskatuteko
ez daukat lekurik
beluengo arnasia
ia emon dot nik.



01. **Da:** eta.
02. **Honetarik:** honetatik.
Zelan: nola.
Apartauko: apartatuko, bereziko.
03. **Sentidu:** zentzu, zentzumen.
Bua: badoa.
04. **Baneu:** banu.
Neban: nuen.
05. **Juez:** juje, epaile.
Dodan: dudan.
06. **Ezedot:** hau errakuntza izango da segur-
rrenik, hots, *etedot*, ote dut. Edo bestela
ez ete dot laburturik.
07. **Nabe:** naute.
Ditube: dituzte.
Berba egin: hitz egin, mintzatu.
Dabe: dute.

- Oraingino:** orain arte.
Bere: ere.
08. **Dauko:** dauka.
Nahi: nahiz.
Sepultura: hilobia.
09. **Aingeru guardia:** aingeru jagolea, zain-
tzailea.
Nagizu: nazazu.
10. **Sarri:** maiz, sarritan, askotan.
Lantze: une, kinka.
Honegaz: honetaz.
Akordau zatian: oroitu, gogoratu zaite-
zen.
Zagoz: zaude.
11. **Inor:** zentzuak *inoz* (inoiz) eskatzen duela
dio A. Arejitak. Bestela *inor...* *debozinoe-*
korik. Dena den, autoreak *inor...* *debozi-*
noerik jartzea ere ez da harritzeko, ber-

tso hauek bestela ere gramatikatik -gaurkotik behintzat- askatu samar eginda bait daude.

Hagaiti: hargatik.

12. **Da:** eta.

Txito: txit, oso, arras, biziki.

Bazeust: bazenit.

13. **Zeure semia zein dan:** erlatiboaren forma itxuraz premia gabea, zuzenean naturalago bait legoke: *zeure semia dan Juez zuzen hori.*

Ama pekatarien: pekatarien ama.

Deutzue: dizute.

14. **Naizu:** nazazu.

Penarik: penatik.

Ostera eskatuteko: berriz eskatzeko, galdatzeko.

Beluengo: belurengo.

Belu: berandu, berant. Beraz, *beluengo arnasia:* azken arnasa edo hatsa.

AGUSTIN BASTERRETXEIA

Lekeition jaiotako euskal idazle hau (1700-1764) Jesusen konpainiako kide eta teologi eta filosofi irakasle izan zen. Urduña eta Lekeitioko komentuetan nagusi eta Bizkaiko herrietan zehar misiolari ibili zen urteetan. Hiru liburu idatzi zituen bertsoz: *Guisonaren acabuco lau gausac, Anima penitente baten negarrac* eta *Jesucristo gueure Jaunaen pasinoia eusqueraco versuetan.* (*Elhuyar Hiztegi Enziklopedikoa*-tik jasoriko datuak)

Bartolome Olaetxeak, Arteagan jaiotako abade idazleak, liburu hau idatzi zuen:

CRISTINAUBEN DOTRINIA

D. Bartolome Olaetxea

Bilboko Hospitale Santuco Erretoriac,

Laukarizko Cura zanian,

jai domeketan espliquetan evan lez.

Liburu hau literatura erlijiosoan garrantzi handikoa izan zen eta hain zuzen bertan jasotzen ditu Agustin Basterretxearen Pasioko bertsoak eta Errosarioko misterioak.

JESUKRISTORI KENDU EZKERO

(Jesucristo gueure Jaunaen Pasinoia eusqueraco versuetan)

01 Jesukristori kendu ezkeru
pekatuagaz bizia
baldin ez badot negar egiten
harrizkua dot bihotza.
Guztiok lagun
kantadu daigun
bere penazko heriotza.

02 Mundua baino askoz lehenago
seinalauriko eguna
heldu izan zan obretarako
gizonaren osasuna.
Argia bera
alde batera
besteti egun iluna.

03 Eguen santu afal onduan
bere lagun zituzala
Jesussek hiru diszipuluai
berba egin eutsen honela:
Triste nago ta
lo hori bota.
Egizu hemen gaubela.

04 Getsemaniko Ortu Santuan
ahuspez lurrian jarririk
esketan eutsan librau leiala
Aitari Kaliza hatarik.
Jesus penatzen
odolez urtzen
eta ez dot nik negarrik.

05 Izerdi hotza arpegian ta
bihotza penen artian
triste arimia gorputza larri
agoniako trantzian.
Baina halan bere
eguan firme
Aitaen borondatian.

06 Judeguak Judas lagun harturik
etorri zirian itantzen
Nazarenu deritxon Jesus
hemen ete da aurkitzen?
Judas orduan
bake moduan
doa mosua emoten.

07 Oh zeinbat dira Judas legez
Kristoen adiskidiak
kanpotik laztan barrutik saldu
hausirik bere legiak
kristinau falso
arima gezto
pekatari traidoriak?

08 Erantzun eban Jesus maitiak:
Zeinen bila zatoz hona?
Hara hemen dago, ez da besterik
gura dozuen gizona.
Juateko ez dot nik
soka biharrik
ez heldu lagunok ganak.

09 Eskuetarik lotu izan eben
guztion libertadia
zegaiti hau zan geure onian
Jaunaen borondatia
urratuteko
hainbat urteko
pekatuaren katia.

10 Diszipuluak euren maisua
ebenian halan ikusi
bakar bakarrik bera itxita
juan zirian igesi.
Pedro etorren
bere ondoren
baina hau bere urruti.

11 Darue bada Jerusalengo
Sazerdotien aurrera
diszipuluuen ganian eta
doktrinan kontu hartzera.
Kaifas geztua
aurrerengua
hasten jako itantzera.

12 Ez dot nik, dino Redentoriak,
predikadu ezkutuan
agiria zan nire dotrinia
sinagoga ta tenpluan.
Ez niri itandu
bada asko dira
entzun dabenak munduan.

13 Errespuesta aditu eban legez
soldadu batek bertati
gora darua bere besua
eta dirautso Jaunari:
ikasi daizun
zelan erantzun
ostera Pontifiziari.

14 Esan ta egin, emoten deutso
bere arpegi ederrian
belarrondoko handi bat, zeinak
ezarri eban lurrian.
Eta zeruak
dagoz lotuak
hau ikusi dabenian.

15 Nozko dira, Aita Eternua
tximistak eta arraiuak
ez erretako han berpertati
esku hain sakrileguak?
Angeruak ea
hel zaitez hegaz
nun dituzuez heguak?

16 Baldin deungaro berba egin badot
errazoa emon egizu
baina ez badot, dino Jesussek,
ezetan bere erratu
zegaiti arren
berba egin arren
honan tratetan nozu?

17 Iridazu, Jesus bihotzekua
zeure sufrimentu hori
jakin dagidan zelan penetan
emongo dodan arpegi.
Parkatuagaz
bihotz osuaz
enemigo handienari.

18 Damu dot Jauna bihotz gutzirik
zeu ofendidu izana
ez, ez gehiago pekatuak
neure Jangoiko laztana.
Lar da kulparik
beto hagaiti
pena horrek nigana.

19 Sua eguan eskeplan ta
Pedro su hatan berotzen
zerren bihotzak amodiuan
hotz asko eutsan sentitzen.
Su horren kiak
bere begiak
negarrez bete zituan.

20 Zerren oilarrak ez eban emon
birritan bere soinua
nun hiru bider ukatu eban
San Pedrok bere maisua.
Ez da besterik
okasinoerik
ateraten da pagua.

21 Kaifasek barriz itantzen deutso
eginik juramentua
esaidazu, Jesus, bazara
Mesias prometidua.
Halan ez bada
zetako izan da
mundua engainetia?

22 Ondo ekian Jesusek nora
joian konfesinoia
topetan eban kondenetako
Kaifasek okasinoia.
Eta haregaz
gura eutsan egin
hilteko akusazinoia.

23 Halan bere baietz erantzuten dau
Aitari begiraturik
baita Kaifasek bere dehadar
soinekuak urraturik.
Blasfemuena
da honen pena
ia dago kausia eginik.

24 Jagiten dira konziliorik
da hartuten dabe bidia
Amargurara, non Pilatosek
eukan bere etsia.
Zan Erromako
denpora hatako
Judeguen presidentia.

25 Juezak dino: emongo badot
gizon hau heriotzara
ekarri egizuz kausa justuak
eta ez badira zetara
honan narabilzu?
Eruan egizu
hor Herodesen aurrera.

26 Aita eternuaen jakituria
dauko munduak zorotzat
hagaiti dino: errege horri
jantzi tunika zuri bat.
Eztabere zelan
zeruko estola
erosiko zan guretzat.

27 Esan eutsen Pilatoseri
Judeguen sazerdotiak:
uste al dozu ez doguzala
guk bere geure legiak?
Blasfemadu dau
merezidu dau
heriotzia eta azotiak.

28 Honek esan dau, izanik harotz
probetxu baten semea
dala Jangoikuaen seme eta
Judeako erregia.
Hilten ez badozu
etzara ez zu
Cesarren adiskidia.

29 Gura eukian juezak Jesus
heriotzarik libradu
zegaiti bere inozentzia
ondo eban ezagutu.
Baina Judeguak
egozan itsuak
ez eutsen permitidu.

30 Heriotza bat eginda, dino,
dago Barrabas kartzelan
nor gura dozu, Nazarenu
edo ha libradu dagidan?
Da kostunbria
bat libretia
zeuen Pasko egunian.

31 Ozta ahorik atera eban
hasi zirian dehadarrez:
librau egizu Barrabas baia
Jesus Nazarenu ez.
Horrek bihar dau
ondo penadu
habe batian dolorez.

32 Otera itantzen dau Pilatosek:
Baia ze kausa emon dau?
Israelko errege bada
esatia da pekatu?
Haek dehadar:
Errege Cesar
hori krutzian iminzu!

33 Jangoikua bera, zeinek daukan
mundua loraz jantzirik
kortesia baga bere erropak
tunikagino erantzirik
narru gorrian
egun argian
itxi eben lotsaturik.

34 Nun zara bada, eta hodeiak,
iluntasuna, nun zara?
Zelan ez zatoz Birjinaen
seme eder hau estaltzera?
Hola eguzkia
zeure argia
bialdu egizu atzera.

35 Bost mila azote eta gehiago
Loturik kolumna baten
hasi zirian hiru borrreru
bere espaldetan emoten.
Erreka bat zelan
odola halan
hasi izan zan jausiten.

36 Harriak eta Salbadoriak
biak alkar zirudien
zegaiti etzan honen ahoti
sentimenturik entzuten.
Marmolak eurak
golpe kruelak
dituenian hartuten.

37 Pilar gogorrerik laster Jauna
soldaduak askaturik
duaz guztiak adoretara
burlaz errege eginik
bere koroia
arantzazkua
buruan estu josirik.

38 Mantu zantarra soinian eta
kainabera bat eskuan
hanelan Jesus tratetan eben
pekatariak munduan
mundua bera
redimietara
Jauna etorren orduan.

39 Jesus honelan ikusi eta
Pilatos errukiturik
dino: nik ez dot aurkituten
gizon honegan errurik.
Bada hil egizu
gura badozu.
Erroman ez da legerik.

40 Haek dehadar: Jauna dalako
Pilatos, bildur bazara
etorri deila horren odola
geure arimen ganera.
Eta ordura
geure kontura
kondena egizu krutzera.

41 Juez geztuak sazerdotien
esana egitiagaiti
publiketan dau sententzia bat
ez inok okerragorik.
Eta gura dau
libre gelditu
Jangoikuaen odolerik.

42 Alper alperrik, presidentia
garbietan dozak eskuak
juez justotzat euki hainzat
hipokritori munduak.
Lotuta hago
baina gehiago
hi baino bere Judeguak.

43 Krutze batian mundu guztiko
pekatuak zituzala
urten eban Kalbariora
Jesusek lapur bat legez.
Hartu krutzia
hau da bidia
galduko gara bestelan.

44 Salbadoria pausu bat bere
ezin emonik aurrera
krutze astunak azpiratuta
benzidu eban lurrera.
Oh pekatua
zure pisua
karga guztia zu zara.

45 Ezin bakarrik eruan eban
zalako guztiz astuna
eta horregaiti emonik eutsen
Zirineoa laguna.
Ditxazko gizon
zu zara Simon
nok leukean zure eguna!

46 Bide honetan joianian
Kalbarioko mendira
bere semia kontenplatzeko
ama eguan begira.
Han dira penak
han tormentuak
martiriuak han dira.

47 Ama Birjina afligidia
itxi egizuz begiak
estaldu zaite, hain baga bere
asko darua semiak
tormenturik.
Berba egiterik
ez deutsu itxiko negarrak.

48 Bihurtuten dituz amak begiak
semia ikustera
baina bihotzak sufridu ezin ta
bihurtzen dira atzera.
Datoz hagaiti
begietatik
bihotzak berba egitera.

49 Semiaenak esaten deutso:
bakizu, ama maitia
asko sentietan badozu bere
honan ni ikustia
bestelan ezin
zeruakaz
egingo dala bakia.

50 Neure aitaen borondatian
zeuria beti daukazu
haen esanak narua. Agur!
Bendizinoia indazu.
Neure ordiaz
pekatariakaz
kontua zeuk eukazu.

51 Amiak dino: zuaz, neure Jesus
hiltera ordu onian
baia zelan ni itxi gura nozu
bakartade hain tristian?
Oh, zelan bai nik
eta ondo pozik
jarraituteko neukian!

52 Salbadoriak honelan penaz
eginik bide erdia
Beroniken karidadiak
kendu eutsan izerdia.
Obra honen pagu
Jaunak isten dau
pinturan bere aurpegia.

53 Juazan bada bere laguntzen
Jerusalengo alabak
penaen handiz begietatik
urturik euren bihotzak.
Eta eurakana
bihurturik Jauna
dino: ai emakumia!

54 Arbola heze hau erre badau
pekatuaren su garrak
zelan ez dituz abrasaduko
su horrek egur igarrak?
Ez niri negar
ez dot nik bihar.
Pekatuari negar.

55 Heldu zirian Kalbariora
egozan prest borreruak
mundu guztiko Egiliari
josteko oinak ta eskuak
ikusi egian
bigarren Adan
arbola hatan munduak.

56 Nok dituz esku eta oin horrek
burdiniagaz idigi?
Gorrotuak edo amodiua
odolezko lau iturri.
Bai bularreti
ate idigiti
amoria da agiri.

57 Baltzez jantzirik ezkutetan dau
zeruak bere arpegia
lotsiagaiti geldituten dala
gorrituta irargia.
Gau ilunian
eguanian
altuena eguzkia.

58 Hausten dira harriak, zelan
dagoz bihotzak osorik
krutze baten dolorez hilten
geure bizitzia ikusirik?
Pekatoriak
gora begiak
negar iturri eginik.

59 Gogoti negar egingo deusut
jarririk zeure oinetan
neure Jaun ona, zaitudalako
imini krutze horretan.
Daukat damua
zu ofendidua
gauza guztien ganian.

60 Izanagaiti Jesus maitia
neure pekatua handia
preziosua da zeure odola
hau dakidala balia.
Piedadia
neure Jabia
Jauna, miserikordia!



01. **Pekatuagaz:** pekatuarekin.
Kantadu daigun: kantatu dezagun.
02. **Seinalauriko:** seinalatutako, markatu-
riko.
Obretarako: obratzeko, eragiteko, egin
erazteko.
03. **Eguen:** ostegun.
Zituzala: zituela.
Berba egiten eutsen: hitz egiten zien,
mintzo zitzaien.
04. **Ahuspez:** ahoz behera etzanda edo
makurturik.
Esketan eutsan: eskatzen zion.
Librau leiala: libra, aparta zezala.
Hatarik: hartarik, hartatik.
05. **Halan bere:** hala ere.
Eguan: zegoen.
Firme: irmo, tinko.
Aitaen: aitaren. Berdin geroago agertzen
diren zenbait: **haen, semiaen, Kristoen,**
jaunaen, penaen...: haren, semiaren,
Kristoren, jaunaren, penaren...
06. **Judeguak:** juduak.
Itantzen: galdetzen.
Deritxon: deritzan, deitzen den.
Doa mosua emoten: doa musua, lazta-
na ematera.
07. **Hausi:** hautsi.
Kristinau: giristino, kristau.
Gezto: gaizto.

08. **Eban:** zuen.
Gura dozuen: nahi duzuen.
Ez heldu lagunok ganak: ez heldu lagu-
nok gana edo lagunongana izan behar du,
hots, ez hurbildu lagun hauengana, utz
bakean nire lagunei, apostoluei.
09. **Eskuetarik:** eskuetatik.
Eben: zuten.
Urratuteko: urratzeko, hausteko.
10. **Ebenian halan:** zutenean hala.
Itxita: utzita, lagata.
Etorren: zetorren.
11. **Darue:** daramate.
Jako itantzera: zaio galdetzera.
12. **Predikadu:** predikatu.
Nabenak: nautenak.
13. **Errespueta:** arrapostua, erantzuna.
Aditu eban lege: entzun zuenez batera,
entzun eta berehala.
Bertati: bat batean, berehalaxe.
Darua: darama.
Dirautso: diotsa, esaten, erraiten dio.
Daizun: dezazun.
Zelan: nola.
Ostera: berriz, hurrengoan.
14. **Deutso:** dio.
Zeinak: erlatiboa.
Dagoz: daude.
Dabenian: dutenean.
15. **Nozko:** noizko.

- Arraiuak:** tximistak, oinaztargiak.
Erretako: erretzeko.
Berpertati: behingo behingoan, berehalaxe, atoan.
Zaitez: zaitezte.
Hegaz: hegan.
16. **Deungaro:** gaiztoki, zitalki.
Egizu: ezazu.
Dino: dio, erraiten du.
Ezetan bere erratu: ezertan ere huts egin.
Honan tratetan nozu: honela tratatzen nauzu.
17. **Iridazu:** irigidazu, ireki iezadazu.
Dagidan: dezadan.
Parkatuagaz: barkatuz, barkaturik.
Osuaz: osoz, osoarekin.
Enemigo: etsai, izterbegi, arerio.
18. **Guztirik:** guztitik.
Lar: larregi, gehiegi.
Horrek: horreik, horiek.
19. **Eguan:** zegoen.
Eskepiari: aterpean, lehorpean.
Hatan: hartan.
Zerren: zeren, zergatik.
Eutsan: zion.
Kiak: keak.
20. **Eban:** zuen.
Birritan: bi bider, bi aldiz.
Okasinoerik: okasionetik, okasiotik.
Pagua: ordaina.
21. **Itantzen deutso:** itauntzen, galdetzen dio.
Zetako: zertako, zertarako.
Engainetia: engainatzea, engainatzea.
22. **Ekian:** zekien.
Joian: zihoan.
Konfesinoia: konfesioea, konfesioa.
Topetan eban: topatzen, kausitzen zuen.
Kondenetako: kondenzatzeko.
Haregaz: harekin.
Gura eutsan: nahi zion.
23. **Dehadar:** deihadar, hots edo dei ozen.
Kausia: kausa, auzia.
24. **Konziliorik:** kontziliotik, erabakitzeko bilkuratik.
Hartuten: hartzen.
Amargurara: Amargura Kalera, samin, atsekabe kalera.
Eukan: zeukan.
Etsia: etxea.
Hatako: hartako.
25. **Juezak:** jujeak, epaileak.
Egizuz: itzazu, itzazue.
Honan: honela.
Eruan egizu: eraman ezazu, ezazue.
26. **Dauko:** dauka.
Ezpabere: bestela.
27. **Eutsen:** zioten.
Doguzala: ditugula.
Guk bere: guk ere.
Blasfemadu: blasfematu, birao egin.
Merezidu dau: merezi du.
Azotiak: zigorkadak, gorputzean kolpeak.
28. **Probetxu:** pobretxu.
29. **Gura eukian:** nahi zukeen, nahi izango zuen.
Heriotzarik: heriotzatik.
Egozan: zeuden.
30. **Ha:** hura.
Libretia: libratzea, askatzea.
31. **Ozta ahorik atera eban:** ahotik atera zuenaz batera, atera eta berehala.
Baia: baina.
32. **Ostera:** berriz, berriro.
Krutzian iminzu: gurutzean ipin, jar ezazu.
33. **Zeinek:** erlatiboa.
Baga: bage, barik, gabe.
Tunikagino: tunikaraino.
Itxi eban: utzi zuten.
Lotsaturik: ahalketurik.
35. **Kolumna:** zutabe, pilare.
Borreru: jotzaile, zigortzaile.
Espaldetan: sorbaldetan, bizkarretan.
Zelan... halan: nola... hala.

- Jausiten:** jausten, erortzen.
36. **Zirudien:** ziruditen.
37. **Pilar:** pilare, zutabe.
Gogorrerik: gogorretik.
Duaz: doa.
Adoretara: adozatza.
Burlaz: trufaz.
38. **Tratetan eban:** tratatzen zuten.
Redimietara: redimitzera.
39. **Egizu:** ezazu, ezazue.
40. **Haek:** haiek.
Deila: dedila, dadila.
Eta ordura: eta orduan.
41. **Publiketan:** publikatzen.
Inok: inork.
Odolerik: odoletik.
42. **Garbieten dozak:** garbitzen dituk.
Euki hainzat: eduki hazan.
Hipokritori: hipokrita hori.
43. **Urten eban:** igo zen. Gaur ere *urten* aditza esanahi horrekin erabiltzen da Lea-Artibai inguruko herri askotan.
Legez: bezala.
44. **Benzidu eban:** bentzutu, menperatu.
45. **Eruan:** eraman.
Eutsen: zioten.
Ditzazko: zorioneko, dohatsu.
Nork leukan: nork lukeen, nork eduki zezakeen.
46. **Joianian:** zihoanean.
Eguan: zegoen.
47. **Afligidia:** *afligituaren* femeninoa, penatua, samindua.
Itxi egizuz: hertsu itzazu.
Hain bage bere: hori gabe ere.
Hain: aurrerago aipatutako edo gain-uleretzen den zerbaitean ordezko hitza. *Lanarekin ondo, hain gabe hobeto. Osasuna daukanak lagun bitza hain gabe daudenak. Ez deutsu itxiko:* ez dizu utziko.
48. **Bihurtuten:** bihurtzen, itzultzen.
Hagaiti: hargatik.
49. **Deutso:** dio.
Bakizu: badakizu.
Sentietan: sentitzen.
Badozu bere: baduzu ere.
Honan: honela.
Zeruakaz: zeruekin.
50. **Narua:** narama.
Bendezinoia: bendizioa, bedeinkapena.
Indazu: emaidazu.
Neure ordiaz: nire orde, nire tokian.
Pekatariaz: pekatarietan.
Eukazu: eduki ezazu.
51. **Amiak:** amak. Gaur egun ama eta aita-hau gutxiago-, artikulua mugatzaile eta guzti, animaliekin bakarrik erabiltzen dira, batez ere hegazti eta animalia txikiak.
Zuaz: zoaz, joan zaitez.
Baia zelan: baina nola.
Itxi gura nozu: utzi, laga nahi nauzu.
Ondo pozik: poz pozik, oso, agitz pozik.
Jarraituteko neukian: badirudi hemen *jarraituko neukian* behar duela, jarraituko nukkeen.
52. **Isten dau:** uzten du.
53. **Juazan:** zihoazen.
Bere laguntzen: berari laguntzen, bera laguntzen.
Eurakana: eurengana.
54. **Abrasaduko:** kiskaliko, txingartuko.
55. **Egozan:** zeuden.
Egian: zezan.
Hatan: hartan.
56. **Nok dituz:** nork ditu.
Burdiniagaz: burdinaz, burniarekin.
Idigi: ireki.
Idigiti: irekitik.
57. **Ezkutetan dau:** izkutatzen du.
Irargia: ilargia.
Eguanian: zegoanean.

58. **Dagoz:** daude.

59. **Deutsut:** dizut.

Imini: ipini, jarri.

60. **Preziosua:** preziatua, baliotsua.

Piedadia: pietatea, urrikia.

Jesukristoren Pasioaren bertso sorta luze hau oso zabaldua izan zen Euskal Herrian, Hegoaldean behintzat. Kardaberazek gipuzkerara egokitu zuen. Neurria ere ohartzeko modukoa da: hamar-zortzi + hamar-zortzi + bost-bost + zortzi, hiru zortziek batera eta bi bostek bestera erri-matzen dutelarik. Kristau izan ala ez, pasioaren kondaira dramatiko oso ondo eramana dagoela aitortu behar. Ez da, beraz, harritzekoa baladak-eta hain maite zituen herriak bertso hauek, fedez aparte ere, gogoz kantatzea.

SEBASTIAN ANTONIO DE LA GANDARA

“Sebastian Antonio de La Gandara -dio Arana Martijak beherago aipatzen den artikuluan- bere lanetatik ezagutzen dugu soilik. Gernikarra zela badakigu, baina ez dugu oraindik jaiotza eta heriotza daturik... Ene ustez 1700 inguruan jaio zen eta 1780 inguruan hil zelakoan nago. Gernikako Andra Mari Parrokian izan genuen apaiz”. Autore zaharra dugu, beraz, eta bere obra ez luzeak -orain arte aurkitu denak behintzat-, bere balio literarioaz gainera, balio linguistiko handia dauka.

AMA MAITEGARRIARI, ZORTZIKO

(*Sebastian Antonio de la Gandara*. Jose Antonio Arana Martija. *Euskera* - XXIX (2.aldia), 499. orrialdetik aurrera).

01 Zerren zarean zeurez
ama ongiroa
Birjina, zeugan daukat
neuronen gogoa.
Izendatuagaz zeu
poza dot hartuten
amudioz jatala
bihotza beteten.

02 Guzti hori ederra
oranden bagarik
zara Jaunaren eskuz
sortu zineanik.
Egia gordetarren
bizia emonda
artez egin nahi neuke
zeuganantz hegada.

03 Sortuera zeureak
onezko barria
mundu txar honi eutsan
ekarri, Maria.
Jaungoikoaren seme
bakotx betikoa
zala sabel zeurean
haragitzekoa.

04 Zeure iderik inoz
izan ez dalako
ezta izango bere
mundua daneko
horregaiti, Andrea
bakarra zara zu
enda guztiok halan
aitortuten dogu.

05 Edozein bekatarik
dau igeslekua
zeugan, eskatuagaz
zeuri anparua.
Ez dakiana ondo
arte hau bilatzen
bere burua berak
deungaro dau galtzen.

06 Zeruko Erregina
balia zakiguz
erregututen hauxe
egongo gatzatzuz:
Izan dedila geure
arnasa azkena
Jesus onenarekin
zeurorren izena.

Zezeilaren 3. Urte 1768.



01. **Zerren:** zeren, ze, zergatik.
Ongiro: onbera, bihozbera.
Neuronen: neu honen, neronen.
Izendatuagaz: izendatzearekin, izena esatearekin.
Hartuten: hartzen.
Amudioz jatala: amodioz zaidala.
Beteten: betetzen.
02. **Oranen:** orainen, orin, larruazaleko orban pigmentuduna, horiska edo marroiska. Hemen *orban* edo *zikin*, orokorrean.
Bagarik: barik, gabe.
Zineanik: zinetik.
Gordetarren: gordetzearren, zaintzeagatik.
Artez: zuzen.
03. **Onezko barria:** berri ona.
Eutsan: zion.
Bakotx: bakar.

Jose Antonio Arana Martijak dio: "Bizkaierazko sei bertso hauek badute balio literarioa eta hizkuntzaren lekukotasuna ere. Baina nik hemen azpimarratuko nukeena da *zortziko* izena ematen diola Gandarak bertso molde honi, benetan gaur zortziko txikia denari. Beraz, ez da *Iturango Arotza*-rena ezagutzen dugun zortziko txikirik zaharrena, Gernikan egindako Gandararen hau baizik".

AMA MAITEGARRIARI BERE JAIOTZAN

(Aurreko bera)

01 Jaio zinean
zorionean
zeruetako lorea
zeuxek isurten
dozu Adanen
umeentzat amorea.

04 Bera zeuretzat
da zeu berentzat
esan zeuskuneti, zara:
bada zeu legez
ez da inor, ez
izango haren gogara.

02 Zeure argiak
geure begiak
guztiz alegretan ditu
zerureanik
ondo laztanik
munduak hartuten zaitu.

05 Lurra ez eze
zerua bere
zeugana dago jarkirik:
zeure jaiotzan
biak egozan
miraritu ta ixilik.

03 Dauko bihotza
motzaren motza
oneresten ez deutsanak
egia dala
zeugan dabela
atseden gozoa Jaunak.

06 Da Guztiala
txit liberala
zeugaz, Maria, ziertu:
zeuk guztirako
daukazulako
gura dozunean agertu.

Zezeilaren 14 garrenean. Urte 1768.



01. **Zeuxek:** zeuk zeurorrek. Erakuslearen atzizki indargarria, *hau-hauxe* bezala, *zeuri* ezartzea neurriak eragindako lizentzia dela dirudi.
Isurten: isurtzen.
02. **Alegretan:** alegretzen, alaitzen.
Zerureanik: zerutik.
Ondo laztanik: oso laztanki.
- Hartuten:** hartzen.
03. **Motzaren motza:** motz-motza, erabat motza, kaxkarra.
Oneresten ez deutsanak: oneresten ez dionak, maite ez duenak. Badirudi kontextuak *oneresten ez deutsanak* eskatzen duela.
Dabela: duela.

04. **Berentzat:** beretzat, berarentzat.
Zeuskuneti: zenigunetik. *Zigunetik* ere izan daiteke. Pasarte ilun samarra da hau.
Legez: bezala.
Gogara: gogoaren, gustoaren arabera.
05. **Ez eze:** ez ezik.
Bere: ere.
Jarkirik: kementsu, adoretzu.

- Egozan:** zeuden.
06. **Guztiala:** Guztiahalduna, Oroahaltsua.
Zeugaz: zeurekin.
Ziertu: ziur, segur.
Zeuk guztirako...: pasarte iluna da hau.
Zeuk guztirako ahala daukazulako esan nahi duela dirudi.

“Metrika aldetik -dio Arana Martijak- neurri handietara jo du oraingoan Gandarak, hots, 10 + 8 silabadunetara, nahiz eta hamar silabadun erroarekin 5 + 5, errimadunak biak, egin. Agustin Basterretxeak egindako berbera, beraz”.

ARDOAREN GANIAN

(Aurreko bera)

01 Ni naz agintari bat
 ez gizon ez andre
 munduan bizi diran
 lau partiden jabe.
 Gitxi bizi leiteke
 munduan ni bage
 ez dauko gustorikan
 ez nabena maite.

02 Ardaoa dot izena
 hau gusto gozoa
 gustoak berak mindu
 ez badau ardaoa.
 Ardaorik ez danian
 da geure gorputza
 mugertasuna salbu-
 ta, zaku bat hutsa.

03 Errege ta erregina
 apaizak, anaiak
 zaharrak eta gazteak
 dirade zaleak.
 Mundu guztiak nahi du
 ardaoa adiskide



01. **Bage:** barik, gabe.
Dauko: dauka.
Nabenak: nauenak.
02. **Mindu:** garraztu, mingostu.
Mugertasuna salbu-ta: ez diot antzik hartzen. *Muger* adjetiboak gogorra, zaila esan nahi du. Baita *harri mugerra* edo silizea ere. Ardorik ez denean, gure gorputza indar gabeko zaku hutsa dela esan nahi duela dirudi, baina esakera ez dago argi.

Lehen bertsoan *andra* eta *dirian* ordez *andre* eta *diran* jarri ditut, batean errimogatik, bestean neurriagatik. Nahizta Bizkai aldean *andra* izan normala, Gandarak *andre* ere jakin behar zuen, hirugarren bertsoan *nahi du* eta *ez nahi dau* darabilen moduan. Izenburuan ere *ardo* ageri da, nahizta gero *ardao* datorren. Beraz, bitarteko norbaiten errakuntzak ere izan daitezke.

GABON KANTA GERNIKAKOA (1762)

(“Gandararen gabon kanta ezezagun bat (1762)”. Adolfo Arejita. *Idatz-Mintz 2*, 18-19 or.)

01 Adanen umeak nekez
 denpora lehengoetan
 buztarria zerabilen
 euren sorbaldaetan.
 Ha zan bizitza garratza
 da beragaz kontu latza.

Euskaritxua:

Gaur gagozan pozturik
 nolana.
 Egira!
 Bai ze bai
 begira
 lihoia bildosturik.

- 02 Angeru bakotxa doa
inozko biziroen
kanpora zerren Belengo
barri ona daroen.
Urduri dabiltz benetan
angeruak gau honetan.
- 03 Judako lihoia bere
orro suz beteakin
agertuten zan gogorto
gizaki tristeakin.
Orain datza lo gozoan
Birjinearen altzoan.
- 04 Bildostxua, izan zaitte
ondo zeu etorria
ama onak emon deutsu
dozun azal gorria.
Epea heldu dinean
etxiko dozu kurtzean.
- 05 Zeruak zeu bazkatzeko
seinetan titi hutsaz
bere bular gozatsuak
amari bete deutzaz.
Jesus, hartzazu titia,
zeurea dozu gustua.
- 06 Baioatzuz begixeok
gustuzko negarretan
zeu bazen samurrik ez da
hemengo bazterretan.
Berazo jausten da ihintza
egia ez dinot, Gaintza?

- 07 Hor dagoala deritxat
kantau guraz Karpio
pozen pozak dauko halan.
Eta nun dogu Pio?
Honek ez eze ni bere
ausa banaz alegere.
- 08 Jaiotza honek dadukaz
zeruak eta lurra
atseginez zoraturik.
Hau ez da, ez, guzurra
ezpozu gura sinistu
egingo deutsut nik txistu.
- 09 Jaungoikozko begiakaz
zeruko Erregina
ze laburra dan bakutsu
geuroen ahalegina.
Andra guztizko maitea
ken zeuk geuganik koitea.
- 10 Zeure seme bigun horri
ama maitegarria
haserratu zedakion
hoi da geure larria.
Zeu bitarteko bazara
seguru egongo gara.



01. **Denpora lehengoetan:** lehengo denbo-
retan, antzinako garaietan.
Zerabilen: zerabilten.
Ha: hura.
Beragaz: berarekin.
Euskaritxo: errepika, errepikatzen den
ahapaldia.
Gagozan: gauden, egon gaitezen.
Egira: egitan, benetan.
Bai ze bai: bai zeren bai, bai noski bai.
Lihoia: lehoia.
Bildostu: bildots egin, axuri bilakatu.
02. **Inozko biziroen:** inozko, sekulako bizi-
kien, bizkorkien.
Zerren: ze, zeren, zergatik.
Daroen: daraman.
03. **Bere orro suz beteakin:** suz beteriko
bere orroekin. *Bere* hau *ere* izan daiteke:
Judako Lihoia ere.
Gogorto: gogorki.
Gizaki tristeak: gizaki gaizoak, erruka-
rriak.
Altzoan: magalean.
04. **Deutsu:** dizu.
Azal gorria: azal biluzia, jaioberrien ko-
lore gorrikoa.
Heldu dinean: heldu dadinean, datorre-
nean.
Etxiko: itxiko, utziko.
Kurtzean: gurutzean.
05. **Seinetan:** umetan, sein edo haurtzaroan.
Gozatsuak: samurrak, ahogozo onekoak.
Deutzaz: dizkio.
06. **Baioatzuz:** badoazkizu, ari zaizkizu joa-
ten.
Begixeok: begitxook, begiñook.
Bazen: baizen, bezain.
- Berazo:** Beraza? Hala balitz, bigun, bi-
gunki. Azkuek *berasa* hitza ere badakar,
ugari esanahiz, hain zuzen Gandara han-
goa zen Gernikan jasoa.
Dinot: diot, esaten dut.
Gaintza: hau eta hurrengo ahapaldian
datozen *Karpio* eta *Pio* orduko gernikar
pertsonearen batzuk direla dirudi.
07. **Deritxat:** deritxat, iruditzen zait.
Kantau guraz: kantatu nahiz, nahirik.
Pozen pozak: pozaren pozak, poz oso
handiak.
Dauko halan: dauka hala.
Honek ez eze ni bere: hauek ez ezik ni
ere.
Ausa: ausaz, agian, apika.
08. **Dadukaz:** daduzka.
Ezpozu: ez badozu.
Deutsut: dizut.
09. **Begiakaz:** begiekin.
Ze: zer, zein.
Bakutsu: badakutsu, ikusten duzu.
Geuroen: geuronen, geronen.
Geuganik: geugandik.
Koitea: koita, kexua, kexa. Gaur ere eza-
guna da *koitea jo* esamoldea, hots, hileta
jo, gauza txarrak edo penagarriak konta-
tu.
10. **Haserratu zedakion:** haserratu ez da-
kion, haserratu ez dadin. Gaur ere zen-
bait lekutan normala da forma datibodu-
na erabiltzea, hots, *amari haserratu zaio*
eta ez *ama haserratu da*.
Hoi: hori.
Larria: larritasuna, kezka edo ardura
handia.

“Guk hemen argitara dakarguzan *Gabon Kantak* -idazten du Adolfo Arejitak- Joseba Lakarra ikerlari gazteak aurkitu izan ditu Madrileko *Aca-*

demia de la Historia dalakoan, eskuidatziak dira, eta 1762. urtekoak dira”.

Jarraian azaltzen duenez, Aita Larramendik *Gabon Kanta* hauexek zirela-ta zoriondu omen zuen Gandara gutun batean, ziotsala: “Hain dau-de ederrak, gozoak, kilikorrak...”. Eta Gandarak geroago eskerrak emanez erantzun: “Ontzatuten deustazula jakitea da nire atsegin betea...”.
(Ontzatuten deustazula: ontzat hartzen, ematen didazula).

GERNIKAKO GABON-KANTE (1764)

(Gabon-Kantak de Guernica (1764). Un documental del euskera vizcaíno del siglo XVIII. Por Ygnacio Tellechea Idigoras y Manuel de Lecuona. BRSBAP, 22. Año XXII - Cuaderno nº 1, 157. orrialdetik aurrera. San Sebastian 1966)

(Muxil ta Bizkaitar baten artean)

Sarmen:

1. Hauxe ze gaüea!
2. Zelan bere dan.

1. Nik jakin minea asko da esan.
2. Ekin bada, Muxila nahi etzaitut ixila.

1. Zeu lagun niri abia urtengo kanta guztia.
2. Horrelan biz.

1. Poz dot izan.
2. Gakiozan.

1. Ni zere aldiz.

Guztiak:

Galanto, eretxian
horniduko da kantea.
Bakotxaren aldian
izango da euskerea
dagokien zorian.

2. Haurra, maite hasi zaite.

Mux.

- 01 Judan bat huria da Belen.
Hona etorria zan Birjen asentetako zerren zalako Jose, jatorria Dabiden.

Euskaritxu:

Iñoh!
Guztiz alai diño.
Honek nun nahi hots egin behar leuke tantararai.

Bizk.

- 02 Ostatu nahiaz zen Maria alperrik zan Belen handia.
Etzan aurkitu nok han laketu hari gela baten grazia.

Mux.

- 03 Ah jente gangarra Belengo!
Guztai zaldarra urtengo.
Zuek ukatu Birjini leku?
Zuentzat su garra hurrengo.

Bizk.

- 04 Sartu zan abere etxean
Jose zala bere aldean.
Bertan semea bakar berea argira zan gure onean.

Mux.

- 05 Nok dau ez horretan mirari?
Zienbat zor gue izan Amari!
Hantxe nik egon mosu da emon ointxu politean berari.

Bizk.

06 Bizi direanak
lurretan
baita dagozanak
goietan
Andra txukuna
bihotz biguna
zeuri esker manak
miletan.

Mux.

07 Hago, Deabrua
haserre
oraintxe burua
jak erre.
Haginak nahiko
zerratu? Haiko,
emon zorroztua
nik zerre.

Bizk.

08 Birjina, zeurorren
besoak
dira gozoaren
gozoak.
Euretan sarri
Jaungoikoari
zagoz eragiten
ohaoak.

Mux.

09 Esan da nik, Birjen,
guztia
sekula ta amen
eztia
dala berbera
bururikpera
garbi diñot hemen
egia.

Bizk.

10 Jaungoikoa zeuxek
hazia
izango, ez bestek,
Maria.
Hazitzailea
idebagea
dauko ugatz horrek
guria.

Mux.

11 Ai! Bekatariak
izan gu!
Zeure bitarteak
balidu!
Gure jabea
gugatik, ea
zuk egin sotilak
erregu.

Bizk.

12 Apaintzaileari
Osaiak
enda Baltzolari
graziak.
Egin dan bihar
biraldu behar
jakaz Muxilari
sariak.

Hona sarmen edo sarrera, elkarrizketa errezitatuan egingo zutena,
gutxi gora behera gaurko erara jarria:

1. Hau da hau gaua!

2. Hala da izan ere.

1. Nik jakin-mina dutenentzat esateko asko asko daukat.

2. Ekin bada, Muxila!

Ez zaitut nahi ixila.

1. Zeu nire lagun (niri laguntzera) abiatzen bazara, kanta guztia (ondo) irten-
go da.

2. Horrela bedi.

1. Pozten naiz.

2. Ekin diezaiozun.

1. Ni zurekin aldizka (txandaka).

Guztiak:

Galanki (ederki), dirudienez,
hornituko da kanta.

Bakotxaren aldi (txandan)

euskeraz izango da

berari dagokion tankeran.

2. Ahorra (horra, ea), maite

hasi zaitte.

Manuel Lekuonak balio handia ematen dion pieza honetan, *Muxil* izena jartzen zaion solaskideak euskal-gaiztoa darabil. Gaizki eta aldrebes hitz egiten du, baina grazia handiz. Bizkaitarra, ordea, oso ondo eta natural mintzo da. Beraz, euskaldun barri eta euskaldun zahar arteko joko gisa eratzen da. Textua eta bakoitzaren esakerak ulertzeko nahitaezkoa da joko horretaz jabetzea.



01. **Bat huria:** huri, hiri bat.
Hona: hunat, honera.
Asentetako: asentatzeko, kokatzeko, hango zentsuan sartzeko.
Zerren zalako: ze, zeren bait zen.
Jatorria Dabiden: Dabiden jatorria.
Euskaritxu: errepika.
Iñoh! Arraioa! Harridurazko hotsa.
Diño: dio, erraiten du. *Euskaritxu* hau Muxilak kantatzen duen bakoitzean errepikatuko zen, eta bistan da goralpen ironikoa dela, azkeneko tantararai eta guzti.
02. **Laketu:** eman, utzi.
03. **Gangarra:** harroa, buruarina.
Zaldarra: azalean, batez ere kokot inguruan, sortzen den bikorra, handitua. Madarikapen xelebrea da hau, Birjinari lekua ukatzeagatik.
Hurrengo: ondoren, gero.
04. **Aldean:** alboan, aldamenean.
Argira zan: argiratu zen, jaio zen.
05. **Nok dau ez horretan mirari:** nor ez da horretan miraritzen, harritzen.
Zienbat zor gue izan Amari: Manuel Lekuonak honela interpretatzen du: *zenbat zor geutsan* (genion) *Amari*. *Zor gue* edo *zorge* dela, oso itzulpen zaila bait dauka. Errataren bat dagoela jotzekotan, nik honela ulertuko nuke: *zienbat zor gu izan Amari*. Muxilaren euskal-gaiztoari hori oso ondo doakio, eta errata txikia da. Lekuonaren *geutsan* horrek errata handi-
- txoa suposatzen du, eta gainera Muxilaren euskal-gaiztoarentzat forma jagiegia eta zailegia deritzat. Eta *gue* ordez *guc* (orduko idazkeran) jarriz gero, oso errata erreza gertatzen da.
Hantxe nik egon, mosu da emon: ni hantxe egon eta mosu emon, ni hantxe banengo, musu emango nioke.
06. **Dagozanak:** daudenak.
Manak: onak, pozgarriak.
07. **Jak:** zaik.
Haginak nahiko zerratu?: haginak zerratu nahi al dituk?
Haiko: horra, to.
Emon zorroztua nik zerre: nik emango diat zorrozturik zerra.
08. **Zeuroren:** zeu horren, zerorren, zeure.
Sarri: sarritan, maiz, anitzetan.
Zagoz: zaude, ari zara.
Ohaoak: lokantak, sehaska eraginez kantatzen direnak.
09. **Esan da nik, Birgen, guztia:** Oh Birjina! Neuk esango dut guztia.
Sekula ta amen ezta dala: beti-beti eta egi-egitan ezta dela. Bi latinezko hitzok grazia eta biribiltasun handia ematen diote.
Bururikpera: burutik beheraino, burutik oinetaraino, oso osorik.
Diñot: diot, erraiten dut.
10. **Zeuxek:** zeu + atziki indargarria, zeuk zerorrek.

- Hazitzailea:** hazkarria, janaria.
Idebagea: berdingabea.
Ugatz: bular.
Guria: gurina, esnea.
11. **Zeure bitarteak balidu:** zeure bitartekotasuna balia bekigu.
Gure jabea, ea!...: gure jabe zaren horrek, ea! Gugatik egin zuk erregu sotilak, sendoak, samurrak.
12. **Osaik:** goralbenak dirudi. Bilboko ge-roagoko Gabon Kantetan *osaste* agertzen da, antifona edo goralbenezko ahapaldi gisa.
Enda: eta.
Egin dan bihar: esaldi ulerzaila. Lekuonak ere ezin diola tankerarik hartu aitortzen du.
Jakaz: zaizkio.

Bertso hauen egitura harrigarria da. Hain toki estuan hiru errima doaz batera. Ia hitz guztiek errimatzen dute hitzen batekin. Har dezagun, esaterako, hirugarrena. Muxilak oso euskara bihurria darabil, baina arauak ondo betetzen ditu. Hona hiru errima sortak: *gangarra, zaldarra, garra; Belengo, urtengo, hurrengo;* eta *ukatu, leku*. Laugarrenean: *abere, bere, gure; etxean, aldean, onean;* eta *semea, berea*. Eta berdin besteetan.

GERNIKAKO GABON KANTA (1757)

(*Gabon Canta de Guernica de 1757*. José Antonio Arana Martija. *Euskera* 21-22. 1976-77. XXI (2. aldia). 89. orrialdetik aurrera)

- 01 Gauaren manea,
 ilunik
 bapere bagea
 dakust nik
 gerizak urrundu
 honek laster ditu
 Fararira
 izar guztiak dabilz
 jira bira.
- 02 Txist, Angerua
 txist
 txairorik
 zeu jastea on derist
 zerurik,
 artzainxeok gaina
 hori dala maina
 Fararira
 Angeruak hirraldi
 gura dira.

03 Jaio dan ezkerro
Belenen
eguzkia bero,
bada hemen
hotzikaradunik
ken bekit alborik
Fararira
erurzaileak bere
hotz eztira.

04 Arbolak dakustaz
txaloka,
da mendiak eurraz
saltoka,
baiabilkuz oinok
diñoel lagunok
Fararira
gaur geure buruak
loka dira.

05 Arin Belenera
goazan
begiz ekustera
egin dan
guztizko beroea
egiaz betea
Fararira
osterantzeko berbak
hutsak dira.

06 Enaz ni joango
hutsean,
dodaz eroango
aldean
arrandun lau bildots,
egin degien hots,
Fararira
men menean bi ta
bi lauxe dira.

07 Esnea, Periko,
arzazu
gaztaea, Joaniko
ez ahaztu.
Ardoagaz, Antxon
kontu pitxiruon.
Fararira
presente egin cah
zast hurira.

08 Hel gara Belenen
ongura,
sar zaite zeu lelen
lekura,
zeinetan Seintxua
datzan oihaldua
Fararira
bihotzakin deiogun
txintxirira.

09 Agur, Sein maitea,
zeugaz da bakea
Zeurorri
etorri
angeruen ahorik
entzuna dinot nik
Fararira
bestek ekarri ezteust
belarrira.

10 Biz ordu onean
Birjina
zeure sabelean
egina
ogi zerukoa
jatorku gozoa.
Fararira
nik begia beti dot
janarira.

11 Pozik zagoz aujaz
oraintxe zeure
esposiagaz,
Josepe,
Sein honen aurrean
angeru artean
Fararira
batu gara guztiok
mirarira.

12 Erregalutxuak
dakarguz
eder txitoxkoak
aiutuz
eztatoz alharik
esku txarretarik
Fararira
nahi genduzan hobeak
ahal balira.

13 Hain gitxiagaiti
parkatu
hona gara sarri
ziertu
zerbait gehiagogaz
dugunaren eraz
Fararira
nor eletorke zeuen
gozaldira.

14 Hartu gozuz ongi
Maria
Jaunak gehitu begi
grazia:
hau dozu zeurea
andra ongilea
Fararira
berak urteten deusu
arpegira.

15 Adio guztiai
 adio
 ezer ahal baginai
 belio:
 eukiko gozuez
 egun eta gauetz
 Fararira
 guztiz prest etorteko
 zeuen deira.



01. **Gauaren manea:** gauaren ederra, atsegina.
Bapere bagea: bat ere gabea.
Dakust: ikusten dut.
Fararira: errepika onomatopeikoa.
Jira bira: jira eta bira, itzulka.
02. **Txist:** isiltasunaren hots onomatopeikoa. Baita norbaiti xuabe deitzeko ere. Hortik *txistada*, hots txikia.
Txairo: dotore, airoso.
Jastea: jaitea, beheratzea.
Derist: deritzat, iruditzen zait.
Zerurik: zerutik.
Artzainxeok gaina: artzaintxoongana.
Maina: antzea, trebetasuna.
Hirraldi: ez dakit, *irrialdi* ez bada, hots, irri egiteko gura edo gogoa.
03. **Bada hemen:** baldin bada hemen.
Alborik: albotik, ondotik.
Erurzaileak: elurtzaileak, elurretan dihardutenak.
04. **Dakustaz:** ikusten ditut.
Eurraz: erruz, ugari. *Aurrez* edo *aurrean* ere izan liteke.
Baiabilkuz: badabilzkigu.
Diño: diote, erraiten dute.
Loka: koloka, solte.
05. **Arin:** azkar, fite, agudo.

- Beroea:** *beroa* ote da, errimatzeko eta neurtzeko luzatua?
Osterantzeko berbak: bestelako hitzak, gainerako kontuak.
06. **Enaz:** ez naiz.
Dodaz eroango aldean: eramango ditut aldean, soinean.
Arrandun: joaldun, zintzaridun.
Degien: dezaten.
Men menean: men menaz, ben benaz, bene benetan.
Laxe: lau + xe atzizki indargarria.
07. **Gaztaea:** gazna, gazta.
Ardaoagaz: ardoaz, ardoarekin.
Pitxiruon: onomatopeikoa, esanahi zehatzik gabea. Bada koplaz zahar bat, diena: "Aitte Periko, seme Joaniko, zer dogu aparteko".
Presente egin: opariak egin.
Cah zast: Ez dakit, Gandararen beraren okerren bat ez bada, zeren Arana Martiak dio orijinalaren grafia oso argia dela.
08. **Hel gara:** helduak, iritsiak gara.
Zeinetan: lekuan alegia. Erlatiboa.
Seintxua: Haurtxoa.
Deiogun: diezaiogun.
Txintxirira: onomatopeia jolaskorra dirudi, haur kutsukoa.

09. **Zeugaz:** zeurekin.
Zeurorri: zeu hori, zerori.
Ahorik: ahotik.
Dinot: diot, esaten dut.
Ezteust: ez dit.
10. **Biz:** bedi.
Jatorku: datorkigu.
11. **Zagoz:** zaude.
Aujaz: auiaz, agian.
Esposiagaz: emaztearekin.
Mirarira: mirakulura.
12. **Dakarguz:** dakartzagu.
Eder txitoxkoak: eder guztizkoak, arrunt ederrak.
Aiutuz: berariaz, bereziki.
Alharik: halarik, hala ere?
Genduzan: genituen.
13. **Hona gara sarri:** hona etorriko gara maiz.
Ziertu: segurki.
Gehiagogaz: gehiagog, gehiagorekin.
Dogunaren eraz: daukagunaren arabera.
Eletorke: ez letorke.
14. **Gozuz:** gaituzu.
Begi: beza.
Hau: grazia.
Urteten deusu: irteten, ateratzen zaizu.
15. **Ahal baginai:** ahal bageneza.
Belio: ez dakit zer den.
Gozuez: gaituzue.

Sorta honetako bertsoen egitura ere harrigarria da. Ahapaldi bakoitzean lau oin bikote doaz. Lehenengoan, adibidez: *manea, bagea; ilunik, dakust nik; urrundu, ditu;* eta *fararira, bira*. Edo seigarrenean: *joango, eroango; hutsean, aldean; bildots, hots;* eta *fararira, dira*. Azkena beti *fararira* kalakarekin errimatuz. Egituraren zailtasuna ez litzateke hain harrigarri, gero hain hizkuntza naturala ez balerabil. Forma estutzea ez da meritu, gero hizkuntza bortxatzen bada. Orduan nahia eta ezina nabarmenago geratzen dira. Baina Gandararen kasuan zailtasuna eta naturaltasuna batera doaz eta hor dago koska artistikoa.

BARTOLOME OLAETXEA

Elhuyar Hiztegi Enziklopedikoak dio: "Euskal idazle eta erlijioso bizkaitarra, Arteagan jaioa (XVIII. m.). Laukizko erretore izan zen eta *Christinauben Dotrina* (1775) 224 orrialdeko liburua idatzi zuen. Larramendi aurreko giroko literatura erlijiosoko obren artean aipagarriena duda-izpirik gabe. Bertan doktrinaz gain, otoitzak, eguneroko ariketak eta abar agertzen dira. Bizkaiera herrikoian moldaturik dago, tarteka erdal hitzak daudelarik. Halaber, *Devocionario* delakoa ere idatzi zuen".

Christinauben Dotrina horretan, Agustin Basterretxearen Jesukristoren Pasioaren bertso sorta famatuaz gainera, beste batzuk ere badatoz, ondoren ematen ditudanak. Badirudi hauek ez direla ez Basterretxearenak ez Olaetxearenak, honek bere dotrinan sartuak baizik.

BIZI BEDI JESUS

Jesus gure Jaun maite amorotsua
Damu dogu guztiok zeu ofendidua.

01 Josirik ikustean
krutze horretan zeu
errukiz ai bihotza
nok urratuko ez deu?
Baita baleuko bere
harri bihurtua
damu dogu guztiok
zeu ofendidua.

02 Burutik oinetara
gorputz eder hori
zauri gordin eginik
dozu guztiori.
Ai zorigaiztokoa
geure pekatua
damu dogu guztiok
zeu ofendidua.

03 Oinak, esku ta albo
dana zulaturik
bizkar aldea azotez
guztia apurturik
arantza gogorraz
josirik burua
damu dogu guztiok
zeu ofendidua.

04 Hainbeste min gogorrez
gaixo zareala
artzain bat bere ardiaren
atzean bezela
gure bila zeu zabiltz
errukiz urtua
damu dogu guztiok
zeu ofendidua.

05 Jesus, zu gure bila
ta geuk iges zuri?
Zeuk behar gozuzala
zeuk, Jauna, dirudi.
Oh gizon esker bako
gaizto zoratua
damu dogu guztiok
zeu ofendidua.

06 Oh Jauna, zer galtzen dozu
geu ezok galtzean?
Geu baga etzinean
betiko guztian?
Zek zaukaz zeu gugana
horren laztantsua?
Damu dogu guztiok
zeu ofendidua.

07 Zeu baga ezin ginke
gauzarik bapere
ezta ezelan emon
arnasa bat bere.
Zeu ondasun guztien
sustraira ta burua
damu dogu guztiok
zu ofendidua.

08 Hau honelan jakinik
bizi izan naz ni
beti urrun zeuganik
zeure iges beti?
Ondo neunkan ni lurra
nonbait itsutua!
Damu dogu guztiok
zu ofendidua.



01. **Krutze:** gurutze.
Nok: nork.
Baleuko bere: baleuka ere.
02. **Guztiori:** guzti hori.
03. **Alboa:** saihets aldea.
Azote: zigorkada, gorputzean kolpea.
Gogorraz: gogorrekin.
04. **Gaixo:** eri.

05. **Gozuzala:** gaituzula.
Bako: bagako, gabeko.
06. **Ezok:** ezerezok, ezteusok.
Baga: barik, gabe.
Etzinean: ez zinen.
Zek zaukaz: zerk zauzka.
07. **Ezin ginke:** ezin genezake.
Bapere: bat ere.
Ezelan: nehola, inola.

08. **Zeuganik:** zeugandik.
Zeure iges: zeuri iheska.

Neunkan: nindeukan.

Bertso hauen egitura ohargarria da. Lehen bi puntuak alde batera doazela, hirugarrena errepikarekin errimatzen da beti, efektu gozoa eta solemnea sortuz.

KALBARIOAK

01 Gura bozu idigi
zeruko atia
Krutze santua da
hango giltzia.

02 Zerurako bidia
gura bozu ikasi
Kristoen pausuai
jarraitu beti.

03 Sententziau dabe
Jesus maitia
Krutzian hiltera
Oh ze penia!

04 Orain hartzen dituz
krutze batian
gure pekatuak
bere ganian.

05 Hemen jausi zan
Jesus lurrera
lurra jasoteko
bere aurrera.

06 Nok esan leike
amaen penia
honelan ikusita
bere Semia?

07 Krutzia eruaten
nahi dozu lagundu?
Bada hemen nahi dabe
lagun bat hartu.

08 Arpegiko izerdi
eta odoletan
zapi bat busti dau
hiru doletan.

09 Bigarren aldian
hemen da jausi
eta zu etzara
kontura etorri.

10 Pekatuagaiti
negar egizu
bada neure penak
horrek emon ditu.

11 Oh pekatuen
gauza astuna!
Hirugarrenian
jo dau hemen lurra.

12 Hona non daukazu
Jesus bilosik
burutik bihatzera
zauriz beterik.

13 Oinak eta eskuak
untzez josirik
hemen da Kristo
penaz beterik.

14 Hemen Jesus hil zan
gizonagaiti
akordau zaitez
orain eta beti.

15 Krutze gaineti
bere amagana
hemen eresten da
Jesus laztana.

16 Enterradu gura dau
zeure bihotzian
Jesus hilak, betiko
zu bizi zaitian.

17 Neure pekatuak
Jesus laztana
krutzean hil zaitu
parkatu, Jauna.



01. **Bozu:** badozu.
Idigi: ireki.
Krutze: gurutze.
Giltzia: giltza.

02. **Kristoen:** Kristoren.

03. **Sententziau dabe:** sententziatu dute,
epaia eman diote.
Ze penia: bai pena, zer tamala.

05. **Jausi:** erori.

06. **Nok esan leike:** nork esan lezake.
Amaen: amaren.

07. **Eruaten:** eramaten.

Dabe: dute.

09. **Etzara:** ez zara.

12. **Bilosik:** biluzik, bilutsik.
Bihatz: behatz, behe-hatz, oineko hatz.

13. **Untze:** iltze.

14. **Akordau:** oroitu, gogoratu.

15. **Eresten:** eraisten, jaisten, jaitsi erazten.

16. **Enterradu:** lurperatu, ehortzi.

17. **Kopla hau Jose Antonio Arana Martijak**
gehitua da, Gernikan kantatzen omen zu-
tena.

MISTERIO GOZOSUAK

Errosarioko Larrosa eder
Birjina Ama bakarra
bost misterio gozoz betiak
gatoz gaur kontenpletara.

01 Amodioak aurkitu ez eban
munduan beste lorarik
emon nahi euan frutu ederra
konserbetako garbirik.
Hain alegria ditzaz betia
zeuri jagotzun bakarrik
zeure erraetan zeuk ikustia
Jesus maitia sorturik.

02 Isabel zeure lehengusinia
dago mirariz beterik
bere Jaun eta Jabeaen Ama
bisita emoten juanik.
Saltoka dabil bere Semia
oraindo jaio bagarik
zeure ditzia eta gozo handia
adietan emon gurarik.

03 Zein handia zen zeure gozua
munduan inok ez daki
aberiak bere sentietan dabe
zentsun bagiak izanik.
Angeru asko dira etorri
alkarren lehian zeruti
jaiotza honen barri alegria
zabalduterren munduti.

04 Tenplura zuaz, Ama maitia
kontentuz guztiz beterik
ezin zinaio Jangoikuari
presente handiagorik.
Simeon santuak bere ditzia
ezin ondo sinisturik
ikusi ezkeru Jesus maitia
ez dauko hil arren penarik.

05 Nok esan leike zeure gozua
zeure Semia ikusirik
legeko jakinduen artian
bera guztien nagusi.
Bere Aitaen aginduari
hasiera hori emonik
nahi dau horrelan adietan emon
zetara jakun etorri.

Esango dabe guztiak akabuan:

Lirio ederra zeu izan zaite
hainbat gozuen artian
errezau daben anparua
orain eta denpora guztian.

11 Oh pekatuen
gauza astuna!
Hirugarrenian
jo dau hemen lurra.

12 Hona non daukazun
Jesus bilosik
burutik bihatzera
zauriz beterik.

13 Oinak eta eskuak
untzez josirik
hemen da Kristo
penaz beterik.

14 Hemen Jesus hil zan
gizonagaiti
akordau zaitez
orain eta beti.

15 Krutze gaineti
bere amagana
hemen eresten da
Jesus laztana.

16 Enterradu gura dau
zeure bihotzian
Jesus hilak, betiko
zu bizi zaitian.

17 Neure pekatuak
Jesus laztana
krutzean hil zaitu
parkatu, Jauna.



01. **Bozu:** badozu.
Idigi: ireki.
Krutze: gurutze.
Giltzia: giltza.

02. **Kristoen:** Kristoren.

03. **Sententziau dabe:** sententziatu dute,
epaia eman diote.
Ze penia: bai pena, zer tamala.

05. **Jausi:** erori.

06. **Nok esan leike:** nork esan lezake.
Amaen: amaren.

07. **Eruaten:** eramaten.

Dabe: dute.

09. **Etzara:** ez zara.

12. **Bilosik:** biluzik, bilutsik.
Bihat: behatz, behe-hatz, oineko hatz.

13. **Untze:** iltze.

14. **Akordau:** oroitu, gogoratu.

15. **Eresten:** eraisten, jaisten, jaitsi erazten.

16. **Enterradu:** lurperatu, hortzi.

17. **Kopla hau** Jose Antonio Arana Martijak
gehitua da, Gernikan kantatzen omen zu-
tena.

MISTERIO GOZOSUAK

Errosarioko Larrosa eder
Birjina Ama bakarra
bost misterio gozoz betiak
gatoz gaur kontenpletara.

01 Amodioak aurkitu ez eban
munduan beste lorarik
emon nahi euan frutu ederra
konserbetako garbirik.
Hain alegria ditzaz betia
zeuri jagotzun bakarrik
zeure erraetan zeuk ikustia
Jesus maitia sorturik.

02 Isabel zeure lehengusinia
dago mirariz beterik
bere Jaun eta Jabeaen Ama
bisita emoten juanik.
Saltoka dabil bere Semia
oraindo jaio bagarik
zeure ditzia eta gozo handia
adietan emon gurarik.

03 Zein handia zen zeure gozua
munduan inok ez daki
aberiak bere sentietan dabe
zentsun bagiak izanik.
Angeru asko dira etorri
alkarren lehian zeruti
jaiotza honen barri alegria
zabalduterren munduti.

04 Tenplura zuaz, Ama maitia
kontentuz guztiz beterik
ezin zinaio Jangoikuari
presente handiagorik.
Simeon santuak bere ditzia
ezin ondo sinisturik
ikusi ezkerro Jesus maitia
ez dauko hil arren penarik.

05 Nok esan leike zeure gozua
zeure Semia ikusirik
legeko jakinduen artian
bera guztien nagusi.
Bere Aitaen aginduari
hasiera hori emonik
nahi dau horrelan adietan emon
zetara jakun etorri.

Esango dabe guztiak akabuan:

Lirio ederra zeu izan zaite
hainbat gozoen artian
errezau dabenen anparua
orain eta denpora guztian.



Gozosuak: pozezkoak, gozagarriak.
Kontenpletara: kontenplatzera, begiratzera.

01. **Aurkitu ez eban:** ez zuen aurkitu.
Euan: eban, zuen.
Konserbetako: konserbatzeko.
Alegria: alaitasuna, poza.
Ditxa: zoriona.
Jagotzun: zegokizun, tokatzen zitzaizun.
02. **Jabeaen:** jabearen.
Bisita emoten: bisita ematera, bisitatze-
ra.
Oraindo: oraindio, oraindik, oraino.
Bagarik: barik, gabe.
Adietan emon gurarik: aditzen, aditze-
ra eman nahirik.

03. **Bere sentietan dabe:** ere sentitzen
dute.
Bagiak: bakoak, gabeak.
Alegria: alaia, pozgarria.
Zabalduterren: zabaltzearren, zabal-
tzeagatik.
04. **Ezin zinaio:** ezin zeniezaioke.
Presente: opari, eskaintzari.
05. **Nok esan leike:** nork erran lezake.
Jakinduen: jakintsuen.
Aitaen: aitaren.
Zetara jakun: zertara zitzaigun.
Akabuan: azkenean, amaieran.
Errezau dabenen anparua: otoitz
egin dutenen babesa.

MISTERIO DOLOROSUAK

Errosarioko Larrosa eder
Birjina Ama bakarra
bost misterio dolorosuak
gatoz gaur kontenpletara.

- 01 Zeure penia, Ama maitia
izan zan guztiz handia
zeure Semiari erionian
odolezko izerdia.
Bere ganian nola hartu eban
pisu hain ikaragarria
bere odolak agertuten dau
ariman daukan larria.

- 02 Nola etzinian, Ama bakarra
egongo penaz betia
ikusi ezker azotaturik
Jesusaen gorputz guztia?
Horra nun doian erruki baga
odolezko iturria
nunbaita orain amaituko ahal dau
bere betiko egarria.

- 03 Pena gogorrez ingiratua
daukazu bihotz zeuria
nola daguan arantza hartan
Jesusaen buru guztia.
Bere erreinua hemengua eztana
orain dago agiria
etzan oraindo mundura etorri
koro horren barria.

- 04 Ai Ama triste dolorosia
zeure peniaen hazia!
Krutze horretan zeure Semiak
emon bihar dau bizia.
Arbola batek ekarri daben
hain kalte negargarria
arbola horrek irabazi dau
galdu eta eguan grazia.

- 05 Jesusen esku eta oin sagraduak
josirik zeuk ikustia
Ama maitia, izan zan zeure
peniaen azkan tristia.
Eklisadurik gelditu dira
eguzkia eta irargia
ez da milagro ilundu bada
zeru guztien argia.

Lirio ederra zeu izan zaite
hainbat penaen artian
errezau dabenen anparua
orain eta denpora guztian.



Dolorosuak: mingarriak, samintsuak.

01. **Penia:** pena, mina.
Erionian: zerionean, isurtzen zitzaio-
nean.
Ganian: gainean.
Eban: zuen.
Agertuten: agertzen.
Larria: larritasuna, estuasuna, ondoez
bizia.
02. **Etzinian:** ez zinen.
Azotaturik: zigorkaturik, kolpaturik.
Jesusaen: Jesusaren. Artikulu mugatzai-
le eta guzti.
Baga: bage, barik, gabe.
Nunbaita: nonbait ere. Zentzu interjekti-
boa, indargarria dauka.
Ahal: itzaropena edo desira adierazten
duen partikula.
Amaituko ahal dau: ai leza amaitu, hobe
amaitzen badu.

03. **Ingiratua:** inguratua.
Daguan: dagoen.
Eztana: ez dana, ez dala.
Oraindo: oraindio, oraino, oraindik.
04. **Dolorosia:** dolorosoaren femeninoa.
Peniaren hazia: penaren handia, samin
handia.
Krutze: gurutze.
Bihar dau: behar du.
Daben: duten.
Galdu eta eguan: galduta, galdurik ze-
goen.
05. **Sagraduak:** sakratuak, sagaratuak, san-
tuak.
Azkan: azken.
Eklisadurik: eklipsaturik.
Milagro: mirakulu.

MISTERIO GLORIOSUAK

Errosarioko Larrosa eder
Birjina Ama bakarra
bost misterio gloriosuak
gatoz gaur kontenpletara.

- 01 Ai zein handia zan zeure poza
pena guztiak itxirik
zeure Semiak urte-ebanian
betiko hilen arterik.
Zeu ikustera dator lehenengo
gloriaz guztiz beterik
ondo ekian zeu zengozana
gehien ikusi gurarik.
- 02 Zeure Semiak igo ebanian
zerura mundu honetarik
gozoz beterik geretan zara
bakartasuna ahazturik.
Horregaiti etzara egongo
zeure Semia bagarik
hain asko gura dirian bihotzak
ez dagoz inoz bakarrik.
- 03 Espiritu Santua dator
guztia amodioz beterik
nola etzaituz gozoz beteko
bere Esposia izanik?
Horra ze laster kunplietan daben
bere berbia zerutik
zeure Semiak, egon gaitez
fedian guztiz firmerik.
- 04 Kontentu handiaz zuaz zerura
mundu tristia itxirik
begira dagoz angeru ederrak
mirari askoz beterik.
Ezin egon da zeure arimia
bere gorputza bagarik
zeruko tesoru hain handia
eztau nahi emon lurrari.
- 05 Zeruko gloriak koronetako
daukazuz enpeinadurik
Trinidadeko hiru personak
eternidade baterik.
Zeure ditzien gauza guztiak
pekatariak izanik
nok eztau horrela lograuko
bere ditzia zeuganik?
- Lirio ederra zeu izan zaite
hainbat glorien artian
errezau dabenen anparua
orain eta denpora guztian.



01. **Itxirik:** utzirik, lagata.
Urte-ebanian: irten, jalgi zenean.
Arterik: artetik.
Ekian: zekien.
Zengozana: zengozela, zeundela.
02. **Igo ebanian:** igo zenean.
Geretan: geratzen, gelditzen.
Bagarik: barik, gabe.
Gura dirian: maite dirian, elkar maite
duten.
Dagoz inoz: daude inoiz.
03. **Etzaituz:** ez zaitu.
Esposia: emaztea.
Ze laster: zer arin, zein azkar.
Kunplietan daben: kunplitzen, betetzen
duen.
Berbia: berba, hitza.
Firmerik: irmorik, tinko.
04. **Bagarik:** barik, gabe.
Tesoru: altxor, ondasun handi.
Eztau: ez du.
05. **Koronetako:** koroatzeko.
Daukazuz: daukazu.
Enpeinadurik: saiaturik, ahalegin han-
diak eginik.
Baterik: batetik.
Ditzien: ditzaren, zorionaren.
Gauza guztiak: badirudi *kausa guztiak*
izan behar duela, hots, pekatariak izan
dira Jesukristo gizatzeko eta, beraz, Ma-
riak haren ama izatearen gloria beragan-
tzeko arrazoi edo eragile.
Lograuko: logratuko, lortuko, erdietsiko.

EZTA IDIGITEN

- 01 Ezta idigiten
zeruko aterik
ezpada Birjinaen
debozinorik.
- 02 Ez dago zeruetan
hain izar argirik
Birjina Maria
berori lakorik.
- 03 Eguzkia bera
bere aurreti
ilundurik dua
argi bagarik.
- 04 Irargia oinetan
dauko geldirik
ezin arpegira
begiraturik.
- 05 Ez dau inoz urten
Jaunaen eskurik
beste kriaturak
bera langorik.
- 06 Sortu eta jaio zan
beti garbirik
pekatua urrin
berorreganik.

07 Ezin litzateke
zeure maitia
haserre dabenak
zeure Semia.

08 Zeuria ez danak
alper alperrik
itxarongo dau
salbazinorik.

01. **Idigiten:** irekitzen.
Birjiniaen: Birjinearen, Birjinaren.

02. **Lakorik:** bezalakorik.

03. **Dua:** doa.
Bagarik: barik, gabe.

04. **Irargia:** ilargia.

05. **Eskurik:** eskutik.

09 Berorrek ez badau
neure errukirik
ez dago neretzat
erremediorik.

10 Birjina Mariak
eskua emonik
seguru urtengo dot
mundu honetarik.



Kriatura: izaki, sorkari.
Langorik: lakorik, bezalakorik.

06. **Urrin:** urrun, asago, urruti.
Berorreganik: berorigandik.

07. **Haserre dabenak:** haserre duenak,
daukanak.

10. **Urtengo dot:** irtengo, jalgiko naiz.
Honetarik: honetatik.

PABLO PEDRO ASTARLOA

Durangon 1752an jaio eta Madrilen 1806an hil zen idazle eta euskararen apologista honek obra ugari idatzi zuen, batez ere erdaraz. Euskararen itzarkuntzan eta indarkuntzan bere mendeko gizonik garrantzitsuenetakoa izan zen.

NOLA GERRARI POZEZ

(*Achloratu*-ri gorazarrez. 1782)

(Bizkaierazko idazle klasikoak. Xabier Altzibar. 227-228 or.)

01 Nola gerrari pozez
neban besarkatu
zorzikoa polit bigun
zeustana bialdu
eta gerozti soinu
martiz bat hauturik
kanta ta kanta nago
zisne bihurturik.

02 Hain gozo, hain ezti da
hain handitsu da ze
ezin aita izan leike
Hatxloratuz beste.
Hau dogu euskaldunok
seme ta guraso
honek deusku Euskera
ahuspaztua jaso.

03 Hatxloratu eder hau
menderen mendian
eztedila azarzatu
guztien onian.
Heldu zakidaz maite
gutar zarianak
erregu egin daigun
enzun gaizan Jaunak.

04 Hatx eder horretako
hegi zabaletan
zabilzan gazteeria
agaarri onetan
baturik alkarregaz
eska egizue
zeruak degizula
aita on hau gorde.

05 Lelengo euskal gozo
zorzikoko eztieta
zenbat seme geunkazan
itxas gizonetan
ixpilu baten legez
eutzun erakutsi
martiz bide martitza
zengian ikasi.

06 Gau ta egun lanian
hutsune bagarik
zuen onian dago
beria ahazturik.
Sematzatu zenduzan
da nola aita on
gaur deutzu erakusten
gidaritzat Crillon.

07 Jarra zakioz gizon
gerrari honeri
guztiok, eraldi hau
ahaztu baga inori
euki daiguzan nozbat
hainbat Crillon guban
zenbat zaldun doguzan
hirurak bategan.

08 Agur, enaz gehiago
agindu nagizu
beti zeuria beti
nazana bakizu.
Durangon gerrarien
hilen seigarrena
urte lauretan hoge
bigarren doguna.



01. **Nola gerrari:** gerrari, soldadu bezala.
Neban: nuen.
Zeustana: zenidana.
Martitz: martzial, gerrako.
Hauturik: hautaturik, aukeraturik.

02. **Hain...** ze: hain... eze, ezen.
Handitsu: bikain, jaukal, miragarri. Bertso testuak *anditu* dakar, baina ondorengo hiztegitxoan *anditzuba*. Hau bidezkoago dela dirudi.
Aita: zortziko bikain horren aita edo egi-lea.
Leike: liteke.
Hatxloratuz beste: Hatxloratu baizik, besterik.
Hatxloratu: Haitzloratu, *Peñaflorida*-ren euskarapena. *Frantzisko Munibe Idiakez*, Peñafloridako kondea (1723-1785), zientzilari, idazle eta politikari garrantzitsua izan zen. Lehen bertsoan dionez, honek zortziko bat bidali zion Astarloari, zeinak

sorta honetan gorazarrez erantzuten dion.
Deusku: digu.
Ahuspaztua: eroria, ahoz behera dagoena, makurtua.

03. **Menderen mendian:** mendeen mendetan, sekulun sekula.
Azarzatu: higatu, zimeldu, galdu.
Heldu zakidaz: hel, etor zakizkidate.
Zarianak: zaretanak.
Daigun: dezagun.
Gaizan: gaitzan.

04. **Hatx:** haitz.
Hegi: larre, bazkaleku.
Agarri: belardi, pentze, zelai.
Alkarregaz: elkarrekin.
Egizue: ezazue.
Degizula: diezazuela.

05. **Gozo, gozoak:** goralbenak edo goralbeneko bertsoak esan nahi duela uste dut, beste bertso sorta batean ere izenburu

hau aurkitu bait dut: *San Inazio Loiolakori gozuak*.
Geunkazan: geneuzkan.
Baten legez: batean bezala.
Eutzun: zizuen.
Martiz bide martitza: martzialki bide martziala.
Zengian: zenezan.

06. **Bagarik:** barik, gabe.
Semetzatu zenduzan: semetzat hartu zintuzten.
Da: eta.
Deutzu: dizue.
Crillon: militar frantsesa, erlijio gerretan eta Lepantoko guduan nabarmendu zena.
07. **Jarra zakioz:** jarraiki zakizkiote, jarraitu iezaiozue.
Honeri: honi.
Eraldi hau ahaztu baga inori: haro, garai hau ahantzi gabe inori, nehork aldi hau pasatzen utzi gabe.
Daiguzan: ditzagun.

Nozbat: noizbait.
Hainbat... zenbat: elkarrekiko terminoak. *Zenbat zaldun hainbat Crillon*.
Doguzan: ditugun.
Hirurak bategan: *sociedad* dio bertso sortaren ondoko hiztegitxoan. *Hirurak Bat* izeneko zaldun elkarte bat bazela, beraz.

08. **Enaz gehiago:** ez naiz gehiago, gehiago ezin dut, ez daukat gehiagorako trebetasunik.
Nagizu: nazazu.
Nazana bakizu: naizena badakizu.
Gerrarien hilen: soldaduen hilaren. Hil hau martxoa edo *martia* da, *Martitz* gerra jainkoaren izenetik harakoa.
Lauretan hoge bigarren: lauretan hogeita bigarren, laurogeita bigarren. Ohargarri da bizkaieraz duela bi mende honela zenbatzea, gaur ere Iparraldean bezala.

Bertso hauen zenbait pasartetan noraezean ez ibiltzeko, gogoratu gaurko *zu-zuri* bezala datozen aditz forma batzuk orduan *zuek-zueri* adierazten zutela.

KARLOS IV.ARI

(Idem. 228-229. or.)

01 Karlos Hirugarrena
zorionekua
urte helduz beterik
zerurantzua dua.
Eta Jaungoiko onak
Karlos honen orde
beste Karlos bat deusku
errukior gorde.

02 Bata zeru altuan
izarren ganeti
zorion betikuan
gozoro da bizi.
Bestiak bigun ezti
aita ona legez
mundu bi baten ditu
zuzentzen amorez.

03 Bizkai guraso sendo
Martitz emailiak
Erroma harrotuari
makurtu bagiak
Gaztelako errege
Karlos Laugarrena
pozez beterik dino
dala bere jauna.

04 O, behin da mila bidar
subertez betiak
Bizkaitar inoz inok
garaitu bagiak
zeintzuk gozo ta bigun
otzan da amoretsu
zaituan Jaungoikuak
Borbonegaz batu.

05 Haretx zorioneko
baten gerizpian
lauburu subertetsu
santuen aurrian
ezkutari zaldunak
guraso zaharrakaz
zabaltzen dabe poza
ganez handiakaz.

06 Beraz, zahar ta gaztiok
guztiok batera
zeuen dihedar bigunak
jasorik zerura
esazu gure eraldi
onaren gloria
bizi zadiz Jaun Karlos
Prinzipe handia.



01. **Orde:** ordeko, ordezko.
Deusku: digu.
02. **Legez:** bezala.
Baten: batean.
03. **Martitz:** gerra jainko erromatarra.
Martitz emailiak: gerrari edo seme mar-
tzialen emaleak esan nahi duela dirudi.
Bagiak: gabeak.
Dino: dio, erraiten du.
04. **Bidar:** bider, aldiz.
Inoz inok garaitu: inoiz inork menpera-
tu, gainditu.
Zeintzuk: bizkaitarrak. Erelatiboa.
Zaituan: zaituzten.
Borbonegaz: Borbonekin.

05. **Haretx:** haritz.
Gerizpian: itzalean.
Ezkutari: jaun bat zerbitzen duen lagun-
tzailea, haren ezkutua daramala.
Zaharrakaz: zaharrekin.
Dabe: dute.
Ganez: gainez, gaineztasun, ugaritasun.
Handiakaz: handiekin.
06. **Dihedar:** deihadar, zantzo, oihu.
Esazu: esan ezazue.
Eraldi: haro, aldi, garai.
Zadiz: zaitez.
Prinzipe: printze.

GIZON GUZTIEN BATZARRA

(Idem. 229. or)

Uaua gozuaren
altzuan jarririk
gau baten nenguala
olguraz beterik
ames baten bitartez
jatan iruditzen
batzar handi batean
nintzala aurkitzen.



Uaua: loa, haurtxoena batez ere, lo gozoa,
beraz. **Ames:** amets, aments.
Altzuan: magalean. **Jatan:** zitzaidan.
Olgura: jolas, dibertsio. **Batzar:** bilkura.

HAUR KANTA

(Idem. 229. or)

Uauatxua lo lo lo
zuk orain eta nik gero
zuk gura dozun orduren baten
biok egingo dogu lo.

Lokanta hau ez da berea izango, jaso baizik.

MARKINAKO PELOTARIENA

(Idem. 230. or.)

Aupadatu zenduan
hau zorakeria
zertara ta pelotan
Markina guztia.
Aupada ero honeek
Motriko, esazu:
ez ditu nola beti
Markinak ahuspaztu?



Aupadatu: aupaka, aupadaka hartu, erronka jo, desafiatu.

Aupada: erronka, desafio.

Honeek: hauek.

Esazu: esan ezazu.

Ez ditu nola beti...?: ez al ditu beti bezala...?

Ahuspaztu: eraitsi, lurjoarazi, ahoz behera jarri, menperatu.

JOAN ANTONIO MOGEL

Joan Antonio Mogel Urkiza Eibarren jaio zen 1745ean eta Markina-Xemeinen hil 1804an. "Apaiztu eta Markinan finkatu zen hil arte. Mogel eta Añibarro idazleek bizkaiera hizkuntza literario bihurtu zuten. Mogelek bere estraineko liburua gipuzkeraz idatzi baldin bazuen ere (*Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean eracasteac*, 1800), ondorengo guztiak Markinako hizkeran oinarritutako bizkaiera aberats eta jatorrean moldatu zituen. Testu ugari idatzi zuen euskaraz zein gaztelaniaz (azken hauek jende ikasiari zuzenduak): *Versiones Bascongadas de varias arengas y oraciones selectas* (1802); *Nomenclatura de las voces guipuzcoanas y sus correspondientes vizcainas y castellanias*; *Confesio ona* (1803) Bizkaiko euskararen prestaturik; *Cristinauaren jaquivindea*, Asteteren itzulpena; *Análisis filológico de un sermón euskérico escrito en 1792*; *Pascalén gogamenak* eta dudarik gabe bere obra nagusia den *Peru Abarka*. Humboldt hizkuntzalari alemaniarraren lagun eta lankide izan zen eta harreman estuak izan zituen Astarloa, Agirre eta Añibarro euskal idazle garaikideekin". (Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa).

SAGU BI ZELAI BATEN

(*Peru Abarka*. Gerediaga Elkartearen argitarapena, 96. orrialdetik aurrera).

Sagu bi zelai baten
egozan gauzak esaten.
Bata zan basokua
bestia etxekua.
Dirautsa hak honi:
gurozu neugaz etorri?
Bai ordu onian

adiskide usainian.
Baina hemen kanpuetan
zelai basuetan
zer dogu guk jango?
Ez deustazu emongo
ona dan gauzarik
ez koipe ez eztirik.

Basoko saguak
 daukaz palaguak
 etxeuari esateko:
 Ni baino nor hobeto
 bizi da lurrian?
 Ez dot neure bizian
 izan nik bildurrik
 ez ez katigurik.
 Nago neure basuan
 atseren osuan
 ez dot erlojurik
 ezta galdu lorik.
 Darraiko etxekua
 basoko jatekua
 ikusteko guriaz
 jan barri gosiaz.
 Mahaia imini zan,
 zer ikusi etzan?
 Bazkari ugaria
 eder ta garbia.
 Sagar eta urrak
 mispila ta intxaurreak
 okaran ta madari
 ta sabel gaisuari
 emon ahal guztia.
 O bazkari handia!
 dirautsa etxeuak
 jaki ikustekuak
 niretzat baina hotzak
 argalak eta motzak.
 O neure anaia!
 Zuri neure mahaia
 jatort emotia
 ta eskertsu izatia.
 Darua bada etxera
 eta hemen emotera

handiki janariak
 aberats ta ugariak.
 Koipia eta ezta
 gaztae eta urdaia.
 Ase zaite hemen
 eztozu halan jan lehen.
 Eztago basuan
 ez zuen kobauan
 honlango aparirik.
 Musturrak koipeturik
 bizarrak mihazketan
 eztarria garbietan
 hauxe bai bazkaria!
 Arto eta garia
 jan ahala ganbaretan.
 Gabaz oramahaietan
 ikusten zer daguan.
 Ta gura bogu jua
 geroago lotara
 ohe hutsetara
 eztago, ez, itxirik
 guretzat maratilarik.
 Ate inzirrikatua
 da bide adjutua.
 Honeek zituan esaten
 goi ta behe erabilten
 etxeke saguak.
 Ta horra nun katuak
 deutseen jarraituten
 ta hatzamarrak ezarten.
 Etxekuak iges eban
 basokuak ezieban
 topau zurkulurik.
 Beebilen estuturik
 txilioka gaisua
 guztia igarua.

Nekez da ezkutetan
 tresna zuluetan.
 Dirautsa lagunari:
 Zetako nakartzu ni
 leku honeetara?
 Nua neure etxera,
 egon zaite zu hemen
 bizarrak koipetuten.
 Ez, dino etxeuak
 gehituaz erruak.
 Zagoz aldi baten
 oraindino, bai arren.
 Dakit katuen barri
 iges dodalaze sarri.
 Egon zaite jaten zu
 ni izango natxatzu
 ateen jaolia
 ta katu begiralia.
 Halan jardunakaz
 ta berba labanakaz
 sagutxu basokua
 barrero badua
 biletan jakia
 eta zelataria
 beragaz batera.
 Baina juake atera
 giltzera andria.
 Han da esturia!
 Lapiko barruan
 basokua eguan
 guztia sarturik
 sabela beterik.
 Nahi dau iges egin
 baina ezin dau ez arin.
 Oinak koipaturik
 bidiak labandurik

da bildur ta ikara
 jua ez dedin hara
 etxe giltzeria.
 O ze ikaria!
 Dago ezkutuan
 lapiko barruan.
 Ezta azartuten
 arnasa hartuten.
 Bere zorionez
 ez juako hara, ez.
 Jatorko laguna
 sagu etxejauna
 eta honek haserrez
 zegaiti -dino- iges
 eztozu behinguan?
 Zegaiti lapikuan
 zara geratu zu?
 Zelan ezta kizu
 igesa hartuten
 burua gordeten?
 Basotar gaixuak
 dino: ze gozuak
 hemengo jakiak
 eta edariak!
 O adiskidia!
 Ah bai ze gorria
 dan zure jana!
 Ai baso laztana!
 Ai kanpo maitia!
 Zein zaran hobia!
 Eztozu, ez, katurik
 ez neska giltzerarik
 dator koipe bila.
 Gitxiarren ni hila
 izan ez naz koipetan.
 Ezta basuetan

honlango arriskurik.
Laguna, niri ez deirik
gehiago inoz egin.
Ezta hau, ez, ipuin
guzurrez asmatua

bai egiaztua.
Bihotza kezkatu-rik
eta arriskuz beterik
daguan atsegina
ezta zindo-pina.



Egozan: zeuden.
Dirautsa: diotsa, esaten dio.
Hak: hark.
Gurozu: gura dozu, nahi duzu.
Neugaz: neurekin.
Deustazu: didazu.
Daukaz: dauzka.
Palaguak: balakuak, losintxak, hitz gozoak.
Darraiko: jarraitzen dio.
Ikusteko guriaz: ikusi gurarik, nahirik.
Jatort: datorkit.
Darua: darama.
Kobauan: koban, haitzuloan.
Honlango: honelako.
Mihazketan: mihizkatzen.
Garbietan: garbitzen.
Bogu: badogu.
Inzirrikatua: zirritua, bitartea.
Adjutua: egokia, aproposa.
Honeek: hauek.
Deutseen: dien.
Eban: zuen.
Ezieban: ezin zuen.
Topau: topatu, kausitu, aurkitu.
Zurkulurik: gordelekurik.
Beebilen: bazebilen.
Txilio: oiho edo arrabots zorrotza eta larria.
Igarua: iragana, pasatua.
Ezkutetan: izkutetzen.
Honeetara: hauetara.
Koipetuten: koipatzen, koipeztatzen.

Zagoz: zaude.
Iges dodalaze sarri: zeren askotan, maiz
ihes egin bait diet.
Natxatzu: natzaizu.
Jaolia: jagolea, zaintzailea.
Berba labanakaz: hitz irristakorrekin, engai-
nuzkoekin.
Biletan: bilatzera.
Beragaz: berarekin.
Juake: doakie.
Giltzera: *giltzero*-ren femeninoa. Giltzarisa.
Giltzera andria: gilzdun andrea, etxe-koan-
drea.
Esturia: estura, estuasuna, larritasuna.
Eguan: zegoen.
Ezin dau arin: ezin du arin egin, lasterka edo
korrika egin.
Giltzeria: giltzera + a = giltzerea, giltzeria,
giltzerie...
Azartuten: ausartzen.
Juako: doakio.
Jatorko: datorkio.
Behinguan: berehala, bat batean.
Ah bai ze goria: *ah baina ze goria* behar luke-
ela dirudi.
Gitxiarren: gutxiatik.
Egiaztua: konprobatua.
Daguan: dagoen.
Zindo: sana, ustelik gabea. Pertsoneri aplika-
turik, zintzoa.

Ipuinak eta alegiak bertsoz kontatzeko joera handia eduki dute Bizkaierazko idazleek, beharbada baladak eta erromantzeak herriak zein

maite zituen ikusirik. Jenero hau zenbaiteraino herriratu den alde batera utzirik, oso pieza politak eta uste baino gehiago aurkituko ditugu bertan.

EGUN BATEN GABA EGINDA

(Peru Abarka. Gerediaga Elkartearen argitarapena, 62. orrialdetik aurrera).

- | | |
|--|---|
| 01 Egun baten gaba eginda
ninoian neure etxera
larrapastadatar bat eginda
jo neban beheko bidera. | 06 Kangrenatzar bat jaioko jako
ondo ez badogu sageetan
ez dira, ez, honlango heridak
bedartxuakaz osetan. |
| 02 Jaso nenduen danau mankauta
bizkar-hazurra hausirik
minaren minaz katu guztia
behinguan niri igarorik. | 07 Jaurtigi neutsan ostikadiaz
ezarri neban lurrera
sartu eztedin Maisu Juane
nire etxian ostera. |
| 03 Ekarri eusten egusentian
Maisu Juan Barberua
gurago neban neure albulan
euki gaizkin diabrua. | 08 Maisu borreru jua zanian
ekarri eusteen berbati
andratxu on ta errukior bat
auzoko herri bateti. |
| 04 Borreru harek birau nenduan
albo bateti bestera
egon bihar du honek -zinuan-
begira gaur bazterrera. | 09 Hazur ta zauri guzti guztiak
zitan kontuz ikusi
arpegi sona baketsuagaz
esan eustan honlan neuri: |
| 05 Hasi zan gero erremientak
bere ziskuti ateraten
otso bihotzaz barre eginda
han egozanai esaten: | 10 Txomin gaisua, ordu onian
bota dozu Barberua
ikusit gura ez bazenduan
lurrian bertan inperua. |

11 Pasmu bedarrak biharko dira
eragozteko pasmua
orma bedarrak gozatuteko
banatu jatzun albua.

12 Egun gitxian zara ikusiko
indar galantak harturik
eta zure hazur banatuetan
inkaren apur bagarik.



01. **Ninoian:** nihoan.
Larrapastadatar: larrapastada izugarria, irristada, labankada oso handia.
Neban: nuen.
02. **Nenduen:** ninduten.
Danau: dan hau, ni dena, naizen dena.
Mankauta: mankataturik, kolpezko zauriekin, mailaturik.
Katu guztia: mozkor guztia.
Behinguan: berehala, bat batean.
03. **Eusten:** zidaten.
Barberua: zirujaua, medikua.
Gaizkin diabrua: gaizkile debrua.
04. **Borreru:** jotzaile, zigortzaile.
Birau nenduan: biratu, itzuli, bueltatu ninduen.
Zinuan: zion, esaten zuen.
05. **Zisku:** poltsa, zorrotxo.
Egozanai: zeudenei.
06. **Kangrenatar:** gangrena oso handia, ikaragarria.
Jako: zaio.
Sageetan: sagatzen, zauria ebakitzen.
Honlango heridak: honelako zauriak.
Bedartxuakaz: belartxoekin.
Osetan: osatzen, sendatzen.

13 Esan ta egin, aste barruan
urten neban neure etxeti
gerri zerdenaz makila baga
jan gosiagaz besteti.

07. **Jaurtigi:** jaurti, bota, egotzi.
Neutsan: nion.
Ostikadiaz: ostikadaz.
Ostera: berriz, beste behin.
08. **Eusteen:** zidaten.
09. **Sona:** dotore, itxura lerdeneko.
Baketsuagaz: baketsuz, baketsuarekin.
Eustan: zidan.
11. **Pasmu bedarrak:** gangrena-belarrak.
Pasmu: gangrena, ustelmena.
Eragozteko: oztopatzeko, berea egiten ez uzteko.
Banatu: apurtu, puskatu, zehatu.
Jatzun: zaizun. *Zitzaizun* ere izan daiteke.
12. **Inka:** erretasun, errasumin.
Bagarik: barik, gabe.
13. **Urten neban:** jalgi, irten nintzen.
Zerden: lerdin.
Baga: bage, gabe.
Jan gosiagaz: jateko gosez, jangalez.

ARRANTZALIA TA ARRAINTXUA

(Poesia Bascongada en dialecto vizcaíno. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar, Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa. 65. or.)

Arrantzaliak bota eban saria
biharamonian dana arrainez betia
egongo zalako uste osuagaz.
Ahaztu zan bere lo gozuagaz
jagi zan ohetik goxian
ez eban nagirik aldian.
Badua jasotera
zenbat hartu eban ikustera.
Damuz beterik dau ikusi
ez zala beste arrainik jausi
ezpada txibia bakarria.
Han zen ernegu ta dihadarra
eta esatia:
Honetako bota dot saria?
Txibia batgaitik gaba galdu
eta pozez ez ezer nik apaldu?
Luak daruaztazala begiak
sabela jausiten gose handiak...
Semearen galdua!
Nekatuen artian nekatua!
Honelan eguala ernegetan
ta biraoz bazterrak betetan
esaten deutsa ikaraz txibia:
Gizon ona, kendu niri lokarriak
itsasora orain bota nagizu
noz bait damutuko ez jatzu.
Handia eginik ikusiko nozu
saria barrero ezarriko dozu
itsas bazterrera
etorriko naz zure sarera
handi, mardo, gizendurik.
Ez deusut esaten guzurrik.

Txibia bat... Ze izatekua!
Apari bestelakua
egingo dozu gaur gabian!
Hobe ez da datorren urtian
nire jaube izatia
eta apari galant bat egitia?
Etorriko natxatzu lagunakaz
zuk orduan nigaz ta bestiakaz
hartuko dozu diru handia
eta esango: Oh, txibia!
Leial, egiati ta berbakua
sinistuten ez deusuna da erua.
Sinistu neutsun ordu onian
imini nozu gaur egun hobian.
- Odol baltz, txiki ta zitala,
hil bihar dok orain berihala.
Hiri sinistu nik?
Ez dok ikusiko beste egunik.
Hobe da arrain txiki bat eskuan
baleia baino, hau itsasoan
dabilela batetik bestera.
Erdu orain neure etxera.
Etorriko dan ogiak noz gosia
kendu dau? Eta noz asia
itxi sabel argal makaldua?
Burduntzira, zital galdua.
Halan dirautsa arrantzaliak
baita bere ipuin asmatzaliak.
Asko ta asko izanguak
ezer baga ditu itxi.
Eskukua gorde beti
zer bait dauka orainguak.



Osuagaz... gozuagaz: osoarekin... gozoarekin.
Jagi: jaiki.
Goxian: goizean.
Eban: zuen, zeukan.
Damuz: penaz, nahigabez.
Ezpada txibia: txibia baino, txibia baizik.
Ernegu: birao, arnegu, hitz gogor eta gordina. Gaur egun *amorr* edo *haserre* esanahiz erabiltzen da.
Daruaztazala: daramazkidala.
Eguala: zegoela.
Ernegetan: arnegatzen, biraoak esaten. Gaur egun *amorratzen*.
Betetan: betetzen.
Deutsa: dio.
Nagizu: nazazu.

Jatzu: zaizu.
Mardo: sendo, gihartsu.
Deutsut: dizut.
Hobe ez...: ez dea hobe, ez al da hobe...
Natxatzu: natzaizu.
Lagunakaz: lagunekin.
Nigaz: nirekin.
Berbakua: hitzekoa, hitza betetzen duena.
Neutsun: nizun.
Baleia: balea.
Erdu: zatoz, etor zaitetz.
Noz: noiz.
Asia itxi: asean, aserik utzi.
Dirautsa: dinotso, diotsa, erraiten dio.
Izanguak: izatekoak, izango denak.
Bagu: barik.

ATSUA ETA ISPILUA

(Poesia Bascongada en dialecto vizcaíno. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa. 59.or.)

Atso bekoki zimur, begi gorria
 bizartsu, baltz, ernegaria
 argal, herren, larogei urtekua
 oi, hortz eta hagin bagakua
 bestetik barriz bekarrez betia
 urdin ta zuri eginik ulia
 surrautsagaz lohiturik
 eta muskilagaz koipeturik
 betseinetan zirudiana katua
 eta bere bizarretan sagua
 ezin zatar, itsusiago izanik
 ez eban entzun nahi zan lakua zanik.

Dino: betor ispilua
 ikusteko hemen neure burua.
 Ikusten dau zuzen zuzen egia
 eta dino: ispilu guzurtia
 emon jat barre egiteko
 eta ez nazana esateko?
 Dago bada gaizki eginik
 ez deust erakusten haginik.
 Oh guzurtia!
 Nun dok nire matraila zuria?
 Nun azal garbi eta leuna?
 Gau egiten dok hik eguna

bela baltz bat eperra
 itsusiten dok ederra
 gaztiak dituk zahartuten
 gorputz lirainak makurtuten.
 Hausiko haut ostikopian
 ez haz egongo, ez, nire etxian.
 Halan dau egiten

ta bere teman da geldituten.
 Ipuinian deusku esaten atsuak:
 Bakotxa bizi dau bere zoruak
 ez da ezagutu nahi burua
 ez entzun egia dinuanik
 ezta sinistu bere berba onik
 ta hausi nahi da ispilua.



Ernegaria: arnegaria, biraolaria, hitz gogorren esalea.
Oi: hortz-haginak inguratzen dituen ehuna.
Bagakua: bagea, gabea, gabekoa.
Bekar: makarra, betazal-ertzetan pilatzen den substantzia horiska.
Ulia: ilea.
Surrautsagaz: tabakoagaz, tabakoarekin.
Muskil: mukia, muki iluna.
Betsein: beginini, begiko irisaren erdiko biribilunea.
Eban: zuen.
Zan lakua: zen bezalakoa.

Dino: dio, erraiten du.
Jat: zait.
Barre: irri.
Deust: dit.
Matraila: masaila.
Bela: bele, erroi.
Itsusiten: itsusten, itsusitzen, zatartzen.
Tema: seta, norbere iritziari gogor eusteko grina.
Deusku: digu.
Dinuanik: dionik, esaten duenik.
Sinistu bere: sinistu ere.
Berba: hitz.

KATAMOTZA ETA TXAKURRA

(Poesia Bascongada en dialecto vizcaíno. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa. 48. or.)

Kaiola burdinazkuan
 katamotz bat eguan sarturik
 ikusten txakurra ondo askaturik
 kate baga, jolas ta parlantzuan.
 Desbardintasuna ikusi ebanian
 sartu zan katamotza haserrian.
 Zerua besuakaz nahi dau hartu

eta eukazan burdinak urratu.
 Dirautsa dihadarrez
 biraoz, araoz, erneguz ta haserrez:
 Zelan ni hain itzaltzu ta arina izanik
 nago hemen hain estu ta katigu?
 Txakur zatarra, zer zara zu?
 Ez daukazu nire atzapar ez zanik

daukazu bizitza gozagarria
hara eta hona ibiltaria
eta ni atsakabez
burdina artian nauke bildurrez.

Ondo da -dino txakurrak-, ez ikaratu
egotiaz zu horrelan eta ni askatu.
Zara erpekari ta odol zalia
ni gizon ta etxe gordetzailia.
Ez bazina bere zu halakua

ezin izan nindeke zulako gaiztua.
Bazter guztietan sartzen dozu izua
zarialako malmutz, eraila ta uzua.
Ez dauka barriz inok nire bildurrik
hagaitik nakutsu ni askaturik.

Zetarako dira indar ta putzak lurrian
izango badira gero geure kaltian?
Ez dozu nahi katerik?
Ez bada inoz egin kalterik.



Katamotz: katu antzeko piztia, handiagoa,
isats motza, barkatia eta gautarra.
Eguan: zegoen.
Parlantzuan: jostetan, jolasean.
Besuakaz: besoekin.
Eukazan: zeuzkan.
Dirautsa: dinotso, erraiten dio.
Dihadar: deihadar, dei ozena, oihua.
Birao, arao, ernegu: hirua sinonimo sama-
rrak dira. *Ernegu* gaur egun *amorru* edo ha-
serre zentzuz erabiltzen da.

Katigu: loturik, preso.
Zanik: zainik.
Nauke: naukate.
Eta ni askatu: eta ni aske, askaturik.
Erpekari: erpeekin edo hatzapparretako hel-
tzen duena.
Bazina bere: bazina ere.
Zulako: zu bezalako.
Malmutz: maltzur, amarrutsu.
Uzu: hezigabe, basati.
Nakutsu: ikusten nauzu.

BELIA ETA SUGIA

(Poesía Bascongada en dialecto vizcaíno. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa. 52. or.)

Sugia lotan eguan
beliak eban ikusi
lastertxu eutsan esetsi
ta hartu bere pikuan.
Ehiza honegaz pozturik
gura eban hil gosia.

Bihurtzen jako sugia
eta itxiten dau eztendurik.
Handitu zan pozoiturik
ta galdu eban bizia.
Horra erakutsi argia
ez egiteko kalterik.



Eguan: zegoen.
Eban: zuen.
Lastertxu: oso laster, laster bai laster.
Esetsi: eraso, oldartu.

Pikuan: mokoan.
Honegaz: honekin.
Jako: zaio.
Itxiten dau: uzten du.
Eztendurik: eztena edo mihiztoa sarturik.

ANDRA ALARGUNA TA OILUA

(Poesía Bascongada en dialecto vizcaíno. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa. 46. or.)

Andra alargunak etxian
eukan zorionian
oilo arrautzaria.
Zan bai ikusgarria
egunoro imintia
hutsik barik arrautzia.
Dino pozez bere artian:
emoten deusadarian
baten bakarrik artua
arrautza egunekua
badau beti iminiten
zer, baldin nik eruaten
badeutsat artua bi bider?

Arrautza bat ez da ezer.
Emon ezkerro janaldi bi
laster egingo bere nau ni
arrautza handi biren jaube.
Zelan asmau ez ete dabe
honelako gauzarik?
Halan ero erorik
gizendu zan oilua
ta arrautza batekua
alpertu zan guztia.
Beti izan da egia:
gehiegi bilatzia
ezer бага gelditzia.



Eukan: zeukan.
Arrautzaria: arrautzagina, arrautza asko
egiten dituen.
Imintia: ipintzea, jartzea, errutea.
Barik: бага, gabe.
Bere artian: berekiko, bere kautan, bere gol-
korako.
Deusadarian: diodanian.
Baten bakarrik: behin bakarrik.

Eruaten: eramaten.
Badeutsat: badiot.
Bi bider: bitan, birritan, bi aldiz.
Egingo bere: egingo ere.
Jaube: jabe.
Zelan asmau ez ete dabe: nola ez ote dute
asmatu.
Bilatzia: bila, xerka ibiltzia.

LINUAREN PENAK

(Peru Abarka. Gerediaga Elkartearen argitarapena, 141. orrialdetik aurrera).

01 Kantadu daiguzan
linuaren penak
ezpata honeen hotsian
izanik latzenak.
Alkar ondo hartuta
soinua neurturik
gorputzeko nekia
isteko arindurik.

Errepika:

Gara neskatilak
euskaldun ez hilak.
Ez da inor lurrian
gure bihar ez danik
ez atso ez agura
akandora barik.

02 Hatxurlaria dua
botaten lurrera
lino hazi heldua
eta estalduera
txoriak etorrita
jan ez dagiezan
ta gero ezer baga
geratu ez ditezan.

03 Helduten dan orduan
bedar hain biharra
eskuakaz ohi dogu
gelditxu atara
egiteko eskudak
han bertan soluan
largateko arduraz
etzunik albuan.

04 Eskutadak dituguz
gero orraztuten
ondo garramaduta
ta harik eruaten
gabiko egitera
beratu ditezan
pozu baten eukita
egun batzuetan.

05 Ura iminten dabe
dan dana lohiturik
bazter guztietara
hatsa zabaldurik.
Baina ikusten dira
ugaraziuak
buruak aterarik
emoten soinuak.

06 Hatsa dariuela
dagoz gabikuak
pozuti aterata,
eta gu lakuak
eskuetan hartuta
higuin bagarik
ditue zelaietan
isten zabaldurik.

07 Lihortuta daruez
gero mazupera
errukia ahaztuta
han banatutera.
Lan hau egin ohi dabe
eguzki galdatan
lina jaila gaixuak
izerdi lamatan.

08 Ez da honenbestegaz
nekia amaituten
bedar hain banatua
dabe astotuten.
Astosapin batian
isteko samurrik
gogorra eguana
ondo bigundurik.

09 Txarrantxia deritxon
orrazi askatuan
ikusten da ostera
ondo katibuan.
Lino agorra bada
jakoz ateraten
ganak, eruateko
gero ezpatatuten.

10 Hemen sartuten dira
gure lan barriak
soinuaz emoteko
pena latzgarriak
astosapin ta mazu
azpian juari,
egiten gariala
guztiok kantari.

11 Tris traska dirautsagu
erruki bagarik
isten ez deutzagula
guk hazur osorik.
Izpi txar ta erbatzak
jakoz ateraten
eta largaten deusku
guroguna egiten.

12 Honelan hiru bat ordu
egonik olgetan
soinu, algara eta
barre gozuetan
lino jaubia dator
guri deitutera:
erdue hori itxita
zerbait hartutera.

13 Laster ta atzera baga
gara gu jagiten
ez dogu ez erbatzik
soinian itxiten.
Garbi garbi eginik
guaz mahai batera
han gogo galantagaz
gauza asko jatara.

14 Guaz gero osterera
geure biharrera
ta lan hau amaituta
barriro apaitara
largaten ditugula
bertan kukusturik
eta txarrantxarako
ederto giaurik.

15 Txarrantxariak ditu
txarrantxan iminten
kukutsak kendu eta
erbatz baga isten,
kirrua alde batian
besteti amulua
hau gandua eta
perreztupetua.

16 Gorulak gero dabee
egiten haria
matasarako bihar
da itxoroskia.
Lisiba ta iruntzak
dabee garbituten
eta hariltokian
dira harilduten.

01. **Kantadu daiguzan:** kantza ditzagun.
Linu: liho, haria eta ehuna egiteko balio duen landarea.
Honeen: honein, hauen.
Isteko: uzteko.
Gure bihar ez danik: gure beharrik, premirik ez daukanik.
Akandora barik: alkandora gabe.

02. **Hatxurlaria:** haitxurlaria, haitzurzalea.

17 Tramankulua dauka
ehunla andriak
hemen hartu daruaz
arazo nekiak
egiteko ehuna
besteen biharrekin
korputz, esku ta oinakaz
bihar deutsa ekin.

18 Joslaak hartuten dabe
ehun ateria
han da artasiakaz
zuzen ebatia.
Alkandoria dago
guztia eginik
hari eta orraatzaz
lotu ta josirik.

19 Euskaldun neskatilak
nekiak harturik
ez dabe honetako
gizonen biharrik.
Eurak dira ereila,
lino giariak
ehunla eta jostun
ta gorulariak.



Dagiezan: ditzaten.
Baga: bage, barik, gabe.

03. **Helduten:** heltzen, landare edo frutua bere heldutasunera iristen.
Bedar hain biharra: belar hain beharrezkoa.
Eskuakaz: eskuekin.
Gelditxu: geldi-geldi, geldisko, poliki-poliki.

Eskudak: eskutadak, azaoak, esku-sortak.
Largateko: lagatzeko, uzteko.
Arduraz: kontuz kontuz.
Etzunik: etzanik.

04. **Garramadu:** garramatu, txarrantxatu, gardatu, ezpatatu.
Garrama: punta edo ezten mordo duen burdinazko tresna.

Harik eruaten: handik eramaten.
Gabiko: liho azao edo sorta.
Pozu: putzu, osin.

05. **Dabe:** dute.
Hatsa: kiratsa, usain txarra.
Ugaraziak: igelak.

06. **Dariuela:** dariela.
Dagoz: daude.
Gu lakuak: gu bezalakoak.
Higuin: nazka, enpagu.

07. **Lihortu:** lehortu.
Daruez: daramatzate.
Banatu: apurtu, zehatu.
Galdatan: erabat bero, gori-gori.
Lina jaila: liho jole.
Izerdi lamatan: izerdi ugaritan.

08. **Honenbestegaz:** honenbestez, honenbestekin.
Astotu: jo, zehatu, matxukatu.
Astosapin: ezpata, garba, lihoa zehatzeko tresna.
Eguana: zegoena.

09. **Txarrantxia:** txarrantxa, lihoa garbitzeko orrazia.
Deritxon: deritzan, deitzen den.
Ostera: berriz, berriro.
Ondo katibuan: oso katibaturik, trabaturik.
Jakoz: zaizkio.
Ganak: gainak, puntak.
Eruateko: eramateko.
Ezpatatuten: ezpatatzen, lihoa ezpatatzen, izpiak ateratzeko.

10. **Juari:** joari, jotakoari.

Dirautsagu: dihardugu, ari gara. Gaur *deutsagu* forma erabiltzen da.
Deutsagula: diogula.
Erbatzak: izpiak, puntak.
Largatzen deusku: lagatzen, uzten digu.
Guroguna: gura doguna, nahi duguna.

12. **Olgetan:** jostetan, jolasten.
Erdue: zatozte, etor zaitezte.
Itxita: utzita.

13. **Jagi:** jaiki, tentetu, zutitu.
Galantagaz: galantarekin, oso handiarekin.

14. **Geure biharrera:** geure beharrera, geure lanera.
Apaitara: afaritara, afaltzera.
Kukustu: kukuts bihurtu, kukutsak egin.
Kukuts: lihoari, bihurkatzean, egiten zaion gandor edo burutxoa.
Giaurik: landurik, prestaturik.

15. **Baga:** bage, barik, gabe.
Kirrua: liho izpirik onena, amukoa.
Amulu: bigarren mailako lihoa.
Gandu: lihoa askatu, jarein.
Perreztupetua: ondo garbitua, *perreztupe* deritzan iztupa egina.

16. **Gorulak:** gorulariak.
Dabee: dute.
Itxoroskia: ikoroskia, matazura, matazak hariltzeko tresna birakorra.
Iruntzak: inontzak, ihintzak.

17. **Ehunla:** ehule.
Ehun: hariarekin ehuna egin.
Hartu daruaz: hartu ohi ditu. *Eroan* aditzaren adiera hau, maiztasuna adierazten duena, gaur ia galdua dago.
Arazo: lan neketsua, kostatzen den zeregina.
Biharrekin: lanekin.
Oinakaz: oinekin.
Deutsa: dio.

18. **Joslaak:** josleak, jostunak.
Han da artasiakaz zuzen ebatia: han da, orduan tokatzen da guraizeekin zuzen ebakitzea, moztea.

Orraatzaz: orratzez, orratzarekin.

19. **Honetako:** honetarako, lan honetarako.
Gizonen biharrik: gizonen beharrianik, premiarik.

Ereila: ereile, ereiten duena.

Lino giariak: liho lantzaileak, prestatzen dutenak.

KATUA EHIZAN

(Poesía Bascongada en dialecto vizcaíno. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa. 59. or.)

Zortzikuan

01 Antxina herri baten
 bizi zan katua
 geldi egon biharrez
 guztiz gogaitua.
 Igesa hartu nahi dau
 ixilik basora
 igaroteko egunak
 bere gogo osora.

02 Hau zer da, etxequak?
 Hemen ni sarturik
 egon bihar ete dot
 bildurrez beterik?
 Banua eskaratzera,
 etxeko jentia
 nigan ditue beti
 euren haserriak.

03 Ilinti ta bartzunak
 deustez jaurtigiten
 nire lepo hazurrak
 dira minberatzen.
 Hau da emoten deusten
 eguneko ogia
 ta igaro bihar dot
 ganbaran bizia.

04 Narabile etxequak
 sarri ilariaz
 lapurreta guztiak
 niri ezarriaz.
 Ezer hartu ez daidan
 beti nabe zaintzen
 oromahaian okelak
 ditue sartuten.

05 Juaten bada nozbait
 gure kriadia
 beste leku batera,
 eskaratz aldia
 txakur baten pekora
 da beti gelditzen
 itxi nahi ez deustala
 hara hurreratzen.

06 Katuak bihar dabe
 bizi ganbaretan
 bilatu janaria
 etxe saguetan.
 Suak erkintzen ditu
 ta guztiz makaldu
 halan gure Mixotxu
 dana da argaldu.

07 Hau da entzuten dodan
 soinu betikua
 gero estaltzen dabe
 kontuz lapikua
 atrapau ez dagidan
 geli egosia
 eta ase honelan
 neure gose handia.

08 Egun bakezko baga
 nor bizi honela?
 Hobatuago dot nik
 iges berihala
 mendira egitia
 zer jan bilatzeko
 sabel hain murrítua
 nozbait betetzeko.

09 Esan eban legetxe
 egin eban laster
 ehizan atrapetaño
 oilagor ta eper
 baso-kuiak eta
 erbi gaztetxuak
 arratoi, satorrak
 eta txoritxuak.

10 Basuan hartu eban
 leku ezkutua
 hantxe dago zelatan
 gure bizartsua
 erpiak ezarteko
 pizti ta hegaztia
 bidia zabaltzeko
 este zimurtuai.

11 Lastertxu zan gizendu
 Mixotxu guria
 basuan ez da aurkitzen
 etxeko gosia.
 Hau -dino- janaria
 samur gozatsua!
 Herrian bizi dana
 dago zoratua.

12 Katu eremutarrak
 ez dau nahi bedarrik
 ez txermen ez mispila
 ez baso sagarrik.
 Haragi samurretan
 dago eztitua
 barua han aurkitzen da
 betiko ahaztua.

13 Ebilela honelan
pozez zoraturik
datoz hara ehiztariak
txispaz hornidurik.
Ta laguntzat dakarrez
ehiza zaunkariak
bilatu ta hilteko
eper ta erbiak.

14 Usainka ebilela
txakur bat lurrian
behinguan gelditu zan
sasien aurrian.
Han eguan padarra
ixil ta gorderik
txakurrak ez eban nahi
alde egin handik.

15 Lastertxu ehiztariak
han dira batuten
oilagor, eper edo
erbiak urteten
ete daben sasitik
sua egiteko
eskuetan hartuta
brujakaratzeko.

16 Ustez uste bagarik
dakuse katua
sasipe zokonduan
guztia sartua
eukazala albueta
hazurrak ugari
zala kaltegia
eutseen igarri.

17 Arin eta itoka
dabiltz bere bila
lokarriz estu eta
dauke erdi hila
esaten deutseela:
Ehiza galtzailia!
Hemen galdu bihar dok
heure bizitzia.

18 Gizonak, zer egin dot?
-dirautse katuak-
agertu egidazuez
neure pekatuak.
Baldin zuen laguna
banaz ni honetan
zetako imintia
ni gaur kateetan?

19 Agintari bat bada
kaltegin handia
zelan zigorperatu
lapurtxu txikia?
Lapur hartutzailiak
badira lapurrak
iruntsiko ditue
mamin ta hazurrak.



01. **Atxina:** behinola, aspaldi, duela denbora asko.
Gogaitua: aspertua, gogait egina.
Igaro: iragan, pasatu.

02. **Bihar ete dot:** behar ote dut.
Banua eskaratzera: sukaldera baldin banoa.
Ditue: dituzte.

03. **Bartzun:** labeko edo sutondoko errautsak jasotzeko pala.
Deustez: dizkidate.
Jaurtigi: jaurti, bota, egotzi.
Lepo: bizkaiera gehiengan *bizkar*.
Deusten: didaten.

04. **Ilari:** txilar, inar. Hauekin egindako erratza.
Daidan: dezadan.
Nabe: naute.
Oromahai: oremahai, orea egiteko mahai.

05. **Kriadia:** neskamea.
Pekora: ardurapean, kontura.
Itxi: utzi, laga.
Deustala: didala.

06. **Erkin:** erdikin, ahul.

07. **Lapikua:** eltzea.
Atrapau: hatzeman, harrapatu.
Dagidan: dezadan.
Geli: geheli, behikia, behi-okela.

08. **Baga:** bage, gabe.
Hobatuago dot: hobe dut.
Murritua: murriztua, soildua.
Eban legetxe: zuen bezalaxe.
Atrapetako: atrapatzeko, hatzematete.

10. **Erpe:** zenbait animaliren oin hazkazalduna.

11. **Lastertxu:** laster bai laster, biziki laster.
Gozatsua: zapore gozokoa, ahogozo handikoa.

12. **Eremutar:** leku bazterrean, basamortuan bizi dena.
Txermen: udare, madari.

13. **Ebilela honelan:** honela zebilela.
Txispa: zizpa, eskopeta.
Dakarrez: dakartzate.
Ehiza zaunkariak: ehiza txakurrak.

14. **Behinguan:** berehala, bat batean.
Eguan: zegoen.
Padarra: ermitaua, bakartia.

15. **Batuten:** batzen.
Urteten ete daben: irteten, jalgitzen ote den.
Brujakaratzeko: brujakara eramateko.
Brujaka: buru-jakea, soingainekoa.

16. **Ustez uste bagarik:** uste-uste barik, batiere uste gabe.
Dakuse: ikusten dute.
Zokondo: zoko izkutu, bazter.
Eukazala: zeuzkala.
Eutseen: zioten.

17. **Arin:** azkar, lasterka.
Dauke: daukate.
Deutseela: diotela.

18. **Dirautse:** diotse, esaten die.
Egidazuez:iezazkidazue.
Imintia: ipintzea, jartzea.

19. **Agintari bat bada:** agintari bat baldin bada.
Hartutzailiak: hartzaileak, harrapatzaileak.
Iruntsiko ditue: irentsiko dituzte.
Mamin: mami, giharrea.

MARKINAKO ITURRIA

(Jose Antonio Astarloak Markinako iturriari eginiko bertsoak. Adolfo Arejita. *Litterae Vasconicae, Euskeraren Iker Atalak 6*, 99. or.)

01 Carlos Hirugarrena
Bizkaiko Jaun dala
Markinako huriak
egin nau honela.

02 Ugarteko hatxpeetan
daukat jatorria
ubide sakonetan
ekarri ugaria.

03 Ur hau ederra zala
esanik aituak
halan arindu dira
neke ta kastuak.



01. **Huriak:** hiriak.

02. **Hatxpeetan:** haizpeetan.

03. **Aituak:** adituak, jakintsuak.
Kastuak: gastuak.

Markinako Karmengo Iturria egin zutenean, 1787-88 bitartean, bertso batzuk eskatu zizkioten Juan Antonio Mogeli, bertan irarrita ipintzeko. Mogekek hiru lauko hauexek ondu zituen. Baina ez zen nonbait hori denen gogoko izan eta Jose Antonio Astarloak, beste bi Astarloa euskal idazleen anaiak, bere bertso batzuk jarri zituen eta, Markinako alkate zela, bereak ipini nahi izan omen zituen, Mogelenak kendurik, baina azkenean Mogelenak irarri zituzten berriz. Hona Astarloaren laukoak:

KARLOS HIRUGARRENA

(Aurreko bera, 103. or.)

01 Karlos Hirugarrena
Bizkaiko Jaun zanian
etorri nintzan hona
askoren onian.

02 Ez nau inok ikusten
etorri artian
Jauna ta biok gara
lurpe ilunian.

03 Agertu nintzarian
txurru musturrera
andra bat nekusan nik
gutzizko ederra.

04 Karmengo lora eder
Birjina Maria
gorde egizu ondo
ni naruan guztia.

05 Edan naizu, gizonak
ardura bagarik
ez zaitut hordituko
ez janda ez barurik.

06 Zerren nazan elexiak
dei egiten deustana
kriatura inozente
gatzik ez dodana.



01. **Hona:** hunat, honera.

03. **Txurru musturrera:** txorro, xurrut
muturrera.
Andra bat: Karmengo Ama, honen aurreko
plazan bait dago iturria.
Nekusan: ikusten nuen.

04. **Egizu:** ezazu.
Naruan: naraman.

05. **Naizu:** nazazu, nazazue.
Bagarik: barik, gabe.
Hordituko: mozkortuko.

06. **Zerren:** ze, zeren, zergatik. Kausala.
Nazan elexiak: naizen elizak.
Dei egiten deustana: dei egiten didana,
deitzen nauena.
Gatzik: gaitzik, txarrik.

Bertso hauek Mogelenak baino hobeak direla idazten du Adolfo Arejitak, bai azalez eta bai mamiz. Ez dago dudarik. Mogelenek kunpligarririk dirudite, eta hirugarreneko *neke ta kastuen arintze* horrek ia-ia gus-to txarreko aipamena dirudi. Unean bertan eta bat batean, bertsolari bategi iturrigintzaren nekeak eta gastuak aipatzea egoki izan liteke, baina

harrian betiko irarrita geldituko den testu baten azken hitza kastuak izatea arruntegia da.

Astarloarenak, osterak, benetan politak dira. Lehen koplako kokapen historikoaren ondoren, bigarrenean Jaunarekin batera lurpe ilunean dator ura, hirugarrenean andre eder bat ikusten txurru muturretik, laugarrenean andrearen nortasuna eta eskaria, bosgarrenean iturrira datozenei deia, eta seigarrenean uraren izaera garbia. Kopla hauek behar bada ez zuten ura bera hobetuko, baina bai uraren fama.

XIX. MENDEA

JOAN JOSE MOGEL

“Euskal idazle gipuzkoarra (Deba edo Soraluze, 1781, Xemein, 1849), aurrekoaren (Jose Antonio Mogelen) iloba eta Bizenta Antoniaren anaia. Markina-Xemeingo apaiz izan zen. Lehen karlistadan Bizkaiko Jaurerriko diputatu hautatu zutenean, parrokiatik egotzi zuten”. (Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa. Bizenta Antoniaren *anaia* dion lekuan, *neba* jartzen ikastea ere ez legoke gaizki hiztegi batean)

SAN ANTONIO URKIOLAKUARENAK

(Poesía Bascongada en dialecto vizcaino. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa. 83. or.)

01 Urkiolak dauka gaur
entzute handia
ta San Antoniori
zor deutsa guztia.
Bere ermitia dago
muruen erdian
noztik ez dakigula
behintzat aspaldian.

02 Urkia batetik ta
pagua bestetik
sasia eta larra
han dago guztitik.
Nundik bada harako
hainbeste egarri?
Eruak berak bere
leikio igarri.

03 Santu hain handiaren
mirari argiak
idigi izan dituez
askoren begiak
zabaldurik biziro
eginen barriak
igaroteko pozik
harako mendiak.

04 Abadiño, Durango
eta Mañariak
kontau ahal balegiez
bidazti guztiak
harrigarri litzate
zenbat entzutia
Otxandiotik barriz
zelako jentia?

05 Lau bat balitz legeztxe
aldatsian gora
zelan egarri dana
edatera ura
duaz arin aringa
herren nahi zuzenak
baita atso-agura
ahalik kadenenak.

06 Ez da ez aurtengua
ezta igazkua
kantau ohi dan bertso hau
nok daki nozkua:
"Askok egiten deutsa
San Antoniori
egun batian juan
bestian etorri".

07 Ai, eta balitz beti
debozino hutsez
gure asabak legez
garbi ta bihotzez!
Baina hemen samintzen
jat neure bihotza
ikusirik askoren
fedia hain hotza.

08 Zer dauke santuagaz
zertan zer ikusi
Jesusen aginduak
nahi izanik hausi
gazte nasai, nabarmen
agura berdiak
zikintzen badituez
plaza ta bidiak?

09 Atxakia harturik
santu hain handia
lurreko aingerua
guztia garbia
pekatuz hatsiturik
juan-etorrian
ibilten dira asko
behintzat aspaldian.

10 Ez daukat gura beste
buruan malkorik
negarrez botateko
halan ikusirik
itxuturik jentia
gure egunetan
arimak hondatuten
erromerietan.

11 Ai gure antxinako
euskaldun garbiak!
Zein desbardinak ziran
zuen ibiliak!
Bilatzen zenduezan
benetan santuak
baita bere atera
ugari frutuak.

12 Ortozik, buru hutsik
begiak lurrian
bidiak igarota
santuen aurrian
opariak eginik
bihotz garbiakaz
etxera ohi zentozen
zeruko pozakaz.

13 Errezu eta kanta
ahalbait garbienak
ziran orduan soinu
entzuten ziranak.
Oh zorionekuak
erromes dontsuak!
Zeruan daukazuez
eginen frutuak.

14 Santuaren aurrian
guztiz ahuspaturik
malkozko erreguak
pozik zuzendurik
ermita inguruak
debotoz beterik
batzuk urten orduko
bestiak sarturik.

15 Egun zorioneko
benetan dontsuak
ezagutzen zalako
zer ziran santuak.
Halan ikusten ziran
hainbeste mirari
ondo erreguturik
santu handiari.

16 Nor ez da saminduko
gaurko egunian
Luzifer ikusirik
santuen ganian
askok gura dabela
imini buruan
San Antonio itxita
ermita barruan?

17 Zelai ta inguruan
infernu jolasak
txilibitu, pandero
soinu barrabasak.
Nasaitasun guztiak
ixil ta agiri
opari egokiak
euren Luziferri.

18 Noz arroztuko dira
euskaldun maitiak
gure artetik urrin
halako egitiak?
Noz artian itxirik
fedeko begiak
gaizki igaroko dira
egun hain handiak?

19 Zelan gara agertuko
asaben aurrian
baldin asmo santuaz
ermita egitian
itxi bagenduezan
santuen mendian
garbi izateko
Jaunaren legian?

20 Bizi bedi, Antonio
gaur gure fedia
bizitzia egiteko
zelan sinistia.
Munduko egun laburrak
garbi igarorik
zugaz izan gaitian
zeruan dontsurik.
Amen.



01. **Deutsa:** dio.
Muruen: murruen, harresien.
02. **Leikio:** liezaioke.
03. **Idigi:** ireki.
Dituez: dituzte.
Eginen: egintzen, egitateen.
Harako mendiak: hara joateko, hara daramaten mendiak.
04. **Balegiez:** balitzate.
Bidazti: bidelari, bidez bide doana.
Litzate: litzateke.
Zelako: nolako.
05. **Lau:** zelai, ordeka.
Legezte: legetxe, bezalaxe.
Aldats: aldapa, malda.
Arin aringa: antxintxika, korrika, lasterka.
Kaden: elbarri, gaitz fisikoren bat daukana.
07. **Debozino:** debozione, debozio.
Jat: zait.
08. **Dauke:** daukate.
Santuagaz: santuarekin.
Nasai: laxo, jarein.
09. **Atxakia:** aitzakia, estakurua.
Hatsiturik: kirasturik, usain txarra harturik.
10. **Gura beste:** gura aina, nahi aina, nahi bezanbat.
11. **Zenduezan:** zenituzten.
Baita bere: baita ere.
12. **Ortozik:** oin hutsik.
Garbiakaz: garbiekin.
13. **Dontsuak:** santuak.
Daukazuez: daukazuez.
14. **Ahuspazu:** ahospeztu, ahoz behera etzan edo makurtu.
Urten: irten, jalgi.
15. **Halan:** hala.
Mirari: mirakulu.
16. **Gura dabela:** nahi dutela.
Imini: ipini, jarri.
Itxita: utzita.
17. **Barrabasak:** gaiztoak, deabruzkoak, Barrabasenak.
18. **Arroztu:** arrotz bihurtu, kanporatu.
Urrin: urrun, urruti.
Igaro: iragan, pasatu.
19. **Itxi bagenduezan:** utzi bagintuzten.
Mendian: mendean, pean.
20. **Zelan sinistia:** nola sinistea, sinestea bezala.
Zugaz: zurekin.

SAN ANTONIO PADUAKUARENAK

(Aurreko bera, 84. or.)

- 01 Zure mesede handiak dabe erakutsiten argiro ongila guztiz miragarria zariala San Antonio.
- 02 Herege askok sinistu eben ta hartu gure fedia ikusiagaz itxas arrainak entzuten zure berbia.

- 03 Zaldi gosiak hantxe itxi eben garagarra bere albuan belaun biakaz adoretako Jesus ostria santuan.
- 04 Suaren eta itxasuaren arrisku handienetan aurkitu dabe estu egozanak gozotasuna penetan.
- 05 Itxu ta mutu, gor eta herren baita bihurri guztiak osatu ditu beti daukazun zure eskubide handiak.
- 06 Seintxu txikiak biztu zenduzan Jaungoikuaren indarrak errukiturik guraso onen pena eta negarrakaz.
- 07 Presondegian egozan asko zuk zabaldurik atiak igesi dabe, ta katiguak zuk urraturik kateiak.
- 08 Zugaitik askok alkantzau dabe bendezinoeko frutua zarialako guztientzako atseginezko santua.
- 09 Gauza galdua aurkituteko nor da inun zu lakorik? Ez da ikusi, ez inoz entzun zuri hur emotekorik.
- 10 Mesede handiak hartzeko gagoz zugandik uste osuan daukazulako Jesus maitia gozaro zeure besuan.
- 11 Jaungoikuaren seme bategaz sarri olgau zan santuak zer ezin leike gugaitik egin bagaitu bere hartuak?
- 12 Nobena eder hau egin dagigun debozino gozuagaz geldituteko eginda gero poz ta atsegin osuagaz.



01. **Dabe:** dute.
Zariala: zarella.
02. **Herege:** herese.
Eben: zuten.
Ikusiagaz: ikusiarekin, ikustean.
Berbia: hitza, elea.
03. **Itxi eben:** utzi zuten.
Biakaz: biekin.
Adoretako: adoratzeko.
Ostria: hostia.
04. **Egozanak:** zeudenak.
05. **Osatu:** sendatu.
06. **Seintxu:** haurtxo, umetxo.
Biztu zenduzan: piztu zenituen.
Negarrakaz: negarrekin.
07. **Katiguak:** gatibuak, katepean daudenak.
08. **Alkantzau dabe:** lortu, erdietsi, eskuratu dute.
Bendezinoe: benedikzione, bedeinkapen.
09. **Lakorik:** bezalakorik.

- Hur emon:** antza eman, inguratu, maila berdintsua eduki.
10. **Gagoz:** gaude.
Gozaro: gozoki, eztiki.
11. **Bategaz:** batekin.
Sarri: sarritan, maiz, anitzetan.
Olgau: olgatu, jolastu, jostatu.
Leike: lezake.
- Bere hartuak:** beretzat hartuak, bere hautatuak.
12. **Nobena:** bederatziurren, bederatzi egunez egiten den otoiitz edo elizkizuna.
Dagigun: dezagun.
Gozuagaz: gozoarekin.
Geldituteko: gelditzeke.

KRISTINAU BATEN LANAK

(Aurreko bera, 85. or.)

- 01 Goxian esnatuta
aurrerengo lana
bihotza jasotia
Jaungoikuagana
guztia eskinirik
gorputz ta arima
bitarteko harturik
Maria zeure Ama.
- 02 Jarririk belauniko
benetan ta gogoz
errezadu egizuz
ez bakarrik ahoz
hiru Ave Maria
ta Salve gozua
beti garbi izateko
harturik asmua.
- 03 Denporarik badozu
halan egiteko
goguan hartu zerbait
hatan pentsetako
Jesusen Pasinoetik
egun hatarako
arazurik ez dozun
uneetarako.
- 04 Baina baldin astirik
inundik ezpada
lanetan zabiltzala
egina bardin da.
Jaso bada bihotza
benetan gogotik
entzungo zaituz pozik
Jesusek zerutik.

- 05 Ezelan ezin bada
meza entzutia
egunoro ahal dozu
gura izatia.
Zure aldetik dana
eginik bihotzez
aberastuko zara
zeruko ondasunez.
- 06 Ama ta Dontzeilaren
errosariuak
eukirik hain samurrak
bai misteriuak
ez arren inoz itxi
atxakia hutsez
errezau baga astiro
ta guztiz bihotzez.
- 07 Jaunaren gomutia
harturik buruan
goiztik eta gabera
ahalegin osuan
bere bildur santua
gorde bihotzian
pekatuko kateian
jausi ez zaitian.
- 08 Ezkutu ta zokondo
gaba nahi iluna
guztia da beretzat
argi ta ezaguna.
Juzgauko zaituzanak
eternidadeko
gauza guztiak deutsuz
ondo ikusiko.
- 09 Pentsamentu handi hau
goguan eukirik
ez dozu ez egingo
inoz pekatirik.
Bere bildur santuak
zaituz sendatuko
bizia galdutera
argaldu orduko.
- 10 Bere eskuetatik
dogu etorria
gorputz, arima eta
daukagun guztia.
Bere honriagaitik
galtzen dituzanak
irabaziko dituz
zoriontasunak.
- 11 Maitetzen badituguz
munduko ondasunak
gorputzaren atsegin
ta gozotasunak
Jaungoikuaz ganetik,
zorigaiztokuak!
Ziur-ziur ditugu
su-gar betikuak.
- 12 Ez zaitetz inoz sartu
ohera gabian
zerbait pentsau bagarik
gauza honen ganian:
Oh zenbat gizaseme
biharko goxian
iratzartuko diran
eternidadian!

- 13 Nok daki niri bere
beste honenbeste
baldin bajat munduko
denporia bete
gau honetantxe bertan
igaroko jatan?
Ai ondo-ondo pentsauko
bazendu benetan!
- 14 Jaunak nahi ez daijala
halako gauzarik
baina badaukazu zuk
pekatu handirik
infernua daukazu
behian idigirik
ta demonioak zain
kateiak harturik.
- 15 Oh arima gaixua!
Horrelan bazagoz
zelan zuaz ohera
pozez eta gogoz?
Ez zaiten arren sartu
ohe bigunian
amodiozko damuz
garbitu artian.
- 16 Arduraz bizi zaiten
adi ta kontuan
alperrentzat ez dago
lekurik zeruan.
Sinistu egidazu
arrisku handian
munduan zagozala
hil arte guztian.
- 17 Nok esan ez aditu
munduko lazuak
iminten deuskuzanak
Luzifer galduak?
Labankeria eta
palagu gozuak
haragizko olgantza
atsegin eruak.
- 18 Luzifer aurkiturik
betiko infernuan
guztiok gura gaituz
han bere pentzuan.
Horretarako dituz
sariak zabaltzen
eta itxu itxuan
asko katigatzen.
- 19 Zerurako bidia
zabaldurik
"ez dago zetan hartu
-dirausku- kezkarik".
Geroko proposituz
bihotzak pozturik
daukaz zorigaiztuan
asko atrapaurik.
- 20 Edurrezko malutak
zein da hain ugari
jausten dirala dinot
sinistu arren niri
arima engainauak
betiko infernura
uste ebenak gero
onduta zerura.

- 21 Olgantza nasaietan
ebiltzen artian
onai burla egiten
gogo ederrian
Jauna zeru goietan
begira geldirik
baina ez halan gero
ordua beterik.
- 22 Nahi baino lasterrago
mundua igarorik
biloxik izten ditu
ezertxu bagarik.
Barriz euren arimak
pekatuz beterik
zeru ederra galdu
eta kondenaarik.
- 23 Kontau nahi dan bestian
milinoe urtiak
guztiak hartzen ditu
eternidadiak.
Zelan bada munduko
egun laburretan
nekatuko ez gara
arimak salbetan?
- 24 Hartu daigun guztiok
amatzat Maria
zeruko erregina
dontzeila garbia.
Berak bide onean
deusku lagunduko
baita bere zerura
gaitu zuzenduko.
- 25 Sarri konfesau zaiten
ondo damaturik
eta komulgau bere
osoz garbiturik
graziaz sendaturik
itxaso handian
iraun dagizun beti
bizitza guztian.
- 26 Lagun ta ibilta txarrai
betiko itxirik
adiskide onen bat
nunbait bilaturik
erraz goituko dira
munduko lazuak
alperrik damu izan
Luzifer galduak.
- 27 Orain egin bihar da
ez itxi geroko
bestelan esku hutsakaz
zara geldituko.
Hazia erein baga
ez dago fruturik
ezta nekatu baga
betiko zerurik.
- 28 Beretzat izango dau
egiten dabenak
jarraturik gerora
onak eta txarrak.
Ez da zetan ezarri
inori errurik
norbera bere guraz
betiko galdurik.

29 Jauna, iratsi egizuz
gure bihotzetan
kantau ditugun gauzak
zortziko honeetan
bizi gaitian leial
bide santuetan
lurrian eta gero
zugaz zeruetan.
Amen.



01. **Goxian:** goizean.
02. **Errezadu egizuz:** errezatu itzazu.
03. **Hatan pentsetako:** hartan pentsatzeko.
Pasinoe: pasione, pasio.
Arazurik: arazorik, zereginik, egin beharreko lanik.
05. **Gura:** nahi.
06. **Arren:** otoi, mesedez.
Inoz itxi: inoiz utzi, laga.
Atxakia: aitzakia, estakurua.
Baga: barik, gabe.
Astiro: geldiro, poliki-poliki, mantxo.
07. **Gomutia:** gomuta, oroitzapen, gogorapen.
Jausi: erori.
08. **Ezkutu:** izkutu, gordean dagoena.
Zokondo: bazter, zoko izkutu.
Zaituzanak: zaituenak.
Deutsuz: dizkizu.
09. **Bizia galdutera:** bizia galtzeraino.
10. **Honriagaitik:** ohoreagatik.
Dituzanak: dituenak.
12. **Gabian:** gauean.
Pentsau bagarik: pentsatu gabe.
Iratzartu: itzartu, atzartu, ernatu, esnatu.
13. **Bajat:** bazait.

- Igaroko jatan:** gertatuko zaidan.
14. **Daiala:** dezala.
Baina badaukazu: baina baldin badaukazu.
Behian: behean, behean.
Idigirik: irekirik.
15. **Bazagoz:** bazaude.
16. **Adi:** erne, arretaz, begira.
Egidazu: iezadazu.
Zagozala: zaudela.
17. **Lazua:** lakioa, tranpa.
Deuskuzanak: dizkigunak.
Labankeria: labainkeria, irriskeria, zurikeria.
Palagu: balaku, losintxa, engainuzko hitz edo keinua.
Olgantza: dibertsio, jolas.
18. **Pentzuan:** gorabeheran, menean, agindupean.
Sariak: sareak.
Katigatzen: lotzen, estekatzen.
19. **Gurarik:** nahirik.
Dirausku: diosku, erraiten digu.
Daukaz: dauzka.
Atrapaurik: harrapaturik, hatzemanik.
20. **Zein da hain ugari:** bezain ugari.
Jausten: erortzen.
Dinot: diot, esaten dut.

- Engainauak:** engainatuak, atzipetuak.
Ebenak: zutenak.
21. **Ebiltzen:** zebiltzan.
22. **Igarorik:** iraganik, pasaturik.
Biloxik: bilutsik, biluzik.
Ezertxu bagarik: ezertxu gabe, deus ere gabe.
23. **Nahi dan bestian:** nahi den aina, nahi bezanbat.
Milinoe: milioi, miliun.
Salbetan: salbatzen.
24. **Daigun:** dezagun.
Deusku: digu.
25. **Sarri:** sarritan, maiz, anitzetan.
Komulgau: komulgatu, komekatu, jaunartu.
Dagizun: dezazun.
26. **Ibilta:** ibiltze, ibilera.
Itxirik: utzirik, lagarik.
Goitu: gaintu, menperatu.
27. **Hutsakaz:** hutsekin.
28. **Dabenak:** duenak.
Bere guraz: bere gogoz, berak nahita.
29. **Iratsi:** iratxeki, erantsi, itsatsi.

BIZENTA ANTONIA MOGEL

Joan Antonio Mogelen iloba eta Joan Jose Mogelen arreba zen eta euskaraz lehen emakume idazletzat jotzen den Bizenta Mogel Azkoitian jaio zen 1782an eta Bilboko Abanton hil 1854an. Prosazko eta itzulpenezko lan ugarietz gainera, bertsoak ere ez zituen gutxi ondu eta hauen artean adierazgarrienak beharbada *Gaboneko Kantak* izango dira.

Bilboko Santiago katedralean edo Abantoko San Bizente elizan urtero gabon kanta sorta bat ateratzeko eta kantatzeko ohitura ezarri zuten. Beste jaiegun handi batzutan ere bai, antza. Bertso horien egilea urte askotan Bizenta Mogel izan zela dirudi. Lehen liburuan, izengabeetan, *Gaboneko Kanta* hauen bilduma luzea ematen da. Bertan Bizenta Mogelen lan ziurtzat jo daitezkeen batzuk sartuak daude, denak batera emateagatik.

Hemen han falta diren hiru sartzen ditut. Hirurak Bizenta Mogeleanak? Baietz esan daiteke. Beraz, Bizenta Mogelen bertsoen ikuspegi osoa goa nahi duenak izengabeen liburuan Gabonei dagokien atalera jo beza.

ORDU HOBETAN EZIN

(*Gaboneko cantac Jesusen jaiotziaren gañian 1829 garren* urteraco. Bilboon: José Antonio Jaureguien sillutegijan).

(Bizkaierazko idazle klasikoak. Xabier Altzibar. 327-327 or.)

Sarrerria:

Bildots otzana
Seintxu sotila
argi guztien
argia:

Erdu zerutik
amatetara
gure bihotzen
egarria.

Zortzikua:

01 Ordu hobetan ezin
letorkez Gabonak
bada endekaturik
egozan gizonak.
Jesusen jaiotziaz
dira hazkortuko
eta lehengo nekiak
ditubez ahaztuko.

Pozgarri edo estribilua:

Maite maite
zaitugun Seina
erdu laster gugana
edendurik
ta argaldurik
dator gizona zugana.
Zure oinetan
ahuspazturik
eskatuten osasuna.

02 Zeruan agertu dan
ostarku ederrak
itoko ditu laster
zintzuen negarrak.
Poza ta atsegina
dira jarraituko
zizpuru ta zotinak
amaitu betiko.

03 Zeruko erregina
errukiz beterik
aingeru Gabrieli
baietza emonik
jarri da bitarteko
Jaunaren aurrian
gizona iminteko
beragaz bakian.

04 Adanen pekatuak
baginduzan galdu
gaur Eba barri honek
gura gaitu poztu.
Berak gure katiak
nahi ditu askatu
ta zeruko atiak
betiko zabaldu.

05 Zeruak eta lurra
bat eginik legez
alkaturik dakuskuz
orain zorionez.
Gloria zeruetan
bakia lurrian
hau da entzuten dana
gaur mundu guztian.

06 Jaio da bai jaio da
Mesias dontsua
antxinako asabei
sarri agindua.
Bere odol garbiak
gaitu garbituko
eta bere indarrez
gara sendotuko.

07 Baina zek zakaz hona
Sein zoragarria?
Ez dakizu emongo
deutsuen saria?
Gizon esker bagiak
malmutz ta harruak
zu galduteko daukez
eginik asmuak.

08 Zeinbat eta mesede
gehiago guk hartu
hainbat esker txarrago
emoten deutsugu.
Horregaitino beti
prest zure bihotza
gozatuteko bertan
gizon hain arrotza.

09 Benetan damaturik
bagara juaten
inor ez da atzera
nahibagaz bihurtzen.
Guztientzako dago
zabalik atia
ontasuna berbera
zara Sein maitia.

10 Ia ordua dogu
jausteko kontuan
ez dala atsegirik
izango munduan.
Gure itxaropena
imini zeruan
damutu ez dekigun
azkenengo orduan.

11 Jainkuaren legia
da guztiz biguna
ta bere buztarria
ez gogor astuna.
Gorde gorde osoro
bere aginduak
nahi badozu jaritxi
betiko zeruak.



Otzana: masala, mantsoa, xuabea.

Sotila: dotorea, xarmanta.

Erdu: zatoz, etor zaitez.

Amatetara: amatatzera, itzaltzera, iraungitze-
ra.

01. **Letorkez:** letozke.

Endekaturik: nekaturik, ahiturik. Esana-
hi hori damaio Bizenta Mogelek, baina
endakatu gehiago da enda edo berezkoa
galtzea, degeneratzea.

Egozan: zeuden.

Hazkortu: animatu, kemendu, adoretzu.

Dituez: dituzte.

Seina: haurra.

Edendurik: ahuldurik, makaldurik. Esa-
nahi hori damaio Bizenta Mogelek.

Ahuspaztu: ahoz behera jarri, makurtu.

02. **Ostarku:** ortzadar, ostadar.

Zizpuru: hasperen, auhen, larritasunezko
arnasa.

03. **Iminteko:** ipintzeko, jartzeko.
Beragaz: berarekin.
04. **Baginduzan:** bagintuen.
05. **Legez:** bezala.
Dakuskuz: ikusten ditugu.
06. **Dontsua:** dohatsua, bedeinkatua.
Antxinako: aspaldiko, garai zaharretako.
Asabei: arbasoei, antzinako gurasoei.
Sarri: maiz, aunitzetan, sarritan.
07. **Zek zakaz:** zerk zakartza.
- Deutsuen:** dizuten.
Bagiak: gabeak.
Malmutz: maltzur, azpikari, iruzurti.
Daukez: dauzkate.
08. **Horregaitino:** hala ere, horraitio, horregatik.
09. **Nahibagaz:** nahigabez, atsekabez, penaz.
10. **Jausteko:** erortzeko.
11. **Osoro:** osoki, osorik, guztia.
Jaritxi: lortu, erdietsi, eskuratu.

BETI NAGO KANTETAN

(*Vizcaico nequezalientzat gabon jaietan cantetaco arratsetan picherraren aurrian*)

(Bizkaierazko idazle klasikoak. Xabier Altzibar. 327-329 or.)

- 01 Beti nago kantetan
urterik urtera
ez dakit gaur zer esan
egia esatera.
Igez esan nebana
ahaztu da aurtengo
gogua daukat hotza
orain kantetako.
- 02 Asko esan deitsuet
lehen urtietan
nire esan guztiak
ez dagoz ezetan.
Alperrik hausiko dot
nik neure burua
lehengua izango da
aurrera mundua.
- 03 Bizkaiak ez dirudi
inolaz lehengua
ardaua ta pipia
ta karta jokua.
Honek dira oraingo
gizonen lagunak
ugarturik askoren
laia ta hatxurrak.
- 04 Andriak ta umiak
etxian negarrez
ardanlekuak beti
beterik gizonez.
Larrez ondo estaldurik
soloko bazterrak
bedarrez hatsiturik
galbera ederrak.

- 05 Etxeko orma zaharrak
huntzorritz josirik
alderdia jausita
jaramon bagarik.
Teilatuan ugari
beti itoginak
gosiak irriturik
zekorren haginak.
- 06 Hau bai bizimodua
Bizkaitarrentzako!
Lotsien lotsaz ez dot
guztia esango.
Armariuan hutsa
ziskuan ezer ez
alkondaratxu zaharra
beterik ziztrinez.
- 07 Koko hazur handiak
Bilboko plazara
eskalu apur batzuk
hantxe saldutera.
Txori habiatxu bat
eskuan harturik
etorten dira asko
lotsatu bagarik.
- 08 Perrejil apurtxu bat
porru bat edo bi
perretxiku txortiaz
neskatxa ugari.
Kargatxu bat iregaz
datoz urrinetik
Bilboko kalietan
ibiltiagaitik.
- 09 Gorua egitia
dinue alper da
miesia erosi
askozaz hobe da.
Guztia dago merke
denpora honetan
zetako egongo gara
beti goruetan.
- 10 Gizonen praka zaharrak
guk atondutia
ezin izan leiteke
betor joskilia.
Zakutxu bat hautsegaz
banua plazara
handik ekarriko dot
alogera etxera.
- 11 Kakuan trapu zaharrak
itxi eskegirik
ta lapikua surtan
okela bagarik.
Umiak jantzi baga
etxe inguruan
dindirria ugari
dabela mosuan.
- 12 Ama dator etxera
ilunabarrian
makailao atal bat
dabela aldian.
Erdi irakinian
mahaira aterarik
ez dago -esaten dau-
honako jakirik.

13 Nun dira Bizkaitarren
esne ta artuak?
Nun gaztaina ugari
eta sagarduak?
Gautxoriak dituez
guztiak eruan
zerren galdu dituen
gizonak jokuan.

14 Geldi geldika gara
hurira jatsiko
han zer dan igaroten
dogu ikusiko.
Gauza barregarriak
dira agertuko
edo negargarriak
hobeto esateko.

15 Gomuta dot nebala
gazte nintzarian
ikusitxo tximino bat
zamari ganian.
Berbera dirudie
gizon gazte askok
euren jantzi moduaz
egia esango dot.

16 Gerria estu-estu
bularra harrua
prakak zorrua legez
burua erua.
Uste dabe dirala
Adonis barriak
jarraituten deustela
guztien begiak.

17 Agura nekatuak
belaun lokiagaz
estaldurik uldua
guzur uliakaz.
Nahi dituez ezkutau
daukezan urtiak
baina ikusten jakez
urdinak uliak.

18 Emakumiak gaitik
zer esan ginaike?
Isilik egotia
hobato litzate.
Zerren hasten bagara
zertxubait esaten
ez dogu amaituko
hori egun baten.

19 Ispiluan ordu bi
lau ta bost kalia
denporia emoten
murmurazinoian.
Etxera arratsian
umore txarragaz
dihadar ta barailak
gero otseinakaz.

20 Beste batzuk hor dabiz
bazter guztietan
ez dauke zer eginik
seguru etxeetan.
Saldu-erosietan
goizerik gabera
hor sartu hemen urten
guzurra aurrera.

21 Honakuen senarrak
dagoz zoraturik
ez edo bere dauke
etxian egurrik.
Andra kale zaliak
ez dira etxerako
gizonak biharko dau
imini jateko.

22 Lotsatu arren bada
Bizkaitar maitiak
ikusitxo alperkeriak
dakazan kaltiak.
Bizimodu barri bat
guztiok harturik
ez dedila agertu
gehiago nagirik.



01. **Kantetan:** kantatzen.
Igez: iaz.
Nebana: nuena.
Gogua daukat hotza: gogoa hotz daukat.
Kantetako: kantatzeko.
02. **Deutsuet:** dizuet.
Ez dagoz ezetan: ez daude ezertan, ez dute ezertarako balio.
Hausi: hautsi, apurtu.
Aurrera: aurrerantzean, gaurgero, hemendik aintzina.
03. **Ardaua ta pipia:** arnoa eta pipa.
Honek: honeik, hauek.
Ugarturik: uharturik, herdoildurik.
04. **Ardanlekuak:** ardanlegiak, edaritegiak.
Larrez: sasiz.
Bedar: belar.
Hatsitu: kirastu, usain txartu. Hortik beste esanahi hau argotean: *betearen betez hatsitu*, nazkatzeraino bete. Hala *jendez hatsiturik*, *bedarrez hatsiturik* etab.
Galbera: gari bigun, gari mota oso on bat.
05. **Huntzorri:** huntz, landare igokari bat.
Jaramon bagarik: kasurik egin gabe.
Gosiak irriturik: goseak hilik, gose nabarmenez.
06. **Lotsien lotsaz:** lotsaren lotsaz, ahalkearen handiz. Testuak *lotsien lotsa* dakar, baina *lotsaz* behar du.

Armariuan hutsa: esakera naturala *armariua hutsik* litzateke. Segurrenik *armariuan hutsa* izango da.
Ziskuan: diru-poltsan, karteran.
Ziztrinez: hari edo zati txikiz, fildaz, din-dirriz.

07. **Koko:** zomorro, intsektu. Hitz honek beste esanahi batzuk ere badauzka. Norbaitzuen ezizena dirudi.
Eskalu: eskailu, erreka arrain bat, txikia eta fina.
Habiatxu: kabitxo.
Bagarik: bage, gabe.
08. **Apurtxu bat:** pixka-pixka bat, amini bat.
Txortiaz: txortarekin, sortarekin.
Iregaz: irarekin, garorekin.
Urrin: urrun, urruti.
09. **Gorua:** iruteko edo haria egiteko tresna.
Dinue: diote, erraiten dute.
Alper da: alperrik da.
Miesia: mihisea, ehuna.
Zetako: zertarako, zergatik.
10. **Atondutia:** atontzea, konpontzea, prestatzea.
Joskilia: jostuna, joslea.
Hautsegaz: hautsez, hautsarekin.
Alogera: alokairua, soldata.
11. **Kakuan:** gakoan, arropak eskegitzeko karela edo alanbrea.
Esegi: eskegi, dilindatu, zintzilikatu.

- Lapikua:** eltzea.
Surtan: sutan, suan.
Okela: haragi hila, jatekoa.
Dindirria: zirdina, zirtzila, eranskina.
Mosuan: aurpegian.
12. **Dabela:** duela.
Honako: honelako.
13. **Dituez:** dituzte.
Eruan: eroan, eraman.
Zerren: ze, zeren, zergatik. Kausala.
14. **Hurira jatsiko:** hirira jaitsiko, jetxiko.
Igaroten: pasatzen, gertatzen.
Barregarriak: irrigarriak.
15. **Gomuta dot:** gogoratzen, oroitzen naiz.
Nebala: nuela.
Tximino: tximu, ximino.
Zamari: zama edo karga aberea, asto, zaldi edo mando.
Dirudie: dirudite.
Jantzi moduaz: jantzi moduarekin, jazkerarekin.
16. **Prakak:** galtzak.
Legez: bezala. **Deutsela:** diotela.
17. **Lokiagaz:** lokarekin, kolokarekin. Finko ez dagoena.
Uldua: buru ilegabea, burusoila.
Guzur uliakaz: gezurrezko ileekin, postizoekin.
- Ezkutau:** izkutatu, gorde.
Daukezan: dauzkaten.
Jakez: zaizkie.
Urdinak uliak: ile zuriskak, zuriak, beste kolore batetik zuri bilakatuak, denboraren, hezetasunaren edo zerbaiten eraginez. *Urdin*-en gaurko esanahia geroa-gokoa dela dirudi.
18. **Ginaike:** genezake.
Hobato: hobeto, hobeki, hobe.
Litzate: litzateke.
19. **Murmurazinoian:** murmurazioan, marmarrear, gaitz-erranean, maiseoan.
Txarragaz: txarrarekin.
Dihadar: deihadar, zarata, garraisi.
Baraila: iskanbila, zalaparta, eskandalua.
Otseinakaz: otseinekin, zerbitzariekin.
20. **Dabiz:** dabiltza.
Dauke: daukate.
Goizerik gabera: goizetik gauera.
Urten: irten, jalgi, atera.
Guzurra aurrera: gezurra aitzina doala, gezurra korriaraziz.
21. **Dagoz:** daude.
Ez edo bere dauke: ez diot zentzurik hartzen, zerbait oker ez badago.
22. **Lotsatu:** ahalketu.
Arren: otoi, mesedez.
Dakazan: dakartzan, ekartzen dituen.

Lehenengo bi bertsoetan garbi adierazten da Bizenta Mogelek urte askotan bete zuela bertsoegile eginkizuna. Eta ez zen nonbait labur gelditzekoa, lehen bertsoan "ez dakit gaur zer esan" abisatuta gero, hogeita bi bertsoa sorta burutzen bait du.

BIRJINA AMA MARIAK

(Frantzeseko bertsoak (II). A. Zavala. *Auspoa* 213. 27-32 or.)

(*San Bizente Abandokoaren elexan kantaduko dirian kantak Maiatz-Pazkuako bigarren egunian, zeinetan jausten dan San Fernandoren eguna bere, eta egiten jakan piestia Ama Birjiniaren sorrera edo Konzepzinoiari eta eskerrak emoten jakazan Jaunari gure errege Fernandoren etorreria gaitik*).

Poztu gaitex lau jaietan
 Maiatz-Pazkua honetan
 Done Marien sorrera
 frantzesen urtaieran
 San Fernandoren egunian
 Fernando errege dogunian.

Arintxua:

Poztu gaitexan
 egun honetan
 eskerrak milaz Jaunari
 mesede handiak
 eginagaitik
 gure Españako
 lurrari.

01 Birjina Ama Mariak
 grazian sorturik
 ez eban inoz euki
 orban ez errurik.
 Ederrik urten eban
 oitarren aotik (sic)
 izate hartu ebenak
 baino lehenagotik.

02 Ezkutape honetan
 da gure zainle
 jarleku garaietan
 erregen ipinle.
 Sendo zagoz, España
 bere eskupian
 ez zaitez bildur izan
 bere hegapan.

03 Sevilla hartu baeban
 Fernando santuak
 indarra emon eutsan
 grazian sortuak.
 Sendaturik Fernando
 Ama Birjiniak
 azpiratu zituan
 mauru erregiak.

04 Ez inoz uste izan
españar handiak
ahazturik gaukazala
Birjina Mariak.
Ez da inoz amaitu
bere errukia
oraintxe agiri da
hau dana egia.

05 Eukan frantzes zitalak
Fernando guria
gugandik txito urrin
hau zan esturia!
Zan gure guraria
bera ikustia
baina etzakun erraz
bera eukitia.

06 Jaungoiko errukitsu
on eta bigunak
dakarguz Fernandogaz
ugari ondasunak.
Gure negar malkuak
begitik kentzeko
gure bihotz leialak
pozez aseteko.

07 Jaiorik eguzkia
gau ilun ostian
guztia ifinten dau
argizko pozian.
Halaintxe zuk, Fernando
hemen sartuagaz
España bete dozu
olgura handiagaz.

08 Katigu zengozala
erreinuz kanpotik
lan nekia zabal zan
España guztitik.
Jarri zadiz, Fernando
asaben aulkian
bakia izan daigun
inguru guztian.

09 Galdu gura badabe
okerrak fedia
kendu gure artetik
Jaunaren legia
zapaldu begiz laster
daukazun indarrak
erre, kiskaldu begiz
gar eta txingarrak.

10 Inok elexien kontra
ezer esaten dau?
Ez eiozu parkatu
barriketa zital hau.
Garbirik jaon daizun
zure erlejinoia
irme sendatu eizu
Inkisizinoia.

11 Jaunak jaon zaitzala
Fernando maitea
euki dagigun zugaz
zorion betia.
Izan dedin ugari
zure on egina
hartu daigun guztiok
zeruko atsegina.



Gaitez: gaitezen.
Urtaieran: urteeran, irteran, alde egitean.
Eskerrak milaz: eskerrak milazak, milaka,
esker mila.

01. **Eban:** zuen.
Orban: orbain, lohi, zikin.
Urten eban: atera, jalgi zen.
Oitarren aotik: *goitarren ahotik* dela di-
rudi.
Goitar: goialdekoa, altukoa, Jainkoa. Hala
ere esanahia ez dago argi. Izan liteke: *Goi-
tarraren ahotik*, hots, kreazioan izatea
hartu zuten izakiak baino lehenagotik ir-
ten zela eder, probidentzian hala aurriku-
sia bait zegoen.
02. **Ezkutape:** misterio.
Zainle: zaintzaile, zaindari.
Garai: altu, goiko.
Erregen ipinle: erregeen ipintzaile, ezar-
le.
Zagoz: zaude.
Hegapian: hego, hegal azpian.
03. **Eutsan:** zion.
Mauru: mairu.
04. **Gaukazala:** gauzkala.
Hau dana: hau dela.
05. **Eukan:** zeukan.

Txito urrin: txit urrun, oso, arrunt urruti.
Esturia: estura, estuasuna, larritasuna.
Guraria: nahia, gogoa.
Etzakun: ez zitzaigun.

06. **Dakarguz:** dakarzkuz, dakarzkigu.
Fernandogaz: Fernandorekin.
07. **Ostian:** ostean, ondoren, ondotik.
Ifinten dau: ipintzen du, jartzen du.
Halaintxe: halaxe.
Sartuagaz: sartu izanaz, sartuarekin.
Olgura: jolas, dibertsio, jai.
Handiagaz: handiz, handiarekin.
08. **Katigu:** gatibu, preso.
Zengozala: zeundela.
Zadiz: zaitez.
Asaben: arbasoen, antxinako gurasoen.
Daigun: dezagun.
09. **Gura badabe:** nahi badute.
Okerrak: okerre, gaiztoek, makurrek.
Begiz: bitza.
10. **Eleixien:** Elizaren.
Eiozu: iezaiozu.
Jaon: jagon, zaindu, gorde.
Daizun: dezazun.
Irme: tinko, gogor.
Eizu: ezazu.
11. **Dagigun zugaz:** dezagun zurekin.

Bertso hauen haseran lau ospakizun egun berean gertatzen dira: Maiatz-Pazkuako bigarren eguna edo Pentekostes bigarrena, San Fernando eguna, Ama Birjinaren Sorrera edo Konzepzinoia eta Fernando VII erregearen etorrera. Aita Zabalak oharrarazten duenez, Sorrera edo Kontzepzio eguna abenduaren zortzian izan da beti eta San Fernando eguna maiatzaren 30ean. Fernando VII berriz martxoaren 22an itzuli zela Espainiara dio. Beraz, lau jaiak egun berean nola izan zitezkeen edo zer esan nahi duen ez dago batere argi. Argi dagoena -beti ere A. Zavalari

jarrai-maiatzaren 30eko San Fernando eguna eta Maiatz-Pazkua bigarre-na 1814an gertatu zirela batera. Bertso hauek noizkoak diren hortik at-era dezakegu.

Bestalde, gaurko ikuspegitik hain anker eta fanatiko deritzogun inkisizioa "irme sendatzeko" eskatzen dio erregeari, eta "Fernando VII erregeak -dio A. Zavalak- Frantziatik etorri ta laster, Kadizko Korteak eman-dako legeak kendu egin zituan, eta Inkisizioa berriz zutik jarri, 1814'ko uztailaren 21ean, 1808 urtean zegoan ainean. Ikusi degunez, orixe eska-tzen zuan, bi illabete lenago bertso hauen jartzailleak".

ANTONIO ABOITIZ

Antonio Aboitiz Lekeition jaio zen 1751an eta 1824an hil. Abade izan zen eta bere bizitzako xehetasun askorik ez da ezagutzen. Azkuek berak ere, Lekeitiarra eta abadea izanik, ez dirudi haren berri handirik dakie-nik, *Euskalerrriaren Yakintza*-n Peru Dubakoren bertsoez bait dio: "Poe-matxo hau Lekeition sortu zen, XIX. mendearen haseran, Aboitiz deitu-rako abade umorista baten eskutik, uste denez".

Guganaino heldu diren sorta guztiak umorezkoak dira, ospetsuena *Txanton Pipirri* dela. Badirudi bertso askoren egile izan zela, baina zori-tzarrez gehienak galdu egin dira. Hain bertso bitxiak, gazdunak eta ondo eginak osatzen zituen abade Lekeitiar honek mereziko luke ikerketa bat, nork egin balego.

TXANTON PIPIRRI

(Poesía Baskongada en dialecto vizcino. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa. 101. or.)

01 Txanton Pipirri hemen dago
limosna on bat balego.
Kantau bihar dot
baldin ahal badot
nik gaur daukadan gosia
errukitzeko jentia.

02 Zabalak dodaz gibela
estiak eta sabela.
Hartuko leuke
baldin baleuke
ganbela bete okela.
Baina hau noiz izango ete da?

03 Ez da errotarri hain gogorrik
nire haginak lakorik
bada bakotxak
zorrotz nahi motzak
ogi bat hurunduten dau
hiru bigunak edo lau.

04 Batuten dodaz kalia
arraina ugari danielan
hogei txitxarro
edo gehiago
baina guztiak gabian
sartzen ditut sabelian.

05 Orduan pozarren nago
gaberdi ingururaino.
Handik goizera
nire sabela
beti dago gur gur gur gur
bartko aparia agur.

06 Egunsentian apala
daukat tripako azala.
Balego orduan
nire albuhan
lagun onen bat nok opa
perol handi bete zopa.

07 Hiru mutil Ispazterren
egozan firme egun baten
jango ebela
goiztik gabera
hamar erraldeko txahala
neu laugarrentzat nintzala.

08 Hantxe nenguan erorik
jateko laurena osorik.
Nire kontuak
beti lakuak
jausi zan poza pozura
amesak diran modura.

09 Ni jaio nintzan orduan
aztua etxian eguan.
Zuzen begira
nire arpegira
eta esan eutsan amari:
entzun egizuz berba bi.

10 Inun aurkituko ezin da
ezpada Bilbon Giralda
andra bakarra
zeinen bularra
asko dan esne bagarik
ume honentzat bakarrik.

11 Igarlia zan aztua
baina amak eukan modua.
Emon titia
eukan guztia
ta gero esnia ugari
auzoko behien erroti.

12 Batuten dodaz mendian
egurrak egunsentian
eruateko
amak jateko
egun guztian ogia
niri emonik erdia.

13 Ez da neuretzat guztia
batuten dodan ogia.
Zaku bete otzur
batuten dot hur
eskian iluntzerako
amaentzat ta neuretzako.



02. **Dodaz:** ditut.
Leuke: luke.
Baleuke: baleuka.
Ganbela: abereei pentsua eta aleak emateko ontzia. *Aska* ere bai.
03. **Lakorik:** bezalakorik.
Nahi: nahiz, zein.
Hurunduten: huruntzen, hirintzen, zehazten, birrintzen.
04. **Batuten dodaz:** batzen, biltzen ditut.
Gabian: gauean.
05. **Pozarren:** poz pozik, oso pozik.
06. **Nok opa:** nork eskaini, nork eman.
Perol: galdara, pertz.
07. **Egozan:** zeuden.
Firme: tinko, gogor.
Ebela: zutela.
Erralde: behikien pisu neurria, bost kilokoa.
08. **Lakuak:** bezalakoak.
Jausi: erori.

Pozu: putzu, osin.

09. **Aztua:** aztia, igarlea.
Egvan: zegoen.
Eutsan: zion.
Egizuz: itzazu.

10. **Zeinen:** erlatiboa.
Bagarik: barik, gabe. Ahapaldi hau ez dago argiegi azaldua, zerbait oker ez dagoela andrarik, zeinen bularra esne bagarik, hots, dena husturik ere, asko edo gehiegi den ume honentzat bakarrik. Hitz batez, ez dagoela haur hau mantentzeko bularrik.

11. **Eukan:** zeukan.

12. **Egunsentian:** goiztirian, argi-hastean.
Eruateko: eramateko.

13. **Otzur:** ogi zahar edo hondakintzat utziren puska.
Hur: hurbil. Hemen *ia*, *hortxe-hortxe* esan nahi du, zaku bete otzur inguru.

Bertso sorta honen aldaera bat, zazpi ahapaldikoa, Orixek bere *Euskaldunak* poeman sartzen du, ohar honekin: "Nik aurren-aurrenik *Txanton Pipirri* Lekunberriar batzuei entzun nien Naparroan. Urrena, oso osorik eta bizkaiera garbi-garbiz, Uitziko Parroko jaunari. *Txantxon Pipirri* Lekeitioko eskale bat omen zan. Gure *Pitiri* edo *Petiri* jaun gosearen antza du izenez".

PERU DUBAKO

(Beherago aipatzen ditudanak. Gehi: *Peru Dubakoren bertsoak*. A. Arejita. **Idatz-Mintz. Literatur atalen sorta**. 16/17, 36. or. Baita *Euskalerriaren Yakintza IV*. R. M. Azkue. 44. or.)

- 01 Guztiz dotore sartu zan Peru Bilboko Barrenkalean txakur gorri bat oin zuriakaz ebalda aldamenean.
- 02 Barrenkalean sartu zanean makailau asko ikusirik ai, esan eban, emon eiola lepoa bete dubarik.
- 03 Peru Dubakok uste eban ze ez zala diru beharrik makailau ona ekarritako Bilboko Barrenkaletik.
- 04 Ah gizon tonto, zer uste dok hik asto lapiko handia? Heuk bere ez heuke duban emongo heure kortako idia.
- 05 Makailau horrek hilda dagoz da nire idia bizirik hilda lizuntzen dagozan horrek emon leitekez dubarik.
- 06 Ene gizona, gura badozu zeure lepoko kargea hamalau lauko kostako jatzu makailau honen librea.
- 07
.....
abarka narru zaharra ta txarra makailau horrek dirudi.
- 08 Ah gizon lelo, hartzen baiot makailaua buztanetik matraila biak apurtu eta bialduko haut hemendik.
- 09 Totopintotxo, ene txakurra goazen etxera hemendik behingo behingoan ez nabe ikusko Bilboko Barrenkaletik.
- 10 Agur, Perutxo, beste bat arte ta gorantziak etxean diru bagarik makailau onik ez dago Barrenkalean.
- 11 Ben-benetako atsekabea Peru Dubakok hartu dau bihotza ilun, tripea tximur hutsik etxera da abiau.



01. **Zuriakaz**: zuriekin.
Ebala: zuela.
02. **Emon eiola**: eman ziezaiola.
Lepoa bete: bizkarra bete, bizkarkada bat.
Dubarik: dohan, dohainik.
03. **Dubako**: dohango, dohaineko. Izentzat harturik.
Eban ze: zuen ezen.
04. **Duban**: dohan, dohainik.
Kortako: tegiko, ikuiluko.
05. **Horrek**: horreik, horiek.
Dagoz: daude.
Leitekez: litezke.
06. **Lepoko kargea**: bizkarreko zama, karga.
- Lauko**: lauzuriko, antxinako txanpon bat.
Jatzu: zaizu.
Librea: libra, libera, kilo erdi.
07. **Narru**: larru.
08. **Lelo**: tentel, ergel.
Baiot: badiat.
Matraila: masaila, masela.
09. **Behingo behingoan**: berehalaxe.
Nabe ikusko: naute ikusiko.
10. **Gorantziak**: goraintziak, eskuminak.
Bagarik: barik, gabe.
11. **Ben-benetako**: bene-benetako, zin-zinezko.
Tripea tximur: tripa, urdaila zimur.
Abiau: abiatu.

Sorta hau osatzeko, Jon Enbeita eta Deunoro Sardui bertsolarien aldaerak oinarritzat hartu ditut, biak ere oso berdintsuak, Ariatzako *Aittitte Bixente*-gandik etorriak izanik, eta lagungarritzat Azkuek *Euskalerriaren Yakintza*-n dakarren aldaera laburragoa, eta Jon Enbeitak emandako beste orri solte bat.

BELASKILLOREN KANTIA

(*Poesía Baskongada en dialecto vizcaíno*. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa. 103. or.)

- 01 Ezaguna naz ni Belaskillo aspaldietan herrian soldadu errasu ibili nintzan Azterrikako mendian bizitza hobarik ez dot nik izan sekula neure bizian.
- 02 Igaz zelaian arat egonda neunkazan libra bi ogi aurtan biharra eginda bere ibili ohi naz ziogi aurtengo urtia igazkuagaz ez jat bardina etorri.

03 Gaita gallegan kantauko deutsut bakiak ein daustan kaltia bakiak bestiai ekarri deutse euren etxera bakia niretzako barriz bakiak egin dau bakerik bagako gerria.

04 Era hain onak bere burpilen goiko haginen ganian erabili nau Azterrikako mendian nenbilenian burpilak jira nire bere azpira bakia egin danian.

05 Lehen apainduta fraka ederrakin ebilenian gerria orain bakutsu zelan nabilen egin danian bakia antxinatik da txasko emolia fortuna iraupen bagia.



01. **Errasu:** soil, huts, inolako gradu edo berezgarri gabeko soldadua.

Azterrika: Lekeitiotik Ondarroara bitarteko auzo bat.

Bizitza: bizimodua, bizi den denbora. Ohar nola bereizten dituen *bizitza* eta *bizitza*.

02. **Arat:** aratean, aratinik, ahoz gora, ahospez-en alderantzia.

Neunkazan: neuzkan.

Libra: libera, kilo erdi.

Biharra: beharra, lana.

Ziogi: urri, faltan.

Igazkuagaz: iazkoarekin.

Jat: zait.

03. **Deutsut:** dizut.

06 Errementari ala orekari zein ete neuke hobia? Nik ondo dakit astuna dala niretzako mailukia astunagua ete dan nago halan bere orekia.

07 Errementari izan nadin da iges Gasparren zaldiari zaldardunak ba eutsi leikio neguan orekiari aparta baina ahal dabenian haren ostikadiari.

Daustan: didan.

Deutse: die.

Bagako gerria: bako gerra, gabeko gerra.

04. **Era:** aukera, komenentzia, norbere aldeko zirkunstantzia.

Jira: jiratu, biratu.

05. **Ebilenian:** zebilenean.

Bakutsu: badakutsu, ikusten duzu.

Zelan: nola.

Antxinatik: aspalditik, duela anitz denboratik.

Txasko: okerreko ezustea, ustekabe txarra.

Emolia: emalea.

Bagia: bagea, bakoa, gabea.

06. **Errementari:** suarotz.

Orekari: besteak arrantzan egin dezaten, batela geldi edo orekan edukitzeko arduradunak.

Ete neuke: ote nuke.

Mailukia: mailua.

Halan bere: hala ere.

Orekia: oreka, batela geldi edukitzeko lana.

07. **Zaldardunak:** zaldarra edo azalean sortzen den bikorra daukana. Hemen badi-rudi *zaldareduna* dela.

Zaldare: zaldale, pentsua. Adiera hau hobeto doakio zaldiari.

ZEUGANA NATOR PEDRO

(Don Juan Antonio de Aboitizek atera eutsen kantia iru adisquide buruguin ta bizitza onaren zale, Laitiz, Chingua eta Eguzquiri)

(Aurreko bera, 103. or.)

01 Zeugana nator, Pedro barri on bat dakart nire barru guztia ixiotu jatan bart. Sarri ikusi dodaz Gabon alegriak baina bartkuagazko hutsak dira guztiak.

02 Bart ondo apalduta gaberdi ostian asmo hau nerabilen nik neure artian. Zek euki lei gizona beti penapian ibili ahal izanik zaldien ganian?

03 Natortzu bada, Pedro ta gura dot jakin ahal dan nire asmua zuriagaz bardin. Sekula asmo hobarik zeuk ez dozu hartu arren askoz lehenago otu balitxatzu.

04 Zeuri begira nago Txingua harrituta bakit ez zagozana goiztik hordituta. Laitizko gailegua bere Txinguagaz pozik juango jatzu edonora zeugaz.

05 Don Quijote Manchakok
bere jornadetan
erabilen Txingua
hotz ta edurtzetan.
Goixian bialdu dot
seme bat bere eske
Lain Kalboen pelukia be
hak ezzerri leike.

06 Mediku izateko
bakizu Txingua
aspaldi guztietan
dozu titulua.
Bedarragaz lupua
osatuten dozu
beste gatxontzat bere
zerbait jakingo dozu.

07 Neu bere mediku naz
zelako edo halako
askok bilatuten nau
bihar nabelako.
Urten bada etxetik
hartzeko entzutia
alper bada entzute baga
mediku izatia.

08 Nahitaez bihar dozu
Txingua txigua
nahi moda barrikua
nahi antxinakua.
Nolabaita Txigo bat
soinera ezkerro
orduante zagoz zu
eginda Galeno.

09 Eta barriz oraindik
nun dozu Eguzki?
Zure asmuen barri
harek ete daki?
Bai Pedrotxu, hak baki
nire asmuen barri
berak nigaz batera
nahi leuke etorri.

10 Baina niri ikaslarik
ez jat ez konbeni.
Nahi dozu egin dagidaan
osagila Eguzki?
Ogi handi bat bere
eiten bada erdi bi
aurki bakotxarentzat
izango da gitxi.

11 Agur bada, Pedrotxu
ni orain banua
uste dot ekartia
hogeiko zorrua.
Ojala ba, Txingua
ikustia zu hemen
Indianu eginda
arren bada. Amen.

CS

01. **Ixiotu:** piztu, izeki.
Sarri: sarritan, maiz, anitzetan.
Alegriak: alegereak, alaiak.
Bartkuagazko: barkoarekiko, bartkoaren ondoan.
Dodaz: ditut.
02. **Ostian:** ostean, ondoren.
Zek euki lei: zerk eduki lezake.
03. **Zuriagaz:** zurearekin.
Otu: bururatu, gogoratu, buruak eman.
04. **Bakit:** badakit.
Zagozana: zaudena, zaudela.
Jatzu: zaizu.
Zeugaz: zeurekin.
05. **Erabilen:** zerabilen.
Pelukia: ileordea.

- Hak:** hark.
Ezerri: ezarri, jarri.
06. **Bedarragaz:** belarrarekin.
Lupua: azaleko kiste bat.
Osatuten: osatzen, sendatzen.
Gatxontzat bere: gaitzontzat ere, eritasun hauentzat ere.
07. **Baga:** bagarik, barik, gabe.
08. **Zagoz:** zaude.
09. **Hak baki:** hark badaki.
Nigaz: nirekin.
10. **Dagidan:** dezadan.
Osagila: osatzaile, sendalari, mediku.
Indianu: Ameriketara joan eta aberasturik itzulia.

TORTOLATXU BAT BASUAN

(Aurreko bera. 105. or.)

01 Tortolatxu bat basuan
bakar bakarrik neguan
bere penak kantetan eguan
arbola baten onduan
eta honelan zinuan.

02 Ez daukanak fortuna
huri baten jaiotia
izan arren perfektia
ziur da hau izatia
huritarrentzat tatxia.

03 Naturaleza kondenetia
da pekaduna tatxetia
ezpada esaizu ia
pekatu dan ifintia.

04 Haren hurrengo entzutia
tortola pekaz betia
ha izan zan sartutia
erraietan ezpatia
ta bihotza puskatzia.

05 Zelai berde ta ederra
lora baga bere eder da
baina udan agertzen da
lora pekaz apaindua.

06 Simbirio zerukua
media naranja goikua
azula dozu fondua
izar askok edertua
eta tatxarik bakua.



01. **Tortolatxu:** usapaltxo, urzapalño.
Kantetan: kantatzen.
Eguan: zegoen.
Zinuan: zioen, esaten zuen.

Ezpada: bestela.
Ifintia: ipintzea, hots, ea pekatu den naturak pekak ezartzea.

02. **Huri:** hiri.
Tatxia: tatxa, akatsa, defektua.

05. **Baga bere:** gabe ere.
Lora pekaz apaindua: lorezko pekaz jantzia, hots, loreek pekak diruditela.

03. **Kondenetia:** kondentatzea.
Pekaduna: pekak dauzkana.
Peka: orezta, orina, azalean agertzen den orban txiki biribila, horiska edo marroiska.
Tatxetia: tatxatzea, txartzat jotzea, eskasztat arbuiatzea.

06. **Simbirio:** ez dakit zer den.
Media naranja: laranja erdi.
Fondua: hondoa.
Bakua: bagakua, gabekoa.

Bertso hauek Aboitizek Bedaroako emakume baserritar bati atera omen zizkion, zeina zuhaitz orpo batean eserita, negarrez aurkitu zuen, Lekeition neska batek pekaduna zela esan ziolako.

MATXANGO

(Aurreko bera. 167. or.)

01 Eskabide handi bat
bere izenian
Matxangok gaur egin du
alkate aurrian:
Kendu dagiuela
gerriko sokia
eta emon lastertxu
bere libertadia.

02 Nik dot, alkate jauna
Matxango izena
Matxango neure aita
eta amarena.
Gu gara Marakaibon
gutzizko nobliak
kakao eta azukre
askoren jaubiak.

03 Badaukaz nire aitak
bat bere zor barik
hogeta zortzi mendi
azukrez beterik.
Honeek guztiok bada
neuriak izanik
zelan eruan neike
presondegi hau nik?

07 Jarri zirian biak
kanape eder baten
eta hasi zan bata
honelan esaten:
Dama ederra, ni naz
erregek bialdu bat
eskintzari handiak
dakadaz zuretzat.

04 Orain, alkate jauna
neure tragedia
entzun begi dan legez
osaro guztia.
Ikusirik berorrek
nire desgrazia
egin bihar dau arren
laster justizia.

08 Gure errege jaunak
zure fortunatzat
zu eskojidu zaitu
bere esposatzat.
Ontzi handi eder bat
hara han erriberan
guk zeu eruateko
enbarkauta bertan.

05 Jauna, igazko urtian
neure jardinian
pasietan nenbilen
maiatzeko hilian.
Hara etorri ziran
hemengo gizon bi
ostuta eruateko
ni Marakaiboti.

09 Han datoz opariak
balio handikuak
guzti guztiak dira
moda barrikuak
berariaz eginak
oraintxe Londresen
sekula halakorik
ez da sartu hemen.

06 Labankeria askogaz
hasi ziran biak
egiten eskumunak
eta kortesiak.
Nik bere erantzun neutsen
Marakaibo usura
eta sartu zirian
jardinan barrura.

10 Barriz zeure damatzat
hogei loro datoz
zaldun ta mendekuak
gutziz asko dagoz.
Hara nik agerturik
neure etorreria
esan orain daukazun
zuk borondatia.

11 Ai bada, neure jauna
erantzun neutsan nik
sarritan entzun ohi dot
neure aitagandik
ez daguala inun
herri hobagorik
Marakaiboko mendi
eder hau lakorik.

12 Halan hau izan arren
zeuk baderitxazu
errege handi horren
kartia ekazu
erakutsi daiodan
neure aita jaunari
erantzun nahi badeutsa
lotsa onaz hari.

13 Atera eban laster
falsuak soka bat
orain bere gerrian
hara hemen daukat.
Heldu eusten bertatik
neure jardinian
eta sartu ninduen
euren batelian.

14 Gau hatantxe beratan
neure aita hil zan
nahibagez, jardinetik
nora ete nintzan.
Ama penaz beterik
samindurik dana
beti beti negarrez
oraindik bizi da.

15 Sartu ninduenian
han euken ontzira
harriturik nenguan
loruai begira.
Orduan esan neutsen:
Ai neure lorua!
Zetarako ditugu
hanka ta heguak?

16 Nik Matxango zankuak
ta zuek heguak
danok izan ditugu
alperrikakuak.
Galdu dogu betiko
libre izatia
ta imini deuskue
betiko katia.

17 Jan baga egon nintzan
zazpi egunian
bela egin genduan
zortzigarrenian.
Ez da erraz esaten
nik neunkan penia
ezkuta jatanian
aitaren etxia.

18 Bidian gosiagaz
jaten neban bria
hau zan ontzi hatako
janari pobria.
Sarri etorri jatan
etxia gogora
jaten nenguanian
markako gogorra.

19 Heldu ginian bada
geu Lekeitiora
hiru urte osuak
laster-laster dira.
Hemen saldu ninduen
betiko esklaba
hain zuzen abade bat
dot neure ugazaba.

20 Guzurrrik esan baga
autortu bihar dot
neure zorionian
ugazaba ona dot.
Gabaz lo egiteko
baditu alforjak
baita eguerdian bere
sarri ogi zopak.

21 Hona etorten dira
mandazain Naparrak
Aragones, Alabes
baita Gaztelarrak.
Honeek niretzat dabe
dakarren guztia
sagar eta madari
ta okela zatia.

22 Baina horregaitino
ez nago kontentu
gerriko soka hauxe
gura neuke kendu.
Libre zorionian
etxeko katua
eta sokaz lotuta
Matxango gaixua.

23 Ugazaben ondorik
laixian txakurra
pasietan kalara
dariola adurra.
Ni barriz eskegita
balkoe batetik
lagun errukior bat
aurkitu ezinik.

24 Horra alkate jauna
nire tragedia
orain hemen entzun dau
dan legez guztia.
Plater bat ez dot hausi
sekula etxian
zegaitik nauke bada
lotuta kateian?

25 Orain alkate jauna
entzunik egia
emon begi nire alde
berorrek epaia.
Eta kastigau begiz
eurak kastuakaz
baita legeetako
pena guztiakaz.

01. **Matxango:** tximua, tximinoa. Lekeition gaur ere tximinoa *matxango* da eta *tximinoia* txibiari deritzote.
Dagiuela: diezaiotela.
Sokia: soka.
Lastertxu: oso laster, laster bai laster.
03. **Badaukaz:** badauzka.
Bat bere zor barik: bat ere zor gabe.
Honeek: honeik, hauek.
Eruan neike: eraman nezake.
04. **Entzun begi dan legez:** entzun beza den bezala.
Osaro: osoki, osorik.
Arren: otoi, mesedez.
05. **Pasietan:** pasiatzen.
Ostu: ebatsi, lapurtu.
06. **Labankeria:** zurikeria, hitz engainakorak.
Askogaz: askorekin.
Eskumunak: eskuan mun edo laztanak, errespetoaren ezaugarri.
Neutsen: nien.
Usura: erara, ohituran.
Jardinan: jardinarean.
07. **Kanape:** eserleku mota bat.
Eskintzari: eskaingai, eskaintzen den gauza.
Dakadaz: dakardaz, dakartzat.
08. **Eskojidu:** hautatu, aukeratu.
Erribera: urbazter, ibaiertz.
09. **Berariaz:** bereziki, apropos, beste gabe.
10. **Mendekuak:** menekoak, menpekoak.
Dagoz: daude.
11. **Neutsan:** nion.
Hobagorik: hoberik, hobeagorik.
Lakorik: bezalakorik.
12. **Baderitzazu:** irizten badiozu, iruditzen bazaizu.
Kartia: karta, gutuna.
- Ekazu:** ekarzu, ekar ezazu.
Daiodan: diezaiodan.
Badeutsa: badio.
13. **Eban:** zuen.
Eusten: zidaten.
Ninduen: ninduten.
14. **Gau hatantxe beratan:** gau hartantxe berean.
Nahibage: samin, atsekabe.
15. **Euken:** zeukaten.
Heguak: hegoak, hegalak.
16. **Zankuak:** zankoak, zangoak, hankak.
Imini deuskue: ipini digute.
17. **Jan baga:** jan gabe.
Bela egin: belak askatu eta itsasoan abiatu.
Ezkutau jatanian: izkutatu zitzaidanean.
18. **Gosiagaz:** gosearekin.
Neban: nuen.
Bria: bikea, galipota, untziak daraman pintura.
Jatan: zitzaidan.
Markako gogorra: ez dakit zer izan litekeen. Etxean jaten zituen frutu lehor onak edo markakoak agian?
19. **Abade:** apez, apaiz.
Ugazaba: nagusia, jabea.
20. **Alforjak:** zakutoak, zorrotxoak.
21. **Dabe:** dute.
Madari: udare, txermen.
Okela: haragi hila, jatekoa.
23. **Ondorik:** atzetik, segika.
Laixian: ez dakit.
Kalara: honek *kalera* izan behar du, edo segurrenik *talara*. Itsas gaineko pasialeku bati gaur ere tala deritzote Lekeition.
Adurra: lerdea.
Eskegita: zintzilik, dilindan.

24. **Nauke:** naukate.
25. **Emon begi:** eman beza berorrek.
Kastigau begiz: kastigatu, zigortu bitza berorrek.
- Kastuakaz:** gastuekin, hots, epaiketako gastuekin.
Pena guztiakaz: zigor guztiakin.

Bertsoek ez dute matxango emearen epairik ematen. Aboitizek nahiago zuen pizti maitagarriaren askatasuna gure esku uztea, alkatea konpromisoan sartu gabe. Izan ere, sorta honetan benetako laztana hartzen zaio tximino gaizoari. Animalien aldeko elkarrekin ba ote dakite testu bitxi eta ironiko honen berri?

TRAKAMAILGO ERREGINA

(Aurreko bera. 108. or.)

- 01 Trakamailgo erregina
etorri da kaira
Gaztaliako damak
hona bihar dira.
Betoz Arranegiko
neska kantariak
hezotu beiez hemen
euren eztarriak.
- 02 Ukatutekua zan
aldats barrenian
ondo ponpoisa dago
aldats goienian.
Sinistu nahi ez ebenak
betoz ikustera
bada nibelauko dau
herrenak zuzena.
- 03 Lau alaba egin deuskuz
gure erreginak
laurak infanta eder
guztizko urdinak.
Doña Esperantza da
lelengo alabia
Infante Esperantza
gitxigaz ernia.
- 04 Doña Graziana da
bigarren jaiua
Gamarrako plazako
Infanta mardua.
Bere ezpanetatik
perlak duriakaz
harek batzera duaz
damak ontziakaz.

05 Urtarrilaren lauan
iluntze ilunian
erregina joiala
etxera kotxian
Arranegiko zabalak
izan eban ditxia
Infanta Doña Diana
bertan gelditzia.

06 Heldu zaneko bada
erregina etxera
apainduta urten eban
balkoe batera.
Ikusi ebenian
Arranegitarrak
pozik egin eutsezan
biba dihadarrak.

07 Biharamon goxian
zabal zan herrian
laugarren Infanta
jaio zala kalia.
Izena imini eutsen
Doña Biharrena
herria ondasunez
beteko dabena.

08 Erreginak hazten dau
bere bularrian
Infanta laztanena
guztien artian.
Mosuka jan bihar dabe
grumete mutilak
doiazanian urez
betetan barrilak.

09 Portu Lekeitioko
marinel ondruak
poztu uragaz bizi
bihar dozuenak.
Urik ezarren ura
sarri edan bozu
uragaitik arda
orain edango dozu.



01. **Trakamail** (Trakamaldi), eta sorta hone-
tan ageri diren **Gaztalia** (?), **Arranegi** eta
Gamarra Lekeitioko toki izenak dira.
Hezotu: hezetu, busti.
Beiez: bitzate.
02. **Ukatutekua**: lurjotzekoa, nekearen ne-
kez estekoa.
Aldats: aldapa, malda, pendiz.

Barren, goien: beherengo aldea eta go-
rengo.
Ondo ponpoisa: oso ponpox, agitz do-
tore.
Ebenak: zutenak.
Nibelauko dau: nibelatuko, berdinduko
du.
Herrenak zuzena: herrena zen iturgin
ingelesaren aipua.

03. **Deuskuz**: dizkigu.
Lelengo: lehen, lehenengo.
Gitxigaz: gutxirekin.
Ernia: ernea, sortua.

04. **Mardua**: mardoa, gihartsua, sendoa.
Duriakaz: ez dakit zer den.
Harek: haiek.
Ontziakaz: ontziakin.

05. **Joiala**: zihoala.
Zabalak: zabalgunekak.
Ditxia: zorte ona, zoriona.

06. **Urten eban**: irten, jalgi zen.
Ebenian: zutenian.
Eutsezan: zizkioten.
Dihadarrak: deihadarrak, oihuak, zan-
tzoak.

07. **Goxian**: goizean.
Imini eutsen: ipini, jarri zioten.

Biharrena: beharrena, beharrezkoena.
Iturri hau ikuztegia edo garbitegia omen
zen.
Dabena: duena.

08. **Mosuka**: musuka, laztanka.
Dabe: dute.
Grumete: behe mailako marinela.
Doiazanian: doazenean.
Betetan: betetzen, betetzera.
Barrilak: upelak.

09. **Ondruak**: zintzoak, prestuak.
Uragaz: urarekin.
Urik ezarren ura sarri edan bozu: urik
ez zegoelako, ura maiz edan badozu.
Kontraesana dirudien honek bere zentzua
dauka. Itsasuntzia porturantz datorrela,
urik ez badago, hots, marea oso behean
badago, ezin da kairatu. Beraz, ura eda-
ten jarraitu behar, untzitik irtenda gusto-
ra edango lirakeen edarien ordez.

Bertso sorta honek Jose Antonio Uriarteren bilduman izenburu hau
dakar: "*Canciones de Aboitiz a las fuentes de Tracamaldi en 1800*". Gure
erreginaren lau alabak edo infantak iturriak dira, beraz. Hemen ageri den
erregina, iturrien izen metaforikoak eta beste zenbait irudikapen, Aboiti-
zen fantasiak ala herriko leiendak ote ziren?

JUAN KRUZ ETA ANTONIO DE LA FUENTE ANAIAK. DURANGOKO ZIDARGINAK

Durangoko *plateruak* edo *zidarginak* izenez datozkigun anai hauek bikote bitxia osatzen dute Bizkaiko bertsozintzan. Aita Burgoskoa eta ama Gasteizkoa zutela, jatorriz ia guztiz erdaldunak izanik, euskaraz egin ziren ospetsu. Bertsozile ez ezik, dantzari, musikari eta umorezale handi izan ziren. Izenak dionez, lanbidetzat zilargintza zeukaten, aita eta anai zaharrarekin batera. Antonio 1758 inguruan jaio zen eta 1834ko uztailearen hiruan hil, hirurogeita hamasei urtekin. Juan Kruz 1760an jaio eta 1831ko otsailaren hamabostean hil zen, hirurogeita hamar urte beteak zituela.

Garai hartarako, nahiko bizitza luzea izan zuten, baita osasuntsua ere, hirurogeita hamarna urte inguru zeukatela, 1828ko ekainaren 15ean, Durangon Fernando VII eta Maria Josefa Amalia Espainiar errege-erreginen aurrean, *Erregelak* eta *Porrua* dantzatu bait zituzten. Antonio egitura lerdenekoa bazen, Juan Kruz lodikotea zen, eta honen gorputz gizena eta adintsua halako bizitasunez dantzan ikusirik, Madrilgo Gortetik honaino barrerik egin ez zuen erregina ere algaraka hasi omen zen, zilargin honen dantzarako grazia txalotuz.

Bi anaiak jaio bezala ezkongai hil ziren. Juan Kruz zen, antza, bertsozina eta Antonio musika jartzailea. Bazuten zerbait maitagarria zilarginok, inguruan hain entzute handia eta maitea uzteko. Datu gehiago nahi duenak, emanak ere handik hartu bait ditut, ikus beza Antton Mari Aldekoa-Otaloraren **Durangoko Plateruak** izeneko liburua, Gerediaga Elkar-teak 1984an argitaratua.

Zilarginon bertsozintzaz zerbait esatekotan, hiru puntu aipatuko nituzke. Lehenik, Bizkaiko ohitura zaharrean eginak daudela, gehienak binaka errimaturiko zortzikoetan, hots, bi oin batera eta bi oin bestera. Bigarrenik, oso errima laxoa darabiltela sarritan: *oinera-bezala, sarri-ga-*

neti, errukiorra-dena, lauretara-kordela, bota-egoten da eta antzekoak ez dira gutxi. Neurrian gehienez zuzen dabilta, silaba bat gora behera, baina hau ezin dugu gaurko gure ikuspegitik epaitu. Musika ere eurek jartzen omen zutenez gero, zer doinu mota zerabilten edo asmatzen zuten jakin beharko genuke.

Eta azkenik, argi dago zilarginok ez zutela euskara ondoegi menperatzen, zekitena batere lotsa gabe egiteko nortasuna bazuten ere. Esaldi asko airean, konkordantzia edo komunztadura ahal den moduan, mugatua eta mugagabea batzutan bereizten ez, eta oro har gaztelaniazko hitz eta esamolde asko, batzutan euskarara xeble egokituak.

Hona zenbait adibide: *Nik zapatak, galtzerdiak besapian bere* (galtzerdiak bere besapian), *euria gelditu* (euria atertu), *Indusian, Inuenganian* (Indusin, Inuenganen), *beste egunian* (biharamonian, hurrengo egunian), *gabaz ta egunaz* (gabaz ta egunez), *oinak bilosik* (ortozik, oinutsik), *jan biharko badot* (jango badot), *tripian* (tripan), *eurakaz aldian* (eurak aldian dabezela), *eguzkien urtetik* (eguzkien urteeratik), *konpara gabia* (konparazio bagia, pare bagia), *entero dago poz* (entero dago pozik), *ardiak hartu* (ardiak harrapatu), *bihar dira bere hitzak ondo gordetia* (ondo gorde)... etab. Hona ahapaldi oso bat:

Hamabi berso honeek
entzun dituzanak
mesede egin beide
Ave Maria bat
orain errezetiak
bihotz bihotzetik
Aita Palaciosen
osasanagaitik.

Ahapaldi osoa esaldi bakarra da, baina joskerak halamoduzkoa dirudi. Akats hauek gora behera, zekitena bat ere konplexurik gabe egiteko jareintasuna eta grazia aitortu behar zaie zilarginoi. Baita euren sasoiko gizartearen eta euskararen lekukotza garrantzitsua ere.

*Durango*ko Plateruak liburuaren egileak dio hamabi sorta Aita Jose Antonio Uriarteren *Poesía Bascongada*, *Dialecto Vizcaino*-tik ematen dituela eta nik ere horixe egingo dut, Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako ediziotik. Hamairugarrena, *Gaboneko Kantak*, Antton Mari-
ren liburutik jaso dut, hau ez bait zuen Uriartek bildu. Beronekin hasiko gara.

GABONEKO KANTAK

- | | |
|--|--|
| <p>01 Ardizain deboto bi
amodio handiaz
Jesusengana duaz
janari guztiaz.
Batak darua esnia
bestiak ezta
haurra konsolatzeko
bihar dan guztia.</p> | <p>03 Eragiok, mutil
eragiok, mutil
sirrin sarran
sirrin sarran
aurreko tanbolinori
gaztainak egin artian
gaztainak egin artian
sipli sapla
sipli sapla
plist plast
plist plast pun!
Gabon gaba zelebratu dezagun.</p> |
| <p>02 Hartuik pitxar bete ardo
da guazen etxera
Gabon gaba zelebratzeko
aitaren da amaren onduan.
Ikusikok aita barreka
ama bere txit kontentuz
baita neuk bere zelango traguak
lehenengo esanda Jesus
bisigu errien hazurrak
ondo txupauko deguz.</p> | |



- | | |
|--|--|
| <p>01. Ardizain: artzain.
Handiaz: handiz, handiarekin.
Darua: darama.
Bihar dan: behar den.</p> | <p>02. Hartuik: har ezak.
Arin: azkar, agudo, fite.
Ikusikok: ikusiko duk. Antton Mari-
ren liburuan <i>icusi oc</i> (ikusiko duk) dakar.</p> |
|--|--|

Errakuntzaren bat ez bada, hori ez daiteke izan, gertatzekoaz ari bait da, ez gertatuaz.

Barreka: irrika.

Ama bere: ama ere.

Txit kontentuz: oso, biziki, arrunt pozik.

Zelango: zelako, nolako.

Traguak: zurrutak.

Deguz: ditugu.

03. **Tanbolinori:** *tanbolinari* edo *tanbolinorri*, *danbolin horri* behar luke.

Eta hona gure herri-kanta ospetsuenetako baten egilea non hatzman dugun. Antton Mari Aldekoa-Otalorak aipatu liburuan dio: "Batez ere zerk eta *Gaboneco Cantac* deritzana izan da ziderginon lan hau hariltzera bultzatu nauena. Gaur egun Azkueren eskutik Euskal Herri guztira zabaldurik dagoen *Hator hator mutil etxera* abestiaren sorreran gure Plateruok daude. Hau jakinik, beste zerbait ere izango zutela eta, haruntz honuzka ihardun izan dut". Tamalez ez zuen hauxe eta Uriarteren bildumako hamabiez besterik aurkitu.

ZERBITZARIAK

01 Dueña, kriada, seinzainok
kantatzera guaz
beti beti zerbietan
nola gauden penaz.
Eman ezinik gusturik
dueñiak plantxiaz
ogiaz kriadiak
seinzainak umiaz.

Errepika:

Hau da penia, ai ene!
Hau da penia!

02 Lelengo dueñiak dauko
zereginik asko
plantxia, orraztu, josi
etxe guztirako.
Hargatik eukiten dabe
bakotzak etxian
bihar asko egin daien
dagozan artian.

03 Sarri askotan plantxiak
dauka larriturik
haginetako minagaz
ezin sufridurik.
Horregaitik biharrian
biharrak eragin
esaten dabela sarri
ez dakit zer egin.

04 Egunik falta bagarik
beti da orraztuten
etxeko jente guztia
hamarrak baino lehen.
Ez badabil geldirotxu
buruko ulian
laster urten biharko da
daguana etxian.

05 Orraztu ezketio
salia hartu gero
ordu batak jo artian
josten egiteko.
Mahaia guztiz kunplidurik
ostera gaubian
afaldurikan gabe
hamaiketartian.

06 Bigarren kriadiak
dauka trabajua
ezin azertau graduan
bere lapikua.
Mahaian esan ez daien
koleraz beterik:
lapiko bat egosteko
ez dauka modurik.

07 Honen karguak dira
sustantziazkuak
sisen, okela, urdaiki
gobernetakuak.
Baita bere arrain fresko
baita bere hegazti
baina kuidao katuari
esan arin zapi.

08 Persekuzinoa dauka
katua miaoka
ostera etxekoandria
beti agiraka.
Baina zer egiten dau?
Edarria harturik
iturrira barre karkar
osasanagaitik.

09 Hirugarren seinzainak
dauka bai penia
egun guztian besuan
seina eukitia.
Sein asko da munduan
senzaina lako bi
hargatik egoten da
jasarrita sarri.

10 Negartia bada seinia
bauka zereginik
ua, ua esan eta
ezin ixildurik.
Osterantzian bere
gabian gabian
begirik itxi barik
oiharen ganian.

11 Ostera izaten bada
sein hori geiztua
seinzainak bai pasauko dau
purgatoriu.
Ez lepuan, ez etxera
ez ibili gura
beriaz urtetiarren
uletatik tira.

12 Honegaitik munduan
dinuenak gaizki
ez dau bere etxian
zereginik euki.
Hamabi bertso honeetan
akabaurik dago
beti dagoz penapian
ezinda gehiago.



01. **Dueña:** gaztelaniazko hitza. Etxe haundikietan, beste neskameen begirale egiten duen emakume alargun eta errespetagarria, bera ere zerbitzaria noski.
Kriada: neskame.
Seinzain: umezain, haurtzain.
Zerbietan: zerbitzen.
Plantxiaz, ogiaz, umiaz: plantxarekin, ogiarekin, umearekin.
02. **Dauko:** dauka.
Eukiten dabe: edukitzen dute.
Bihar: lan.
Daien: dezaten.
Dagozan: dauden.
03. **Minagaz:** minez, minarekin.
Biharrian biharrak eragin: lanean eta lanak egin erazten, agintzen.
Dabela: dutela.
04. **Bagarik:** barik, gabe.
Geldirotxu: geldi samar, poliki poliki, pausatuki.
Ulian: ilean.
Urten: irten, jalgi.
05. **Ezketio:** ezkerro, orraztuz gero.
Salia: sala, gela orokorra.
Ostera: berriz, berriro.
Gaubian: gauean.
Afaldurikan gabe: afaldu gabe. *Rikan* atzizki bikoitz hau hemen gaizki aplikatua dago.
Hamaiketartian: hamaikak artean.
06. **Kriadiak:** neskameak.
Trabajua: gaztelaniazko hitz honek, euskaraz erabili denean, lan zaila, zeregin nekagarria esan nahi du.
Lapikua: eltzea.
Modurik: ahalik, gaitasunik, trebetasunik.
07. **Karguak:** eginkizunak, egitekoak.
Sisen: hitz hau *zezin* izango da segurrenik.
Okela: jaten den haragia.
Gobernetakuak: gobernatzeakoak, prestatu edo ontzeakoak.
Baita bere: baita ere.
Kuidao: kontuz, argi.
Arin: azkar, agudo, fite.
Zapi: katua uxatzeko edo alde eragiteko esaten den hitza. Deitzeko berriz *mizmiz* edo *psipsi*, eta katakumea bada, *pzipzi*.
08. **Ostera:** ordea, berriz.
Agiraka: akarka, haserreka, errietan.
Edarria: edarra, errada, pegarra, ontzi mota bat.
Barre karkar: barre karkaraz, irrika karkar.
09. **Seinzaina lako bi:** seintzainak halako bi, bi aldiz gehiago.
Jasarrita: jezarrita, eserita.
10. **Bauka:** badauka.
Ua, ua: haurtxoari loarazteko kantatzen zaiona.

- Osterantzian bere:** bestela ere, bertzenaz ere.
Barik: gabe.
11. **Lepuan:** bizkarrean. Haurtxoez ari garelara, besoetan jasorik.
Gura: nahi.
- Beriaz urtetiarren:** bere nahia egiteagatik, berak nahi duena lortzeagatik.
Uletatik: ileetatik.
12. **Dinuenak:** dionak, erraiten duenak.
Honeetan: honeitan, hauean.
Akabaurik: amaiturik, bukatuak.
Ezinda gehiago: gehiago ezinean, pena gehiago eduki ezin dutela.

ARRATIA

- 01 Mila ta zazpirehun ta
larogeta hamairu
zer pasatu jaten aurten
kantatu nahiogu.
Indusira noiala ni
fiesten atzian
esaten nebala sarri
Inuenganian.
- 03 Piestako eguna
pasatuta gero
beste egunian penia
etxera etorteko.
Euriak zirian partez
gelditu bagarik
ez neukan balore asko
urteteko handik.
- 04 Txominen balentzianiagaz
urten neban handik
jaun nintzan Gibraltaino
kasi busti barik.
Handikan Mañarira
labandu ta jausi
mailatuarren gorputza
hazurrik ez hausu.
- Errepika:
Ai ene, ai ene!
Ai ene bada!
- 02 Momotxo tanbolinagaz
atabalaz Pepe
nik zapatak, kaltzerdiak
besapian bere
ezin egin aldatza
gero aldapia
Indusian egiteko
lelengo dantzia.

05 Mañarira jatsi nintzan
zopia bezela
altzi sikurik bagarik
burutik oinera
tabernako sukaldian
berotu ezinik
Txakolinek erre arren
egur karga onik.

06 Ikusirik nengua
hainbeste bustirik
ekarri eustan kapia
Txakolinek goitik.
Batu neitiela ondo
errukiz beterik
zeure gorputza bustita
holan euki barik.

07 Berak eta bere emazteak
ondo hartu arren
ze inporta zan ez bajakun
euria gelditzen?
Zelan egongo nintzan ni
kontentuz beterik
batetik mailatuagaz
bestetik bustirik?

08 Etxera heldu eta
esan neban sarri
ez ostera fiestara
Inuenganeti.
Hagaitik esaten dabe
gizon agudoak
ez dabiltzaz ondo
munduan zoruak.

09 Bizi nazan artian
inor bot erruki
Dimako neskatilak
zorro hautsak gatik
datozianian gexuak
esango dabeela
kargia ezin sufridurik
aldatz gora behera.

10 Honeek honan ikusiaz
ez dana biguntzen
zelango galtzaiduak
izan bihar daben.
Ondo litzate ikustea
Inuenganeko
lehen ikusi ez dabenak
desenganatzeko.

11 Zenbat eta zenbat bider
ikusten ditut nik
hiru zorrogaz buruan
ondo kansadurik
itantzen etxe batian
hautsik bihar bozu
honelan euki bagarik
arren esan eizu.

12 Buruan dakarren hautsa
ajustau artian
asko entzun bihar dabe
euren arpegian.
Balio dabena hamar
emon sei laukuan
ez dot gehiago esan gura
hamabi bersuan.



01. **Jaten:** zaidan.
Nahiogu: nahi dogu, dugu.
Nebala sarri: nuela maiz.

02. **Tanbolinagaz:** danbolinarekin.
Aldatza: malda, aldapa.

03. **Piestako:** festako, bestako.
Beste egunian: biharamonian.
Euriak zirian partez: euriak zirenez
gero, euria eta euria egiten bait zuen.
Urteteko: jalgiteko, ateratzeko.

04. **Balentziania:** balentziana, soineko mota
bat.
Gibraltaino: Gibraltarreraino. Inguru
haietako etxe izen bat.
Barik: bagarik, gabe.
Labandu: labaindu, irristatu, lerratu.
Mailatu: zerbaiti kolpeka sakonguneak
egin, mankatu.

05. **Zopia bezela:** zopa bezala, busti-busti,
blai-blai.
Altzi: lihazki, lits, hari punta.
Txakolin: tabernariaren goitizena.

06. **Eustan:** zidan.
Batu neitiela: bil nendila.
Holan: horrela.

07. **Ez bajakun:** ez bazitzaigun.
Zelan: nola.

08. **Ostera:** berriz, berriro.
Dabe: dute.
Agudoak: zorrotzak, argiak.

09. **Nazan:** naizen.
Bot: badot, badut.
Zorro hautsak gatik: hautsez beteriko
zorroengatik.
Dabeela: dutela.
Aldatz gora behera: aldatzetan gora eta
behera.

10. **Honeek honan:** hauek honela.
Daben: duen.

11. **Hiru zorrogaz buruan:** buruan hiru zo-
rro dituztela.
Ondo kansadurik: oso nekaturik.
Itantzen: itauntzen, galdetzen.
Bihar bozu: behar badozu.
Honelan euki bagarik: honela, zorroak
buruan ditudala eduki gabe.
Arren: otoi, mesedez.
Eizu: ezazu.

12. **Dakarren:** dakarten.
Bihar dabe: behar dute.
Balio dabena: balio duena.
Sei laukuan: sei laukoan. *Laukoa* edo *lau
zurikoa*, orduko txanpon bat.

ASTODUNAK

Errepika:

Arre, potxo, arre!
Arre, asto, arre!
Arre, maletxoria!
Arre bada arre!

Isso, is iisso, isso!
Hortik zek harua?
Beti baina okerretik
asto berenua!

01 Ni naz emakume bat
arrain saltzailia
marinelak itxasotik
dakarren guztia
nahi besigu, nahi legatz
atun, sardinia
nahi txirla, nahi mielgia
baita angilia.

02 Itxasuan txalupak
ni nago begira
marineru prestuak
zer dakarren bila.
Badakarde gauza onik
euren txalupetan
bentziak emongo deust
pena bihotzian.

03 Hamarrak jo artian
izotz handi baten
oinak bilosik nago
arrainak garbitzen.
Zesto artian gero
ondo plegatzia
astuan kargetako
daukat nik penia.

04 Arre, potxo, arre arre!
Arre bada astua!
Arre, asto mukar
beti betikua!
Iso is, isso isso!
Iso iso bada!
Hau da asto plagia!
Isso, berenua!

05 Inor bada munduan
errukiorra
nigan aurkituten da
munduan ahal dena.
Ez jan, ez lorik egin
beti arrastaka
gauza onen barririk
nik ez dakidala.

06 Etxera sartu bage
arre bada, astua!
Urrintxu juateko
hartuizu gogua.
Hor jausi, hemen altza
lupatza artian
edurra ta euria
dodala ganian.

07 Arre, potxo, arre arre!
Arre, asto, arren!
Jo ta jo egin arren
beti leku baten.
Isso is... iss...
iso... iso!
Baldin hartzen bot harri bat
galduko haut betiko.

08 Neure bizimoduan
jan biharko badot
gabaren gaberdian
urten biharko badot
aldatz gora, aldatz behera
ilun ilunian
pausu tristerik asko
dodala aldian.

09 Gabaz ta egunaz nabil
neure astuagaz
kargia jausirikan
guztia galduaz.
Hargatik izaten ditut
fortunarik asko
portuan errial bat
aforan sei lauko.

10 Arre, potxo, arre arre!
Hau da astuen hotza!
Hau nok erosi erai eustan
asto buztan motza?
Is... is
asto judegua!
Asto batek emoteko
hau dok tormentua.

11 Jagi zaite, jentia
ia ordua dozu
zortzi legua eginda
atetan naukazu.
Hor dozu lebatz fresko
bart urtenikua
hemen nago hotzak hilik
bai ikustekua!



Maletxoria: gaizkina, gaizkilea.

Zek harua: zerk harama.

Berenua: pozoina. Adjetibo gisa, zitala, madarikatua.

01. **Nahi:** nahiz, zein.

Sardinia, mielgia, angilia: sardina, mielgia, aingira.

02. **Marineru:** marinel, itsasgizon.

Badakarde: badakarte.

Bentziak: salmentak, saltzeak.

Deust: dit.

03. **Oinak bilosik:** oinutsik, ortozik.

Zesto: otzara, saski, otarre.

Plegatzia: tolestea.

Kargetako: kargetzeko, zamatzeko.

04. **Mukar:** muker, temoso, setati, atzerati.

Asto plagia: asto gaiztoa, madarikatua.

05. **Munduan ahal dena:** ahal den pena guztia, litezkeen oker guztiak.

Arrastaka: tatarrez, narraz, herrestan.

Gauza onen barririk: gauza ona zer den.

06. **Bage:** gabe.

Urrintxu: urrutixe, urrunsko, hots, oso urrun.

Hartuizu: har ezazu.

Hor jausi hemen altza: hor erori hemen jaiki.

Lupatza: basatza, lohi, lokatz.

Ganian: gainean.

07. **Bot:** badot.

Jan biharko badot: jango badut.

Aldatz: malda, aldapa.

Aldian: aldean, soinean, neuregan.

08. **Astuagaz:** astoarekin.

Kargia jausirikan: karga, zama erorita.

Errial: erreal, pezeta laurden.

Aforan: aforoan, neurrian, pisuan.

Lauko: lau zuriko.

Zuri: antxinako txanpon bat.

10. **Hau da astuen hotza:** hau da astoaren hotza, bai asto hotza.
Erosi erai eustan: erosi eragin, eros erazi zidan.
Judegua: judua, maltzurra.

11. **Jagi:** jaiki, ohetik altxatu.
Atetan: atartean, atarian.
Urtenikua: urtendakoa, irtena, jalgia.

NEKAZARIENAK

01 Urteilik abendura
 ifintera nua
 bersuak nekazalien
 alabazinora.
 Halan merezitzen dabe
 edozein lekutan
 eurak ez balitzatez
 zer dago munduan?

02 Euren bihar pintzipala
 lelengo hilian
 eskubariaz basora
 orbelen atzian.
 Gero baturik burdian
 ahal daien guztiak
 aida Txuri esanagaz
 daruez idiak

03 Zezeila bigarrena
 nabuak ekarteko
 solotikan etxera
 idiarentzako.
 Loditu ditezan ondo
 emoten deutsez sarri
 erraldiak egin daian
 hamazazpi ta erdi.

04 Martia hirugarrena
 laietakua da
 neskatilak mankatzeko
 ofizio ona da.
 Ez baleukiez bitartez
 egurrak inausi
 edo artua gobernau
 ezin leitez bizi.

05 Apirila laugarrena
 gariak jorratu
 lelengo esku biakaz
 biharko dau sastu.
 Bestela araketan
 egitiagaitik
 hutsa balioko deutse
 hartzeko gauza onik.

06 Maiatza bosgarrena
 artuak ereiten
 satsak kanpora atera
 lur mokilak hausten
 eguzki galda galdan
 izerdiz beterik
 bihotza biguntzen deust
 holan ikusirik.

07 Bagila seigarrena
 jorratu soluan
 artua hatxurragaz
 eguzki beruan.
 Gorputza makurturik
 goxetik gabea
 hil ez gaizan gosiak
 dabiltzaz honela.

08 Garagarrila zazpi
 gariak batzeko
 artua bigarrengoz
 guztiz jorratzeko.
 Gariak ebagirik
 bakotxak soluan
 metak ifinten dituez
 lau, bost, sei lekutan.

09 Abuztua zortzigarrena
 nabo ereitia
 bitarte onetan barriz
 gariak jotia.
 Sei gizonen tipi tapa
 gelditu bagarik
 beste batek hartziagaz
 ezin garbiturik.

10 Iraila bederatzi
 frutak guztiz batu
 gero kalera etorri
 jazarri ta saldu.
 Saldu ta gero etxera
 ganilak batzera
 eta gaztainiari
 begiratutera.

11 Urria hamargarrena
 baturik artuak
 gero abietan dira
 ereiten linuak.
 Gaztainak jatsi artian
 arbola puntatik
 makila luze bategaz
 bat itxi bagarik.

12 Zemendia hamaika
 gariak ereiten
 beste biharrik soluan
 ez dabe egiten.
 Goxian gox jaikita
 biharra egitia
 ez badauka kalian
 esnia saltzia.

13 Abendua hamabi
 artuak zuritzia
 mutil-neskatilentzat
 ondo alegria.
 Endemas badagoz bertan
 Braulio ta Pepe
 olgetan pasetako
 bihar egin bage.

14 Lelengotik akabura
 ondo pensaturik
 nor da nekazalari
 hur emotekorik?
 Bestela interes guztiak
 librerik kanpuan
 ondruak diran partez
 edozein lekutan.

01. **Urteilik:** urtailetik, urtarriletik.
Ifintera: ipintzera, jartzera.
Alabazinora: alabantzan, gorespenerako.
Merezitzen dabe: merezi dute.
Ez balitzatez: ez balira.
02. **Bihar:** lan.
Eskubariatz: eskuarearekin.
Ahal daien guztiak: ahal dituzten guztiak, ahal duten guztia.
Txuri: behiei edo idiei ipintzen zaien ize-nik ugarienetakoa.
Esanagaz: esanez.
Daruez: daramazte, daramatzate.
03. **Zezeil:** otsaila.
Deutsez: dizkiete.
Sarri: sarritan, maiz, askotan.
Erralde: bost kiloko pisu neurria.
Daian: dezan.
04. **Martia:** martxo.
Laia: bi hortz luzeko lur lanabesa.
Mankatzeko: zauritzeko, tratu txarra har-tzeko.
Ez baleukiez bitartez: ez balebez, ez balituzte bitartean.
Inausi: kimatu, adarrak moztu.
Artua gobernau: artoa gobernatu, lan-du, ongarritu.
Leitez: litezke.
05. **Jorratu:** arto, arbi eta gisakoei lurra hai-tzurka harrotu eta belarra kendu. Hori ga-riari nola egin dakiokkeen ez dakit. Neguan ardiei bazkatzera ematen zaien gari xehea saratzea edo aratzea, area pasatzea, esan nahi du, aurretik sasturik edo simaurtu-rik, dion bezala.
Araketan egitiagaitik: area deritzon la-nabesa pasatu arren.
Deutse: die.
06. **Sats:** simaur, ongarrri.
Mokil: soroan formatzen diren lurrezko kroskoak, harriak bezalakoak.
- Galda galdan:** gori gorian, ezin beroa-goan.
Deust: dit.
07. **Bagila:** ekaina.
Hatxurragaz: haitzurrez, haitzurrarekin.
Goxetik gabera: goizetik gauera.
Gaizan: gaitzan.
08. **Garagarri:** uztail.
Bigarrendoz: bigarrenez, bigarren aldiz.
Ebagi: ebaki, moztu.
Soluan: soroan.
Meta: haga baten inguruan gariz, bela-rrez, iraz... egiten den pilo handi samarra.
Dituez: dituzte.
09. **Bagarik:** barik, gabe.
Artzi: artza, artze, bahe, galbahe.
10. **Jazarri:** eseri.
Ganil: artalorea.
11. **Abietan:** abiatzen.
Jatsi: jetxi, eraitsi.
Bategaz: batekin.
Itxi bagarik: utzi barik, gabe.
12. **Zemendia:** azaroa.
Biharrik: lanik.
Dabe: dute.
13. **Alegria:** alegerea, alaia.
Endemas: gainera, batez ere.
Badagoz: badaude.
Olgetan pasetako: jostatzen, jolasean pasatzeko.
Bihar egin bage: lan egin gabe.
14. **Akabu:** azken, amai.
Hur emon: inguratu, antz apur bat eman, antzeko izan.
Interes guztiak librerik kanpuan: esal-di iluna. Jendea nekazariez fidatzen dela esan nahi duela dirudi, dendetan-eta zer-bait interesean edo zorrean utzita ere, badutela kreditua edo konfidantza.
Ondrauak diran partez: ohoredunak, zintzoak direla bide, direnez gero.

MARINELA

Errepika:

Itxasandirik,
 itxasandirik
 izaten badot alturan
 nago geldirik.

01 Orain nua kantatzen
 neure bizitzia
 marineru bat naiz ta
 dakidan guztia.
 Kaistik alturara
 itxas zabalían
 nola nabilan a remo
 txalupen ganían.

02 Goxian hasten jataz
 hirurik lauretara
 atetan dihardarrez
 hiru neskatila
 jagi naitiala laster
 Jaunen izenían
 bestiak pronto dira
 txalupen ganían.

03 Banua geldi geldi
 porturikan barran
 lantxako erremua
 harturik eskuan
 errezatzen Jaunari
 bihotz bihotzetik
 hemen ito dirían
 difuntuak gaitik.

04 Barria pasaurikan
 itxas zabalera
 hemen abietan naz
 arrainak hartzera.
 Neguan hotzak hilik
 oinak handiturik
 udan barriz beruagaz
 guztiz kiskaldurik.

05 Goxeko bostetati
 hiruri lauretara
 txalupan dragolia
 eskuan kordela
 txanpela beraunagaz
 itxas zabalían
 amu bat dakardela
 legatza aldían.

06 Igarri ezketio
 berandu dodala
 hartu ditudan arrainak
 dakardaz portura.
 Han abietan jataz
 hiru neskatila
 lonjara eruaten
 ekarten dodana.

- 07 Lonjara eruan da
lur ganera bota
erremata egin arte
hantxe egoten da.
Gizon bat dehadarka
ez dala, ez, karu
hamaika marabedi
nahi dabenak hartu.
- 08 Erremata egin da
darue pisura
harturik banan binan
lurretik zestora.
Pisuan iminirik
zesto handi baten
zenbat kintal dirian
dagoz asentatzen.
- 09 Bakotxari beriak
pisatu ezkeru
han da maiordomua
pisua hartzeko.
Asentadore biri
lelengo itandurik
ia zenbat jatorkan
kontu guztiari.
- 10 Kontuak egin eta
dirua bertan itxi
han dago mandazaina
begira arrainari
garbitu artian guztiz
portuko iturrian
bestela ez da fietan
oraingo jentian.

- 11 Ta maiordomo jaun hau
diruak harturik
dua bere etxera
kontentuz beterik.
Domekan juaten jakaz
txalupen jaubiak
deretxoz diruak hartzen
bakotxak beriak.
- 12 Diruak hartu ezkeru
duaz bere etxera
euren konpainiari
partila egitera.
Partila egin eta
astelehen goxian
barriri juaten gara
txalupen ganian.
- 13 Jaio nintzan munduan
bai marinerua
itxaso zabalian
beti ibiltekoa.
Fraka luze bategaz
txamarreta azula
hebilak biribilak
inglesen modura.
- 14 Itxaso zabalian
ibiliagatik
askotan etorri naz
arrainik bagarik.
Hau da ofizua
hartu nebana nik
erruki ez nabena
ez dauka bihotzik.



01. **Marineru:** marinel, itsasgizon.
Kaistik: kaitik.
A remo: arraunka, arraunean.
Ganian: gainean.
02. **Goxian:** goizean.
Jataz: zaizkit.
Hirurik lauretara: hiruretatik lauretara.
Atetan: atarte, atarian.
Dihadarrez: deihadarrez, deika.
Jagi naitiala: jaiki nadila.
Jaunen: Jaunaren.
Pronto: prest, gertu.
03. **Geldi geldi:** astiro astiro, poliki poliki.
Porturikan barran: portutik eta barran
zehir.
Lantxa: batel, ontzi.
Erremua: arrauna.
Difuntuak gaitik: defuntuengatik.
04. **Barria:** barra.
Abietan: abiatzen.
Barriz beruagaz: berriz beruarekin.
05. **Hiruri lauretara:** hirurak-lauretara,
arratsaldeko hirurak edo laurak arte.
Dragolia: traola, aparailua biltzeko zu-
rezko laukia.
Txanpel: legatz-aparailuko sokerako bat,
metro bat inguru luze.
Beraunagaz: berunarekin.
Dakardela: dakarrela.
Legatza aldian: aldean, legatza berare-
kin dakarrela.
06. **Igarri ezketio:** igarriz gero, ohartu-
takoan.
- Dakardaz:** dakartzat.
Abietan jataz: abiatzen zaizkit.
Lonja: kabana, arrain kontserbak presta-
tzen diren fabrika.
07. **Erremata:** errematea, prezioa kantatu eta
erosleek onartu.
Karu: kario, garesti.
Marabedi: antzinako espainiar txanpon
bat.
Dabenak: duenak.
08. **Darue:** daramate.
Banan binan: banaka edo binaka.
Zesto: otzara, saski, otarre.
Iminirik: ipinita, jarririk.
Kintal: berrogeita hamar kiloko pisu neu-
rria.
09. **Itandu:** galdetu.
Jatorkan: datorkion, dagokion.
10. **Itxi:** utzi.
Fietan: fidatzen.
11. **Domekan:** igandean.
Jakaz: zaizkio.
Deretxoz: eskubidez, zuzenbidez, toka-
tzen zaizkien diruak.
12. **Hartu ezkeru:** hartu eta gero.
Partila: irabazien banaketa.
13. **Fraka:** prak, galtza.
Bategaz: batekin.
14. **Bagarik:** barik, gabe.
Nebana: nuena.
Nabenak: nauenak.

EULIAK

- 01 Oraintxe berihala
kantatzera nua
hiru euli jeneruen
presekuzinua.
Nola dan kristautentzat
udako plagia
alemaninentzako
konpara bagia.
- 02 Gexorik daguana
ondo erruki dot
endemas balego ohian
euliakin inoz
itxiko ez deuselako
dagan lekuan
noz bait sartu bagarik
euliak aguan.
- 03 Geixuak daukan laguna
abiatzen jako
erruki handiagaz
euliak kentzeko.
Alperrik ibiliko haz
uxatuten beti
hamaika juango jakoz
hamabi etorri.
- 04 Ezpata-euliak dira
beste jenerua
alemaninentzako
tormentu geiztua.
Txit barrura sartzen deutse
ispi berenua
gogorra izan arren
ganaduen narrua.
- 05 Alemanina geixua
honeek galtzen dabe
zergaitik gorputz guztia
zulatuten deutse.
Eguzkien urtetik
iluntzi artian
ibiltzen dirialako
eurakaz aldian.
- 06 Saman imini arren
arbolen orria
uste dozu horregaitik
dala defensia?
Hori da errukitasun bat
jabiak harturik
horregaitik euliari
ez deutsa ardurarik.

- 07 Mando-eulia dogu
beste jenerua
zabal ta biribila
zapua langua.
Beti beti jabilkola
gilika tripian
mandua ostikoka
imini artian.
- 08 Honeek dira euliak
munduan jaiuak
generoso guztiak
kakaztutekuak
Hainbeste dira munduan
nun prinzipalente
arrain, fruta lekuetan
faltarikan gabe.
- 09 Ormako miarmia
beti da begira
aurrian sare handi bat
berak ifinita
pensaurikan eulia
juango jakola
bai baleuka onduan
azukar tontorra.
- 10 Heguak daukaz euliak
Jaunak ifinirik
horregaitik marmiaren
ez dauka bildurrik.
Euliak ez dabe gura
ormako zuluua
ezpada eguzkitan
ezti lapikua.
- 11 Afrikati etorten dira
txori jenero bi
bata da guztia baltza
bestia azul zuri.
Beto z euliak jaten
gelditu bagarik
ito ez gaiezan euliak
amorruez beterik.



01. **Jeneruen:** moten, euli klaseen.
Plagia: izurria.
Alemaninentzako: animalientzat.
Alemanina: animalia.
02. **Gexo:** gaiso, eri dagoena.
Ondo erruki dot: biziki urriki dut.
Endemas: batez ere, gainera.
Ohian: ohean.
Itxiko ez deuselako: utziko ez diotelako.
- Bagarik:** barik, gabe.
Aguan: ahoan.
03. **Jako:** zaio.
Handiagaz: handiarekin.
Uxatuten: uxatzen, izutzen.
Jakoz: zaizkio.
04. **Txit barrura:** oso, arrunt barnera.
Deutse: diete.

- Ispi berenua:** mihizto, ezten zitala, mardarikatua.
05. **Geixua:** gaizoa, gizajoa, errukarria.
Honeek: hauek.
Dabe: dute.
Zulatuten deutse: zulutzen diote.
Eguzkien urtetik: eguzkiaren urteeratik, sortzetik, irteeratik.
Iluntzi artian: iluntze, ilunabar arte.
Eurakaz aldian: eurak aldean, soinean dituztela.
06. **Saman:** lepoan.
Orria: hostoa.
Defensia: defentsa, babesa.
Ez deutsa ardurarik: ez dio axolarik.
07. **Zapua:** apoa.
Langua: lakoa, bezalakoa.
Jabilkola: dabilkiola, ari zaiola.
Gilika: kilika, kilimaka.
08. **Generoso:** gogo oneko, bihotz zabaleko.
Kakaztu: izorratu, hondatu.
Prinzipalente: bereziki, batez ere.
Bage: gabe.
09. **Miarmia:** armiarma.
Jakola: zaiola.
Azucar tontorra: azukre koskorra.
10. **Heguak:** hegoak, hegalak.
Ez dabe gura: ez dute nahi.
Ezpada: baizik, bai ordea.
Lapikua: eltzea.
Gaiezan: gaitzaten.

ARDIAK

- 01 Gura dabenak berihala ardien kantarik datorrela nigana esango diot nik. Zelango geiztua dan uda guztirako bakian dagozanak ondo penetako.
- 02 Honeek jaioten dira edozein lekutan endemas badago hautsik etxe eskinetan. Etxe ladriluzkua ez badago garbi duda бага egongo da anega bat ardi.
- 03 Gaztaina koloreko ardi berenuak lau oin dituz laburrak oin bi luziaguak. Atzetik daukazan legez oin bi luziago hawaitik nahi dabenian egiten dau salto.
- 04 Dauka barriz piku bat ardi pikaruak jostorratz minen minena baino okerragua. Nahi dabenian sartzeko nahi daben lekutik distingidu bagarik pobre aberatsik.

- 05 Munduan gitxi dagoz hain bihotz noblerik ardia hartu ezketio botako dabenik igortzi bagarik ondo hatz biren erdian edo hatzazkalakaz hantxe hil artian.
- 06 Ardia hartzen dabenian entero dago poz mahai ganian hiltzeko hatzazkalakaz klosk endemas eukiten badau denpora askuan alkondarien plegian pikatzen kolatsan.
- 07 Ardiak pikatu arren jentien aurrian askok erabilten dau eskua gerrian hatz bat aguan bustirik igortzi ta igortzi halantxe ateraten dau ardi bat edo bi.
- 08 Beste askok ez dauko bat bere modurik jente guztien aurrian hartzeko ardirik. Gero zer egiten dau etxera juanda? Mentana oste batetik banan binan bota.
- 09 Txakurrari ez deutso emoten bakerik lepuan daukan lania guztiz kendu barik. Bestela izango leuke dudarikan bage ardiz lepo guztia bete, guztiz bete.
- 10 Azeriak bere ardiak honan kentzen ditu uretan musturregino sartuta gelditu aguan daukala bedar bat ardiak batzeko gero bete dagoanian bertan itxiteko
- 11 Gura dabenak etxian euki ardi gitxi eskuetan itsuskia erabili sarri. Bota lelengo ur puska bat ondo garbitzeko bestela ardiak ez dabe bakerik emongo.
- 12 Hamabigarren bersuan esango dizut nik Mendaroko aleruak ez dabe ardirik beti dabilzalako tiraka bultzaka uretan biharrian guztiz arrastaka.



01. **Gura dabenak:** nahi duenak.
Ardi: kukuso, arkakuso.
Dagozanak: daudenak.
Penetako: penatzeko.
02. **Honeek:** hauek.
Endemas: batez ere, gainera, bereziki.
Eskina: ertz, bazter, zoko.
Ladriluzkua: adreiluzkoa.
Baga: bage, gabe.
Anega: berrogeita hamar kiloko pisu neurria.
Ardi berenuak: kukuso madarikatuak, zitalak.
Daukazan legez: dauzkanez gero, dauzkalako.
Nahi dabenian: nahi duenean.
04. **Piku:** moko.
Minen minena: mingarrien mingarriena.
Distingidu bagarik: bereizi gabe.
05. **Gitxi dagoz:** guti daude.
Hartu ezketio: hartu ezkerro, hartuz gero.
Barik: gabe.
Hatzazkalakaz: hatzazalekin.
06. **Entero dago poz:** erabat, guztiz pozik dago.

- Alkondarien plegian:** alkondararen pleguan, tolesean.
Kolats: kokozpe, girgilo.
Pikatzen: zastatzen, zast egiten.
07. **Aguan:** ahoan.
Halantxe: halaxe.
08. **Bat bere:** bat ere.
Mentana: bentana, leiho.
Oste: atzea, ikusten denaz beste aldea.
Banan binan: banaka edo binaka.
09. **Ez dautso:** ez dio.
Lepuan: bizkarrean.
Lania: artilea.
Ardiz lepo guztia bete, guztiz bete: bizkar guztia ardiz bete beterik.
10. **Honan:** honela.
Musturregino: muturreraino.
Itxiteko: lagatzeko, uzteko.
11. **Itsuskia:** isuskia, erratza, isatsa.
Lelengo: lehenik, lehenbizi.
12. **Aleruak:** aleroak, *ala* izeneko ontzia darabiltenak.
Ala: txalupa txikia.
Uretan biharrian: urean lanean.
Arrastaka: herrestan, tatarrez, era errukarrian.

RELOX DE DIMA

01 Sin alabar la parte abietan naiz ni a componer seis versos erloju bateri. No salgo por el reloj ifintera nua sino que es la musica neure gustokua.

02 Los relojes pues todos ekustekua da solo porque es mui sutil genero guztira y esto digo de veras bihotz bihotzetik cada vez que lo oigo nago zoraturik.

03 Cuando le miro digo neure buruari Jesus, que el ver es gusto edozein lekutik diciendo de esta suerte Ai ze penia dau bendita sea la mano zeinek egin eban.

04 Solo quisiera saber neu naizan artian la musica que tiene nok iminia dan para darle las gracias ahal banei bertatik porque tiene un estilo bestek ez langorik.

05 Quien no oye sus secretos gusturik ez dauka y el que deja de verle lastima asko da pues que así en el mundo gauza hobagorik sin ofenderle a nadie musikaz beterik.

06 Ya no tengo que decir seigarren bersuan estoy en que le acabo bihar dan moduan. El que creer no lo quiera dinodan guztian está el reloj de Dima Jauregi barrian.



01. **Abietan:** abiatzen.
Ifintera: ipintzera, jartzera.
02. **Nauko:** nauka.
03. **Ze penia dau:** zer pena, min dauka.
Zeinek egin eban: zeinak egin zuen, hura egin zuena.

04. **Iminia:** ipinia, jarria.
Ahal banei: ahal baneza.
Bertatik: berehala, bat batean.
Langorik: lakorik, bezalakorik.
05. **Hobagorik:** hoberik, hobeagorik.
06. **Dinodan:** diodan, esaten dudana.

KAUSINO

01 Sekreto handia da ta marabillosua Kausinuen liburuan agerturikua.

Errepika:

Ez diamante, ez perla ez urregoririk alegrantzia baino ez dago hoberik.

02 Eskolia ederra
daukagu munduan
seinzainak alegria
haurrari kantetan.

03 Kausinok esaten dau
lelengo tomuan
alegria dala onena
biziteko munduan.

04 Munduko tristezia
melankonina da
ta hau geixo moduan
honan kenduko da.

05 Geure jakituria
izan da ta izango da
ez inori gatzik egin
Jaunaren bildurra.

06 Hartu alegria
tristezia itxi
Kausinuen liburua
beti presente euki.



01. **Marabillosua:** miragarria, miresgarria.
Kausino: ez dut aurkitu izen hau nor zen.
Idazleren bat behintzat.
Alegrantzia: alaitasuna, alegeratasuna.

02. **Eskolia:** eskola.
Senzainak: haurtzainak, umezainak.
Alegria: alegrantzia, alaitasuna.
Kantetan: kantatzen.

04. **Malenkonina:** malenkonia, kadentasuna,
goibeltasuna.
Geixo: gaiso, eritasun.
Honan: honela.

05. **Gatzik:** gaitzik, okerrrik.
06. **Itxi:** utzi.

SAGARRA

01 Sagar azal ederra
barrua usteldurik
zeinbat dagoz munduan
lastimaz galdurik.
Gero batek jaten dau
sospetxa bagarik
pensaurik ez daukala
barruan damurik.

02 Mailaturik lurrian
dagan sagarra
haretzek izango dau
bentarik onena.
Halan ikusten ditut
lekurik askotan
sagar onena dala
harrakaz barruan.

03 Zeinbat dagoz munduan
dolorez beterik
sagarrak gatx eginda
inok jakin barik?
Belarritik okotzera
guztia llagaurik
beste lekurik asko
sufridu ezinik.

04 Sagarrari begira
itxiten ez bajako
ekarri leike gero
konturikan asko.
Zergatikan azala
euki arren gorria
barrua euki leike
usteldurik guztia.

05 Sagarra jan artian
guztiz da gustoso
baina gero izaten da
gustua beneno
daukalako sagarrak
barruan bergizena
jan artian guztia
igarten ez jakona.

06 Sagarra janda gero
egon ezin danian
beragan esaten dau:
zer dot nik aldian?
Ez ardaa edateko
ez okela ez urdairik
ezpada hutsik saldia
beragaz bakarrrik.

07 Gero esaten deutso
biharren danari
osatu egin naizu
Jaungoikuagaitik.
Ixilik inok jakin baga
zer pasetan jatan
bestela karatula bat
biharko dot arpegian.

08 Lelengo egunian
sangria besuan
beste egunian purga
goxeko bostetan.
Laugarren egunian
bainuan sarturik
zortzi egun osuetan
bat bere jan bagarik.

09 Hiru egunik baten
juango da etxera
azogezko untura
emongo dabena
guztia koipaturik
oinerik kokotera
agoti imini artian
adurra dariola.

10 Zeinbat izerdi triste
bitarte honetan
pasau biharko ete dau
osatu artian
hatzka bere burua
ezin sufridurik
esaten dabela berak:
ze sagar jan neban nik?

11 Aurrera ez badabil
bildur handiagaz
bere denpora guztia
biharko dau lllagakaz.
Ez dau hainbeste esan gura
gorputz lllagatuak
bestela ekarri leike
heriotzako ordua.

12 Kontuz bizi bihar da
hemendik aurrera
bestela sagar ederrak
izan leike benta.
Erraz egongo dira
guztiz sinisturik
ez dago larrosarik
arantza bagarik.



01. **Dagoz:** daude.
Lastimaz: tamalez, zoritxarrez.
Sospetxa bagarik: susmo gabe.
Damurik: gaitzik, kalterik.
02. **Mailatu:** kolpeen ondorioz, azalean bi-
gunguneak edo sakonguneak sortu.
Benta: salmenta, saltze.
Lekurik askotan: leku askotan.
Harrakaz: harrekin.
03. **Gatz:** gaitz, kalte.
Barik: bagarik, gabe.
Llagaurik: lllagaturik, lllagaz beterik.
Llaga: gaztelaniazko hitza: zauria, zauri-
bera, ultzera.
04. **Itxiten ez bajako:** bertan, hartu gabe,
uzten ez bada.
Leike: lezake.
Zergatikan: ze, zeren. Kausala.
05. **Beneno:** pozoin.
Bergizen: landareen eritasun bat.
Ez jakona: ez zaiona.
06. **Aldian:** aldean, soinean, neuregan.
Ezpada: baizik.
Beragaz: berarekin.

07. **Deutso:** dio.
Biharren: beharren, beharrezkoen.
Osatu egin naizu: senda nazazu.
Baga: bage, gabe.
Pasetan jatan: pasatzen zaidan.
Karatula: mozorro.
08. **Sangria:** odol-hustea, odol-ateratzea, zai-
nebakia.
Goxeko: goizeko.
09. **Hiru egunik baten:** hiru egunez behin.
Azoge: zilarbizi, zilarraren antzeko metal
likido astun bat.
Untura: igortzi, gantzadura.
Dabena: duena.
Oinerik: oinetik.
Kokot: lepoaren atze aldea, garondo az-
pia.
Agoti: ahotik.
Adurra: lerdea.
10. **Biharko ete dau:** beharko ote du.
Neban: nuen.
11. **Aurrera:** aurrerantzean, hemendik ain-
tzina.
Handiagaz: handiarekin.
LLagakaz: lllagekin.

AITA PALACIOS

01 Ez naiz orain artian
gelditu bakian
berso olgagarriak
ifini artian.
Orain paratzera nua
guztientzat gustoz
alabaten dedala
Aita Palacios.

05 Zeinbat ta zeinbat bidar
misino santuan
negarrez euki gaitu
elexa barruan?
Egia esaten deuskula
pulpitu ganetik
arren apartau gaitian
bizi okerretik.

02 Bereinka bere amari
sortu jakonian
guztizko seme on bat
bere sabelian
egia predikatzeko
pulpitu ganian
geisto deunga guztiak
zuzendu artian.

06 Guztiz bere bihotza
dalako noblia
bihar dira bere hitzak
ondo gordetia
bat bere ahaztu bagarik
garian artian
gero euki daigun parte
zeruko glorian.

03 Nok irakatsi zion
lelengo letria
hak bere bai izango dau
zeruan gloria
atera zebalako
dizipulu ona
Zarauzko konbentuan
ikusi leikiana.

07 Zerua gura dabenak
geroko logratu
Aita Palaciosen hitzak
bihotzian sartu
batere urten bagarik
bere hitzetatik
bestela izango ez da
inundik gauza onik.

04 Zarauzko konbentutik
gugana etorten da
eskuan kurutzia
aldatz gora behera
bidian datorrela
izerdiz beterik
gugana horregatik
kontentuz baterik.

08 Kontu ta arrazoia
emon biharko dau
zerura juango bada
gure arima hau.
Esku bata bularrarian
bakotxak imini
konsiderazinuagaz
Jaungoikuagaitik.

09 Han daukagu gexua
guztiz sikaturik
geure Aita Palacios
gaztia gugaitik.
Orain egin bihar dogu
guztiok batera
kunplidu bere hitzak
hemendik aurrera.

10 San Franzisko Asiskua
ikusi bada inoz
bere irudi bat da
Aita Palacios.
Bera ikusiagaz
biguntzen ez dana
ez da izango inoz
Jaunaren laztana.



01. **Olgagarriak:** jostagarriak, jolaserakoak.
Ifini: ipini, jarri.
Paratzera: jartzera, ontzera.
Alabatu: laudatu, goretsi.
02. **Bereinka:** bedeinka, benedikatua bedi.
Jakonian: zitzaionian.
Ganian: ganean.
Deunga: gaizto, doilor.
03. **Hak bere:** hark ere.
Zebalako: zuelako.
Leikiana: litekeena.
04. **Kurutziagaz:** gurutzearekin.
Aldatz gora behera: aldatzetan, malde-
tan gora eta behera.
Horregaitik: hala ere.
Baterik: *batetik* izan liteke, baina ez dauka
zentzurik. *Beterik* behar du.
05. **Bidar:** aldiz.
Elexa barruan: eliza barnean.

11 Hamabi berso honeek
entzun dituzanak
mesede egin beide
Ave Maria bat
orain errezetiak
bihotz bihotzetik
Aita Palaciosen
osasunagaitik.

12 Beti dabilan legez
guztien onian
hargaitik paratzen da
pulpitu ganian.
Eta Aita Palacios
holan ikusirik
negarrak urteten deust
bihotz bihotzetik.

- Deuskula:** digula.
Arren: otoi, mesedez.
06. **Gordetia:** gordetzea.
Bat bere: bat ere.
Bagarik: gabe.
Garian: garen.
Daigun: dezagun.
07. **Gura dabenak:** nahi duenak.
Logratu: lortu, erdietsi, beragandu.
Urten: irten, jalgi, atera.
08. **Konsiderazinuagaz:** konsiderazioz, be-
giramenduz.
09. **Sikaturik:** lehorturik, idorrik. Gizon iha-
rra edo argala zela esan nahi du.
10. **Inoz:** nehoiz, inoiz.
Ikusiagaz: ikusiarekin, ikusirik.
11. **Honeek:** hauek.
Dituzanak: dituenak.

Beide: *biezadate* izan liteke, baina hemen
beie edo *bezate* izango da.
Errezetiak: errezatzeak.
Dabilan legez: dabilenez gero, bait dabil.

Paratzen da: jartzen da, kokatzen da.
Holan: honela nahiz horrela.
Urteten deust: ateratzen, jalgiten zait.

CHISPEROS

01 Hamabi berso honeetan
esan bihar dogu
erregen armeruak
nortzuk ditugun.
Honeek ez balitzatez
beti biharrian
zer egingo genduke
gerria danian?

02 Gobernadore jaunena
disposizinuak
dagoz materialak
fabrika guztian
baita ontxe bihar eginak
bere eskubidian
erregen almazenera
eruan artian.

03 Lelengo txisperuak
ifiniko ditut nik
halan merezietan dabeela
ondo pensadurik.
Fuelle, osterantzian
sinistu eizue
ez badauko han txispa
ez da ezer bere.

04 Guztiz goxetik honeek
labia ixioturik
forjetan hasten dira
gelditu bagarik.
Eurak forjetan dabe
eurak limadore
eurak hasi ta akabau
tornilo ta muelle.

05 Astelehen martitzenetan
ondo umilderik
errege etxera duaz
piezak harturik
esaminadu daizan
ondo guztiz ondo
ta badago faltarik
kontu beste behingo.

06 Forjadore, kainonistak
lelengo kaldia
hauxe da tin tan ton tun
batzeko txapia.
Gero akaburantz
dagoz guztiz listo
kanoiaz egiteko
pa ti to pa ti to.

- 07 Kanoiak forjau eta dago barrenatzen barrenadoria nekez sartu ta ateratzen. Limatu, esaminara ta handik pruebara ostera bigarrenagaz esaminatzera.
- 08 Ta esaminadoriak kanoia harturik joten dau lurren kontra badauko hots onik. Eta topetan badau inundik tranpia zapaldua izango da eskuko armia.
- 09 Esaminau ezkerodarue bertatik konpainiako etxera almazeneruari. Gero bialtzen deutsa kanoe ta txispak kargeruak armatera ederki fusilak.
- 10 Kulatak, abrazaderak guardapaja, eskudo sein pieza ateratzen fundidora dago aparejeruentzat limau daien ondo baita bere baketia kajeruentzako.
- 11 Halan fusila armaurik dua esaminetan bariku edo zapatuz harturik lepuan. Esaminau ezketio daruez bertatik konpainiako etxera kontentuz beterik.
- 12 Handik errege etxera betiko moduan direktore jaunaren dispizinuuan. Baionetak, fusilak enkajonaturik laster bialdurik fabrika lekutik.
- 13 Aste erdian duaz diruaren bila jan biharko badabe nahi dabeen guztia pagadoren etxera itxuturik legez gero sedaz jantziteko besterik ez legez.
- 14 Entzun beide munduan jente kristau onak zer falta egiten daben fabrikan gizonak. Honeek ez bageunkazke dinodan moduan ez litzate guretzako gauza onik munduan.



- Chisperos, txisperoak:** zizperoak, zizpiginak.
Zizpa: antxinako su-arma bat, fusila eta eskopeta batipat.
01. **Honeetan:** hauetan.
Armeruak: armaginak.
Honeek ez balitzatez: hauek ez balira.
Biharrian: lanean.
Gerria: gerra, gerla.
02. **Disposizinuuan:** karguan, ardurapean.
Ontxe: oraintxe.
Bihar eginak: landuak, landutako armak.
Almazenera: biltegira.
Eruan: eraman.
03. **Lelengo:** lehenengo, lehenik, lehenbizi.
Halan merezietan dabeela: hala merezi dutela.
Fuelle: auspo, eman auspoari.
Osterantzian: ostantzean, bestela, bertzenaz.
Eizue: ezazue.
Txispa: zizpa.
Ezer bere: ezer ere.
04. **Goxetik:** goizetik.
Labia ixioturik: labea pizturik.
Forjetan: forjatzen.
Bagarik: barik, gabe.
Dabe: dute.
Limatu, limadore: karraskatu, karraskari.
Akabau: akabatu, amaitu, burutu.
Tornilo: torlojo.
Muelle: malguki.
05. **Martitzen:** astearte.
Umilderik: umilik, apalik.
Esaminadu daizan: esaminatu, azter ditzan.
Kontu beste behingo: argi beste baterako, erne hurrengorako.
06. **Kainonista:** kainoigin, kainoigile.
Kaldia: kalda, galda, burdina urtua.
- Akaburantz:** azken aldera, bukatzera doanean.
Listo: prest, gertu, erne.
Kanoiaz: kainoiarekin.
07. **Pruebara:** probara, entseiura.
Ostera bigarrenagaz: berriz bigarrenarekin.
08. **Lurren:** lurraren.
Topetan badau: aurkitzen, kausitzen badu.
Tranpia: tranpa, okerra.
09. **Esaminau ezkerodarue:** esaminatu eta gero.
Darue: daramate.
Almazeneruari: biltegizainari.
Deutsa: dio.
Armatera: armatzera.
10. **Abrazaderak:** besarkaderak, bridak.
Eskudo: ezkutu.
Fundidora: urkin, galdakin.
Daien: dezaten.
Baketia: baketa, burdinazko makiltzoxa.
11. **Dua esaminetan:** doa esaminatzera.
Bariku: ostiral.
Zapatu: larunbat.
Lepuan: bizkarrean.
12. **Enkajonaturik:** kaxaturik, kaxetan sarturik.
13. **Jan biharko badabe:** jango badute.
Pagadoren: ordaintzaileen.
Legez: bezala.
Sedaz jantziteko: zetaz jatzeko.
14. **Beide:** bezate.
Ez bageunkazke: ez bageunkaz, ez bageunezka.
Dinodan: diodan, esaten dudan.

JUAN MATEO ZABALA

1777. urtean jaio eta 1840. urtean hil zen Aita Mateo Zabala Frantziskotarra Bilbotarra zen, San Antongo Elizan bataiatua. Zarauzko komentua bizileku izanik, Bizkaiko herriak batez ere misiolari korritu zituen. Bizkaierazko aditza sakon aztertu zuen. Bere idazlanen artean, *Fábulas en dialecto vizcaino* da ezagunena.

GIZON ESKU-EUTSI

(lanez betea eta adiskide esan onekoa.)

(*Poesía Bascongada en dialecto vizcaino*. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa. 71. or.)

01 Gizon batek eukazan

gauza guztiak
salduta egin eban
urre opil bat
ta lur azpian
sartu eban opila
ortu erdian.

02 Egunean ta egunean

joian zikotza
ikusten ondasuna
edo bihotza.
Zeinbat apatxu
emoten deutsan hari!
Gero estaldu.

03 Leihotik dakus batek

zelan urrea
darabilen gizonak
sartu ta atera.
Eta gau baten
kentzen deutso kutuna
ta eroaten.

04 Ohi legez gox goxetik

biharaunean
hartu nahi dau lurpetik
esku artean.
Damu gorria
dakus ostu deutsela
opil horia.

05 Oh zeinbat negar garratz!
Zeinbat aiari!
Zeinbat garbai eskerga
ta zeinbat larri!
Ez dauka onik
ez jan ez edan daike
eta ez lorik.

06 Honelan dabilela
igarten deutso
lagunak nahibagea
eta dirautso:
Zer dok, gizona
hain ilun ibilteko
lehengotik hona?

07 Zabaltzen deutsa honek
bere bihotza
bai esan bere daben
damu mingotsa.
Agertu urrea
edo hil nok damuak,
adiskidea.

08 Zer? -dirautso lagunak-
Hau dok guztia?
Hartu harri bat eta
egik opila.
Sartu lurpean
hainbat egingo deua
zein da besteak.

09 Zekentzarren kaltea
honetan dago:
Izan gauza, ez izan,
beti deungaro.
Izanda lana,
galdurik damu, ta ez
behin ondo dana.



01. **Eukazan:** zeuzkan.
Eban: zuen, zeukan.
Ortu: baratz.

02. **Joian:** zihoan.
Zikotz: zeken, esku-eutsi, gordezalea.
Apatxu: laztantxo, musutxo.
Deutsan: dion.

03. **Dakus:** ikusten du.
Zelan: nola.
Deutso: dio.
Kutuna: aldean eramaten den edo gorde-
ta edukitzen zerbait maitea.
Eroaten: eramaten.

04. **Legez:** bezala.
Gox: goiz.
Biharaunean: biharamonean.
Damu: pena, atsekabe.
Ostu deutsela: ebatsi, lapurtu diotela.

05. **Aiari:** deitore, auhen, aiene.
Garbai: damu, damutasun.
Larri: larritasun, estuasun.
Daike: dezake.

06. **Deutso:** dio.
Nahibagea: atsekabea, samina.
Dirautso: diotsa, erraiten dio.

07. **Esan bere:** esan ere.
Daben: duen, daukan.
Mingotsa: mikatza, gozagaitza.
Hil nok damuak: hil naiok, hil naik da-
muak.

08. **Hainbat egingo deua zein da besteak:**
hainbat egingo dik nola besteak, hots,
besteak hainbat, besteak bezanbat egingen
dik.

09. **Zekentzar:** zeken oso handi.
Zeken: zikoitz, ematea gaitzi duena.
Izan gauza, ez izan: gauza eduki nahiz
ez eduki.
Deungaro: gaizki, txarto.
Ta ez behin: eta behin ere ez, inoiz ere
ez.

HILTEKO EGOAN

(gurasoaren burutasun ona eta ume zintzoro behargiliak.)

(Poesía Bascongada en dialecto vizacino. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa. 72. or.)

01 Hilteko etsita ia egoan
guraso batek umeak
aurrera ekarri ta ondoan
dirautsez honango berbak:
ene semeak
guztiz maiteak
nik laster hil behar yoat.

03 Baia ez neukek nik yoan gura
zeuei hau esan bagarik:
honen mahastuitan zaintsu hatxurra
erabilita sakondurik
katanarrua
behean sartua
topaukozue beterik.

02 Ya niretzat ez dozak ezer
mundu honetako gauzak
zuentzat danak, bai, eta laster
hor itxiko yoadazak.
Hortxe bazterra
etxea bera
eta mahastui galantak.

04 Handik guraso hau hil ezkeru
haren esanen ganera
semeak lana bero bai bero
egiten abiau dira.
Mahastuia hatxurtu
soiak apurtu
ta azpiko lurrak ganera.

05 Oh zeinbat negar garratz!
Zeinbat aiari!
Zeinbat garbai eskerga
ta zeinbat larri!
Ez dauka onik
ez jan ez edan daike
eta ez lorik.

06 Honelan dabilela
igarten deutso
lagunak nahibagea
eta dirautso:
Zer dok, gizona
hain ilun ibilteko
lehengotik hona?

07 Zabaltzen deutsa honek
bere bihotza
bai esan bere daben
damu mingotsa.
Agertu urrea
edo hil nok damuak,
adiskidea.

08 Zer? -dirautso lagunak-
Hau dok guztia?
Hartu harri bat eta
egik opila.
Sartu lurpean
hainbat egingo deua
zein da besteak.

09 Zekentzarren kaltea
honetan dago:
Izan gauza, ez izan,
beti deungaro.
Izanda lana,
galdurik damu, ta ez
behin ondo dana.



01. **Eukazan:** zeuzkan.
Eban: zuen, zeukan.
Ortu: baratz.
02. **Joian:** zihoan.
Zikotz: zeken, esku-etsi, gordezalea.
Apatxu: laztantxo, musutxo.
Deutsan: dion.
03. **Dakus:** ikusten du.
Zelan: nola.
Deutso: dio.
Kutuna: aldean eramaten den edo gorde-
ta edukitzen zerbait maitea.
Eroaten: eramaten.

04. **Legez:** bezala.
Gox: goiz.
Biharaunean: biharamonean.
Damu: pena, atsekabe.
Ostu deutsela: ebatsi, lapurte diotela.
05. **Aiari:** deitore, aihen, aiene.
Garbai: damu, damutasun.
Larri: larritasun, estuasun.
Daik: dezake.
06. **Deutso:** dio.
Nahibagea: atsekabea, samina.
Dirautso: diotsa, erraiten dio.

07. **Esan bere:** esan ere.
Daben: duen, daukan.
Mingotsa: mikatza, gozagaitza.
Hil nok damuak: hil naiok, hil naik da-
muak.
08. **Hainbat egingo deua zein da besteak:**
hainbat egingo dik nola besteak, hots,
besteak hainbat, besteak bezanbat egingen
dik.

09. **Zekentzar:** zeken oso handi.
Zeken: zikoitz, ematea gaitzi duena.
Izan gauza, ez izan: gauza eduki nahiz
ez eduki.
Deungaro: gaizki, txarto.
Ta ez behin: eta behin ere ez, inoiz ere
ez.

HILTEKO EGOAN

(gurasoaren burutasun ona eta ume zintzoro behargiliak.)

(Poesía Bascongada en dialecto vizacino. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa. 72. or.)

01 Hilteko etsita ia egoan
guraso batek umeak
aurrera ekarri ta ondoan
dirautsez honango berbak:
ene semeak
guztiz maiteak
nik laster hil behar yoat.

03 Baia ez neukek nik yoan gura
zeuei hau esan bagarik:
honen mahastuitan zaintsu hatxurra
erabilita sakondurik
katanarrua
behean sartua
topaukozue beterik.

02 Ya niretzat ez dozak ezer
mundu honetako gauzak
zuentzat danak, bai, eta laster
hor itxiko yoadazak.
Hortxe bazterra
etxea bera
eta mahastui galantak.

04 Handik guraso hau hil ezkeru
haren esanen ganera
semeak lana bero bai bero
egiten abiau dira.
Mahastuia hatxurtu
soiak apurtu
ta azpiko lurrak ganera.

05 Katanarrua etzan agertu
ez eta beste dirurik
baia mahastuiak halan hatxurtu
eta mahats mordoz beterik
euren saria
irabazia
gonburu deutse ekarririk.

06 Ganezka, bada, upakerea
bete dabe txakolinez
ta batzuk edan, saldu bestea
kontuak yota azkenez
seme bakotzak dituzan boltsak
bete dituz urre onez.

07 Dirautse, bada, bat besteari:
Ze katanarru hoberik?
Nonbait aiteak hau iragarri
nahi yeskuan, ez besterik.
Ea, gizonak
lan on sakonak!
Honexegaz aberatsik.



01. **Egoan:** zegoen.
Dirautsez: dinotsez, esaten dizkie.
Honango berbak: honako, honelako hitzak.
Yoat: diat.
02. **Dozak:** dituk.
Itxiko yoadazak: utziko ditiat.
Bazterra: etxaldea, baserri baten lur kopurua.
03. **Neukek:** nitek.
Bagarrik: barik, gabe.
Hatxurra: haitzurra.
Katanarru: katalarru, dirua gordetzeko boltsa.
Topaukozue: aurkituko duzue.
04. **Hil ezker:** hil eta gero.
Haren esanen ganera: haren esanaren gainera, hots, haren esanak eraginda, ha-

- ren esana gogoraturik.
Egiten abiau: egitera abiatu.
Soiak: zohiak, laiaz edo haitzurrez jasotzen diren lur puska belardunak.
05. **Baia:** baina.
Mordo: morda, mahats aleek osatzen duten sorta.
Gonburu: mukuru, gainez.
Deutse: die.
06. **Upakerea:** upa, upel, kupel.
Dabe: dute.
07. **Dirautse:** dinotse, erraiten diote.
Aiteak: aitak. *Aita* eta *ama* artikulua eta guzti erabiltzea gaur animalietan bakarrik kontserbatzen da.
Yeskuan: ziguana.
Honexegaz: honexekin.

FRANTZISKO ZENGOTITA-BENGOA

Gizon honetaz bertso paperak dakartzan datuez besterik ez dakit. Berriztarra zela eta 1832. urtean atera zituela bertsook. Beraz, ordurako gizon heldu samarra izan zitekeela jorik, 1800 aurretik jaioa behar.

MISIONISTAK DIRADE

(Euzcarazco cantac Francisco de Zengotita-Bengoac Misiñoen ostean atariac. Berrizen Mayatzaren 20 garrenean 1832 garren urtean)

(Euskaltzaindiaren Bilboko *Azkue Biblioteka*-n aurkituriko bertso paper solte bat).

01 Misionistak dirade
aurkitu Berrizen
premina bere bazan
eta bihar izen.
Lehenago bere izen dire
sei urterik baten
orain lako mudantzarik
ez da ikusi izen.

02 Orain klaru nahi neuke
nik adierazo
Berrizko herri noblien
aurten zer dan jazo.
Memoria gitxi dot
honenbesterako
Maria Santisima
nahi dot laguntzeko.

03 Zarauzko San Frantziskoko
fraile erlejoso bi
Berrizko herrira aurten
dirade etorri.
Predikatu deuskue
pulpituti sarri
arren itxi deiogula
usu gaiztuari.

04 Aurtengo Martiaren
hogeta hamargarrenian
heldu ziran misinuek
Izagirrenian.
Asko estimatu zituen
bere konpanion
gu ifini gendiezan
ejenplu onian.

05 Fray Juan de Obieta
bietati zaharrena
berak predikatu dau
benipein aurrerena.
Fray Frantzisko de Estartak
egin dau bigarrena
batak letxe bestiak
egin dabe ahalegina.

06 Fray Frantzisko de Estarta
neure izenekua
hak ondo ametan dau
nire ustien Jaungoikua.
Sarriten ifinten dau
gorputz nekatua
guri kendu gurarik
geure pekatua.

07 Sarriten deuskue eurak
klaru esplikatu
arren bada ez daigula
bekaturik ukatu.
Handiak da asko izen arren
zietz konfesatu
hori egin ezkerro
dana eurak parkatu.

08 Honetan bere emon dabe
enkargurik asko
dantza nahastuetati
arren apartetako.
Prest daguela diabrua
sarietan han botetako
arima ederrik asko
gero kondenetako.

09 Esan deuskue sarri
eurak pulpituti
ez datorrela gauza onik
tanbolin soinuti.
Arren aparta gaitian
gaztiok honetati
nahi badogu gero jua
Zerura bideti.

10 Ia neure jentiak
sarri dogu aditu
arren bada fanderuak
daiguzela apurtu.
Entzun dabenien eurek
batzuk dirala haustu
eurak gaiti bertati
biak dabe erregutu.

11 Entzuten dabenien eurek
geure onerakue
orduante hartuten dabe
guztizko kontentue.
Ia bada jentiak
atera kontue
eurentzat baino guretzat
askoz hobeto due.

12 Itxi deuskue eurek
enkargu ugari
betiko galdu daigula
usu gaiztuori.
Eta partikularmente
Justiziako Jaunari
hartarako esaeben
laguntzeko berari.

13 Ondo dozu lagundu
herriko bezinuek
aurten galdu daitezen
Berrizko funtzinuek.
Ez eban seguru gure
tanbolinteruek
irebazten zituelako
orduente diruek.

14 Bagileko hilaren
hogeta bederatzijen
San Pedro zelebrou ohi da
Berrizko herrijen.
Batzuentzat mesede
askoren kaltegarrijen
bakie izengo da aurten
neure eritxijen.

15 Fray Juanen akabuko
sermoiaren ondoren
entero junte ona
Berrizen egin eben.
Pozarren ziran gehienak
alkarren ondoren
galduteko funtzinuak
arren lehen baino lehen.

16 Egin eben seguru
bertan dekretue
hobeto zerbidu zedin
aurrera Jangoikue.
Gehienena bai baie
ezan danen gustue
ifintie fiestak
galduteko usue.

17 Jangoikuek jo gaitu
orain bihotzien
hobeto amadu daigun
aurrera antzien.
Alkar ondo amadu daigun
bizi garien artien
sartu gura badogu
zeruko atien.

18 Sarriten dogu jentiak
guztiok aditu
zelan egingo garian
ondo konfesatu.
Noberen kontzientzia
ondo errekestatu
gero konfesetako
danak buruan hartu.

19 Pekatuen gaineti
bihar da konfesatu
damua ta propositua
ia dituen hartu.
Ia bada jentiak
euki daigun kontu
askok egiten dogula
honetan erratu.

20 Hartu dogu jentiak
enkargurik asko
arren geure pekatuak
zihetz konfesetako.
Handiak izanagaiti
danak esateko
ahaztuko dirialakuen
ez itxi geroko.

21 Guk isilik euki arren
batzuk geure aldien
agertuko dira gero
mundu guztien aurrien.
Mundu guztien aurrien ta
Kristoren tribunalien
izentauta egongo dire
liburu galantien.

22 Diabruak liburuti
danak esango ditu
geuk eginak izen ezkeru
geuk ezin ukatu.
Eurek esango deuskue
“zeuk eginak gara gu”
Jesukristok esango dau
neu nago testigu.

23 Ai ze ordu estua
bekatariendako
ezetara erremediorik
ez dau han eukiko.
Munduko banidadiek
zer dau han zerbiduko?
Arren ez ahal da inor
honelan aurkituko.

24 Ia bada guztiok
gabizen kontuen
sartu ez gaitezen
gero infernuen.
Orain han daozenak bere
bizi ziran munduen
horra zer parajie
dauken akabuen.

25 Han ez dago sekula
behin bere kontenturik
alde guztietati
beti dago suturik.
Hau ondo pentsau ezkeru
ez da egingo pekatu-
hango penak ez dauke
sekula akaburik.

26 Bidien dator jentiak
gaba edo eguna
erremedio bagarik
hil biharko doguna.
Hau ziertua da baia
noz ez dakiguna
arren ondo topau gaizuz
orduente, Jauna.

27 Horra misionistak
enkargatu jentie
zelan amadu bihar dan
Jangoiko maitie.
Arren egin daigun bada
esan daben guztie
galdu ez daigun bada
zeruko silie.

28 Mile ta zortzirehun urte
ta hogeta hamabijen
predikatu dabe bai
Berrizko herrijen.
aurkitu ginaden bai
premina handijen
genbizelako beti
gaizki pikardijen.

29 Ia luzetu bagarik
gura dot despeditu
asko esaten dabenak
egiten dau erratu.
Oker esan dodan edo ez
oraintxe erreparatu
gaizki atera badot
jentia, parkatu.

30 Hogeta hamar bertsorekin
despeditu gura dot
misino bik egin ditue
Berrizen egin ahalok.
Eurek esan doskuena
egingo ahal dogu danok
haxe desietan dau
Bengoko Frantziskok.

Bizi bedi Jesus
Bizi bedi Maria Santisima
Bizi bedi Jaunaren grazia
Hil bedi pekatua
Halan irabazi daigun
Sekulako Gloria. Amen.



01. **Misionistak:** misiolariak.

Izen: izan.

Sei urterik baten: sei urtez behin.

Lako: bezalako.

02. **Adierazo:** adierazi, jakin erazi.

Noblien: noblean.

Jazo: gertatu.

03. **Deuskue:** digute.

Sarri: sarritan, askotan, maiz.

Itxi deiogula: laga diezaiogula, utz dezagula.

Usu: ohitura, usadio.

Misinuek: misioak, sermoi edo predikatuak egiteko egunak, gehiengan aste-betekoak.

Gendiezan: gintzaten.

05. **Benipein:** bederen, behintzat.

Aurrerena: lehenengoa, aurrenengoa.

Letxe: legetxe, bezalaxe.

Dabe: dute.

06. **Hak:** hark.

Ametan dau: amaten, maitatzen du.

07. **Deuskue:** digute.

Daigula: dezagula.

Zihetz: zehatz, bat ere utzi gabe.

08. **Bere:** ere.

Enkargu: agindu, manu.

Arren: otoi, mesedez.

Apartetako: apartatzeko, aldentzeko.

Sariak: sareak.

Botetako: botatzeko.

10. **Fanderuak:** panderoak.

Daiguzela: ditzagula.

Dabenien: dutenean.

Hastu: hauts egin, zeharo apurtu.

Bertati: berbertan, berehala.

11. **Hartuten:** hartzen.

Due: doa.

12. **Itxi deuskue:** utzi digute.

Daigula: dezagula.

Gaiztuori: gaizto hori.

- Partikularmente:** partikularzki, batez ere.
Esaeben: esan zuten.
13. **Bezinuek:** auzoak, auzokideak.
Funtzinuek: funtzioak, ekitaldiak.
Ez eban seguru gure: ez zuen nonbait nahi.
Seguru: nonbait, hurrean, hainbaten, erregular. Baiezpena biguntzeko era, norberetz barik entzunez edo esaten dena.
14. **Bagil:** ekain.
Zelebrau: zelebratu, ospatu.
Bakie izengo: bakea izango.
Eritxijen: eritzian, ustean.
15. **Akabu:** azken, amai.
Entero: oso, guztiz, arrunt, biziki.
Junte: junta, batzar, bilera.
Eben: zuten.
Pozarren: pozaren pozez, oso pozik.
16. **Egin eben seguru:** egin zuten nonbait, egin bide zuten.
Aurrera: aurrerantzean.
Baie: baina.
Ezan: ez zen.
Ifintie: ipintzea, jartzea.
Galduteko usue: galtzeko usoa, ohitura.
17. **Aurrera antzien:** aurrerantzean, hon-taz aitzina.
Amadu daigun: maita dezagun.
18. **Zelan:** nola.
Noberen: norberaren, norbere.
Errekistatu: aztertu, arakatu.
Konfesetako: konfesatzeko.
19. **Erratu:** huts egin, oker irten.
20. **Enkargurik asko:** agindurik asko, man-datua asko.
Ez itxi: ez utzi.
21. **Geure aldien:** geure gain, geuregan, soinean.
Izentauta: izendaturik, seinaturik.
22. **Eurak esango deuskue:** eurek, pekatuek, esango digute.
23. **Ezetara:** ezelan, inola, nehola.
Banidadiak: banitateak.
Ez ahal da: hobe ez dadin, ai ez bedi.
Ahal: zerbaiten desira edo itxaropena adierazteko partikula.
24. **Gabizen:** gabiltzan.
Daozanak: dagozenak, daudenak.
Bere: ere.
Parajie: tokia, ingurua.
Dauken: daukaten.
Akabuen: azkenean, amaieran.
26. **Gaba:** gaua.
Bagarik: barik, gabe.
Ziertua: ziurra, segurra.
Baia: baina.
Noz: noiz.
Topau gaizuz: topa, aurki gaitzazu.
27. **Esan daben:** esan duten.
Silie: aulkia, kadira.
28. **Genbizelako:** genbiltzalako.
Pikardijen: pikardian, maltzurkerian.
29. **Dabenak:** duenak.
Erreparatu: begiratu, arreta jarri.
30. **Doskuena:** digutena.
Egingo ahal dogu: hobe egiten badugu.
Haxe: huraxe.
Desietan dau: desiratzen du, nahi du.

Bertso hauek, oso errez konpon litezkeen neurri akatsak ez bali-tuzte, sorta polita egingo lukete euren generoaren barruan, bertso tradi-zioan hain ugaria izan den bertsozintza elizkoi-moralkoian.

Horrez gainera, lekukotza argia ematen dute nolako kanpaina izan zen dantzaren aurka, Berriz bezain herri dantzarian hain zuzen. Badirudi *sei urterik baten* egiten ziren misio haiek dantzaren aurkako gurutzada gisa programatu zirela, ondorengo junta edo batzar erabakitzaile eta guz-ti, dekretua ere atera omen bait zen. Hamabigarren bertso *justiziako jaunak* agintariren bat dirudi, bake epailea edo. Zorionez herri honetan, krisialdi batzuk gora behera, dantza tradizioa ez da eten eta gaur esan daiteke, umerik txikienetatik hasita, orbelak ere dantzan erortzen direla Berrizen.

PANTXILLON

Norbaiten izenordea dirudien *Pantxillon* honen daturik ez dut aurkitu, Durangokoa zela besterik, kanta paper batek dionez. Joan zen mendearen erdi aldekoa dirudi, jarri zituen bertsoengatik eta bertso paperek dakarten datatik. Datuak baino penagarriago da bertso gehiago ez aurkitzea, ondorengo bi sortak jarri zituenak hainbat sorta polit gehiago izango bait zuen. *Bizkaiko bazter baten* izeneko kondaira ondu zuena norbait baino gehiago zen.

BIZKAIKO BAZTER BATEN

(Canta papel barrijac Durangoco Panchillonek iminijac)

(**Ibaizabal**, Durangaldeko aldizkaria. 1979, 2. zenbakia, 40. or. Baita Jon Enbeita bertsolariak eskuraturiko bertsoa, Aittitte Bixenteri jaso).

01 Bizkaiko bazter baten

Anboto partian
gizon bi bizi ziran
baserri batian.
Goizian sartzen ziran
tabernako atian
ez eben alde egiten
bihamon artian.

02 Gizon biok zirian

Peru eta Anton
euren aldi guztian
biziak Anboton.
Sarri euki ezkerro
edaria bonbon
atsuai esateutsen
banoa ta hor konpon.

03 Bakijen hotza zana

etxeko artua
hagaitik armatzeben
behiakin tratua.
Tabernara ezkerro
seguru katua
pozik eskapetako
bazan zapatua.

04 Etxian euki arren

sarri morokila
honek ipinten jeuskuk
estomangu hila.
Guazen tabernara
hobiaren bila
atsua umiakin
aforrau dedila.

05 Artua zopan eta
txoletian ura
etxuat hatx onduan
holan bizi gura.
Lebatz eta ternera
lukainka musturra
honekaz egoten dok
tabernan gustura.

06 Arratsalde erdian
jarri ziran mahaiian
euren estomanguak
bete arte larrian.
Juan ziran etxera
ia gaberdian
gomuta asko barik
euren famelian.

07 Biok egin ei eben
seguru juntia
mozkorrik hartu barik
etxera ez juatia.
Erretiratu arte
herriko jentia
etxera doianari
kentzeko multia.

08 Tabernerai dirautse
entzuiñe, patrona
afari txar bi baino
hoba don bat ona.
Ezer bajaun biontzat
ekarriñe hona
sosik ez bajekunau
emongunau bona.

09 Peruk dirautso Antoni
ataraik pipia
azunbre t'erdirekin
bete juk tripia.
Gainera edan daigun
aguardientia
niri beti gustau jat
edari fuertia.

10 Txapela eskuan da
pipia mosuan
biderik topa ezinda
dabiltzaz auzuan.
Estropesetan dira
bigarren pausuan
begi biez aurrera
sarturik pozuan.

11 Peruk dirautso Antoni
Antontxu, Antontxu
kakatz artian majo
ein dogu koipetsu.
Bost aldiz deskantsuan
hartu dogu pentsu
jarri zaiz alboan da
hartuizu deskantsu.

12 Biak han ebizala
berbaz alkarrekin
ezin aitu leijuen
euskera ala latin.
Bator asto bategaz
Errotako Martin
harek atara ebazan
bere astuakin.

13 Orain badator lagun
Praisku errotaria
gizon arrazoizkua
ta edale garbia.
Ikusi eban Peru
buruz hain argia
kalbotik uste eban
zala irargia.

14 Peruk dirautso Antoni
zu Anton Kurtzulu
kurtzuluia izanda
ilun eiten dozu.
Hasten dira esaten
Anton eta Praisku
zure buru kalbuak
argi eingo deusku.

15 Kurtzulu, ipiniok
argiai metxia
bestela ezingo juk
bilatu etxia.
Neure korta burdia
balitza kotxia
hantxe ebaliko neuke
neure atso motxia.

16 Atsuai ostu deusat
ule kopetia
kostako jakok orain
bera topetia.
Saldu ta edan daigun
aguardientia
burumotz dabilela
atso tronpetia.

17 Haren andra tristiak
bildurrez ikara
Ana Mari Errota ta
Malen Partikara.
Gainera aguriok
baeukin indarra
atsuai apurtzeko
buruan pitxarra.

18 Hamazortzi bertsoekin
horra despedida
Kurtzuluren kontuak
akabatu dira.
Atsuak agurkaz
hasarre badira
alkarrenak dira ta
konponduko dira.



01. **Eben:** zuten.
Bihamon: biharamon.
02. **Sarri:** sarritan, askotan, maiz.
Bonbon: ugaritasunaren onomatopeikoa,
erruz, neurri gabe.
Esateutsen: esaten zioten.
03. **Bakijen:** bazekiten.
Artua: artoa.

- Armatzeben:** armatzen, antolatzen, at-
ratzen zuten.
Katua: mozkorra.
Eskapetako: eskapatzeko.
Zapatua: larunbata.
04. **Morokila:** arto hirinez egiten den ahia,
artazukua, dungulua.
Jeuskuk: ziguk.

- Aforrau:** kostata atondu, gaitzitu, izorratu, fastidiatu.
05. **Txolet:** edontzi bat, gehienez meta-lezkoa.
Etkuat: ez diat.
Hatz: haitz.
Holan: honela.
Ternera: bigai, bigantxa. Okela kontuan, txahalkia, berdin bigai nahiz zekor.
Honekaz: hauekin.
06. **Larrian:** larri, estu, egon ezinez.
Gomuta: oroitzapen, gogorapen.
Barik: bagarik, gabe.
07. **Ei eben:** omen zuten.
Seguru: nonbait, hurrean, hainbaten. Kontraesana iruditu arren, segurra ez den edo norberetz ez dakien zerbait aipatzeko esamolde gisa ere erabiltzen da *seguru*.
Multia: isuna, diruzko zigorra.
08. **Dirautse:** esaten diote.
Entzuiñe: entzun ezan.
Patrona: ugazabandre, nagusiandre.
Hoba don: hobe dun.
Bajaun: *badago* hiketa femeninoan, badiagon, bazegon.
Ekarriñe: ekar ezan.
Bajekunau: bazeukanagu, badinagu.
Emongunau: emango dinagu.
09. **Dirautso:** diotsa, esaten dio.
Ataraik: atera ezak.
Pipia: pipa, pipontzia, tabakorria erretzeko ontzitzoa.
Bete juk: bete diagu.
Tripia: tripa, urdaila.
Daigun: dezagun.
Jat: zait.
10. **Mosuan:** muturrean. / Aurpegian.
Topa: kausitu, aurkitu.
Estropesetan: estropesetzen, behaztopatzen, trebukatzen.
Pozuan: putzuan, osinean.
11. **Kakatz:** kakatza, lupetz, lokatz, lohi.
Majo: poliki, dotore.
- Koipetsu egin:** urdai, lukainka, odoleste eta gisako jaki koipetsuak erreta jan. Hori basoan egiten den egunari toki batzutan *basa koipetsu* deritzo.
Pentsu: abereen bazka, bereziki elikagai lehorrez osatua.
Jarri zaiz: eseri zaitez.
Hartuizu deskantsu: har ezazu atsedean.
12. **Ebizala:** zebiltzala, ari zirela.
Berbaz: berbetan, hizketan.
Aitu: ulertu, entenitu.
Ezin aitu leijuen: ezin zitzaizen, ezin zekiekeen ulertu.
Bator: badator.
Bategaz: batekin.
Ebazan: zituen.
13. **Edale garbia:** edale amorratua, porrokatua, edale nabarmena.
Eban: zuen.
Kalbo: burusoil.
Irargia: ilargia.
14. **Kurtzulu:** kriseilu, argiontzia.
Deusku: digu.
15. **Ipinio:** jar, ipin iezaio.
Metxia: metxa, mitxa.
Korta: tegi, ikuilu.
Burdia: gurdia.
Ebali: erabili.
Motxia: *motxoa*-ren femeninoa, *motz* edo *motx*-etik datorrena, beraz, zerbaitetan *motz* edo *faltan* dagoena. *Motxea-motxia-motxie* esanahi laztankor eta positiboan erabili ohi da, txiki-polit gisa.
16. **Ostu deusat:** ebatsi, lapurtu diot.
Ule: ile.
Kopetia: kopeta, ilezko txorta edo tren-tza.
Jakok: zaiok.
Topetia: topatzea, aurkitzea.
Tronpetia: tronpeta. Pertsonen egokiturik, despektiboki erabiltzen da, *handi-baldar* gisa.
17. **Haren:** harein, haien.
Tristiak: gaizoak, errukarriak.

Partikara: patrika, sakel, poltsiko.
Baeuken: bazeukaten.

18. **Agurakaz:** agureekin.

Sorta hau bi iturri nagusiz osatu dut. Bata aipatu *Ibaizabal* aldizkariak argitaratzen duen 1.893. urteko bertso papera da. Honek hamasei bertso dakartza. Bestea Muxikako Ariatzako Aittitte Bixenteri aspaldi jasotako bertsoa, Jon Enbeita bertsolariak eskuratu didana. Hemen hamazazpi bertso datoz, bestean ez datozen bi gehiago -hirua eta hamaika- eta bat gutxiago, bederatzia. Beraz, bien artean hamazortzi osatzen dira. Gauza txiki batzuk neure buruaren arabera egokitu ditut, bertso hauek gure etxean ere kantatzen bait ziren.

Gure etxean ezezik, Bizkaiko etxe bertsozale gehienetan kantatuak izan dira bertso hauek, eta ez da batere harrizkekoa, hain sorta gustagarria bait da. Beste zenbait alderdiren artean, hiru nabarmenduko nituzke. Batetik narrazio zehatza eta bizia. Hainbeste xehetasun eta zehar aipu egiten da, ezen begien bistan jartzen bait digu kondaira. Eta dena hain bizi kontatua, batez ere elkarrizketa ugarien bitartez. Bestetik ironia. Ez da hainbeste ziri ironia, zenbait puntutan kontzentratua, sorta guztian zehar berdintsu hedatua baizik. Tonu orokor bat, kolore ironiko uniforme. Eta azkenik naturaltasuna, hizkuntza batere behartu gabe garamatzana. Esaldiak prosan bezain berez eta lauki doaz eta hori genero herrikoi batean artea da. Horregatik ez dago nornahiren esku.

Bestalde, teknika aldetik ere, joan zen mendekoa eta bizkaieraz izateko, bertso sorta arretagarria da benetan. Neurrian ez dago inolako hutsik eta errima ere benetan ona eta kargu hartzeko modukoa da. Azken bertsoa hiru *dira* horiek gaurko ikuspegiz pobreak lirakeke, baita poetoak ere, baina kontuan izan orduan *da, dira* eta gisakoak aditzaren atzizkitzat hartzen zirela, *bizirik*, *ikusirik*, *jausirik* eta abar bezala.

ATARATZERA NOA

(Moruen convenioco verso berriac Gualdrasco batallari Panchillonec atariac)

(Bonaparteren mikrofilmeak. Euskaltzaindiaren Bilboko Azkue Biblioteka).

- 01 Ataratzera noa
kanta bat berria
nola akabatu dan
moruen gerria.
Odonell jaunarekin
euren erregia
laurehun miloegaitik
konpondu ei dia.
- 02 Martxoa hogeta hiruan
izen da atakia
eta hogeta bostian
firmau da bakia.
Suertatu ez balitz
bakia egitia
parregarri biher zan
hemengo jentia.
- 03 Gualdrasko bataila
txito fuertia
bertan izan ez danak
deuka suertia.
Doble zeukan moruak
orduan jentia
baina eragin jakon
laster bueltia.

- 04 Goizeko zortziretan
ziran suan hasi
euskaldunak aurrera
nahiz hil ta nahiz bizi.
Gabeko zortziretan
kantsatuta itxi
ezan bitarte hartan
hil ta heridu gitxi.
- 05 Etxaube zan aldetik
hausi zuben sua
estorbatzeagaitik
Tangerko pasua.
Fortifikaurik zeukan
moruak basua
baina libratu zuen
hango enberazua.
- 06 Abiatu zirenian
ala baioneta
orduante moruak
atzera buelta.
Ez dabe moruak zertan
erronkarik bota
datorren sigluetan
espainolen kontra.

- 07 Euskaldun bataillonak
lauretatik hiru
goizeko lauretan ziran
Tetuanen partiru.
Tangerreko bidetik
ziran dibididu
ehun ta piko egin dira
hil eta heridu.
- 08 Kataluña aldeko
boluntarioak
hirurehundik larogei
dira heriduak.
Madrid da Alcantara ta
Toledo aldekuak
bi milan pasa dira
orain artekuak.
- 09 Moruen perdidia
handia zan txito
batzuek hil da heridu
beste batzuk ito.
Kazador, granaderu
tanbor eta pito
han bere faltako dira
makine bat kinto.
- 10 Ikusi zuenian
hainbat hil ta heridu
orduan agindu dabe
laurehun miloe diru.
Artian ez zuen nahi
hainbeste agindu
moruak konbenioa
orduan egin du.
- 11 Lauren miloe diruak
pagatu artian
Españak agintzeko
Tetuango partian.
Gainetik terrenua
hainbeste berian
Sierra Bullonestik
Angerrera artian.
- 12 Gainetik kolejiuak
misionistentzat
hori bai nereoni
asko gustatzen zat.
Arimak irebazteko
Jesukristorentzat
hori konbenio hori
eman leike ontzat.
- 13 Horra hamairu bertso
oingo bakienak
erosi papel bana
leitzen dakienak.
Konbenioko berri
jakin nahi duenak
txanpon bategaitikan
jakingoitu danak.



01. **Gerría:** gerra, gerla.
Odonell: O'Donnell jenerala.
Ei dia: omen dira.
02. **Izen da:** izan da.
Firmau: firmatu, sinatu.
03. **Txito:** txit, oso, arrunt, biziki.
Deuka: dauka.
Eragin... bueltia: buelta egin erazi, itzul erazi.
Jakon: zitzaion.
04. **Kantsatuta itxi:** nekaturik utzi.
Ezan: ez zen.
Heridu: zauritu.
Gitxi: guti, gutxi.
05. **Etxaube:** Etxagüe jenerala.
Zuben: zuten.
Fortifikaurik: gotorturik, indarturik.
Enberazua: traba, oztopoa.
06. **Ala baioneta:** gaztelaniazko *a la bayoneta*, baionetaz.
Dabe: dute.
Sigluetan: mendeetan.
07. **Partiru:** partitu, abiatu.
Dibididu: dibiditu, banatu.
09. **Perdida:** galera, galtzea.
Kazador: tropa arinetako soldadua.
Granaderu: granadak jaurtitzen, iraitzen dituen soldadua.
Bere: ere.
Makine bat: makina bat, hamaika.
11. **Hainbeste berian:** badirudi hainbeste berean edo diru kopuru berarekin batera esan nahi duela.
Anger: Anghera.
12. **Nereoni:** neroni, neuroni.
Zat: zait.
Irebazi: irabazi.
Hori konbenio hori: bizkaieraz erakuslea aurretik eta atzetik, bietan jartzea normala da.
Leike: liteke.
13. **Oingo bakienak:** oraingo bakearenak.

1859-1860. urteetan burutu zen Afrikako Gerra honek hainbat bertso-paper eragin zuen. Euskal Herrian hiru bat mila soldadu batu ziren, *Tercios Vascongados* izeneko lau batailoitan. Gerra itun bidez amaitu zen urte berean, Pantxillonek bertso-paper hau berriz atera zuen, azpian jartzzen duenez: *Reimpreso. Bilbao; imp. de A. Dopon. Ascao, 9. 1860.* Beraz, paperak argitalpen bat baino gehiago izan zuen.

JUAN J. IBAZESA

Euskaltzaindiaren Bilboko Azkue Bibliotekan aurkitu nuen bertso-paper batek dio: "Himno guerrero de los tercios vascongados. Dedicado a su Comandante General el Excmo. Sr. Mariscal de Campo D. Carlos de Latorre". Ondoren delako himnoa dator, gaztelaniazko bertsoetan, hasten dena: "Guerra al moro! Del vasco es el grito", M. de Ciórraga-k sinatua. Jarraian "Poesía vascongada alusiva al mismo fin" eta bertso sorta hau dator, Juan J. de Ibazesa-k sinatua.

GERRARA EUSKALDUNAK

Gerrara, euskaldunak
 mutilak gerrara
 guztiok alkarregaz
 guazen Afrikara.

01 Espānako lehoiaren
 orroe-irrintziak
 irazartu ditue
 euskaldun herriak.
 Orain baino lehenago
 gerran nagusiak
 biba mutilak biba
 geure probintziak.

02 Zer bada uste dezu
 gerala makurrak
 ala beti gauzkala
 ixilik bildurrak?
 Pozez hartuko deguz
 fusil nahiz hatxurrak
 moruei birrintzeko
 mamin ta hazurrak.

03 Gerta nere mutilak
ez gaiten larritu
lehen ere hoién kontra
ez degu garaitu?
Pelayo ta Alfonsok
zituzten beldurta
danakin amaitzera
oraintxe goaz gu.

04 Moro barregarri ta
astuen maisua
ez al dek ezagutzen
euskaldun briua?
Eskuan bandera ta
bihotzian sua
guazen guazen mutilak
mila arraiua!

05 Hator hator hi bere
ingeles harroa
hator defenditzera
nahi badek moroa.
Hemen ikusiko dek
euskaldun garboa
hator ta edango dek
nahi duan ardoa.

06 Ea bada euskaldunak
orain da denbora
moruak benziduta
laster hemen gera.
Ez du inork botako
pausu bat atzera
aurrera bai mutilak
mutilak aurrera!



Alkarregaz: elkarrekin.

01. **Irazartu:** iratzartu, itzartu, atzarri, ernatu, esnatu.

02. **Deguz:** ditugu.

Hatzurrak: haitzurrak.

Birrintzeko: zehatzeko, xehe-xehe egiteko.

Mamin: mami.

03. **Gerta:** gerta zaitezte.

Gertatu: gertu jarri, prestatu.

Garaitu: nagusitu, irabazi.

04. **Briua:** kemen, olde, bulko.

Mila arraiua: mila arraio, indarra edo erabakia adierazteko esamoldea.

05. **Bere:** ere.

Garboa: jasa, zangartasuna.

Duan: dukan.

06. **Benzidu:** bentzutu, menperatu.

Gipuzkerazko formak nahasten dituen sorta honek bizkaieraren jatorria argi darama: *alkarregaz, irazartu, deguz, birrintu, mamin, bere, benzidu...*

TOMAS OBIETA

Autore honi buruz, Jose Antonio Arana Martijak ohar hau eskuratu zidan:

“Juan Ruiz de Larrinaga Frantziskotarrak, *Necrológico Franciscano* izenburuko eskuizkribuan, zera diosku:

“Fraile Franciscano. Nació en Guernica. Falleció el 15 de febrero de 1851. Hermano del venerable Juan de Obieta. Fué Guardián, Definidor recolecto y Maestro de Novicios de la Recolección. Vicario de las Clarisas de Guernica hasta su muerte”.

ALPER DA MARIA MAKILATUA

berez ezpada begiratua

(Poesía Bascongada en dialecto vizcaíno. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa. 68. or.)

01 Konsejtxu batzuk irakastetzat
lelengo lelengo neuretzat
eta baldin inok badaukaz ontzat
baita bere beste edozeinentzat.

02 Antxinako esakera guztiz usaua
edonun sarritan aiatua
askoren betiko lelo ta soinua
eta estribilutzat gero hartua:
Alper da Maria makilatua
berez ezpada begiratua.

03 Halan bere neure pentsamentua
nahi neuke izan dedin ondo aditua
berez dana nagi, luak hartua
noz bait izan dedin iratzartua.

04 Izanik hau zerbait zirikatua
izan leite bere zerbait bizkortua
aurreratu bere bai bere pausua
izaten bada gero ondo lagundua.

05 Hartu egizu bada neure konsejua
eta euki egizu goguan mandatua
eta egin badagizu agindua
ezta gaur izango alperrik galdua.

06 Nahi badozu izan arduratsua
euki beti zeure gauzen kontua
biharrari egin ondo kargua
baita bere emon bere ordua.

- 07 Begiratu egizu nun egin sua
euki ez dagizun gero damua.
Ez egizu erre edonun galtzua
galdu nahi ez bozu zeure burua.
- 08 Egin baino lehen inogaz tratua
ikusiko ondo bere zimentua
kontuan euki haren teilatua
eta bitarteko lan ta kontua.
- 09 Baldin zeure guraz bazara itxua
ez jatzu faltauko estropezua
sarri etengo jatzu zeure narrua
baita bere mindu zeure barrua.
- 10 Bazara gangar, ero ta zoratua
nagi, alper, loti ta kokortua
heldu dakizunian ordu estua
ez ezarri inori zeure errua.
- 11 Begiratu zeure bizimodua
txarra bada laster galdu ekandua
ez izan irritu ta errai estua
dalako hau iskune txar gogortua.
- 12 Izan guztiakaz zeu baketsua
biguna, samurra ta gozatsua.
Izango zara askok alabaua
eta honezaz ganera ondo dohatsua.
- 13 Baina berarizko nire konsejua
zein bihar dozun euki goguan inkaua
da erabiltia goguan pekatua
dalako diabruaren lazua ta asmua.
- 14 Lurrian berak erein ta zabaldua
hartuteko ugari haren frutua
zeinagaz dan Jauna ofendidua
eta gizona barriz kondenatua.
- 15 Oh gorroto guztiz amurrutua!
Oh asmo gaizto madarikatua!
Jaungoikua iminteko haserratua
gizona beragaz areriotua.
- 16 Oh pekatuaren kirats hatsitua!
Heure izenak nauko gaur bildurtua
burutik bihatzera ikaratua
baita bere uliak ondo latzitua.
- 17 Zelan izan ez haz hi gorrotua
izanik gizonak hilteko amua?
Gozo irudian bereno estaldua
baina egiaz guztia engainua?
- 18 Ondo begiratu zuk kristinaua
bada, hemen daukazu desengainua.
Luzifer lehenago zan aingerua
lagunak legeztxe grazian sortua.
- 19 Baina ai, handia da haren zorigaldua
pekatuagaitik da orain infernuko diabrua
nun dagan igaroten bere kastigua
Jaungoikua dan arteko karobi sutua.
- 20 Egonik bada surtan guztiz hondatua
beti izango da erre ta kiskaldua
beti egingo dau negar ta zizpurua
beti orroa eta beti alarua.

- 21 Baina alperra da hango errenegua
alper bere da hango negar anpulia
ezta inoz han izango sua amataua
ez ala ta nekia ezetan gitxitua.
- 22 Egonik pekatuan guztiz gogortua
ezta inoz egongo hazag damutua.
Halan ez da izango handi bihurtua
ta ez Jaungoikuagaz adiskidetua.
- 23 Grazian irauteko eukan lehen lekua
ta izan bihar eban ondo baliaua
baina igaro jakon denpora izentaua
Jaunak guztioentzat pisau ta neurtua.
- 24 Orain barriz baleuko lehengo minutua!
Baina beti izango jako ukatua.
Halan ez da han izango inoz ezautua
atsegin, ez poza ta ez kontentua.
- 25 Bazagoz pekatuaz ondo garbatua
izango zara bere laster parkatua.
Hauxe da salbetako bide segurua
ez egizu arren galdu daukazun eskua.
- 26 Laster igaroko da zuretzat mundua
ondo biziaz daukazu meritua
gehituten dozu orain geroko gradua
eta egiten dozu Jaunaren agradua.
- 27 Halan eztozu ikusiko inoz infernua
eta bai ziur-ziur betiko zerua.
Halan izan dedila zure azken pagua
neure adiskide guztiz maitetua.
- 28 Honegaz itxiko dozu zuretzat guzturua
antxinako esakera askotan usaua
sarri eta edonun guztiz aitatua
eta estribilutzat edonok hartua:
Alper da Maria makilatua
berez ezpada begiratua.
- 29 Baina kontu: esana esan
eta sarri goguan izan:
gorrotau beti pekatua
dalako diabruen asmua.
- Agur honenbestegaz
eta ibili beti Jaungoikuagaz.



01. **Konsejuxu:** aholkutxo.
Irakastetzat: irakasteko.
Lelengo: lehenengo, lehenik.
Badaukaz: badauzka.
Baita bere: baita ere.
02. **Antxinako:** aspaldiko, duela denbora handiko.
Usaua: usatua, ohitua.
Lelo: errepikatzen den esaldia.
Alper da Maria makilatua...: alperrik da Maria makilatzea, jotzea, berez ez bada begiratua edo onerutzen dena.
03. **Halan bere:** hala ere.
Aditua: ulertua, konprenitua.
Iratzartu: itzartu, atzarri, esnatu.
04. **Leite bere:** liteke ere, baita.
05. **Egizu:** ezazu.
Badagizu: badezazu.
06. **Biharrari:** beharrari, lanari.
Egin kargua: arreta jarri, ardura ipini, jaramon egin.
07. **Dagizun:** dezazun.

- Galtzua:** gariaren lastoa.
Bozu: badozu.
08. **Inogaz:** inorekin.
09. **Zeure guraz:** zeure gogoz, zeuk nahita.
Jatzu: zaizu.
Estropezua: oztopoa, behaztopoa.
Sarri: maiz, askotan.
Barrua: jaso dudán iturrian *narruba* dator, baina *barruba* behar du. *Narruba* bi aldiz ez daiteke izan.
10. **Gangar:** harroxka, nabarmen zalea.
Konkortua: konortea erdi galdua, moteldua.
11. **Ekandua:** ohitura, usadioa.
Irritu: haserretu, amorratu.
Iskune: hizkune, ohitura, grina.
12. **Guztiakaz:** guztiakin.
Gozatsua: ahogozo onekoa, gozotasun handikoa.
Alabaua: alabatua, goretsia.
Honezaz gainera: honetaz, hontaz gainera.
Ondo dohatsua: oso, biziki dohatsua, arrunt zoriontsua.
13. **Berarizko:** aproposko, berezia.
Zein: erlatiboa.
Inkaua: atxikia, itsatsia.
Lazu: lakio, tranpa.
14. **Zeinagaz:** zeinarekin. Erlatiboa.
15. **Amurrutua:** amorratua, sumindua.
Iminteko: ipintzeko, jartzeko.
Beragaz: berarekin.
Arerio: etsai, izterbegi.
16. **Hatsitua:** hatsa, usain txarra botatzen duena.
Bihatx: behatz, oineko hatz. Bizkaierarik gehiengan inoiz ere ez eskukoa.
- Uliak:** uleak.
Latzitua: laztua, zakartua.
17. **Bereno:** pozoin.
18. **Legeztxe:** legetxe, bezalaxe.
19. **Nun daguan:** erlatiboa.
Karobi: karea, gisua, latsuna egiteko labe berezia.
20. **Surtan:** sutan, suan.
Zizpurua: hasperena, arnasa larria.
Alaraua: min handiak eragindako oihua.
21. **Errenegua:** ernegua, biraoa, hitz gogorra. Gaur ernegua haserrea edo amorrua da areago.
Negar anpuluu: malko handia.
Amataua: itzalia, iraungia, itzungia.
Ala: min handia, oinaze bortitza.
Ezetan: ezertan, deusetan.
Gitxitua: gutxitua, txikitua.
22. **Hagaz:** harekin.
23. **Eukan:** zeukan.
Eban: zuen.
Baliaua: baliatua, probetxatua.
Jakon: zitzaion.
Izentaua: izendatua, markatua.
Pisau: pisatu.
24. **Jako:** zaio.
25. **Bazagoz:** bazaude.
Garbatua: damutua.
Salbetako: salbatzeko.
Egizu: ezazu.
Arren: otoi, mesedez.
26. **Agradua:** gogoa, atsegina.
27. **Pagua:** ordaina.
28. **Honegaz itxiko:** honekin utziko.
29. **Honenbestegaz:** honenbestekin.

RAMON ETXEZARRETA

“Durangon jaioa, 1808-1-23-an. Abokatua izan zen eta kondairazko lan bategatik ezagutua. Euskaraz oso gutxi idatzi zuen. 1879. urtean hil zen. Kondairagile moduan idatzi zuen bere lanik entzutetsuena: *Noticia Histórica de la Noble Villa de Durango*, 1967, Bilbon bigarrenez argitaratua. Euskaraz: *Guritzeitaco Icustamenac eusquerazco verso neurtubetan / R. E. Durangocuac ipiniac*. Gasteiz 1864. Berriz 1895 eta 1900 urteetan argitaratua”

(Aipua eta ondorengo bertsoen iturria *Poesia Bascongada en dialecto vizcaíno*. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa, 304. or.)

ADISKIDE BI ETA HARTZA

Adiskide biri hartza agertu jaken.
Bata zan legez tint bildurtia
tantai baten hartu eban tokia.
Bestia etzunda lurrian gelditu zan
eta esan eukian eguala hilik.
Hurreratuten jako astiro hartza
(jaten ez dabena inoz hilaren gorputza,
zale ez dalako, dinuenetik)
surrian ta ahuan usain eginik.
Ikusirik ez dabela botaten
arnasarik, ez gorputzari eragiten
juan zan zinuála: dudarik bago
hain hilda dago hau, zein da nire amama.

Jatsi zan orduan lagun koldarra
gutziz arin bere tantai tokitik
eta oratuta sama samatik
emon eutsan bertan laztan ederra
esaten eutsala: adiskidia,
atsegin dot zeu horrela egotia.
Baina ikusi dot esan deutsula
zerbait hartzak lurrian zagozala.

-Bai, eta horra hartzaren berba ederrak
ondo jakitia merezi dabenak:
“Ez hartu adiskide ta laguna
premanan iges egingo deutsuna”.



Jaken: zitzaien.
Legez: bezala.

Tint: oso, biziki, arrunt.
Eban: zuen.

Etzunda: etzanda.
Esan eukian: esan zitekeen.
Eguala: zegoela.
Jako: zaio.
Astiro: poliki, mantxo, geldiro.
Dabena: duena.
Dinuenetik: diotenetik, esaten dutenetik.
Surrian: sudurrian.
Zinuala: zioela, erraiten zuela.
Baga: barik, gabe.

Zein da: bezain. *Hain hilda... zein da nire amama*, hots, nire amama bezain hilda.
Oratuta: helduta, atxikita.
Sama: lepo.
Eutsan: zion.
Deutsula: dizula.
Zagozala: zaudela.
Berba: hitz.
Dabenak: dutenak.
Premina: premia, beharrizan.

LELENGO TXIMURRA

(Poesía Bascongada en dialecto vizcaíno. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa, 79. or.)

- 01 Ispiluari begira
 erdi atso bat eguan
 hurreratu arpegira
 ta eskua eruaten eban
 okotzetik bekokira.
- 02 Gauza bat eguan ikusten
 lehenago han ez eukana
 eta hasi zan aratuten
 zertan ha eragozpena
 eskuak eban egiten.
- 03 Eta gauza bat barria
 beti ebala han topetan
 itxustuten arpegia,
 zinuan: bene benetan
 hau da tentazino handia.

- 04 Zer daukat nik esku honetan?
 Zer dauko gaur ispiluak?
 Ia ez dau serbietan.
 Emon daidela beste bat,
 bada, ez nua hau garbietan.
- 05 Zer ete da hau, Jauna?
 Ai nire zorigaiztua!
 Mutilko, neska, ama!
 Nun da beste ispilua?
 Ekarri egizue hona.
- 06 Era honetan nintzan sartu
 nirautsala: ez negar
 egin, ez bere estutu,
 zergaitik ez dau bihar
 tximur batez bildurdu.

- 07 Tximurra? Ez neure ustez!
 Bada, hain zaharra naz ni?
 Egia ez dino, ez.
 Atzo ez neukan tximurrik,
 gaur ni nago atzo legez.

- 08 Dinodana ez da guzurra
 eta bai zuzen egia.
 Orain badago txikarra
 da gauza ondo agiria
 dala lelengo tximurra.

- 09 Andria! Atsotasuna
 beti dator astiro.
 Baina ez dago urrin eguna
 euko dabena argiro
 beste aldian laguna.

- 10 Ordu txarrian esan neutsan
 neuk ikusten nebana.
 Ispilua jaurti eustan
 baita ebagi ezpana
 eta handik juan nintzan.

- 11 Entzun egizue, andrak.
 Ez dauka bildurgarririk
 lelengo tximurrik
 baina bai haren atzetik
 etorriko dirianak.



Tximurra: zimurra, azalaren toles edo zimel-gunea.

01. **Eguan:** zegoen.
Eruaten eban: eramaten zuen.
02. **Eukana:** zeukana.
Aratuten: arakatzen, aztertzen.
Zertan ha eragozpena: zergaitik eragozpen hura.
03. **Topetan:** topatzen, aurkitzen.
Zinuan: zion, erraiten zuen.
04. **Serbietan:** zerbitzen.
Garbietan: garbitzen, garbitzera.
05. **Egizue:** ezazue.
06. **Nirautsala:** niotsala, esaten niola.
Ez bere: ez ere, ezta ere.

Zergatik ez dau bihar: zeren ez bait du behar, ez du behar-ta.

07. **Dino:** dio, esaten du.
Legez: bezala.
08. **Dinodana:** diodana, erraiten dudana.
Txikarra: txikia, tipia.
09. **Astiro:** poliki-poliki, geldiro, mantxo.
Urrin: urrun, urruti.
Euko dabena: edukiko duena.
Beste aldian: beste aldean, alderdian.
10. **Neutsan:** nion.
Nebana: nuena.
Jaurti eustan: bota, egotzi zidan.
Ebagi: ebaki.
Ezpana: ezpaina.
11. **Egizue:** ezazue.

AITA MEAGERRE

Idazle honetaz ez dut daturik aurkitu egin ditudan kontsultetan, zer-bait badakienik izango da baina. Ardoaren apologia hau deigarri da elizgizon batengan. Bertsoen egitura ere bitxia da, bai neurriz, bai errimaz.

NI NAZ GAUZA BAT GOZUA

(Poesía Bascongada en dialecto vizcaíno. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa. 91. or.)

01 Ni naz gauza bat gozua
eta poztasun osua.
Baltza naz ta zuria
iluna eta argia
daukat indar eta garbua
eta izena daukat Ardaua.

02 Noe gizon aditua
zeurorren pensamintua
zan bai miragarria
imintia mahastia.
Zu zara ardauaren autore
oh zorioneko Noe!

03 Edari maitegarria
tristiaren alegria.
Dozu argitzen begia
kentzen malenkonia
mutua imini kantari
eta herrena dantzari.

04 Ardao eztsitu gozua
zerutik jatsitakua.
Zenbat eta hondorago
hainbat haz gozuago.
Bedeinkatu hagiala Jaunak
eta orain nire eskuak.

05 Kopa honetan hi ikustian
poza jaukat bihotzian.
Aurrian ikusirik
banaukak zoraturik
zer egingo ete dok barruen?
Sar hakit bada lehenbaitlehen.

06 Galenoren medizinak
ta farmazia guztiak
ez dauka botikarik
ardao ona lakorik.
Osatu nahi bada guztia
ekarri sarritan zaragia.

07 Barberu, mediku guztiak
erremedio handiak
ditue besteentzat
baina beti eurentzat
bat bakarra da guztiena
ardao zaharrik onena.

08 Jateko ez bada gogorik
edo ezin egin lorik
gatxa nahi izurria
errenkura guztia
kuratzeko balsamua
da mahats onaren zumua.

09 Hausi, atera, ebagia
bai eta bere zauria
osatzeko bedarra
Klaretan edo Naparra
Moskatel, Jerez ta Malaga
edozein ardao, ona bada.

10 Bihar du aste osuan
hatxurlariak soluan
nekaturik guztia
dariola izerdia.
Laster legoke hau galdurik
domekan ez baleu ardaorik.

11 Ardao baga ez da funtzinorik
ez mezarik, ez eztegurik
bada, hau falta ezkerro
ez da gelditzen gero
ezpada pena ta tristezia
iluntasun ta nahibagia.

12 Arduak neurritz edanik
biztuten dau eguana hilik.
Baina bada hasiten
belaunak ikaratzen
eta irakiten buruan
ez dago gauza onik orduan.



01. **Garbua:** jasa, gauzak egiteko prestasuna.

02. **Aditua:** jakintsua, expertua.
Pensamintua: pentsamentua.
Imintia: ipintzea, jartzea.

03. **Alegria:** alaitasuna, kontentua.
Malenkonia: tristurazko egoera, zergatik zuzen jakin gabea.

04. **Hagiala:** hazala.

05. **Jaukat:** zeukaat, diat.
Barruen: barruan, barnean.

06. **Lakorik:** bezalakorik.
Osatu: sendatu.

07. **Ditue:** dituzte.

08. **Gatxa:** gaitza, eritasuna.

Nahi: nahiz, zein.
Errenkura: arrangura, atsekabea, kexa.
Kuratzeko: sendatzeko, osatzeko.

09. **Ebagia:** ebakia, ebatura.

10. **Hatxurlari:** haitzurlari, haitzur lanean diharduena.
Solua: soloa, soroa, zerbait ereiteko lantzen den lursaila.
Domekan: igandean.
Baleu: balu.

11. **Baga:** barik, gabe.
Eztegurik: eztairik, ezkontzarik.
Ezpada pena: pena baizik, pena besterik.
Nahibagia: atsekabea, desgustua.

12. **Eguana:** zegoena.
Hasiten: hasten.

EMBIL

Autore honetaz ez dut daturik aurkitu.

GOAZEN, GOAZEN MUTILAK

(Poesía Baskongada en dialecto vizcaíno. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa. 101. or.)

Zortzikoa:

Goazen, goazen mutilak
goazen Afrikara
moruak jakin dezan
gu ere han gerala.
Baionet zorrotzakin
sartu beretara
ekarri behar degu
Marroki bandera.

02 Euskaldun jende noble
paregabekoak
baliente eta prestu
gain gainetakoak.
Dohai hau eman zigun
gure Jaungoikoak
pruebak emanak daude
geren gurasoak.

01 Tertzio euskaldunak
txit mutil azkarrak
ez ditu garaituko
Moruen indarrak.
Guztiz beroak dira
euskaldun odolak
ikaratuko ez ditu
txistu balarenak.

03 Paviako batailan
Juan de Urbietak
preso gelditu zuen
errege frantsesa.
Euskaldunentzat hau da
oroipen galanta
inork dudarik badu
historiak daka.

04 Legorrez ta itxasoz
euskaldun jendeak
daude orain eta lehen
gloriaz beteak.
Okendo ta Txurruka
eta Otalorak
gerrariak zirala
badirade pruebak.

05 Lehenagokoak ezen
oraingo mutilak
ez dira eskasago
bai haien berdinak.
Honore handia dute
gorputza liraina
moro kasta guztia
ez da horien dina.

06 Isabel bigarrena
gure Erregina
euskaldunak dizute
bihotzetik grina.
Honen defentsarako
egin ahaleginak
nahiz kanpoan gelditu
luze luze hilak.

07 Don Carlos de Latorre
gure Jenerala
zure mendean guaz
laster peleara.
Zuk agindu ezkerro
noiznahi listo gera
baita jartzeko ere
Tangerren bandera.



Baionet: baioneta, gerrako arma bat.
Beretara: beren, euren artera, beren baione-
ten artera.

01. **Txistu balarenak:** balaren txistuak.

02. **Prueba:** frogak, agiriak.
Geren: geronen, geuronen, geure.

03. **Daka:** dauka.

05. **Ezen:** ez ezik.
Honore: ohore.

06. **Kanpoan:** gudu zelaian.

07. **Peleara:** burrukara, gatazkara.
Listo: prest, gertu.

Bertso hauek, gipuzkeraz onduak izanik, Uriartek bere bizkaieraz-
ko bilduman sartzen ditu. Embil hau bizkaitarra izango zen agian. Zor-
tzikoaren egitura hau -bi oin batera eta bi bestera errimaturik- Bizkaiko
moldea zen behintzat.

DOMINGO LARRAGAN

Autore honen berririk ez dut aurkitu.

AI AI JESUS

(Poesía Baskongada en dialecto vizcaíno. Jose Antonio Uriarte, Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa. 151. or.)

Errepika:

01 Ai ai Jesus!
Ze larria
dagan zure
Ama Maria.

02 Ai ai Jesus
maitatua!
Ukatu deuste
ostatua.

03 Bilatu daigun
Jaun ahaltua
zu jaiotzeko
askatxua.

01 Eskepe pobre baten
amorien puruz
jaio da, kristinauak
Salbagila Jesus.
Dontzeila ama laztanak
eguzki eder hau
besartian harturik
mosuz betetan dau.

02 Neure seme laztana
dirautsa Mariak
negarretan urturik
bere begi biak.
Oh ze gozotasuna
maite izatia zu!
Jose neure laguna
lztan bat eiozu.

03 Pobreza handian dago
hotziturik dana
kriatura guztiak
jazten dituzana.
Euren arnasiagaz
astuak ta idiak
epelduten deutseez
bere haragiak.

04 Ezin ke jau leiteke
munduko pobria
ikusirik hain pobre
zeruen jaubia.
Ikasi nahi dabenak
zeruko bidia
ezin aurkitu leike
ejenplu hobia.



Errepika:

02. **Deuste:** didate.

03. **Daigun:** dezagun.

01. **Eskepe:** aterpe, lehorpe.

Amorien puruz: amorearen indar hu-

tsez, maitasunaren maitasunez.

Salbagila: salbagile, salbatzaile.

Betetan dau: betetzen du.

02. **Dirautsa:** diotsa, erraiten dio.

03. **Hotziturik:** hozturik.

Kriatura: izaki, sorkari.

Dituzana: dituena.

Arnasiagaz: arnasarekin.

Deutseez: dizkiote.

04. **Ke jau:** kexatu.

Jaubia: jabea.

Dabenak: duenak.

Leike: lezake.

TARANTANTAN

(Aurreko bera. 152. or.)

Errepika:

01 Tarantantan
aingeruak
hasten ditue
euren soinuak.
Tarantantan
aingeruak
hasten ditue
euren kantuak.

02 Haren antzera
organuak
jo sendo ta hasi
laster kantuak.

03 Guazan arin
Belenera
jaio dan Jesus
ikustera.
Ze ederra dan
jaio dontsua
Mariaren
Semetxua.

03 Azpiraturik hago
Luzifer harrua
agertu dok Belenen
Mariaen frutua.
Hauxe dok gure errege
gutziz indartsua
honek hiri burua
zatituko deua.

01 Oh gau zoragarria!
Gau guztiz santua
hainbeste mila urtian
itxarotakua.
Zure etorreria
izan da nahikua
poz pozik iminteko
zeru ta mundua.

04 Errazoe handiagaz
guztiok gabonez
Jose ta Mariagaz
alegrau gintekez.
Orain arte gizona
salbetan zan nekez
orain alkantzau leike
zerua erre errez.

02 Adanek hausia gaz
Jaunaen agindua
zarraturik eguan
guretzat zerua.
Baina gaurko gabian
jaio dan seintxua
etorri da zerutik
salbetan mundua.



01. **Ditue:** dituzte.

02. **Haren:** haien.

03. **Guazan:** goazen.

Arin: azkar, bizkor.

Dontsua: santua, dohatsua.

01. **Itxarotakua:** itxarondakoa, zain egona.

Iminteko: ipintzeko, jartzeko.

02. **Hausiagaz:** hautsirik, hautsiarekin.

Zarraturik: itxita, hertsirik.

Eguan: zegoen.

Gabian: gauean.

Seintxua: haurtxoa.

Salbetan: salbatzen, salbatzera.

03. **Dok:** da hika, duk.

Deua: dik.

04. **Errazoe:** arrazoi.
Handiagaz: handiz, handiarekin.
Mariagaz: Mariarekin.

Alegrau: alaitu, alegeratu.
Gintekaz: gintezke.
Alkantzau: erdietsi, eskuratu, lortu.
Leike: liteke.

LARRI TA TRISTE

(Aurreko bera. 153. or.)

01 Larri ta triste ebiltzan
 Gabon iluntzian
 Jose eta Maria
 Belengo hurian.
 Dontzeila eder Mariak
 eukan sebalian
 gure Salbagilia
 jaioteko hurrian.

02 Belengo etxerik asko
 zituen aratu
 baina ezan eurakaz
 inor errukitu.
 Eurak zirian legez
 hain pobre agertu
 ostatua guztiak
 eutseen ukatu.

03 Josepek Mariari
 zirautsan orduan
 eguala eskepe bat
 herritik kanpuan
 leku hatara berak
 nahi baeban juan
 igaroteko gaba
 eskepe barruan.

04 Baietza emon ezker
 zeruko erreginak
 juan zirian laster
 eskepera biak.
 Mesede honegaitik
 Birjina garbiak
 emon eutsezan pozik
 Jaunari graziak.

05 Leku umil honetan
 eguan tronua
 zeruko erregiarentzat
 aurretik gertua.
 Askatxuan jaio zan
 Jaungoiko ahaltsua
 estalkitzat ebala
 bertako lastua.

06 Emotiarren bada
 guri ejenplua
 agertu zan hain pobre
 zeruko maisua.
 Umildu zaitte bada
 oh gizon harrua
 gura badozu gero
 arkantzau zerua.



01. **Hurian:** hirian.
Eukan: zeukan.
Jaioteko hurrian: jaiotzeko hur, hurbil,
 laster jaiotzeko.
 02. **Etxerik asko:** etxe asko.
Zituen: zituzten.
Aratu: arakatu, aztertu, miatu.
Eurakaz: eurekin, berekin.
Zirian legez: zirenez gero, zirelako.
Ostatua guztiak eutseen ukatu: guztiak
 ostatua zieten ukatu.
 03. **Zirautsan:** ziotsan, erraiten zion.
Eguala: zegoela.

- Eskepe:** aterpe, babespe.
Hatara: hartara.
Baeban: bazuen.
 04. **Emon ezker:** eman eta gero, eman-
 dakoan.
Eutsazan: zizkion.
Graziak: eskerrak.
 05. **Eguan:** zegoen.
Gertua: prestatua, atondua.
Ebala: zuela.
 06. **Emotiarren:** emateagatik.
Arkantzau: erdietsi, eskuratu, lortu.

JOSE ANTONIO URIARTE

Bizkaiko euskal idazle frantziskotar hau Arrigorriagan jaio zen 1812an eta Zarautzen hil 1869an. Luis Luziano Bonaparteren kolaboratzaile handia izan zen. Gai erlijiosoz eta gai profanoez idatzi zuen, euskalki ezberdinetan.

GUAZAN GUAZAN MUTILAK

(“Euscaldun mutillen vijotzac moruen contra guerran eguiteco gurarijetan sendatu eta sututeco eusquerasco versuac”)

(Poesia Bascongada. Dialecto vizcaino. Jon Kortazar eta Miren Billalabeitiak prestatutako edizioa. 99. or. Baita Bonaparteren mikrofilmeak. Azkue Biblioteka - Euskaltzaindia - Bilbo)

01 Guazan guazan mutilak
guazan Afrikara
moruakaz indarrak
hantxe neurtutera.
Agertu bihar dogu
Marruekos aldian
antxinako euskaldunen
seme ete garian.

02 Gaztelako mutilak
moruakaz gerran
ta euskaldunak geldirik
etxian jan ta edan?
Ez, ez horrelakorik!
Bihar dogu izan
beti aurrereguak
Afrikako gerran.

03 Ikusten dan orduko
morua aurrian
sartu baionetia
bere bularrian.
Ta ez barriz gelditu
imini artian
danak luze luzerik
lurraren ganian.

04 Zelako triskantzia
moruen artian
iminten bogu oinik
guk hango lurrian!
Itxirik bazterretan
moro aldrak hilak
dihadar egin sendo:
Aurrera mutilak!

05 Ez bekio besterik
entzun gaur inori
berba bakar hau baino:
Gerra moruari!
Ta ez baionetia
inok sartu lekan
mororen bat bizirik
dakuan artian.

06 Ez dau bihar atzera
inok begiratu
ezpada danok hantxe
hil edo garaitu.
Mila arraiuetan
oraingo aldian
nagusi izango gaituk
Europa guztian.

07 Frantziako zuabuak
balegoz Afrikan
ikasteko gugandik
zelan egin gerran.
Vincennesko ehiztari
sendo ta errutsuak
gelditu bihar juek
orain bazertuak.

08 Gure ganian daukaz
sendaro josiak
begiak ta gogua
gaur mundu guztiak
Afrikako aldian
zer jazoko ete dan
hasten garianian
moruakaz gerran.

09 Ez gaitian bildurtu
euskaldun senduak
bada laster daukaguz
goiturik moruak.
Hareek baino soldadu
errutsuagorik
bost bidar itxi dogu
lurrian etzunik.

10 Baldin gure artian
badago koldarrik
bijua bere etxera
armia itxirik.
Ez dogu hemen bihar
mutil oilokirik
morua ikusita
bildurtuko danik.

11 Baina ez da egin bihar
gerria gorrotoz
ezpada mesediak
egiteko asmoz.
Horregaitik goiturik
Afrikan moruak
egin bihar ditugu
zorionekuak.

12 Erakutsirik eurai
Jesusen legia
nun aurkituko daben
zeruko bidia.
Hau egiten badogu
orain moruakaz
laster ditugu esker
ta eskumunakaz.

13 Denpora gitxi barru
moruak goiturik
etxeetara gatoz
harro eta pozik
geure garaitza handiak
kontetara etxian
etxeko ta auzokuai
geure eskaratzian.

14 Zetarako da bada
neure ama maitia
ni juatiagaitik
negar egitia?
Laster izango dozu
semia etxian
Jaungoikuak nahi badau
umore onian.

15 Halan bere ez ahaztu
inoz bere nigaz
bada nik beste hainbeste
egingo dot zugaz.
Sarri Jaungoikuari
nigaitik eskatu
lehen baino lehen gaizala
alkarregaz batu.

16 Agur, Euskal Herria
baguaz hemendik
etortia uste dogu
garaitzaz beterik.
Hementxe biziteko
geure lur maitian
pozik, gozaro eta
bake ederrian.



01. **Guazan:** goazen.
Moruakaz: moruekin, mairuekin.
Ete garian: ote garen.
04. **Zelako:** nolako.
Triskantzia: triskantza, hondamena, txikizia.
Iminten bogu: ipintzen badogu.
Itxirik: utzirik.
Aldrak: taldeak, saldoak, mordo handiak.
Dihadar: deihadar, oihi, dei ozen.
05. **Berba:** hitz.
Leka: baioneta, ezpada eta gisako armak sartzeko zorroa.
06. **Ezpada:** baizik, bai ordea.
Garaitu: irabazi.
Mila arraiuetan: bai arraioa, mila aldiz halajaina.
07. **Balegoz:** baleude.
Zelan: nola.

- Errutsuak:** gihartsuak, kementsuak, gogotsuak.
Juek: diate.
08. **Daukaz:** dauzka.
Sendaro: sendoki, gogorki.
Jazo: gertatu.
09. **Daukaguz:** dauzkagu.
Bidar: bider, aldiz.
Etzunik: etzanik.
10. **Koldar:** bildurti, ausardia gabea.
Itxirik: utzita.
11. **Goitu:** garaitu, goia edo gaina hartu, menperatu.
12. **Daben:** duten.
Eskumunakaz: eskumunekin. Eskuan mun edo musu ematea, errespetozko erakutsi gisa.
13. **Kontetara:** kontatzera.

Eskaratzian: sutean, sukaldean.

Alkarregaz: alkarrekin.

15. Halan bere, inoz bere: hala ere, inoiz ere.
Nigaz, zugaz: nitaz, zutaz, nirekin, zurekin.

16. Gozaro: gozoki, samurki.

Bonaparteren mikrofilmeetan ez dator egilearen izenik eta bertso honek baditu zenbait ezberdintasun txiki. Uriarteren aipatu bilduman, bertso sorta honen izenburu gainean, Uriarte jartzen du egileztat eta bera dela pentsatu beharko.

Bertso hauek gurutzaden eta gurutzadun ezpata konkistarien adibide ezin argiago eta gordinagoa dira. Lehenbizi baionetia sartu bularrian eta gero Jesusen legia eta zeruko bidia erakutsi. Ikusteko moduan egongo da. Baina argi! Gerra ez da gorrotoz, mesediak egiteko asmoz baizik: Afrikako mairuak zorioneko egin, nahizta horretan apenas lan handirik edukiko duten, aurretik denak hil badituzte. Uriarte, hain euskaltzalea eta fraile zintzoa bera, ez zen berez hain krudela izango, baina gerra legean ez dago salbuespenik, antza.

EUSEBIO MARIA AZKUE

Eusebio Maria Azkuek idatzi zuen olerki eta bertso sorta ugaritik, eta bertsolaritzatik hurbilen iruditu zaidanetik, mostra bat hautatu dut, luze samarra honako, baina laburra bere lan osoaren aldean. Iturritzat beherago aipatzen dudan liburua erabili dut, zeinaren azal itzuliak dion:

“Eusebio Maria Azcue-koa (1813-1873) idazle Lekeitiarra bere seme Resurreccion Maria Azkueren ospe eta izen haundiaren itzalean bizi izan dan olerkaria da. Ogibidez itsasgizon, lehenengo, eta Nautika Eskolako irakasle izan genduan beranduago. Juan A. Uriarteren ikaslagun eta adiskide izan zan eta, honek bultzatuta edo, euskerazko olerkiak idazteari gogor ekin eutsan aldikada baten. 1896.ean bere seme Resurreccionek berak eginiko poemarik gehienak bildu eta *Parnasorako bidea* izenburuaz emon zituan argitara”.

Liburu horretan eta beste zenbaitetan, Eusebio Maria Azkueren bertsogintza luze estudiatzen da, zerbait gehiago nahi duenarentzat. Nik iruzkin labur bat besterik ez dut emango, egin didan inpresiotik zertzelada batzuk eskainiz eta beti ere eritzi sendorik emateko bezain aditua ez naizela aitortuz.

Autore honen bertsogintzak bi alderdi nabarmen dauzka. Alde batetik bertsogintza kultura da, bai gaien trataeraz eta bai hizkuntzaz. Eta bestetik eta aldi berean esan dezakegu oso bertsogintza herritarra duela, bai gaien trataeran eta bai hizkuntzan. Nola uztartu zituen bi alderdi ez kontrako baina bai urrun hauek? Hortxe dago Eusebio Maria Azkueren alde batetik meritua eta bestetik akatsa. Meritua, zeren garai hartarako eta bizkaieraren kontextuan, tirakada handia izan zen, bera ez zen agian ohartuko baina. Eta akatsa, zeren lortu zuen emaitza hibridoa izan zen. Ez zuen alderdi kultura eta herritarra bategiten edo sinbiosten asmatu. Egia esan, ez dirudi berak prententsio gehiegi zeukanik ere. Urte bolada batean bakarrik aritu bide zen tarteka idazten, norbaitek edo norbaitzuk bultzaturik. Bera gizon kultura zenez, ezin zuen jantzi hori idazteko eran-

tzi. Eta oso herrikoa eta herrizalea ere bazenez, hori ere nabarmendu behar bere obran. Islada kultoak -hiperbaton zail samarrak, tartekatze luzeak, neologismoak, elipsiak, irudi grekolatinoak...- eta esakerarik herriarrenak, batzutan argotekoak, sorta berean ez ezik, ahapaldi berean nahasturik aurkituko dituzu. Baina sarritan gehiago dirudite gainjarriak, bata-bestearen atzean doazenak, estilo fusionatu baten ezaugarriak baino. Esaterako, *Goxaldeko Lua* sortako zazpigarrena:

Hamaseiko bateko
abade giltzerak
guztiz zuhurrak ostuten
dotrina paperak
ta bardin errezetan
latin mordoilua
ez dabe inoz galduten
goxaldeko lua.

Bigarren lerroko *giltzerak* zazpigarren lerroko *dabe* aditzaren subjektua da. Bitartean ahapaldi erdi tartekatu da, eta honen barruan ere, *zuhurrak* adjetiboaren azpian bi aditz doaz, bakoitza bere gehigarriekin: *zuhurrak dotrina paperak ostuten* eta bardin (zuhurrak) *latin mordoilua errezetan*.

Lehen lerroko *hamaseiko bateko* hori ere ezin da gaizki dagoenik esan, baina ondo egoteko ere zer bait falta zaio. *Hamasei bat urteko* esan nahi badu, *hamasei bateko* behar luke. Izan liteke *hamaseiko* hitz gisa hartua, *hamabiko* dozena den bezala, eta segurrenik hauxe izango da. Orduan korrektua litzateke, baina ez da esamolde herritarra. Baita izan liteke *hamaseiko dirua* ere, eta hori herritarra da, hala zeritzon txanpon bat bait zegoen. Baina hortik ulertzea gehiegi suposatzea litzateke. Azken batez, *hamaseiko bateko abade giltzerak* oso esamolde iluna gertatzen da, eta areago ahapaldi osoa azaldu bezalakoa denean. Azkuek tankera honetako ilungune hibridoak ugari dauzka. Dena dela, bilduma honetan alde hori ez da hainbeste nabari, bertsoaritzatik hurbilen dauden sortak hautatzen ahalegindu bait naiz.

Baina akats eztabaidagarri horien gaintik, Azkueren garrantzia eta interesgarritasuna nabarmendu nahi dut. Garrantzia bere garaiko lekuko eta berriemate gisa, garrantzia bere euskararen maila, ugaritasun eta jantzitasunagatik, eta garrantzia baita erdietsi zuen kalitateagatik ere, egin dakizkiokeen kritikez gain.

Eta ez da garrantzi kontua bakarrik. Azkueren bertsoak interesgarriak ere badira, orduan eta orain. *Euskaldun bat Veracruz*en sortako bertsoak, adibidez, gaur ere gustora kanta litezke, doinu egoki batekin. Beraz, eta amaitzeko, Eusebio Maria Azkue, bere seme Resurrección Maria Azkue eskergaren aita izanez gainera, joan zen mendeko autore interesgarrietako bat dela esan genezake bizkaieraren eremuan, bere bizitzan gauza handirik argitaratuta ikusi ez bazuen ere.

ETXAGUNEN EZKONTZIA

(**Euskarazko Vertsoak.** Eusebio Maria Azkue-koa. 89. or. Bilketa eta edizioa: Asier Astigarraga eta K. Josu Bijuesca. Bilbao. JAREIN)

- | | |
|--|---|
| 01 Baserrietan ezkontuteko
etxaguntzara semia
euki bihar da sasi letradu
guztiak dauken lemia
ta ez atzeratu diruagaiti
behin hartu ezkerro temia. | 03 Mutil gaztiak esaten deutse
euren nahitasuna neskai
honek emoten dabe baietza
pozez beterik mutilai
ta ordurik gora neke gogorra
jatorke eperdira biai. |
| 02 Zauritu ezkerro baserritarrak
amodioen arantzak
euren bihotzen zauritasuna
erakusten dabe dantzak
hain ziur ta argi, zein hurietan
labankerizko arrantzak. | 04 Alper neskatxak eukiten dabe
eperdi mamin gogorra
euren mutilak eihoten deutse
kredo bi barru mokorra
baina mutilak egiten dabe
neskatxak baino lehen txorra. |

05 Neska bakotxa doa iluntzian
ta ez mutilaren besoti
honek ezarten deutso besoa
erregu barik lepoti
eta halan doaz etxera artian
biderik hurrenekoti.

06 Buztartu ta poz doaz guztiak
laztan mosuka bidian
berrogei bider alkarri esaten
noz ezkonduko dirian
baina neskiak egon gura dau
uda hatan buru librian.

07 Mutilen aitak esaten deutso
neskatilian aitari
nahi badeutso emon diru zati bat
lagun etsaguntsiari
berak daukala zer edo zertxu
emoteko semiari.

08 Mila nekegaz egiten dabe
diru ta etxian tratua
ta hartuten dabe bakotxak bana
ardao baltzezko katua
ahalbait ondoen igaroteko
euren bizi nekatua.

09 Gauza erreza ez da baserrietan
musikurik egotia
baina guztiak dira maixuak
joten ta dantzan jotia
soinularia beterik bada
ardao zaharragaz botia.

10 Eta zapatu gau baten doa
nobio ederra armaturik
botia hartuta nobienera
zein dagoan apaindurik
hamar orduak emon dabela
ezin kenduta bururik.

11 Ateko hots batek esaten deutso
mutila heldu dala atera
ai ze pozagaz eroaten dau
bere aita ta amen aurrera!
Ta ardaoa edan ta goxera artian
bakarrik dagoz batera.

12 Eta egun hatan abade jaunak
hasten dituz euren deiak
eta dabiltzez eztegurako
batuten aide guztiak
eta jostunez beteten dira
ezkongeien etxe biak.

13 Neskatiak hartuten dituz
emonda mutil zoroak
guardasoltxu bat ta urrezko hebilak
ta urrezko errosarioak
idunerako krutze bat eta
horiak belarrikoak.

14 Bilbon barruan erosten dituz
mutilentzako nobiak
terziopelozko txalekogeia
eta urre botoi handiak
eta sedazko garriko ederra
lodi daukazana hariak.

15 Zapatu baten lagun askogaz
doaz goxian goxeti
neska guztiak andrageiagaz
ixildu barik aurreti
eta mutilak nobioagaz
zantzoka nesken atzeti.

16 Ezkongei biak egoten dira
abadiaren aurrian
lotsaz beterik, baina neskia
begi biakaz lurrian
eta esateko gero baietza
ez dauko minik hurrian.

17 Itanduten dau abade jaunak
baldin ezkondu nahi badau
ta ezin esan lei begiratu ezik
bizirik badago neskau
baina azkanian buruak bere
nahi dabela erakusten dau.

18 Gosalduteko pretauta dauke
etxera doiazaneko
berakatz zopa ta okela erria
estiak betetuteko
eta ogi fina ta ardao zuria
sabela bizkortuteko.

19 Egon ezkerro baserrietan
ezteguetan ogia
gatz bako okela eta ardao baltza
edo txakolin gorria
ezteguakoak egoten dira
iruntsi ezinik zoria.

20 Aide bakotxak aginduten dau
edo garia edo artoa
ezkonbarriak bizi deitezan
beti dabela Paskoa
ogia jaten edo berorik
sutan erreko taloa.

21 Eztegua egin ta arrats beratan
ez dira batera etzaten
lastategira doa gizona
ipoin mutuak esaten
baina emaztiak esaten deutso
itxaroteko gau baten.

22 Hurrengo eguna da domekia
goxerik eta gaubera
eta egun hatan ekarten dira
ezkondu danen etxera
idi-burdiak eta arreoak
ezteguen aurrera.

23 Orduan dira barri barriak
atsagon bako traguak
gaztien zirri, atsoen mirri
ta agura zaharren kontuak
ta ezkonbarrien bakartuteko
gox ta arratsaldeko asmuak.

24 Ilun antzian guztiak doaz
bakotxa bere lekura
gabon artian edaten beti
ardaoaren orde zura
ta ezkonbarriak helduten dira
eurek nahi eben zerura.



01. **Etxagun:** etxajaun, etxe eta etxaldearen jabea.
Etxaguntza: etxagun izatearen maila. Baita *etxaldea* edo *jabegoa* bera ere.
Lemia: lema, untzi bat gidatzeko ohol laua.
Temia: tema, seta, buruan sartua den idea finkoa.
02. **Dabe:** dute.
Hain... zein: hala... nola. Konparaziozko partikulak.
Labankerizko: leunkerizko, lizunkerizko.
03. **Deutse:** diete.
Honek: hauek.
Ordurik: ordutik.
04. **Alper:** alperrik.
Eihoten: ehotzen, zehatzen.
Kredo bi barru: bi kredo esateko denboran, berehalaxe.
Mokorra: aldaka, pelbisaren albo bakoi-tzeko irtenunea.
Txorra egin: bolajokoan, bola hondoko topea jo ezinik gelditu.
05. **Deutso:** dio.
Lepoti: bizkarretik, sorbaldeetatik.
Hurrenekoti: hurbilenetik.
06. **Buztartu ta poz:** uztartuta pozik.
Bider: aldiz.
Hatan: hartan.
07. **Lagun etxaguntziari:** etxaguntzari laguntzeko, etxaguntzaren gehigarri.
Zer edo zertxu: zeozertxo, zertxobait.
08. **Nekegaz:** nekerekin.
Etxian: etxearen.
Katua: kakotea, hatxurra, mozkorra.
09. **Jotia:** jota, dantza mota bat.
Zaharragaz: zaharrez, zaharrarekin.
Botia: bota, zahatoa.
10. **Bururik:** burutik.
11. **Pozagaz:** pozez, pozarekin.
Eroaten dau: eramaten du, darama.
Goxera artian: goizerarte.
Dagoz: daude.
12. **Eztegu:** eztei, eztai.
Aide: ahaide, odol edo famili lotura daukana.
13. **Idun:** lepoa, sama.
Krutze: gurutze.
14. **Txalekogeia:** txalekoa egiteko oihala.
Sedazko garriko: zetazko gerriko.
Daukazana: dauzkana.
15. **Zapatu:** larunbat.
Askogaz: askorekin.
Barik: bagarik, gabe.
Nobioagaz: senargaiarekin.
Zantzoka: oihuka, uhuka.
16. **Lotsaz:** ahalkez.
Biakaz: biekin.
Minik: mihirik.
Hurrian: hurrean, nonbait, hain baten, dirudienez.
17. **Itandu:** galdetu.
Lei: liteke.
Neskau: neska hau.
Bere: ere.
Dabela: duela.
18. **Dauke:** daukate.
Berakatz: baratxuri.
Okela: jaten den haragia.
Betetuteko: betetzeko.
19. **Bako:** gabeko.
Zoria: zortea, aukera, zoriona.
20. **Aginduten dau:** agintzen, promesten, eskaintzen du.
Erreko: erretako.
21. **Beratan:** berean, hartantxe.
Ipoin: ipuin.
22. **Domekia:** igandea.

- Goxerik:** goizetik.
Danen: danaren.
23. **Atsagon bako:** atsedean gabeko.
Bakartuteko: bakarrik gelditzeko.
24. **Gabon artian...:** hurrengo gabonak arte ura edatera, ez bait zen ardorik izango.
Helduten: heltzen, iristen.
Nahi eben: nahi zuten.

ASTOA ASTOA LANGOA

(Idem. 131. or.)

- 01 Asko dira gaur eta lehen bere zirian inok ez dakianak ze gizon dirian. Iruditxu bategaz daukat nik gogoan adietan emoteko zortziko bertsoan.
- 02 Astotzar handi eder bat eria batian salduteko imini zan zaldien artian. Guzur-ule baltzakaz kokota apaindurik ta zamari buztana atzian loturik.
- 03 Neurrian ebagita bere belarriak zamari eder bat zala uste eben guztiak. Orraztu ta garbirik hanketako ulia hazkor eukan lepoan narruzko txalmia.
- 04 Bere jaubiak eukan kolkoan bildurra noz ezagutuko zan astoen guzurra. Heldu zan erosteko baserriko jaun bat eta agindu zituzan hirurogei dukat.
- 05 Atseginez beterik baserritar ona bilatuten hasi zan auzoko gizona bialduteko laster pizti hau etxera bere kortan eukazan zaldien artera.
- 06 Ataraten ebalaz zizkuti dirua jaso eban astoak zerurantz burua egiteko arrantza bat miragarrizkoa ikaratuko ebana Balanen astoa.

07 Harriturik egozan
baserritar biak
bai eta aldameneko
gizonak guztiak.
Han zirian barriak
ijui ta diharra
han ikusten zirian
egunaz izarrak.

08 Orduan esan eben
baserri gizonak:
zeinbat dagoz munduan
halako personak?
Ixilik dirudie
kadera bikoak
berbaz hasten badira
lau kaderakoak.



01. **Bategaz:** batez, batekin.
Adietan: aditzen, aditzera.
02. **Eria:** feria, azoka.
Imini zan: ipini, jarri zuten.
Guzur-ule: gezurrezko ile.
Baltzakaz: beltzekin.
Kokota: lepoaren atzealdea, garondoaren azpialdea.
Zamari: zamak edo kargak eramateko erabiltzen den zaldia.
03. **Eben:** zuten.
Ulia: ilea.
04. **Eukan:** zeukan.
Astoen: astoaren.
Dukat: antzinako diru mota bat.

05. **Kortan:** tegian, ikuiluan.
Eukazan: zeuzkan.
06. **Ataraten ebala:** ateratzen zuela.
Zisku: poltsa, batez ere dirua erabiltzekoa.
Ebana: zuena.
07. **Egozan:** zeuden.
Barriak: barreak, irriak.
Ijui: irrintza ero samarrak, gazteen oihuak.
Diharra: deihadarrak, zantzoak.
08. **Dagoz:** daude.
Dirudie: dirudite.
Kadera: zango, hanka.
Berbaz: berbetan, eleketan, hizketan.

SAGUAK ETA KATUA

(Idem. 245. or.)

01 Mila sagutxu goienen baten
pozik egozan artoa jaten
agertu artian bere bizarrak
hara katarrak.

02 Igas saguak ebiltzezala
heldu zan txakur mosu zabala
orduan igas eben saguak
eta katuak.

03 Guztia bakez sartu zanian
saguak barriz batu zirian
eta esan eben: sarri sustuak
doguz saguak.

06 Bihar baino lehen bihar da ekarri
ikusi daigun katua larri
ta euki deiguzan halan saguak
libre buruak.

04 Ixilik beti dabil katua
eta bilatu daigun modua
beti igarteko negu ta udan
katuan nun dan.

07 Laster heldu zan kaskabeltxua
han baina nor zan hain bioztsua
katu bateri lotuko eutsana
inoz arrana?

05 Borreruari -esan zan juntan-
bihar deutsagu buztanen puntan
imini laster arran txikia
baina zolia.



01. **Goienen baten:** goialderen batean,
ganbara edo mandioeren batean.
Egozan: zeuden, ari ziren.
02. **Igas:** ihes, ihesi.
Ebiltzezala: zebiltzala.
Mosu: mutur.
Igas eben: ihes egin zuten.
03. **Barriz:** berriz, berriro.
Eben: zuten.
Sarri: sarritan, maiz, anitzetan.
Sustuak: sustoak, ikaraldiak.
Doguz: ditugu.
04. **Daigun:** dezagun.
05. **Borrero:** zigorra ematen duena.
Juntan: bilkuran, batzarrean.
Deutsagu: diogu.
Buztanen: buztanaren, isatsaren.
Imini: jarri, ezarri.
Arran: joare, zintzarri.
Zolia: zorrotza, bizkorra, bizia.
06. **Bihar... bihar:** bihar... behar.
Deiguzan: ditzagun.
Halan: hala.
Kaskabeltxua: kriskitintxo.
Bihoztsua: kementsua, ausarta.
Eutsana: ziona.
Inoz: inoiz.

BERTSOLARI EDO KOBLAKARIA

(Idem. 270. or.)

- 01 Erdu zerura, bertsolaria
goiazan biok batera
hau baino hobea beste mundu bat
han goian bilatutera.
- 02 Gizon handia da hemen urrea
eta ezer-eza kobrea
trumoi sikua jakituria
daukana bada pobrea.
- 03 Egia biloiz, jantzi bakoak
igas dau gaur gizarteti
erdu goiazan, bertsolaria
bera joan dan bideti.
- 04 Bakizu zer dan, bertsolaria
geure mundua munduan?
Da ontzi bat Jaunak imini ebana
itsaso baten barruan.
- 05 Zerua dago loraz beterik
eguzkia hilten danean
eta bakotxa da mundu eder bat
geure munduen ganean.
- 06 Geure munduan ez da aurkituten
bardintasunik legean
honek egiten ohi dabezanak
ez dagoz euren menpean.
- 07 Goiazan hegaz, bertsolaria
negarririk ez dan mundura
lehenak ta orainak atsakabarik
emon ez daben lekura.
- 08 Geure bizia da hemen haizea
hodai baltzagaz nahastean
geure ganera ai! dakazana (asko)
oinaztarriak aldean.
- 09 Egon gaitzean hodai ganeti
beheko mundura begira
hau da sagar bat eta gizonak
(barriz) txikiak baino ez dira.
- 10 Eta biraka dabil mundua
eguzkiaren tornuan
eta ilargia gelditu barik
beheko munduen bornuan.
- 11 Ilargia da mundu txiki bat
behekoa legez iluna
ta eguzkiari bira egiteko
bere betiko laguna.
- 12 Bere erdiantzat beheko mundua
da mundu iluna ta argia
baina ez da egoten honen aurrean
ilargiaren erdia.

- 13 Bardin bardinak izaten dira
bertako urtea ta eguna
hiru zatitik bi dira argiak
beste zati bat iluna.
- 14 Goiazan urrun, bertsolaria
ze handia dogu zerua
bilatu artean geldituteko
maitetasunen lekua.
- 15 Bilatu daigun nun estaldu dan
igas joan dan egia
ta gelditu dan munduan dago
guk behar dogun guztia.
- 16 Han ez da egongo bihotz sikurik
ez deunga okerririk nagosi
han ezingo da inor galtzeko
guzur-lege bat erosi.
- 17 Osagilarik han ez da egongo
inor hilteko drogakaz
eta hilten badau inor gazterik
lurpetuko da beragaz.
- 18 Igarriko da jakituria
kolore bizarrekoan
guzur-jakintsu lotsa bakoak
silauko dira lepoan.
- 19 Legeak ondo jagongo dira
ta han ez da egongo izurririk
ta ez botikako hatsagaz inoiz
gizonik gatzez beterik.
- 20 Emakumeak izango dira
gizonen lagun emeak
etxeko gauzak ondo erabagi
eta ondo hazteko semeak.
- 21 Bilatu dogu, bertsolaria
geuk behar dogun lekua
beste batera bagoaz inoiz
geurea izango da errua.
- 22 Deiguzan bertso gozo ta leunak
geure arimako suagaz
beti egoteko nahibagaz barik
kantetan zitaregaz.



01. **Erdu:** zatoz, etor zaitez.
Goiazan: goazen.
02. **Sikua:** lehorra, idorra.
Jakituria: jakinduria.
03. **Egia biloiz, jantzi bakoak igas dau:**
egia biluzi eta jantzi gabeak ihes egin du.
04. **Bakizu:** badakizu.
Imini ebana: jarri, ezarri zuena.
Barruan: barnean.
06. **Dabezanak:** dituenak edo dituztenak.
- Puntu hau ilun samarra da. Ez dago argi
honek, bizkaieraz *honek* nahiz *hauek* izan
daitekeena, eta ondorengo *euren* zeri edo
nori dagozkion.
Dagoz: daude.
07. **Atsakabarik:** atsekaberik, nahigaberik,
saminik.
Ez daben: ez duten.
08. **Hodai:** laino. Toki batzutan trumoi-lai-
noa, baita trumoia bera ere.
Baltzagaz: beltzarekin.

- Dakazana:** dakartzana.
(Asko): hau eta hurrengo bertso (barriz) gako artean jartzen ditut, harrizkekoa bait da ondo eta zehatz neurtu ohi duen Azkuek hemen huts egitea.
Oinaztarri: oinaztu, tximista, justuri.
09. **Txikiak baino:** tipiak baizik, txikiak besterik.
10. **Barik:** bagarik, bage, gabe.
Bornuan: inguruan, biran.
11. **Legez:** bezala.
12. **Erdiantzat:** erdiarentzat.
Beheko mundua: lurra esan nahi du.
Baina ez da egoten... erdia: hots, ilargiak alde edo aurpegi bat ez diola lurrari inoiz erakusten.
14. **Ze:** zeren, zergatik. Kausala.
Maitetasunen: maitasunaren.
15. **Igas:** ihesi.
Ta gelditu dan...: hots, egia gelditu dan munduan dago.
16. **Deunga:** gaizto, zantar.
Guzur-lege: gezurrezko lege, lege faltsua.
17. **Osagila:** sendagile, mediku.
- Drogakaz:** drogekin, botikekin.
Gazterik: gaztetandik, gazte dela.
Lurpetu: lurperatu, ehortzi.
Beragaz: berarekin.
18. **Kolore bizarrekoan:** bizarreko, bizarren kolorean.
Guzur-jakintsu: jakintsu faltsua, gezurrezkoa.
Lotsa bakoak: lotsa, ahalke gabeak.
Silauko dira lepoan: zigilatuko, markatuko dira bizkarrean, animaliak bezala.
19. **Jagon:** zaindu, gorde.
Hatsagaz: kiratsarekin.
Hats: usain txarra. Toki batzutan antz esaten da.
20. **Erabagi:** erabaki, ebatzi, eratu.
22. **Deiguzan:** ditzagun.
Suagaz: suarekin.
Nahibaga: nahigabe, samin, pena.
Barik: ez... baizik. *Ardoa barik ura nahi dut:* ez ardoa, baizik ura nahi dut. *Lamerako barik janerako bizi da:* ez da lanerako bizi, janerako baizik. Bizkaierazko partikula hau oso praktikoa eta direktoa da, beste euskalkien itzulunguruak ekiditen dituena, bertso honetan bezala: beti egoteko, ez nahigabez, zitararekin kantatzen baizik.

MOGEL ETA TXARAKA

(Idem. 287. or.)

- 01 Markina-Etxebarriko senar-emazte bik alaba eder bat euken zeruak emonik eta hamar mila dukat lurpian gorderik ikusten ez ebela egunen argirik.
- 02 Maiterik gurasuak hazi eben alaba hau eder parebagia zan baso-larrosa hau. Bere amak magalpian eban lez ostuten haxiak usain ona ez eutsan kenduten.

- 03 Sartu zanian dama hau hamazortzi urtian aztu bat topau eban etxiaren hurrian zein hasi jakon berbaz eraso gurarik ete eukan ezkontzeko emonda berbarik.
- 04 Barrez erantzun eutsan bere bizarretan zelan ez eban berak igarri kartetan. Alperrik aztua zan igesten arina heldu jakon hankara txakurren hagina.
- 05 Markinako zaldun bat etxejaun handia gaztia, dirutsu ta kristinau garbia bizi zan bere etxian umezurtz ta bakar laguna nahi ebala maitetuteko alkar.
- 06 Gomuta eban bere aitak esaten eutsala zaldun bat mundurako gizon erdi zala. Hau ondo sinistuta zan bere gogua lehenbaitlehen izatia bera bere osua.
- 07 Ez jakon onra egiten gure zaldunari ez inok esatia aitatzu berari. Eta Markinan inor orain ez lehenago ez da izaten bere aita baino gitxiago.
- 08 Apaindurik gorputza egun gox batian juan zan erdi bila zaldien ganian. Zuzendu zan zaldia damiaren etxera izateko beretzat mandatari bera.
- 09 Zaldunari entzun eutsan aitak mandatua baita bere lastertxu egin zan tratua. Adierazo zituzan abadiak deiak eta ezkondu zirian pozik gazte biak.
- 10 Alkarrentzako baino ez eukan begirik bata bestiarentzako egozan bizirik. Eta laster seme bat agertu zanian ez egozan munduan ezpada ganian.

11 Handiena zanian
euren zoriona
ohera gatx handi batek
bota eban gizona
ta alper eragin jaken
botikako drogai
gatxak gizon gaixua
ez eban itxi nahi.

12 Medikuen aginduz
hasi zan pentsetan
geroko gauzetan ta
hemen behekuetan.
Eta eskatu zituzan
zan lez kristinaua
Mogel abadia ta
Txaraka eskribaua.

13 Biak pasau zirian
aurreko salara
banan banan sartzeko
gatxdunen gelara.
Hau eguan Jaunari
eskaria egiten
arren itxi egiola
munduan biziten.

14 Esan barik dakizu
Jauna, nire barri
eta zelan naguan
hil ez nadin larri.
Emazte ederra daukat
zeuri, Jauna, eskerrak
baita bere bi seme
bera lako ederrak.

15 Daukat urdaia ugari
zezin troko handiak
eta zotz emon бага
barrika guztiak.
Ni naz gorako zaharra
beherako gaztia
ta ez jat gogoratuten
erdiko nahastia.

16 On bat bihar badozu
santua lakua
hor dago Mogel jauna
bana banakua.
Txar bat gura badozu
eruan bultzaka
ez inun bila ibili
hor dago Txaraka.

17 Baldin izango bada
bien bitartian
hor daukazuz ugari
praileen artian.
Oraindik ez da galdu
niretzat mundua
hiru urtian birritan
emon dot frutua.

18 Mogel eta Txaraka
egozan entzuten
zer eguan gatxduna
Jaunari eskatuten.
Ta Mogelek edurra
baino zuriago
esan eban: gizon hau
zoratuta dago.

19 Igés juan zirian
harturik kapelak
eta bildurrak nahastu
eutsezan sabelak.
Mediku jauna bere
juan zan betiko
ez zan bere bitartez
geixua biziko.

20 Ta entzun eutsan legez
Jaunak eskaria
osatuta euki eban
luzaro bizia.
Hau zan gizon zuzen ta
okerrik bakua
Bizkaitar euskalduna
ta Markinakua.



01. **Euken:** zeukaten.
Dukat: antzinako diru mota bat.
Ebela: zutela.
Egunen: egunaren.

02. **Eben:** zuten.
Eban lez: zuenez, zuenez gero, bait zuen.
Ostuten: ostentzen, izkutatzen, gorde-
zen.
Haxiak: haizeak.
Eutsan: zion.

03. **Aztu:** aztru, azti, igarle.
Topau eban: aurkitu zuen.
Hurrian: hurrean, hurbil.
Zein: erlatiboa.
Jakon: zitzaion.
Berbaz: berbetan, hizketan, eleka.
Gurarik: nahirik.
Ete eukan: ote zeukan.

04. **Barrez:** irriz.
Eutsan: zion.
Igesten: ihes egiten.
Txakurren hagina: txakurraren hortza.

05. **Kristinau:** giristino, kristau.

06. **Gomuta eban:** gomutatu, gogoratu, oroi-
tu zuen.
Bera bere: bera ere.

07. **Onra egin:** ohoragarri gertatu.

08. **Gox:** goiz.

09. **Mandatua:** mezua, enkargua.
Baita bere lastertxu: baita ere oso las-
ter.
Adierazo: adierazi, entzun erazi, iraga-
rri.
Zituzan: zituen.

10. **Baino:** baizik.
Egozan: zeuden.
Ezpada ganian: baizik ganean, ganean
baizik.

11. **Gatz:** gaitz, eritasun.
Alper: alperrik.
Eragin jaken: eragin zitzaien, mugitu,
mugierazi ziren.
Itxi: utzi, laga.

12. **Pentsetan:** pentsatzen.
Zan lez: zenez gero, bait zen.

13. **Banan:** banaka.
Gatxdunen: gaizdunaren, gaitza dauka-
naren.
Eguan: zegoen.
Arren: otoi, mesedez.
Itxi egiola: utz zieziola.

14. **Barik:** gabe.
Lako: bezalako.

15. **Troko:** puska, zati.
Zotz emon бага barrika guztiak: ku-
pel guztiak zotzik jarri gabe, hots, estrei-
natu gabe edo bete-beterik.

Gorako... beherako: zerurako... infer-
nurako.

Ez jat gogoratuten: ez zait oroitzen, go-
goratzen.

16. **Bana banakua:** bakan bakana, inor ez
bezalako.
Eruan: eraman.

17. **Daukazuz:** dauzkazu.
Birritan: bitan, bi aldiz.

19. **Eutsezan:** zizkien.
Geixua: gaisoa, eri dagoena.

20. **Eutsan legez:** zionez gero, bait zion.
Osatuta: sendaturik.
Bakua: gabea.

BERMEOTAR ASTODUNAI

(Idem. 293. or.)

01 Las mozas de Bermeo
arraina danian
beben medio chiquito
arnasa batian.
Y si se juntas muchas
Sangurrunguenian
a dos medio chiquitos
zokondo ilunian.

02 Presentarse en la Loia
erdi ixil ostuka
sobre quién dice mío
dabiltzaz burruka.
Unas cargan en burros
arrain karga handia
otras en sus cabezas
ahal daben guztia.

03 Suelen ir por los chopos
ilunabarrian
preguntando si llevan
farolik aldian.
Apenas a Emerando
helduten dirian
van a beber dejando
astuak bidian.

04 Despues de beber salen
gozaro ta pozik
en un pie un zapato
bestian ortozik.
Como ninguna ha estado
astuak zainduten
éstos no se detienen
inori itxaroten.

05 Muy luego los alcanzan
ta duaz batera
contando erderacadas
Mungiati aurrera.
A Pepe el cadenero
gura dabe engainau
pero él las quita un burro
kobretan ez badau.

06 Las de Mundaca en Derio
nahi gazte nahi zaharrak
acallan en la venta
tripako negarrak.
Pero las Bermeanas
duaz aurrera artez
si en Galbarriartu no hacen
Emerandon legez.

07 Rezan en Agerleku
leiturik musturrak
y arreglan a su modo
geroko guzurrak.
Juntas y juntos bajan
Begoñatik behera
para entrar en la Villa
guztiak batera.

08 Una de entre ellas sale
emakume abila
va a una panadería
ogi baten bila.
Porque es de las fresqueras
guztien usua
a sorbos de aguardiente
argitu burua.

09 En la plaza descargan
dihadarrez astuak
allí son las reyertas
han dira birauak.
Para engañar la gente
guztiak dagoz zuhur
aunque para ello digan
zazpi mila guzur.

10 Si acaso no pudiesen
saldu modu onian
guardan para venderlo
biharamonian.
Suben al mediodía
Kapoiaen etxera
comen y nunca dejan
edaria atzera.

11 A la vuelta no paran
Mungiara artian
donde se juntan todas
Mari Batxienian.
Ellas comen y beben
astuak bapere ez
para pagar la cuenta
dabiltzaz negarrez.

12 En Emerando sacan
ujuju gogorra
pagando al mismo tiempo
lehenagoko zorra.
Dos docenas de sorkis
bost hilabetian
han robado a Benita
freskeren artian.

13 En la cuesta principian
egurrak batuten
porque si no recogen
ez dabe afalduten.
Esta es la vida andante
Bermeotarrena
compadecerse de ellas
gauzarik onena.



01. **Zokondo:** zoko, bazter.

02. **Loia:** arrantzale herrietan, arraina biltzen eta saltzen den eraikina.
Ixil ostuka: isil ostenka, gordeka.
Ahal daben: ahal duten.

03. **Emerando:** Meñakako auzo bat, Sollube azpian.

04. **Gozaro:** gozoki, atseginez.
Ortozik: oinutsik.

05. **Cadenero:** katezaina. Zenbait lekutan, bidean trabes, kate bat egon ohi zen, zergak ordaintzeko.
Gura dabe engainau: nahi dute engainatu, atzipetu.
Kobretan: kobratzen.

06. **Artez:** zuzen, geratu gabe.
Galbarriartu: Derioko auzo bat, Santo Domingoko aldapan gora.
Legez: bezala.

07. **Agerleku:** Ama Birjina agertu omen zen lekua.

Leiturik musturrak: izozturik, jeldurik, hormaturik muturrak.

Lei: izotz, horma.

08. **Fresqueras:** freskerak, arrain freskoa saltzen duten emakumeak.
Usua: usadioa, ohitura.

09. **Dihadarrez:** oihuka, orroeka.
Birauak: biraoak, madarikapenak.
Dagoz zuhur: daude argi, erne, zoli, arretaz.

10. **Kapoiaren:** kapoiaren. Ez dakit zer izan litekeen, tabernari edo norbaiten ezizena ez bada.

11. **Bapere ez:** bat bere ez, batere ez.

12. **Ujuju:** ujualdia, sorgin antzeko oihuak.
Sorquis: sorkiak, sukalde inguruko eskutrapu zarpailak, bazterrak garbitzeko.

13. **Batuten:** batzen, biltzen.

GOXALDEKO LUA

(Idem. 303. or.)

01 Fama txarra bota da
munduaren ganera
ta inok ez dau nahi juan
beste hoba batera.
Munduagaitik dino
dala pikarua
ez dakienak zer dan
goxaldeko lua.

02 Mundua hasi zanian
lehenengo gizonak
igaro zituezan
egun asko ta onak
zergatik egin arren
hotza nahi berua
inoz ez eben galtzen
goxaldeko lua.

03 Nahi jaieguna izan
ta nahi asteguna
lehenengo lua beti
izaten da astuna.
Baina guztiz arina
ta ezitia lakua
gorputzai atsedenda
goxaldeko lua.

04 Lehenengo luan dago
bat harria legez
guztiz biribilduta
edo luze ta artez.
Gero bere atsegina
da neurri bakua
helduten jakonian
goxaldeko lua.

05 Munduan nahi dabenak
izan aingerua
jakitjarren zer dan
geroko zerua
ziur ikusiko dau
beteta gogua
amesakaz badauka
goxaldeko lua.

06 Antxinako neskatxak
goxeko amesetan
seina aldatuten dagoz
pozarren kantetan.
Eta hau ez da guzurra
ez da ames zorua
iges doian artian
goxaldeko lua.

07 Hamaseiko bateko
abade giltzerak
guztiz zuhurak ostuten
dotrina paperak
ta bardin errezetan
latin mordoilua
ez dabe inoz galduten
goxaldeko lua.

08 Etxejaun bere etxian
lehenen sortu zana
errenteruen uzen
asetan ez dana
gau guztia igaro arren
edaten ardaa
ohera dua atrapetan
goxaldeko lua.

09 Geixo hartzen dabenak
purgia goxian
galtzen dau urte bete
purga bakotxian.
Asko bere hoba da
kentzeko geixua
purga hatsitua baino
goxaldeko lua.

10 Baldin purgau baleitez
ilunabarrian
nekatuta egon arren
gau erdira artian
hartuko leuke gero
gorputzak girua
gozaro egiteko
goxaldeko lua.

11 Zor daben nekatua
goxian goxeti
pentsamentu baltzakaz
jagiten da beti.
Honek atrapetan dau
goxeko garua
eta hartuen deutsanak
goxaldeko lua.

12 Arraintzailak ohi dagoz
alturan kalatan
euren bizitziagaz
beti ernegetan.
Baina ez deutse erasoten
nekiak biraua
ezpada galdutiak
goxaldeko lua.

13 Arrastaka batuten
urre ta kobria
dabilen gizona da
munduan pobria.
Honek igaroten dau
purgatoriu
galduten dabelako
goxaldeko lua.

14 Infernura lehenengo
juan zan gizona
ez zan izan goxetan
beti login ona.
Abel hilteko hazurra
usteldu ta ahaztua
topau eban galduta
goxaldeko lua.

15 Zer da bat egotia
albatako mezan
ikusten gizon ta andra
arrausinga elexan?
Gehien gehienak dauke
zabalik ahua
egin ez dabelako
goxaldeko lua.

16 Goxaldian goxetik
abade maisuak
entzuten dagozanak
gure pekatuak
ez dabe beti eukiten
osasan osua
galduten dabeelako
goxaldeko lua.

17 Zer litzate erregeren
buruko koroia
itxi biharko baleu
goxaldian ohia?
Karga guztiz astuna
alper urrezkua
da kenduten dabena
goxaldeko lua.

18 Hazur hutsak daukazan
agura sikua
eguzki etorrerako
loro musikua
heriotzara arin
eta zuzen dua
ez dabelako gorde
goxaldeko lua.

19 Egunagaz jagiten
dirian alperrak
oin biko astuak dira
edo bai okerrak.
Bihurtu lei gizona
ero ta zorua
sarritan galdutiak
goxaldeko lua.

20 Otseinak gox goxetik
jagiten badira
alperkerian dagoz
alkarri begira.
Baina otseina izaten da
bihargin zintzua
gozaro egin badau
goxaldeko lua.

21 Zenbat dagoz negarrez
euren bakarrian
lo gozuan beste asko
dagozan artian?
Beti izanik pozgarri
ta beti gozua
zelan itxi lei batek
goxaldeko lua?

22 Bazkal ostian duaz
alperrak lotara
lau oinekua janta
doian lez kortara.
Gozo gitxikua da
bazkal ostekua
baina gozo gozua
goxaldeko lua.

23 Egin nahi ez dabenak
goxaldian lorik
ez dauka biziteko
bat bere gogorik.
Dalako biziteko
ezinda hobagua
gozaro egiten dau
goxaldeko lua.

24 Egon bihar bagendu
beti iratzarririk
inoz bere ez legoke
gorria geldirik.
Eta hak bere egunoro
sinistera nua
neuk legez nahi dabela
goxaldeko lua.



01. **Hoba:** hobe.
Dino: dio, erraiten du.
Pikarua: gaiztoa, maltzurra.
Goxaldeko lua: goizaldeko loa, eguna argitzen duen ingurukoa.
02. **Igaro zituezan:** iragan, pasatu zituzten.
Zergaitik: ze, zeren. Kausala.
Nahi: nahiz, zein.
Inoz ez eben: inoiz ez zuten.
03. **Lakua:** lakoa, bezalako.
Gorputzai atsedenda: gorputzari atsedenda emanda.
04. **Legez:** bezala.
Artez: zuzen.
Helduten jakonian: helduten zaionean.
05. **Nahi dabenak:** nahi duenak.
Jakitiarren: jakiteagatik, jakiteko.
Amesakaz: ametsekin.
06. **Seina aldatuten dagoz:** haurra aldatzen daude, ari dira.
Pozarren kantetan: poz pozik kantatzen.
Iges doian: ihesi doan.
07. **Hamaseiko bateko:** hamasei urteko. Ala hamaseiko dirua? Hau nekezago izan daiteke.
Giltzera: *giltzero*-ren femeninoa, giltzaria.
Zuhurrak: argiak, zoliak, ernaiak.
Ostuten: ostentzen, izkututzen.
Errezetan: errezatzen.

08. **Erreteruen:** maizterren.
Uzen: izain, odola xurgatzen duen uretako harra.
Asetan: asetzen.
Atrapetan: harrapatza, hatzematera.
09. **Geixo hartzen dabenak purgia goxian:** goizean purga hartzen duen gaisoak, eriak.
Hatsitua: hatsa, kiratsa, usain txarra daukana.
10. **Leuke:** luke.
Gozaro: gozoki, samurki.
11. **Zor daben:** zor duen, zorra daukan.
Baltzakaz: beltzekin.
Jagi: ohetik jaiki.
Atrapetan: harrapatzen.
Garua: inontza, ihintza.
Hartuen deutsanak: harturena, hartze-koa dionak.
12. **Kala:** itsas zabalean, arrantzan egiteko tokia.
Bizitziagaz: bizitzarekin.
Ernegetan: ernegatzen, amorratzen, haserrez.
Ez deutse erasoten: ez die esan erazten, ateratzen.
Biraua: biraoa, madarikapena.
Ezpada galdutiak: baizik galtzeak.
13. **Galduten dabelako:** galtzen duelako.

14. **Topau eban galduta...:** ediren, aurkitu zuen, goizaldeko loa galduta, galdu zuelako.
15. **Albatako mezan:** lehen mezan, alba edo argi-hasteko mezan.
Arrausinga: aharrausika, aho zabalka.
Elexan: elizan.
Dauke: daukate.
16. **Dagozanak:** daudenak.
Dabeelako: dutelako.
17. **Itxi biharko baleu:** utzi, laga behar balu.
Alper: badirudi lanabes bat esan nahi duela, berez harrizko zilindroa dena, hemen urrezkoa. *Alperrik* ere izan daiteke. Esaldi iluna nolana.
18. **Daukazan agura sikua:** dauzkan agure idorra, zimela.
Arin: azkar, agudo, fite.
19. **Egunagaz jagiten:** egunarekin batera jaitkitzen.
Bihurtu lei: egin lezake, bihur lezake.
20. **Otseinak:** zerbitzariak, morroi eta nekameak.
Bihargin: behargin, langile.
21. **Zelan itxi lei:** nola utz lezake.
22. **Bazkal ostian:** bazkal ondoan, ondoren.
Lau oinekua: lau zangokoa, aberea.
Doian lez: doan bezala.
Korta: tegi, ikuilu.
23. **Bat bere:** bat ere.
Ezinda hobagua: ezin hobea.
24. **Iratzarririk:** itzarrik, atzarri, ernai, esnaturik.
Gorria: deabrua, demonioa.
Hak bere: hark ere.

ALPERRAK

(Idem. 429. or.)

01 Askotu dirianik
munduan alperrak
bardin askotu dira
ai gizon okerrak.
Gerria dabil orain
ixil ugaria
zabaldan danik hona
alperren hazia.

02 Ondo jan bardin edan
eta gauza ederrak
bihar egin bagarik
dituez alperrak.
Zintzoak jaten dabe
bakarrik lastua
zintzua beti izan da
alperren astua.

03 Erlia dabil zintzo
egiten ezia
baina ez da obra hain gozua
bere janaria.
Oraingo gizaldian
gozorik alperrak
eztia jaten dabe
erliai eskerrak.

04 Izan arren ardia
patari maitia
inok kenduten deutsa
esne ta lania.
Ardi mantsua legez
dira gaur zintzuak
bada lepoan daukez
kontribuzinuak.

05 Biharran idia
dabil ta ez beretzat
heriotzia bere
ez dauko baketzat.
Zintzuak eta idiak
gaur dira bardinak
ez dirialako eurentzat
euren ahaleginak.

06 Txoriak gizonakaz
daukez antz handiak
bada ez dituez hazten
eurentzat umiak.
Txoriai kentzen deutsez
umiak alperrak
eta gizon zintzui
kintak eta gerrak.

07 Ondo ondo bizi dira
alper jakintsuak
baina ez beti hain ondo
tonto barritsuak.
Jakintsuetzat inoz
ez dago legerik
gau ta egun beti dabiltz
errazoiz beterik.

08 Txori beti daukana
begira mirua
alperra da ez badauka
ziskuan dirua.
Sarri egon biharko dau
kartzelan loturik
juezentzat ez badau
topetan dirurik.

09 Baina libre edo preso
dagan lekuan
zintzua baino hobato
bizi da munduan.
Gaur alperra izateko
ez dago lotsarik
gizaldiak ez dauko
bizimodu hobarik.

10 Baita badagoz asko
alper eskekuak
batzen jatorkuzanak
utzur etxeakuak.
Honek basaurdak legez
etxe guztietan
arto gariak daukez
ziur soloetan.

11 Alperreria da gaur
bizirik onena
libertadiak asko
zabaldu dabena.
Biba alperrak guztiak
bitor bat alperrai
eta alperren artian
biba neu bere bai.



01. **Zabaldu danik hona:** zabaldu denetik
hona, denez geroztik.

02. **Bihar egin bagarik:** lan egin gabe.
Dituez: dituzte.
Dabe: dute.

03. **Gozorik:** gozoki, ezteki.

04. **Patari:** aberea, animalia, piztia.
Inok kenduten deutsa: bestek kentzen
dio.
Lania: artilea.
Legez: bezala.
Lepoan: soinean, bizkarrean.
Daukez: dauzkate.

05. **Biharran:** lanean.
Dauko: dauka.

06. **Gizonakaz:** gizonekin.
Bada: ze, zeren, zergatik. Kausala.
Deutsez: dizkiete.

08. **Ziskua:** boltsa, patrika, batez ere dirua
erabiltzekoa.

Sarri: sarritan, maiz, anitzetan.

Juez: juje, epaile.

Topetan: topatzen, kausitzen, aurkitzen.

09. **Hobato:** hobeto, hobeki.

Lotsarik: ahalkerik.

10. **Badagoz:** badaude.

Eskekuak: eskaleak.

Batzen jatorkuzanak: batzera, biltzera
datozkigunak.

Utzur: ogi apur, ogi hondar, ogi zatitxo.

Basaurdak legez: basurdeak bezala.

Soluetan: soroetan.

11. **Dabena:** duena.

Biba: gora.

Bitor: aupa, gorespen.

Neu bere: neu ere.

EUSKALDUN BAT VERACRUZEN

(Idem. 432. or.)

- 01 Hemen nago ni tristia
ama alargunen semia
kartzela baten
penak esaten
daukadazanak ugari
neure pentsamentuari.
- 02 Neure lelegoko argia
zan euskaldun eguzkia.
Ama maitia
zan emazia
gizon bihargin ta on batena
herrian zan ederrena.
- 03 Ume nintzaneko egunak
danak alkarren lagunak
juan zirian
euren bidian
beti betiko lekura
ez etorteko mundura.
- 04 Hamar urte nituzala
jakin zan errege hil zala.
Ez nekian nik
hasiko zanik
hagaitik gerran jentia
ta hain gitxi zer zan gerria.
- 05 Hasi zan zoritxarrian
euskaldun herri noblian.
Tropa guztiak
lau Probintziak
ezin zituezan baketu
ez gobiernuak beretu.
- 06 Zenbat ta zenbat euskaldun
neuk nituzanak ezagun
gazte bizkorrak
suan gogorrek
ai gerra honetan hil dira
baina zerura begira!
- 07 Neure aita gizajua
gizon bihotz handikua
Hernani ganen
heridu eben
eta etorri zan etxera
zauria sendatutera.
- 08 Puskatuta eukan besua
galduta erdiko txokua.
Imini barik
inok bendarik
noz bihar zan orduan huts
gelditu nintzan umezurtz.

- 09 Egin zan gero bakia
guk galdu бага gerria.
Euskal Herriak
~~libre guztiak~~
dagoz betiko legian
ta ez Gaztelaren menpian.
- 10 Ai ama maite neuria!
Nun da laguna zeuria?
Galdu zenduan
baina munduan
daukazu seme kutuna
izatia zor deusuna.
- 11 Hamazazpi urte daukadaz
ta nago osasun onagaz.
Itxasuetan
gaur gehienetan
irabazten da gehiago
eta aberastu lehenago.
- 12 Heldu zan laster eguna
neure amarentzat iluna
zeinaen goxian
juan ginian
euskaldun portu batera
ontzi bat bilatutera.
- 13 Fragata eder bat eguan
Habanarako goguan.
Enbarkau nintzan
morroe gisan
ta berrogei egunian
Habanara heldu ginian.
- 14 Ontziaen armadoriak
Bizkaitar gizon nobliak
bere etxian
almazenian
kapitanaen esanagaz
hartu ninduen pozagaz.
- 15 Habanan neukan bizia
zan amak erakutsia.
Goxian goz jagi
egon бага nag
mezia entzun ta gosald
gero almazena zabaldu.
- 16 Urte bi igaro ta gero
neu ondo ezagutu ezker
jeneruagaz
ta ugazabagaz
juan nintzan Veracruzera
beste etxe bat imintera.
- 17 Gelditu nintzan bakarrik
ez neukan ekandu txarrik.
Mutil gaztiak
falta bagiak
neuk legez burua ikusi lei
irabazten ehuneko hoge.
- 18 Ez nintzan amagaz ahaztu
ez inok halan sinistu.
Ehun hogerleko
lehenengo urteko
azkena hain laster heldu zan
etxera bialdu nituzan.

19 Gero bostgarren urtian
ez neukan inor partian.
Etxeko kaxan
dirua bazan
eta sarritan amari
bialdu neutsan ugari.

20 Egoten ginian sarri
Espainolak guztiz larri.
Heldu zirian
ordu txarrian
Cuernavacako matantzak
Espainolentzat garratzak.

21 Bariaku gau batian
heldu jatazan atian
soldadu batzuk
igonda zeintzuk
lotu ninduen sokakin
dihadarrez: "Muera el Cachupín".

22 Ordutik hona kartzelan
bizi naz ez dakit zelan.
Sarri ta askotan
daukat gogotan
amaituko balitzat bizia
hain daukat estu ta larria.

23 Españako konsula
kontu egin ez daukagula
ez daukelako
hemen haintzako
madarikatu gorriok
arერიuak guztiok.

24 Neure ama bihotzekual
Nun dozu orain Jaungoikua
alkantzetako
semiarentzako
zeuk euki zenduan indarra
hil jatsunian senarra?



01. **Daukadazanak:** dauzkadanak.

02. **Lelengoko:** lehen, lehenengo.
Bihargin: behargin, langile.

03. **Nintzaneko:** nintzen sasoiko, garaiko.

04. **Nituzala:** nituela.
Ta hain gitxi: eta gutiago, eta are gutiago.

05. **Zituezan:** zituzten.
Gobernuak beretu: gobernuak bere egin, berengandu, gobernuez jabetu.

06. **Suan:** hau segurrenik suar izango da.
Suar: suhar, gartsu, kementsu.

07. **Gizajua:** gaizoa, gizagaixoa, urrikalgarría.

Hernani ganen: Hernanigainen. Horrela mugagabea, izen hori daukan toki konkretu bat izan behar du. Bestela *Hernani gainea*, hots, Hernaniren gaineko edo goiko aldean.

Heridu eben: zauritu zuten.

08. **Eukan:** zeukan.
Txokua: besoko giltzaduraren barnealdea.

Imini barik: jarri gabe.
Noz bihar zan orduan huts: behar zenean huts egin, noiz behar orduantxe falta, gehien behar zenean orduantxe gabetu.

09. **Baga gerria:** gabe gerra, gerla.
Dagoz: daude.

10. **Deutsuna:** dizuna.

11. **Daukadaz:** dauzkat.
Onagaz: onez, onarekin.

12. **Zeinaen goxian:** erlatiboa, hots, egun haren, egun hartako goizean.
Ontzi: untzi, itsasuntzi.

13. **Fragata:** hiru mastako belauntzia.
Eguan: zegoen.
Enbarkau: enbarkatu, untziratu.
Morro: morroi, mutil.

14. **Ontziaen:** untziaren.
Almazenian: biltegian.
Kapitanaen esanagaz: kapitainaren esanarekin.
Pozagaz: pozez, pozarekin.

16. **Ugazabagaz:** ugazabarekin, nagusiarekin.

17. **Ekandu:** ohitura, aztura.
Bagiak: gabeak.
Legez: bezala.
Burua ikusi lei: bere burua ikus lezake.

18. **Halan:** hala.
Hogerleko: hoge errealeko, bost pezetako, duroa. Ameriketatik itzulitako zenbait euskaldunek, eta hauen eraginez he-

mengo batzuk ere, dolarrari hogereleko deitzen diote.

19. **Kaxan:** kutxan.
Neutsan: nion.

20. **Sarri:** sarritan, maiz, anitzetan.
Matantzak: hilketak.

21. **Bariaku:** bariku, ostiral, eguakoitz.
Jatazan: zitzaizkidan.
Zeintzuk: erlatiboa, hots, soldadu haiek.
Ninduen: ninduten.
Dihadarrez: oihuka, deihadarka.

22. **Zelan:** nola.
Balitzat: balitzait.

23. **Kontu egin ez daukagula:** egizue kontu, pentsa ezazue ez daukagula, ez bage-nu bezala.
Daukelako: daukatelako.
Haintzako: haintzat, haintzakotzat, kontsideratzen.
Arერიuak: etsaiak, izterbegiak.

24. **Alkantzetako:** alkantzatzeko, erdiesteko, lortzeko.
Hil jatsunian: hil zitzaizunean.

ZABALDU BELARRIAK

(Euskarazko Vertsoak. Eusebio Maria Azkue-koa. 279. or. Bilketa eta edizioa Asier Astigarraga eta K. Josu Bijuesca. Bilbao. Jarein)

01 Zabaldun belarriak
euskaldun maitiak
entzuteko gozaro
zuen albistiak.
Ez da beste soinurik
mundu zabaletan
zuen izena baino
aspaldi honetan.

02 Egia esateko
ez da erraz sinisten
begiz ikusi arren
jakuna jazoten.
Lau urte luzeetan
beti gerra baten
munduak harriturik
zaitue ikusten.

- 03 Zuek hasi zenduen
gerra odoltsua
bakarrik lagun zala
Jaungoiko ahaltsua.
Lurreko indar baga
gizonen ustian
gehiago argituteko
zeuen entzutian.
- 04 Barria ta burlia
areriuetan
ez zan beste gauzarik
lelengo egunetan.
Ehun bategaz legez
izanik gudia
uste eben bertatik
zuek goitutia.
- 05 Mila osuetako
talde ugariak
alde guztietatik
hona etorriak.
Arma, diru ta soinez
osaro jantziak
Inglaterratik daukez
kainoe barriak.
- 06 Gitxi balira legez
milazko ehunak
Kristinuak dituez
bilatzen lagunak.
Jente arrotzai deutse
bertara deituten
gozatuten dirala
bazterrak hondatzen.

07 Frantses, Ingles, Polako
Portuges galduak
Kristinu malmutzakaz
emonik eskuak.
Alde guztietatik
talde ugariak
betetan dituez gaur
euskaldun herriak.

08 Mendi basuetara
-dinue euskaldunak-
helduko dira nozbait
ibarren egunak.
Bakotxak ahal dabena
lepuan harturik
guazan ardura baga
ez euki bildurrik.

09 Ez ziran euskaldunak
behin bere menpetu
Erroma bera ez zan
eurakaz jabetu.
Gure asaba onakaz
ez gara inoz ahaztu
talde harro horrekaz
gura dogu neurtu.

10 Sua eta odola
bazter guztietan
alperrik da zabaltzen
euskal herrietan.
Egunik egunera
indarrak barriak
erakusten ditue
euskaldun argiak.

11 Batzuek amaitu ta
bestiak etorri
bazan areriuu
nunbaita ugari.
Itxasoz ta lihorrez
nok leike zenbatu
zenbat buru gaiztoko
hemen jakun sartu?

12 Euren soin ta armakaz
dira orniduten
menditarrak ez ditu
askuak bildurtzen.
Zelai ibarretara
hasi dira jasten
nunnahi areriuak
azartu bilatzen.

13 Hemen gara, mutilok
-dirautse euskaldunak-
igaro ziran nozbait
lelengo egunak.
Urten herrietatik
guria da lurra
bestelan ganian da
sua ta egurra.

14 Orma artetan dira
Kristinuak sartzen
baina keia emonik
ditue ateraten.
Zenbat triskantza gogor
Ingles hazurretan
baita bere ez gitxi
euren lagunetan.

15 Euskal herriak dira
arrotzen izua
hagaitik harriturik
gehiago mundua.
Banaka geldituak
dakusez igesi
lehen harro, apainduak
arrote ta itxusi.

16 Frantsesak batera ta
Inglesak bestera
duaz euren lekuan
barri emotera.
Polako, Portugesak
lagunak itxirik
ta hona etorriaz
ondo damaturik.

17 Amaitu ziran bada
burla ta barriak
bildurrik hartu ditu
zantzuen ordiak.
Bilatu, Kristinuak
gorunzko bidiak
ez zaituz lotsatuko
iges egitiak.

18 Baina atzian dira
euskaldun senduak
guztiz amaituteko
harturik goguak.
Behin hasitako saila
nahi dabe aurrera
garaitza osuagaz
orduan etxera.

19 Zelan ez da zurtuko gaur mundu guztia ta erakutsi argiro bere miraria ez badau inoz izan gerra honek besterik lurraren azalian bardindutekorik?

20 Zeruari eskerrak euskaldun maitiak berak sendatu ditu zuen egitiak. Beragan daukazue garaitza guztiak daben legez esango guda honen anaiak.

21 Goratuko zaituez jatorri guztiak ta benetan dontsutu huri ta herriak. Belaunik belaunera zuen entzutiak pozez beteko ditu zaharrak ta gaztiak.

22 Baita bere eskerrak errege jaunari Karlos Bosgarrengo ta zuen buruari. Bera izan dozue guztian laguna zuekaz igarorik gaba ta eguna.

23 Nok dau inoz ikusi halan erregerik gose egarrietan sarritan ez lorik? Bala artetan bere bat bere bildurrik ikusten ez jakola, nun da irudirik?

24 Imini bada laster bere jarlekuan eskribidurik dago halantxe zeruan. Alperrik amorratu guztiz infernua etsi daike benetan auzia galdua.



01. **Gozaro:** gozoki, samurki.
02. **Jakuna jazoten:** zaiguna gertatzen.
Zaitue: zaituzte.
03. **Baga:** bagarik, barik, gabe.
Entzute: ospe, fama.
04. **Barria:** barrea, irria.
Arerio: etsai, izterbegi.

05. **Osaro:** osoki, guztiz, arras.
Daukez: dauzkate.
- Ehun bategaz legez:** ehuneko talde batekin bezala.
Gudia: guda, gerla.
Eben: zuten.
Goitutia: goitzea, garaitzea, gaina edo goia hartu, menperatu.

06. **Milazko ehunak:** milako ehunka, ehundaka mila.
Kristinuak: Kristinazaleak, Maria Kristina erreginaren aldekoak.
Dituez: dituzte.
Deutse: diete.
07. **Malmutzakaz:** malmutzekin, maltzurerekin.
08. **Dinue:** diote, esaten dute.
Dabena: duena.
Lepuan: bizkarrean.
09. **Eurakaz:** eurekin, berekin.
Horrekaz: horreikin, horiekin.
10. **Egunik egunera:** egunetik egunera, egunez egun.
Ditue: dituzte.
11. **Areriu:** etsaia, izterbegia.
12. **Soin:** soineko, jazkia.
Askuak bildurtzen: asko izateak, kopuru handiak bildurtzen.
Jasten: jaisten, beheratzen.
13. **Dirautse:** dinotse, esaten diete.
15. **Dakusez:** ikusten dituzte.

16. **Itxirik:** utzirik, lagata.
17. **Zantzuen ordiak:** zantzo edo oihuen ordeak edo tokiak, hots, lehengo zantzo ausarten orde, orain bildurrik hartu dituela.
18. **Osuagaz:** osoarekin.
19. **Zurtu:** txunditu, harritu.
Bardindutekorik: berdintzekorik, bere parekorik.
20. **Daukazuez:** daukazue.
Daben legez esango: esango duten bezala.
21. **Zaitue:** zaituzte.
Dontsutu: bedeinkatu, santutzat jo.
Belaunik belaunera: belaunik belaun, belaunez belaun, gizaldiz gizaldi.
22. **Zuekaz:** zuekin.
23. **Jakola:** zaiola.
Nun da irudirik: non da antzekorik, haren irudia daukanik?
24. **Halantxe:** halaxe.
Daike: dezake.

Bertso sorta hau karlisten aldekoa da. Karlos bosgarrena aitortzen eta goratzen da errege jauntzat. Kristinuak edo Kristinatarrak, Maria Kristina erreginaren aldekoak, karlistei kontrajarriak ziren.

MANUEL ARALUZZEA

Gizon honetaz ez daukat beste daturik. Paperak *Muruetan jarriak* dionez gero, hangoa zela pentsatu behar. Eta iturria *Bonaparteren mikrofilmeak* izanik, joan zen mendearen erdi aldetik haranzkoa izan behar du.

AI HERIOTZIAREN

(*Berso berriak Manuel de Araluceac — Muruetan jarriak*)

(Bonaparteren mikrofilmeak. Euskaltzaindiaren Bilboko Azkue Biblioteka)

01 Ai heriotziaren
izenaren baltza
ezagutzen ez dabena
pobre ez aberatsa.
Instante triste hartan
hartzen dan mudantza
begiratu ia nun dan
lehenagoko antza.

02 Senblante palidua
arpegia hotza
harek triskatu leio
gizonai bihotza.
Lehenagoko balentziak
zer balio dautsa?
Denpora gutxi barru
izan bihar hautsa.

03 Badarue eleizara
lau lagunek andan
senideren batzuk bere
atzetiko bandan.
Kantu batzuk eginda
itxiten dabe han
gero haren aidiak
dagoz jan da edan.

04 Munduko denporie
gutziz da laburre
ehun urte barru egin bihar
gehienok agurre.
Gorputz hilak sartzen dire
lurraren barrure
arimak salbau ezkerro
ez dago ardure.

05 Persona egin arren
urrun ailegatu
Jaungoikoak egingo dau
han bere bilatu.
Geure artian ez dalez inor
bizirik geratu
horrexek egiten nau
neu bere ikeratu.

6 Hil arteraino munduan
bihar dogu bizi
Jaunak emango digu
zer dogun merezi.
Zerua geugan daukagu
nahi badogu irebazi
salbazinua ezin lei
diruegaz erosi.

07 Etorri ginalako
mundu laburrera
arrimatzen baguaz
heriotzan aurrera.
Bizi nahi izan arren
guk hemen aurrera
denpora gutxi barru
juan bihar lurrera.

08 Ezin gera konpondu
alkarregaz lurrien
heriotzia berriz
daukagu hurrien.
Egunaro bihar geunke
egon bildurrien
ze kontu emangogun
Jaunaren aurrien.

09 Arimak gorputzeri
egindakuen agur
Jaunaren tribunalien
izango da bildur.
Gorputz hila bertatik
hemen euten da lur
gorputzaren destinue
izanikan labur.

10 Espiritua beti
eukogu bizirik
akordau pekatuan
gauzanok jausirik.
Kristo ikusirikan
kurtzian josirik
ez daigun bota kontra
gehiago pausurik.

11 Gau ta egun daukagu
plagia tentetan
munduan askok hori
ez dogu pentsetan.
Sujeto gaizto hori
ez dalez kantsetan
prokuratu barik gaisda
zerue alkantzetan.

12 Angeru jagolia
beti dago gugaz
ez bakarrik egunez
baita bere gabaz.
Hak nahi leukena dogu
izatia beragaz
dagola diabrua
infernuen garraz.

13 Osasune euki arren
ez inor harrotu
San Martin handiari
sarri erregutu
konfesino barik ez dein
heriotza agertu
bestela gauza horrek
ein leike bildurtu.

14 Nahi dala zaharra eta
nahi dala gaztie
hilik geratuko da
jaio dan guztie.
Norberak euki arren
zerurako ustie
jakin ez norako dan
arima tristie.

15 Sarri bialdu deust Jaunak
burura abisue
ondo kuidatutzeko
arima gaisue
gorputzak euki arren
pekatura sue
ez, bada, galtziako
gloria gozue.

16 Arima gorputzegaz
dago peligruen
derrepente sartzeko
betiko infernuen.
Biak dabiltzalez
alkarren onduen
gorputzak arimia
galdu lei behinguen.

17 Betiko martxie daukagu
heriotzako orduen
egunaro bihar geunke
hau euki goguen.
Ezin gera konpondu
alkarregaz munduen
gomutatzen ez dogulako
gero zer dague.

18 Horra hemeretzi bertso berri
letra moldaduen
Manuelek atariak
ahal daben moduen.
Gaba partian edo
ordu beranduen
egunez zelan naizen
inon aginduen
inoz ez baino hoba da
gauzori beluen
hau esaten goguak
obligau nenduen
ustez beharrizena
badala munduen
neu txarrentzat jarriarik
guztion buruen.

01. **Dabena:** duena.
Antza: itxura, tankera.
02. **Senblante:** aurpegi, begitarte.
Palidua: zurbila, beluria, kolorga.
Triskatu: puskatu, zehatu, hautsi.
Leio: liezaioke.
Balentiak: kemenak, kuraiak.
Dautsa: dio.
Bihar: behar.
03. **Badarue:** badaroe, badaramate.
Andan: hilkutxan, zerraldoan. Eramaleei *andariak* deritze.
Senide: ahaide.
Itxiten dabe: uzten dute.
Aidiak: ahaideak, senideak.
04. **Denporie:** denpora, denbora.
Ez dago ardure: ez du ardura, axola.
Dago hau, neurriak eskaturik, gaizki luzaturik dago *dau* ordez.
05. **Dalez:** dan lez, denez, denez gero.
06. **Ezin lei:** ezin liteke.
08. **Alkarregaz:** elkarrekin.
Hurrien: hurrean, hur, hurbil.
Egunaro: egunero, egun oro.
Geunke: genuke.
Emangogun: emango dogun, dugun.
09. **Euten:** egoten.
10. **Eukogu:** eukiko, edukiko dogu, dugu.
Akordau: akordatu, gogoratu, oroitu.
Gauzanok: gagozanok, gaudenok.
Kurtzian: gurutzean.
Daigun: dezagun.
11. **Plagia:** gaiztakeria, demonioa.
Tentetan: tentatzen.
Pentsetan: pentsatzen.
Kantsetan: kantsatzen, nekatzen.
Alkantzetan: alkantzatzen, eskuratzen, erdiesten.
- Prokuratu:** ahalegindu, saiatu.
Barik: bagarik, gabe.
Gaisda: gatx, gaitz, zail da.
12. **Jagolia:** jagolea, zaintzailea, guardakoa.
Gugaz: gurekin.
Hak: hark.
Beragaz: berarekin.
Diabrua: deabrua, debrua.
Garraz: garretan, sutan.
13. **Osasune:** osasuna, osagarria.
Sarri: sarritan, maiz, askotan.
Dein: dadin.
Ein leike: egin lezake.
14. **Nahi... nahi:** nahiz... nahiz, zein... zein.
15. **Deust:** dit.
Kuidatu: zaindu, jagon.
Gaisue: gaisoa, eria.
Galtziako: galtzeko.
16. **Gorputzagaz:** gorputzarekin.
Peligruen: arriskuan, perilean.
Dabiltzalez: dabiltzan lez, dabiltzanez gero.
Galdu lei: galdu liteke.
Behinguen: behingoan, berehala, bat batean.
17. **Martxie:** martxa, abioa.
Gomutatu: gogoratu, oroitu.
Daguen: dagoen.
18. **Moldaduen:** moldatuan, inprimatuan.
Zelan: nola.
Inon: inoren.
Hoba: hobe.
Gauzori: gauza hori.
Beluen: belu, berandu, berant.
Esaten... obligau nenduen: esatera obligatu, behartu ninduen.
Beharrizena: beharrizana, beharra, premia.

JUAN ANTONIO GABIOLA

Juan Antonio Gabiola Lekerika-Uriarte Nabarnizen jaio zen 1800. urteko Azaroaren 16an eta gaur Ibarrangeluko auzo den Akordan bizi izan zen, Iduriabeko baserrian.

1867-KO SAN MIGELAK

(Abel Muniategik transkribaturiko orriak, Ereñoko Jorge Elordietak kantaturik)

- 01 Mila zortzirehun eta hirurogeita zazpian funtzino haundi bat pasau zan Ereñoko herrian. Sei gizon ta hiru mutil sartu presondeian motibo haundi barik nire eritxian.
- 02 Bagin eta semea gizonak zoliak kontra izan ditue herriko nausiak. Haren motiboak be ez ziran haundiak preso eroateko aita-seme biak.
- 03 Mazeru ta semea hor dagoz pobriak haren kontrariuak ez ziran hobiak. Haren motiboak be ez ziran haundiak preso eroateko aita-seme biak.
- 04 Konpainian artean bat dogu maiorra sekula ez dana izan gizona doilorra. Martin Anton izena Urrutia nonbria askoren ustez hau da gizona noblia.

05 Hirutan esantsien:
"Hori, baina ez zu"
Gainera neroneri
ez egin ukatu.

.....
.....
.....
.....

06 Legeak agintzen eban
"Consejo de Guerra"
haren etxean bazan
orduan negarra.
Ardien pekatuak
bildotsak pagetan
ete dabilzan nago
neu orain pentsetan.

07 Nire koinatu ona
Gaztelu Txikia
gizonen lagungarri
gustoz etorria.
Sartu Gernikan eta
hartu Vitoria
zeuk logratu euskuzun
daukagun bizia.

08 Beste gizontxo bat be
hor Artiakua
tragotxo bat edaten
ha deskoidatua.
Ha inozentzian ta
besteak kontuan
ha be sartu ei dabe
besteen lazuan.

09 Beste mutil gazte bat
Txarakanekua
kompainian esana
horrek eindakua
ekarten izan zala
tanbolinterua
beste motibo barik
hori preso dua.

10 Kristobalen motiboa
nahi dot esplikatu
tanbolinteruari
eskutik tiratu.
Ugazabak ezarri
txakurrak segitu
paradak egin eta
Gaztelura sartu.

11 Kristobal Eleizalde
motibo haundi gabe
noizbait egingo gara
librantzaren jabe.
.....
.....
.....
.....

12 Bederatzigarrena
tanbolinterua
jornala irabazten
pobre koitadua.
Ereñon jo ebala
San Migelen soinua
beste motibo barik
hori preso dua.

13 Bakerik ezin egin
gure herrietan
sartu behar genduan
gero juezetan.
Juezak izan dira
gizonak zoliak
ezagutu ditue
gure eitadiak.

14 Gizon korrientea
gure alkatia
nahi izan eban horrek
bakeak eitia.
Baten bat izan da han
atizadoria
nor dan jakinagaitik
nonbretan ez noia.

01. **Funtzino:** funtzio, ekitaldi.
Pasau: pasatu, gertatu.
Barik: bagarik, gabe.
Eritxian: iritzian, ustean.
02. **Zoliak:** argiak, bizkorrak.
Ditue: dituzte.
Haren: harein, haien.
Be: bere, ere.
Eroateko: eramateko.

03. **Dagoz:** daude.

04. **Doilorra:** zitala, gaiztoa.
Nonbria: nonbrea, deitura, abizena.

05. **Esantsien:** esan zien.

06. **Consejo de guerra:** gerra kontseilua,
gerla arauko epaiketa.
Pagetan: pagatzen, ordaintzen.
Ete: ote.
Pentsetan: pentsatzen.

15 Gizon nobliak dira
gure abadiak
erromerian kontra
parerik gabiak.
Ezagutu ditugu
euren eitadiak
ezagutu ditue
euren eitadiak

16 Batzuk ibiltan dira
sasoia danian
papel ta tinterua
harturik aldian.
Harek egiten dabe
nahi daben guztia
majo fastietan dabe
Ereñoko herria.



07. **Logratu:** lortu, erdietsi.
Euskuzun: zeunskun, zenigun.

08. **Artia:** Arteaga, Ereño eta Kortezubi ar-
teko herria.
Ha: hura.
Lazuan: lakioan, tranpan.

09. **Eindakua:** egindakoa, egina.
Ekarten: ekartzen.
Dua: doa.

10. **Ugazaba:** nagusia.
Ezarri: axatu, xaxatu, txakurra norbai-
ten atzetik bidali.
Paradak: geldialdiak.

11. **Librantza:** librakuntza, askatasuna.

12. **Koitadua:** gaizoa, gizajoa.
Ebala: zuela.

13. **Juezetan:** epailetan, jujetan.
Ditue: dituzte.

- Eitadiak: egitadeak, egintzak.
14. **Korrientea:** arrunta, normala.
Eitia: egitea.
Atizadorea: sustatzailea, eragilea, zirika-tzailea.
Nonbretan ez noia: nonbratzera, izen-datzena ez noa.

15. **Abadiak:** apezak.
16. **Tinterua:** tintontzia.
Aldian: aldean, soinean, norberagan.
Harek: hareik, haiek.
Daben: duten.
Fastietan: fastidiatzen, hondatzen, izorratzen.

Bertso sorta honek badauka orijinalean oso interesgarria izango zen antza. Badago balada zaharren aireko ritmo bat, bigarren eta hirugarren eta beste zenbait bertsoetako errepika eta guzti. Badago kontakera orokorrean halako xalotasun tragiko bat. Badago hainbat zertzelada, sorta honetan somatzen dena, baina zoritxarrez bistan da nahiko bertso lorrendua dela. Zati batzuk falta, beste zati batzuk zentzu handirik gabe errepikatuak -hamabosgarreneko *euren eitadiak*-, bertso barruan errima aldaerak... Nahizta Bizkaiko tradizioan bi puntu batera eta bi bestera erimatzea normala izan, sorta honek ez dirudi horrela taxutua dagoenik. Gehienak launaka errimatzen direlarik, besteek ere hala behar zutelapentsatu behar da. Neurriko akatsak eta zenbait hitz dudazko ere *fastietan* adibidez- lekukoari egotzi behar zaizkiola dirudi.

Iruzkina formal hauez aparte, bertsook kondaira harrigarria kantatzen dute. Abel Muniategiren argitasunen arabera, Ignacio Arrupe alkateak eta bi abadek, Don Juan Ignacio Goitisolok eta Don Juan Manuel Urrutia Arrupek -alkatearen iloba berau- San Migeletako erromeria debekatu zuten.

Bestetik Martin Anton Urrutia Arrupe daukagu, zinegotzia, gorago aipatu abadeetarikoa baten lehengusua eta alkatearen iloba. Honek 1.867. urteko San Migeletan erromeria egin zuen eta horregatik epaitu eta heriotzara zigortu zuten Gasteizen, Gerra Kontseiluan, beste zortzi lagunekin batera, euron artean Eako danbolintari gizajoa. Kondenatuena zorianerako, Martin Anton Urrutiaren koinatu Gaztelu Txikik, Gazteluko Juan Migelek, idi uztarria saldu eta haien diruz Gasteizko epaileak erosi eta presoak askatu zituen. Erromeri soil batek pentsa nolako ostea ekar zezakeen, apaizak eta agintari inkisitorialak tartean zirenean.

FELIPE ARRESE BEITIA

Felipe Arrese Beitia Bizkaiko Otxandion jaio zen 1841. urtean eta bertan hil zen 1906. urteko urtarrilaren 16an. *Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoak* heriotz urtea 1909 dakar, baina nik begiraturiko beste iturri gutietan 1906 dakar.

Felipe Arrese lanbidez eskultorea, *santugina* zen. Bere bizitza eliz, etxe eta ikastetxeetan iragan zuen, eskulturan eta hargintzan. Donostiko Instituto Probintzialeko gizon ospetsuen irudiak, adibidez, berak eginak dira.

Bertsolari eta poeta gisa ugaria izan zen. Hainbat sari irabazi zuen eta ehundaka gairi buruz bertsoak jarri zituen, jenero ezberdinetan, orduko aldizkari gehienetan parte hartuz. "Erdi olerkari, erdi bertsolari honen fama eta itzala foruen galerarekin bat egin eta sentsazio hori adierazten ondo jakin izanagatik etorri zitzaion; bere mezua herriaren gogoarekin guztiz bat zetorren eta. Bere olerki, soneto, oda eta itzulpenetan gehien erabili zituen gaiak aberri-abestiak eta erlijiozkoak izan ziren". (*Hiztegi Entziklopedikoa. Elhuyar*).

Arrese Beitiaren estiloa herri hizkuntzaren eta garaiko hizkuntza kultoaren konbinapena da. Bizitza guztia Otxandion eginik, eta lanagatik jendearekin zeukan harreman zuzena bide, ez da harritzekoa herri hizkuntzaren esaera, esamolde, lexiko eta jite guztiak agertzea. Baina bestetik euskara landua eta jagia dauka, autodidakta gisa ikasia gehienik, baita garaiko euskaltzaleekiko harremanez ere: Etxegarai, Azkue, Manterola, Kanpion, Arana, Duvoisin, D'Abbadie...

Baditu esaldi oso luzeak eta, menpeko perpausez elkargainduak. *Gure Arbola Gazteari* sortako bigarren bertso osoa, adibidez, esaldi bakarra eta jarraitua da dena, eta pentsa hamarreko handian gabiltzala. Erlati-boari buruz nabarmena da, oraindik ere errezeloz begiratzen diren formak -*zein, zeintzuk, nok, non...*- zer lasai eta normal erabiltzen dituen.

Perpauaren ordenan ere hiperbatonak eta horrelako baliabideak noiz-nahi sartuko ditu.

Estiloari buruz, galderak, interjekzioak eta gisako indargarriak asko darabiltza. Baita errepika ere, dela hitz bat edo egitura bat. *Haritzari* sortako bigarren bertsoan, adibidez, euskaldun hitza sei aldiz dator. Edo *Neguko gau izugarri bat* sortako bosgarrenean *nun* adberbio galdekariaz bost perpau jarraian doaz. Edo hurrengo bertsoan *galdu* aditza lau aldiz: *galdu zenduan... galdu zenduzan... galdu zenduan... galdu dozu.*

Azkenik, bada gauza bitxi bat Felipe Arreserengan. Beherago aipatzen eta iturri nagusitzat erabili dudan *Olerkiak* liburuaren itzul-azalean, gaztelaniaz egiten den autorearen aurkezpenean, hauxe dio: "Gure Arresek asko kantatu zuen eta agian gure lurreko poetarik oparoena izan da... Maitasun profanoa izan ezik, herriaren musak kantatzen duen guztia kantatu du". (Neuk euskaratua). Badirudi maitasun hori ez zuela askorik praktikatu.

ARBOLA BAT ZAN

(**Olerkiak.** Felipe Arrese ta Beitia. 26. or. *Len eta orain 1.* *Euskal Idazleak.* Euskaltzaindiaren ardurapean. Bilbao)

01 Arbola bat zan Paradisuan
Jaunak apropos jarria
mundu guztiak hartu egion
lotsa ta itzal handia.
Bere azpian bizitea zan
aita Adanen gloria
handik kanpora zer topau eban
ez bada negargarria!

02 Arbola santu haren azpian
bizi zan zeruan legez
eukazalako atsegin danak
eta nekerik baterez.
Ai begiratu baleutsa beti
lotsa on eta itzalez
mundua ez zan gaur aurkituko
honenbeste atsekabez.

03 Arbola bat zan Bizkaian bere
neure anaia laztanak
zeinen azpian pozez beterik
egoten ziran asabak.
Kerizpe zabal hartan jarririk
eginda euren batzarrak
buztarri baga nasai ta libre
bizi ziran Bizkaitarrak.

04 Bere azpian umildu ziran
Errege Gaztelakuak
eta lekurik ez eben izan
sekula barriz moruak.
Atzera bura badogu izan
libre lehen ginan lakuak
itxi daiguzan erdaldunentzat
erdaldun diran kontuak.

05 Ahaztu daiguzan geure artean
izan diran haserriak
izan gaitean anaia eta
euskaldun zintzo garbiak.
Betor guraso zaharren fedea
betoz asaben legiak
bere negarrak lehortu daizan
ni jaio nintzan Herriak.

06 Oh neure Herri maite maitea
zakustaz triste negarrez
zure alabak euren buruak
baltzez estaldu dituez.
Trentza mardoak tiraka atera
ta sutara bota dabez
gaur euskaldunak dirala horrek
ezin ezagutu leikez.

07 Isildu ziran neskatxen kantak
mututu artzain txistuak
zelai zabal ta jolas-lekuak
gaur dira basamortuak.
Arroak behera itxasoruntza
doiazan errekatxuak
gau eta egun txilioz dagoz:
Ai gara Gaztelakuak!

08 Bakarrik dakust pozgarritxo bat
euskaldun amen fedia
benturaz honek bigundu leike
Jaungoikozko haserria.
Eta zerutik jatsi barriro
galdu zan libertadia
mundua mundu bizi dakigun
Gernikako Arbolia.



01. **Egion:** ziezaion.
Lotsa: ahalke.
Topau eban: topatu, kausitu, aurkitu
zuen.

02. **Legetz:** bezala.
Eukazalako: zeuzkalako.
Baperez: bat ere ez.
Baleutsa: balio.

03. **Bere:** ere.

Zeinen: arbolaren. Erlatiboa.
Asabak: arbasoak, antzinako gurasoak.
Kerizpe: geriza, itzal, itzalpe.
Buztarri baga: uztarri gabe.

04. **Barriz:** berriz, ordea.
Atzera: berriz, berriro.
Gura: nahi.
Lakoak: bezalakoak.
Itxi daiguzan: utz ditzagun.

05. **Daizan:** ditzan.
 06. **Zakustaz:** ikusten zaitut.
Estaldu dituez: estali dituzte.
Trentza: kopetak, ilekordak.
Mardoak: mardulak, beteak eta sendoak.
Dabez: dituzte.
Horrek: horreik, horiek.
Leikez: litezke.
 07. **Arroak:** amildegiak. / Ibarrek, haranak.

- Doiazan:** doazen.
Txilioz: garraisika, ohiuka.
Dagoz: daude.
 08. **Dakust:** ikusten dut.
Benturaz: menturaz, agian, beharbada.
Leike: lezake.
Jatsi barriro: jetxi berriz, berriro.

Bertso hauek Bizkai aldean oso kantatuak izan dira. Euskaldun askok buruz ikasiak zeuzkan eta gaur ere bat baino gehiago izango da dakizkienik. Orixek ere zerbaitegatik sartu zituen bere *Euskaldunak* poeman. Zenbait bertsoetako oinetan datozen *oa-ea* amaiak *ua-ia* jarri ditut, errimari hobeto egokituz gainera, beste aldaera batzutan hala datozelako eta Arrese Beitiak hala ohiago zuelako.

NEGUKO GAU IZUGARRI BAT

(Idem. 28. or.)

- 01 Neguko egun laburrian behin
 galdurik mendi artian
 nahi ez nebala aurkitu nintzan
 itxasuaren aurrian.
 Ezkutau jatan eguzkia ta
 nun nenguan ez nekian
 gaba egiten geratu nintzan
 bertan hatx zulo batian.
- 02 Ilunen handiz gau erdiruntza
 ez nekusan lur zorua
 begiak gora jaso nituzan
 eta hain gitxi zerua.
 Larritu nintzan nire Herrian
 jarri ete zan linbua
 edo gelditu neu ete nintzan
 begietatik itsua.

- 03 Eta halan bere gorputzak nahi lo
 baina ez ezpirituak
 gogora etorri jatazalako
 meure herriko kontuak.
 Ez neban uste inoz zirala
 hatxak hain errukitsuak
 zeintzuk lagundu eusten kantetan
 negarrez sentimentuak.
- 04 Bakar bakarra nintzan gizonik
 berba soinuak ugari
 nire ahotik urteten zana
 hatxak erantzun bertati.
 Nozik nozera goiz arteraino
 lagunduagaz alkarri
 kantau geuntsazan koplá samurrok
 asaba zaharren lur honi.
- 05 Nun gorde zinan, egun ederra?
 Nun ezkutau, eguzkia?
 Nun desagertu zaree, izarrak?
 Nun ostendu, ilargia?
 Eta azkenez nun estaldu zu
 ni jaio nintzan Herria
 zuri begira zoratzen zana
 lehenago mundu guztia?
- 06 Nun dozu lehengo argi ederra
 inok ez lako gloria?
 Ai ene, dana galdu zenduan
 zakustaz ilun jarria!
 Galdu zenduzan eskubideak
 galdu zenduan legia
 galdu dozu ia berbetia ta
 asaba zaharren ondria.
- 07 Gozotasunik inun ez dakust
 dana dot garratzgarria
 gabau irago artian hemen
 nago estu ta larria.
 Negu baltz honek izango ahal dau
 ondoren udabarria
 ikusi daidan neure Herria
 barriro loraz jantzia.
- 08 Oh neure Herri aukeratua
 milaka herrien artian
 dohe askogaz jantzia zara
 ariman ta gorputzian.
 Adimentuan zuhur ta argia
 bizi ta zaila lanian
 alperkeriak ez dau lekurik
 ez behintzat zure lurrian.
- 09 Geiso txar batek baina zinduzan
 ia antxina zu hartu
 urtiak asko juanagaitik
 gatxak aurrera jarraitu.
 osatuko ete zarian bere
 sarritan nozu bildurtu
 hunetaraino sartu jatzula
 gatx hori neban sinistu.
- 10 Jira egizu mundu-bolia
 pozezko egunak erdue
 zatoze arin egun argiak
 etortekuak bazare.
 Nire begiok lausotu ziran
 ezer ikusten ez dabe
 baldin aguro ez bazatoze
 hila aurkituko nozue.

11 Erdue arin ez diralako
jausi hatx eta mendiak
ez dira agortu errekek eta
ez mututu iturriak.
Hain gitxi olak eta errotak
isildu gabi ta harriak
negu danetan jasoten dabez
tontorrek buru zuriak.

12 Zatoze, bada isildu ziran
hontzen garaitz-dihadarrak
ia aspaldian ez dira entzuten
gautxori ta saguzarrak.
Ez dakit nora ezkutau ziran
ipurtargi huts zantarrak
izarrak baino harruago lehen
hemen argitzen ziranak.

13 Ene! Zerua izarratu jat
agertu da ilargia
itxas ederra isildu da ta
dirudi landa zelaia.
Ipar haizia gozo mehe dator
Gaztelaratu hegoia
mundua jiran hara badakar
nik gura neban garaia.

14 Oilarrak horra kukurrukuka
balira legez zoratu
goizeko izarra behin bere baino
argiago jat agertu.
Orain benetan egun ederra
datorkula dot sinistu
iluntasunak igesbidia
deritxat dabela hartu.

15 Nire begiak argitu dira
poza sartu jat barrura
ez ahal da atzera bart lako gaurik
ez etorriko mundura!
Ordu hain larri eta ilunai
betiko agur eginda
hego bi baldin euki banituz
igoko neban zerura.

16 Ezagutzen dot denporak txandan
txar eta onak dirala
gure munduak burpilak legez
jira egiten dabela.
Gabak hurrengo dakar eguna
neguak udabarria
honek atzetik uda loratsu
eder ta zoragarria.

17 Neure Herria, itxaron bada
itxaron egizu poza
Jaunak zeruan lur onarentzat
gorderik daukan garaitza.
Jarraitu beti goiz eta arrats
eginaz zeure otoitza
eleizatxo bat begitanduten
niri jat zure eskaratza.

18 Keiagaz nahasi bertatik dakust
gora doian erregua
zure bihotza dagoalako
fedian ixiotua.
Gero zerutik inontz gozuaz
zara zu bedeinkatua
horrexegatik nik deitu neutsun
Oh Herri aukeratua!

19 Ehunda hogeita zazpigarren da
Dabiden salmo artian
Herri maitia, kanta samur hau
gorde egizu bihotzian.
Zure siniste ta ohiturentzat
dator hau bete betian
Igarla Santu Erregiagaz
kantauko deusut batian.

20 "Dohatsu dira gizon guztiak
bizi diranak lurrian
Jaungoikuaren bildur santu ta
bere lege ta bidian.
Oh, zu justua, zuk jango dozu
neke ta lanen atzian
euren frutua bakian eta
bedeinkazino artian.

21 Zure emazte leial garbi ta
etxian gorde zaliak
mahasparra batek legez emongo
ugari dituz umiak.
Oliboaren pipit ederrok
mahaian inguru jarriak
eukiko dozuz bedeinkazinoz
diralako etorriak.

22 Sion gainetik isuri beizuz
Jaunak zorientasunak
erabiliko dozuz goguan
Jerusalengo ondasunak.
Gozau egizu bizi guztian
eta ikusi lurrian
zure semien semeak eta
baita Israel bakian".



01. **Nebala:** nuela.
Ezkutau jatan: izkutatu zitzaidan.
Gaba: gaua.
Hatx: haitz.
02. **Ez nekusan:** ez nuen ikusten.
Nituzan: nituen.
Eta hain gitxi: eta are gutxiago.
Ete: ote.
03. **Halan bere:** hala ere.
Jatazalako: zitzazkidalako.
Neban: nuen.
Zeintzuk: hatxak. Erlatiboa.
Eusten kantetan: zidaten kantatzen.
04. **Berba:** hitz.
Urteten zana: jalgiten, ateratzen zena.
Bertati: bat batean, kolpera.
Nozik nozera: noizean behin, aldizka, noiztenka.
Lagunduagaz: lagunduz, lagunduarekin.
Kantau geuntsazan: kantatu genizkion.

05. **Zaree:** zarete.
Ostendu: izkutatu, gorde.
06. **Inok ez lako:** inork, nehork ez bezalako.
Zakustaz: ikusten zaitut.
Zenduzan: zenituen.
Berbetia: berbeta, mintzaira, hizkuntza.
Ondria: ohorea.
07. **Ez dakust:** ez dut ikusten.
Gabau: gau hau.
Irago: igaro, iragan.
Ahal: desira edo itxaropena adierazteko partikula.
Daidan: dezadan.
Barriro: berriz, berriro.
08. **Dohe:** dohai, dohain.
Askogaz: askorekin.
Zuhur: zoli, erne, bizkor.
Zaila: nekez nekatzen edo amore ematen duena.

09. **Geiso:** gaisotasun, eritasun.
Zinduzan: zintuen.
Antxina: duela anitz denbora, aspaldi.
Gatxak: gaitzak.
Osatuko ete zarian: sendatuko ote zaren.
Bere: ere.
Sarritan: maiz, anitzetan.
Hun: muin.
Jatzula: zaizula.
10. **Jira egizu:** bira ezazu, itzul ezazu.
Bolia: bola.
Erdue: etor zaitezte.
Zatoze: zatozte, erdue.
Arin: azkar, fite, agudo.
Dabe: dute.
11. **Jausi:** erori.
Errekak: ibaiak.
Hain gitxi: gutiago, are gutxiago.
Olak: burdin fabrikak.
Gabi: oletako mailu handia.
Dabez: dituzte.
Tontorrak: erpinak, gailurrak.
12. **Zantarrak:** zitalak, madarikatuak. Txori eta pizti hauek etsai politikoen ezizenak dirudite.
13. **Izarratu:** izarreztatu, izarrez bete.
Jat: zait.
Landa: belardi, pentze.
Zelai: lau, aldapa gabea.
Hegoia: hego haizea.
Mundua jiran: mundua bueltan, itzulian.
Gura neban: nahi nuen.
14. **Legez:** bezala.
- Datorkula:** datorkigula, heldu zaigula.
Deritzat dabela: deritzat, iruditzen zait duela.
15. **Atzera:** berriz, berriro.
Bart lako: barda bezalako.
Hego: hegal.
Banituz: banitu.
16. **Burpilak legez:** gurpilak bezala.
Hurrengo: ondotik, ondoren.
Atzetik: gibeletik.
17. **Egizu:** ezazu.
Garaitza: garaipena, nagusitzea.
Begitanduten niri jat: niri begitantzen, iruditzen zait.
Eskaratz: sukaldea.
18. **Keiagaz nahasi:** kearekin, ekearekin nahasian.
Ixiotua: izekia, piztua.
Inontz: ihintz.
Neutsun: nizun.
19. **Igarla Santu Erregiagaz:** Profeta Saindu Erregearekin.
Kantauko deusut: kantatuko dizut.
20. **Dohatsu:** zoriontsu.
Atzian: gibelean, ondoren.
Bedeinkazino: benedizione, bedeinkapen.
21. **Pipit:** pipita, zenbait fruturen hazia.
Mahaian inguru: mahai inguruan.
Dozuz: dituzu.
22. **Beizuz:** biezazkizu.
Gozau egizu: goza ezazu.

GURE ARBOLA GAZTEARI

(Idem. 78. or.)

- 01 Itxasoaren erditik inoz
 farolen bati begira
 piloto larri ibili dana
 ontzia salbau ezinda
 nekez da larri zelan heltzen dan
 nahi eban portu ta herrira
 modu berean ni bere nator
 arbola honen azpira
 basamortutik gabaz hementxe
 ikusten neban argira.
- 02 Leiak gogortu arren goietan
 inoz edurtza handiak
 urtzen badiu ikutuagaz
 eguzkiaren begiak
 zer egin daike gaur nire bihotz
 bigun ta argizagiak
 ikututean aurrean dodan
 euskaldun izar biziak
 agertu baino neure barruko
 sentimentu zahar guztiak?
- 03 Arantza min bat dot bihotzean
 hodei astunak buruan
 neure eztarri moteltxo honek
 trumoe baten moduan
 adierazo daian nahi neuke
 tximistazoka munduan
 zelan oraintxe sartu garean
 arbolearen ortuan
 eta hobeto esan dagidan
 euskaldun paradisuan.
- 04 Jakin begie gaur Haretx honen
 azpira batu gerala
 euskaldun zaharren seme zintzoak
 erdaldun bildurrik baga.
 Maketo batek hemendik bota
 eginikoak bagara
 gura dogula urtero batu
 dei egitera bertara
 egin euskuna egin ebal
 nausi zalako indarra.
- 05 Jakin begie bere ezpata
 gaur bada bihar ez dala
 jakin begie sekula baina
 ez dala hilgo Euskara.
 Arbola zaharra hil bazan bere
 seme bat hemen badala
 eta zelan dan berau orritsu
 eta besangaz zabala
 bere azpian zaharren batzarrak
 oraindik eingo dirala.



01. **Piloto larri ibili dana:** larri ibili den pilotua.
Zelan: nola.
Nahi eban: nahi zuen.
Ni bere: ni ere.
Gabaz: gauez.
02. **Leiak:** izotzak, hormak, jelak.
Edurtza: elurtza, elur kapa handia.
Ikutuagaz: ukituarekin, hunkituz.
Daike: dezake.
Argizagiak: argizariak, erleek jariatzen duten gaia bezain bigunak. *Argizagi* zeruan ageri den edozein gorputz ere izanik, agian hortik uler daiteke, ondorengo izar biziaren kontraposizioz.
03. **Hodei:** laino trinkoa. Toki batzutan trumoi lainoak eta trumoia bera ere bai.

Adierazo daian: adieraz dezan.
Tximistazoka: tximistadaka, oinaztu kolpeka.
Ortuan: baratzean.
Dagidan: dezadan.

04. **Begie:** bezate.
Haretx: haritz.
Baga: bage, gabe.
Euskuna: ziguna.
Ebala: zuela.
05. **Sekula baina:** sekula santa. *Baina* honek, bere kutsu adbersatiboz, aurreko hitza indartu egiten du.
Bazan bere: bazen ere.
Orritsu: hostotsu.
Besanga: zuhaitzaren adar handietakobat.

GERNIKARI

(Idem. 82. or.)

- 01 Ez dakit berba egin
 ala egon mutu
 hainbeste jente argik
 egin nau bildurto.
 Eta zer egin ia?
 Atzera bihurtu?
 Ezer kantau bagarik
 bazter baten sartu?
 Ez horrelangorik, ez,
 nahiz zerbait lotsatu
 nahi dot neure barrua
 hementxe askatu.
- 02 Hemen autortu nahi dot
 nezala euskalduna
 gure berbetearen
 laztan ta kutuna.
 Beti maitetu badot
 antxinatasuna
 eta gure Haretxak
 eukan osasuna
 orain barriz Gernikan
 gertetan jakuna
 ikustean gordeko
 dot ixiltasuna?

- 03 Ez, alabau nahi zaitut
 Gernika gurea
 zarealako ondra
 handiko andrea.
 Baina ondragarrien
 dozu Arbolea
 zein dan Euskal Herriko
 gure banderea
 agertzeko danai zer
 zan gure legea
 libertadea baino
 lehenago fedea.

- 04 Oh, Gernika, ez daukat
 nik behintzat ahazturik
 ez deutsut gaur itxiko
 itandu bagarik.
 Jarten zireanean
 zaharrak etorririk
 zure Arbolapean
 anaia eginik
 non zan beste lekutan
 hain toki librerik?
 Paradisua deitu
 hagaitik neutsun nik.

- 05 Hiponako Obispo
 zanaren semiak
 hagaitik hemen dabez
 ase egarriak.
 Erabiliagaitik
 enparau herriak
 zugan dabez, Gernika
 ipini begiak
 zure doiak badira
 barriz hain handiak
 zelan kantau gaur nire
 lira motz txikiak?

- 06 Ai kantau ahal baneizu
 jatortzun gloria!
 Ai baneki zeharo
 zure historia!
 Ai baneuka gaur behar
 dan jakituria!
 Baina zelan ez nazan
 asko ikasia
 parkatu egidazu
 bihotz larregia
 eukirik izan banaz
 azartuegia.

- 07 Parkatu egidazu
 baina nahi dot kantau
 kantetako dalako
 gaur jaio egun hau.
 Eguzkiak goixago
 ta argiago urten dau
 berberak kantetako
 bizkortu bere nau
 halan beste bertso txo
 hiru bat edo lau
 kantau baga amaitu
 ez dot gura lan hau.

- 08 Kantauko deutsut bada
 Gernika argia
 egoki datorrela
 eskola barria.
 Nok dakarren oliba
 berde pozgarroia
 baketzeko gu jai
 ginean Herria
 erantzita erderazko
 usaindun jantzia
 salbau daigun euskaldun
 legien ontzia.

09 Kantauko dot gabetan
legetxe zuzia
izango dala gure
farola argia.
Kantauko dot izango
dala mintegia
ereinik osasuntsu
beti dan hazia
izan dedin Jesusen
gero tantaiduia
ipinteko dar dar dar
infernu guztia.

10 Kantauko dot gainera
dala iturria
zerutik dakarrena
bere jatorria.
Kantauko dot oraindik
bere edaria
izango dala gatzik
baga ur garbia
iruntsiten dabena
bertako euria
dala Aita Santuaren
txabolako ardia.

11 Kantauko dot zan legez
Noeren arkea
berau izango dala
barku bat gurea.
Berau gaur bildurgarri
jakun uriolea
amaitu arte oso
gure aldospa
non aterpetuko dan
euskal bizitzea
ito ez dedin guztiz
gure lur maitea.

12 Kantautko dot izango
dirala frutuak
etxe santu horrenak
miragarritzkuak.
Hegazti zuri batek
legetxe heguak
zabaldua batuko
ditu oilaskuak
berorrek zuriturik
bihotz nabartxuak
urtengo dabe danak
uso bihurtuak.

13 Oh landara barria
zatzakuna sortu!
Ezin zaikedaz ia
gehiago goratu.
Buruaz zeruari
zeuk arren ikutu
huri polit hau daizun
besazpian hartu.
Bakit lurrik onena
dozula bilatu
Gernika ebalako
Jaunak bedeinkatu.

14 Eleixako Artzain bat
ze ondra handia
etorri da jartera
lehenengo harria.
Lumen bat izango ahal da
ondo ebagia
ipinteko gaur hemen
jazo dan gzutia
dalako Gernikaren
alabagarria
zeinek gaur alegere
daukan arpegia.

15 Maiatzaren bosteko
oh egun kutuna
Gernika, ahaztu behar
inoz ez dozuna.
Niri behintzat galduten
ez bajat zentzuna
nahiz da mila urtean
euki osasuna
miletan kantauko dot
gaurko batasuna
dalako goiko Jaunak
bialdu deuskuna.

16 Egun honetan beti
Euskal Jaungoikua
alabauko dot zure
beso indartsua.
Aspalditxoan egon
arren beheratua
Gernika ikusten dot
orain goratua
ez dozulako gura
berau menpekua
ezpada izan dedin
gure gurasua.

17 Izan zaitte, Gernika
beti gure ama
izan zaitte aurrera
gure irakasla.
Ikastegi horregaz
izan zaitte bada
gure Ipar aldeko
euskaldun izarra
hona gure semeak
bialtzen dirala
eurak zuk argituta
giau gaiezala.

18 Agur bada oh etxe
jaioten hasia
jausi bekizu goitik
inontzaz grazia.
Agur eguzki barri
honuntz etorria
heldu da zuretzako
gaur egunsentia
ipinteko ibar hau
urretan jantzia
izan dedin ibarren
erregina handia.

19 Agur Bizkaiko toki
lur zoragarria
maitetu erne jatzun
lirio zuria.
Heldu jatzula dino
uda pozgarria
goizetan horregaitik
ugari txoria
bertara pilatzen da
hain banda handia
lora honi eginaz
ongi etorria.

20 Eta zuk, oh Gernika
urte luzietan
jarraitu lora honen
gloriak kantetan
bizi dedin, bai, bizi
Jauna serbietan
bere gloriarako
dieran lanetan
halan iraunikoan
beheko egunetan
oh zelan alabauko
daben zeruetan!



01. **Berba egin:** mintzatu, hitz egin.
Atzera bihurtu: gibelerat itzulli.
Bagarik: barik, gabe.
Lotsatu: ahalketu.
02. **Berbetea:** berbeta, hizkuntza, mintzaira.
Antxinatasuna: antzinako, aspaldiko, duela anitz denborako izate modua.
Haretzak: haritzak.
Eukan: zeukan.
Gertetan jakuna: gertatzen, jazotzen zaiguna.
03. **Alabau:** laudatu, goratu, goretsi.
Ondra: ohore.
Zein: arbola. Erlatiboa.
04. **Deutsut gaur itxiko:** dizut gaur utziko.
Itandu bagarik: galdetu gabe.
Jarten: esertzen.
Neutsun: nizun.
05. **Hiponako Obispo:** San Agustin.
Semiak: Agustinoak.
Dabez: dituzte.
Enparau: gainerako, gainontzeko, beste guztiak.
Doiak: dohaiak, dohainak, kualitate onak.
Barriz: berriz, ordea.
Zelan: nola.
Lira: musika tresna bat.
06. **Baneizu:** baniezazu.
Jatortzun: datorkizun.
Zeharo: arras, erabat, guztiz.
Egidazu: iezadazu.
Larregia: gehiegia, gehiegizkoa.
Azartuegia: ausartegia.
07. **Kantetako:** kantatzeko.
Urten dau: jalgi, irten da.
Bere: ere.
Baga: gabe.
08. **Deutsut:** dizut.
Nok dakarren: zeinak dakarren, eskolak alegia. Erlatiboa.
Daigun: dezagun.
09. **Gabetan:** gauetan.
Legetxe: bezalaxe.
Tantaiduia: tantaidia, tantaizko oihana.
10. **Gatzik:** gaitzik.
Iruntsiten dabena: irensten duena.
11. **Legez:** bezala.
Arkea: arka, kutxa.
Jakun uriolea: zaigun uholdea, uhola.
Aldospea: aldozpea, teilapea, lehorpea.
Aterpetu: babestu, abarotu, lehorperatu.
12. **Heguak:** hegalak.
Nabartxuak: zuri-beltzak, kolore bat baino gehiagokoak.
Urtengo dabe: jalgiko, irtengo dira.
13. **Zatzakuna:** zatzaizkiguna.
Zaikedaz: zaitzaket.
Arren: otoi, mesedez.
Daizun: dezazun.
Bakit: badakit.
Ebalako: zuelako.
14. **Eleixako:** elizako.
Lumen bat: lumaren bat. Hegaztiena eta gero idaztekoa.
Ebagia: ebakia, moztua.
Jazo: gertatu.
Alabagarria: laudagarria, goresgarria.
Zeinek: Gernikak. Erlatiboa.
15. **Ez bajat:** ez bazait.
Deuskuna: diguna.
16. **Ezpada:** baizik.
17. **Irakasla:** irakasle.
Horregaz: horrekin.
Giau gaiezala: gida gaitzabela.
18. **Inontzaz:** ihintzarekin.
Egusentia: argi-hastea, oilaritea, eguna-barra.
19. **Jatzun:** zaizun.
Dino: dio, esaten du.
Banda: aldra, saldo, multzo.

20. **Kantetan:** kantatzen.
Serbietan: serbitzen, zerbitzatzen.
Iraunikoan: iraun ondoren, iraundakoan.

Beheko: lurreko.
Daben: duten.

GORBEIAKO ARTZAINARENAK

(Idem. 92. or.)

- 01 Kantau begiez gloriak
nahi badabez gerrariak.
Baina hobeto kantau ginaikez
artzain ta nekazariak
gure biharrak ez diralako
sekula negargarriak.
- 02 Gerrari ospetsuenak
ez ziran danak zuzenak.
Euren artian guztiz ugari
gaiztuak eta okerrak
zeintzuen lanak ez diran asko
ondria datorkuenak.
- 03 Esango dot nik zer ziran
nausi asko gudagintzan.
Zenbat baserri, huri, herritan
jazarrarik izan bazan
han bizi ziran gixajoetan
negar luzia jarri zan.
- 04 Norberenez urten zedin
jazarran bihar zan egin.
Baina soldadu errubagiak
hartzen ebela askok min
buruzariak igote arren
zeinbat alditan mila hil?
- 05 Hagaitik dinot nazala
zorioneko ni bada
nazalako gaur txabolatxuan
bizi gatzik egin baga
bihotz zabalaz lo egin eta
esniaz talua janda.
- 06 Kantetan beti bakia
gehitu dedin artaldia
hartu dagian nekazariak
nahiko arto ta garia
mundu guztiak izan dagian
ugari bizigarria.
- 07 Guk erein arren solua
isten euskuen galdua.
Gu biziaren aldera beti
harek bestera gogua
iz ez bada nekazariaz
desbardin bizi soldaua.
- 08 Beti gara gu pozgarri
inoz bere ez izugarri.
Alabantzarik emon ez arren
munduak sekula guri
sarrastadarik noz sartu deutsa
gure soinuak inori?

09 Dalako gure txistua
dantzan eragitekua
gerra tronpet-hots garratza barriz
bihotza larritzekua
ahal diran gauzak batek harturik
iges urrindutekua.

10 Hil bedi halan gerria
zeinegaz nago erria.
Jaubia bidez izanagaitik
soldauak jan artaldia
mundu honetan plagarik bada
haxe bera bat dongia.



01. **Kantau begiez:** kantza bitzate.
Badabez: badituzte.
Ginaikez: genitzake.
Biharrak: beharrak, lanak.

02. **Zeintzuen lanak:** gerrari okerrenak. Er-
latiboa.
Ondria datorkuenak: haietatik, hots,
lanetatik ohorea datorkigunak. Esaldi
honek bi erlatibo daramatza bata bestea-
ren atzean, eta bigarren hau nahiko zaila,
ezohizkoa delako. Lanak ez dira *haietatik*
ondria datorkuenak datorkigunak. Ezin du
datozkuenak izan, subjektua *ondria* bait
da, singularra. Ezin du *datorkuena* ere
izan, *lanak* plurala izanik, honekin ko-
munztatu behar bait du adjetibo gisan.
Erdiko e hori neurriaren luzagarrirako
lizentziatzat hartu behar da.

03. **Gudagintzan:** gerlagintzan, gerra egiten.
Huri: hiri.
Jazarra: jazar, jazarpen, pertsekuzio.
Gixajo: gaizo, urrikalgarri.

04. **Norberenez urten:** norbera, norbere
nahia edo seta nagusi atera, norberak nahi
duena egin.

11 Inoren minez gloria
daukana irabazia
sekula bere ez da niretzat
gizon alabagarria
gerra zalia sarri halan da
gitxitan nekazaria.

Errubagiak: errugabeak.
Ebela: zutela.
Buruzari: buruzagi, agintari.
Igote arren: igotzearren, gora egiteaga-
tik.

05. **Dinot:** diot, erraiten dut.
Gatzik: gaitzik.
Baga: gabe.

60. **Kantetan:** kantatzen.
Dagian: dezan.
Bizigarria: bizitzeko behar dena.

07. **Solua:** soroa, labore lurra.
Isten euskuen: uzten ziguten.
Harek: hareik, haiek.

08. **Inoz bere:** inoiz, nehoiz ere.
Sarrastada: tresna ebakorrek egiten du-
ten urratua. Zirrara mingarria.
Deutsa: dio.

09. **Iges urrindutekua:** ihesi urruntzekoa,
urruti joatekoa.

10. **Halan gerria:** hala gerra, gerla.
Zeinegaz: zeinekin, gerrarekin alegia.
Erlatiboa.

Erria: errea, agitz mindua.
Jaubia bidez: jabea eskubidez, zuzenbidez.
Plagarik: izurririk.
Haxe: huraxe.

Dongia: deungea, gaiztoa, madarikatua.

11. **Inoren:** besteren, bertzeen.
Sarri: sarritan, maiz, anitzetan.
Gitxitan: gutxitan, bakanki.

EIBARKO BURDINBIDEA

(Idem. 115. or.)

01 Ixi, xixi, ixildu
txori barritsuak
ixildu errekatxo
zentzun bagakuak.
Ixildu oh abere
basuetakuak
gagozalako hemen
gu bere mutuak
gazte, zahar, aberats ta
pobre gizajuak
entzun daiguzan ondo
tren-txistu soinuak.

02 Oh egun, baina egun
goguangarria!
Sekula ez da hilgo
zure gomutia.
Kondairean izango
zara ipinia
bedeinkatu dagigun
Jaungoiko haundia
hor, hor datorrelako
tren txistularia
iragorik azpitik
Eizako mendia.

03 Ongi, ongi etorri
ongi, tren dontsua
aspaldian genduan
zure desiu.
Zu errezi bitzeko
jantzi da zerua
eguzkia jagi da
gaur argiagua
ilargiak estreinau
ei dau soinekua
izarrez inoz baino
apainduagua.

04 Zure lurrin ta keia
jaku pozgarria
lur lehorrari legez
trumoi ta euria.
Gehienez ohi dalako
hau izan ogia
zu bere zara gure
mesedegarria
zuk, zuk biztuko dozu
gure industria
bizi dedin, bai bizi
Eibarko herria!



01. **Barritsuak:** hiztunak, eleketariak.
Bagakuak: gabekoak.
Gagozalako: gaudelako.
Gu bere: gu ere.
Gizajuak: gaizoak, errukarriak.
Daiguzan: ditzagun.
02. **Goguangarria:** gogoragarria, oroitzea merezi duena.
Gomutia: gomuta, oroitzapena, gogorapena.
Kondairean: kondairan, historian.
- Dagigun:** dezagun.
Irago: igaro, iragan.
03. **Dontsua:** bedeinkatua, zorientzua.
Jagi: jaiki, altxatu.
Estreinatu: estreinatu, zerbait lehen aldiz abiatu edo erakutsi.
Ei: omen.
04. **Keia:** kea, ekea.
Jaku: zaigu.
Legez: bezala.
Zu bere: zu ere.

HARTZARI

(Idem. 123. or.)

- 01 Euskaldun jaio nintzan
 ta euskaldun hazi
 euskaraz eustalako
 amak erakutsi.
 Euskara laztan maite
 zabiltz nigaz beti
 euskara hil ezker
 ez dot gura bizi.
- 02 Euskaldun neban ama
 ta euskaldun aita
 euskaldun neu bere naz
 eurak legez baita.
 Euskaldun hil zirean
 euskaldun bizita
 euskaldun Arbolea
 zutirik itxita.
- 03 Hil zan haren Arbola
 guk dogu gaztea
 izango ahal dau honek
 osasun luzea
 biztu dakigun gure
 lege zahar maitea
 zeinen alde nahi neuken
 emon bizitzea.
- 04 Heriotza gozoa
 litzake benetan
 hiltea Arbolagaitik
 gure mendietan.
 Asko hil ziralako
 gizaldi zaharretan
 asabak bizi ziran
 libre lur honetan.



01. **Eustalako:** zidalako.
Zabiltz: ibil zaitez.
Nigaz: nirekin.
Gura: nahi.
02. **Neban:** nuen.
Neu bere: neu ere.
Legez: bezala.
- Zutirik itxita:** zutik utzita.
03. **Haren:** harein, haien.
Ahal: desira edo itxaropena adierazten duen partikula.
Zeinen: legearen. Erlatiboa.
04. **Gizaldi:** mende.
Asabak: arbasoak, aspaldiko gurasoak.

BEHARGIN ALEGERE BAT

(Idem. 125. or.)

- 01 Beti ugazabentzat
 dihardut lanean
 nahizda ez aberastu
 inoz beharrean.
 lanera jagi arren
 arduraz goizean
 alogerak poztzen nau
 txito arratsean.
- 02 Ene aita izan zan
 neu legez hartza
 alogeraz ez eban
 hak gizendu poltsa.
 Pobrezan eukalako
 kontentuz bihotza
 hawaitik gaur zeruan
 gozetan dau poza.
- 03 Alogerekoak lez
 ez daukat bildurrik
 inoz sartuko danik
 gurean lapurrik.
 Baba, arto, urdaia
 jan arren bakarrik
 familia ederra
 hazia daukat nik.
- 04 Irabazia zelan
 halan dot kastua
 ez dot nahi lebitarik
 brusa dot nahikua.
 Egin gura dabenak
 gustora pausua
 zapatea behar dau
 oina bestekua.

05 Zeinbat etxe direan
euren erruz galtzen!
Txikiak izan arren
handiai jarraitzen.
Neu behinik behin ez noa
horrelan izaten
zorra pagau ezinda
tristetu ez naiten.

06 Zeinbat gizon munduan
enpleo handiak
jariste arren dabiltz
galtzen gaberdiak!
Baina boteagatik
askok izerdiak
non dagoz guztientzat
goietan aulkiak?

07 Gaur arte nok jakin dau
zer dan huelgea?
Enredo zalez dakust
mundu hau betea.
Nik nahi dot osasuna
lana ta bakea
inor engainau baga
denpora emotea.

08 Ardaurik ezin badot
edaten dot ura
horregatik gerrarik
baina ez dot gura.
Pazientziaz zelan
bat doian zerura
pizkat sufridu arren
ez deusta ardura.

09 Zeinbat galtzen dituzan
handinahikeriak
Luzifer bere galdu
eban soberbiak.
San Migel otsein onak
jaritxi gloriak
umilentzat zeruak
dagoz edegiak.

10 Handi izatearren
ez noa inora
ez dut estutu gura
igo nahirik gora.
Nausitasuna baino
mendeko dot hoba
nahikoa dot nik banaz
guraso bat ona.

11 Ai balekie askok
nor dan aberatsa!
Niretzat igertea
ez da horren gatxa.
Euki arren munduan
batek asko gauza
kontentuz ez badago
bizia da latza.

12 Txori koitau bat baino
nor da pobreago?
Halan bere kantari
gehienean dago.
Txindurriak nahiz euki
ondasun gehiago
nor da mutuagorik
beste bat hau baino?

13 Inoz izan ez arren
txoria joskina
soinekoa darabil
ondoegina.
Sedeia ez dalako
lumea duin fina
hain ondo ez da jazten
behintzat erregina.

14 Jaungoikoak badeutsa
ardurea hartzen
zelan sinistuko dot
dala gugaz ahaztzen?
Hegaztiak baditu
hain ederto jazten
ni zelan itxiko nau
gosegaz hiltzen?

15 Berak ez dau esaten
eskatu daigula?
Joteko atea ta
entzungo jakula?
Ala fedea gudan
osoro galdu da?
Honenbeste gatx nondik
bestelan heldu da?

16 Egia da kontentu
osorik munduan
ez dala jauregian
hain gitxi tronuan.
Gure ditxa ez dago
lurreko diruan
gloria dana dago
bakarrik zeruan.

17 Kantau gura dot baina
hauze koplau beti
pobrea banaz bere
ez naz ni negarti.
Aberats asko dago
ene aldean gaizki
larrosak dakustaz nik
arantzakaz nahasi.

18 Larratxoria dabil
egunen erdian
txorrotxioka pozez
igoten aidian.
Errosaioa kantau
nik ohi dot gabian
beraz hobetoago
bizi naz lurrian.



01. **Ugazabentzat:** ugazabarentzat, nagusia-
rentzat.
Beharrean: lanean.
Jagi: jaiki, altxatu.
Alogerak: alokairuak, soldatak.
Txito: txit, agitz, oso, biziki.
02. **Legez:** bezala.
Harotza: zurgina.
Eban: zuen.

Hak: hark.
Eukalako: zeukalako.
Gozetan dau: gozatzen du.

03. **Lez:** bezala.
Gurean: gure etxean.

04. **Zelan halan:** nola hala.
Kastua: gastua.
Lebita: gizonaekoan soineko bat, maila
handi samarra adierazten duena.

- Brusa:** blusa.
Gura dabenak: nahi duenak.
Zapatea: zapata, oinetako mota bat.
Oina bestekua: oinaren neurrikoa.
05. **Ez naiten:** ez nadin.
06. **Enpleo:** enplegu, lanpostu.
Jariste arren: lortzearren, erdiesteagatik, eskuratzeagatik.
Dagoz: daude.
07. **Huelgea:** greba, lanuztea.
Enredo zalez: nahastailez, nahaspil zalez.
Engainau baga: enganatu, atzipetu gabe.
08. **Gura:** nahi.
Ez deusta ardura: ez dit axola.
09. **Dituzan:** dituen.
Bere: ere.
Galdu eban: galdu zuen.
Soberbiak: urguluak, harrokeriak.
Otsein: zerbitzari, morroi.
Jaritxi: erdietsi, lortu.
Dagoz edegiak: daude irekiak.
10. **Mendeko:** menpeko, azpiko.
11. **Balekie:** balekite.
Igertea: igartzea, antzematea.
Gatxa: gaitza, zaila.
12. **Koitau:** gaizo, errukarri.
Halan bere: hala ere.
Txindurriak: inurriak.
13. **Joskina:** jostuna, joslea.
Sedea: zeta.
Lumea duin fina: luma bezain fina.
14. **Badeutsa:** badio.
Ardurea hartu: arduratu, axolatu, bere kargu hartu.
Gugaz: gutaz, gurekin.
Zelan itxiko: nola utziko.
Gosegaz: gosez, gosearekin.
15. **Daigula:** dezagula.
Jakula: zaigula.
Osoro: osoki, erabat, arras.
Gatx: gaitz, makur, oker.
16. **Hain gitxi:** gutiago, are gutxiago.
Ditxa: zoriona.
17. **Kantau gura dot:** kantatu nahi dut.
Koplau: koplau hau.
Banaz bere: banaiz ere.
Ene aldean: nire ondoan, nirekin konparaturik.
Larrosak dakustaz: arrosak ikusten ditut.
Arantzakaz nahasi: arantzeekin nahasian, batera.
18. **Larratxoria:** hegatzabala, biligarroa baino txikitxoagoa.
Aidian: airean, hegan.
Gabean: gauean.
Beraz: beragaz, bararekin.
Hobetoago: hobeto, hobekiago.

EHIZARI BERTSOLARI BAT

(Idem. 430. or.)

- 01 Goizean goiz jaikita
ehizara naz juan
arrastaka eguna
emon dot basuan.
Erbi bati jarraika
zortzi bat orduan
ibili arren jausi
etxaku lazuan.
- 02 Bekoki hau askotan
egin dot lehortu
zergaitik izerditan
danau nazan urtu.
Arnasarik ezinda
azkenean hartu
laurak igururako
egin dot ukatu.
- 03 Bota behar ninduan
goseak lurrera
haxe izan da nire
gaurko alogera.
Ikusirik eguna
joiala aurrera
jarri ta bujakatik
jana dot atera.
- 04 Jatea kerizpetan
gutziz zan atsegin
erle batek ez baleust
ernegau eragin.
Burrun burrun kantauta
izpiagaz deust min
dabla eskuaz jo ta
aplastau dot arin.
- 05 Hasarrez jarri naz ta
zekorrek orrua
jarraitzen abiau jat
zezen arranua.
Ezautu dodanean
ekarren asmua
tiro bategaz kendu
deutsat amorrua.
- 06 Hurrengo txakurtxo bat
atera jat txau txau
jarraitu ta haginka
urratu deust prakau.
Arrabioz jaso dot
gora gora hankau
haginetan jo eta
bota deutsadaz lau.

07 Etxeruntz nentorren da
astoak arrantza
esan deusat: falta dok
kantetako gatzia.
Saltoka moldau gura
zelanbait dok dantza
baina ez dok kenduko
inoz asto antza.

08 Sasi batetik gero
norbaitek deust txio
bertatik erantzunaz
dinotsat adio.
Ni nok Pilipe deitzen
sekula ez Pio
txori artean izan
hik behar dok txibo.

09 Kukuak bere bota
deust bertsoa kuku
erantzun baga ez dot
nahi izan geratu.
Udabarrian egin
hik arren ujuju
San Pedroetan ohi dok
kukua mututu.

10 Zozoak ondorean
kantetan deust zor zor
erantzun deusat: mutil,
zorria beti dok lor.
Jaunari alabantzak
ni bizi nok gogor
hartzekorik badeustak
kobretara hator.

11 Herrira sartuaz bat
loruak tontua
deitu deust eta entzun dau
hi tontuagua.
Inok erakutsia
bota dok bertua
hik heurez asmetako
nun dok talentua?

12 Basotik etxeraino
hamaikak nau tenta
guztai emon deutset
baina errespuesta.
Harira egitea
horren errez ezta
halan bere euki dot
gaur nahikoa beta.

13 Bertsolari gitxi naz
gehiago ehizari
eskopeta ona dot
kainoiak ditu bi.
Zuzen apantau eta
makina bat txori
pikua ebagita
mutu dot ipini.



01. **Jagi:** jaiki, altxatu.
Jausi etxaku: erori ez zaigu.
Lazuan: lakioan, artean.

02. **Bekoki:** kopet.
Danau: dan hau, naizen dena.
Nazan: naizen.
Ukatu: etsi, amore eman.

03. **Alogera:** alokairua, soldata.
Joiala: zihoala.
Bujaka: brujake, soingaineko mota bat.

04. **Kerizpetan:** gerizan, itzalpean.
Ez baleust: ez balit.
Ernegau eragin: ernegarazi, amorrarazi.
Izpiagaz: izpiarekin, eztenarekin.
Deust min: min egin dit.
Dabla: zapla, zart.
Aplastau: zanpatu, txikitu.

05. **Abiau jat:** abiatu zait.
Arranua: arraioa, madarikatua.
Ekarren: zekarren.
Bategaz: batekin.
Deusat: diot.

06. **Haginka:** horzka.
Prakau: praka, galtza hau.
Arrabioz: amorruez, suminez.
Hankau: hanka hau, zango hau.
Deutsadaz: dizkiot.

07. **Deusat:** diot.
Kantetako: kantatzeko.
Moldau gura zelanbait dok: nolabait
moldatu nahi duk.

08. **Bertatik:** berehala, bat batean.
Dinotsat: diotsat, esaten diot.
Txibo: txinbo, txori mota bat.

09. **Bere:** ere.
Baga: barik, gabe.

10. **Kantetan deust:** kantatzen dit.
Lor: zama, gauza neketsua, atsekabea.
Esaera da: *zorrak lorra* (dakar).
Hartzekorik: harturenik. Zorraren alde-
rantzia.
Badeustak: badidak.
Kobretara hator: kobratzera hator, etor
hadi.

11. **Inok:** bestek, bertze batek.
Asmetako: asmatzeko.

12. **Nau tenta:** tentatu nau.
Deutset: diet.
Errespuesta: arrapostua, ihardespena,
erantzuna.
Harira egitea: zuzen, dagokion moduan
egitea.
Halan bere: hala ere.
Beta: asti, denbora.

13. **Ehizari:** ehiztari, ihiztari.
Pikua ebagita: mokoa ebakita.

ATE AINA MARATIL

(Idem. 529. or.)

01 -Felis, zelan ez dozu
gaur igo mendira
bazkariaz lagunak
danak han badira?

02 -Gerriko umoreak
zelan nauken makur
jatsitean jausteko
nintzalako bildur.

- 03 -Felis, euritarako
hain zabal horregaz
erronerira zelan
zoaz bero honegaz?
- 04 -Eguzkiak kinatu
ez daistan burua
ta euriari badator
egiteko burla.
- 05 -Felix, zer deritxazu?
Aurtengo artuak
ez dira goizegitxo
izan jorratuak?
- 06 -Entzun dot nik sarritan
jagiai goizetik
Jaungoikoak deutsela
laguntzen zerutik.
- 07 -Felix, damuz entzun dot
artoai sustarrak
aurten jan deutsezala
ez gitxiri harrak.
- 08 -Pobrearen oinean
beti ohi da narra.
Buruz ez zan hau esan
ebana makala.
- 09 -Felis, zer dinostazu
neguko aldean
pobrearentzat zer da
udea lurrean?
- 10 -Esaera zahar batek
dinosku udea
dala atorrea ta
gainera gonea.
- 11 -Felis, neguan bere
pobre gizajorik
baina itxi dau Jaunak
inoz deslauriturik?
- 12 -Esaereak dino:
Hak hotza noraino
dakiala emoten
kapea haraino.
- 13 -Felis, ez neban uste
Juan ospitalean
hilgo zanik, hak eukan
semeaz etxean.
- 14 -Bera bere bizi zan
semea legetxe
baina aita hil jakon
etxe horretantxe.
- 15 -Felis, haginik ez-ta
ezin dot ezer jan
biziteko badaukat
aurreruntzean lan.
- 16 -Ez badaukazu ia
bapere haginik
hagaitik ez daukazu
euretako minik.

- 17 -Felis, ni neu izanda
etxean tronkeru
suhinak ez deusta bada
egin gura buru?
- 18 -Esan zan etorriko
dala kanpokua
aterako dabena
berak etzekua.
- 19 -Felis, ez nekian nik
zinala hain argia
zuri entzuten nago
kokorik jarria.
- 20 -Jakingo balitz non dan
ziur urre mina
asko litzake laster
aberats egina.
- 21 -Felis, joanagaitik
lurrean nahinora
ez bizitea zelan
da inon gustora?
- 22 -Ez dalako mundua
zorion lekua
eta bai arantza ta
larrosaz nahastua.
- 23 -Felis, edozein puntu
nik jo arren zuri
erantzuten dakizu
hobeto zuk neuri.
- 24 -Adiskidea, jarri
ezkero atea
ez da maratila bat
dagokan gauzea?
- 25 Bestelan hobeto da
bat egon lehenean
ez ate ta maratil
haizien mendean.
- ☪
01. **Bazkariaz:** bazkariarekin.
02. **Umoreak:** erreumak.
Zelan nauken: nola naukaten.
Jatsitean: jaistean, goitik beherakoan.
Jausteko: erortzeko.
03. **Euritarako:** euritako, aterkin.
Horregaz... honegaz: horrekin... honekin.
04. **Kinatu:** zastatu, akuiluaren kin edo ezte-na sartu.
Ez daistan: ez diezadan.
05. **Deritxazu:** derizkiozu, iruditzen zaizu.
06. **Jagiai:** jaiki direnei.
Goizetik: goiz, argiaren lehen orduetan.
Deutsela: diela.
07. **Damuz:** penaz, tamalez, nahigabez.
Sustarrak: sustraiak, erroak.
Deutsezala: dizkiela.
08. **Narra:** lur joana, lubizia, lurjausia.
Lurrak nar egin: lurra irristatu, joan.
Ebana: zuena.

09. **Dinostazu:** diostazu, erraiten didazu.
Neguko aldean: neguarekin konparaturik.
10. **Dinosku:** diosku, esaten digu.
Atorrea: atorra, soineko mota bat.
Gonea: gona.
11. **Bere:** ere.
Gizajorik: gaizorik, urrikgarririk.
Itxi dau: utzi du.
Deslaiturik: bertan behera, abandonaturik.
12. **Dino:** dio, esaten du.
Hak: hark.
Kapea: kapa, soingainekoa.
13. **Eukan:** zeukan.
Semeaz: semearekin.
14. **Legetxe:** bezalaxe.
Jakon: zitzaion.
15. **Haginik ez-ta:** haginik eduki ez eta, hortzik gabe.
16. **Bapere:** bat ere.
17. **Tronkeru:** premu, oinordeko.
Ez deust: ez dit.
Egin gura buru: buru egin nahi, nagusi izan nahi.
18. **Dabena:** duena.
19. **Kokorik:** kokoriko, zangoak tolestuta orkatilen gainean.
20. **Mina:** meatzea, meategia.
21. **Nahinora:** noranahi.
22. **Larrosa:** arrosa.
24. **Maratila:** atea edo leioa ixteko piezaxoa.
Dagokan: dagokion.
Bestelan: bertzenaz, bestela.
Haizien mendean: haizeen menpean, gorabeheran.

URKIOLA

Urkiola izenburupean, bertso erlijioso sorta batzuk emango ditut, ustez Felipe Arreserenak. *Agur Antonioak* sortaren oinean Felipe Arrese ta Beitia jartzen du. Besteek ez dakarte egile izenik, baina *Maria Sortue-raz garbiari Urquiolaco Erromeria Santuan cantetaco* idazpuruz datozenez gero, denak bereak izan daitezke. Euskara eta estilo aldetik ere bereak dirudite. *Melillako gudarien alde* izeneko sortak oinean *1921'ko Urrija'ren 16'an* jartzen du. Felipe Arrese Beitia 1909an hil zen eta sorta hau ez da harena izango, baina bertan sartzea pentsatu dut.

AGUR ANTONIOAK

(*Jon Irazabal* Durangarrak Urkiolatik eskuraturiko fotokopiak).

Agur agur, Antonioak
Agur agur, Santu altsuak.

01 Anbotok daukan arte
zutunik burua
herrian izango da
zuen gogokua.
Hartzera goiaz bide
etxerantzekua
hartu eizue arren
gure erregua.

02 Jagon zuek hemen da
guk barriz etxean
errosarioagaz
gabean gabean.
Hola gordeko gara
asaben antzean
guztiok bizi eta
ondo hil gaitean.

03 Munduan izan arren
iluntasun asko
ez daigun arren galdu
biderik gorako.
Maria, begiratzen
badeuskuzu zintzo,
ez gaitu infernuak
sarean hartuko.

04 Zure erreguakaz
zerutik grazia
jatsiko jaku eta
munduko aldia
nahi genduke irago
kantetan Maria
sortueratik dala
guztia garbia.



01. **Zutunik:** zutik.
Goiaz: goaz.
Eizue: ezazue.
02. **Jagon:** zaindu, gorde.
Barriz: berriz, ordea.
Errosarioagaz: errosarioarekin.
03. **Ez daigun:** ez dezagun.

- Badeuskuzu:** badiguzu.
04. **Erreguakaz:** erreguekin.
Jatsiko jaku: jaitsiko zaigu.
Munduko aldia: mundualdia, munduko denbora.
Irago: igaro, iragan.
Kantetan: kantatzen.

Ohar laugarren bertso hau, oso osorik, esaldi bakarra dela.

MELILLAKO GUDARIEN ALDEZ

(Idem)

Mirariak ugari
badozuz bilatzen
Urkiolara juan
Santuari eskatzen.

01 Antonioren deira
hilak dira bizten
itxasoak baketu
lotuak askatzen.

02 Gaxoak osasuna
itxuak argia
herrenak ibiltea
bihar dan guztia.

03. Gloria Aitari ta
bardin Semeari
gloria Espiritu
Santu dontsuari.

Urkiolara fede biaz
guazen gaur mesede bila
hantxe daukaguz Antonio bi
eginak mirari mila.
Eta dalako eskabide hau
garbia eta umila
Santu bi honek erreguturik
zeruan entzun dedila.

01 Urkiola mendiak
daben entzutia
Antonio santuai
zor dautse guztia.

02 Mila urte honetan
hango eleizia
euskaldun onak dauke
sarri ikusia.



Badozuz: badituzu.
Eskatzen: eskatzera.

03. **Dontsuari:** dohatsuari, santuari.

Daukaguz: dauzkagu.
Bi honek: bi honeik, bi hauek.

01. **Daben:** duen.
Entzutia: ospea, fama.
Dautse: die.

02. **Dauke:** daukate.
Sarri: sarritan, maiz, anitzetan.

ANTONIOAK

(Maria sortueraz garbiari Urkiolako erromeria santuan kantetako)

(Idem)

Antonioak opa deuskue
zabalik euren etxea
Urkiolan gaur goratu daigun
zeru gaineko lorea,
zein dan sorreraz, jaiotzaz eta
bizitzaz parebagea
osterantzean non izango zan
Jaunaren maite maitea?

01 Eta gaur lora hori
ikusirik dago
entzutez egin dala
askoz zabalago.
Urrinekoaz gara
aiztuten lehenago
antxinako gizonak
ohi zirean baino.

02 Lirioen arteko
lirio zuria
Jaunaren amodioz
larrosa gorria.
O bioleta umil
gordezale handia!
Zure ezkutuleku
nun dago tokia?

Sortueraz: sorreraz, sortzez.
Kantetako: kantatzeko.
Opa deuskue: eskaintzen digute.
Daigun: dezagun.
Zein dan: erlatiboa.

03 Hasieratik zeuntsan
poztuten begia
ikusten dabenari
gorde ta agiria.
Lohirik izan bazendu
o uso zuria
nondik zinan Jaungoiko
baten Amageia?

04 Bederatzigarren zan
Piok dau jarria
fedetzat gure Eleizan
gauza hain pozgarria.
Lohi bagarik sortua
dalako Maria
txarrari bera dala
burua hausia.

05 Gora, o Aita Santu
ezin hilgarria
egokan lekuraino
jasoa Maria!
Alperrik Urkiola
izan eregia
zeruan gorago da
Maria jarria.



Osterantzean: ostantzean, bestela, bertzenaz.

01. **Urrinekoaz:** urrunekoaz, urrutikoaz.
Aiztuten: ahazten, atzentzen. Paperak
aituten dakar, baina *aiztuten* izango da.

- Antxinako: aspaldiko, behialako.
03. Zeuntsan: zenion.
Dabenari: duenari.
Lohirik: zikinik.
Amageia: amagaia, ama izateko gai.
04. Bagarik: barik, gabe.
Txarrari: gaitzari, gaizkiari. Paperak *charreri* dakar, baina **charrari** behar du.
05. Ezin hilgarria: hilgaitz, hilezkorra.
Egokan: zegokion.
Eregi: eraiki.

J. URZELAI

Euskaltzaindiaren Bilboko Azkue Bibliotekan liburuska bat aurkitu nuen, atarian jartzen zuena:

BERSO BERRIAC
EL DEMONIO FUIDO
EUZKAL-PROFECIAS-TRENARI
EZEQUIEL, PROFETA
CUMPLIDAS
POR
J.U.Z.
OÑATIN
Mariano Ralduan Moldiztegian
1897

Eta barruko lehen orrialdean:

BERSO BERRIAC
EUZKAL JAIALDI BATZURI ETA TRENARI
URZELAIC JARRIAC
ABADIÑAON
A
IÑACIO-DP
PEPI-DEHNI
INI
EGO HOMO-EPER
HOME GIZONA
DEAV
...
OBI

Profeta baten aurrean gaude, eta aurkezpen hitzetan somatzen denez, nahiko profeta hatzemangaitza dirudi. Ondorengo bertsoek ez gai-

tuzte zapuzten. Urzelai honen buruan ideek eta hitzek propulsiotzat datozten hotsak dirudite. Zail da zer esan nahi duen antzematea, zailago bait da zer dion ulertzea. Hotsak elkarren gainean doaz, gramatikak eta morfologiak uburuko lehen bihurtunean utzi zituen korrontean. Ulernahia grina soberazkoa den bertsoon albotik, egilearen burua imajinatzea jolas mentaltzat hartuz gero, tarte grazioso bat pasatzea segur da, batez ere zoro puntuaz ikaratu ezik. Baina esperientzia hau agian irakurle gehien dibertsio izango ez delakoan, mostra batzuk bakarrik eskaintzea pentsatu dut, testuaren grafia bere hartan utzirik, eta inolako oharrik ez argibiderik gabe noski, ez bait dut zerbait zuzen interpretatu izanaren erantzupen antiprofetikorik asumitu nahi.

BIZI BITEZ ESQUIBEL

01 Bizi bitez Esquibel
Ta Aita Larramendi
Geitari autoretan
Muxiu be adi;
Bonbua joteran
Mondranuera etorri
Soñua osotzeko
Chapac ere ekarri.

02 Erri ontara etorri
Ziran Ekautuac
Arran sarata guchiz
Ez arranpaluak;
Eguzkera bear zala
Ziñuen leluak
Erderaz diaritztu
Gero mixiñuak.

03 Ango jolas dantza eta
Chistu soñuak
Erakarri zitusten
Euzkaldun zoruak;
Nagusi ikuztera
Argitan ichuac
Ganau feria baiño
Totoluegoak.

05 Bilbotic Gernikara
Jun ziran bosteun
Aran orduko batu
Ere bai beste eun;
Foru banderiakin
Erderia dundun
Orduko bazkariak
Etziela lagun.

06 Chacharmendin zeukaten
Aiec bazkarixa
Zorgiñek eroanic
Euron gatzarixa;
Orratzean sar ezdá
Ilbana arixa
Barrisbe jautsiko
Foruntzat arrixa.

10 Euzcal jaialdi aectako
Lenengo egunean
Gabas erautsi naute
Abadiñaon bertan;
Arrikate a gero
Etzan aiñ chanchetan
Non jaurti bear izan
Beruna gatzetan.

12 Inigo de Abadi
Me izo dala zer
Qontramaixue zalaic
Maixue urikalzer;
Nic diñuan a ete dan
Begira ondo ve
Baldin usua ezpada
Izango da eper.

17 Eguzkera dialgeto
Eta sarraparrak
Aitzaquia oi dute
Emiac eta arrac;
Baldin bizkaitax bada
Diñue okerrac
Quiputtez bada izaten
ostera sakarrac.

20 Astorikan edxagoc
Letra zekikenic
Jan edana goguan
Ze ez libururic;
Tripetako embarguaz
Garofiac beti usic
Belarriac luziac
Plumie kamutzic.

22 Ba aor antoldu ditut
Aimbat berso berri
Iparragirren kantan
Batzu adigarri;
Eguzkera egokian
Itzkunde nagusi
Uzi nai ez baditu
Belarriak josi.

TRENARI

01 Otsua asi nuen
Biskochuarekin
Asi ondoren eldu
Bere ortsarekin;
Eiñ nion jarraitu
Ankas ariñ ariñ
Ogia kendu zidan
Suzko muturrakin.

02 Otsua zertako det
Freno barikua
Tripontzi aiñ galantaz
Neun irunztekoa;
Gogo charra ez decez
Infernuko otsua
Gosiac egoalaic
Geu argaltzekua.

03 Bidetan gabilltzenok
Ersitzen gaitu anitz
Eziñ degu ba achillo
Eztaere saldis;
Sart lert egin geitzekean
Oraingotz sazpi aldiz
Galopatuco ez luke
Diruric ez paleitz.

07 Viva Salcedo eta
Aita Larramendi
Alckamutruen cantac
Para ditut ongi;
Bendiñ nai digun arec
Ikazi beitzu, adi
Entzun nai ez ditunak
Belarriac ichi.

OSTARSUARI

01 Euri ioriak busti
Lurra du ta asi
Euri bisutzac autsa
Lausotan biurzi;
Ostarsuac arkacha
Mugitu du azi
Arrokeriac or nun
Jaiki alic jautsi.

02 Ostarsuen distdiac
Begiaco ichiaz
Eziñ ditugun lanac
Lenago letz jaso;
Gozeteac eragiten
Badigu eraso
Aberatsac eziñgo
Dau bixtarra jaso.

04 Ura neurtuta edaten
Qastillan legorte
Qantabrian berarrac
Uzteltzen asete;
Zeiñ lurra eziñ dan
Euriz ondo beté
Lanac atzera eta
Dirua dau tenté.

19 Larogeta amaseiko
Semenill amalauan
Goguan det betiko
Sar setzeizela ardauan;
Archo artzi polita
Nai zer dala auban
Dongea izateko
Planta deu aroan.

26 Ara ogeitabi berso
Lenaz or dirade
Qantatzea lembaitlen
Egoki dirade;
Qulparikan nor erac
Ar ematen daude
Amen bearrean beti
Gizonac al daude.

27 Ezekielec diño
Jauna diñuela
Sue zas dalixatu
Eingo direla;
Ezkalatzean lurra
Emanyo duela
Suaz igatu erac
Biako direla.

Ogeitabi berso dio, nahizta hogeita seigarrena izan eta oraindik hurrengo falta zaion. Zenbakiak ere gramatikarekin batera geldituko ziren. Beste antzeko batzuk badatoz liburuskan, prosazko zati xelebreekin batera, baina mostra hauekin nahikoa izango da, profeta honen mezuak dezifratzen saiatzeak merezi duen antzemateko. *Abadiño* Abadiño zela emanik, gizon honen datu bila non hasi badakigu behintzat.

TXOTXOJEURI

Juan Antonio Enbeita, Kepa Enbeitaren aita, Balendin Enbeitaren aitita eta Jon Enbeita eta oraingo Enbeitarren bir-aitita, *Txotxojeuri* ezize-
nez ezaguna, azken karlistadan sarjento ibilia zen. Bertsolari polita izanez
gainera, haren hainbat pasadizo gelditu da eta kontatzen da orain ere aria-
tzarren artean. Balendin Enbeitak, beherago aipatu liburuan, kontatzen
duenez, sekula medikurik ikusi gabeko osasuna izan ondoren, belaun-
buruko zauri baten kangrenak bost egunen buruan eraman zuen. Arros-
pide medikuak penak kentzeko indizio batzuk agindu zizkion. Kepa se-
meak besotik orratza sartzean, esan omen zuen:

- Ai koino, koino! Laurogei urteko gizona penakaz ezin egon eta
oindino orratza sartzen besotik?

- Baina aita! Orain arte Jaunak osasun ederra emon deutsu eta pa-
zentzi apur bat.

- Zer balio jeustak (zidak) orain artekoak? Orain behar joat (diat)
osasuna, orain!

MUXIKAKO PROBAK

(Bizitzaren joanean. Balendin Enbeita. 83-86 or.)

01 Muxikan pasatu da
hau da komedie
teile posture eginda
joan Bizkargire.
Handikan bueltatu ta
Taberna Barrire
probia armatu da
jira eta bire.

02 Hamabi ta erdietan
ha zan tertzioa
gizonak eukiteko
ona juizioa.
Agustin alkatie
Lupariakoa
kontrarioa barriz
Markez Jaurikoa.

03 Posture armatute
bai ere jokatu
irabazi ebanak
ezin leiken galdu.
Harro dabilenari
zer jakon gertatu
galdu eta berandu
gero akordatu.

04 Lumo aldetik jaku
kontrakoa agertu
Joakin Agerrekoak
posture zarratu.
Baina haren esanaitik
ez gendun pentsatu
Astelarren eingo zan
probarik jokatu.

05 Esandako berbie
han eban kunplitu
bai eta sasoirako
idiek plantatu.
Lehenen Muxikarrari
jaken suertatu
bigarrenak arraiek
ez zitun zarratu.

06 Lumo baino gorago
dago Erregoiti
kontrarioa barriz
parte horretati.
Axio ta Txordoa
orroaka beti
ez dirala ikaratzan
klase zuriaiti.

07 Kaitano Erregoititik
Pedro Muxikatik
lizentzia ekarteko
gobernu aurretik.
Ez eben ezer lograu
ahaleginakaitik
bakea hoba zala
Jaungoikoagaitik.

08 Bake bat egitea
genduan pentsatu
Gernikako frontoian
bai ere juntatu.
Baina idi jabeak
ziraden gogortu
proferzaz ein behar zala
proba hori jokatu.

09 Elgoibarrera parte
genduan bialdu
hango alkate jaunak
euskun kontestatu:
paratuko bidean
eiteko segitu
berak eingo ebala
plazia libratu.

10 Hurrengo zapatua
zan seinaladue
Elgoibarren ikusteko
idi indartsue.
Lau joan ziran eta
bat egon notaue
Muxikako idi txiki
gorri apaltxue.

11 Atsalderako ziran
zuri beilegiek
ederto hasitakoan
egiten arraiek.
Baina azkenerako
ilundu begiek
gehiago izan zirala
aurreko txikiek.

12 Axio eskumatik
Txordoa besteti
larri ibili zituen
hogeta hamabi.
Gehiago ezin eben
ahaleginagaiti
baina ondo kunplituak
hogetamaika t'ardi.

13 Erregoitiar majuek
non dozuez begiek
sekula ez ezautzeko
holango idiek?
Ondo edukiaitak
okelaz josiek
gehiago izan zirala
aurreko txikiek.

14 Erregoitiar majuek
ez zaize ikeratu
galdutako diruek
bozuez pagatu.
Bi joan ezketino
batek behar galdu
galdu ta beranduan
ohi da akordatu.

15 Horra hamabost bertso
ditugu jarriten
ejenplugarrizako
atareak aurtan.
Borondate onagaz
ditugu egiten
gura daunak erosi
txakur haundi baten.



01. **Teile posture:** teila apustua.
Probia: proba, dema.
Armatu: atondu, antolatu, prestatu.
02. **Tertzioa:** ordua, tenorea, sasoa.
03. **Ebanak:** zuenak.
Leiken: zeikeen, zezakeen.
Jakon: zaion.
04. **Jaku:** zaigu.

- Zarratu:** hertsu, itxi, jokoa eta baldintzak onarturik utzi.
Haren esanaitik: haren esanagatik, hark esan arren.
Astelarre: Muxikako auzo bat.
05. **Berbie:** berba, hitza, elea.
Plantatu: aurkeztu, plazaratu.
Jaken: zitzaien.
Arraiek: marrak, lerroak.

06. **Orroaka:** marrumaka, oihuka, garrasika.
Zuriaiti: zuriagatik. *Zuriak* muxikarrak omen ziren.
07. **Ez eben ezer lograu:** ez zuten deus lortu, erdietsi.
Hoba: hobe. Gobernura lizentzi eske joan ziren bitarteko hauek Bilbon probalarien kontura egun ederra igaroko zuten.
08. **Proferzaz:** nahitaez, derrigor. *Gaztelaniazko por fuerza.*
09. **Euskun kontestatu:** zigun erantzun.
Paratuko: paratutako, jarritako, abiatutako.
Ebala: zuela.
10. **Seinaladue:** seinalatua, izendatua, erabakia.
Notaue: notatua, nabarmena, besteen gainekoa.
Apaltxue: apalxea, apalñoa.
11. **Atsalde:** arratsalde, arrastiri.
Beilegiek: horiak, gorriskak.
Ederto: ederki.
Gehiau: gehiago.
12. **Axio, Txordoa:** idien izenak.
Eskuma: eskuin, eskubi.
13. **Majuek:** majoak, jatorrak, atseginak.
Dozuez: dituzue.
Holango: honelako nahiz horrelako.
Edukiaitik: eduki arren, edukiagatik.
Okelaz: haragiz.
14. **Ez zaize:** ez zaitzete.
Bozuez pagatu: ordaindu badituzue.
Joan ezketino: joanez gero.
15. **Jarriten:** jartzen.
Atareak: atareak, atera direnak.
Onagaz: onarekin.
Gura daunak: nahi duenak.
Txakur haundi: pezetaren hamarrena.

Txotxojeuriren sasoian karlistak eta liberalak ziren. Bera karlista zen eta boto batzen ibiltzen omen zen. Behin bertso hau bota zuen:

(Idem. 81.or.)

Karlista ta liberal
zuri eta baltzak
danak egiten dabe
bakotxak beretzat.
Unidade karidade
projimuarentzat
ez dago gauza hoberik
erlejinoentzat.

TXANKAN

Ibarrurin -gaur hau ere Muxika da udalez- baten *Txankan* deitzen zioten bertsolari bat, bere bertsoen lorratz handirik ez da gelditu baina. Txotxojeurik Txankan hori, antza, neskaren batekin basoan ikusia zuen eta bertso hauek bota zizkion behin:

(Bizitzaren joanean. Balendin Enbeita. 82. or)

- 01 Lehengo batean bilatu nuan
dama gazte bat basuan
gonea eukon pizkat altzauta
kaparra eukon zankuan
hau kenduteko zaldun gazte bat
jarrita eukon albuan.
- 02 Dama gazteak eukon tenplantza
ta besteak esperantza
gonea eukon pizkat bustita
jarrita bertan egonda
ha sikatzeko haize pizka bat
harentzat komenitzen da.



01. **Gonea eukon:** gona zeukan.
Altzauta: altxata, jasota.
Kaparra: akain, lakasta.
Zankuan: zangoan, hankan.
Jarrita: jesarrita, eserita.
- Albuan:** ondoan, aldamenean.
02. **Tenplantza:** masaltasuna, lasaitasuna.
Ha sikatzeko: hura lehortzeko.
Komenitzen da: komeni da.

Lehen bertsoak erromantze koplén sundea dauka. Kopla zahar bat egokitua dirudi. Hala dio batek:

Perretxikotan nenbilenean
Mendiolako basoan
dama gazte aurkitu neban
elorri baten alboan.

Badu jarraipena eta zenbait aldaera dama-zaldunen elkartze horrek. Bigarren bertsoak ere badu kopla zaharren jitea.

PEDRO ORMAETXE

Beherago aipatu liburuan, Pedro Ormaetxe 1858 inguruan jaioa dela kontatzen dio Balendin Enbeitak A. Zavalari. Noiz hil zen daturik ez daukat. Aita Onaindiak *Gure Bertsolariak* liburuan aipatzen duen Pedro Areatzako eta Pedro Ormaetxe bat badira -eta baliteke, hau Muxikako Areatzako bait zen-, Ajangizko Lezamen baserrian bizi izan zen. Han Pedro Areatza edo Pedro Areatzako deituko zioten.

TXAKUR BATEN KONTUAK

(Noeren ontzia. A. Zavala. *Auspoa* 146. 101-111 or.)

01 Bertso berri batzuek
bihar ditut jarri
gazte jentiarentzat
entretengarri.
Txakur baten kontuak
esatera garbi
aditzen emateko
mundu guztiari
inor albertentzian
ahal baledi jarri.

02 Bere kontuak nua
klaru esatera
nola dan etorria
gure auzotira.
Juaten zalia da
oiloen tokira
lotsa emon ezkerro
dua beresira
modu honetan gure
txakur hau bizi da.

- 03 Lehenengo sartu zanian
gure etartian
buztena sarturikan
bere hankartian
bautismua ipini
nion instantian
gure ama subertez
zeguan atian
ez eguan bakera
biraldu artian.
- 04 Ez eban jua gura
nenronen alboti
Jodetres bautismua
ipini bertati.
Gero ekarri nion
artua barruti
libra bizko zatia
zan gutxieneti
puskarik utzi gabe
jan zuan gogoti.
- 05 Gaba pasatu eta
hurrengo egunian
saludatu nenduan
karino onian.
Jaten eman neutsan lez
bezpera gabian
inbusteria franku
mina agirian
hala nahi izan zuan
biheramonian.
- 06 Hau zan domeka goiza
gero arratsaldian
komediak ziraden
Uspitxe aldian.
Hiru tenga lotuta
bere buztenian
dandarraz zituala
jarri neutsanian
proban bezela jun zan
arin indarrarian.
- 07 Ez eutsan eman gure
inok artorikan
eta zan akoruneti (sic)
biraltziatikan.
Baina ahalegin danak
ziran alperrikan
biramonan pasau zan
gure etxetikan
dandarrez zituala
tengak atzetikan.
- 08 Txakurrak jan zituan
janari karuak
etorri zan jatera
soloko karduak.
Tripia larri eta
albora buruak
tira eraiten eutsan
atzeko karruak
hiru tenga dandarrez
beterik barruak.

- 09 Hori eta gehiago
zaion subertatu
atzeko dindirrie
zegan katiatu.
Tiratzen zionari
buztena urratu
gosiak erain bihar
eutsan amorratu
gero persona batek
ein zuan libratu.
- 10 Libratu zutenian
presiliotikan
salto egiten zuan
oso gogotikan.
Odola dariola
buzten ondotikan
tripan berriz ez zuan
gose faltarikan
bilatu zuan asko
tardau bagerikan.
- 11 Baldin euki bazuan
gosiaz tripia
esango det nola zan
bere subertia.
Etxe baten gaztiak
nahi ekandutia
zaharrak nahi ez zuen ta
egin zan bakia
biraltziati kendu
buztenen puntia.
- 12 Osatu zaionian
buztenen puntia
akordau zaien gero
dana ebatia.
Hiru mutiko gaztek
ein zuen juntia:
"Mutil, hik ekarrikok
etxetik sokia"
Hazkoriaren bila
juan zan bestia.
- 13 Batak hazkoria ta
sokia bestiak
ofeziale onak
bai mutil gaztiak.
Barre eragin eustan
eurak ikustiak
tira aurretik batak
eta jo bestiak
horrentzat izan dira
tormentu guztiak.
- 14 Lehenengo kortadia
kuratutakuan
mailetuen faltarik
ez zuen lepuan.
Halan da guzti bere
ez dau gure juan
egunez ibiltan da
ahal daben lekuan
gabaz erretirua
dauka auzokuan.

15 Ez zan leku txarrian
Jodetres aurkitu
bere enfermedadia
eiteko kuratu.
Buztena ebai eutsenak
ziran bi mediku
hirugarrenak berriz
ondo begiratu
ez eben txakur hori
txarto gobernatu.

16 Hamasei bertsoekin
horra despedira
gehiago esan gabe
hoiek asko dira.
Barriak egiteko
ipiniak dira
Jodetresen kontuak
akabatu dira
nahi ditunak ikasi
gezurrak ez dira.



01. **Albertentzian:** adbertentzian, jakinean, oharthurik.
02. **Klaru:** argi.
Auzoti: auzotegi, auzune, auzo.
Beresi: txaraka, sastraka. Baso landu gabea, berez hazitako landare eta saskakaz jantzia.
03. **Etarte:** atarte, ateta, atari.
Buztena: buztana, isatsa.
Bautismua: bataioa.
Istantian: berbertan, bat batean, instantean.
Subterez: hain suertez, hala beharrez, hain zuzen ere.
Eguan: zegoen.
Bakera: bakezko, bakean uztera.
Biraldu: bidali.
04. **Eban juan gura:** zuen joan nahi.
Jodetres: gaztelaniazko *joder-tres* hitzetatik aterea.
Joder: izorratu.
Bertati: berbertan, berehala.
Artua: artoa, arto hirinez egindako opila.
Gabe: testuak *kabe* dakar, baina *gabe* behar du.
05. **Saludatu nenduan:** agurtu ninduen.
Karino: xera, laztan, maitasun.

- Neutsan lez:** nionez gero, bait nion.
Inbusteria franku: zurikeria frango, ugari.
Mina agirian: mihia bistan.
06. **Domeka:** igande.
Uspitxe: Usparitxa, Muxikako Ariatza auzoko baserri bat.
Tenga: tanga, txolet, metalezko ontzi txikia.
Dandarrez: tatarrez, arrastaka, herrestan.
Proba: dema, animaliekin edo gizakumeek eurek egiten duten arraste jokoa.
Arin: fite, agudo, azkar.
07. **Ez eutsan eman gure:** ez zion eman nahi.
Artorikan: testuak *arturikan* dakar, baina *artorikan* behar du.
Akoruneti: hau okerren bat da, baina ez diot antzik ematen zer izan litekeen. Hurbilena *auzuneti* (auzotik) datorkit.
Biramonan: biharamonean.
08. **Karuak:** garestiak, karioak.
Soloko kardua: soroko garduak.
Tripia: tripa.
Albora buruak: albora (egiten ziola) buruak.
Tira eraiten eutsan: tirakada eragiten, eginarazten zion, tiratu egiten zion.

Barruak: barneak.

09. **Zaion:** zitzaion. Bizkaierazko *jako-jakon* (zaio-zitzaion) paralelismoa gaizki aplikatua.
Subertatu: gertatu.
Dindirrie: dindirria, soineko maiztuari darion zarpa zaharra, dilindan eta galtzear doan zatia.
Zepa: landare baten ondoa edo errondoa, mahatsondoa eta gisakoak.
Katiatu: gatibatu, trabatu, estekatu.
Erain bihar eutsan amurratu: amorrarazi behar zuen.
10. **Presilio:** presidio, presondegi.
Tardau bagerikan: tardatu, denborn luzatu gabe.
11. **Gosiaz:** gosearekin.
Ekantutia: ekantutzea, ekantzea, harakotzea, zerbaitera jartzea edo gusto hartzea.
Nahi ez zuen ta: testuak *nai esuento (sic)* dakar eta nik honela interpretatu dut.
Biraltziatik: bidaltzeagatik.
Buztenen puntia: buztan, isats punta.
12. **Zaionian... zaien:** zitzaionian... zitzaien.
9. bertso oker bera.

Ebatia: ebakitzea, moztea.
Juntia: junta, batzarra, bilkura.
Ekarririkok: ekarriko dok.
Hazkoriaren: haizkoraren.

13. **Ofeziale:** ofizial, maisu maila daukan eskulangilea.
Barre eragin eustan: irri eragin, eginarazi zidan.
Eurak: haiek, beraiek.
Tira: tiratu.
14. **Kortadia:** ebakia, mozketa.
Kuratu: sendatu, osatu.
Mailetuen: mailatuen, kolpeen ondoriozko sakongune edo bigunguneen. Testuak *malletue* dakar, baina *malletuen* edo *malletu* behar du.
Lepuan: lepoan, bizkarrean.
Halan da guzti bere: hala eta guzti ere.
Ez dau gure: ez du nahi.
Daben: duen.
15. **Enfermedadia:** gaisoa, eritasuna.
Ebai eutsenak: ebaki, moztu ziotenak.
Eben: zuten.
Txarto: gaizki.
16. **Barriak:** barreak, irriak.

Hamasei bertsook Manuel Lekuona jaunaren bildumatik dauzkala dio A. Zavalak, *Guernica-Imp. de A. Egurrola* moldiztegi argitalduriko bertso-paper batetik. Paper hori izengabea bada ere, Pedro Ormaetxe egilea den arrazoiak ematen ditu, Balendin Enbeitaren lekukotza bide.

Bertsoak poliki eginak eta narrazioa ondo eramana izanik, penagarri da bizkaiera-gipuzkeren nahastea. Sorta honetan ageri denez, Bizkaiko aspaldiko gaitza da hori. Bestalde *entretienigarri* (1. bertsoa) eta *barriak egiteko* (16.garrena) omen den historia honek krudelkeri handia erakusten du. Nik ere ezagutu nituen gutxi gora behera baserrietako dibertsio hauek, baina bertsook irakurtzean, zirrada eragin didate.

Pedro Ormaetxe eta Pedro Areatza bat direla emanik, Aita Onaindiak honen eta Ibarruriko Txankanen bi bertso dakartza.

Txankanek:

Pedro maitia, entzun egizu
ta ibili zaite kontuen
Igizabalgo bertsolaria
bere kantuko tonuen
hobeagorik ez dagoala
Ajangizeko puntuen.

(Gure bertsolariak. Aita Onaindia, 284. or.)

Ormaetxek:

Gernikatikan pixkat albora
herri txiki bat Ajangiz
Lezamen dauko bere izena
hantxe bizi naz aspaldiz
nahi dozunian etorri zaite
hartuko zaitut aprendiz.



Entzun egizu: entzun ezazu.

Igizabal: Ibarruriko baserri baten izena, Txankan bizi zena.

Aprendiz: ikasle.

BITOR BILBAO, «ITSUA»

Aurreko bertso sortan Juan Antonio Enbeita "Txotxojeurik" bertsoak jarri zizkion idi proba berari Bitor Bilbao itsuak beste koplak sorta bat dedikatu zion. Nor zen bigarren koplan bere burua aipatzen duen Bitor de Bilbao hau? Ez dakit, baina Morgarra nonbait, lehen koplan dionetik. Julio Bareño Gernikarrak A. Zavalari bidalitako datuetatik, proba hau 1888 inguruan jokatu zen Elgoibarren, errigotiarren eta muxikarren artean, Bizkaian probak debekaturik bait zeuden. Datu gehiago beherago aipatzen dudana A. Zavalaren liburuan.

PROBALARIAK

(Euskal jokoak bertsotan (II). A. Zabala. *Auspoa* 183, 101-106 or.)

01 Hogei bertso berriek
mendien jarriek
Morga lurrian eta
geure poderien.

02 Ikasi ta kantau deu
euskeldun guztiek
Bitor de Bilbaok ditu
berak atariak.

03 Sentidu eiten dire
hango apatx hotsak
atarako eutsozala
bertsoak garratzak.

04 Begi iluna dot nik
uri zeukan ertza (sic)
ezer ez dakiena
izan leike lotsa.

05 Biba Tomas famoso
biba botilero!
Ondo meniaturik
Axio ta Txordo.

06 Tomas balientie
ondo enpeinatu
bere kulpaz ez daizan
hango lanak galdu
Ixidro hori zala
pixkat bihozkatu.

07 Bihozka egon arren
izan leike fine
ez da guztioarena
bihotza bardine.

08 Enpeinatu zirian
zerbait ahalegine
ez ziran hoberenak
hainbeste premine.

09 Animatu, gizonak
trabes egiteko
gure arraie horrek
ez dute borrauko.

10 Hasi zuan Txordoa
tiratzen benetan
Axiok be luzatu
kokota zanetan.

11 Erregoiti aldeko mutil bi
banoa lonbretan
probatarako ziran
desafioetan.

12 Halan kontetan eben
Bizkargiko puntan
dirurik ez ebela falta
inoiz euren boltsan.

13 Bolanderak botatzen
proba galduena
holan aurkituten zan
taberneru zaharra.

14 Aditu zuenian
bolandera hotsa
Biba Erregoiti ta
Biba Bizkaigana!

15 Anton Bizkaiganekok
euren idieri
gari txarra jan eta
ardaua edari.

16 Agustin de Enbeita
konpaine horrekin
Elgoibarren sartu zan
indar handiakin.

17 Erregoitiarrak ziran
orduon pentsetan
zer izango ete zan
euren posturetlan.

18 Laster igarri eben
Erregotiarrak
galdu bihar ebela
euren proba dana.

19 Hartu ez bagenduen
horrelako plana!
Azkenengo plazatik
igesi zuen danak.

20 Agustin de Enbeita
Luperiakuak
bazter ederra dauka
bere etxe aldian.

21 Ez da han faltatuko
horrentzat artoa
ondo portatu dire
Axio ta Txordoa.



01. **Poderien:** boterean, eskumenean.

02. **Kantau deu:** kantatu du.
Atariak: atereak, sortuak.

03. **Apatx:** idien eta gisako animalien hatza-
zal lodia.
Eutsozala: zizkiola.

04. **Uri zeukan ertza:** zerbait oker dago he-
men, ez bait dauka zentzurik.
Leike: liteke.
Lotsa: ahalke.

05. **Meniatu:** maneiatu, erabili, gidatu.
Axio ta Txordo: idien izenak.

06. **Enpeinatu:** ahalegindu, saiatu.
Ez daizan: ez ditzan.
Bihozkatu: tristetu, adorea galdu.

08. **Hoberenak:** forma hau raroa da hemen,
Bizkaian guztiz arrotza bait da, eta kopla-
ri honek ez dirudi oso ikasia.
Premine: premia, beharrian.

09. **Trabes egin:** dirua jokatu, haren edo ho-
nen alde gurutzatu.
Arraie: arraia, marra, marka.

Horrek: horreik, horiek.

Borrauko: ezabatuko, onduko, hautsiko.

10. **Be:** bere, ere.

Kokot: sama edo lepoaren atzea, garon-
do azpia.
Zan: zain.

11. **Banoa lonbretan:** banoa nonbratzen,
izendatzera.

12. **Kontetan eben:** kontatzen zuten.

13. **Bolandera:** suziri, txapligu, etxafero.
Holan: honela nahiz horrela. Errigoitiko
tabernerua, txapliguak entzutean, bereak
botatzen hasi omen zen, errigoitiarrek
irabazi zutelakoan.

14. **Bizkaigana:** Errigoitiko mendi bat, Me-
txika gainean.

15. **Idieri:** idiei.

16. **Konpaine:** konpainia.

17. **Pentsetan:** pentsatzen.

Posturetlan: apustueta, trabesetan.

20. **Bazter:** etxaldea, baserri baten lur saila,
etxe inguruan dagoena.

ELIZTXORI

Bere izenordeaz eta bertsoak argitaratu zituen aldizkariaz beste daturik ez daukat *Eliztxori* honetaz.

LEHENGO EGUN BATEN

(Euskalzale, 3. zenbakia, 21. or. 1899. urtarrila)

- | | |
|---|---|
| 01 Lehengo egun baten ikusi neban
auzoko Anjel Martinez
ezagutu ezta, jardun genduan:
-Zu zara Martin? -Ez ta ez! | 04 Perez da Romerales
diruzko gauzetan
aberatsak ziran lez
egozan berbetan.
-Aberatsa zareala
entzun dot ba, Perez.
Zeinbat diru daukazu?
-Aldean baperez. |
| 02 Gaixorik atzo egon zalako
Garmingo Mikela Iñazi
bere herriko osagileak
jaten nahi ez eutsan itxi.
Horregaitik -hak esaten eban-
niri daust ardura gitxi
jan ezin badot ezertxo bere
dana egingot iruntsi. | |
| 03 Bilbora joateko
nago -dino Peruk.
Ta horregaitik dirautso
bere lagun Praiskuk:
Suburdirik ez dago.
Zelan zoiaz? Oinez?
Ta honek erantzun dautso:
Neure Praisku, oin ez! | |



01. **Neban:** nuen.
 02. **Osagileak:** sendatzaileak, medikuak.
Eutsan: zion.
Itxi: utzi.
Hak: hark.
Daust: dit.
Gitxi: gutxi, gutti.
Bere: ere.
Egingot: egingo dut.
 03. **Dino:** dio, erraiten du.

- Dirautso:** dinotso, diotsa, esaten dio.
Suburdi: trenna.
Zelan zoiaz: nola zoaz.
Dautso: dio.
Oin: orain.
 04. **Ziran lez:** zirenez, zirenez gero.
Egozan berbetan: zeuden hizketan, eleketan.
Baperez: bat bere ez, bat ere ez, deus ere ez.

Bertso hauek, bistan denez, ez dira sorta bat, ale jareinak baizik. Bakoitzak bere hitz jokoa edo ziria darama. Garai batean honelakoetarako joera handia zegoen.

LAUBIKO ELIZGIZONAK

(Euskalzale, 8. zenbakia, 63. or. 1899. zezeila)

- 01 Laubiko elizgizonak kopuruginik onenak itandu dautso etxean hainbat mutikon aurrean zeinbat direan lau ta bi auzoko txotxo Migeli. Eta Migelek arduraz erratuteko bildurraz lotsaturik erantzun dau: -Lau ta bi dira bi ta lau.
- 02 Jaungoikoak enaiala -dino Baltzango Patxiko Zurikinoiz be ipini bururik hil egin arteragino. Ta hagaitik dirautse askok: Mutil, ez daukak bildurrik. Ez haz jarriko bururik burua erosten ez badok.

- 03 Juanpe! Ez daukat -dinozubat be haginik jateko. Oin hori esan eiteko zeinbatxu hagin jan dozu?

- 04 Min-Huriko osagileak gaixo hau kendu eiteko dinaust udaro hartzeko Algorta aldeko haizeak. Ta nire amamak dino: Osasun on bat hartzea ez da izango hobea haizeak hartzea baino?



01. **Laubi:** lau-bi zenbakiekin asmatutako toponimo edo toki izena.
Kopurugin: matematikari.
Itandu dautso: galdetu dio.
Mutikon: mutikoren.
Txotxo: seintxo txitxi-txikia, mantarretako haurtxoa. Baita, hemen bezala, mutikoari eta oro har edozein gizonezkori deitzeko hitz ironikoa.
Erratuteko: erratzeko, huts egiteko.
02. **Enaiala:** ez nagiala, ez nazala.
Dino: dio.
Baltzan: *baltz* hitzetik asmatutako toponimoa, Zuri-rekin kontrajarria.
Be: bere, ere.
- Bururik:** burutik. Burutik ipini, jarri: zorarazi, erotu. Burutik egon: zoratuta egon.
Arteragino: arteraino, artio, arte.
Dirautse: esaten diote.
03. **Oin:** orain.
Esan eiteko: esateko.
Zeinbatxu: zenbatxo, zenbatño. Diminuti-boak ikutu erdi laztankor, erdi ironikoa damaio.
04. **Min-Huri:** min eta huri hitzekin asmatu-riko herri izena.
Kendu eiteko: kentzeko.
Dinaust: diost, esaten dit.
Udaro: uda oro, uda guztietan.
Amama: amatxi, amandre, amona.

Hauek ere, aurrekoak bezala, neurritz eta errimaz oso ahapaldi ezberdinak izan arren, ziri-umorezko izpirituan batzen dira. Eta, forman apur bat asmatuz gero, jenero grazioso denik ezin ukatu.

ERREBIDO

Filipinasen bizi zen euskaldun herrimintsu honek handik *Euskalza-*
le-ra bertsoak bidaltzen zituen, *Errebido* ezizenez, aldizkariak berak 93.
orrialdeko ohar batean dionez.

URRUNTASUNA

(Euskalzale. 1898. epailaren 31. 100. or)

- | | |
|--|---|
| 01 Jakitun batek esan ei eban
ez dakit nungo lekuan
urruntasunak maitetasuna
kendute ebala behinguan.
Jakitun honek nire eritxian
ez eban euki goguan
beste guztiak ez zirianik
bera lakuak munduan. | 03 Munduko toki deuntu ederra
beste bardinik bagia
noz ikusiko ete zaitut nik
neure jaiolur maitia?
Zure semien urruntasuna
herbestetasun nekia
beti negarrez zuri opaurik
bihotz eta gomutia. |
| 02 Urrun daukat nik Euskal Herria
juan dan aspaldi honetan
asko banaban lehenago maite
gehiago dot gaur maitetan.
Gau eta egun, lo ta itzarturik
beragaz naz gomutetan
jakitun honen esaeria
ez da euskal bihotzetan. | 04 Urruntasuna deritxat dala
maite diranen artian
zauri handi bat beti negarrez
harik urratu artian. |
| | 05 Hortik dabilzan euskal semiak
Euskera entzun nahi ezik
urten daiela gure antzera
euskal lur maite maitetik.
Maite ez badabe euren hizketa
Euskal Herrian bizirik
egongo diraz gau eta egun
negarrez entzun gurarik. |

ERREBIDO

Filipinasen bizi zen euskaldun herrimintsu honek handik *Euskalza-*
le-ra bertsoak bidaltzen zituen, *Errebido* ezizenez, aldizkariak berak 93.
orrialdeko ohar batean dionez.

URRUNTASUNA

(*Euskalzale*. 1898. epailaren 31. 100. or)

01 Jakitun batek esan ei eban
ez dakit nungo lekuan
urruntasunak maitetasuna
kendute ebala behinguan.
Jakitun honek nire eritxian
ez eban euki goguan
beste guztiak ez zirianik
bera lakuak munduan.

02 Urrun daukat nik Euskal Herria
juan dan aspaldi honetan
asko banaban lehenago maite
gehiago dot gaur maitetan.
Gau eta egun, lo ta itzarturik
beragaz naz gomutetan
jakitun honen esaeria
ez da euskal bihotzetan.

03 Munduko toki deuntu ederra
beste bardinik bagia
noz ikusiko ete zaitut nik
neure jaiolur maitia?
Zure semien urruntasuna
herbestetasun nekia
beti negarrez zuri opaurik
bihotz eta gomutia.

04 Urruntasuna deritxat dala
maite diranen artian
zauri handi bat beti negarrez
harik urratu artian.

05 Hortik dabilzan euskal semiak
Euskera entzun nahi ezik
urten daiela gure antzera
euskal lur maite maitetik.
Maite ez badabe euren hizketa
Euskal Herrian bizirik
egongo diraz gau eta egun
negarrez entzun gurarik.



01. **Ei eban:** omen zuen.
Kendute ebala: kentzen zuela.
Behinguan: behingoan, berehala, bat batean.
Lakuak: bezalakoak.
02. **Maitetan:** maitatzen.
Beragaz naz gomutetan: berarekin naiz gomutatzen, hartaz naiz oroitzen, gogoratzen.
03. **Deuntu:** santu egina, santua.
Bagia: bagea, gabea.
Herbestetasun: atzerritasun, arroztasun.
Opaurik: opaturik, eskainirik.
- Gomutia:** gomuta, oroitzapena, gogorapena.
04. **Deritxat:** deritzot, irizten diot, iruditzen zait.
Harik, harik eta: arte-artean-artio eta hauen aldaera guztien aurretik, iragarle gisa, jartzen den esapide indargarria. Beraz, *harik urratu arte, harik eta urratu arte* = urratu arte.
05. **Nahi ezik:** nahi ezta, nahi ez dutela.
Urten daiela: irten daitezela, jalgi bitez.
Badabe: badute.
Bizirik: bizi izanik, bizi direlarik.
Gurarik: nahirik.

LORA BATERI

(Euskalzale. 1898. epailaren 24. 93. or.)

- 01 Ederra zinan atzo goizian
lora guztien artian
usain gozua jartzen zenduan
zeure inguru guztian.
Beste loratxu danen ganetik
buru erakutsi nahian
margo askoko orriz beterik
harro ikusten zinian.
- 02 Nahikoa ez da atzo goizeko
zeure izate guztia
arratsaldian agertu zinan
asko gorago jarria.
Ostuten zaitzan beste lorari
eurena zan eguzkia
bihotz zeurian betiko itxirik
errukiaren atea.
- 03 Da gaur goizian ikusten zaitut
bien ganera jausita
harrotasunen astuntasunak
sustarretik apurtuta.
Zure margodun lora ederrak
inurritxuak hartunda
guztia dabilz hor eta hemen
banaturik zabalduta.
- 04 Beste loratxu guzti guztiak
zu holanik ikusirik
geratu diraz hasi nahi ezta
sustarretik loditurik.
Zure kaltia ikusi dabe
gehienak pozez beterik
eta zelan ez, ez bazenduan
zeuk eurentzat errukirik?

- 05 Edertasunak da harrotasunak
ez badabez sustrai onak
bi biak dabez euren buruen
areriorik txarrenak.



01. **Orriz:** hostoz, hostroz.
Nahikoa ez da: nahikoa ez dela, aski ez delarik.
Ostuten zaitzan: ostuten *zeuntsan* izan behar du, hots, lapurtzen, ebasten zenion.
Beste lorari: beste lorei.
02. **Jausita:** erorita.
Sustar: erro, sustrai.
Hartunda: hartuta.
04. **Holanik:** honela.
Nahi ezta: nahi ez dutela, nahi ezik.
Dabe: dute.
03. **Bien ganera:** bien gainera. Bi horiek zeri dagozkion kontestuan ez da ageri. Segurarenik *bide gainera* izango da.
05. **Badabez:** badituzte.
Arerio: etsai, izterbegi.

AMARENTZAT

(Euskalzale. 1898. epailaren 17. 83. or.)

- 01 Urrun Pilipinasti
dira Euskal Herriak
baina nire gomuta
betiko zuriak
arin egiten dituz
Amatxu, bidiak.
- 02 Harako ilargia
itxaso ertzian
guri argi eginda
estaltzen danian
laztan bat bialtzen dot
beragaz batian
leihoa idigita
hartuizu etzian
ikutu daizun, ama
zeure arpegian.

- 03 Atzera ilargia
hurrengo egunian
zueri argi eginda
ikusten danian
zure laztana hartzeko
bekoki erdian
atseginez beterik
neure bihotzian
egoten naz, Amatsu,
bere argipian.
- 04 Hedoi baltzez beterik
zerua danian
inundik ilargirik
ikuste ez danian
amaitu dalakuan
neuretzat lurrian
zure maitetasuna
maitien artian
negarrez egoten naz
zeru ilunpian.
- 05 Amesetan be egin dot
lehengo gau batian
ikusi zaitudala
eliz barrenian
ahuspez belaunbikorik
Birjina aurrian
eskariak egiten
semien onian
geure hizketa gozo
eusker a maitian.

- 06 Birjinatxu laztana
-esaten zenduan-
nire seme kutunak
jagoizuz munduan
nahiz izan itxasoan
ta nahiz lihorrian
izan zaiz euren Ama
dabiltzan tokian
gorde egizuz beti
zeure eskupian.
- 07 Herbesteturik dagoz
mundu azkenian
negarrez gomutaurik
euren jaiorrian.
Zelan, Birjina Ama,
gure lur maitian
dagoz herbestetarrak
sarturik etxian
eta nire semeak
urrun herbestian?
- 08 Egizu arren, Ama,
etorri deitjan
estutu dagidazan
neure besartian
eta danak batunda
euren jaiorrian
bizi daizan betiko
asaben legian
maitaurik Jaungoikoa
guztien ganian.

- 09 Itzartu nintzanean
neure Amatzua
egitzat hartu neban
ames einikua.
Zuk eskatu ezker o
zelan ukatua
Jesusen Ama bada
zuri egitekua
gugaitik egin dozun
eskari gozua?



01. **Gomuta betiko zuriak:** oroitzapen be-
tiko zureak, nire betiko zureganako go-
gorapenak.
Arin: azkar, fite.
02. **Beragaz batian:** berarekin batera.
Idigita: irekita.
Hartuizu: har ezazu.
Etzian: etxean.
Ikutu daizun: ukitu diezazun, hunki zai-
tzan.
03. **Atzera:** berriz.
Bekoki: kopet.
Argipian: argipean, argiaren azpian.
04. **Hedoi:** hodei, laino.
Zeru ilunpian: zeru ilunaren azpian.
05. **Amesetan be:** amets ere egin dut.
Eliz barrenian: elizaren behe edo atze
aldean.
Ahuspez: ahospez, ahoz behera.
Belaunbikorik: belauniko, belaunikatu-
rik.
06. **Jagoizuz:** jagon, zaindu, gorde itzazu.
Izan zaiz: izan zaitez.
Egizuz: itzazu.
Eskupian: eskupean, babespean.
07. **Herbeste:** atzerri, arrotzerri.
Dagoz: daude.
Gomutaurik: gogoraturik, oroitzuz.
Jaiorri: jaioterri, sorterri.
08. **Deitjan:** daitezen.
Dagidazan: ditzadan.
Batunda: batuta, bildurik.
Daizan: daitezen.
Maitaurik: maitaturik, maite izanik.
09. **Itzartu:** ernatu, atzarri, esnatu.
Neban: nuen.
Ames einikua: egindako ametsa.
Zelan ukatua: nola izango da ukatua.
Zuri egitekua: zuri egitekoa, zuri bete-
ko dizuna.

HARETXARI

(Euskalzale. 1899. epailaren 16. 87. or.)

01 Sorterritik urrunean
bihotza daukat nahibagez
eta gomuta nahi ta ez
beti zugandik hurrean
egunez eta gabean
nire begiak negarrez
zu ikusi nahi zaituez
lehenago zinan antzean.

02 Zu zara Haretx handia
Paradisuko zugatza
Askatasunen tailuntza
kondairan orri maitea
urteen jakituria
lege deuntuaren giltza
aitor-semeen bihotza
ta itxaropen guztia.

03 Zure gerizpe deuntuan
egin zirean legiak
sarri jakitun handiak
edertu dabez munduan
eta hizketa gozuan
euren eskutitz da minak
egin dabez ahaleginak
zu ipinteko zeruan.

04 Eta sorterri barriak
euren estuntzak hausirik
geratueran bakarrik
ikasten zure legeak
bialdu ebezan semeak
eta duin aurkiturik
euren herrian iarririk
gaur bizi diraz handiak.

05 Emon zenduzan umantak
mundu miragarriak
euren eikera handiak
beterik dabez kondairak
baita eginik tailuntzak
mundu zahar eta barriak
maiterik dabez gordiak
zure semeen izenak.

06 Baina egun nahibagean
arerio zikinduak
ipini ebazan eskuak
zure handitasunian
eta Aitorren herrian
zelaiak eta mendiak
milak umanten habiak
baltzez estaldu zirean.

07 Itxi ebezan atiak
legearen jauregian
gehiago zure azpian
jarri ez daizan semeak
eta ekandu maiteak
esturik euren burdian
galdumeneko bidean
daroazkuez guztiak.

08 Nun da kondairak dinoan
jente garaitu bagia?
Aitorren odol garbia
amaitu ete zan munduan?
Nun harako lauburuan
edesten euren pedea
pozez hiltan zan endea
arerioen aurrean?

09 Ez ete dago odolik
gaurko semeen zanetan?
Ez ete da mendietan
gehiago entzungo irrintzarik?
Ez ete dira, jarririk
arerioen aurrean
euren asaben antzean,
pozarren hilgo zugaitik?

10 Ikusiko ete ditut nik
atzera euskal semeak
euren umien jaubeak
arerioa neurturik?
Ikusiko ete ditut nik
Iberoatar garbiak
hizketa eta legeak
asabak legez maitaurik?

11 Ikusiko ete ditut nik
harako tutulariak
igoten gure mendiak
euren tutuak harturik
ta herriari deiturik
herrien agintariak
itxirik euren herriak
zure oinetan bertatik?

12 Ikusiko ete zaitut nik
atzera zure azpian
anaiak lez etxadian
zeure semeak baturik
ta zabal-zabal jarririk
bardintasan tokian
mundu guztien aurrian
lehenago lez askaturik?

13 Nozko dira lehorturik
jarriko nire begiak?
Noz jaio nintzan herriak
euren estuntzak hausirik?
Noz euskaldunak baturik
bakezko besakadeak
anaia-arteko haserreak
alde batera itxirik?



01. **Nahibagez:** nahigabez, atsekabez, saminez.
Gomuta: oroimena, gogorapena.
Hurrean: hur, hurbil, gertu.
Zaituez: zaituzte.
02. **Haretx:** haritz.
Zugatza: zuhaitza.
Tailuntza: badirudi eskultura edo horrelako egitura bat esan nahi duela, *tailu*-ren itxura, molde edo taxu adieratik.
Orri: hosto, hostro.
Deuntu: santu.
Aitor- seme: Aitorren seme, hots, maila gureneko semea.
Aitor: euskaldunen alegiazko patriarka, lehen euskalduna.
03. **Gerizpe:** geriza, itzal.
Sarri: sarritan, maiz, anitzetan.
Dabez: dituzte.
04. **Estuntzak:** loturak, estekadurak.
Geratueran bakarrik: geratzean bakarrik, hots, aske edo libre gelditzean.
Ebezan: zituzten.
05. **Zenduzan:** zenituen.
Umantak: badirudi umaldiak edo belaualdiak edo horrelako zerbait dela. Edo umeak soilik, geroago datorren *umanten habiak* ikusirik.
- Eikera:** egikera, egintza, ekintza.
06. **Arerio:** etsai, izterbegi.
Ebazan: zituen.
Habiak: kabiak, kafiak.
07. **Daizan:** daitezen.
Ekandu: ohitura, usadio.
Galdumen: galmen, hondamen.
Daroazkuez: daramazkigute.
08. **Dinoan:** dion, erraiten duen.
Garaitu: menperatu, gainditu.
Bagia: bagea, gabea.
Edesten: historiatzen, kontatzen.
Pedea: fedea.
09. **Zanetan:** zainetan.
Irrintza: irrintzi, zantzo, oihu.
Pozarren: poz pozik, biziki pozik.
10. **Atzera:** berriz.
Jaubeak: jabeak.
Legez: bezala.
11. **Tutulariak:** tutu joleak.
Tutu: turuta, korneta.
Itxirik: utzirik.
12. **Etxadi:** sendi, familia.
Lez: legez, bezala.
13. **Nozko:** noizko.
Besakadeak: besakadak, besarkadak.

Neurriaren eta errimaren zailtasunak batzutan esaldiak ilun samar utz erazten badizkio ere, urrundiko aberri-mina saminki adierazten dute bertso hauek, garaiko estilo euskaldun-fededunean. Neologismorako joerak ere batzutan textua apur bat noraezten duen arren, oro har euskarra herritarra eta ulergarria darabil. Hain egitura zaileko sorta hau burutzea zenbat kostatu ote zitzaion Errebido gizajoari Filipinasko zokoren batean!

ARIN-ARINA

(Bizkaitarra. 1911-8-19. 139. zenbakia)

- 01 Oinak arinak eta burua arinago dantzari hobeto dakik arta jorran baino.
- 02 Ezkontzeko amesak ei dozak goguan eta bedarra daukak artotzat soluan.
- 03 Ez egixu amesik etorkizunean daukoguna be ez dago betiko lurrean.
- 04 Ez egixu barrerik inoren gatxian bestek egin ez daizun zeuk daukozunian.
- 05 Egualdi onak legez egualdi zantarra barreak dau hurrean atzetik negarra.
- 06 Gordetan ez diranak behar dan orduan negar egin ohi dabe sarri beranduan.
- 07 Jaramon egin bada nire esanari azkenengoa da ta agur guztiori.



01. **Kopla** hau kopla zaharra da, sortaren abiagunetzat hartzen duena.
02. **Amesak:** usteak, asmoak.
Ei dozak: omen dituk.
Bedarra: belarra.
Soluan: soroan, alorrean.
03. **Ez egixu:** ez ezazu egin.
Be: ere.
04. **Barrerik:** iririk.
Inoren gatxian: besteren gaitzean.
- Ez daizun:** ez diezazun.
05. **Egualdi:** eguraldi.
Legez: bezala.
Zantarra: txarra, gaiztoa.
Dau hurrean: du, dauka hurbil.
06. **Gordetan:** gordetzen, jaboten, kontuz ibiltzen.
Dabe: dute.
Sarri: sarritan, maiz, anitzetan.
07. **Jaramon egin:** arreta jarri, kasu egin.

F. A.

Ondorengo bertso sorta inisial hauekin sinaturik dator *Euskalzale* aldizkarian. Felipe Arrese Beitia izan ote liteke? Haren bilduma liburuan behintzat ez dator sorta hau. Bestalde, ikusitako aldizkarietan ez dut hura inzialekin sinatzen somatu. Kolaboratzaile oso ugaria izan zen han-hemen, baina beti izen-abizen osoz sinatzen ikusten dut. Gainera inzialak jartzekotan, badirudi F. A. B. behar lukeela. Hala ere, estiloan eta esakeretan, Felipe Arreseren antz handia hartzen diot. Beraz, zerbait erabaki behar banu, bertso hauek bereak direla esango nuke.

ASKOREN ARTEKO BATERI

(*Euskalzale*. 1897. jorrailaren 1, 109. or.)

01 Pabo real bat baino
pitxiz beteago
jantzirik ez zenbiltzan
bart beranduraino
dantzan jira biraka,
hara jo hona jo
salatzar handi baten
galaiakaz harro?

02 Eta nok sinistu lei
eleizan goizean
ikusi zaitudala
debota artean
santatxo bat legetxe
eurakaz nahastean
komuninoan hartzen
Jesus bihotzean?

03 Zeinek sinistu daike
hau dala egia
ikusten dogun legez
goian eguzkia?
Nok ukatu leike nok
hain egi argia
testigutzat badago
herri bat guztia?

04 Oh, baina begiratu
ezketino zuri
buru begi arpegi
ta soinera zoli
ez zenduan agiri
zer zarean garbi
itanduten ibili
bagarik inori?

- 05 Zelan bada izanik
larrosa zorua
maitatuten dozuna
huts hutsik mundua
iruditu nahi dozu
bioletatxua
komulgetako makur
jarririk burua?
- 06 Zelan azartzen zara
hurreratutera
beata antza harturik
altara aurrera
baldin bazabiltz beti
kanpoan bestera
mundutarrak ibili
ohi diran legera?
- 07 Zelan ez dozu zelan
atzera egiten
zeruak itzal santu
bat deutesnak hartzen,
kopoetik kanpoan
danean agertzen,
bazaitu deabruaz
baturik ikusten?
- 08 Dantzan zeugaz zenkarren
hausdun soinekoa
jantzita lohitutera
zoaz mahai santua?
Ez dozu honezkero
ezaindu nahikua
aingeruan ogia
jaten dan lekua?
- 09 Zelan, dinotsut, zelan
oh dama gangarra
zabiltzana kanpoan
ihi eta aha
bertan sarturik larri
bildur ta ikara
hilda bapaten jausten
lurrera ez zara?
- 10 Ez dozu behin itxiko
bat edo bestea?
Ez al dakizu zer dan
halan bizitzea
zelan ezin dana dan
Jaun bi zerbitzea
Jesus ta deabruaz
lagun izatea?
- 11 Zoaz, dama nasaia
urrin altarati
zoaz, deabruagaz
bizi zaitez beti.
Zoaz, galai lagunai
ez eiozu itxi
laztan paltsorik baina
ez emon Jesusi.
- 12 Baina gura dozunak
Madalenak legez
etxun bene benetan
Jesusgana ahuspez.
Berak hartuko zaitu
gogoz, ez hasarrez
bazoakoz damuz ta
dantzetatik ines.



01. **Pabo real:** indioilar.
Galaiakaz: galaiekin.
02. **Lei:** lezake.
Legetxe: bezalaxe.
Eurakaz: eurekin.
Komuninoan: komunioan, komekuan,
jaunartzean.
03. **Daike:** dezake.
Legez: bezala.
Nok: nork.
Leike: lezake.
04. **Ezketino:** ezkerro, begiratuz gero.
Zoli: argi, erne, bizkor.
Itanduten: itauntzen, galdetzen.
Bagarik: barik, gabe.
05. **Zelan:** nola.
Komulgetako: komulgatzeko, komeka-
tzeko, jaunartzeko.
06. **Azartzen:** ausartzen.
Hurreratutera: hurreratzera, hurbiltze-
ra.
Altara: aldare.
Bestera: bestetara, bertze moduz.
07. **Deutesnak:** diotenak.
Kopoe: kopoi, hostiak edukitzeko ontzia.
- Deabruaz:** deabruarekin.
08. **Zeugaz:** zeurekin.
Lohitutera: lohitzera, zikintzera.
Honezkero: oraingo, orain arte.
Ezaindu: itsusitu, zatartu.
09. **Dinotsut:** diotsut, erraiten dizut.
Gangarra: jarein harroska, lotsagabea,
zentzun gutxikoa.
Bapaten: bat batean, berbertain.
Jausten: erortzen.
10. **Behin:** behingoz, noizbait.
Itxiko: utziko.
Halan: hala.
11. **Nasaia:** laxoa, jareina, arduragabea.
Urrin: urrun, urruti, asago.
Altarati: aldaretik.
Deabruagaz: debruarekin.
Ez eiozu itxi: ez iezaiezu utzi, ez itzazu
laga.
Paltsorik: faltsurik, gezurrezkorik.
12. **Gura dozunak:** nahi duzunak.
Etxun: etzan.
Ahuspez: ahuspez, ahoz behera.
Bazoakoz: bazoazkio.
Ines: ihes, ihesi.

MELTXOR ANDONEGI

Gizon honetaz apaiza zela beste daturik ez dut eskuratu.

GARBITEGIKO ARIMAK

(Euskalzale. 1897. urriaren 28, 346. or.)

Heriotzeak idigi dauskuz
betirauneko ateak
Balbe gogorak amaitu ditu
geure egun eta asteak.

01 Ortu santuan nengoanean
gauerdi baten bakarrik
harrigarritzko gedar itzalak
urteten eben lurpetik.

02 Garbitegiko arimak ziran
hainbeste neken artean
su-lokarriak eten ezinda
laba goriko garpean.

03 Bigun baleitez geure bihotzak
eskatuteko Jaunari
hainbat lasterren igon dagien
zerura garbitegiti.

04 Aita ta ama, neba-arreba
senide eta lagunak
sugar biziak erreten ditu
garbitu arte orbanak.

05 Guraso batek larririk dino
suzko izardi bitsetan:
esker gaiztoko seme-alabak
ahaztu nozue benetan.

06 Guraso-gedar larrietara
gortuten dana munduan
beste hainbeste igaro barik
ez da sartuko zeruan.

07 Gaztetxutarik guraso-kutun
beti zan alaba onak
suzko gelatik negarrez dino:
Zein laster ahaztu nau amak!

08 Adiskideak edola bere
erruki zaitez gugaitik
hainbat lasterren igon dagigun
zerura garbitegitik.

09 Jesus, gizonen salbagilea
bagunzke presondegian
ahalegin dana egingo geunke
aterateko ustian.

10 Garbitegiko arimak gaitik
 Jesusek dino samurrik:
 Haren onean egiten dana
 neuretzakotzat daukat nik.

11 Gau eta egun eskatu daigun
 arima onen bakea
 hainbat lasterren igaro daien
 Sion santuko atea.



Idigi: ireki.
Dauskuz: dizkigu.
Balbe: heriotzari ematen zaion izena.

01. **Ortu santuan:** kanposantuan, hilerrian.
Gedar: deihadar, oihi.
Itzalak: oso handiak.
Urteten eben: jalgitzen, irteten ziren.

02. **Garbitegi:** garbitoki, purgatorio.
Neken: nekeren.
Laba: labe.
Garpean: garren azpian, menpean.

03. **Igon dagien:** igo, igan daitezen.

04. **Orbanak:** lohidorak, zikinak.

05. **Dino:** dio, erraiten du.
Bits: apar, agun.
Nozue: nauzue.

06. **Gortuten:** gortzen, elkortzen.

Igaro: iragan, pasatu.
Barik: bagarik, gabe.

07. **Gaztetxutarik:** gaztetxo zenetik.
Guraso-kutun: gurasoen kutuna, hau-
 tua.

08. **Edola:** edozelan, edonola, nolana.
Bere: ere.
Dagigun: dezagun.

09. **Bagunzke:** bageunka, bageneuka.
Geunke: genuke.

10. **Samurrik:** samurki, bigunki.
Haren: harein, haien.

11. **Daigun:** dagigun, dezagun.
Daien: dezaten.

GABON GABA

(Euskalzale. 1897. lotazilaren 30, 422. or.)

01 Zer igaro eta da
 gaurko gauerdian?
 Gizon aldra bat dakust
 Belengo bidian.
 Aberatsak ez dira
 euki-ezak baino
 euren soineko zaharrak
 urraturik dino.

02 Artegien begiran
 gabea daozala
 aingeruak dinautse
 Jesus jaio dala.
 Aurkituko dabela
 zapian bildurik
 aska baten seintxua
 amak ipinirik.

03 Ezaungarri honegaz
 sinistez beterik
 Belen aldera doaz
 emoiak harturik.
 Ikusirik ataian
 Jaun gizonduari
 atseginez ganezka
 deutseez eskeini.

04 Bakea kantetan da
 zeru ederretan
 neuk bere kantauko dot
 herbeste honetan.
 Aingeruen soinuaz
 neurea baturik
 sein hau adorauko dot
 bihotz bihotzetik.

05 Eguzkiaren urteieratik
 sartuieraino artian
 dontzeila baten seme bakarra
 errege dogu guztian.

06 Giza-aldian egil dontsuak
 gure gorputza jantzirik
 atera gaitu heriotzatik
 eukidun-ez bat eginik.

07 Ama samurren errai garbiak
 zeruko dohez beteak
 daroiaz bere sabel txikian
 mirari guztiz haundiak.

08 Dontzeila honen sabel garbian
 Jaunak dau egin etxea
 gizonezkorik ezautu baga
 sorturik amak semea.

09 Aingeru baten barri ederrak
 sabel bietan husturik
 lehengosin bien ikustereak
 jaso dau Joane pozturik.

10 Igarle batek esan eban legez
 zazpirehun urte baino lehen
 zeruko Jauna agertu jaku
 gizon eginik Belenen.

11 Amodiozko sugar biziak
 bere heriotza bizturik
 askatxo baten Jesus dau jarri
 umiltasunez beterik.

12 Barri dontsu hau agertuteko
 aingeru aldra ederrak
 biraldu dituz artain artera
 artzain guztien artzainak.

13 Galtzu artean Jesus maiteak
 betiko Jauna izanik
 dontzeilearen ugatz gozoa
 hartu dau pozez beterik.

14 Atseginezka koru ederrak
 aingeruakaz eginak
 kantetan dagoz Jesus onari
 zeruko kanta pozturik.

15 Jesus zuretzat gloria beti
dontzeilearen semea
aitagaz beti bedeinka dila
Megope santu maitea.



01. **Igaro:** gertatu, jazo.
Aldra: talde, multzo.
Dakust: ikusten dut.
Euki-ebak: ez daukatenak, pobreak.
Dino: dio, erraiten du.
02. **Artegi:** ardikorta, ardileku.
Begiran: zaintzen, jagoten.
Daozala: dagozela, daudela.
Dinautse: diotse, esaten die.
Dabela: dutela.
Seintxua: haurtxoa.
03. **Honegaz:** honekin.
Emoiak: emateko gaiak, opariak.
Ataian: atarian, atetan, atartean.
Deutseez: dizkiote.
04. **Kantetan:** kantatzen.
Neuk bere: neuk ere.
Soinuaz: soinuarekin.
Sein: haur.
05. **Urteieratik:** jalgieratik, irteeratik.
Sartuieraino: sartueraraino, sarreraraino, sartzerraino.
06. **Egil dontsuak:** egile santuak, dohatsuak.
07. **Dohez:** dohaiz, dohainez.
Daroiak: daramatza.
08. **Ezautu bago:** ezagutu gabe, haragizko harremanik ukan gabe.
09. **Lehengosin:** lehengusina.
Ikustereak: ikuskerak, ikusteak.
10. **Eban legez:** zuen bezala.
Jaku: zaigu.
12. **Biraldu:** bidali.
Galtzu: gariaren lastoa.
Ugatz: bularra, titia.
13. **Aingeruakaz:** aingeruekin.
Dagoz: daude.
Pozgin: pozgarri, poz emale.
14. **Aitagaz:** aitarekin.
Dila: dadila.
Megope: ez dakit zer den. Neologismo-
ren bat dirudi.

AMA DONTZEILAREN ZERURATZIARI

(Euskalduna 1897. 50. zenbakia. 393. orrialdea)

- 01 Andra Maria, zerura zoaz
seme Jesusen besuan
hantxe bai ondo hartzen zaitue
atseginezko kantuan.
- 02 Ai ene Ama, nok ahal leikean
zure jantzitik oratu
mendi santura gaur igon eta
aingeruakaz gozatu.

03 Atseginezko soinu gozuak
Zedron aldetik dantzudaz
Ama laztana, zerutar danak
poztuten dira gaur zugaz.

04 Urrezko jantzi ederra dozu
apaingarriztat soinean
ilargi zuri zilarretua
zapinotzako oinean.

05 Sion santuko gau buru baten
ederrik dozu jargoia
zeure burua izar ederrez
apaunduriko koroia.

06 Ebaren seme herbestetuok
begira gagoz zугanutz
Ama samurra, bihor egizuz
begi bigunok gугanutz.

07 Egunsentiko izarra legez
eguzkiaren aurretik
hilezkor eske argi dontsua
emon ohi dozu zerutik.

08 Bihotza dozu samurra eta
eskuak guztiz zabalak
Jaunak zугaitik hartu daizala
Adanen seme alabak.



01. **Zaitue:** zaituzte.
02. **Leikean:** lezakeen.
Oratu: heldu, atxiki.
Aingeruakaz: aingeruekin.
03. **Dantzudaz:** entzuten ditut.
Zugaz: zurekin.
04. **Zilarretua:** zilartua, zilarreztatua.
Zapinotzako: zapinotzat.
Zapino: orkatilara bakarrik iristen den
galtzerdia.
05. **Jargoia:** errege edo aita santuen jarle-
kua.
06. **Gagoz:** gaude.
Bihor egizuz: bihur, itzul itzazu.
07. **Egunsenti:** oilarite, argi-haste, egunabar.
Legaz: bezala.
Hilezkor: hilezkortasun, hilezin.
Dontsua: dohatsua, santua.
08. **Daizala:** ditzala.

KOBLAKARI

Koblakari honen beste berririk ez daukat *Euskalzale* aldizkarian ize-norde horrekin argitaratu zuen koplak sorta hauxe baino.

NEURE EMAZTE MANU MARI

(*Euskalzale*. 1898. zezeilaren 10, 47. or.)

Neure emazte
Manu Mari
Zeinek ein nau ni
koblakari?

Neure emazte
Manu Mari
zugaitik naz ni
koblakari.

01 Zugaz bizi nintzanean
baserri zahar txukunean
gorputz sendoa neukan da
maitasuna bihotzean.

04 Baina zu baizen hobeto
maite dot neure mendia
euskaldunen jaioleku
ta aitona zaharren hobia.

02 Maite neban emaztea
zahar zañean nahiz gaztea.
Maite neban eta nintzan
era berean maitea.

05 Arrotza hemen ikustean
zaunkaz ohi da zakurdia
peril ordu estuetan
erestun koblakaria.

03 Gorputzean odolak hotz
buru zuri ta hazur zorrotz.
Gaur bakarrik bizi naz ni
neure herrian bertan arrotz.

06 Ta eresiak berotzen dau
euskal baso-gudaria
ta zaunkatik ez dago urrin
zakurraren hainkadia.

07 Zenbat bidar urratu dot
oihuka neure eztarria!
Osinbeltzek zenbat bidar
entzun dau nire irrintzia!

08 Zenbat aldiz berotu dot
euskal gizonen bihotza!
Zenbat bidar ikusi dot
nire ondoren heriotza!

09 Zenbat aldiz odoldu dot
neure haizkora zorrotza!
Zenbat aldiz amaitu dot
bizar gorridun arrotza!

10 Zenbat bidar ikusi dot
gure mutil menditarra
besoetan ipiniaz
ekaitz guztien indarra!

11 Begietan tximistea
ta infernuko su ta garra
ta haren aurretik igesi
mendiz behera prankotarra!

12 Gaur naz zaharra ta atzo gazte
zein arin doian guztia!
Bitartean idoro dot
urtien erakutsia.



01. **Zugaz:** zurekin.

02. **Neban:** nuen.

04. **Zu baizen:** zu baino.
Hobia: hilobia.

05. **Zakurdia:** zakurteria, zakur guztiak.
Peril: arrisku.
Erestun: kantari.
Koblakari: bertsolari.

06. **Eresiak:** kantuak.
Urrin: urrun, asago, urruti.

Hainkadia: haginkada, horzkada, koska,
ausikia.

07. **Eztarria:** zintzurra.
Osinbeltz: ez dakit. Pertsonaia mitiko-
ren bat edo toki-izenen bat dirudi.

08. **Zenbat bidar:** zenbat aldiz.

09. **Bizar gorridun:** geroago agertzen diren
frankoen ezaugarria.

11. **Prankotarra:** frankoa, frantziarra.

12. **Idoro:** aurkitu, kausitu.

ARNOLDOREN ALARGUNA

ZU JOAN ZARA

(Euskalzale. 1898. maiatzaren 5, 141. or.)

01 Zu joan zara zorionera
zu joan zara ta ni ez!
Zure hilohian laster naukazu
hilda ni bere zu legez.

02 Orma zaharrean nengoan huntza
jausi naz orma zaharragaz
bere azpian eguzki barik
ni azkar igartuko naz.

03 Zeinek han deutzaz orma zaharrari
zeinek han deutzaz azpiak?
Ez prankotarren baleuka motzak
ezpada euskaldun piztiak.

04 Auñemendi! Esna egon zaite!
Piztiak dabilz auzoan
da kanpokoak gitxi dirala
piztiak zeure kolkoan.

05 Auñemendi! Pizti dongea
bihotza jaten neuk daukot
eta halan bere senarra legez
nik parkatuaz hil nahi dot.

06 Jan zuk, piztia, jan zuk bihotza
ta ni lehenbaitlehen amaitu
nire bihotzak, lehen ez bazinan,
euskaldun egingo zaitu.

07 Euskalduna ta leinargitsua
piztikerien etsaia
neure Jesusen lege zalea
gizon guztien anaia.



01. **Hilohian:** hilohean, zerraldoan, hilku-
txan.
Ni bere: ni ere.
Zu legez: zu bezala.

02. **Huntz:** landare igokari hostotsu bat.
Jausi: erori.
Zaharragaz: zaharrarekin.
Barik: bagarik, gabe.

03. **Deutzaz:** dizkio.

Prankotar: franko, frantziar.
Baleuka: balanka.
Ezpada: baizik.

04. **Esna:** itzarrik, atzarri, erne.

05. **Dongea:** gaiztoa.
Daukot: daukat.
Halan bere: hala ere.

07. **Leinargitsua:** leinargia, noblea, aiton-
semea edo aiton-alaba.

ARTATXORI

IKASLA IKASTUN BATI

(Euskalzale. 1898. bagilaren 16, 190. or.)

01 -Nondik hator arinka?
Nora hoa, txotxo?
Zetan hoa hain leihaz
estu ta larritxo?

02 -Eskolatik nator da
oin noa etxera
hamabiak diralez
bazkaldu eitera.

03 -Eskolara al habil?
Mutil, noizik hona?
-Orain hile bi t'erdi
hasi nintzan, jauna.

04 -Ikasko eban asko
hainbeste denporan
zegaitik buru ona
daukala entzun dodan.

05 -Txikertxutarik beti
zuhurra naz ni izan
Bilbon dagon anaia
zaharrenaren gisan.

06 -Zuhurra izan behar dok
egia esateko
heure anaia beste
inoiz izateko.

07 Baina eskola asko
ikasi eiteko
leiha lartxu daroak
bazkaltan jartzeko.

08 Hile bi t'erdi horretan
ze ikasita hago?
-Eskolara bidea
ikasita nago.
Zer gura dau bedorrek
ein daidan gehiago?



01. **Arinka:** lasterka, arineketan, antxintxika.
Txotxo: gizonzkoei, mutikoei batez ere, dei-
tzeko hitz erdi xerakor, erdi ironikoa.
Zetan hoa: zergatik hoa. Baita *zertara* ere.

02. **Oin:** orain.
Diralez: diren legez, direnez, direnez
gero.
Bazkaldu eitera: bazkaltzera.

03. **Noizik:** noiztik.
Hile: hil.

04. **Ikasko:** ikasiko.
Eban: heuan, huen.
Zegaitik: ze, zeren. Kausala.
Daukala: daukaala, dukala.

05. **Txiker:** txiki, tipi.
Txikertxutarik: txikitxotatik.
Zuhurra: zolia, argia, buruz azkarra.

06. **Anaia beste:** anaia aina, bezanbat.
Inoiz: noizbait, egunen batez.

07. **Ikasi eiteko:** ikasteko.
Lartxu: larregitxo, gehiegitxo, gehixko.
Daroak: daramak.
Bazkaltan: bazkaltzen.

08. **Gura dau:** nahi du.
Bedorrek: berorrek. Begirunezko tra-
taera.
Ein daidan: egin dezadan.

TXANDRES DA IOMANU

(Euskalzale. 1898. bagilaren 23, 200. or)

01 Egia da, Iomanu
gaur entzun dodana
hil dala zure aube
andra Mari Juana?
Patzikok esan daust gaur
atzo hil ein zala
ta andreak lehen esan daust
egia ez dala.

02 Nik be ezin dot sinistu
andra Mari Juana
hain eder da osasuntsu
beti egon dana
hilgo zala hain arin
lau egun barruan
eukiagaitik mintxu
apur bat kolkuan.

03 -Egia da ba, Txandres,
hil jatana atzo
hagaitik oin daukagu
nahibagerik asko.
-Gitxiagorako ez da
aube bat hiltea
izanik hatan bere
bera hain santea.

04 Baina uste dodanez
ta hau da poztuteko
itxiko eban harek
zeozer zutzako.
-Bai, neure laguntxua,
itxi daustaz asko,
zorrak, neure lepotik
neuk ordainduteko.

05 Ondasun hau nahi bozu
egin erdi bana
ordaindukotzut, Txandres
gaurko jan-edana.
-Neure lagun Iomanu
ez da txarto esana
baina hoba da zugaz
lotu deiten dana.



01. **Iomanu:** Jose Manuel edo Joan Manuel.
Aube: amaginarreba, senarraren edo
emaztearen ama.
Daust: dit.

02. **Be:** bere, ere.
Arin: azkar, laster.
Mintxu: mintxo, min edo gaitz txikia.

03. **Txandres:** Jose Andres.
Jatana: zitzaidana, zitzaidala.
Oin: orain.
Nahibage: nahigabe, atsekabe, samin.
Hatan bere: hatan be, hain zuzen, gai-
nera.
Santea: *santua*-ren femeninoa.

04. **Itxiko eban harek:** utziko zuen hark.
Zeozer: zerbait.
Zutzako: zuretzako, zuretzat.
Itxi daustaz: utzi dizkit.
Neure lepotik: neure bizkarretik, neu-
re diru edo ondasunetik.
Ordainduteko: ordaintzeko.

05. **Bozu:** badozu.
Ordaindukotzut: ordainduko dautzut,
dizut.
Txarto: gaizki, oker.
Hoba da zugaz: hobe da zurekin.
Lotu: gelditu, geratu.
Deiten: dadin.

AMA BAT ETA SEME LOTI BAT

(Euskalzale. 1898. garagarrilaren 14, 219. or.)

01 Bakik bart ze ordutan
ohira heintzan joan
oraindik egoteko
etzunik hor ohian?

02 Zortzirak baziran be
ez ziran gehiago
esan zeustadania
ohirako prest nago.

03 Orduan esan neuntsun:
ohia eginda iagok
joan heinteke ohira
orain heuk nahi badok.

04 Hau esan da behingoan
sartu heintzan ohian
itandu ein bagarik
besterik noz doian.

05 Ordurik hona, ume,
ezpada gehiago
hamabiren bat ordu
ein diraz igaro.

06 Hamabi ordu horretan
eginagaitik lo
ordurik galdu barik
hona jo ta hara jo
artetasun handiaz
etzunik hor hago
begiak itxi eta
lo egiten majo.

07 Entzunik zortziretan
orduaren hotsa
ohian lo egoteko
mutil, ez haz lotsa?

08 Esaik, mutil, zegaitik
lotitzar ganbelu
alper ustel, zegaitik
jagi haz hain belu?

09 -Zegaitik jagi nazan
belu nahi dau entzun?
Bada bart lar goizetik
nozulako etzun.



01. **Bakik:** badakik.
Ohira: ohera.
Heintzan: hintzan, hintzen.
Etzunik: etzanda.

02. **Be:** bere, ere.
Zeustadarian: zeunstanean, zenidanean.

03. **Neuntsun:** nizun.
Iagok: diagok, zegok.
Heintike: hinteke.

04. **Behingoan:** berehala, atoan, berbertan.

Itandu ein bagarik: galdetu egin barik,
galdetu gabe.
Noz: noiz.

05. **Ordurik:** ordutik, geroztik.
Ein diraz igaro: iragan, pasatu dira.

06. **Artetasun:** patxada, lasaitasun.
Majo: poliki, ederki.

07. **Orduaren:** orenaren.
Lotsa: ahalke.

08. **Esaik:** errak, esan ezak.
Lotitzar: loti izugarri.

Ganbelu: kankailu, kirten. *Ganbelu* ize-
neko animalitik harako adiera.
Jagi: jaiki, ohetik altxatu.

Belu: berandu, berant.
09. **Nazan:** naizen.
Lar goizetik: goizegi.

TXIRRIST NOR DA

(Euskalzale. 1898. apirilaren 14, 116. or.)

01 Itaune hauxe askok egin dau
euskaldun onan artean
itaune honi erantzun neio
neurtitz alditsu batean.

02 Txirristek dauko berak dionez
bere aitatzat tximista
bere amatzat traganarrua
biak dagoz orain hilda.

03 Jakin nahi dozu, irakurlea
Txirristxu zelan jaio zan?
Irakurrizuz hizkera batzuk
gogotik paper honetan.

04 Egun sargori sargori baten
Sollube menditik behera
hodaia joan zan itxasorantza
egarria uraz hiltera.

05 Izaro ugarte altzean ura
edaten jarri zanean
beste hodai baltz itzaltsu batek
jo eban buru ganean.

06 Trumoia eginaz hodai baltz horrek
jo eban traganarrua
tximista batek ebagi eutsan
honeri bere barrua.

07 Sabel ebagi hatatik gero
Txirrist gurea jaio zan
Txirrist orduan ein ebalako
hitz hau izentzat hartu eban.

08 Txirristen ama traganarrua
semea jaio orduan
euritu ta hil zan, Aita Tximista
hondatu ein zan itxasoan.

09 Txirrist, mutilak, izanagaitik
min da belarri bakoa
berba eiten dau mindunak lez da
entzun gauza ardurazkoa.

10 Begi ta eskurik ez dauka baina
ikusiten dau ederto
oratu barrez belarri handi
danari guttiz polito.

- 11 Sudur bagarik egonagaitik badaki usain egiten etxetik daki erdalzaleak nondik direan ibiltan.
- 12 Oin bagakoa izanagaitik arin ibiltan badaki gurago dau hak egon ein baino ibili hortik hemendik.
- 13 Txirrist gurea, irakurlea, hain dozu ibiltaria ze nahikoa dau egun erdi bat ikusteko Euskal Herria.
- 14 Orain badago esaterako Bilbon lagunaren artean behingoan dago berak nahi badau Sollube-mendin atzean.
- 15 Alper ibili eingo da Txirrist arinka egun guztian ixerdirik behin urtengo ez dautsa tistilik bere gorputzian.
- 16 Bere gauzarik maiteena da euskaldunaren berbeta honetxegaitik emongo leuke bere odol da bizitza.
- 17 Euskal Herritik kendu gurarik Erdal Herriko hizkuntza ein eban sortu albistari bat danean euskaldun hutsa.
- 18 Zirikatuten ederto daki Txirristek bene-benetan erdaldun bat behin zirikatzeke ez da egoten pentsetan.
- 19 Euskaldun erdalzaleai bere badago nork zirikatu Txirristek bada holangoari inoiz ez dautse parkatu.
- 20 Ondo dakie zirikatuten honek eta Vascofilok alkarri bere sartu deutsie baina lagun dira biok.
- 21 Bizkaian herri asko ein dituz Txirristek ondo arakatu holangoetan heriotzea sarri ein jako aurkeztu.
- 22 Areriorik hasarrena dau Txirristek heriotzea nahi dautsalako euskereari kendu ahal baleu bizitzea.
- 23 Estualdiak Txirristek euki ein dituz heriotzeaz errazoi asko dauko Txirristek hagandik alde egiteaz.
- 24 Txirrist gureak igaz egin dituz hogeta hiru txirristada aurten bere hak egingo dituz beste hainbeste bizi bada.

- 25 Txirrist honetxen txirristada bat irakurtea da nahiko hau irakurten dagoan bera barre-zantzoka hasteko.
- 26 Lagunetarik haundiena da Txirrist honentzat Euskalzale edergarridun albistari bat zein dagon euskeran alde.
- 27 Txirrist gureak jaritxi nahi dau Euskalzale-ren bitartez Euskal Herrian berba eitea euskeraz ondo ta artez.
- 28 Horretarako hasikeratik kendurik erderazkoak atara nahi dauz ondo ta laster hitz garbi euskerazkoak.
- 29 Hiru urte barru -dino Txirristek euskaldunak nahi badabe erderazko hitz bapere barik euskeraz berba eingo dabe.
- 30 Zoritxarrean Euskal Herrian euskera maite dau gitxik ostean, Txirrist, eingo zenduke gurari on hau jaritxi.
- 31 Halan da bere egonik batzuk euskera maite dabena ez dira alperrik inoiz galduko zure arazo on danak.
- 32 Honebestegaz jakingo dozu Txirrist nor izan leikean bada argiago ezin nei esan bera erakutsi ezean.



01. **Itaune:** itaun, galdera.
Onan: onen.
Neio: niezaioke.
Alditsu: aldartetsu, xelegre, grazioso.
02. **Traganarrua:** tragarroia, haize zurrumbilo indartsua.
Dagoz: daude.
03. **Txirristxu:** Txirristxo, Txirrist haurtxoa.
Zelan: nola.
Irakurrizuz: irakurri egizuz, irakur itzazu.
04. **Hodai:** hodei, trumoi lainoa.
Uraz: urarekin.
05. **Izaro:** Mundakako itsasadarraren parean dagoen irla.
Ugarte: uharte, irla.
- Eban:** zuen.
Ganean: gainean.
06. **Ebagi eutsan:** ebaki zion.
Honeri: honi.
07. **Hatatik:** hartatik.
Ebalako: zuelako.
08. **Euritu:** euri bihurtu, hodeia euri egin.
Hondatu: hondoratu, urperatu.
09. **Min da belarri bakoa:** mihi eta belarri gabea.
Berba eiten dau: hitz egiten du.
Lez da: legez, bezala eta.
10. **Ikusiten dau ederto:** ikusten du ederk.
Oratu: heldu, atxiki.
Barrez: berriz, ordea.

- Polito:** poliki.
11. **Bagarik:** barik, gabe.
12. **Bagakoa:** bakoa, gabea.
Arin: azkar, fite, bizkor.
Gurago dau hak: nahiago du hark.
Egon ein baino: egon baino.
14. **Esaterako:** esate baterako, adibidez.
Behingoan: berehala, bat batean.
15. **Alper:** alperrik.
Arinka: lasterka, antxintxika, korrika.
Ixerdi: izerdi.
Behin urtengo ez dauksa: behin ere, inoiz ez zaio irtengo, aterako.
Tistil: txiztil, tanta, tangada.
16. **Berbeta:** hizkuntza, mintzaira.
18. **Zirikatuten:** zirikatzen, xaxatzen.
Pentsetan: pentsatzen.
19. **Bere:** ere.
Holangoari: horrelakoari.
Ez dautse: ez dio.
20. **Dakie:** dakite.
Vascofilo: *Euskalzale* aldizkarian ezizen horrekin idazten zuen beste bat.
Deutsie: diote.
Biok: bi hauek.
21. **Arakatu:** aratu, aztertu, miatu.
Sarri ein jako: maiz, askotan egin zaio.
22. **Arerio:** etsai, izterbegi.
Hasarrena: haserreena, amorratuena.
- Dautsalako:** diolako.
Baleu: balu.
23. **Heriotzeaz:** heriotzearekin.
24. **Txirristada:** *Txirrist* ezizendunak bere artikuluei ematen zien izenburua.
Bere hak: ere hark.
25. **Barre-zantzo:** barre-algara, irri lehertua, nabarmena.
26. **Lagunetarik:** lagunetatik, lagunetako.
Zein: erlatiboa.
27. **Jaritxi:** lortu, erdietsi.
Artez: zuzen.
28. **Dauz:** ditu.
29. **Dino:** dio, erraiten du.
Badabe: badute.
Bapere barik: bat ere gabe.
30. **Gitxik:** gutik, gutxik.
Ostean: ostantzean, bestela, bertzenaz.
Gurari: nahikari, desira.
31. **Halan da bere:** hala eta ere.
Dabenak: dutenak.
Arazo: Jarduna, ardurazko zeregina, kostatzen den lana.
32. **Honenbestegaz:** honenbestekin.
Leikean: litekeen.
Bada: ba, ze, zeren.
Ezin nei: ezin nezake.
Erakutsi ezean: ikus erazi ezik.

Txirrist delakoa kolaboratzaile ugaria eta gatz handikoa zuen *Euskalzale* aldizkariak. *Artatxori*-k ematen dituen datuetatik, aldizkariaren beraren arduraduna-edo zela ematen du, ez begi, ez sudur, ez oin ez beste horrelakorik ez zeukana ez bait zitekeen gizaki bizangoa izan. Azken koplan diona ere ironiaz doala dirudi: "Bada argiago ezin esan nei bera erakutsi ezean", hots, hemen daukazu bera eskuan.

ARZUBIAGA

Ez dut aurkitu Arzubiaga honen nortasun aztarnarik, *Euskalzale* aldizkarian horrelaxe sinatzen duela besterik.

MARIARI BERE SORKUNDE GARBIAN

(*Euskalzale*. 1898. lotazilaren 8, 387. or.)

- 01 Amaitua da gaua ta Febok
buztatu ditu zaldia
abietan da bere burdian
ia igo dituz mendiak.
Harro panparroi ha ikustean
zabaltzen txinpart argiak
dakust benetan gaur dakazala
barri on ta pozgarriak.
- 02 Amaitu ziran Eba gangarrak
ekarri euskuzan penak
urrundu dira gau baltz ilunen
berunezko hodei astunak.
Gaur sortuten dan eguzkitxuak
uxatu dituz dan danak
pozez beteak izango dira
aurrerantzean egunak.
- 03 Aingerutxuen talda handiak
jira biraka zeruan
dabiltz kantetan eta olgetan
Marian tronu albu
euren heguak hega-beheraka
astintzen dauen lainuan
eskiniagaz samo bigunak
kantaurik arpa gozuan.
- 04 Dontzeila gazte guri guria
txukun lirainik jantzia
lirio lora polita legez
guztia zuri zuria
lora sorta bat dua eskintzera
neguak hezerik itxia
ta lora artean bihotz biguna
opatu deutsu, Maria.

- 05 Koblakariak alde batera
itxirik kantu tristeak
ipinten daudez euren liretan
gaur kordel alegreak.
Baztar danetan zabaldu daizan
kanta gozuak haizeak
kantau daruez Anan alaban
birtute guztiz nobleak.
- 06 Ni bere nator, Ama maitea
zure altara eder aurrera
ez dakat baina kanta bigunik
hain gitxi loraik zugana.
Bakar bakarrik daukat lira bat
beti negarrez dagoana
eta bihotza armin arminik
minberatua dan dana.
- 07 Kantau nahi deutsut horrelan bere
zeure sorkunde garbian
kantau nahi deutsut, baino itoten da
kantua nire eztarrarian.
Kantau behar da pozezko kanta
gaur dogun egun handian
eta ez dago kanta gozorik
nire lira negartian.
- 08 Zuk egin zeiket, Mari ederra,
aingeruagaz bialdu
lira barria zoli zolia
edo bestela zolitu
kaden negarti daukan neurea,
Ama, zuk hori egizu
eta bertatik kanta samurрак
harek gaur kantauko ditu.
- 09 Kantauko deutsu zu zareala
beti betitik hautua
izan zaitezcan uhol handian
kutxa santuan usua,
zuk ekartean zure pikuan
kimatxu heze dontsua
bildurra kendu ta poztu daiten
Noe aitalehen gaurkua.
- 10 Kantauko deutsu zu zareala
izar distiatzailea
gure aurretik beti doiana
erakusteko bidea.
Zuri begira ondo doiala
marinel gizon trebea
beti seguru joko ez dabela
hatx gogor ta eskergea.
- 11 Lirio lora sorta batean
zara zu berarizkua
beste guztien gainetik gora
dozuna agertzen burua.
Zeure kolkoan gainezka dozun
inontza eta garua
osasungarri da egon daiten
sorta guztia hezua.
- 12 Zu zara Andra zoragarria
orban bagako andrea
deabruaren arerioa
ta buru apurtzailea.
Horrexegaitik kantetan dogu
dala zure sorkunde
garbi garbia ta pozgarria
bape hobenik bagea.



01. **Febo:** Apolo jainkoaren goitizena.
Abietan: abiatzen.
Burdia: gurdia.
Ha: hura.
Dakust: ikusten dut.
Dakazala: dakartzala.
02. **Gangar:** oilarraren gangar edo gangorre-
tik: lotsagabea, jareina, ero gordin sama-
rra.
Euskuzan: zizkigun.
Uxatu: ezabatu, desager erazi.
Aurrerantzean: hontaz aurrera, hemen-
dik aitzina.
03. **Talda:** talde.
Kantetan eta olgetan: kantatzen eta ol-
gutzen, jostatzen.
Heguak: hegoak, hegalak.
Hega-beheraka: hegoak beherantz joez.
Dauen: duen.
Eskiniagaz: eskeiniaz.
Kantaurik: kantaturik, kantatuz.
04. **Lirainik:** lirainki.
Legez: bezala.
Itxia: utzia.
Opatu deutsu: eskaini, agindu dizu.
05. **Koblakariak:** bertsolariak.
Itxirik: utzirik, lagata.
Dauez: dituzte.
Alegreak: alaiak.
Daizan: ditzan.
Kantau daruez: kantatu ohi dituzte.
Eroan aditzak, beste aditz baten sosten-
gu denean, maiztasuna adierazten du.
Anan alaban: Anaren alabaren.
06. **Ni bere:** ni ere.
- Altara:** aldare.
Ez dakat baina: baina ez dakart.
Hain gitxi: gutiago, are gutxiago.
Armin: arbin, kezkatu, haserre.
07. **Deutsut:** dizut.
Horrelan bere: horrela ere, hala ere.
Eztarrria: zintzur, sama.
08. **Zeiket:** zeniezadake.
Aingeruagaz: aingeruarekin.
Zoli: bizkor, zorrotz, argia.
Zolitu: zoli bihurtu.
Kaden: malenkoniatsu. Malenkonia bera.
Bertatik: berehala, behingoan.
09. **Hautua:** hautatua, aukeratua.
Uhol: uholde, uriola.
Usua: usoa, urzoa.
Pikuan: mokoan.
Kimatxu: kimutxo, aldaskatxo.
Dontsua: santua.
Daiten: dadin.
Aitalehen: patriarka, tribu edo leinu ba-
ten sorburuko pertsonaia.
10. **Joko ez dabela:** ez duela joko.
Hatx: haitz.
Eskergea: eskergea, izugarri handia.
11. **Berarizkua:** berarizkoa, berezia, aparta,
bakarra.
Inontza: ihintza.
Garua: garoa, ihintzak belar eta landare-
tan uzten duen bustitasuna.
Hezua: hezea.
12. **Arerioa:** izterbegia, etsaia.
Bape hobenik bagea: bat ere hogenik,
pekaturik bagea.

JOSEBA IMANOL ETXEITA

Mundakar idazle eta nabigatzailea (1842-1915). Itsasoan kargu handiak eduki ondoren, Manilako alkate izateraino iritsi zen. Mundakara itzulirik, itsas astronomia, musika eta euskara lantzen gogoz ekin zion, hainbat liburu idatziz. Han hemen idatzitako bertsoak *Au, ori ta bestia* liburuan batu zituen eta hortik egin dut hautua.

ITXASUA

(*Au, ori ta bestia*. Etxeita'tar Joseba Imanol. 21. or.)

01 Ludi honetan inguraturik
sortaldetik sartaldera
aurkituten da osin handi bat
O! Zein ederra da bera!
Zabal ta sakon toki askotan
azal ta bedar ostera
noizbait dakusku gora-beheraka
noizbait ixpilu antzera.

02 Kresal ur eder ustelbagea
da beti sortu zanetik
arrain lirainak ugari ditu
alde bat eta bestetik.
Aldenduten da arrantzalia
urrikerien artetik
eta jatorku arraina beti
osin zabal horretatik.

03 Bere ganian ludian zihar
bilatzen dira bidiak
horretarako itxasgizonak
ikasten dabez legiak.
Eta baketsu dagozian
uraren gane-aldiak
atsegintsuak ixan ohi dira
ibilte neke handiak.

04 Baina ekaitzak bultza ezker
ur zabalaren ganian
arin jarten da guztiz haserre
burrukarien antzian.
Mendiak lako bagak jasota
bitsez beterik tartian
iruntsi nahirik dagon guztia
ekaitza duan bidian.

05 O zein indartsu bildurgarriak
bere haserre-aldiak
puskatzen ditu harrapatuten
dituan ontzi guztiak.
Arrainik bage itxas bazterrak
neketsu arrantzaliak
ixugarriak ixan ohi dira
agertzen diran kaltiak.

06 Zeinbat ontzi ta zeinbat gixadi!
Zeinbat ondasun ederrak!
Zeinbat holakok jo dabez sarri
itxasuaren hondarrak!
Hilobi sakon, zabal ta bigun
irusten ditu bazterrak
bardinbageak dira beraren
harrigarritzko indarrak.

07 Leun eta geldi egon ezkerro
gau ilun ixarratuan
ixpilu garbi alaigarria
bihurtu ohi da orduan.
Ixartegia daraguskula
argiro bere barruan
zoragarritzko zeru ederra
agerturik inguruan.

08 Zein sinisgaitza beti guretzat
uraren gora-beheria!
Ilargiaren ibilketakaz
alkaturik egotia.
Sei ordu gorutz eta sei beherutz
beraren ibilketia
Jaungoikuari jagokona da
holako lan egitia.

09 O itxasua, osin zabala
arrainez bete betia!
Noizbait zu zara guztiz ongile
noizbait errukibagia.
Herrietatik herrietara
ontzi guztien bidia
erabilteko gelditu bage
ludiko salerostia.

10 Lurrinak gorutz, euriak beherutz
osina beti lanian
eta honela jarraituten dau
betirauna dan bidian.
Ludi gehiena besarteturik
beruan eta hotzian
ikusten dogu miragarria
miragarrien artian.



01. **Ludi:** mundu, lurbira.
Bedar: medar, mehar, estu.
Ostera: berriz, hurrengo uanean.
Dakusku: ikusten dugu.
02. **Ustelbagea:** usteldu gabea.
Aldenduten dau: urruntzen, apartatzen
du.
Urrikeri: gabetasun, ezaldi.
Jatorku: datorkigu.

03. **Ganian:** gainean.
Dabez: dituzte.
Dagozarian: daudenean.
Gane-aldiak: gainaldeak, goialdeak.
Ixan: izan.
Bagiak: gabeak.
04. **Arin:** azkar, laster, fite.
Bagak: olatu, uhin sakonak.
Bitsez: aparrez.

Duan: doan.

06. **Gixadi:** gizateri, gizatalde.
Sarri: sarritan, maiz, aunitzetan.
Irusten: irensten.

07. **Ixarratua:** izarrez betea, izartua.

Daraguskula: erakusten digula.

08. **Ibilketakaz:** ibilerekina.
Jagokona: dagokiona.

10. **Besarteturik:** besarkaturik, besartean
harturik.

SABAS ARTZAINAREN AGURRAK

(Idem. 47. or.)

01 Agur Ardibasoko
ardizain maitiak
ardi ederrak eta
ibai ta etxiak.
Agur haritz tantai ta
asaben bidiak
herbestera narue
neure nahibagiak.

02 Agur Ardilandako
alboka jotiak
artzain kanta gozuak
zantzo ta barriak.
Agur Ibaigardengo
ur garden garbiak
zugatz ederrak eta
mendi bitartiak.

Errepika:

Agur ba geure bihotzetako
ardizain laguna
urte askotan euki daixula
beti osasuna.
Zorionagaz bihurtu zaite
oso diruduna
bilatu gero jaioterria
hain maite dozuna.

03 Agur maite dodazan
asaben herriak
agur hemen dagozan
ekandu garbiak.
Agur jeioterriko
herritar guztiak
neure orain arteko
atsegingarriak.

04 Agur Jule laztana
nora zara jua?
Zegaitik jarri zara
gexozain munduan?
Beti eukiko zaitut
bihotz neketuan
ikusten ez bagara
ixan bei zeruan.



01. **Ardibaso... Ardilanda... Ibaigarden:**
toki-izen asmatuak.
Herbeste: atzerri, kanperri.
Narue: naroe, naramate.
Nahibagiak: atsekabeak, penak.

Errepika:
Daixula: dezazula.
Zorionagaz: zorionez, zorionarekin.
Bihurtu: bilakatu, egin.

02. **Jotiak:** jotzeak, joaldiak.

Zantzo: oihi, irrintzi.
Barriak: barreak, irriak.
Zugatz: zuhaitz.

03. **Dodazan:** ditudan.
Asaben: arbasoen, aspaldiko gurasoen.
Dagozan: dauden.
Ekandu: ohitura, aztura.

04. **Gexozain:** gaisozain, erizain.
Ixan bei: izan bedi.

HAU NAHIBAGIA

(Idem. 102 or.)

01 Urte askotan aurkitu nintzan
atzerrietan lanian
amatxu neukan aldendu barik
nik beti gogamenian.
Gehitu gurarik diru apurrak
jarri naitian bidian
eta amatxu ikusi daidan
bixirik dagon artian.

02 Etorri nintzan diru apur bat
aurreratu nebanian
guztiz kantari txoriak legez
alaitsu bide guztian.
Uste nebala laster amagaz
aurkitu zorionian
antxinatxuko jolaslekuan
ta neure jaiotetxian.

03 Neure herrira guztiz alaitsu
hurreratu nintzanian
hileta itzal-itzal bat joian
hobietara bidian.
Nor da hil dana?- gixon bateri
nik itandu neutsanian
harritu nintzan neure amatxu
zala jakin nebanian.

04 Negarra gogoz dariodala
eta txapela eskuan
jarraitu neban hobietara
neure amaren onduan.
Bihotzilagaz guztiz artega
negar ta negar nenguan
orduano lako atsekaberik
eneban ixan munduan.

01. **Aldendu barik:** urrundu, desagertu
gabe.
Gogamenian: gogoan, pentsamenean.
Gehitu gurarik: gehitu, ugaritu nahirik.
Naitian: nadin.
Daidan: dezadan.
02. **Nebanian:** nuenean.
Legez: bezala.
Amagaz: amarekin.
Antxinatxuko: nahiko antxinako, aspal-
di samarreko.
03. **Itzal-itzal:** eskerga, izugarri handi.
Joian: zihoan.
Hobieta: hobitoki, hilerri.

05 Neure Jaungoiko bihotzekua
hau da bai bakartasuna!
Juan dedila zeruetara
amatxu neure kutuna.
Nire pozgarri argi argiak
bilatu dabe iluna
hau da nahibage mingarria ta
itzalaldi betirauna!

06 Hobietako hilobi baten
sartzera juazanian
mosu zintzo bat ezarri neutsan
agur agur egitian.
Jainko laztanak jarri ninduan
etxeratzeko bidian
mosu gogotsu bat ezarteko
sartu orduko lurpian.



Itandu: galdetu.
Neutsanian: nionean.

04. **Dariodala:** daridala, zeridala.
Bihotzilagaz: bihotzilarekin, tristurare-
kin.
Artega: kezkatu, ezinegenez, larri.
Lako: bezalako.
Eneban ixan: ez nuen izan.
05. **Itzalaldi betirauna:** gerizaldi, ilunaldi
betikoa, betiraunkorra.
06. **Juazanian:** joiazenean, zihoazenean.
Mosu: musu, laztan.
Ezarri neutsan: erantsi, itsatsi nion.
Sartu orduko: sartu aitzin, aurretik.

ITXASUAN AMERIKATIK ETXERUTZ

(Idem. 68. or.)

01 Ai neure bihotzeko kutuna
ai jaioterrria!
Urrunago ta laztanago
ai maitagarria!
Geure aitamak sortu genduzan
ai euskel-tokia!
Zugaitik beti emongo geunke
guk geure bizia.

02 Itxasuetan bizibidia
uraren ganian
gogorrena ta neketsuena
da gixon artian.
Ekaitz indartsu mingarriakaz
dagoz galbidian
eta ganera urrikeria
euren ixatian.

03 Bultza ta bultza haixe ongile
atsegingarria
bultza ta bultza, igaroteko
itxaso guztia.
Haixe oihalak haixez beteta
aurrera ontzia!
Ikusi daigun ahalik arinen
geure baserria.



01. **Genduzan:** gintuzten.
Geunke: genuke.

02. **Ganian:** gainean.
Gixon: gizon. Bustidura honek Bizkai aldean ez dauka beste euskalki batzutako zentzu txarkoirik, aurreko i bokalak eragiten duen fenomeno baizik: *gixon, bixi, goixean, mixiolari, ixen, ixilik...*

Mingarriakaz: mingarriekin.
Dagoz: daude.
Urrikeria: urritasuna, eza, gabetasuna.

03. **Igaroteko:** iragaiteko, zehartzeko.
Haixe-oihalak: belak.
Daigun: dezagun.
Ahalik arinen: lehen bait lehen, ahalik lasterren.

BIZI BEDI EUSKERA MAITIA

(Idem. 69. or.)

01 Euskeraz entzun neban
jaio nintzarian
Anboto mendiaren
beheko barrenian.
Euskeraz dantzut beti
nik orain artian
eta daukat sartuta
neure bihotzian.

02 Beti dot guztiz laztan
euskeria geuria
nun idoro leiteke
berbeta hobia?
Niretzat ixaten da
etzizko berbia
esaten dodanian
amatxu maitia.

03 Euskeldunen artian
berbeta gozua
asabak itxiriko
kutun kutuntxua.
Baita bihotzetako
pozzgarri osua
esaten dogunian
neure laztantxua.

03 Euskera hilgo dala
uste dodanian
zer da jazoten dana
nire bihotzian?
Ikara ta minbera
arnasa hartzian
gutziz makalduten naz
ni osasunian.

04 Amatzuk esan eustan
hilgo zan aurrian:
Agur alaba laztan
laster naz lurpian.
Euskeraz otoi egin
nire lur ganian
euskeraz nahi dot entzun
hilda nagonian.

05 Ama -erantzun neutsan-
zure lur ganian
belauniko jarrita
otoi egitian
euskeraz dihardukot
goiz ta arratsaldian
biok zagozelako
nire bihotzian.

06 Euskeraz nahi dot ekin
pozez ta bakian
neure nahibagietan
zein zorionian.
Bihotza sendatzeko
minez dagonian
iraun bedi betiko
Euskadi maitian.

07 Sendatu beite bada
euskera laztana
amatxuren altzuan
ikasi nebana.
Pozgarrizko berbeta
maitatzen dodana
bihotz minberatua
sendatzen deustana.

08 Ekin bada euskeraz
euzkotar maitiak
jarraitu dagiguzan
asaben bidiak.
Herbestian ez dagoz
ekandu hobiak
bake ta pozgarrizko
zerutar legiak.



01. **Neban:** nuen.
Barren: mendi, soro, bide, soineko nahiz
beste zernahiren beherengo ertza edo
aldea.
Dantzut: entzuten dut.
02. **Idoro:** ediren, aurkitu, topatu.
Berbeta: hizkuntza, mintzaia.
Berbia: berba, elea, hitza.
03. **Asabak itxiriko:** arbasoek, aspaldiko
gurasoek utzitako.
04. **Jazoten:** gertatzen, agitzen.
Makalduten: ahultzen.

05. **Eustan:** zidan.
Ganian: gainean.
06. **Neutsan:** nion.
Dihardukot: ihardungo dot, ariko naiz.
Zagozelako: zaudetelako.
Nahibage: atsekabe, oinaze.
07. **Beite:** bedi.
Altzuan: magalean.
Deustana: didana.
08. **Dagiguzan:** ditzagun.
Herbestian ez dagoz: atzerrian ez dau-
de.
Ekandu: ohitura, aztura.

DIEGO AMELBURU

Bertso-paperean ageri diren izen-abizenez beste berririk ez daukat
bertsolari honetaz.

NEURE JESUS MAITEA

(Berso barriac Amelburuc jarriac)

(Berriatuko Jose Luis Basterretxea *Altzalei* bertsolariaren etxeko bertso-paper bat. Azpian:
Guernica-Imp. de A. Goitia)

01 Neure Jesus maitea
zeurekin batera
gauza batzuek orain
noa esatera.
Zerbaist erratu barik
esaten gatxa da
arren lagun eidazu
neure Jesus ona.

02 Orain esaten noa
bigarren bertsua
Karlosek itxi deuskun
bere ejenplua.
Kontuz emon daigula
munduko pausoa
gero hartu ez daigun
kastigu osoa.

03 Karlosek itxi deusku
bere testamentua
gorde daigula ondo
errelejinua.
Honetan emon ebala
bere akabua
Don Jaime itxiagaz
aurrera burua.

04 Bularrian kurutza
eskuan bandera
horrexegatik esan
Jaimetarrak gera.
Gora Jaimetarrak
gora geuretarrak!
Gora geure Jaunaren
lehengo lege zaharrak!

05 Hasi beheko kaletik
goiko kaleraino
Don Jaimen onrratzeko
jentea badago.
Ezin dabe ikusi
ikusi beharko
Karlistarren nagusi
orain bera dago.

06 Lotsatu gure dabe
baina ezin lotsatu
urtetzen dabelako
lege honen buru.
Lege honetan emon
munduko pausuak
halan lagunduko dau
geure Jaungoikuak.

07 Askok dauka lotsaritzat
Karlista izatea
baina ezin dabe topau
honango legea.
Beronek eskatzen dau
artez ibiltea
animak zabaltzeko
zer gauza hobe?

08 Karlisteren legea
izanik hain ona
Eleizagaitik beti
bota dau odola.
Horregaitik bere bauka
arerio garratza
esangotzuet zein dan
deritxona baltza.

09 Neure kristau maiteak
hau da oponinua
danoi opa deuskuna
zeruko erreinua.
Honegana etortzeko
egin enpeinua
beronek daukalako
hango kaminua.

10 Aita Santu Erromako
Pio bederatzigarrenak
ondo ezagutu zituzan
liberalen lanak.
Eleizia galtzeko
zirala dan danak
apartau horrekandi
katoliko onak!

11 Beti egin dituez
liberal mantsuak
azal ederrakin
bestera etxuak.
Orain ez du ametitzen
ebanjeliuak
zergaitik diralako.
Judasen kontuak.

12 Herri baten behin baten
predikadoriak
ondo esan zituzan
baltzen eitadiak.
Zelan galtzen zituen
konbentu garbiak
bertan egin zeitezan
gero dantza lohiak.

13 Teatru, zezen-plaza
komentu ederrak
ipini izan ditue
hain jente okerrak
euretan ein zeitezan
kanta txar da operak
ikusi zituala
esaeban berberak.

14 Hemen agertu deutzudaz
bien egitadiak
ezagutu zeuk ondo
zeintzuk diran hobiak.
Kontu handia euki
ai neure jentia!
Negar egin ez daian
gero arimiak.

15 Egin bihar geunkiena
Españako jentia
lege on baten bidez
danok ein hobiak.
Hori eskatzen deusku
Eleiza ama santiak
halan apurtutzeko
Luziferren katiak.

16 Espainolak begiratu
daukagun onari
Aita Santuai eskerrak
gero buldiari.
Zerura juateko
bidea da hori
nahitaez, hara jua
nahi bada hemendi.

17 Ai zeinek leukakian
honango pasia
ondo seguratzeko
betiko kausia!
Horregaitik bere euki
danok esperantzia
Jaunak emongoskula
eternidadia.

18 Gurutze santua da
zeruko giltzia
Jesusek emon eban
bertan bizitzia.
Bere ama santa da
zeruko atia
eta guztiuentzat
errukiz betia.

19 Kristinauak ez ukatu
espainol izatia
zergaitik hau dalako
irabaz bidia.
Jaungoikuak emonda
hau da suertia
horrexegaitik gora
españar jentia!

20 Honez gainetik dauku
geure honoria
Gernikan daukulako
karlistok arbolia.
Neuri bere jazo jat
han sinatutia
errazoiagaz esan
geure arbolia.

21 Hainbat mutil gengoan
bere inguruan
gora geure foruak
esaten genduan.
Armarik asko geunkan
guk geure eskuan
lagundu baleuskue
batzuek orduan.

22 Orain da alperrekua
foru eskatzia
zergaitik juan jakun
orduak eria.
Ura juanda gero
presa egitia
alperreko biharra
da neure jentia.

23 Bakotxak gorde baleu
bere zaintokia
orain ez zan egongo
danen demandia.
Hortixek etorri zan
foruak kentzia
eta guztiuentzat
negar egitia.

24 Estimauko bagendu
karlisten legia
etorriko litzake
danentzat bakia.
Bitarteko jarrizu
geure ama Maria
gizon ilunduari
argitzen begia.

25 Neure anai maitiak
hau da pikardia
geure kontra da horrek
ahal daben guztia.
Horregaitik be euki
guk pazientzia
halan emon geinkio
danai aurpegia.

26 Faraon da Moisesek
euken batailia
ondo defenditzeko
bakotxen legia.
Uste izan ebalako
Moises apurtzia
itsosuan ito zan
Faraon jentia.

27 Oraintxe dakuskuna
ez da hain hobia
Luteroren eskola
gizon galtzailia.
Bedorri segitzeko
dau libertadia
kendu ahal badeuskue
bihotzeko fedia.

28 Begira Zaragoza
Españar jentiak
zeinbat guroskun geuri
Ama Birjiniak.
Harrituta naukie
batzuen esatiak
zelan ez diran eurak
Españako umiak.

29 Gainera etorri jaku
danoi pastorala
berak erabagi dau
Juizio Orala
zelan gorde bihar dan
Elizako morala
horren alde da beti
Karlista espainola.

30 Diegu Amelburu da
honen autoria
jakitun txikia ta
persona pobria.
Erakutsi gura dau
honestidadia
danentzako dalako
hau karidadia.



01. **Zerbaist:** zerbait.
Erratu: huts egin, tronpatu.
Barik: gabe.
Gatxa: zaila.
Eidazu: iezadazu.

02. **Itxi deuskun:** utzi digun.
Daigula... daigun: dezagula... dezagun.

03. **Ebala:** zuela.
Akabua: azkena, azken orena, amaia.
Itxiagaz: utziaz, utzirik.
Aurrera burua: aurrerantzean buru,
nagusi.

04. **Kurutza:** gurutzea.

05. **Don Jaimen onratzeko:** Don Jaimeren
ohoratzeko, Don Jaime ondratzeko.

06. **Gure dabe:** nahi dute.
Urtetzen dabelako: irteten, ateratzen
direlako.
Halan: hala.

31 Orain akabatzen dot
bertso honen lana
ustez esan dotala
nik ahal dotan dana.
Papelen preziua
txakur nagosi bana
etorri erostera
gustatzen jakona.

07. **Lotsari:** lotsarazten, ahalkea ematen duen
gauza edo motiboa.
Topau: topatu, kausitu, aurkitu.
Honango: honelako.
Artez: zuzen.
Animak zabaltzeko: textuak hala dakar,
baina *salbatzeko* izango da.

08. **Bere bauka:** ere badauka.
Arerio: etsai, kontrario.
Esangotzuet: esango dizuet.
Deritxona: deritzana, derizkiona, deitzen
dena.
Baltza: liberalen gaitzizena.

09. **Oponinua:** opinioa, uste edo iritzia, ba-
tez ere politikoa.
Opa deuskuna: eskaintzen diguna. Bai-
ta *desiratzen diguna* ere.
Enpeinua: ahalegina.
Kaminua: bidea, errepidea.

10. **Zituzan:** zituen.

- Horrekandi:** horiengandik.
11. **Dituez:** dituzte.
Etxuak: egintzak, egitateak.
12. **Eitadiak:** egitateak, egintzak.
Zelan: nola.
Zituen: zituzten.
Zeitezan: zitezen.
Lohiak: zikinak, hitsak.
13. **Ditue:** dituzte.
Euretan ein: beretan, beraietan egin.
Esaeban: esan eban, zuen.
14. **Deutzudaz:** dizkizut.
Ez daian: ez dezan.
15. **Geunkiena:** genukeena.
16. **Buldiari:** buldari.
Bulda: eliz agiri bat, ordain baten truke, baraua eta bijilia egin beharra salbuesten duena.
17. **Leukakian:** leukakeen, lukeen.
Pasia: pasea, pasatzeko baimen agiria.
Kausia: kausa, auzia.
Emongoskula: emongo deuskula, digula.
20. **Dauku... daukulako:** daukagu... daukagulako.
Jazo: gertatu, egokitu.
Sinatutia: sinatzea, izenpetzea. Baita *zinatzea* edo *aitaren egitea* ere. Hemen biak izan litezke.
Errazoiagaz: arrazoiz, arrazoiarekin.
21. **Gengozan:** geunden.
Geunkan: geneukan.
Baleuskue: baligute.
22. **Jakun:** zaigun edo zitzaigun.
Eria: era, aukera, aldeko okasioa.
Biharra: lana.
23. **Baleu:** balu.
Demandia: demanda, auzibidea, haserrea, liskarra.
24. **Jarrizu:** jar ezazu.
Da horrek: da horreik, horiek. Textuak *jatoren* dakar. Ez dauka zentzurik, *jatorren* nahiz *datorren* izanda ere.
Geinkio: geniezaieke.
25. **Euken:** zeukaten.
Batailia: bataila, gatazka, gudu.
Ebalako: zuelako.
Itsosuan: itsasoan.
27. **Dakuskuna:** ikusten duguna.
Dau: dago.
Badeuskue: badigute.
28. **Guroskun:** gura deuskun, nahi digun, maite gaituen.
Naukie: naukate.
29. **Jaku:** zaigu.
Erabagi dau: erabaki du.
31. **Dotala:** dodala, dudala.
Txakur nagosi: txakur handi, pezetaren hamarrena.
Jakona: zaiona.

Hogei eta hogeita batgarrenean dionetik, bertso hauen egilea armekin ibilia zen, bigarren karlistadan segurrenik. Gerra hau 1876an amaitu zen. Bertsoek jaimismoaren garaikoak dirudite, Karlos hila delarik, Don Jaime onratzeko eskatzen bait dute. Beraz, mende honen haserako bertsoak izan daitezke. Diegu Amelburuk, gaztetan gerran ibili ondoren, urte mordo bat geroago bertso-paper hau aterako zuen.

MESIAS

Euskalduna aldizkariak, bertso hauek aurkeztean, Bizkaiko koblakari famatu batenak direla dio. Izen-abizenak ematea gehiago eskertuko genion, baina horrekin konformatu beharko.

BIZI BEDI MESIAS

(Euskalduna. 21. zenbakia. 167. or.)

01 Bizi bedi Mesias
gure Jaungoikoa
bizi bedi Maria
ta Aita eternoa.
Bizi bedi Bizkaia
eta Gipuzkoa
bizi bedi Alaba
eta Nafarroa.

02 Bizi bedi izarra
egunsentikua
bizi bedi arbola
antiguakua.
Zeure izen santua
da bedeinkatua
adoratzen zaitugu
arbola santua.

03 Hil bedi bertotiko
malezi deungia
hil bedi gure kontra
dagan legia.
Hil bedi gorrotoan
dagon traidoria
biztu bedi barriro
geure arbolia.

04 Bihotzetik badator
geure berbetia
uste dogu guztiok
zeu adoretia.
Pozik amauko dogu
zeure gerizpia
zeu bere poztu zaitez
arbola maitia.

05 Hogei urte honetan
zagoz tristeturik
oh zelan ez zagozan
oso siketurik!
Tristura honetatik
zagoz geisoturik
ete dago zuretzat
erremediorik?

06 Bai bilatuko dogu
erremediua
euskeriak egiten
badau uninua.
Erderazko nahasterik
hartuten ez nua
goguan dagolako
lehengo traizinua.

07 Traizino hau izan zan
orain hogei urte
honek ipini gaituz
foruak kendute.
Oh gaur zelan gagozan
oso amarraute
geure haritx santua
oinazpiratute.

08 Gaztelatik heldu zan
tximista sutua
honek ipini zaituz
oinazpiratua.
Handik etorria da
pastel mingostua
oh tximista erdaldun
madarikatua.

09 Kontu atera baga
engainua zana
geu bere heldu ginan
pastel horregana.
Etxun ez baginean
erdaldunak gana
gaur pozik egongo zan
triste dagoana.

10 Gaztelar batek deutzu
aihotza ezarri
motz honek gura deutzuz
besoak ebagi.
Lurretik gura deutzu
huts eragin zeuri
ta kendu gerizpea
Euskal Herriari.

11 Gauza izugarria
jazoten da geugez
geure zugatz maitea
daukagu negarrez.
Hogei urte joatzuz
beterik nahibagez
Gernikako Arbola
ez bazina legez.

12 Euren asmu guztia
da alperrikua
beti izango zara
zu Gernikakua.
Zu zara Jaungoikuak
hor iminikua
Oh bandera ederra
Euskal Herriakua!

13 Bildurra ez balego
tximistadunetan
aspaldion lurretik
bota zenduezan.
Begien bistan dago
ez dago zer esan
bildurra emoten dozu
zuk zeure gerizan.

14 Ez deutzue nahi heldu
lurretik botaten
hortik ez daudelako
ezer irabazten.
Bizarginak baletoz
sustraiak ebaten
zer izango leiteken
ez nua esaten.

15 Zutik dagon artean
Gernikako Arbola
Gaztelak hemen dauka
hainbeste jabola.
Ai esan baleikea
bota behar dabela
berotuko litzake
euskaldun odola.

16 Jangoikoak badauka
miserikordirik
ez deitela berotu
gizonen odolik.
Arboleak hartuten
badau osasunik
lehengo lege zaharretan
gagoz gu etxunik.

17 Arboleak gura dau
lehengo lege zaharra
eta baita hondatu
libertade txarra.
Ez bagara etxuten
bide honetara
eternidaderako
hondatuko gara.

18 Bildurtuten bagaituz
eternidadeak
pozik hartuko gaituz
geure egileak.
Fruturik emoteko
geure arboleak
etorri behar daude
foruko legeak.

19 Arboleak sustraiak
ondo emoteko
nor iminiko dogu
bere bitarteko?
Jesus baino hobarik
ez da bilatuko
juntak lehengo moduan
berton egiteko.

20 Bizi ginan artian
foruko legian
juntak zeure azpian
egiten zirian.
Gaur bere egiteko
beste hainbestian
Jaunak batu gaizala
zeure gerizpian.

21 Euskal Herrietako euskaldunak gara pozik etorri gara zeu adoretara. Sazerdote ta guzti meza emotera Santa Maria esaten jakon Elizara.

22 Mezan eskatu dogu bihotz bihotzerik Jaunak gorde zaizala tximisten arterik. Bakea gura dogu eta ez gerrarik ezta ez dogu gura libertade txarrik.



02. **Egunsenti:** oilarite, egunabar, argi-haste.
Antiguakua: zaharra, antzinakoa.
03. **Bertotiko:** bertotik, hemendik datorren.
Deungia: gaiztoa, zitala.
Barriro: berriz, berriro.
04. **Berbetia:** berbeta, hizkuntza, mintzaira.
Adoretia: adoratzea, gurtzea.
Amauko dogu: maiteko dugu.
Gerizpia: geriza, itzala, itzalpea.
Ze u bere: zeu ere.
05. **Zagoz:** zaude.
Zelan ez zagozan: nola ez zauden.
Siketurik: lehorturik, iharturik.
Geisoturik: eriturik, gaitzak jorik.
Ete: ote.
06. **Uninua:** batasuna.
Hartuten ez nua: hartzera ez noa.
Traizinua: traizioa, saldukeria, azpikeria.

23 Bihotzak erakusten gara gu etorri gaur gure gorrotoan dabiltezanari. Erregutu deutzagu Santa Mariari bizia emoteko Zugatz laztanari.

07. **Zelan gagozan:** nola gauden.
Amarraute: lotuta, estekaturik.
Haritx: haritz.
08. **Minsgostua:** mikaztua, garrastua, mindua.
09. **Baga:** barik, gabe.
Etxun ez baginean: etzan, makurtu ez bagina.
Erdaldunak gana: erdaldunengana.
10. **Gaztelar:** Castillar, Castillako.
Deutz: dizu.
Aihotza: igitaiaren antzeko lanabes ebakitzailea, kirten luzekoa.
Motz: belarrimotz, kanpotarrak izendatzeko era despektiboa.
Ebagi: ebaki, moztu.
Gura deutz huts eragin zeuri: huts egin erazi nahi dizu. Esaldi iluna. Lurretik erauzi edo kendu esan nahi duela argi

- dago, baina *huts eragin* horrek ez dirudi zuzena. Testuak *utz* jartzen du, orduko ortografian. *Utzi* aditzetik zentzu gehiago luke, baina *lurretik* barik *lurra* beharko luke. Gainera *utzi*, eta are gutxiago *utz* forma, ez da normala darabilen euskalkian.
11. **Jazoten:** gertatzen.
Geugez: gurekin.
Zugatz: zuhaitz.
Joatzuz: doazkizu.
Nahibage: minez, atsekabez, penaz.
Legez: bezala.
12. **Iminikua:** ipinitakoa, jarria, ezarria.
13. **Tximistadunak:** gaztelarrak, zuhaitza hondatzeko tximista bota dezaketanak.
Zenduezan: zintuzten.
14. **Ez deutzue:** ez dizute.
Lurretik botaten: lurretik botatzeko esan nahiko du. Esaldia ez dago ondo jotsia.
Ez daudelako: ez dabelako, ez dutelako.
Ebaten: ebakitzen, ebakitzera, moztera.
Leiteken: litzatekeen.
Ez nua esaten: ez noa esatera.
15. **Jabola:** jagole, zaintzaile, begirale.
Esan baleikea: esan baleikie, baleizate.
Baita *esan baledi, esango balitz* ere.
Dabela: dutela.
16. **Ez deitela:** ez dadila.
Gagoz gu etxunik: gaude gu, egongo gara etzanik, makurturik.
17. **Gura dau:** nahi du.
Etxuten: etzaten, makurtzen.
18. **Pozik hartuko gaituz geure egileak.**
Testuak dio: *pozik aituko deusen geure egileak*. *Aituko deutse-tik* ez *hartuko deutse-tik* ez diot zentzurik hartzen. Zerbait oker dago hemen.
Daude: dabe, dute.
19. **Sustraiak:** erroak, zuztarrak.
Hobarik: hoberik, hobeagorik.
Bilatu: aurkitu, ediren.
Berton: *bertan*-en forma hurbila.
20. **Gaur bere:** gaur ere.
Gaizala: gaitzala.
21. **Adoretara:** adoratzerara, gurtzera.
Sazerdote: abade, apaiz, apez.
Jakon: zaion.
22. **Bihotzerik... arterik:** bihotzetik... arte-tik.
Zaizala: zaitzala.
23. **Erakusten:** erakustera.
Dabiltezanari: dabiltezanari.
Deutzagu: diogu.

Bertso hauek oso sentipen mindua adierazten dute. Berotasun eta amorru handiz eginak daude. Eta bertso gisa, oso dotore eta natural garatua dago sorta. Testuan akats ugari dator, gehienik bokalak edo kontsonanteak sobra edo falta, edo aldatuak. Baina aipatutako hamargarren eta hamazortzigarren bertsoetako esaldi ilun horiek kenduz gero, nahiko akats bistakoak ziren eta horiek konpondu egin ditut noski.

J. C. DE G.

Inizial hauen azpian nor izkututzen den ez dakit.

EUSKALDUN BATEN KANTUA

(Euskalduna. 85. zenbakia. 124. or.)

- | | |
|--|--|
| 01 Makurturikan haretx maiteak
lurra jo arte orriak
lokatz artian nahastuak ditu
ez bait du eraman haiziak. | 06 Haretx ederra loraturikan
lainuetara igoko da
Euskal Herria zoraturikan
bakean arkituko da. |
| 02 Lainuz betea zerua dago
ezin da ikusi argia
iluntasunak beti betiko
ostu al digute eguzkia? | 07 Haize gozoak haretx orrian
durundu leun leunagaz
kantatuko du uda goizian:
Piztu gerade haretzagaz! |
| 03 Itxasotikan ez agiri
dizdiratutzen izarra
Euskal Herrien begietara
gaur agertu da negarra. | 08 Itxasoetan olatu handiak
bere betiko ibileran
zeruraino urak jasoko ditu
zutik haretxa ikustean. |
| 04 Bainan egun bat etorriko da
argitasunez betia
ordu an danok jakingo dabe
zer dan Euskaldun Herria. | 09 Ah lainu beltzak, iluntasunak!
Etorriko da argia!
Ordu an danok jakingo dabe
zer dan Euskaldun Herria. |
| 05 Jakingo dabe ez dala izoztu
odola euskaldun zainetan
bihotza ez dala behin be ikaratu
egun harrigarrietan. | |



01. **Haretx:** haritz.
Orriak: hostoak.
Lokatz: basa, lupetz, lohi.
02. **Lainuz:** lainoz.
Ostu: ebatsi, lapurtu.

04. **Dabe:** dute.
05. **Behin be:** behin ere, sekula.
07. **Durundu:** durundi, hots, oihartzun.
Haretxagaz: haritzarekin.
08. **Olatu:** uhin.

BONIFAZIO LATXA AGIRRE

1898tik 1900 ingururarte, *Euskalduna* astekarian hainbat bertso sorta argitaratu zen, honela sinaturik: *Bonifazio Lacha eta Agirre*. Eta aitortu behar dut ezuste itzela eta pozgarria hartu dudala. Hainbeste aldikari miatzean, argi dago denbora asko galdu behar dela, zerbait aurkitzeko. Ba, Bonifazio hauxe aurkitzeagatik bakarrik ontzat eman zitekeen gainerako guztia alperrik izatea. Benetan interesgarria iruditu zait motibo askogatik.

Alde batetik, kontuan izan oraindik joan zen mendean gabiltzala. Eta non eta bizkaieraz honelako bertsoak, Bizkaian tradizioz apenas zegoela sinestuta geundenean. Bestetik bertsoen egitura. Hasteko, egundoko grazia. Eta burulaizean abiatzen denean, ez dakizu apropos ala irris-tatzen ari den. Latxaren buruan irudimena solte zebilen. Grazia horretan, herritasunaren eta maila jagiagoren arteko konbinapen naturala lortzen du, horrek kontraste handia ematen diolarik. Herri hizkera nabaria da, baita maila landuagoa ere, eta horiek ondo bateratzeko, sen handi samarra behar da. Gaztelaniarekin egiten dituen jokoak ere xelebreak dira.

Teknikaz berriz arretagarri da bertso jartzaile hau. Neurria oso ondo eramanik, erriman da batez ere harrigarrien, bizkaieraz eta joan zen mendean izateko. Beste euskalkietako bertsolaritza ezagutuko zuen agian, baina igartzen zaio bizkaieraren golkotik ateratzen duela jokorik gehiena.

Azkenik, hizkuntzari buruz, bizkaiera batere nahastu gabea dabil, artean zenbait bertsolari edo bertso jartzaile gipuzkera imitatzen hasia bait zen. Latxari ez zaio hortik inolako zalantzarik somatzen.

Nor zen Bonifazio Latxa eta Agirre hau? Horixe aztertzen ez naiz, ba, aritu. Bertsoak aurkitu izanaz ere badaukat nahiko poz. Hizkera eta gai aldetik, Arrati aldeko usaina hartzen diot, baina beste azpi-euskalki batzuk ere badarabiltza eta hobe izango da listo-buru egiten ez hastea.

EUSKAL HERRIKO ARBOLA

(Euskalduna. 77. zenbakia. 59. or.)

01 Zu zara Euskal Herriko
pozkiada guztia
geure lege zaharraren
kutx edo tokia.
Zure sustrai ederra
ezkur eta orria
dana da lege ederrak
zaitzeko jarria.

02 Euskalduen fueruak
gorde dituzana
eta harek bihotzetik
maite zaituzana.
Zu galduko bazina
Arbola lastana
penaz hilgo litzake
Euskal Herri dana.

03 Bedeinkatua zara
beti Euskal Herrian
zutaz hitz egiten da
baserri ta hurian.
Zure izena ez bakarrik
Espainia guztian
da entzuna, baizikan
han arrotz herrian.

04 Eta nor zeure herrian
ahaztuko da zugaz?
Sekula ez zaitetz egon
horregaiti arduraz.
Neuk maite izango zaitut
gitxien benturaz
eta bihotz guztitik
nik maite zaitudaz.



01. **Pozkiada:** poz, poztasun.
Kutx: kutxa.
Orria: hostoa.
Zaitzeko: zaintzeko, jagoteko, gordetze-
ko.

02. **Dituzana:** dituena.
Zaituzana: zaituena.

03. **Hurian:** hirian.
04. **Zugaz:** zutaz, zurekin.
Arduraz: kezka.
Gitxien benturaz: gutien, gutxien agian.
Zaitudaz: zaitut.

LAPIKO KONPONTZAILE BI

(Euskalduna. 94. zenbakia. 193. or.)

01 Ahoa garbitzeko
nahizta mozkortu egin
atara dagiala
beste azunberdi.
-Mari Martin, asko da!
Ez eran larregi.
-Azunbre bat eran dot
nik ta zuk barriz bi.

02 Ardau saltzaile honek
atara dabenik
ez dau eran bat baino
Josepa Antonik.
-Egia ez dagoala
ardaozale onik!
Azunbre bi dirala...
-Eta ez dirala nik.

03 Pitxar mutur motzetik
zeinbat eranaldi
egin dozuzan jakin
ezin leike garbi.
-Kontuetan badakit
neuretzako lagin
nik bat bat nik ta zuk bat
horra biok bardin.



01. **Ahoa:** ahoa.
Dagiala: dezala.
Azunberdi: azunbre erdi.
Azunbre: bi litroko neurria.
Eran larregi: edan gehiegi.

02. **Dabenik:** duenik.
Bat baino: bat baizik, bat besterik.
03. **Dozuzan:** dituzun.
Leike: liteke.
Lagin: lain, bezanbat, aina.

BILBOTIK IPIÑABURURA

(Euskalduna. 98. zenbakia. 229. or.)

- 01 Ipiñaburun dagoz bildurrez ikara heldu ez dagitezen txarriak bertara. Bada entzun ei dabe hara ta Undurrara laister juango dirala zazpi barkukara.
- 02 Atzo Ipiñaburun egin dan batzarra Bizkaian izango da hurrean bakarra. Amuz beteko dabe hango errekatzarra hobeto koxuteko barku txarritarra.
- 03 Sartu ez dagitezen Undurran txarriak errekan hazi dira ipinten harriak handi gogorak eta ikaragarriak Oketako basotik Praiskuk ekarriak.
- 04 Baita Ubide bere hasi da lanean han sartuko dirala entzun dabenean. Torrean prest prest dagoz kainoiak danean ontziok apurtzeko Barazar ganean.
- 05 Ipiñaburun dino gizonik zaharrenak aldatza igo ezkeru barkurik txarrenak zelan ez dau igoten Ubidera trenak? Urik ez dau topatzen? Bai gura dabena.
- 06 Ubidera joan nintzan behin eta berean urok eta edurrok ugari zirean. Bada ez leuke hartuko tren horrek bidean behar dabena ur hori? Arraielarean!

- 07 Entzunik doiazala Ubideko herrira Otxandioko plazan ikaratu dira. Alkarrerri dineutse: Sartuko ete dira txarriok Otxandion? Bai, txarritegira.



- 01 **Ipiñaburu:** Zeanuriko auzo bat.
Dagoz: daude.
Dagitezen: daitezen.
Ei dabe: omen dute.
Undurra: Undurraga, Zeanuriko auzo bat, Ipiñaburu azpian.
Barkukara: barkukada.
02. **Hurrean:** hain baten, kontixu, nonbait, nonbait ere.
Errekatzarra: erreka, ibai handia.
Hobeto: hobeki.
Koxuteko: harrapatzeko, hatzemateko.
04. **Dabenean:** dutenean.
Ganean: ganean.
05. **Dino:** dio, erraiten du.
Aldatza: aldapa, malda.
Zelan: nola.
Ez dau topatzen: ez al du aurkitzen, edireten.
Gura dabena: nahi duenak.
06. **Ez leuke:** ez al luke.
Behar dabena: behar duen.
Arraielarean: hitz joko bat edo toki izen moldatu bat dirudi.
07. **Doiazala:** doazela.
Alkarrerri: elkarri.
Dineutse: diotsate, esaten diote.
Ete: ote.

Bertso hauetan txerri bidaia fantastiko horrek beste zerbait adierazten duela dirudi, non txarriak jende mota politiko edo sozial baten metafora burlazkoa liratekeen. Orduan eta geroago ere, Bilbotik edozer etor daitekeela uste izan bait da.

GAURKO MUTIL BANAKOK

(Euskalduna. 99. zenbakia. 238. or.)

- 01 Gaurko mutil banakok
galdu ez daitezkan
ezkontza zelan egin
nik behar dot esan.
Bizi gura ez dabenak
neu legez tristezan
sinistu dagiala
neure andrea zer zan.
- 02 Neskatilea zala
nire andra Jazinta
agertuten zan beti
ederto jantzita.
Garritik eukazala
beherantza jausita
larrosa koloreko
lau sedazko zinta.
- 03 Ikusirik aldean
honenbeste gala
sedazko soinekoa
jantziten ebala
pentsetan neban diruz
aberatsa zala
eta zazpirehun libra
urregorri eukala.
- 04 Oso zoratu nindun
bere arpegiak
gorputz liraina eta
begi hain argiak.
Soinekoan adornu
hain miragarriak
Parisko dendetatik
ekarri barriak.
- 05 Halan hartu neuntsazan
aberatsen antzak
pentsaturik bakarrik
neskatxa aberatsak
jazten dituezala
soineko eder baltzak
baina guztiak ziran
kalabaza saltsak.
- 06 Egun guztian beti
beraren atzean
eta gaubean barriz
gaberdi artean
egoten nintzan sarri
bere etxeko atean
hau ibilera danau
zan neure kaltean.

- 07 Hutsik begoan bere
gure diru poltsak
amodioz beterik
geunkazan bihotzak.
Ez eban hotzitzen
gaberdiko hotzak
amodio sutsu hau
baina bai ezkontzak.
- 08 Ezkondu nintzan eta
begiko negarrak
amatatzen ebazan
bihotzeko garrak.
Engainatu ninduen
amodio larrak
eta oso aitzu ziran
urregorri barrak.
- 09 Goxian jagi eta
egiteko sua
sarritan ekarten dau
kanpotik auzua.
Buruan ipinten dau
sedazko lazua
hari begira dago
nire enbarazua.
- 10 Ez dau bere denporan
lau ziri irabazi
eta lanean inoz
ez dau gura hasi.
Babari gatza egiten
ez dau ondo ikasi
bada sarritan dagoz
gaza edo gazi.
- 11 Soinian euki arren
jantzi sedazkua
erakusten ez badau
dirudun zakua
kontuz egin mutilak
ezkontza tratua
sartu ez dagitzuen
erbitzat katua.
- 12 Egia da, lehenengo
behar da osasuna
baina bigarren beti
onena ondasuna.
Dirua da munduan
gaur laguntasuna
jente guztiarentzat
ta ez politasuna.
- 13 Guztiok gaur munduan
gara diru egarri
berau bagarik gabiz
danok barregarri.
Jazintak euki arren
ehun soineko barri
dirurik ez eukan da
orain gagoz larri.
- 14 Errazoia daukazu
gaur zuk Joxe Mari
ta jaramongo deustat
nik zure esanari.
Ondo berba egin arren
neskatxa danari
hobeto egingo deustat
ondasundunari.



01. **Banakok:** banaka hauek, bakan, mehatz hauek.
Zelan: nola.
Gura ez dabenak: nahi ez dutenak.
Legez: bezala.
Dagiala: dezala.
02. **Ederto:** ederki.
Garri: gerri.
Eukazala: zeuzkala.
Jausita: erorita.
Larrosa: arrosa.
Sedazko: zetazko.
03. **Aldean:** soinean, norbere gorputzean.
Gala: luxuzko jantzia edo ohizkoa baino hobe.
Jantziten ebala: jazen zuela.
Pentsetan neban: pentsatzen nuen.
Libra: libera, kilo erdi.
04. **Adornu:** apaingarri.
05. **Halan:** hala.
Neuntsazan: nizkion.
Dituezala: dituztela.
06. **Sarri:** sarritan, maiz, anitzetan.
Danau: den hau, guzti hau.
07. **Begozan bere:** baegozan, bazeuden ere.
- Geunkazan:** geneuzkan.
Ez eban hotzitzen: ez zuen hozten.
08. **Amatatzen ebazan:** itzaltzen, iraungitzen zituen.
Larrak: larregiak, gehiegiak.
Aiztu: ahaztu.
09. **Goxian:** goizean.
Jagi: jaiki.
Kanpotik auzua: auzoko norbait sua egiteko.
Enbarazua: ondoeza, traba.
10. **Ziri:** zuri, Espainiako antzinako txanpon bat.
Inoz ez dau gura: inoiz ez du nahi.
Gaza: geza, gaziaren alderantzizkoa.
11. **Dagitzuen:** diezazuen.
13. **Bagarik gabiz:** gabe gabiltza.
Barregarri: irrigarri, errukarri.
Eukan: zeukan.
Gagoz: gaude.
14. **Jaramongo deutsat:** jaramon, arreta, kasu egingo diot.
Berba egin: mintzatu, elekatu, hitz egin.
Danari: denei.
Hobeto: hobeki.

ARBOLA BI

(Euskalduna. 103. zenbakia. 268. or.)

- 01 Arbola bi daukaguz
gaur Euskal Herrian
hainbat erdaldun edo
bedar txar erdian.
Ez badago negarrik
euskaldun begian
hobeto egongo ziran
Arbolok mendian.
- 02 Lege zaharrak eginik
azkenengo agurra
bedar txarrez bete zan
Euskal Herri lurra.
Hau entzunik bota eban
negar orde ezkurra
zaharrak, eta igartu zan
Arbola samurra.
- 03 Beste Arbolatxo bat
daukagu lurrean
baina igartuko da
hau bere hurrean.
Bada euskaldun asko
dabiz guzurrean
ta Arbola ebagiteko
sustrai hatxurrean.
- 04 Ikusirik ezbehar
hain negargarria
igartuten hasi da
Arbola barria.
Ez bakarrik Arbola
baita bere harria
igartuko litzake!
Oh Euskal Herria!
- 05 Entzun dagiogun guk
Arbola ederrari
bada berak dinotso
Euskal Herriari:
"Itandu egiozu
euskaldun danari
frutu emon ezina
nik hain dan mirari.
- 06 Lur onak euki arren
ta leku ezkutua
bedar txarrez beterik
badago lekua
zelan emongo dot nik
behar dan frutua
Euskal Herri gehiena
bada erdaldundua?

07 Lur hau garbitu arte
beti nago arduraz
Euskal Herri maitea
biziteko zugaz.
Zeuk emon beharrean
eskerrak benturaz
garbitu egizu ta neuk
emongo deutzudaz”.

08 Bai bai, egon zeintekez
ardura bagarik
sekula ez dozu eukiko
adiskide txarririk.
Ta inoz ikusten badot
arrotz herritarrik
kanpora atarako dot
neuk bakar bakarrik.



01. **Daukaguz:** dauzkagu.
Bedar: belar.
Arbolok: arbola hauek.

02. **Eban:** zuen.
Negar orde: negar orde, negartzat.

03. **Hurrean:** hain baten, nonbait, nonbait ere.
Dabiz: dabilta.
Ebagiteko: ebakitzeko, mozteko.
Sustrai hatxurrean: sustraiak, erroak
haitzurtzen.

04. **Bere:** ere.

05. **Dagiogun:** diezaiogun.

Dinotso: diotsa, erraiten dio.
Itandu egiozu: galdeiozu, galde iezaiozu.
Mirari: mirakulu.

06. **Zelan:** nola.

07. **Arduraz:** kezka, axolatsu.
Zugaz: zurekin.
Benturaz: menturaz, agian, beharbada.
Egizu: ezazu.
Deutzudaz: dizkizut.

08. **Zeintekez:** zintezke.
Bagarik: barik, gabe.
Inoz: inoiz, noizbait.

ARRATIAKO NESKATILEN ERESIA

(Euskalduna. 107. zenbakia. 296. or.)

01 Los soldaritos de Arratia
corren toras las esquinas
silla Cueba Potrorico
en las sillas Pelepiñas
en las sillas Pelepiñas
corren toras las esquinas.

Lirun lan lairun
lirun lan lan lairun
lirun lirun lan lairun
lirun lan lan lairun.

02 Ai Algorta potro del mar
ai cuanta sispuros mendaro
ai la sembra de tus pareres
ai cuantas veses tarrondaro
ai cuantas veses tarrondaro
ai cuanta sispuros mendaro.

Lirun lan lairun...

03 Si muero pronto coñeta
mi coñeta erresame
secule bedar prentsepeo
ez neuk en sempren amen
ez neuk en sempren amen
mi coñeta erresame.

Lirun lan lairun...

04. **Mutilok:** mutil hauek.
Dagoz: daude.
Euren artean: euren golkoan, beren bai-
tan.

04 Mutilok dagoz fumatzen
euren artean pentsatzen
nori esango ete deuten
erdu iantzan pizke baten
erdu iantzan pizke baten
euren artean pentsatzen.

Lirun lan lairun...

05 Aura te voy a cantar
despededa muy salada
adios errosa bonito
adios ai cravel dorada
adios ai cravel dorada
despededa muy salada.



Ete deuten: ote dioten.
Erdu: zatoz, etor zaitez.
Iantzan: dantzan.
Pizke baten: pixka batean, apur batean.

Kopla hauetan neskatxen erdaraz egiteko grina ironizatzen da, mutilak dantza eskatzeko begira daudela. Horrela, gaztelania desformatzen dute, eta ez dakitena egin nahi izatearren, barregarriago gertatzen dira. Hala: *Potrorico*: Puerto Rico; *sillas Pelepiñas*: Islas Filipinas; *Algorta potro del mar*: Algorta puerto del mar; *mendaro*: me han dado; *tarrondaro*: te ha rondado; *erresame*: rezame; *despededa*: despedida; *errosa*: rosa, etab.

Baita hirugarrenean latina ere: *sicut erat in principio et nunc et semper. Amen*. Horren orde: *sekule bedar prentsepeo ez neuk en sempren amen*. *Sekulebedar* edo *sekulabedar* belar mota bat da, hirusta.

BIGARREN ALDIA

(Euskalduna. 109. zenbakia. 313. or.)

01 Hasi nazan ezkerro
kantatzeko garbi
Brijine Arantzazuko
egidazu argi.

Ai monona
gauzerik onona
ai bibili
ez holan ibili.

02 Bedenkatea zara
grazien grazie
damaturik neu nago
kantetan hasie.

Ai laztana
zeurea naz dana
ai pitxie
neuk ezin itxie.

03 Bedarrik ederrena
soloan garie
andrarik ederrena
Brijine Marie.

Ai miniña
neurea baziña
ai kariño
berak ezetz diño.

04 Mucho mucho te quiero
como soy Valentin
pero tu no me quieres
ene Mari Martin.

Ai salero
apaldute gero
ai lorea
bazina neurea.

05 Kurutze santearen
seinaleagaitik
ez egin baltseorik
Jangoikoagaitik.

Ai kutune
begi ederdune
ai bihotza
urrezko mokotza.

06 Despededa muy triste
no te quiero cantar
porque las chicas bapas
se pueden espantar.

Ai monona
se pueden espantar
ai salara
la despededa.



01. **Monona:** morena hitza deformaturik.

Onona: onena.

Bibili: hitz onomatopeikoa.

Holan: honela.

02. **Bedenkatea:** bedeinkatea, *bedeinkatua*
femeninoan.

Kantetan: kantatzen.

Pitxie: pitxia, bitxia. Haur hizkeran lo-
rea edo zerbait polita.

Itxie: itxia, utzia.

03. **Miniña:** ene neskatxoa gaztelaniaz.

Kariño: maitea, laztana gaztelaniaz.

Diño: dio, erraiten du.

04. **Salero:** gatzontzia gaztelaniaz.

Apaldute: afalduta.

05. **Santearen:** *santuaren* femeninoan.

Baltseo: dantza lotua.

Mokotza: mokotsa, opil berezia, amabi-
txiak pazkoetan besoetakoari opatzen dio-
na.

06. **Bapas:** guapas.

Salara: salada, grazia daukan neska edo
emakumea.

ARINEKETIA

(Euskalduna. 110. zenbakia. 321. or.)

01 Anton errementari
bentanan loloa
urrea dalakoan -monona
plomoa daroa.

Lirun lan lan lirun lan lai
lirun lan lan lirun lan lai
lirun lan lan lirun lan lena
lirun lun lun lan lai.

02 Errementari baino
hobe da denderu
kana bete zintagaz -monona
esku bete diru.

Lirun lan lan...

03 Olagizonak eta
errementariak
frakatxo zaharrak eta -monona
begiek gorriek.

Lirun lan lan...

04 Irabazten dituez
hogeiko gorriek
baie galtzen dituez -monona
euren egarriek.

Lirun lan lan...

05 Errementari andrak
goxean goxean
txikerdi aguardinte -monona
arnase batean.

Lirun lan lan...

06 Abarka mantea ta
barradunek frakak
Arratien daukeguz -monona
mutilek galantak.

Lirun lan lan...



01 Errementari: suharotz.
Bentanan: leihoan.
Plomoa: beruna.
Daroa: darama.

02. **Denderu:** dendari.
Kana: luzera neurria, metroa baino zer-
bait laburragoa.
Zintagaz: zintarekin.

03. **Frakatxo:** galtzatxo.

04. **Dituez:** dituzte.
Baie: baina.

05. **Goxean:** goizean.
Txikerdi: txiki erdi, litro zortzirena.
Aguardinte: pattarra.

06. **Abarka mantea:** abarka-mantak, abar-
kak eta mantak edo galtzerdi gisa jazten
diren mantarrak.
Daukeguz: dauzkagu.

Kopla hauek anonimotzat batuak daude han-hemen, oso kantatuak izan bait dira. Nik ere hala sartu nituen lehen liburukian. Bonifazio Latxak, ordea, inolako oharrik gabe ematen ditu, berak sinaturik, jaso egin dituela edo bereak ez direla ezertarako iradoki gabe. Beraz, gauzak normal hartuz gero, berak eginak direla pentsatu behar da.

BERTSO BATZUK ROMANARI

(Euskalduna. 138. zenbakia. 124. or.)

Balentin Bizerrek:

01 Bertso barritxo batzuk
ataraten nua
eta entzun mutilok
hau da lehenengua.
Jakin gura dabenak
zer dan gaur mundua
garbi ukatu begi
beti agindua.

02 Ia amaitu dodaz
ezkontzako lanak
ta orain urteiten deuste
aldrebes dan danak.
Probia naizelako
ez nau nahi Romanak
aberatsa nintzala
pentsatzen ebanak.

Romana, bertso barriak
atara deutzudaz nik
ezezkua emon deustazu
zuk patxara bagarik.

03 Niri eskatu eustan
zure aitak dirue
eta gero izan zan
ezin konpondue.
Zirkunstantzie hori
konprendiduteko
obstakulo handiak
daukaz neuretzako.

04 Petezino hori da
inkonprensiplie
zuk baino beti daukat
kapital hobie.
Ez jat sabidu bape
zure aiten kantie
zeure kapitala da
hain inportantie?

05 Euko bazendu bere
zeuk inportantie
jazten daukazu gastu
exorbitantie.
Ez badaukazu bere
behar dan grazie
zeugez ibiliko da
aristokrazie.

Romanak Balentintxori:

- 06 Bertsuak ataraten
neuk hasi biharrian
ederto parau zara
zeu neure aurrian.
Ifiniko zindukaz
hasirik txarrian
zeu asto, idi, itaila
ta zeu itaurrian.
- 07 Hain izan dira gozo
ta hain koipatsuak!
Asto batek jan dituz
gaur zure bertsuak.
Jan ta gero esan eustan
hak asto paltsuak
on egiten deutsalara
halango galtzuak.
- 08 Lapikua badago
pilpil irikiten
ekin egiozu zuk
bertsuak egiten.
Ta gazatxo badagoz
gatza egin birriten
bada gatzen preminan
daukazuz sarriten.
- 09 Esan egidazu zuk
nungo eleixetan
ikasi dozun bada
hain ondo errezetan.
Inoz hasi bagarik
ni zugaz ezetan
saltzen hasi zara zu
guzurrak pezetan.
- 10 Zelan egingo nintzan
ni zugaz konpondu
ez bagara batera
inoz be egon gu?
Gura ez dabenagaz
zahartzaroan ondu
aberatsa izan arren
ez dot gura ezkondu.
- 11 Handiak dinozuz zuk
ai aita gurea!
Hain euki dozu nigaz
ezkondu gurea?
Izanik Balentintxo
zeu hain agurea
zelan gurako neban
nik izan zurea?
- 12 Umila izan ezkerro
gura dot probea
bada probe umila da
ezer baino hobea.
Baina izaten bada
umilen ordea
gautxori zahar paltso bat
jaulan nok gorde ha?
- 13 Egizu Balentintxo
zeuretzako lagin
ta egin gura ez badozu
niri dost hain bardin.
Bada zuk ez dakizu
ez dabela egin
nire aitak konfiterik
zuretzat behinepin?

- 14 Zuk erabili dozu
Balentintxo lana!
Koxu gura izan dozu
zeuretzat Romana?
Bada zuk ez dakizu
errazoia dana
laister hilgo nintzala
juan banintz zugana?
- 15 Ez dot gura gaurkuan
luzatu gehiago
zergaitik eskibritzen
aispirtuta nago.
Baina hasten bazara
neu baino lehenago
barriro erantzuteko
Romana hemen dago.



01. **Ataraten nua:** ateratzera noa.
Gura dabenak: nahi duenak.
Ukatu begi: uka beza agindua, hots, agindu eta eman ez.
02. **Dodaz:** ditut.
Urteiten deuste: ateratzen, gertatzen zaizkit.
Probia: pobrea.
Ebanak: zuenak.
Deutzudaz: dizkizut.
Deustazu: didazu.
Bagarik: barik, gabe.
03. **Eustan:** zidan.
Obstakulo: oztopo, eragozpen.
Daukaz: dauzka.
04. **Petezino:** eskaera, eskabide.
Ez jat sabidu bape: ez zait bat ere gustatu.
Kantie: kanta.
05. **Euko:** eukiko, edukiko.
Exorbitantie: neurri gabea, ikaragarria.
Bere: ere.
Zeugez: zeurekin.
06. **Ederto:** ederki.
Parau: paratu, jarri, kokatu.
Ifiniko zindukaz: ipiniko zintuzket.
Hasirik txarrian: txarrean, gaiztakerian hasiz gero.
Itaila: bost, zazpi edo bederatzi hortzeko goldea.
07. **Hak:** hark.
Deutsala: diola.
Halango: halako.
Galtzua: gariaren lastoa.
08. **Lapikua:** eltzea.
Gazatxo: geza samar.
Geza: gaziaren alderantzia.
Badagoz: badaude.
Birriten: bitan, bi aldiz.
Bada: ze, zeren, zergatik. Kausala.
Gatzen preminan: gatzaren premian, beharrean.
Daukazuz: daukazazu.
09. **Esan egidazu:** esaidazu, esan iezadazu.
Eleixetan: elizetan.
Errezetan: errezatzen, otoitz egiten.
Zugaz ezetan: zurekin ezertan, deustetan.
10. **Zelan:** nola.
Inoz bere: inoiz ere.
Ez dabenagaz: ez duenarekin.
11. **Dinuzuz:** erraiten, esaten dituzu.
Nigaz: nirekin.
Ezkondu gurea: ezkondu gura, nahia.

- Gurako neban:** gura, nahi izango nuen.
 12. **Umilen orde:** umilaren orde, umilaren lekuan.
Jaulan: kaiolan.
Nok gorde ha: nork gorde hura.
 13. **Zeuretzako lagin:** zeuretzako lain, aina, zuretzat bezanbat, zuretzat hainbat.
Niri dost: niri dit.
- Ez dabela:** ez duela.
Konfiterik: gozokirik.
Behinepin: behinik behin, bederen, behintzat.
 14. **Koxu:** harrapatu, hatzeman.
 15. **Zergaitik:** ze, zeren. Kausala.
Eskibritzen: izkribatzen, idazten.
Barriro: berriz.

Bertso hauek ez dakigu histori egizkoa ala asmatua kontatzen duten, baina xelebreak dira nolana. Lehen partean, Balentinen ahoan, erdal hitz asko berariaz, apropos jartzen dira, bere buruari garrantzi kultoa emateko. Eta bertso jartzailearen gogoan, jakina, joera hori irrigarri uzteko. Edo agian berari ere grazia egiten ziolako, Bonifazio honen buruan haizea azkar bait zebilen. Bigarren parteko hamarrak, oster, benetan zorrotzak eta dotoreak dira, jeneroaren antologiarik hautatuenean sarztekoak. Har kargu zelako errima eta hizkera darabilen.

ARLORAREN ALABEARI

(Euskalduna. 139. zenbakia. 131. or.)

- 01 Bertso barriak debalde eutsiz irakurri alde.
 Zeure egitade guzti guztiak oso ikaratu nabe
 Bilbon jakiten badabe laster zabalduko dabe.
- 02 Entzun ei dituz herriak bota zenduzan dei biak.
 Hainbat koplakaz bete zeuntsazan senargeiari begiak ez ziran danak egiak guzurrak behintzat erdiak.

- 03 Hareri esan zeuntsana ipiniko neunke dana.
 Baina formala izan ezkerro ez da esaten ahal dana saldu zenduan dan dana geure Bonitxo laztana.
- 04 "Boni, entzun egidazu mutil zintzua zara zu.
 Iragoko lau hilabetian zeuri begira naukazu ezkondu gura badozu Arlora hemen daukazu.
- 05 Baia egizu azaldu betiko ez naiten galdu.
 Boni, dinotzut bihotz guztitik ez naizula bada saldu ezetz ez niri bialdu ez naiten guztiz makaldu".
- 06 Honek guztiok entzunik erantzuten deutso Bonik:
 "Arlora, zagoz bildurrik barik ez zaitut gura saldu nik gehiago maite zaitunik ez dot uste dagoanik".
- 07 Saldu dabe mutil fina harturik narru sorgina.
 Izanta bere sorgin guztien ama edo erregina txarto egoan egin botarik biak dei bina.
- 08 Berak lau ziri baleuko ez zan mirari egiteko geure Boniri eskatutia hiru mila hogerleko baina hau ez da Keleto halan dirua emoteko.
- 09 Horra hemen neskatila berau mutilaren bila.
 Hogerlekuak baleukaz bere hirurogeta lau mila hau hartzen daben mutila ez da entero utila.
- 10 Hara hemen Arloren alaba herri guztiko aldaba.
 Ezin dau honek igaro ondo egun guztia ta gaba bada inoiz saltzen bada ez dau balio lau baba.
- 11 Ez dogu gura geuretzat neska mutilik andratzat.
 Duarik bere karu zara zu hamairu pezetarentzat hamairu baba neuretzat gurago dodaz neuk behintzat.
- 12 Heldu da neure burura goizian zeure tristura.
 Galdu dozu zuk kreitu gehiena eta ez deutzu ardura?
 Hemen gagoz lau agura ta bat ez da zeure gura.

13 Ez da egiten munduan
zuk egin dozun moduan.
Senargei hori zeure etsera
zertan eruan zenduan?
Zure burua orduan
zentzun bagarik eguan.

14 Orain esanik dan dana
amaitu dogu guk lana.
Ez da mirari herri guztiak
jotea zurri arrana
neska polita izana
zoaz orain Narrugana.



01. **Eutsiz:** har itzazu.
Egitade: egite, egintza.
Nabe: naute.
Badabe: badute.
02. **Ei dituz:** omen ditu.
Zenduzan: zenituen.
Dei biak: elizaz ezkontzeko, aurreko hiru igandetan, ezkongai bakoitzaren herrian, ezkontza hori apaizak elizan iragartzen du, hartarako formula jakin batez. Egin-tza horri *deiak botatzea* deritzo. Ezkon deiak. Lan horretan hasita ezkontza haus-tea eskandalu handia da beti ere.
Koplakaz: koplekin.
Kopla: zurikeria, egizkoa ez den hitza edo zeinua, ezta eta lausenguzkoa, baina en-gainatzeko egina. Badu baita *aitzaki* zen-tzua ere, haurrek adibidez ez jateko as-matzen dituzten akiakulak.
Koplosoa: koplak egiten dituen. *Kopla*-ren esnahi hau gaur ere oso erabilia eta esamolde asko sortzen dituena da.
Zeuntsazan: zenizkion.
03. **Hareri:** hari.
Zeuntsana: zeniona.
Neunke: nuke.
04. **Egidazu:** iezadazu.
Iragoko lau hilabetian: irago den, ira-gan lau hilabetian, joan den lau hilabetian. Gaur laburturik *irako* edo *idako* esaten da zenbait eskualdetan.
05. **Baia:** baina.
Egizu azaldu: azaldu ezazu.

Ez naiten: ez nadin.
Dinotzut: diotsut, erraiten dizut.
Ez naizula: ez nazazula.
Ezetz ez niri bialdu: ez niri ezetzik bi-dali, ez niri ezetz esan.

06. **Honek guztiok:** honeik, hauek guztiak.
Deutso: dio.
Zagoz: zaude, egon zaitez.
Bagarik: barik, gabe.
07. **Narru:** larru. Hitz honek kutsu gordin eta zakarra dauka hemen.
Izanta bere: izan ere.
Txarto egoan: gaizki zegoen.
Botarik biak dei bina: biek bina dei bota ondoren.
08. **Ziri:** zuri. Antzinako txanpon bat.
Ez zan mirari egiteko: ez zen harritze-koa.
Hogerleko: hogeirealekoa, bost pe-zetakoa.
Keleto: Anakleto, Anakeleto, Keleto. Izen honek gero beste esanahi hau hartu du: geldoa, txepela, nortasun gabea.
Halan: hala.
09. **Baleukaz bere:** baleuzka ere.
Entero utila: guztiz, oso baliozkoa, arras baliagarria.
10. **Igaro:** iragan, pasatu.
11. **Neska mutilik:** Mari mutilik, mutil an-tzeko neskarik.
Duarik bere: dohan, dohainik ere.
Karu: kario, garesti.

- Hamairu pezetarentzat:** ezkon zeremo-nian senargaiak ematen dituen hamairu diruak.
Gurago dodaz: nahiago ditut.
12. **Kreitu:** kreditu, ospe, izen ona.
Ez deutzu ardura: ez al dizu axola, ez al zaizu ardura.
Gagoz: gaude.
Agura: agure.
Ez da zeure gura: ez zaitu gura, ez zaitu nahi.
13. **Etsera:** etxera.
Zertan eruan: zertara eraman.
Zentzun bagarik eguan: zentzun gabe zegoen.
14. **Jotea:** jotzea.
Arrana: joarea, zintzarria.
Narrugana: *narru* edo larru ezizen gisa erabilia. Badira goitzen hori daukaten pertsonak edo familiak, baina hemen esa-nahi figuratua mintzo dela dirudi.

Bertso sorta honen sinatzaileak *Modestaren lau adiskide* badira ere, estiloz ez dago dudarik Latxarenak direla. Modesta hori Arloraren alaba-ren izena izango zen. Bertsoetan gainera *Boni* (Bonifazio) ageri da. Bera-ri gertatua kontatzen ari ote da? Darabilen neurria ere aipatzekoa da.

FERMIN ETA OTXOTENE

Bertsoetan agiri direnez beste daturik ez daukagu bi bertsolariotaz.

GARAGARRILEKO PROBA

(Bertso berriak garagarrileko probaren ganean jarriak)

(Euskal jokoak bertsoak (II). A. Zavala. *Auspoa* 183. 107. or.)

01 Siglo zahar hori akabau jaku
oin sartu gara barrien
esperentzie pasau ein jaku
geuri Loiuko herrien.
Gure Jaunari grazia orain
noa egiten eskatu
bost buzterri... zer...
Jose.....

02
.... (bertso osoa falta da)

03
.....
.....
.....oa
Goieritar..... te beti
Loiuti diru eroten
Jose Manuri hailao bildurrik
inok ez deutso emoten.

04 Prezisamente diru faltarik
ez dago horren artean
baia ez da egoten fazil
horreri aurre hartzean.
Goiherritarrak holao gauzetan
Basañez deude burua
bolsan lez kontau premia ta
hau da dekozun modua.

05 Gure Jaunaren grazi bagarik
holarik ezin hasi nei
Goikosekoak hogetak eta
Pinukoak tarda deituez sei.
Ziriakok bere barragarri bi
hara egizitun eron
zer entenidu Jose Manuri
haiek ei jotsean emon.

06 Karrateruak herbestekoak
egin deitue ekarri
aurreti ibiltea pensegaitik
atzera lotu ein sarri.
Gizonak gaitik zer esan txarrik
inok be ezilei euki
hailangoakaz haiek idiek
ez dire ibili beti.

07majoak ziran biek bere
.....e egon zana atzeti
.....laukota atera euden
.....Loiuko herritik.
.....a hiru Loiu aldean
.....ndea ocho
.....ta zuk, Jose Manu
.....ie motxo.

08 Karrateruak izen ei dire
Felix te Arzubikoa
Fernando, zuri emon ein jatzu
zer entendidu nahikoa.
Ostute egoterik etxat gustetan
garez Otxotenekoak
desafiorik gure badozu
badagoz probalekuak.

09 Etxat gustetan sartu iterik
niri horrelango salsan
kornetea jo egin sostean
lau minutuaren faltan.
Justizi horrek egun horretan
hain deu burue kakaztu
ofensa txarrik emon badotsat
egin daitazu parkatu.

10 Guzurrik arean eno iminten
guztiak dira egiak
harri koskolik ez deude behar
Otxoteneko idiak.
Edozin gauze egiazoten du
bakotzak geure herrian
inok harririk ez eun imini
nire begien aurrean.

11 Ez dot pensetan pasau iterik
holaorik neure aldian
zeuk guzunean probauko dira
zein gurdian zein harrian.
Ondino bere behar dan legez
ez bazeituez ondratu
neu bere jakitun egon naitean
eizu egune nonbratu.

12 Holao lekuen ber leukez euki
listo jenteak begiak
honik aurrera esangozu ze
nongoak diren idiak.
Pinukoak ziren altuengoak
harik lasterren nireak
ondo dakigu zelangoak diren
Loiuko alkaten ideak.

13 Zazpiterik sei beti te beti
egin Hilariok hartu
sustu galanta Jose Manuri
haiek egin deutse sartu.
Kriedu onak deitu Hilariok
idiri jaten emoten
hari eleio inok bentajau
hiruterik bi eroten.

14 Goiherri beti gasteu eiten deu
jenteak sanidadea
gure badozu jokaturea
nonbraizu kantidadea.
Enoa gehiao lotsatuten zu
nahiko imin dou gauzerik
idiek beti eroten dodaz
etsetik edo auzotik.

15 Hamalau dagoz imini eta
hau da hamabosgarrena
txakur handie izen eingo da
orain prezio onena.
Bertsolariek izen ein dire
Fermin te Otxoteneko
gerorao hobak imingo dire
honek ezpadi nahikoa.



01. **Siglo:** mende.
Akabau jaku: amaitu, bukatu zaigu.
Oin: orain.
Esperentzie: esperientzia, kasua, kontatzeakoa.
Pasau ein jaku: pasatu, gertatu (egin) zaigu.
Noa egiten eskatu: noa eskatzera.
Buzterri: uztarri, idi pare.
03. **Goiherri:** Erandioko auzo bat.
Eroten: eroaten, eramaten.
Hailao: halango, halako.
Deutso: dio.
04. **Prezisamente:** hain zuzen, izan ere.
Horren artean: horrein, horien artean.
Baia: baina.
Horreri aurre hartzean: horiei aurrea hartzen.
Holao: holango, holako.
Deude: dute.
Bolsan lez kontau: patrikan balu bezala edo irabazitzat kontatu.
Dekozun: daukazun.
05. **Bagarik:** barik, gabe.
Holarik: holan, honela.
Nei: neiteke, naiteke.
Tarda deituez: tardatu dituzte.
Barragarri: irrigarri, xeibre.
Egizitun eron: egin zituen eroan, eramanean zituen.
Entendidu: ulertu, endelegatu.

- Ei:** omen.
Jotsean: zioaten.
06. **Karrateruak:** itzainak.
Herbestekoak: kanpo herrikoak.
Deitue: dituzte.
Pensegaitik: pentsatuagatik. Textuak **peseagaitik** dakar, baina bistan dago beste dela.
Lotu: geratu, gelditu.
Sarri: sarritan, maiz, aunitzetan.
Be: bere, ere.
Ezilei: ezin lei, ezin lezake.
Hailangoakaz: halangoakaz, halakoekin.
Haiek idiek: idi haiek.
07. **Laukota:** laukotea.
Atera euden: atera zuten. Textuak *eden* dakarrela eta *eben* jartzen du A. Zavalak, baina azpi-euskalki horretan *euden* behar du.
08. **Izen in dire:** izan (egin) dira.
Emon ein jatzu: eman (egin) zaizu.
Ostute: ostenduta, gordeta, izkutaturik.
Etxat gustetan: ez zait gustatzen.
Garez: gara.
Gure: nahi.
Badagoz: badaude.
09. **Sartu iterik:** sartu egiterik, sartzerik.
Jo egin sostean: jo zidaten.
Hain deu: hain du, hainbeste du. Pape-rak **de (da)** dakar, baina *deu* eskatzen du esaldiak.

- Kakaztu:** kakaz zikindu, lotsagarri gelditu.
Badotsat: badiot.
Egin daitazu: egidazu, egin iezadazu.
10. **Arean:** bat ere, deus ere.
Eno iminten: ez noa ipintzen, ez noa jartzera.
Harri koskolik: harri koxkorrik, harri xeherik.
Deude: dute.
Egiazoten du: eginazoten dogu, eginerazten dugu. Testuak *egi-aziten* dakar, baina Bizkaian *azo-arazo* da.
Ez eun: ez zuen. Testuak *ez uen* dakar, baina inguru honetan *eun* behar du.
11. **Pensetan:** pentsatzen.
Pasau iterik: pasatzerik.
Holakorik: holakorik, honelakorik.
Guzunean: gura, nahi dozunean.
Zein... zein: nahiz... nahiz.
Ondino: oraino, oraindio, oraindik.
Legez: bezala.
Ez bazeituez: ez bazaituzte. Testuak *es-citudesca* dakar, baina horrek ez dauka zentzurik.
Naitean: nadin.
Eizu egune nonbratu: nonbra, izenda ezazu eguna.
12. **Holao:** holako, honelako edo horrelako.
Ber leukez: behar lituzke.
Honik aurrera: aurrerantzean, honez aurrera, hontaz aitzina.
Esangozu ze: esango dozu ze, esango duzu ezen.
Harik lasterren: handik lasterrean, geroztik laster.
- Zelangoak:** nolakoak.
Alkaten: alkatearen.
13. **Zazpiterik:** zazpitatik, zazpitik.
Te: ta, eta.
Deutse: diote.
Kriedu: morroi, mutil.
Deitu: ditu.
Idiri: idiei.
Eleio: ez leio, ez liezaioke.
Bentajau: bentajatu, abantaila atera, irabazi.
Hiruterik bi eroten: hirutatik, hirutik bi eramaten.
14. **Gasteu eiten deu:** gastatzen du. Testuak *gasteu eiten deude jentean sanidadea* dakar, baina jendeak sanidadea edo umore ona badaukala esan nahi du. Beraz, gutxienez **jenteak** izan behar du eta *ez jendean* (jendearen). *Jenteak* pluraltzat harturik *deude* ondo legoke, baina ez da esaera normala, eta gainera neurrian *deu* hobeto dago.
Nonbraizu: nonbra ezazu, izendatu, ager ezazu.
Enoa gehiao lotsatuten zu: ez noa gehiago lotsatzera zu.
Imin dou: imini, ipini dogu.
Eroten dodaz: eramaten ditut.
Etsetik: etxetik.
15. **Txakur handie:** pezeta baten hamarrena.
Izen eingo da: izango da.
Gerorao: gerorago, geroago.
Hobak imingo: hobeak ipiniko, jarriko.
Honek ezpadi nahikoa: honeik, hauek ez badira aski.

Ikusten denez, bertso hauek Loiu-Erandio aldeko ahozko hizkera huts-hutsean eginda daude. Teknika aldetik, neurria gehienez zuzen dabil, eta ohargarri da *egin* aditzaren presentzia betegarria, Bizkaiko zenbait eskualdetan nahiko normala dena, hemen neurriagatik ugariago erabiltzen bada ere. Bestalde, errimak Bizkaiko tradizio zaharrari jarraitzen dio, bi puntu batera eta bi puntu bestera batzen direla.

ANASTASIO ETA KARLOS

Bertsolari bi hauen berririk ez daukat lehen bertsoan ageri diren izenez besterik. Galdakaokoak edo ingurukoak izango ziren, bertsoek hango gertaera kontatzen bait dute.

BEHI ANTZUENAK

(Noeren ontzia. A. Zavala. *Auspoa* 136. 97-99 or.)

- 01 Bertso barri batzuek egiteko jarri Anastasio ta Karlos dabiz barragarri. Errematian hartuiko behi baltz txiki hori antzue dalakuan urten dau ernari.
- 02 Galdakaoko herrian errematau ei zan behi hori hartu ebana Andres Larrea zan. Handik hamasei egun tardau txahala eitsan jentia bai horregaz desengainatu zan.
- 03 Gabeko bederatzietan larritu zan behia han zegoan Andres ta bere koinetua. Orroa ta orroa behi hori entzunda larritu zan Antoni galduko zan behia.
- 04 Andresek esan eutsan bere emazteari: "Ointxe ein bihar dau ta argia eutsi zeuri". Indar mortalak eiten hasi zan behi hori handik laster bistara txahalen kadera bi.

05 Andres ta koinetua
behiari laguntzen
Antoni kurtzulutzet
argiari eusten.
Hamaika ta erdietan
txahala jaio ein zan
Andresen kontentua
handia izan zan.

06 Ama eta koineta
abisau zituen
txahal honen etorrera
ikusi ein deien.
Han eukien guztiek
txahal hori erdien
poz handi bat harturik
barre egiteurien.

07 Zorioneko txahala
jakuna etorri
bertsuak jarritzeko
behi baltxu honeri.
Zezeilen hamazazpian
izan da egun hori
poz handia emoteko
Andres Larreari.

08 Txit poz hori izan da
ezin handiagua ba
ondinoko esana
egi argia da.
Herri guztia egon da
kontra guregana
behi hori ernari ez dala
ehunerleko bana.

09 Aur honetan pasau dan
histori handi hori
alabantzak emonaz
behi baltxu honeri.
.....
.....
txahal horren etorreran
santifikau bedi.

10 Aita San Antoniok
bakia ein dau ba
txahal zekor ederra einda
jentia ixildu da.
Hamabi bertsorekin
akabatutzen da
txahal honen etorrera
honela izan da.



Behi antzuenak: behi antzuarenak.

01. **Dabiz:** dabilta.
Barragarri: irrigarri, asmatu ezinik.
Hartuiko: hartutako.
Urten dau: irten, atera da, gertatu da.
02. **Ei:** omen.
Ebana: zuena.
Tardau: geroago, tardaturik.

Eitsan: egin zion. Testuak *eitan* dakar,
baina *eitsan* behar du.
Horregaz: horrekin.

03. **Galduko zan:** galduko ote zen.
04. **Eutsan:** zion.
Ointxe ein bihar dau: oraintxe egin be-
har du. Testuak *du eta* dakar, baina *dau*
ta edo *dau eta* dagokio.

Eutsi: tori, har ezazu. Forma honek dati-
boa eskatzen du.

Mortalak: itzelak, izugarriak, ikaraga-
rriak.

Txahalen kadera bi: txahalaren hanka
bi. Testuak *handik laster txahalaren bis-
tan kadera bi* dakar, baina argi dago esal-
dia gaizki ordenatua dagoela.

05. **Kurtzulutzet:** kurtzulutzat.

Kurtzulu: kriseilu.

Jaio ein zan: jaio (egin) zen.

06. **Koineta:** koinata, ezkonkidearen arreba
edo ahizpa.

Ikusi ein deien: ikusi (egin) dezaten.

Eukien: zeukaten.

Erdien: erdian.

Barre egiteurien: barre egiten eurien,
irri egiten zuten.

07. **Jakuna:** zaiguna.

Honeri: honi.

Zezeilen: zezeilaren, otsailaren.

08. **Ondinoko:** oraindio, oraindik. Hemen
zentzuak *orain arte* eskatzen du. Ber-
tsoaren lehen erdi guztia nahiko aldrebes
dagoela dirudi.

Ehunerleko: ehun errealako, hogeita
bost pezetako.

09. **Aur honetan:** ez diot antzik hartzen *aur*
hori zer izan daitekeen.

10. **Ederra:** testuak *eder* dakar, baina *ederra*
behar du.

Azken bertsoan dionetik, hamabi bertsoko sorta baldin bazen, he-
men bi falta dira. Norbaiten memorian zerbait galdu zen. Eta daudenek
nahiko halamoduz jasoak dirudite. Orijinalean ere ez ziren beharbada
beste mundukoak izango, baina bertsio honi akats askotxo somatzen zaio.

JOSE JOAKIN ETA JOSE MARI

A. Zavalak, beherago aipatu liburuan, dio: “Bertso-paper au, Tolosa’ko Isidora Mokoroa’ren eskutik jaso, Eibar.-Imprenta de Pedro Orúe moldiztegian argitaratu zan. Izenburuak bertso-jartzalleen izenak ematen dizkigu; abizenik ez ordea. Erririk ez da esaten; urterik ere ez. Gauza bakarra atera diteke: bertso auek Gipuzkoa’ko euskera dute, baiñan bizkaieratzen hasia. Deba ibaiaren aldeko gertaera izango da”.

KATU BI TXOPO PUNTAN

(Bertso berriak Jose Joakin eta Jose Marik jarriak)

(Noeren ontzia. A. Zavala. *Auspoa* 136. 73-77 or.)

01 Bertso berriak jartzera guaz
harturik geure idiak
denbora errez bialdutzeko
zer dira gauza hobiak?
Ondratutzia pentsatu degu
gauden festibidadiak
alegrentzian pasa ditzagun
aurtengo Trinidadiak.

02 Kamineruko etxe atzian
erriu harren onduan
lehengo jai baten komedia bat
hantxe ikusi genduan.
Nunahi bezela ur-hegala zan
txopo luze bat zeguan
horrelakorik ez zan pasauko
oingo gizonen goguan.

03 Alimani bi juntatu ziran
alkarren gorrotokuak
beren denporan ondo haziek
ederki gobernatuak.
San Antoniok bere mendian
zeduzkan anparatuak
piztia hoiek hara zer ziran
Kamineruko katuak.

04 Txopua bazan gutxien gutxienaz
berrogei metro luzian
bi katu hoiek punta puntako
adar bitan jarri zian.
Kara in kara begiratuaz
alkarren bildur etzian
haiek ez ziran handik jatziko
goserik izan ezian.

- 05 Jai hartan bertan soldadu zaharrak jarri ziran guardian fuego lentuan jardunak dira hiru egun da erdian. Zenbat denbora igaro zeben behin jarri ziran tokian ostegunian igo ta jatxi domeka eguerdian.
- 06 Eguna ere suzeditu zan aproposa hartarako begiratzia baino seinale hoberik ez det parauko. Asentzio zan seinalamente danok goguan hartzeko kuidado ona zeukan jendiak kreduak errezatzeko.
- 07 Nik dan bezala esplikatzen det zeatik ez diran inporta pasa bezela ipinitzeko engargatua nago-ta. Muniziuia gastatu arte hor jardun dira tiroka beren aldarez jatxi artian ez dute katurik bota.
- 08 Muniziuia bolada baten eduki dute abasto baina gizonen apunteria ez da baliatu asko. Punta puntako erromillota kendu diote hain justo txopo gaixue domatu dabe hostruak zimeldu zaizko.
- 09 Eguna jua da eguna etorri katuak nunbait gosiak galdu-gordian saltatu dira itxura badu gauziak. Txopo puntatik erreka ondora eginik salto luziak ura eranda beste aldera ez dira manso pasiak.
- 10 Dudarik gabe gizon hoietan baziran nobedadiak ez ziran bada armamentuan eskarmenturik gabiak. Soldau izenak baldin badira halako tiradoriak bertan utzita etorri ziran hango abilidadiak.
- 11 Bi katu hoiek zeukaten alkar ezin ikusia begiz unio hoberik ez baldin bada ez dabe igoko berriz. Biak alkarri desapiua eginak dira bost aldiz hoiekin zeinek aguentatu otsaila izan balitz?
- 12 Obedentzirik ez dan medioz horra zenbaten galera haien orduko saltatutzia izan da malamanera. Alkarrengana zeukaten haiek izugarritzko kolera hor jua dira bata etxera ta bestia berriz kalera.

- 13 Honetaraino etorri gera berriz nahi bada segitu ustez egiaz ibili gera gusto duenak aditu. Herri hauetan horrelakorik apenas da suzeditu hainbeste tiro tirata ere katurikan ez eritu.
- 14 Gezurra zertan esango degu minik gabe alperrikan? Jaungoikuari graziak eman ez da izan okerrikan. Gu engainatu baldin bagera ez gerade bakarrikan baina gure ustez ez degu esan hitz bat ere gizurrikan.
- 15 Bertso berriak ipinirikan eman nahi det despedida ejenpluari egin nahi diot tokatzen zakon segida. Akaso batzuk esango dute: "Hoiek horrela ez dira" baina testiguz probatuko det gizurak baldin badira.
- 16 Hamaseigarren bertsuarekin nahi nuke adierazi luju haundirik ez dadukagu ez txapelikan erantzi. Preziuetan enteratu naiz horretarako lehenbizi papel bakotxa hamar zentimo gusto duenak erosi.
- ❧
01. **Idiak:** ideak, burutapenak.
Festibidadiak: jaiegunak, bestak.
02. **Kamineruko:** testuak *Kaminerako* dakar, baina *Kamineruko* behar du, hirugarren bertsoaren azkenean bezala. Segurrenik *Kamineru(ene)ko* izango da, etxe baten izena alegia.
Erriu: erri, itsas ura bertaraino heltzen den ibaia.
Harren: haren.
Ur-hegala: ur ertza, ur bazterra. Testuak *ure-gala* dakar, baina *ur-egala* behar duela dirudi.
Txopo: makal, zuhaitz mota bat.
Oingo: oraingo.
03. **Alimani:** animal. Bizkaieraren eremuan gaur ere horrela esaten da zenbait lekutan.
Beren mendian: beraren mendean, azpian.
04. **Kara in kara:** aurrez aurre, bekoz beko, aurpegiz aurpegi. A. Zavalak *kararik kara* formara zuzendu duela dio, baina bere hartan uzten dut. Bizkaieraren eremuan behintzat honela entzungo da: *karaenkara*, *karenkara*, *karainkara*, *kareinkara*, *karinkara*...
05. **Fuego lentuan:** su geldian, mantxoan, hots, tiroak mehatz jaurtiz.
Igaro zeben: iragan zuten.
Domeka: igande.
06. **Suzeditu:** gertatu, agitu.
Parauko: paratuko, jarriko, ipiniko.
Asentzio: Asentzio edo Igokunde eguna.
Seinalamente: hain zuzen.
Kuidado: kontu, axola.
Kreduak: Asentzio eguna bereziki kreduak errezatzeko eguna bait zen.
07. **Zeatik ez diran:** zergatik ez didan, zeren ez bait dit.

- Beren aldarez:** beraren ahuldadez, ka-
tuaren ahultasunez, hots, gosez edo aspe-
rrez, tiroz ez bait zuten botatzen.
08. **Dabe:** dute.
Abasto: ugari. *Abasto* ere aurkitu dut Biz-
kaiko testu zaharragoetan.
Erromillota: zuhaitz baten kukula
puntako lore eta adaska sorta.
Gaixue: gizajoa, errukarria.
Domatu dabe: hezi, menperatu dute.
Hostruak: hostoak, orriak.
09. **Gauziak:** gauzak.
Eranda: edanda.
Manso: mantxo, astiro, geldiro.
10. **Izenak:** izanak.
11. **Unio:** batasun, elkartasun.
Aguentatu: eutsi, jasan.
12. **Malamanera:** era txarrean, modu gaiz-
toan.
Kolera: sumina, haserre.
14. **Hitz bat ere gizurrikan:** testuak *bat ere*
gizurrikan dakar. *Hitz* jarri dut, egilearen
asmoan oso litekeena bait da. Sorta guz-
tian neurria hain zuzen eramanik, raroa
da bertsoaren azken lerro bat gaizki neur-
tzea.
15. **Zakon:** zaion.
16. **Preziuetan:** testuak *preziuetan* dakar.
Zentzuzkoa izan liteke, gauza preziso edo
beharrezkoen berri jakiten saiatu dela ale-
gia, baina besteak bidezkoago dirudi, ja-
rraian bertso-paperaren prezioa ematen
bait du.

Bertso sorta dotore honen egilea -edo egileak- kokatzeko, bizkaierazko formei begiratu behar zaie. Bertsogintzan gipuzkera oinarritzat hartzea Bizkai barruan ere, garai batetik honantz, normala bada, areago bizkaiera nagusi den Deba Garaitik Eibar alderaino, hemendik Debarantz erdibidean dabiltzalarik. Esparru zabal horretan bertso hauek nahiko lorratz ugari ematen dute, nongo hizkera zeukaten zehazteko, nahizta bertsoarako gipuzkera hartu: *guaz*, *ur-hegala*, *oingo*, *alimani*, *alimani bi* (*bi* atzetik dela), *beren* (beraren), *karainkara*, *jatxi*, *zeben*, *domeka*, *zeatik*, *abasto*, *erromillota*, *gaixue*, *hostruak*, *gauziak*, *eranda*, *izenak* (izanak), *aguentatu*, *bata* (mugatzaille eta guzti), *zertan* (zertako edo zergatik zentzuz), *gizurra*, *zakon* (zaion), *bakotxa*... Inguru horretako hizkeren berri ondo dakienak seinale hauekin nahiko errez asma dezake Jose Joakin eta Jose Mari hauen herria, edo inguru hurbila behintzat.

DOMINGO BELAUSTEGIGOITIA, «NAPARRA»

Domingo Belaustegigoitia Larrea, *Naparra* ezizenez ezagutua, 1843. urteko urtarrilaren lauan jaio zen Zornotzan eta Ibarrurin hil, 1917. urteko otsailaren batean, hirurogeita hamalau urte zituela. Ehun kilotik gorako gizon sendoa zen, bere brusa luze eta guzti. Eufemia Ajuriaetxebarriarekin ezkondu, lau seme-alaba izan zituen, hiru neska eta mutil bat, hau gazteena eta gazterik hil zitzaiona. Gorozikan, Muxikan eta azkenik Ibarrurin bizi izan zen, geroztik bere izena dakarren *Naparrrene* baserrian.

Gure Domingo, gazte zela, Nafarroara joan zen meatze eta trenbide laneratar. Hortik gelditu zitzaion *Naparra* goitizena. Nafarroatik itzuli-ta, ezkondu eta itzantzan eta baserri lanean jardun zen adinean sartu arte. Berrogeita hamazortzi urte zeuzkala, lor baten truke, ardi batzuk etxez etxe batu eta artzain egin zen, ondorengo bertso batzutan ikusiko denez.

Naparraren afizio nagusia ehiza zen, erbiak eta batez ere azeriak harrapatzea. Hori zela-ta, etxeko lanak ez ziren beti puntuan ibiliko. Behin, oraindik Gorozikan bizi zela, goiza ehizan emanda etxeratzean, andrea hasi omen zitzaion: "Urliak artoa jorratu du, berendia eguna argitu orduko soroan zen, sandiak begira zer ondo jarri duen ortua...". Eta Naparrak, nahikoturik, surtako lapikoa hartu eta leihotik jaurtiz diotso: "Honelakorik egin al du urliak?". Naparrak bertso paper ugari egin zuen, baina zoritxarrez asko ez daude jasoak, oraingoz behintzat.

Azeria harrapatzen zuenak etxerik etxe eramaten zuen eta baserri bakoitzean saria ematen zitzaion, azeriak kalte handia egiten bait zuen. Naparra horretan zen mutila eta behin, ale handiren bat harrapaturik, bertso sorta batean kontatu zuen nolako azeri-eskea egin zuen.

IA ZAZPI MILA URTE

- 01 Ia zazpi mila urte
mundu hau sorturik
inoiz ez da ikusi
halako azeririk.
Harek egin balituz
urte bi bizirik
Bizkaian etzan gehiau
izango oilorik.
- 02 Azeria izan zan
gutziz itzaltsua
hiru kana luze ta
bera uletsua.
Gorputza ajila ta
kaderaz altua
ikaragarria zan
harexen saltua.
- 03 Hegaz doian oiloa
sarri harrapatu
uste izanagaitik
dijoala altu.
Hemeretzi oinean
gora eiten dau saltu
bigarren golperako
haginetan sartu.
- 04 Kalte handiak ein ditu
Ibarruriko herrian
berrogeta hamar oilo
eukazan habian.
Beste berrogei ardi
itota mendian
azeri hau pasau da
kati az neurrian.
- 05 Bildotsak egunez ta
ardiak gabetan
oilotan etorten zan
eguerdian.
Okara joaten zan
egun batzuetan
Jose Soldauk jo eban
hatxurraz hanketan.
- 06 Hanka bi apurtu ta
bi sano gelditu
larri asko pasau ta
ubidera saltu.
Okako gizon askok
eben inguratu
txinbotik urten dau ta
beregian sartu.
- 07 Barrentzen errotari
dao gizon abila
ondo bizi da eta
ez da marabila.
Errotapean zehar
jaurtitson makila
baina azkar joan zan
oiloaren bila.
- 08 Hain hundia izanik
txinboa apurtu
errotaria izan zan
gutziz hasarratu.
Soldauk beharko ebal
kaltea pagatu
haregaitik hau zala
andaparan sartu.

- 09 Soldau hasarratu zan
errozoiarekin
ia zer eingo eban
azeriarekin.
Txinboa apurtu botso
mustur luziak
hil baino ez eukala
makila harekin.
- 10 Gero Salbadorreri
eutsen abisatu
ia azeri hori
zeiken harrapatu.
Txakurrak bialdu ta
ahal bazuen bilatu
tiro bat emoteko
ikusiten badu.
- 11 Txakurrak emon eta
karabitik gora
burbuzdian sartu zan
harripe batera
lehenago eramandako
oiloa jatera
ahalegin egin arren
ez zuen atera.
- 12 Salbadorrek emon dau
bere sententzia
ikusiten dauanak
kentzeko bizia.
Naparrak nola zeukan
lehendik ikasia
tiroaz kendu eutsan
bururik erdia.
- 13 Azeri hau hartuta
joan nintzan eskean
zerbait meioratzeko
talentu guztian.
Ibarruri ta Gerrikaitz
ta Munitibarrean
etxerik gehienetan
ezautzen ginean.
- 14 Hiru herri hoietan
ongi nuen batu
Jaungoikoak daizala
danak bedeinkatu.
Baita pizti txarretatik
baita be libratu
holako azeririk
ez bedi agertu.
- 15 Muxikera joatea
han pentsatu nuen
jente aberatsa egoala
entzun ohi nenduen.
Uspaitxa ta Errekatxu
eta Uriguen
danak portatu jatazan
auzoen moduen.
- 16 Handik Besangizera
buelatu nintzen
etxe zuri eder asko
danak dagoz bisten.
Han ez dao kostunbrerik
saririk emoten
han ez dau azeriak
kalterik giten.

17 Astelehen egun bat zan
hau ez lekit ahaztu
Landederreko gana
nola nuen hartu.
Gorozike-Agarrera
gosez nintzan sartu
hantxe bai ein ninduen
laster kontsolatu.

18 Gorozike Beitiko
Julianen arrebak
borondate handiko
limosnera ederrak
ondo hartu ninduen
Jaunari eskerrak
gilborra ondo bete
eban han Naparrak.

10 Arto bigun ederra
sartenekoakin
arrautza eta pernil
txakolinarekin.
Premina be baneban
orduan neurekin
zenbat arto jan neban
Jangoikoak jakin!



01. **Etzan:** ez zen.
Gehiau: gehiago.
02. **Uletsua:** iletsua.
Ajila: arina, bizkorra.
03. **Hegaz:** hegan.
Sarri: sarritan, maiz, askotan.
04. **Eukazan:** zeuzkan.
Azeri hau pasau da katiar neurrian: segurrenik *kaltiaz* izango da, hots, azeri hau neurrian edo neurritik pasatu da kaltean, kalte egiten.
05. **Oilotan:** oilo bila, oiolotara.
Oka: Muxikako auzo bat, Ariatzatik Zugaztietara bitartean.
Jose Soldau: Jose Soldadu, bigarrena goititzen gisa.
Eban: zuen.
Hatxurraz: haitzurrez, haitzurraekin.

06. **Larri:** larritasun, estuasun.
Ubide: ur-bide.
Eben: zuten.
Txinbo: antaparatik turbinara ubidea itxi irekitzen duen atetxoa.
Urten dau: jalgi, irten da.
Berezi: txaraka, basobera, berezko zuhaitz eta sastrakaz jantzitako baso zarratua.
07. **Barrentze:** etxe baten izena, Barrenetxe.
Dao: dago.
Marabila: miraria, miragarria.
Jaurtitson: jaurti, bota eutson, zion.
08. **Ebala:** zuela.
Andapara: antapara, errota elikatzen duen urtegia.
09. **Errozoi:** arrazoi.
Eban: zuen.
Botso: badeutso, badio.

- Mustur:** mutur.
Hil baino ez eukala: hil baizik, hil besterik ez zeukala.
10. **Eutsen:** zioten.
Zeiken: zitekeen.
Ikusiten: ikusten.
11. **Karabi:** karobi, kare, kisu edo latsuna egiteko labe berezia.
Burbuzdi: burbuz edo burbuxezko zuhaitzia.
Burbux: gurbitz, zuhaitz mota bat.
12. **Dauanak:** duenak.
Eutsan: zion.
Bururik erdia: buru erdia.
13. **Mejoratzeko:** ontzeko, hoberatzeko.
Talentu: asmo, buruera, pentsakizun.
Ezautzen ginean: ezagutzen ginen.
14. **Daizala:** ditzala.
15. **Egoala:** zegoela.
Nenduen: nuen.
Jatazan: zitzaizkidan.
16. **Dagoz:** daude.
Bisten: bistan, agerian.
Dao: dago.
Kostunbrerik: ohiturarik, usadiorik.
17. **Lekit:** leikit, lekidade.
Gana: gaina, tontorra.
Ninduen: ninduten.
18. **Gorozike:** Gorozika, Zornotzatik Muxikara bitarteko herria, duela urte batzutatik Muxikaren auzo.
Limosnera: emakume limosnagina, erremusina egilea.
19. **Sarteneko:** zartaineko, zartagiko jakia.
Pernil: xingar, urdaiazpi.
Premina be baneban: premia, beharra ere banuen.

Bertso hauen iturri nagusia Don Txomin abadeak Gorozikan Atxiertako Legarrari hartutako bertsoa da, hamazortzi bertsoa. Jon Enbeita bertsolariak ere eskuratu zidan paper bat, zeinean eskuz idatzitako ohar batek *1900. urteko bertsoak* dion. Bertso honek hamar bertso dauzka. Biekin hemeretziko sorta osatu dut.

Azeriaren istorio honek badauka bere xarma, ia zazpi mila urtetik hasi eta azken arto-aseraino. Aipatzen diren herri eta auzoak ezagutzen dituen laster ohartuko da ez zela nolanhiko azeri-eskea izan. Naparraren gosea arrazoi osokoa zen.

IGEZ TXAPEL ONA TA

01 Igez txapel ona ta
aurten Zarandonak
eskatuten deuskuez
lehenago emonak.
Ez pageu baleutsiez
korriduek danak
honek ez direz izan
holango gizonak.

02 Don Pedro Zarandona
gizon finegie
Gorozike Beitian
jaio ta hazie.
Eurten eskatzen deusku
zentso bat handie
oin dala hogeit urte
aitek iminie.

03 Don Joan Mendaturi
Iburrin kurie
kostako da bilatzen
beste bat hobie.
Ikusi dabenien
negarrez herrie
Karrantzaraino joan da
egin deu bakie.

04 Inazio Oarteta
gure alkatie
borondate saminez
lar onegie.
Ikusirik negarrez
beronen herrie
samintasunez dauko
beronen nahie.

05 Formalena kondie
goiko Inazio
herrieri konduta
emon gure dio.
Igez da eurten lako urte
asko etorten bazaio
konduta hutsegaz zer dekon
igerriko dio.

06 Egi ziurrek hemen
herrieri esan arren
ez dakit.....
zer ein leiskidien.
Lepoan dekotan narrue
kentzen ezpostie
.....
.....



01. **Deuskuez:** dizkigute.
Pageu: pagatu, ordaindu.
Baleutsiez: balizkiote.
Korriduek: korrituak.
Honek: honeik, hauek.
Direz: dira.
Holango: honelako.

02. **Eurten:** aurten.
Zentso bat: zergaren bat kobratzeko
zentsua edo zerrenda dirudi.
Oin: orain.
Iminie: ipinia, jarria.
03. **Kurie:** parrokoa, erretorea.

Dabenien: duenean.
Egin deu bakie: egin du bakea.

04. **Lar:** larregi, gehiegi.
05. **Kondie:** kondea.

Dekon: daukan.

06. **Leiskidien:** liezadaketan.
Dekoten: daukadan.
Ezpostie: ez badeustie, ez badidate.

Bertso hauek Jon Enbeita bertsolariak Naparraren iloba bati jasoak dira. Bistan denez, oso bertasio ezosoa eta aldrebestua da. Memoria huts egiten hasten denean, hutsuneak ez ezik, deformazioak sortzen dira.

BERROGETA HAMAZORTZI

01 Berrogeta hamazazpi
urte kunplidurik
pastore izateko
nago desiurik.
Ardiak erosteko
eneukan dirurik
ezin neinteken izan
lor bat egin barik.

02 Eskerrak emoten noa
lagundu deustenari
Fernando Solaegi
artzain bizkorrari.
Honek eskatu deustie
beronen lagunari
bildots bana emoteko
borondatez neuri.

03 Isidro ta Esteban
beste bat Zabala
osasan bakiegaz
bizi daitezala.
Otxortia, Undejeuri
Anton Burdegie
honen bildotsak ardi
egin dire ie.

04 Inazio Astegiko
pastore entzune
bildots baltza ta ederra
guri emon euskune.
Oxinbaltza Meumegaz
ez noa konparetan
borondate ona dabe
euren bihotzetan.

05 Honango emakumia
ez da errez topaten
gosez dagoanari
tripia beteten.
Urdei eta arrautze
gaztaie ganiien
guk halan jan genduen
han gengoanien.

06 Ederto bazkaldurik
esan dan moduen
Meumerako asmue
han hartu genduen.
Ondo desio deutset
nik Meumetarrari
ogia jateko ta
ardaua edari
eroan naben beste
ez naben ekarri.



01. **Desiurik:** desiaturik.
Eneukan: ez neukan.
Lor: baserrietan, norbaitek beste bati zer-
bait -simaurre, egurra, otea...- eramatea,
ordainez afaria edo beste sariren bat har-
tzen duelarik.
02. **Deustenari:** didatenei.
Deutsie: die.
Lagunari: lagunei.
03. **Bakiegaz:** bakearekin.
Honen: honein, hauen.
Ie: ia, kasik.
04. **Pastore entzune:** artzain ospetsua.
Euskune: ziguna.
Meumegaz: Meumerekin.

07 Berba laban ederrak
norberan eurrien
baina bildotsa emotie
euzoen eskuen.
Papela eginik eukien
alkarren artien
eskien datorrenari
bildotsik ez emotiarren.

- Meume:** Mauma, Muxikako auzo bat,
Oiz azpian.
Konparetan: konparatzen.
Dabe: dute.
05. **Honango:** honelako.
Topaten: topatzen, aurkitzen.
Beteten: betetzen.
Ganiien: gainean.
Gengoanien: geundenean.
06. **Deutset:** diet.
Naben: neban, nuen.
Beste: aina, bezanbat.
07. **Berba laban:** hitz labain, irristakor, en-
gainakor.
Eurrien: aurrean, aitzinean.
Eukien: zeukaten.

Bertso hauek ere Jon Enbeita bertsolariak Naparraren iloba bati jasoak dira, Don Txomin abadearen iturriko lehen bertsoa izan ezik. Sor-
ta honek ere, aurrekoa baino osoagoa izan arren, bistan da hutsune eta
oker handiak dauzkala. Seigarren bertsoan, esaterako, bi ahapaldi elkar-
gaindu direla argi dago, bost puntu edukiz gainera, errimak ez bait datoz
bat. Berdin hirugarren eta laugarrenean. Bosgarren-zazpigarrenek ere
badaezpadaoak dirudite. Itxura oso eta normal samarra daukaten baka-
rrak lehen-bigarrenak dira.

KANTATU GURA DITUT

(Bertso berriak, aurten jarriak proba baten gainian txit barregarriak. **Baskishen Sprache**,
1967, 76. or. Antropological publications Oosterhout - Niederlande. Aldizkari honek ez dakar
norenak diren, baina Naparraren senide eta herritar zenbaitek haren bertsozat gogoratzen
ditu zati batzuk).

01 Kantatu gura ditut
zenbat bertso berri
aditzen emateko
probalariari.
Dirua jokatu da
publikuan garbi
baita depositatu
presidentiari.

02 Muniketako landan
proba hau da jokatu
hogeta hamarna dukat
eben presentatu.
Don Juan de Zugadi
euren tesoreru
irabazten dabenak
hartzeko seguru.

03 Zenbat proba ta joko
diradez jokatu
inok honelangorik
ez du ezagutu.
Irebazten dan gauza
edozeinek hartu
galdu dabenak gero
atzera eskatu.

04 Personak klaru bihar
leuke jokatu
ez zenbatek bezela
atxakia hartu.
Jentiak euki eban
hainbat erreparu
hargaitik esan eben
hak irabazi du.

05 Jose de Undagoitia
Ibarrurikua
postura egin arren
damutu bagakua.
Jenero guztietan
kreditu onekua
proba bat egin eban
irabaztekua.

06 Beaskoetxea hasi zan
aurrena egiten
Undagoitia gero
harena estaltzen.
Gizon asko ziraden
proba hori ikusten
publiko dan gauza bat
nor dua ukatzen?

07 Plaziak eman eban
onradamentian
postura gelditzeko
Undagoitiagan.
Beaskoetxeak gero
damu hartu eban
Zugadi jaunen kontra
disputia eman.

08 Sententzia galdurik
gero pentsatu dau
Undagoitiagana
demanda jirau dau.
Gernikan justiziak
orduan asmau dau
jokua nulo dala:
Hau nok ikusi dau?

09 Legeren batzuk diraz
berriak etorri
mejorak emoteko
galdu dabenari.
Nungo juezak leike
ametidu hori?
Bestela preguntatu
abogaduari.

10 Herriko justiziak
lizentzia emonik
posturia hausteko
ez dago inon juezik.
Gobernadore jaunak
leike hau bakarrik
da ez Gernikako juezak
legia hausi barik.

11 Juzgatutako gauza
berriz autortuten
beste honelako bat
zeinek du ikusten?
Diru irabazia
atzera emoten
nor abiatuko da
gauzori egiten?

12 Galdu ebenak nora
egozan begira
akabatu zanian
probiaren jira?
Pasatu eta gero
eman arpegira
aditzen emango det
Bizkairik erdira.

13 Gizona izan bazina
buru onekua
ez zendun eskatuko
postura galdua.
Askok hartu bihar dau
zeure ejenplua
baina hori izan da
traizioz hartua.

14 Gura neuke, gizonak
jokuan jokatu
galduaren dirua
atzera jiratu.
Beaskoetxea horrela
nun ikasi dozu?
Honorriak galtzeko
bera asko dezu.

15 Don Juan de Zugadi
alkatetzat hartu
bere obedentzian
genduan jokatu.
Parte biok orduan
ginien kontentu
baita geure diruak
berari largatu.

16 Jose de Beaskoetxea
Ibarrurikua
Jose de Undagoitien
kontra jokatu.
Jente askoren bistan
probia galdua
atzera eskatzen dau
deretxo bagia.

17 Irabazi badozu
guztia oso kendu
norberen gauza inok
ez du gura galdu.
Bestela juezari
zazu preguntatu
papelak hartu eta
Burgosera sartu.

18 Probetan hainbat diru
diradez jokatu
alterazio bage
galdua pagatu.
Inok zer esanikan
ezin leike hartu
egin ezketioko
proba akabatu.

19 Sarri egiten diraz
herrietan probak
parte biak jarririk
defensore onak.
Gainera alkate ta
presente daoan
mejorak jasoteko
gehiago diranak.

20 Batetik hiru eta
bestetikan zazpi
testigantza ematen
ziradela hasi.
Tranpiakin ezin lei
asko irabazi
galdu nahi ez dabena
ez beiteke hasi.

21 Jose de Beaskoetxea
presente euki
galduarren dirua
ez izan erruki.
Publiko zan postura
bertan erabagi
diruak emoteko
Undagoitiari.

22 Jentia jokatzeko du
hainbeste partidu
batzuek irabazi
ta bestiak galdu.
Oin artian honela
diraz gobernatu
ez galdutakorikan
inori eskatu.

23 Jose de Beaskoetxea
zu zera probari
ziur irabazitzat
ete zinan hasi?
Horrenbeste meritu
ez dozu merezi
indar gehiago daukanaz
ez zaiteke hasi.

24 Zenbat diru al dezu
atzera eskatzen?
Irabazi ezker
saiatu kobratzen.
Ikusi ete dozu
zorren bat parkatzen?
Egin dan probarekin
ez zara portatzen.

25 Jose de Beaskoetxea
hau da despedida
ze tranpa egin dozun
orain agiri da.
Legietan tranposuak
gehiago badira
hurrengo proba baten
agertuko dira.



01. **Probalari:** probari, probak egiten ditue-
na.
Proba: dema, idi, zaldi edo astoekin egi-
ten den jokua. Badira gizon-probak ere.

02. **Landa:** zelai, lautada.
Dukat: antxinako diru mota bat.
Eben: zuten.
Tesoreru: diruzain.
Dabenak: dutenak.

03. **Honelangorik:** honelakorik.

04. **Klaru:** argi.
Atxakia: aitzakia.
Eban, eben: zuen, zuten.
Hak: hark.

05. **Postura:** apustua.
Bagakua: bakoa, gabea.

06. **Dua ukatzen:** doa ukatzera.

07. **Onradamentian:** zintzoki, onestki.

08. **Jirau:** bidali, sartu.

09. **Mejorak:** hobekuntzak.
Juezak: jujeak, epaileak.
Ametidu: ametitu, onartu.
Preguntatu: galdetu.

10. **Leike:** lezake.
Barik: gabe.

11. **Autortuten:** aitortzen, deklaratzeko.
Gauzori: gauza hori.

12. **Ebenak:** zutenak.
Egozan: zeuden.

14. **Honoriak:** ohoreak, ondak, izen ona.

15. **Ginien:** ginen.

Largatu: eman, norbaiten esku utzi.

16. **Deretxo bagia:** eskubide gabea.

18. **Bage:** gabe.
Egin ezketioko: eginez gero.

19. **Daozanak:** dagozenak, daudenak.

20. **Ezin lei:** ezin liteke.
Beiteke: beite, bedi.

21. **Erabagi:** erabaki.

22. **Oin artian:** orain arte.

23. **Gehiago daukanaz:** gehiago daukanare-
kin.
Ez zaiteke: ez zaitez.

XX. MENDEA

TXOMIN AGIRRE

Kresala eta *Garoa* elaberrien egile ondarrutar ospetsuak (1864-1920) bertsoak ere ondu zituen, batzuk bizkaieraz, beste batzuk gipuzkeraz, prosan egin ohi zuenez. **Euskalzale** aldizkarian argitaratu ziren sorta batzuk dakartzat hona.

AMA BAT

(**Euskalzale**. 1897. urtarrilaren 17, 22. or.)

- | | |
|---|---|
| 01 Seihaska marroiz baten aurrean
makur ama bat lehengoan
begira egoan ume berea
esna edo lo ete egoan.
Ezagaturik esnatu zala
harturik bere altzoan
maitasuneko berba ederrakaz
amak honela zinoan: | 03 Semetxo laztan sortu zareana
errai neureen erdian
semetxo eder bardin bagea
itxasoan da lurrean.
Ez zara jaio jauregi baten
aberastasun artean
baina zu zagoz, maitea, asko
aberastasun etxean. |
| 02 Semetxo neure bihotzekoa
semetxo neure kutuna
zuk argiturik ipini dozu
nire arimako iluna.
Jaungoiko handiak emon daizula
indarra eta osasuna
hilgo bazina galduko leuke
zure amak bere zentzuna. | 04 Jauregietan jaio direanak
errege direanak sortu
ezingo dira, neure bihotza,
behin bere zugaz neurtu.
Aginpidean izango dira
gehiago, ezin ukatu
baina ederrez, neure kutuna,
ederragorik ez dozu. |

05 Zure bekoki zabal garbian
da begi urdin gozoetan
ezagutzen dan argitasuna
ikusten ez dot besteetan.
Ta urre irudiko ule kizkurra?
Ez bada urrea benetan
urre-zidarrak baino gehiago
balio dau nire usteetan.

06 Kutun laztana bihotzekoa
neure semea zu zara
zure ondoan ahaztuten jataz
saminak eta negarra.
Zu nire poza, nire atsegina
betiko izango ez zara?
Nahiko deustazu, maiteko nazu
maite zaudazan gisara?



01. **Marroiz:** pobre, zarpail.
Lehen-goan: lehengo egun batez.
Egoan: zegoen.
Esna: itzarrik, erne.
Esnatu: itzartu, atzarri, ernatu.
Altzoan: magalean.
Berba: hitz, ele.
Ederrakaz: ederrekin.
Zinoan: zion, erraiten zuen.
02. **Daizula:** diezazula.
03. **Bagea:** gabea.
Zagoz: zaude.

07 Ze aho polit zoragarria
ze samurra ikusten jatzu!
Zure ezpan bigun orban bagean
irribarrea daukazu.
Menturaz baietz, aingerutxo,
baietz agintzen deustazu?
Etxe honetako lora ederrena:
Indar! Mun bat egidazu.

04. **Behin bere:** behin ere, inoiz, sekula.
05. **Bekoki:** kopet, beko.
Ule: ile.
06. **Jataz:** zaizkit.
Nahiko deustazu: nahiko didazu, maiteko nauzu.
Zaudazan: zaitudan.
07. **Ezpan:** ezpain.
Orban: lohidura, zikin.
Menturaz: beharbada, agian.

AGURE-KANTA

(Bigarren aldeera Mondragoin igaz irabazitako moldaera)

(Euskalzale. 1897. bagilaren 10. 186. or.)

01 Negu beltzaren beltzenetako
jai arratsalde batean
nere gelaren leiho zulotik
begira negon pakean.
Anima bizi bat bakar-ra-re
etzan agiri kalean
etxeko denak festan ziran ta
bakarrik nintzan etxean.

02 Esango nuan lotan zeudela
murmurak isil osuan
senti ez banu era batera
norbait kantari auzuan.
Boz bigun, makal, samurgarrian
esakera samintsuan
gizon zahar baten kantua zan ta
hara hemen zer esan zuan.

03 Jarrita nauka bakartadean
indar ezaren indarrak
negar soinu kantari nago
nere barruko negarrak.
Nere barruko negarrak!

04 Oroimen bizi ta ibilkariak
nere aurrean nahasturik
ah zenbat jolas ipintzen dizkan
gozo ziranak mindurik.
Gozo ziranak mindurik!

05 Gaztea nintzan, gizon sendua
gogor, indartsu, lerdena
azkarrak ziran lagunak bainan
ni danetan azkarrena.
Bai! Danetan azkarrena!

06 Gaur indar gabe besuak eta
begiak dauzkat lausuak
burua zuri, belarriak gor
eta txit sorrak pausuak.
Eta txit sorrak pausuak!

07 Festarik bazan inguruetan
lagunak nituan bila
juaten nintzan alai ta garbi
harturik nere makila.
Hemen daukadan makila!

08 Gaur ere leku bazter hontara
datorkit festa oihartzuna
Oh zertarako? Asearentzat
dena da garraztasuna.
Den dena garraztasuna!

09 Festa oihartzun urrutikoa
nola zu zatoz nigana?
Ai neretzako mingarri zera
gaztearentzat laztana!
Gaztearentzat laztana!

05 Zure bekoki zabal garbian
da begi urdin gozoetan
ezagutzen dan argitasuna
ikusten ez dot besteetan.
Ta urre irudiko ule kizkurra?
Ez bada urrea benetan
urre-zidarrak baino gehiago
balio dau nire usteetan.

06 Kutun laztana bihotzekoa
neure semea zu zara
zure ondoan ahaztuten jataz
saminak eta negarra.
Zu nire poza, nire atsegina
betiko izango ez zara?
Nahiko deustazu, maiteko nazu
maite zaudazan gisara?



01. **Marroiz:** pobre, zarpail.
Lehenngoan: lehengo egun batez.
Egoan: zegoen.
Esna: itzarrrik, erne.
Esnatu: itzartu, atzarri, ernatu.
Altzoan: magalean.
Berba: hitz, ele.
Ederrakaz: ederrekin.
Zinoan: zion, erraiten zuen.
02. **Daizula:** diezazula.
03. **Bagea:** gabea.
Zagoz: zaude.

07 Ze aho polit zoragarria
ze samurra ikusten jatzu!
Zure ezpan bigun orban bagean
irribarrea daukazu.
Menturaz baietz, aingerutxo,
baietz agintzen deustazu?
Etxe honetako lora ederrena:
Indar! Mun bat egidazu.

04. **Behin bere:** behin ere, inoiz, sekula.
05. **Bekoki:** kopet, beko.
Ule: ile.
06. **Jataz:** zaizkit.
Nahiko deustazu: nahiko didazu, maiteko nauzu.
Zaudazan: zaitudan.
07. **Ezpan:** ezpain.
Orban: lohidura, zikin.
Menturaz: beharbada, agian.

AGURE-KANTA

(Bigarren aldeera Mondragoin igaz irabazitako moldaera)

(Euskalzale. 1897. bagilaren 10. 186. or.)

01 Negu beltzaren beltzenetako
jai arratsalde batean
nere gelaren leiho zulotik
begira negon pakean.
Anima bizi bat bakararra-re
etzan agiri kalean
etxeko denak festan ziran ta
bakarrik nintzan etxean.

02 Esango nuan lotan zeudela
murmurak isil osuan
senti ez banu era batera
norbait kantari auzuan.
Boz bigun, makal, samurgarrian
esakera samintsuan
gizon zahar baten kantua zan ta
hara hemen zer esan zuan.

03 Jarrita nauka bakartadean
indar ezaren indarrak
negar soinu kantari nago
nere barruko negarrak.
Nere barruko negarrak!

04 Oroimen bizi ta ibilkariak
nere aurrean nahasturik
ah zenbat jolas ipintzen dizkan
gozo ziranak mindurik.
Gozo ziranak mindurik!

05 Gaztea nintzan, gizon sendua
gogor, indartsu, lerdena
azkarrak ziran lagunak bainan
ni danetan azkarrena.
Bai! Danetan azkarrena!

06 Gaur indar gabe besuak eta
begiak dauzkat lausuak
burua zuri, belarriak gor
eta txit sorrak pausuak.
Eta txit sorrak pausuak!

07 Festarik bazan inguruetan
lagunak nituan bila
juaten nintzan alai ta garbi
harturik nere makila.
Hemen daukaten makila!

08 Gaur ere leku bazter hontara
datorkit festa oihartzuna
Oh zertarako? Asearentzat
dena da garraztasuna.
Den dena garraztasuna!

09 Festa oihartzun urrutikoa
nola zu zatoz nigana?
Ai neretzako mingarri zera
gaztearentzat laztana!
Gaztearentzat laztana!

10 Zoazkit bada nere ondolik
txoratu itzazu gazteak
badaukazu lan, hoiek zahartzean
atzetik datoz besteak.
Atzetik datoz besteak!

11 Nere sasoiko gizon lagunak
hil ziran danak negarrez
laster askoan ikusi ditut
haien senideak farrez.
Haien senideak farrez!

12 Bakarrik nago goizean eta
arratsaldean bakarrik
gaurko egunean inork ez du nahi
aldamenean haur zaharrik.
Inork ez du nahi haur zaharrik!

13 Egur igarra bezala nauke
sutondoan baztertua
suaren garra daukat laguntzat
ta nere Jaun zerukua.
Baitare Jaun zerukua!

14 Zertarako da egur igarra
lehen izan arren hezea?
Zertarako da landara zimel
lore ta likurt gabea?
Lore ta likurt gabea!

15 Nere aurrera inoiz badator
etxeko gizon gaztea
galdetutzen dit ajol antzean:
Nola dago aiton gurea?
Nola dago aiton gurea?

16 Ai ez baneki berea dala
ajola gezurrezkua
ez nuan noski orain jakingo
nola dan gaurko mundua.
Nola dan gaurko mundua!

17 Ikaraz nago beti bildurrez
ez dakit ondo zergatik.
Honenbestean gizona ahultzeko
badu neguak indarririk?

18 Nik ikusi det lehenago ere
Izarraitz gaina lainotan
nik ikusi det elur txuria
Ernio-mendin askotan.

19 Nik ikusi det zeru goibela
lurrari argia kentzen
nik ikusi det ekaitz gaiztoa
itxas gizonak hondatzen.

20 Nik ikusi det olatutzarra
pitsez haitzetan purruka
nik ikusi det negu-txoria
triste aidean oihuka.

21 Nik ikusi det egun laburra
gaua izarrrik gabea
truixu ekaitz ta txingor artean
ez det nik galdu pakea.

22 Neguan bertan neretzat beti
alaiak ziran egunak
nolatan bada ikaratzen nau
negu beltzaren ilunak?

23 Zerren orduan gaztea nintzan
osasun eder batekin!
zergatik neukan udaberria
beti barruan nerekin!

24 Negua da ta gogoz euriak
kaleak bustitzen ditu
nola ni ere neguan naizen
malkoak ezin gelditu.
Malkoak ezin gelditu!

25 Aseko dira euriz landarak
eta berdetu kanpoak
ni legorrago geldituko naiz
isuritzean malkoak.
Barren barrengo malkoak!

26 Ah zein hotza dan gaurko haizea!
Nola ni nagon ikara!
Leiho zulotik oihuka dator
gizon hiltzaile gisara.
Gizon hiltzaile gisara!

27 Legor ta zaila daukat gorputza
bainan anima samurra
nere anima da zerurako
gorputzarentzat hor lurra.
Gorputzarentzat hor lurra!

28 Biak nik maita, baina gehiago
anima nire jabia.
Pentsamentuen jaio-tokia
sentimentuen kabia.
Sentimentuen kabia!

29 Bakartadean bilatu nahi det
animarako osasuna
bakartadean bilatu behar
malkoen gozotasuna.
Malkoen gozotasuna!

30 Kantari zaharra isildutzean
oso samurrik nenguan
kantua daukat gaurdaino ere
hementxen belarronduan,
damorrigarri, bigun tristea
negargarrizko soinuan
ez zait ahaztuko kantari zaharra
ez zait ahaztuko behinguan!



02. **Murmurak:** murmurioak, marmarrak.
Esakera: esateko modua, adierazteko era.

04. **Dizkan:** normalki *dizkion* bada ere, he-
men *dizkidan*-en laburdura dirudi.

06. **Lausuak:** lausotuak, ikustea eragozten
duen gandua edo hezetasuna daukatenak.
Txit: oso, agitz, biziki, arrunt.
Sorrak: motelak, sentikortasunik eta hi-
gikortasunik ez dutenak.

07. **Bila:** xerka.

11. **Laster askoan:** oso laster, laster baino
lasterrago.

Senideak: Bizkai aldean ahaideak. Bes-
te euskalkietan neba-arrebak.

12. **Aldamenean:** alboan, ondoan.

13. **Nauke:** naukate.

14. **Likurt:** likurta, usain gozoko ukendua.

15. **Inoiz:** noizbait, behin edo behin.
Ajol antzean: axola itxuran, ardura dion plantan.
Ajola: axola, ardura.
Aiton: aitona, aitatxi, aitita, aitajauna.
20. **Pitsez:** bitsez, aparrez.
Purruka: burruka, kolpeka.
Aidean: airean.
21. **Truixu:** truxu, eurijasa, zaparrada trinkoa.
Txingor: abazuzi, kazkabar, harri.

23. **Zerren... zergatik:** kausalak: zeren... bait, ze... eta.
25. **Barren barrengo:** barne barneko, barru barruko.
30. **Gaurdaino:** gaur arte.
Damorrigarri: kaden, damorria ematekoa, malenkoniatsua.
Damorri: kaden, kadentasun, malenkonia.
Behinguan: behingoan, berehala, oso laster.

ERESIAK JESUSI

(Euskalzale. 1898. urtarrilaren 6, 8. or.)

Goazen guztiok Belen aldera
goazen guztiok lehenbaitlehen
sortu geranen Jaun da Jaubea
jaio dalako Belenen.

01 Iluna dakust gaba
ez dago izarrik
bainan ez det sentitzen
argi beharrik.
Jesus nerea!
Nun bilatu zu baino
argi hobea?

02 Ile kizkurrak ditu
ta begi urdinak
zerua bera baino
hobeto eginak.
Nere laztana!
Zuri begira dago
lurbira dana.

03 Pekatarien bila
zatoz lurrera
maitasunez bihotzak
irabaztera.
Maite nazazu!
Bada pekatari bat
hemen naukazu.



01. **Dakust:** ikusten dut.

02. **Lurbira:** lurra, mundua, lurraren bira.

03. **Bila:** xerka.

Bada: ze, zeren.

MIGEL UNAMUNO

“Idazle eta filosofo bizkaitarra (Bilbo, 1864 - Salamanca, 1936). Gaztetan euskaraz ikasi zuen eta Euskalerra aldizkarian hainbat artikulua argitaratu zuen... Bilbon latineko irakasle zelarik, Bizkaiko diputazioko euskarako katedrarako aurkeztu zen, Sabino Arana eta Azkuerekin batera, baina ez zuen postua lortu...” (*Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa*).

Miatu ditudan iturrietan, Unamunoren euskarazko bertso lan bakarra aurkitu dut, gabon koplak sorta bat bera. Bat egin zuenak gehiago ere egingo zuen segurrenik, baina nahikoa izan daiteke, Unamunok euskaraz zer tankera zeukan antzemateko.

GABON ABESTIA

(Milla Euskal Olerki Eder. Aita Santi Onaindia, 676. or.)

01 Hiru errege haundiak
heldu dira urrutik
haur baten ikustera
munduko edertarik.

02 Artzaiak Belenera
dakarten adinak
ardiak elur baino
bai txuriagoak.

03 Lurra apaindua dago
ta elurrez betia
jai haundiaren dala
ta eder jantzia.

04 Zergatik lurra dago
ederto apaindua?
Zeren Jesus ederra
mundura heldu da.

05 Zeruko aingeruak
txoriak bezela
danok kantatzen dute
Jauna heldu dala.

06 Harek kantatzen dute
ta poz handiagoz
Jaungoikoaren jaiotza
geure euskera gozoz.

07 Geure euskera baino
berba ederrago
ez da gauza hain haundi
zelebratutako.

08 Eskatu bihar degu
poza geure etxian
ta lurrean pakea
gizonen artian.

09 Hodoien zan betia
lehenago mundua
gabaz ta ilargi gabe
eta asko iluna.

10 Urten zuen orduan
egiaren argia
ta mundu gelditu da
hodoien garbia.

11 Gaur da pozaren gaba
kanpoan hotza da
baino geuren barruan
asko da berua.

12 Goazen, goazen anaiak
Haurra ikustera
goazen, goazen lehenbailehen
anaiak aurrera.



01. **Urrutik:** urrundik, urrutitik.
Edertarik: ederretarik, ederren artekoa.

02. **Dakarten adinak:** ez dakit zer izan dai-
tekeen.

03. **Jai haundiaren:** jai haundiko.
Eder jantzia: ederrez, edertasunez jan-
tzia.

04. **Zeren... heldu da:** heldu delako.

06. **Geure euskera gozoz:** Aita Onaindia-

ren liburuan *geure gozo euskerak* dakar.
Horrek nahitaez okerren bat izan behar
du.

07. **Berba:** hitz, ele.
Zelebratutako: zelebratuteko, zelebra-
tzeko, ospatzeko.

09. **Hodoien:** hodoiz, hodoiez.
Hodoi: hodei, trumoi laino.

10. **Hodoien garbia:** hodoiez, hodoietatik
garbia.

Kopla hauetan argi dago Unamunok oraindik euskara ondoegi ika-
si gabe zeukala. Ez dakit zer mailataraino iritsiko zen. Joskera eta forma
batzuk baliteke jakinez gainerakoak izatea, *-hodoien zan betia, hodoien
garbia* eta abar, latinez eta grekoz aditua bait zen.

EUSTAKIO EULEA

Eustakio Larrabeiti Trabudua 1936 uztailaren 30-ean hil zen Gal-
dakaoko Urreta auzoan, 88 urte zituela. Gerra sortu eta zortzi egunera,
beraz. Horrek esan nahi du 1848an jaio zela. Loiuo seme lez agertzen da
bere alaben bataio agiritan, baita udaletxekoetan ere, baina Loiu, Eran-
dio, Gatika, Mungia eta Laukizko bataio liburuetan ez da bere izenik ager-
tzen. Bere arreba Angelaren bataio agiria bai agertzen da Erandioko li-
buruetan, 1845-ean.

Bere emazte Paula Madariaga Mungiakoarekin bi alaba izan zituen,
Elbira 1880-ean eta Higinia 1885-ean. Hauek Laukizko bataio liburuetan
agertzen dira. Laukizko Ganene-n bizi zela diote herrian. Badirudi, be-
raz, Loitutik Laukizera ezkondu zela eta zahartzaroko azken urteak Gal-
dakaon eman zituela, senideren baten etxean. Bere heriotz agiriak bi
xehetasun jartzen ditu: "No consta que haya otorgado testamento. Causa
del fallecimiento: Ondo-carditis". Lehenengoa sinestekoa da, baina biho-
tza ondo zeukalako hiltzea ez dakit, ba, hasi berri zen gerratik libratzeko
ez bazen.

Garai hartarako hain bizi luzea harrapatu zuen Eustakio lanbidez
ehulea zen eta hortik zetorkion mundu guztiak hala ezagutzen zuen ize-
nordea: Eustakio Eulé, Eulea, Eulie... Inguruan entzute handia lortu zuen
eta herritarren oroimenean gizon bromosoa eta zelebrea izan arren, zen-
bait ekitaldi politikotan ere agertzen da.

ZORTZI NOBIO

- 01 Neska polit bat jagok
Laukizko herrien
zortzi nobio jozak
urte bi t'erdien.
Zortzigarrena jaukok
inoizko larrien
ez ibili baziren
fineza garbien.
- 02 Lehenengo nobioa
zala kuberie
mutil galanta baina
bekoki pardue.
Haregaz hartu baneru
neure estadue
orain egongo nintzen
ondo ezkondu.
- 03 Bigarren nobioa
zan zapatarie
kojoa izan ez balitz
konsolagarrie.
Neuk bere banituen
orratza ta harie
baina ez neban gure
nik zapatarie.
- 04 Hirugarren nobioa
zala alargune
baztar askon jabe ta
herederu jaune.
Hak bere euki ez baleu
etxe bete ume
egie da zeozer
egingo gendune.
- 05 Laugarren nobioa
gauean zan joaten
gelako bentanea
koska koska jotzen.
Aurreko atea jo
ta atzera urten
hori bai, Josepatxo,
sarri egin zeunsten.
- 06 Bosgarren nobioa
Señor Eusebio
egunean pezeta bi
daukoz diario.
Haxe izango neunke
inor baino hobago
berak gura banendu
ni konforme nago.
- 07 Seigarren nobioa
Eustakio Eulea
prakazahar inuzente
koitedu pobrea.
Hik bere bahenduen
ezkondu gurea
baina eragin heunstan
erretiradea.
- 08 Zazpigarren nobioa
zan barranderue
irabaziten eban
bastante dirue.
Hak bere euki ez baleu
zurie burue
beste bat izango zan
neronen asmue.

- 09 Zortzigarren nobioa
Jose auzokoa
Hamazortzi urteko
mutil ditxosoa.
Gorputz ederra eta
amodiosoa
zeuk izan behar dozu
neure esposoa.
- 10 Ni zure lehengusu ta
zu nire lehengusin
ibili zaite hortik
ixiltxo behinepein.
Badakit zabizena
kanpotik esaten
despeidatu nozula
bentanaren baten.
- 11 Zu orain ibilteko
holakoak esaten
ni zure bentanara
ez nintzen joaten.
Hamaika demonino
bajagok munduen
Josepa lehengusinak
engainau nenduen.



01. **Jagok:** zegok.
Jozak: ditik, zeuzkak.
Jaukok: zeukak.
02. **Kuberue:** upagin, kupelgile.
Bekoki pardue: kopet arrea, ilunskia.
Haregaz: harekin.
03. **Kojoa:** koxoa, herrena.
Ez neban gure: ez nuen nahi.
04. **Baztar askon:** bazter edo lursail askoren. *Baztar* baserri baten lurrei deitzen zaie.
Hak bere: hark ere.
05. **Koska koska:** kos kos. Atea edo zerbait xuabe jotzearen hotsa.
Sarri: sarritan, maiz, anitzetan.
Zeunsten: zenidan.
06. **Daukoz:** dauzka.
Haxe: huraxe.
- Neunke:** nuke.
Hobago: hobeago.
Gura banendu: nahi banindu, maite banindu.
07. **Prakazahar:** galtzahar.
Koitedu: gaizo, errukarri, gizajo.
Bahenduen: bahuen.
Heunstan: hidan.
08. **Barranderue:** kale garbitzailea.
Irabaziten eban: irabazten zuen.
09. **Ditxosoa:** ditxoak edo esaerak botatzen zalea, trebea dena.
10. **Zabizena:** zabiltzana.
11. **Bajagok:** bazegok.
Engainau nenduen: enganiatu, atzipe-tu ninduen.

Bertso hauek nondik eskuratua neukan ez dakidan paper batetik dakartzat. Beste aldaera bat *Idatz-Mintz* 8, 26-27 orrialdeetan agertu zuen Adolfo Arejitak, Jon Oleagak Migel Larrauri zenari jasoak. Gauza txiki-
ren bat edo beste aldaera honetatik zuzenduta eman dut.

Bestalde, *Idatz-Mintz*-eko sorta hamarrekoa da. Eta zortzigarren bertsoa, zazpigarren nobioarena, eta hamargarrena honela dakartza:

08 Zazpigarren nobioa
dogu Eugenio
hagaz ezkontzearren
larga Eustakio.
Hari bere izan neuntsen
hainbet amodio
hara non daukedan
hainbeste nobio.

10 Zortzi nobio ditu
zortzi amodio
Josepa badakizu
nor dan Eustakio.
Hamaika demonino
bajagok munduen
Josepa lehengusinek
engaina nenduen.



08. **Hagaz:** harekin.
Ezkontzearren: ezkontzeagatik.
Larga: laga, utzi.
Hari bere: hari ere.

Neuntsen: nion.

10. **Demonino:** demonio, deabru.
Engaina nenduen: engainatu, atzipetu
ninduen.

Bertso hauek, bai aldaera bata eta bai bestea, nahiko deformaturik dauden seinaleak badira. Zortzigarren bertsoa erabat ezberdina da batetik bestera eta biek dirudite egizkoak. Segurrenik Eustakio Euleak biak egingo zituen, edo beste norbaitek berriaz ordeztu, ez bait dago hain ezberdinak izateraino deformatzerik. Azken bertsoaren lehen zatia ere guztiz ezberdina da bi sortetan. Emandako sortan, hamargarrenaren bigarren erdiak eta hamaikagarrenaren lehen erdiak gurutzaturik dirudite. Horrez gainera, bi bertso hauek eta beste aldaerako hamargarrena oin binaka errimaturik datoz. Bizkaian tradizio hori errotua izan arren, Eustakio Euleak bertso hauek launaka errimatu zituela dirudi. Sorta guztia horrela eginda, ez dirudi bidezko azkenean beste eredura saltatzea. Azke-

nik, sorta guztian zehar, hizkuntzaz eta edukiz ere, inkongruentzi txiki mordo dago. Tamalgarri da akats horiena, hain sorta dotorea eta orijinala izanik.

FRANZISKO ORBEGOZOKO

(1912ko Apirilaren 25ean Gatican anuntziatua San Markos egunean)

01 Bertso berriak kantaten noa
euskeraz eta eroso
etorri hona inor badago
entzun eiteko ganoso.
Nor nazen bere esan behar dot
jakin daizuen hobeto
Jataben jaio ta hazikoa naz
Franzisko Orbegozoko.

04 Denpora baten hartu nenduen
ezkonduteko asmue
pentsau nenduen behar dodala
barritau bizimodue.
Hemen igaro jatazan gauzak
betatu dauste barrue
orain egiek azalduteko
berotuten jat burue.

02 Neure barrua beterik dago
banoa hutsitutera
gerizpetako gauzak nahi neukez
atara eguzkitera.
Neure barruko enbarazu hau
dabil batetik bestera
ez deuket onik enbarazu hau
kendu artean kanpora.

05 Emaztegitzat nor euki dodan
esan behar dot egie
Feliziana Iñebasoko
izan da neure nobie.
Sarritan ondo jakinak gara
bata-bestean barrie
lehengo bideak itxita orain
hartu daust bide barrie.

03 Enbarazu hau zer dan esaten
hasi behar dot gogorik
egiek zuzen esango dodaz
ez dot esango guzurrik.
Denpora baten hartu ez baneun
ezkonduteko asmorik
benturaz orain ez neban euko
barruko enbarazurik.

06 Felizianak esan daustena
izan da eguno beti
beragaz ezer gura banendun
jarraituteko gogoti.
Enbarazuok botako doguz
ez eizu bildurrik euki
sartuko zara, Patxo, gurean
beste guztien ganeti.

07 Aita ta ama prest egon ziran
gu biok ezkontuteko
eta nobiek agindu eustan
etsea arregletako.
Txarrie bere opatu eustan
gure banendun hilteko
baita hil gindun txarrie bere
bion artean jateko.

08 Txarrien opa etor zanean
esan neutsean ederto
ez neukela nik inor etsean
txarrie gobernatzeko.
Eta nobiek erantzun eustan
neurea entzun orduko:
neu nago hemen eta ez dozu
beste enbrarik beharko.

09 Koipeak urtu zituen eta
egin hainbeste txorizo
baina lehenengo lehenengo barriz
buzkentak bere ederto.
Honek guztiok eginda dagoz
beretzako eta neutzako
orain dinautse Felizianari
beste bide bat hartzeko.

10 Felizianak berak ez eban
hartuko beste biderik
etxakolako inoz etorri
ni baino gurao dauenik.
Propietario bat agertu jako
baina ez dauko gogorik
hagaz ezkondu behar dauela
eragin dautse bururik.

11 Aidetasuna daukagula ta
banandu gure gaitue
gaur dabilena zelangoa dan
denporaz ikisikue.
Niganik kendu behar dabela
berotu dautse burue
Franziskok orain azalduko dau
nortzuk daukean errue.

12 Errudunak bi jakinak dira
zein diren aita ta ama
herriko parroko jauna barrez
ez da gitxien daukana.
Hau da lehengusu neurea eta
aita besoko dodana
hauxe da beragana deitute
txaskoa emon daustana.

13 Hasi ginean berba egiten
aidetasunen ganean
berba guztiok oso osorik
engainateko zirean.
Parroko jauna sendo egoan
berak hartuko idean
egon dalako nire lekuan
beste bat sartu gurean.

14 Batean bata jazo ei dala
eta bestean bestea
esan gurean hori ez dala
Jaungoikoaren legea.
Gura izan dau ni bildurtute
atzera gelditutea
eta zabaldu propietario
nagosientzat atea.

15 Aide izan arren biek badire
interes bardinekoak
Aita Santuen aurrean dire
askozaz argiakoak.
Ez dakit diren guzurrek ala
dorean gauza justoak
honeixek dira parroko jaunak
Patxori esanekoak.

16 Interesakaz euki ezgaitik
munduko bardintasune
amodioa apurtutea
ez da tokaten jakune.
Non dago aita, non dago ama
non parrokoan zentzune?
Amodioak amodioa
dau beti bere lagune.

17 Hauxe da behintzat aita ta ama
ta parrokoan idea
ni kendu handik eta han sartu
neure moduko aidea.
Neuk lehenengotik tratatu ta gero
hau da Judasen burlea
gero dinaude gorde daigula
Jaungoikoaren legea.

18 Hemen sartu da gure artean
Judas gaiztoan asmue
amodiorik ez-ta gogoan
hemen gure da dirue.
Ni izan banitz propietario
hau da egie klarue
propietario nagosiari
ez zan izango saldue.

19 Jaungoikoagaz ahaztute sarri
akordaten da dirue
sarri askotan gauza ona da
pozgarri handie due.
Baina larrean sartu ezkerro
pekatu egiten due
Judasek bere diruegaitik
kondenau eban burue.

20 Gustu bagako ezkontzaren bat
inoz egingo bagendu
mingostasunez beteten da ta
han elei ondo konpondu.
Gustu bagako tratua eiten
bihotzak nori lagundu?
Gero gustue hartutekotan
neu ez neitike ezkondu.

21 Hasikeratik egiten bada
ezkontza gustu bakoa
hau da gorputze ta arimea
betiko galdutekoa.
Poz handiegaz eginagaitik
ezkontza gozo-gozoa
halantxe bere agertuten da
samintasunik nahikoa.

22 Entzun hau ondo zagozeanok
ezkontzearen begira
amore bako ezkontzak gero
okerrak izaten dira.
Egun horretan krutze astun bat
dator lepoan erdira
haxe behar da eroan gero
Kalbarioko mendira.

23 Kalbarioko mendi puntera
krutzea eroatea
errez ez dana erakutsiten
daukagu Jesus maitea.
Ez dakienak ez daki zer dan
ezkonduaren nekea
hau ez da ume-negarrik barik
txokolatea hartzea.

24 Agur ta agur, Feliziana
agur errudun guztiek
gauzak ederto argitu dodaz
Jaungoikoari graziak.
Barruko minik ez daust emoten
berba egiten hasiek
hau papeltxu hau bete dauenak
esango leukez egiek.

Sorta hau Gatika eta Laukizko abade Jesus Etxebarriak -sarrerako datuak ere berak batu zizkidan- eskuratu zidan paper batetik ematen dut, zenbait gauzatan *Idatz-Mintz 6*, 9-11 orrialdeetan agertutako aldaeratik zuzendurik. Honelakoetan alde handi samarrak agertzea normala ohi bada ere, -aurreko zortzi nobioenean adibidez-, oraingo bi aldaerak harri-garri berdintsuak dira.



01. **Kantaten:** kantatzen, kantatzera.
Entzun eiteko: entzuteko.
Ganoso: gogotsu, gogo handiz.
Bere: ere.
Daizuen: dezazuen.
Hazikoa: hazitakoa, hazia.

02. **Hutsitutera:** hustutzera, husterera.
Gerizpe: gerizape, itzal azpi.
Neukez: nituzke.

25 Neure barrua hutsitu da ba
berbaldi sendo bategaz
esker haundiak Jaungoikoari
orain emoten dautsedaz.
Enbarazuak kendute nago
hogeit eta bost bertsogaz
neure barrua geldituten da
poz handi eder bategaz.

Enbarazu: traba, oztupo.
Deuket: daukat.

03. **Gogorik:** gogotik.
Dodaz: ditut.
Baneun: banuen, banu.
Benturaz: menturaz, agian, beharbada.
Ez neban euko: ez nuen edukiko.

04. **Nendun:** nuen.
Barriztau: barriztatu, berriztu, berritu.

- Igaro:** gertatu, jazo.
Jatazan: zaizkidan.
Betatu: betetu, bete.
Dauste: didate.
Berotuten jat: berotzen zait.
05. **Nobie:** nobia, andregai.
Itxita: utzita.
Daust: dit.
06. **Daustena:** didana.
Eguno: egundo, egundaino, gaur arte.
Eguno beti: gaur arte beti.
Beragaz: berarekin.
Gura banendun: nahi banuen.
Doguz: ditugu.
Eizu: ezazu.
Gurean: gure etxean. Bizkaierazko esamolde hau, hots, *etxe* jan eta *noren* bakarrik uztea, gaizki aplikatzen hasia da, jatorra delakoan, *etxe* ez den beste gune batzutarra. Adibidez *gurean* gero eta gehiago entzuten da gure ETB-en, gure Euskal Herrian... esanahiz. Baina *gurean*, *gurasoenean*, *amamarenetik*, *izebarenera*, etab. beti-beti *etxea* dira, eta hortik beste kontzeptu batzutarra hedatzeak esamoldea suntsitu besterik ez du egiten, ez bait da posesiboaren jokaldia, *etxe* kontzeptuarena baizik, eta beraz, berari bakarrik aplikatzekoa.
07. **Eustan:** zidan.
Etsea: etxea.
Arregletako: arreglatzeko, konpontzeko.
Bere opatu eustan: ere eskaini zidan.
Hil gindun: hil genuen.
08. **Txarrien opa:** txarria opatzera, eskaintzera.
Neuntsean ederto: nion ederki.
Enbrarik: andrerik, emakumerik. Bizkai aldean inolako kutsu peioratibo gabe erabili ohi da hitz hau, emakume adierazteko.
09. **Buzkentak bere:** buzkantzak ere, odollestak, odolkiak.
Honek guztiok: hauek guztiok.
- Dagoz:** daude.
Dinautse: diotsate, esaten diote.
10. **Eban:** zuen.
Etxakolako: ez jakolako, ez zaiolako.
Gurao dauenik: gurago, nahiago duenik, maiteago duenik.
Jako: zaio.
Hagaz: harekin.
Dautse: diote.
Bururik: burutik.
Burutik eragin: burutik egin erazi, zorarazi, erotasuna sartu.
11. **Aidetasuna:** ahaidetasuna, ahaide izatea.
Ahaide: odol berekoa edo famili arteko lotura duena.
Banandu gure gaitue: banatu, bereizi nahi gaituzte.
Zelangoa: nolakoa.
Ikisikue: ikasikoa, ikasitakoa, ikasia. Puntu hau ez dago argi. Zerbait oker dagoen susmoa daukat. *Idatz-Mintz*-eko aldaerak *ikusikue* dakar, baina horrek ere ez du zentzurik argitzen.
Dabela: duela.
Daukean errue: daukaten errua, kulpa.
12. **Barrez:** barriz, berriz, ordea.
Gitxien: gutxien, gutien.
Aita besoko: aitabitxi, aita ponteko, eguzaita.
Txaskoa emon daustana: ezuste txarra eman didana.
13. **Berba:** hitz.
Engainateko: enganiatzeko, atzipetzeko.
Sendo egoan: gogor, tinko zegoen.
Hartuko: hartutako.
14. **Jazo ei:** gertatu omen.
Esan gurean: esan guran, esan nahirik.
15. **Askozaz:** askoz, anitez.
Honeixek: hauexek.
Esanekoak: esandakoak, erranak.
16. **Interesakaz:** interesekin.
Euki ezgaitik: eduki ez arren, ez edukiagatik.

- Tokaten jakune:** tokatzen zaiguna, dagokiguna.
17. **Burlea:** burla, iseka, trufa.
Dinaude: diote, erraiten dute.
Daigula: dezagula.
18. **Ez-ta gogoan:** gogoan ez eta, gogoan ez dela, eduki gabe.
Gure da: gura da, nahi da.
19. **Jaungoikoagaz:** Jaungoikoarekin.
Akordaten: akordatzen, gogoratzen, oroitzen.
Due... due: doa? Edo *daue-deue*, dute? Forma hauek oso raroak dira hemen. Eta gainera potoan doaz. Erabili ditudan bi aldaerek berdin ematen badute ere, zerbait oker dagoelakoan nago.
Larrean: larregian, gehiegian, hots, gehiegizko diruan.
Judasek bere: Judasek ere.
Eban: zuen.
20. **Bagako:** bako, gabeko.
Mingostasun: mingots izatea.
Mingots: mikatz, garratz.
Elei: ez liteke.
- Hartutekotan:** hartzekotan.
Neitike: ninteke.
21. **Hasikera:** hasera, hasiera, hastapen.
Handiegaz: handiz, handiarekin.
Halantxe bere: halaxe ere.
22. **Zagozeanok:** zaudetenok.
Amore bako: amodio gabeko, maitasun gabeko.
Krutze: gurutze.
Lepoan: bizkarraren.
Haxe: huraxe.
Eroan: eraman.
23. **Errez ez dana:** errez ez dela.
Barik: bagarik, gabe.
24. **Dodaz:** ditut.
Ez daust emoten: ez dit ematen.
Hasiak: hasiak, hasi izanak.
Leukez: lituzke.
25. **Hutsitu:** hustu.
Berbaldi: solasaldi, elealdi, hizketa.
Bategaz: batekin.
Dautsedaz: dizkiot.

Laugarren bertsoaren azken lerroan paperak *berotuten jat barrue* dion lekuan, *burue* jarri dot. Egia da *barrua berotu* nahiz *burua berotu* esamolde berdin naturalak direla, baina premia gabe horrelako potoa ez da hain normala. Egia da baita bizkaieraren tradizioan potoari garrantzi handirik ematen ez zaiona ere, baina hamaikagarren bertsoan ere hortxe ageri da *berotu dautse burue*. Bestean ere segurrenik esamolde horixe zegokeen Eustakio Eulearen buruan. *Idatz-Mintz*-eko aldaerak laugarren bertsoko azken puntua honela dakar: *Franziskok orain azalduko dau nortzuk daukean errue*. Hau bidezko litzateke, hamaikagarren bertsoaren azken puntua ere berdin- berdina ez balitz.

Bosgarrenean ere badago poto bat, *barrie* jarraian errepikatzen dela. Hau egileak horrelaxe jarriko zuela sinestekoa da, hitzaren bi adierekin

jokatuz, batean *albiste* edo notizia eta bestean *barri* adjetibo dela. Hala ere esan behar da poto izaten jarraitzen duela. Azken bertsoan ere *bategaz* bi aldiz dator. Izan liteke egilearena. Baina baita baliteke lehen puntuan *honegaz* izatea, San Markos egunean “anuntziatzen” ari bait da. Beraz, estreinatzen ari den une hartan *honegaz* esatea kontextutik hurbilago da.

Ohar tekniko hauen ginetik, bertso sorta hau pieza hunkigarria dela aitortu behar. Gauzak hain natural eta xalo, eta hain tonu aldi berean hurbil eta solemnean kontatzen dira, ezen azkenerako zirrarratu egiten zaitu. Ez da inondik ere ziri bertsozko estiloa, bizkaierazko baladen eta erromantzeen airekoa baizik. Narrazioan zehar, txerriaren pasarteak badu errealismo bat, hunkigarria batetik bere xalotasunean, eta kontraste handikoa bestetik maite istorio batean. Tamalgarri da herrian hain entzute handia utzi zuen Eustakio Eulearen bertso gehiago ez gelditu izana, ziur bait nago bi sortok egin zituenak gehiago ere egingo zituela.

MELTXIOR LASTRA

Bertso sorta honen egiletzat bertan ageri den Meltxior Lastra jarri dut, ez dauka izan beharrik baina. Bertsolariak izen horretako astodunaren kasuaz ateratako bertsoak izan daitezke. Dena dela, Meltxior Lastra izanda ere, ez du egilearen argitasun handirik ematen. Badirudi Otxandion hasi behar dela aztarna bila, eta agian ez litzateke hain zaila, Lastra abizena -edo baserriren baten izena agian- nahiko abizen bakana bait da. Nik neuk sorta honetaz aparte entzun gabe neukan. Aipatu iturriak ez dakar noren bertsoak diren.

Noizkoak? Astoaren prezioa kontuan harturik, gerraurrean ere nahiko aurrera bota behar dela dirudi. Hirurogeita hamar erreal hamazazpi pezeta eta erdi dira. Prezio horrek nahiko antzinakoa dirudi, astorik eskasena izanik ere.

OTXANDIOKO ASTOTXO BATI

(Euskal-Kantak. Ekin eta Yarrai. Euskaltzaindiaren ardurapean. Bilbao - 1960. 39. or. Baita Berriatuko *Altzalei* bertsolariaren etxean daukaten paper bat)

01 Hogei bat bertso bakar bakarrik
gura nituke atera
geure euskeran zergaitik ondo
nik ez dakidan erdera.
Eta euskera erdera baino
kantatzen askoz hobe da
neure etxeko gertaera bat
esaten noa hastera.

02 Mandakotzako beti izan dot
asto baten egarria
lehenengoakin baina nik ez dot
izan fortuna handia.
Tranparik inok sartu deustala
ez da gaur nire eretxia
ezpan biakin bere faltia
daukalako ondo itxia.

03 Harotza daukat ofizioa
beste askoren antzera
aiskide batek dei egin eustan
arbola batzuk lantzera.
Asto bat eukan nire asmorako
gazte, polit ta ederra
hirurogeta hamar erlean
ekarri neban etxera.

04 Juan Anton lehengo asto jaubiak
eukan keja bat bakarra
etxe ondoko solora sartzen
jakola asto txikarra.
Desgrazia bat nik izan neban
egun hatantxe zakarra
urte bagarik gertatu jatan
astotxo honen biharra.

05 Hankia ebagi deskuidoaz neban
hazkorarekin orduan
asto preminan aurkitu nintzan
uste ez neban moduan.
Ez nebala nik ezertxo galdu
pentsatzen neban tratuan
listuak bere egin ohi dabez
sarritan hutsak munduan.

06 Zelan saldu zan lehen bere asto hau
hirurogeta hamar-lian
Juan Anton ta ni prezio horretan
bere konpondu ginian.
Saldu egingo neuke nik bere
zerbait galduta hurrian
zeinek erosi baina ezin dot
bilatu gure herrian.

07 Mandakotzako handi egingo
zala astoaz pozturik
hankako mina esperantza honek
itxiten eustan ahazturik.
Asto gainian neure etxera
etorri nintzan harrorik
Meltxior Lastra guztiz dotore
kaballero bat eginik.

08 Astotxo honek eukan famia
zala solora zalia
eta nik badot solorik asko
bete dagian tripia.
Baina ezin dau batu bedarrik
agoan dauka faltia
goiko haginak azpikoakin
ezin eginik juntia.

09 Nik ez nekian eukala haginik
desberdin, oker ta gaizki
baldin falta hori jakin baneutsa
egingo ez neban erosi.
Pentsuaz eta bedar igarraz
asto honek nahi dau bizi
halan jaterik gure etxian
ez daike erraz ikusi.

10 Soloan ezin asto honek dau
bedar berderik ebagi
ez dakit zelan lehen solorako
eukan hainbeste egarri.
Ezin daikela triparik bete
nunbait han deutsa igarri
makilaz bere basoruntz ezin
eragin deutsat berari.

11 Beste gauza bat somatzen deutsat
astotxo honi barria
lehenago hau zan umil ta mutu
gaur da arrantzalaria.
Bere soinua baina etxaku
guri atsegingarria
kamaran inoz bilatu dogu
artatzen lotsagarria.

12 Euri asko zan egun batian
ipini ninduan sutan
arrebak gogor egin ez baleust
itoko neban errekan.
Sententzi hori eukanik baina
apenas deusku pentsetan
lehen sarri eta gaur sarriago
kamaran dogu topetan.

13 Baina astotxo honek baditu
prenda ederrak bere asko
kargarik ez dau sekula bota
ezta sekula botako.
Jeniua dau oso noblia
indar polita kargako
mandakotzako balitza ona
ez neuke saldu gurako.

14 Abildadiak handiak daukaz
eskaileretan igoten
lehengo domekan etorri jakun
jenterik asko ikusten.
Aguro igo ta aguroago
ikusi arren jatsiten
komediante ez nazalako
dirurik emon ez eusten.

15 Noz etorriko begira nago
hona komediantiak
erakusteko astotxo honen
abilidade handiak.
Udara arte baina ez datoz
honuntz halako jentia
ontza bat urre neukela hartuko
esaten deuste guztiak.

16 Alperrik izan bere mantena
asko kostatzen jatana
ulia baleu seda fin fina
pagauko leuskit dan dana.
Begiak ondo gorderik daukaz
mokor aldia bedarra
hartzat hobeto saldu leiteke
astotzat hartu nebana.

17 Ez da larregi desiatzeko
gauzarik ezer munduan
gehienez kontra ateratzen da
astotxo honen moduan.
Mandakotzako urtengo zalaz
poztuten ginan goguan
ta urtian batxo egin ezkerro
mutila nintzan orduan.

18 Baina gaur dakit baliatzeko
modurik ez dagoala
asto hau txiki gelditu da ta
gainera dago makala.
Inok erosi nahi badau betor
Meltxior de Lastragana
saltzera ez dot atara gura
animali hau plazara.

19 Horra zelako kontuak diran asto honekin gertatu txiki makalik gura dabenak hementxe daike bilatu. Indar gitxitxo dau lanerako baina fin ohi da saiatu mandakotzako dan bategaitik egingo neuke trukatu.

20 Orain amaitzen dira bertsuok gogo argitxo jarriak fama handi bat hartu dagian astotxo barregarriak. Merezi ditu ateratia halako animaliak ta hamar zentimo pagau leiz pozik bertsozale dan guztiak.



01. **Gura:** nahi.
Zergaitik: ze, zeren. Kausala.
02. **Mandakotzako:** mandakotzat, mandako gisa.
Mandako: mando txikia.
Deustala: didala.
Eretxia: iritzia.
Ezpan: ezpain.
Faltia: falta, akatsa.
03. **Harotza:** zurgina.
Eustan: zidan.
Eukan: zeukan.
Erlean: errealean.
Erreal: pezeta laurden.
Neban: nuen.
04. **Jaubiak:** jabeak.
Solo: soro, alor.
Jakola asto txikarra: zitzaiola asto txikia, tipia.
Neban: nuen.
Hatantxe: hartantxe.
Bagarik: barik, gabe.
Jatan: zitzaidan.
Biharra: beharra, premia.
05. **Hankia ebagi:** hanka ebaki, zangoa moztu.
Nebala: nuela.
Listuak bere: argiek, buru argikoek ere.
Dabez: dituzte.
06. **Zelan:** nola.
Lehen bere: lehen ere.

- Hamar-lian:** hamar errealean.
Neuke: nuke.
Hurrian: hurrean, hain baten, nonbait.
07. **Itxiten eustan:** uzten zidan.
Kaballero: zaldun, jauntxo.
08. **Eukan famia:** zeukan fama.
Solora zalia: solaria, sorozalea, sorora sartzen zalea.
Dagian tripia: dezan tripa.
Bedarrik: belarrrik.
Agoan: ahoan.
Juntia: junta, bilkura.
09. **Baneutsa:** banio.
Pentsua: zaldalea, saralea.
Halan: hala.
Daike: dezake. Baita *daiteke* ere.
10. **Deutsa:** dio.
Ezin eragin deustat: ezin diot eragin, joan erazi.
11. **Etxaku:** ez jaku, ez zaigu.
Kamaran: ganbaran, mandioan.
Inoz: behin edo behin, batzutan.
12. **Baleust:** balit.
Eukanik: zeukanik.
Deusku pentsetan: digu pentsatzen.
Sarri: maiz, sarritan, anitzetan.
Topetan: topatzen, aurkitzen.
13. **Kargako:** kargarako, zamarako.
Gurako: gura izango, nahiko, nahi izango.

14. **Daukaz:** dauzka.
Domekan: igandean.
Jakun: zitzaiun.
Jenterik asko: jende asko.
Aguro: azkar, fite, arin.
Jatsiten: jaisten.
Eusten: zidaten.
15. **Hona:** hunat, honera.
Neukela hartuko: hartuko nukeela.
Deuste: didate.
16. **Mantena:** mantenua, gobernua.
Jatana: zaidana.
Ulia baleu: ilea balu.
Pagauko leuskit: pagatuko lidake.
Mokor aldia bedarra: *edarra* izan behar du, *bedarrak* ez bait dauka zentzurik.
Hartzat: harztzat, hartz gisa.
17. **Larregi:** gehiegi.
Urtengo zalaz: irtengo, aterako zela-ta.
Zalaz forma hori bertso jartzaileak erabiltzea txokatzten zait.
Batxo: batto, bakartxo bat.
Mutila nintzan orduan: osaturik, ezin hobeto, besterik ez nuen behar orduan.
Mutila, honen antzeko esamoldeetan, asko erabili ohi da bizkaieraz: *oraintxe*

nago mutila, mutila joan zen, lan hori lortzen badut, mutila jarriko naiz, etab. Zerbait ona, gogo betekoa esan nahi du. Baita haserre ere, harridurazko esaldietan batez ere: *Mutila jarri zen, ba!*, hots, suhar, haserre jarri zela. Emakumeei aplikaturik ere bai, ironiaz: *gure ama jarri zuan mutila!*

18. **Makala:** ahula.
Ez dot atera gura: ez dut atera nahi.
Plazara: azokara.
19. **Zelako:** nolako.
Gura dabenak: nahi duenak.
Gitxitxo: gutisko, gutxixe.
Dau: du, dauka.
20. **Bertsuok:** bertso hauek.
Gogo argitxo jarriak: egikera iluneko esaldia, *argitxo* hori beste zerbait ez bada. Dagoen moduan ez dago ondo esana.
Hartu dagian: har dezan.
Barregarriak: irrigarriak, xebreak.
Ateratia: ateratzea.
Zentimo: pezetaren ehunena. Hamar zentimoko txanpona *txakur handia* edo *txori handia* zen.
Pagau leiz: paga, ordain litzake.

Egilearen nortasuna albora utzirik, sorta ironikoa eta graziosoa da ezpain biakin bere faltia ondo disimulatzen dakien astotxo honena. *Guztiz dotore, kaballero bat eginik, lehenago umil ta mutu ta gaur arrantzalaria, komediante ez nazalako dirurik emon ez eusten, hartzat hobeto saldu leiteke astotzat hartu nebana, saltzera ez dot atera gura animali hau plazara, etab.* Azkenean ez dakizu astoari gorrotoa ala laztana hartu behar zaion.

BIHARGIN BAT

Ezizen honekin bertsoak bidaltzen zituenaz, *Ibaizabal* aldizkariak, *Tanbolinteruen bizimodua* izeneko sortaren sarreran, dio: "...lenengo saria atera dau Bermeo-ko J. A. eta A.-ek, zeñek ipinten dabon firmatzat Biarguin bat... Ona emen Bermeotarraren bertsoak". Baina gero *Neure Jaioterriari* izeneko sortan Orozko kantatzen du bere herritzat, non igaro omen zuen bere gaztaroa. Datu hauekin, gizon interesgarri honen berri gehiago batu nahi lukeenik balego, ez luke lan zaila.

TABERNERUEN BIZIMODUA

(*Ibaizabal* 8, 1902. Otsaila. 3. or.)

- | | |
|--|--|
| 01 Jagi da ohetik tabernerua
bere dendara joateko
kopakada bi lehenengo hartuta
eguna ondo hasteko. | 04 Indar handiaz emongo baleuz
bere edari apurrak
kopa bategaz erdi horditurik
hausiko leukez musturrak. |
| 02 Burua dauko goizian astun
atzoko ardaoen indarrez
etxeke danak altzau artian
beti daukazu dihardarrez. | 05 Errukiturik bere auzuari
egin ez daion kalterik
ez dau ezertxu hak saldu gura
ur apurtxu bat bagarik. |
| 03 Inor etorri baino lehenago
botilak daukaz beterik
kaina ta anisez ondo ipinita
mahaien ganian zutunik. | 06 Sartenekua aurrian dabela
ta kuartilu bat ardaogaz
zortziretako mahaian daukazu
jateko gogo ederragaz. |

- 07 Zahagi betia datorrenian
ardao-lekutik etxera
ikusi eta ontxua bada
doa bautizatutzero.
- 08 Lehenengo ditu bost bat azunbre
botaten bere ontzira
gero urez bete ta ondo estutu
jausi ez daiten zorura.
- 09 Ilundu ezkeron han dago bera
prest egiteko musian
berrogei orridun liburua
dabela bere aurrian.
- 10 Hasten da arin datozanakaz
ardao apur bat jokatzin
joko pare bat egin ezkeron
badoa bera apaltzin.



01. **Jagi:** jaiki.
02. **Dihadarrez:** oihuka, zantzoka.
03. **Daukaz:** dauzka.
Zutunik: zutik, tente.
04. **Handiaz:** handiarekin.
Emongo baleuz: emango balitu.
Bategaz: batekin.
Horditu: mozkortu.
Hausiko leukez: hautsiko lituzke.
05. **Ez daion:** ez diezaion.
Ezertxu: ezertxo, deus ere.
Hak: hark.
Gura: nahi.
Bagarik: barik, gabe.
06. **Dabela:** duela.
Ederragaz: ederrarekin.
- 11 Zabal zabalik mahaian daukazu
bapere ardura barik
ardao onena beretzako dau
jokolarien lepotik.
- 12 Errezetako ez da amesik
hilteko baino gehiago
urezko ardao saldu ezkeron
ezertxo baino gurago.
- 13 Ardura barik bizi ohi dira
euren bizitzan guztian
ni bere orain ohera noa
ta agur hurrengo artian.
07. **Ontxua:** ontxoa, on samarra. Diminuti-
boak *oso ona* ere adieraz dezake.
Bautizatutzero: bataiatzera.
08. **Azunbre:** litro biko neurria.
Jausi ez daiten: eror ez dadin.
10. **Arin:** azkar, agudo, laster.
Datozanakaz: datozenekin, heldu dire-
nekin.
Badoa apaltzin: badoa afaltzera.
11. **Bapere ardura barik:** bat ere axola
gabe.
Lepotik: bizkarretik, jokolarien kontura.
12. **Errezetako:** errezatzeko, otoitz egiteko.
Amesik: asmorik, buruerarik.
Gurago: nahiago.
13. **Ni bere:** ni ere.

NEURE JAIOTERRIARI

(Ibaizabal. 61. zenbakia, 3. or. 1903ko Epaila)

- 01 Orozko herri zabal
pare bagakoa
mendi ederren jaube
da zeure lepoa.
Neu bere hortxe izan naz
mundura jaioa
ta hortxe igaro neban
nik gazte-aroa.
- 02 Urregoitiko Sala
ta Ibarra estua
beheratxuago dago
San Martin dontsua.
Eta gero San Juan
Zubiaurrekua
hau dozue guztien
jaube ta burua.
- 03 Ai neure jaioterri
luze ta zabala!
Euskalduna deritzot
zeu ez zareala.
Ez da agiri seme bat
euskaldun leiala
motzak esan leiteke
guztiak dirala.
- 04 Nun dira Sazedotar
gutziz baketsuak
Sagarminaga eta
Epaltzanekuak?
Nun dira Orozkoko
euskaldun zintzuak
gutzizko gizon garbi
leial ta mantsuak?
- 05 Ibaizabal txikia
dago hemen zabalik
euskaldunen irrintza
poz entzun gurarik.
Orozko aldetik inoz
ez da zaratarik
deritzot hor ez dala
bape euskerarik.
- 06 Ia herritar maitiak
bizkortu gaitian
ipinteko gure Ama
osasun onian.
Egin daigun ahalegin
ahal dogun guztian
danok maitatutzero
beti geure artian.

07 Ez gaitzezan ez egon
loak gogortuta
arerio handia
ganean dogu-ta.
Alkar harturik danok
eta bizkortuta
geure Ama itxi daigun
ondo osatuta.

08 Agur Orozko eta
zazpi elizatiak
agur Anuntzibai ta
Gorbea mendiak.
Ondo ahaztu zaitueze
euskaldun jentia
agur herri lastana
parkatu guztiak.



01. **Bagakoa:** bakoa, gabea.
Lepoa: bizkarra.
Neu bere: neu ere.
Igaro neban: pasatu nuen.
02. **Dontsua:** santua, dohatsua.
03. **Deritzot:** deritzat, derizkiot, iruditzen zait.
05. **Irrintza:** irrintzia, oihua.
Poz entzun gurarik: pozik entzun nahirik.

- Bape:** batere, deus ere.
06. **Osasun:** osagarri.
Daigun: dezagun.
07. **Arerio:** etsai, izterbegi.
Ganean: gainean.
Itxi daigun: utz, laga dezagun.
Osatuta: sendatuta.
08. **Elizatiak:** elizateak, elizaldeak.
Zaitueze: zaituztete.

NESKAZAHARRAK

(Ibaizabal 14. 1902. Jorraila. 3. or.)

01 Neskazaharra daukazu
goizetik goizean
ohetik jagi eta
ilunabarrean
elizara joaten da
mar-mar-mar bidean
belauniko jartzen da
santuen aurrean.

02 Berak eskatzen deutso
San Antoniori
ta inguruan dagozan
santu guztiari
eta horrez ganera
Aita San Joseri
nobio guztiz on bat
emoidazu neuri.

03 Mezea entzun eta
badoa etxera
auzoko neskatxari
faltak topatzera.
Beste guztiak baino
galantago dala
uste izaten dau baina
oker dago bera.

06 Beren ames guztiak
gehien gehiengan
egiten ditu harek
gizonen ganean.
Ule batzuk badituz
okotz barrenean
baina ez dau eukiten
bapere minean.

04 Ezkonduten direan
emakume danak
dino bere artean
dira alperrenak
guztiz dira itxiak
laban daukez minak
ez dira birjinatzat
ez Jaunak eginak.

07 Bere gazte denporan
hogei urterako
eukan nobio asko
hak ezkonduteko.
Bere harrokeriaz
luzatu geroko
orain hartuko leuke
ontxu bat baleuko.

05 Neskazaharra daukazu
beti amesetan
ta auzoko guztiari
bai faltak topetan.
Etxerik etxe dabil
beti barriketan
eta beste egunean
doa konfesetan.

08 Honantxe bizi dira
neska horrek munduan
eta ibiltzen dira
nahi daben moduan.
Atsegin handi handirik
ez dabe munduan
baina sartu daizala
Jesusek zeruan.



01. **Jagi:** jaiki.
Ilunabarrean: hemen goizeko ilunabarra esan nahi du, eguna argi-ilun edo nabar denean.
02. **Deutso:** dio.
Dagozan: dauden.
03. **Auzoko neskatxari:** neskatxei. Bizkaieraren azpi-euskalki batzutan azentuak berezten ditu singular-pluralak.

04. **Dino bere artean:** dio, erraiten du bere baitan, berekiko.
Itxiak: utziak, zabarrak, arduragabeak, bertan beherakoak.
Laban: labain, lerrakor, irristakor.
Daukez: dauzkate.
05. **Auzoko guztiari:** auzoko guztiei.
Topetan: topatzen, aurkitzen, edireten.
Barriketan: berriketan, erasian, eleketan.

- Beste egunean:** hurrengo egunean, bi-haramonean.
Konfesetan: konfesatzera.
06. **Beren:** beraren, bere.
Ganean: gainean.
Ule: ile.
Okotz barrenean: kokotzaren beheren-go aldean.
Bapere: batere, bat ere.
- Minean:** mihian.
07. **Eukan:** zeukan.
Ontxu bat: on samar bat.
Baleuko: baleuka.
08. **Honantxe:** honelaxe.
Neska horrek: neska horreik, horiek.
Nahi daben: nahi duten.
Daizala: ditzala.

KATU-ARRATOIAK

(Ibaizabal 48. 1902. Azaroa. 3. or.)

- 01 Lehengo baten nenguan
 etxe zahar batian
 atetxu bat ipinten
 neure biharrian.
 Arratoiak ebiltzan
 inguru guztian
 katu baltz bat eguan
 lotan su ganian.
- 02 Jagi zan katutzarra
 gero izartuta
 lepua gora altzaurik
 ta hankak luzetuta.
 Eta geratu nintzan
 guztiz harrituta
 gero ikusi neban
 gauzia ikusita.
- 03 Arratoia juan zan
 urontzi batera
 egarritu zalako
 ura edatera.
 Berihala badua
 katu bertara
 aurrez aurre jarririk
 alkarri begira.
- 04 Katu-arratoe biak
 urontzi banetan
 ura edaten egozan
 bildur barik bertan.
 Arratoia burlaka
 katu bizarretan
 halan ikusi neban
 nik egun haretan.

- 05 Katua geratu zan
 bere bizarrakaz
 arpegia garbitzen
 eskutxu finakaz.
 Arratoia juan zan
 bere lagunakaz
 begira katuari
 begi trabesakaz.



01. **Biharrian:** beharrean, lanean.
Ebiltzan: zebiltzan.
Eguan: zegoen.
02. **Jagi:** jaiki, zutitu.
Izartuta: itzartuta, ernaturik, esnatua, atzarria.
Lepua: lepua, bizkarra.
Altzaurik: altxaturik, jasorik.
Neban: nuen.
Gauzia: gauzea, gauza.
04. **Banetan:** banatan, bakoitza bere ontzian.
Egozan: zeuden.
Barik: bagarik, gabe.
Halan: hala.
Haretan: hartan.
05. **Bizarrakaz, finakaz...:** bizarrekin, finekin...
Begi trabes: begi okertua, alboka edo alde baterantz begiratzen duena.

Sorta honetako *arratoiak* saguak ez ote diren susmoa daukat. Etxe batean, denik zaharrenean ere, arratoiak inguru guztian ibiltzea ez da normala. Hainbeste sagu egotea ere bada nahiko zahartasun. *Bihargin-*ek euskaraz horrenbeste jakingo zuela objekzio aski izan liteke interpretazio honentzat, bi hitzak, sagua eta arratoia, erratu dituzten euskaldunak ezagutu ez banitu, gaztelaniaren eraginez segurrenik, non *ratón* sagua den eta gure arratoia *rata*.

NEGUKO LORIA

(Ibaizabal 55. 1903. Urtarrila. 2. or.)

01 Hotzen bildur bagarik
goizetik gaubera
jantzi zuri bategaz
naz zuen ganera.
Askok gura ez arren
ni beti aurrera
oilo lumak letxerik
jausten naz lurrera.

02 Ipinten deutsuedaz
landara guztiak
danak harro harrorik
lorakaz jantziak.
Daukazuez harriturik
bai zeuen begiak
bazterrak ikusirik
zuri ta garbiak.

03 Baserritarrak dagoz
ni natorrenian
pozez beterik beti
euren etse aldian
begiraturik neure
edertasunian
arto onak hartuteko
datorren urtian.

04 Aberatsak daukadaz
euren etsietan
eskuak igurtziten
kristal artietan.
Neure begira dagoz
jaurregi ederretan
hotzen bildur bagarik
oingo egunetan.

05 Beste guztietan naz
zuri ta argia
ta bakarrik batentzat
baltz eta itsusia.
Biharginak deust niri
gorroto haundia
kentzen deutsalako
eguneko ogia.

06. Negarrez egon barik
oin negu luzian
bihar zintzo eizue
uda ederrian
bakian biziteko
zeuen etse aldian
mendi puntatik behera
ni natorrenian.

07 Neure edertasuna
da zoragarria
neure biguntasuna
parerik bagia.
Neuri deituten deuste
neguko loria
baina naz edur zuri
errukibagia.



01. **Hotzen:** hotzaren.
Bagarik: barik, gabe.
Bategaz: batekin.
Ganera: gainera.
Letxerik: legetxe, bezalaxe.

02. **Deutsuedaz:** dizkizuet.
Lorakaz: lorekin, loraz.
Daukazuez: dauzkazue.

03. **Dagoz:** daude.
Etse aldian: etxe aldean, etxe inguruan.
Datorren: heldu den.

04. **Daukadaz:** dauzkat.
Dagoz: daude.
Oingo: oraingo.

05. **Biharginak:** beharginak, langileak.
Deust: dit.
Deutsalako: diodalako.

06. **Oin:** orain.
Bihar eizue: lan egizue.

07. **Deituten deuste:** deitzen naute, deitzen didate.
Edur: elur.

BAZKARI BARIK

(Ibaizabal 63. 1903. Epaila. 2. or.)

01 Maria eta Peru
senar-emaztiak
ule zuriarekin
ez ziran gaztiak.
Katu bat hartun eben
eurentzat maitiak
etxetik kentzearren
sagu-arratoiak.

02 Egun baten egoan
leihoan jarrita
katu zuri polit bat
guztia harrotuta.
Begiak zuhur eukazan
berak ipinita
joango ete zan Mari
ateak itxita.

03 Peru eta Maria
astelehen goizean
solo bat hatxurtuten
atera zirean
Pilin euren katua
itxirik etxean
lapikoa jagoten
bien bitartean.

04 Amatatu zanean
eskatzeko sua
bertarantza joan zan
gure katutxua.
Gatzian zelan dagon
euren lapikua
borondate onagaz
ikustera dua.

05 Erpetxuakaz tapa
kendu eutsanean
guztiz gogo onagaz
hasi zan lanean
gurari biziagaz
bere bihotzean
okela zatitxu bat
jateko pozean.

06 Ezin eban atera
okela zatia
ta gogoratu jakon
gauza bat eitia:
ondo izango zala
burua sartzia
ta han egozan okelak
guztia jatia.

07 Sartun eban burua
lapiko barruan
gauza onak guztia
laster jan zituan.
Tripa ondo beterik
eukan hak orduan
lapikotzar itzala
eukala buruan.

08 Gure katu hau estu
egoan jarririk
lapikotik burua
ezin aterarik.
Jira ta bira ebilen
erdi zoraturik
bere izateagaz
ia asperturik.

09 Etorri zan Maria
solotik etxera
bazkaria gozaro
Peruri ipintera.
Idigirik atea
sartu zan barrura
eta ikaraturik
jausi zan zorura.

10 Topau eban pizti bat
atean aurrean
buru handi bategaz
beraren ustean.
Guztiz ikaraturik
bera ikustean
joan zan dehadarrez
senarren eskean.

11 Peru, erdu etxera
beharra itxita
zerren nagoan guztiz
ni ikaratuta.
Pizti itzal bat dago
etxean sartuta
arintxu ez bazatoz
gagoz gu galduta.

12 Peru eta Maria
badoaz etxera
euren etxe barruan
zer dan ikustera.
Ez ziran azartuten
barruan sartzera
orduan hasi ziran
auzoak batzera.

13 Batu ziran guztia
Perun etxe aurrean
gizon da mutil gazte
danak han zirean
makila handi bana
harturik aldean
hango pizti itzala
hilteko ustean.

14 Gizon dan danak dagoz
guztiz harrituta
euren buruko uleak
bere zuzenduta.
Pozik legokez eurak
zabalik jarrita
gauza itzalgarria
baleuke atrapauta.

15 "Altzau makilok eta
idigi atia
kenduten badeutsagu
horreri bizia".
Ondo estu egoan
han bere jentia
Peruri ipintearren
etxean bakia.

16 Sartu ziran gizon bi
atzeko leihotik
ateraten piztia
etxe bazterretik.
Urteten dau katuak
aurreko atetik
bere lapikotzarra
dabela burutik.

17 Urten eban aurrera
joten dau burdia
orduan amaitu zan
hango nahibagia.
Bazan ordu haretan
zantzo ta barria
ikusirik katuak
eukan arpegia.

18 Ez da sekulan entzun
halako gauzarik
katu baten bildurrez
gizonak jarririk.
Peru eta Maria
egozan zororik
honan geratu ziran
bazkari bagarik.

01. **Ule:** ile, adats.
Hartun eban: hartu zuten.
Maitiak: *maitia* behar luke, errimak plura eskatzen badu ere.
Kentzearren: kentzeagatik.
02. **Egoan:** zegoen.
Zuhur: zoli, argi, ernai.
Eukazan: zeuzkan.
Ete: ote.
03. **Solo bat hatxurtuten:** soro bat haitzurtera.
Itxirik: utzirik, lagata.
Lapikoa: eltzea.
Jagoten: zaintzen.
04. **Amatatu:** itzungi, itzali.
Eskatzeko: eskaratzeko, sukaldeko.
Gatzian zelan dagon: gatzean nola dagoen.
Onagaz: onez, onarekin.
05. **Erpetxu:** hatzapartxo.
Erpe: zenbait animaliren hatzazal kurba eta mehea.
Tapa: estalkia.
Eutsanean: zionean.
Gurari: nahikari, desira.
Okela: jaten den haragia.
06. **Eban:** zuen.
Jakon: zitzaion.
Egozan: zeuden.
07. **Eukan hak:** zeukan hark.
Lapikotzar: lapiko txit handi.
Itzala: izugarria, ikaragarri handia.
08. **Estu egoan larririk:** estu eta larri zegoen.
Ebilen: zebilen.
Izateagaz: izateaz, izatearekin.
09. **Gozaro:** gozo, gozoki.
Idigi: ireki, zabaldu.
Jausi: erori.
Zorura: behera, lurrera.
10. **Topau eban:** aurkitu zuen.
Atean aurean: atearen aitzinean.
Bategaz: batez, batekin.
Dehadarrez: deihadarka, oihuka.
Senarren eskean: senarraren bila, xerka.
11. **Erdu:** zatoz, etor zaitez.
Beharra itxita: lana utzita.
Zerren: ze, zerren, zergatik ze.
Arintxu: arin-arin, bizkor-bizkor, oso laster.
Ez bazatoz: heldu ez bazara.
Gagoz: gaude.
12. **Azartuten:** ausartzen.
Batzera: batzen, biltzen.
13. **Aldean:** norbere soinean, norberarekin.
14. **Bere:** ere.
Legokez: leudeke.
Itzalgarría: beldurgarría.
Baleuke: balute.
Atrapauta: hatzemandá, harrapaturik.
15. **Altzau:** altxa, jaso, gora.
Kenduten badeutsagu: kentzen badiogu.
Horri: horri.
Ondo estu: oso estu, erabat larri.
Han bere: han ere.
Ipintearren: ipintzearren, jartzeagatik.
16. **Urteten dau:** irteten, jalgitzen da.
Dabela: duela.
17. **Urten eban:** irten zen, jalgi zen.
Joten dau burdia: jotzen du gurdia, orga.
Nahibagia: nahigabea, samina, ondoeza.
Ordu haretan: tenore hartan.
Zantzo ta barria: oihu eta irria.
18. **Honan:** honela.
Bagarik: barik, gabe.

MUTILZAHARRA

(Ibaizabal. 16. zenbakia, 3-4 or. 1902ko Jorraila)

- 01 Mutilzaharren bizitza
nahi neuke nik jarri
gogoratzen bajako
neure buruari.
Erruki haunditxu bat
deutset nik hareri
zerren bizi direan
hain lastimagarri.
- 02 Berrogeti urterarte
dabil nobietan
sarritan egoten da
bide bazterretan.
Zuriturik bizarra
bere matrailetan
orduan geratzen da
ha erdi baketan.
- 03 Bere burua dago
beti amesetan:
Andra bat hartu banau
nik bere gaztetan
ez nintzen ez egongo
gaur modu honetan
lorik egin ezinda
hainbeste gaubetan.
- 04 Etxera doianian
su inguru hotza
hak larrituten deutso
apur bat bihotza.
Amak ipinten deutso
bekokia motza
eta horrez ganera
gela guztiz hotza.
- 05 Amari Jaungoikoak
deitzen deutsanean
orduan hasiten da
andragai atzean
ilargi beteagaz
buruen ganean
berari argi eiteko
gaubez doianean.
- 06 Emakume guztiak
dirautse arpegira:
mutilzaharra zara zu
ez naz zure gura.
Gaztea zinanean
ez zenduen gura
zu baino hobeagorik
joan da zerura.

- 07 Handik gora daukazu
ipuinak kontetan
inok entzun nahi badauz
edozein lekutan.
Auzoko andreari
dago kortejetan
gehiago atseginik
ez dau mundu honetan.
- 08 Bizarra zurituta
buruan kalbua
orduaz izaten da
haren akabua.
Edozeinek dirautso:
mutzilzaharra hor dua
horrek beorrek galdu dau
berorren burua.
- 09 Dauko hak gauza on bat
mundu honetarako
umerik ez daukala
prakak lohituteko.
Emazterik bere ez
dihadar egiteko
irabazten dabena
dana beretzako.

- 10 Koinataren bategaz
bizi da ha gero
dihadar egiten deutsa:
altza Prakabero!
Gosez beterik dago
beti berau gero!
Jango leuke baleuko
hainbat arto bero.

- 11 Diru apurtxuren bat
badauka etxean
bera ondo gorderik
bildurrez giltzean.
Lobak ibiltzen jakoz
beraren atzean
daukana kenduteko
engainau artean.



01. **Bajako:** bazaio.
Deutset: diet.
Hareri: haiei.
Zerren: ze, zeren, zergatik ze, bait.
02. **Nobietan:** nobia bila, andregaiaren xerka.
Matrail: masela, masail.
Ha: hura.
Baketan: bakez, pakean.

03. **Ames:** aments, amets.
Baneu: banu.
Nik bere: nik ere.
Gaubetan: gautan.
04. **Hak larrituten deutso:** hark larritzen, kezkatzen dio.
Apur bat: pixka bat, poxi bat.
Bekokia motza: kopeta ezaina, beko itsusia.

05. **Deitzen deitsanean:** deitzen dionean.
Beteagaz: betearekin.
Gaubez: gauetz. Mutzilzaharra, urteak joanda, burusoildua esan nahi du, burua ilargi bete bihurtua.
06. **Dirautse:** diotse, esaten diote.
Ez naz zure gura: ez naiz zure gale, zure egarri.
07. **Handik gora:** geroztik, handik aurrera.
Kontetan: kontatzen.
Badauz: baditu.
Kortejetan: kortejatzen, gortea egiten.
08. **Kalbua:** burusoila.
Akabua: azkena.
Dirautso: diotsa, erraiten dio.
09. **Dauko hak:** dauka hark.
Prakak lohituteko: galtzak zikintzeko.
Bere ez: ere ez.
Dihadar: deihadar, oihu, zarata.
Dabena: duena.
10. **Bategaz:** batekin.
Ha: hura.
Deutsa: dio.
Jango leuke baleuko: jango luke baleuka.
11. **Apurtxuren bat:** pixkatxoren bat, poxi-poxi bat.
Lobak: ilobak, seme-alabasoak.
Jakoz: zaizkio.
Engainau: enganatu, atzipetu.

GREGORIO MUJIKA

Ibaizabal aldizkariak, *Bertso-Batzaldia* izeneko atalean, noizean behin gai bat jartzen zuen eta jasotako bertso sortetatik bat edo batzuk sari-tu eta argitaratu egiten zituen. Hala, *Tanbolinteruen bizimodua* gaian, "...bialdu deuskuez Bizkaitik eta Gipuzkoatik ainbat bertso. Euroen artean bi dagoz ederto eginak eta biai lenengo saria emotea erabagi dabe batzaldiaren ardurea dauken jaunak. Bata da Bergarako Mujikarena, bestea Errenteria-ko Elizechea-rena".

TANBOLINTERUEN BIZIMODUA

(*Ibaizabal*. 10. zenbakia, 3-4 or. 1902ko Epaila)

01 Ez dago erregerik
ez erreginarik
Txanbolin baino hobeto
bizi diradenik.
Hitz laburretan bada
gura nuke hargatik
tanbolinteruaren
bizitza jarri nik.

02 Goizean jaikitzen da
deritxon orduan
astuntasun haundia
duala buruan.
Txit asko izan arren
alperrak munduan
txiki gelditzen dira
beraren onduan.

03 Hainbeste beldur urak
honi ematen deutsa
hargaitik arpegia
garbitzen da motza.
Esateak bakarrik
ematen deust lotsa
arpegi zikinakin
ein zuan ezkontza.

04 Gosaldutzeroa dua
arin tabernara
ardo txuriarekin
zerbait han jatera.
Ordu pare batian
ez da handik atera
paltatzen ez zaiola
baso ta platera.

05 Etxean izango da
gose ta negarra
ez dagola sarritan
sutako abarra.
Lapikua egosteko
paltako da garra
bera ondo izan ezkerro
jo dezala adarra.

06 Bere obligazioa
lehenbiziko dana
pozez pasako luke
beste batengana.
Euki ezkerro beti
jana ta edana
zergatik egingo du
behar barik lana?

07 Erromerietatik
ateratzen dana
arboladagatikan
hartuten duana
hainbeste diru dator
beti beragana
zergatik egitea
alperrikan lana?

08 Tabernarik taberna
txuritik beltzera
tanbolina hartuta
badua joteru.
Irrintz txarrak, txistuak
agitz ditu atera
arrio daramaten
burdien antzera.

09 Gabeko hamabitako
ordu goitik behetik
bere mozkorra ezin
disimulaturik
sartuko da txit zuzen
etxeko atetik
honla izan ta izango
da beti Txanbolin.

10 Alde tristea ere
badute munduan
nik sarritan ikusi
dodetan moduan.
Semeren bat hil arren
ta sartu zuluana
jo behar dute txistu
aintzen dan orduan.

11 Horra hitz neurtuetan
ongi edo gaizki
tanbolinteruaren
bizitza nik jarri.
Ta nahi badezu hobeto
jakin honen barri
galdetu aldameneko
taberneruari.



01. **Txanbolin:** danbolina jotzen duenaren
izen edo goitizena.

Gura nuke: nahi nuke.

02. **Deritxon:** deritzan, derizkion, iruditzen
zaion.

Txit asko: biziki anitz, arrunt asko, oso
ugari.

03. **Deutsa:** dio.

Motza: trebetasun edo antze gutxikoa,
ezteusa, ahalmen gabea.

Lotsa: ahalke.

04. **Arin:** azkar, lasterka.

Paltatzen ez zaiola: faltatzen, falta ez
zaiola.

05. **Lapikua:** eltzea.

06. **Behar barik:** behar gabe, premia gabe.

07. **Arboladagatikan:** badirudi *arbolada* hau
alborada izango dela, hots, eguna argi-
tzean jotzen den musika.

08. **Jotera:** jotzera.

Irrintz: irrintzi, irrintza.

Agitz: oso, arrunt, arras, biziki. Hemen
asko edo *anitz* zentzua dauka.

Arrio: arrioa, arreo.

09. **Txit:** agitz, oso, arrunt.

Honla: honela.

10. **Dodetan:** forma bitxia, *dot-det* gainjarri-
rik osatua.

Aintzen: agintzen.

JOSE J. ALBERDI

“Gaur amabost iragarri genduzan batzaldi bietatik lenengorako ainbat bertso etorri dira. Euren artean Bilboko Jose J. Alberdik eroan dau lenengo saria... Alberdiren bertsoak gaur doaz”. (Ibaizabal aldizkaria)

AGUAZILEN BIZIMODUA

(Ibaizabal. 12. zenbakia. 3-4 or. 1902ko Epaila)

01 Ez dau inok ezautu
munduan gizonik
aguazila baino
serioagorik.
Bere bekoki iluna
beti dago itzalik
bere ezpanetan ez da
ikusten barrerik.

02 Beste guztiok legez
baleuka barrea
laster galduko leuke
autoridadea.
Ta orduan zer litzake
hemen gertatzea?
Sustarretik galduta
soziedadea!

03 Sarjentoa dan legez
konpainia baten
bere eskuz dituela
soldauak zuzentzen
halantxe aguazilak
hirulau alkaten
indarrak eukiten dauz
herrian agintzen.

04 Bilbon daukaguz eurok
oso eder jantzirik
hain ondo dagoz eze
inoz baserritik
hona datorrenean
Praisku edo Txominik
txapela erazten deutse
gutziz izaturik.

- 05 Txakur amurratuak dira bigunakaz katu bildurtti batzuk barriz gogorraz. Amurruarren beti baserritarraz koipea langoexak señoquitoakaz.
- 06 Salgeiaz baserritik datozan neskatzak ipini daiezala kale ertzetan oinak. Laster botako deutse multea aguazilak ta multea gitxi dala agiraka txarrak.
- 07 Euskaldun huts garbi bat badator Bilbora ta ez dakiana doa hari itaundutera. Bruto, habla en cristiano dau erantzuera ta lebitatzardunak egingo dau bira.
- 08 Baserritar garbiak kalean gogaitu eskuko makiliaz mutilak uxatu. Hordi bat edo beste perrerara sartu aor bere eginkizunak nun diran amaitu.
- 09 Txanbolinen ganean egoala hautuan Bergarako Mujikak zirauskun lehenguan: "Txit asko izan arren alperrak munduan txiki gelditzen dira beraren onduan".
- 10 Ai Mujika, Mujika erdu hona Bilbora ta irakatsiko deusut ezautzen alperra. Txanbolinak lanean errimeak dira aguazilen ondoan ipinten badira.
- 11 Ikusten dira geldi kale bazterretan gorputza ezin eukirik kadera gainetan. Zirkinik egin barik hainbeste ordutan dirudie zurezko gizonak benetan.
- 12 Oraindino ez dabe egin inoz huelgarik aurrerantzean bere ez dago bildurrik. Orduak zelan kendu horren lanalditik? Ezin lei kendu ezer ez dagon lekutik.

- 13 Sari txikiegia daukela dinoe holangorik sekulan aitu ete dozue? Egiten dabena ba pagau leuskioe emonaz egunero hiru-lau botoe.
- 14 Belarrimotzak dira aguazil gehienak gauza horretan daukagu ondria euskaldunak. Alperkeriarako ez gara gu onak arlo hau luze egin da eta agur, gizonak!



01. **Aguazila:** udaltzaina, txinela.
Bekoki: kopeta, beko.
Itzalik: itzalita, itzalean.
Ezpanetan: ezpainetan.
Barrerik: irrik.
02. **Legez:** bezala.
Sustarretik: errotik, sustraitik.
03. **Halantxe:** halaxe.
Alkaten: alkateren, auzapezen.
Eukiten dauz: edukitzen ditu.
04. **Daukaguz:** dauzkagu.
Eze: ezen, ze.
Deutse: diote.
05. **Amurratuak:** amorratuak, amorrua edo errabia deritzon eritasuna dutenak.
Bigunakaz... gogorraz: bigunekin... gogorrekin.
Amurruarren: amorrutan, haserre bizian.
Langoexak: lakoxeak, bezalakoxeak.
06. **Salgeiaz:** salgaiarekin, saltzeko jeneroekin.
Daiezala: ditzatela.
Deutse: die.
Multea: isuna, diru zigorra.
Agiraka: errieta, haserre, akar.
07. **Itaundutera:** itauntzera, galdetzera.
Dau erantzuera: du erantzuna, ihardespena.
08. **Gogaitu:** aspertu.
Makiliaz: makilarekin.
Uxatu: urrunarazi, izutu.
Hordi: mozkor.
Perrera: udal ziega, udaletzeko koarteltxoa, udaltzainek atxilotuak gau baterako sartzekoa.
Aor: horra hor. Haserako bokala enfatikoa, indargarria da, bizkaieraz oso erabilia.
09. **Txanbolin:** danbolintariaren goitizena edo izenordea.
Egoala: zegoela.
Hautu: solas, berriketa.
Zirauskun: zioskun, esaten zigun.
Txit: oso, arras, biziki.
10. **Erdu hona:** zato hunat, etor zaitetz honera.
Deusut: dizut.
Errimeak: iaioak, trebeak, finak.
11. **Kadera:** zango, hanka.
Zirkin: mugimendu txiki-txikia.
Barik: gabe.
Dirudie: dirudite.
12. **Oraindino:** oraindio, oraino, oraindik.
Huelgarik: grebarik, lanuzterik.
Bere: ere.

Zelan: nola.

Horren: horrein, horien.

Ezin lei: ezin liteke.

13. **Daukela:** daukatela.

Dinoe: diote, erraiten dute.

Holangorik: honelakorik, horrelakorik.

Aitu: entzun.

Ete: ote.

Dabena: dutena.

Pagau leuskioe: paga lekieke, liezaiekete. *Leuskioe* ez dago zuzen. *Leikioe* behar luke.

Botoe: botoi.

14. **Belarrimotxak:** kanpotarrak, etorkinak izendatzeko ezizena.

Ondria: ohorea.

Arlo: alor, sail.

B

Bertso sorta honen izenpetzat B soil bat dator. Letra bat nahikoa dela pentsatuko zuen, ezezagun izatekotan.

EGUNSENTIA

(Ibaizabal. 2. zenbakia, 2. or. 1902ko Ilbeltzaren 12)

01 Egunsentia datorrenean dator poztasun handia. Nok adierazo zein ederra dan egusentiko argia?

02 Iratzartuten dauz txoritxuak zeintzuk dabilzan triskean adarrik adar arbolaburu orritsuaren gainean.

03 Eguzki aldera begiratuaz zoro dabilzaz benetan txorrotxioka diharduela alkarren leihan kantetan.

04 Perlak langoxe ur tanta polit biribil eta argiak jausi aginik zintzilik dagoz orri ertzetan jarriak.

05 Ibarra zehar bira biraka doian erreka-txarkua edonok uste izango leuke badala zidarrezkua.

06 Zeru urdinean sakabanaka geldi dagozan hodeiak eguzkiaren errainuakaz dirudie urre-mokilak.

07 Mendietako tontor gailurra pozarren dagoz itxaoten noz eguzkiak mosu laztan bat bialduko ete deutsen.

08 Sortalderantza zerua dago kolore gorritz jantzirik hara begira giza guztiak ez dau egiten zirkinik.

09 Ederra da bai ederra guztiz
benetan egunsentia
hain ederra ze bera azaltzeko
niri falta jat grazia.

10 Baina ederrago da mila bider
egunsentiko orduan
ohean egon luze ta zabal
goizaldeko lo gozuan.



01. **Egunsentia:** egunabarra, argi-hastea,
oilaritea.
Adierazo: adierazi.

Dagozan: dauden.
Errainuakaz: izpiekien.
Dirudie: dirudite.
Mokilak: mokorrak, sokilak, lurrezko
kozkorak.

02. **Iratzartuten:** itzar, atzar erazten, erna-
tzen, esnatzen.
Dauz: ditu.
Zeintzuk: erlatiboa.
Triskean: saltoka, jauzika, dantzan.
Orritsu: hostotsu.

07. **Pozarren:** pozaren pozez, biziki pozik,
arras kontent.
Itxaoten: itxoiten, itxaroten, zain.
Ete deutsen: ote dien.

03. **Diharduela:** dihardutela, ari direla.
Kantetan: kantatzen.

08. **Giza:** natura. Adiera hau paperak berak
dakar ohar gisa barrenean. Nahiko arbi-
trarioa noski.
Zirkin: mugimendu edo higidura oso txi-
kia.
Zirkinik ez egin: mugidarik txikienik ere
ez egin.

04. **Langoxe:** lakoxe, bezalakoxe.
Jausi aginik: jaustear, erortzeko zorian.
Zintzilik: dilindan, dingilizka.
Dagoz: daude.

05. **Ibarra zehar:** ibarrean zehar, ibarrean
barna.
Erreka-txarkua: erreka-
txarkua.

09. **Hain ederra ze:** hain ederra ezen, non.
Jat: zait.

06. **Sakabanaka:** han-hemenka, barreiatu-
rik, sakabanaturik.

10. **Mila bider:** mila aldiz.

TRUMON

Bertso sorta bitxi honek ez dakar izenburu horrexez beste identi-
fikaziorik.

TRUMON-EURIA

(Ibaizabal. Lehen zenbakia, 3. or. 1902ko ilbeltza)

01 -Hamen Mari Kurtzelu!
-Aor Tonto Lapiko!
-Tontoa nazala-ta
ez heuke ipiniko
horaitino hatzamar bat
neure hagin artean.
-Ay qué hombre tan lerdo!
-Hasten hazanean
erderaz inok ezin
euki lein barria.
-Otros eta hik baino
hobeto erderia
nik konprendietan dot
gizon txotxoloa.
-Halan uste don baina
hauxe don arloa
inoz berba bi zuzen
ezin entzun deunaz
nahi dala euskeraz izan
nahi dala erderaz.

02 -Si envidia zer ezkabi
el cabeza lo que es
igual igual que nabos
murri tendrías pues.
-Hori don erderia
eskabi ta murri
el cabeza...baina nok
aituko jon hori?
03 -Heure abueleari
hartuiok ulea
hi lango granujakaz
ezin denporea
emon neikek nik, vaya
qué pelagatua!
Hik erderaz zer dakik?
Bestelako astua!

04 -Ene mutilak, hau dok euskeria osterala!
Vaya pelagatua granuja, abuelea!
Ez haz Mari Kurtzelu baizik Mari Trauskil ta izen hori nahi ezik hartuin Mari Candil.

05 -Hartuko dodana dok eskoba mango bat ta beragaz el cuerpo berotuko deuat, txakurto sinberguentza borratxo, bergante lapur, saskel-ipurdi pikaro, tunante.

06 -Zaparrada galanta dihardun botaten hire ahoa langorik etxunat ezautzen. Mari-Candilen ordez esan leiken hiri beste izen egoki bat hau don, Mari-Txarri.

07 -Aurretik be ken hakit gizon deabrua galdu behar deust honek benetan burua.
-Ja, ja, burua galdu!
Galduta ez daukan, ba?
Ondino be gehiago galdu nahi don ala?

08 -Jesus, Jesus, hau zer da?
-Hau txarri emea!
-Arren isildu zaite.
-Nahi al don bakea?
-Ai Jaungoiko laztana!
-Badator negarra.
-Hiri zer egin deuat?
-Ez izan gangarra.

09 -Ez neban sinistuko gizon batek hori egin behar eutsala andrazko bateri.

10 -Aolan, aolan egin ein euskera garbia ta orduantxe izango haz andrazko maitia.
Ez lehen legez kurtzelu zahar baten antzera ez argi eta ez ilun egiten dabela.

11 Euskaldun ona izaten ahalegindu haite ta orduan esangunat neure maite maite.
-Maite maite bai, hau da, bestelango zera!
El que mejor te quieres llorar ya te hasera.

12 -Ostera be hasi gara erderakadakaz?
-Ez, ez, ahaztu egin jatak neure negarrakaz.
-Tire ba, aurrerantzean ez ahaztu gaurkoa eta agur, Kurtzelutxo.
-Juaite Jainkoaz.



01. **Hamen:** hemen.
Kurtzelu: kriseilu, olioiko edo petrolioiko argiontzia.
Aor: hor-en indargarria.
Lapiko: eltze.
Horraitino: esapide indargarria, interjekziozkoa, bai noski, ez noski edo horrelako zerbait adierazten duena.
Hatzamar: hatz, erhi.
Euki lein barria: eduki lezaken barrea, irria.
Konprendietan: konprenitzen, ulertzen.
Berba: hitz.
Deunaz: deunadaz, dizkinat.
Nahi... nahi: nahiz... nahiz, zein... zein.
02. **Ezkabi:** azaleko eritasun bat.
Aituko jon: ulertuko din.
03. **Hartuiolek ulea:** har izeaiok ilea.
Lango: lako, bezalako.
Emon neikek: eman nezakek.
Bestelako astua: aukerako astoa, askoz hobia. Interjekzio kutsuz doanean, esanahi positiboa darama, beti ere beste zerbaiten konparazioan. *Bestelako tokian bizi zara!* Hots, toki bikainean, kontextuko beste zerbaiten konparazioan. *Neguan bestela egoten da sutondoan!* Hots, kanpoko edonon baino hobeto.
04. **Ostera:** ordea, barren. Bakarrean, interjekzio gisa, *ostera* honek ezustea, ha-

rridura adierazten du: *holakorik, arraioa, zer diozu.*
Trauskil: baldar, zakar, itxura gabea.
Hartuin: har ezan.
Candil: kriseiluari dagokiona gaztelaniaz.

05. **Dodana dok:** dudana duk.
Beragaz: berarekin.
Deuat: diat.
Saskel: trakets, zarpail, zikin, arlote.
06. **Etxunat:** ez jonat, ez dinat.
Esan leiken: liteken, lekinake.
Hau don: hau da, hots, alegia.
07. **Be:** ere.
Deust: dit.
Ondino: oraindik, oraindio, oraino.
Nahi don ala?: nahi al dun, ba?
08. **Zer da... txarri emea:** hitz jokoa, gaztelaniazko *cerda-zer da.*
Haite: hadi.
Deuat: diat.
Gangarra: txolin harroska, buru gutxi eta bera erakusteko daukana. Oilarraren *gangar* edo *gangor*-etik.
09. **Eutsala:** ziola.
10. **Aolan:** *holan*-en indargarria.
Holan: horrela, honela.
Egin ein: egin ezan.
Legez: bezala.
Dabela: duela.

11. **Esangunat:** esango deunat, dinat.
Bestelango zera!: bestelako zera, a zer nolako gauza, bikaina horixe.
12. **Ostera be:** berriz ere.
Erderakadakaz: erdarakadekin.

Jatak: zaidak.
Tire ba: tira ba.
Aurrerantzean: hemendik aurrera, hon-taz aintzina.
Juaite: juan haite, joan hadi.

Sorta hau, bistan denez, ez dago ahapaldika egina, dena jarraian baizik, oinak binaka errimatuz, Bizkaiko tradizioaren arabera. Zenbaki-tzea eta ahal zirenak zortzikotan jartzea neure kontua izan da.

JON AIZKIBEL

Bere izen-abizenez beste nortasun daturik ez daukat gizon honetaz.

ABERRIA

(Aberri 1907. Irailaren 28, 72. zenbakia)

01 Asabeak jaio ta
hil ziran tokia
geuri emonik odol
ele ta lagia
etxe, solo, baso ta
ahal eben guztia
leku hauxe dok, anai
gure aberria.

02 Ixen gozo ederra
guztiz maitatua
eta geure bihotzen
barruan sartua.
Euskadi, zu zara bai
guretzat lekua
guretzako zeu zara
ludiko zerua.

03 Aldendu jakulako
asaben lorratza
hausirik dauko zure
burdiak ardatza.
Barria sartu arte
hau da zama latza
baina zoragarria
Amaren ugatza.

04 Zu zara gure Ama
geu zure semiak
betorkiguz zugaitik
lan eta nekiak.
Zure hatxetan sarri
joten dauz gosiak
aske bixitiarren
arrano hoskiak.

05 Geure lanakin eta
Jaunaren eskerrez
etxe, ola ta txadon...
jauregi ederrez
bete da lur hau nekez
aiztuteko errez
aiztu baino lehenago
hilgo gara berez.

06 Aberats edo txiro
lehor eta itxaso
ura ta laidak legez
aran, mendi, baso...
asabaren hobiak
nork aiztu erazo
euretan dauan hautsa
bagendun guraso?

07 **Haitz** eta mendi gatzak
itxaso deungia
ibar, zelai, aranak
lau askon eskia.
Baina guk ez dogu nahi
beste bat hobia
guretzako berau da
hain herri maitia.

08 **Eguzkia** bebilgu
sarritan kukuka
malko darioela
hodeiak uluka.
Alditxu onak beti
txarrakin burruka
holantxe bere berton
nahi du geure buka.

09 **Arrainak** ura nahi dau
txoriak alea
eta gure Aberrik
beren bixitzea.
Bixi bihar dozula
harturik arrea
hartu egixu zeure
semien opea.

10 **Betoz** atsekabe ta
deungaro esanak
jarki guztiak betoz
betoz neke danak.
Espetxe ta herbeste...
nahi dituezanak
seme baten hutsik ez
horrekaitik Amak.

11 **Bihar** bai dozu zeure
semien odola
pozarren iminiko
dozu dariola.
Ibaietan eginik
odolaz ujola
agindu Aberria
guri noiz ta nola.

12 **Egiak** lez guzurrak
onak legez txarrak
eskubide guztiak
daukaz gaur indarrak.
Eskubide deunakin
ia Euzkotarrak!
Batera nahi bestera
gora Lagi Zaharrak!



01. **Asabeak**: asabak, arbasoak, aspaldiko
gurasoak.
Ele: hitza, hizkuntza.
Lagia: legea.
Eben: zuten.
Dok: duk.
02. **Ixen**: izen.
Ludi: mundu, lur.

03. **Aldendu jakulako**: urrundu, desagertu
zaigulako.
Lorratza: aztarna, arrastoa.
Ugatz: bularra, bularreko esnea.
04. **Betorkiguz**: betozkigu.
Hatxetan: haitzetan.
Sarri: maiz, anitzetan.
Joten dauz: jotzen ditu.
Hoskiak: hots egileak.

05. **Txadon**: eliza.
Nekez aiztuteko errez: nekez errez
ahaztekoa, nekez ahaztekoa.
06. **Txiro**: pobre.
Laidak: hondartzak, hareatzak.
Hobiak: hilobiak.
Erazo: erazi.
Dauan: dagoen.
07. **Gatzak**: zailak, malkarrak.
Deungia: gaiztoa.
Lau: lautada, zelai. Badirudi lau askoren
eskea esan nahi duela, hots, zelai edo
ordeka gutxi dagoela.
08. **Bebilgu**: bebilkigu.
Alditxu: aldi, aldikada, bolada.
Holantxe bere: honelaxe ere.
Nahi du: nahi dogu.
Geure buka: geure azkena, bukaera.

09. **Alea**: kanpoa, landa zabala.
Beren: beraren, bere.
Arrea: erabakia, aurrerako abioa, arre
oihuak animaliei eragiten diena.
Egixu: ezazu.
Opea: opa, oparia. Baita desira edo gogo
ona ere.
10. **Deungaro**: txarto, gaizki.
Jarki: jarkipen, aurkako eraso.
Dituezanak: dituztenak.
Horrekaitik: horiengatik.
11. **Iminiko**: ipiniko, jarriko.
Ujola: uhola, uholdea.
12. **Lez**: legez, bezala.
Daukaz: dauzka.
Deunakin: santuekin.
Nahi: nahiz, zein.

KIRIKIÑO

Ebaristo Bustintza Lasuen, Kirikiño izenordez ezaguna, Mañarian jaio zen 1866an eta 1929an hil. Madrilen matematika eta fisikan lizentziaturik, Guadalajaran irakasle egon zen.

Gero, Euskal Herrira itzulirik, idazlerik oparoenetakoa eta eragile-rik handienetakoa izan zen. Hizlari bezala ere ospe handia lortu zuen euskal jaietan eta mitinetan. Eta bertsoetan ere utzi zuen bere marka.

EGUR HANDI BATEGAZ

(Bizkaitarra. 2. urtea. 102. zenbakia)

01 Egur handi bategaz
hor dator Moyua
berotzen dan ederto
Erpulkikanua.
Baita beronen lagun
dan zozolistua
ubel ubel eginik
euroen lepua.

02 Arrantzaka hasi dira
larri Madridera
ezin daitekezala
bixi horretara.
Eta datoz agudo
euroi laguntzera
Sorijano ta lagun
batzar bat eitera.

03 Eurokaz ei dakarre
Etxebarrijeta
batzarran zer eiteko
ez dau buruik eta?
Honexi esan leio
Txotxo Dirubeta
dirurik ez baleuko
elitxake ezer_tta.

04 Baina Moyuak dino
egurra jasorik:
Betoz gura dabenak
ez dago bildurrik.
Canalejasek ez ba
nau isten bakarrik
Sorijano ta horrek
eihoko dodaz nik.

05 Hemen gagoz guztiok
poztasun bixian
zer jazoko ete dan
euroen artian.
Oin arte ibili dira
laguntasunian
eta oraintsu dira
hasarre gorrian.

06 Txinelen jaurtitiaz
hartu dabe sua
baina hortik ez dator
horren amorrua.
Eurena gura dabe
aiuntamentua
sarturik Acevedo
ta Perezagua.

07 Bardin dira guretzat
batzuk nahiz bestiak
hor alkar apurtuko
ahal dira guztiak.
Baina piztiaie nekez
oratu piztiak
zeregin emongo dau
ondo ezkertiak.



01. **Bategaz:** batekin.
Zozolistua: sozialista.
Ubel: morea, kolpe edo hotzaren ondo-
rioz azalean sortzen den kolore iluna.
Euroena: berauen.
Lepua: bizkarra.
02. **Daitekezala:** daitezkeela.
Horretara: horrela, era horretan.
Agudo: azkar, fite.
03. **Eurokaz:** berauekin.
Ei dakarre: omen dakarte.
Honexi esan leio: honixe, beroni esan
lekiok.
- Txotxo:** mutiko bati deitzeko hitza. Bai-
ta haurtxo txikia ere. Hemen izen ironi-
kkoa, Dirubeta dirutik harako abizena
delarik. Era horretan, Txotxo asko erabil-
tzen da edo erabil daiteke: Txotxo Ba-
riku, Txotxo Matraka, Txotxo Baleuko
(baleuka), Txotxo Lorrin, Txotxo Barri-
tsu, Txotxo Misterio, etab.

- Elitxake:** ez litzateke.
04. **Dino:** dio, erraiten du.
Gura dabenak: nahi dutenak.
Isten: uzten.
Eiho: eho, xehatu, txikitu.
Dodaz: ditut.
05. **Gagoz:** gaude.
Jazoko ete: gertatuko ote.
Oin: orain.
Oraintsu: berriki, duela denbora gutxi.
06. **Txinel:** udaltzain, agoazil.
Jaurtitiaz: jaurtitzeaz, bidaltzeaz, bota-
tzeaz.
Dabe: dute.
Horren: horrein, horien.
07. **Ahal:** desira edo itzaropena adierazten
duen partikula.
Oratu: heldu, atxiki.
Oindo: oraindio, oraindik, oraino.

EZ DA HILGO

Apala dana jasoia izango da, jagia dana eratsia. Zorionekoak baketsuak.

01 Ekatz gogorrek jaurti ebazan
lurrera zugatz tantaiaik
zutunik baina gera zirean
bedar txikitxu me_meiak.

02 Beren trokatik urten ezinik
bildurrez gora beheraka
itxaso zabal sakona ebilen
bitsez beteta orroaka.

03 Baina igaro zan haize gogorra
errekaxoen artetik
tximur ederrez ziamartuaz
leiardun urak ganetik.

04 Oineztu bizkor hondatzaileak
jo dabez mendi gangarrak
euren argiaz alaitu dira
beian dagozan ibarrak.

05 Amildu dira goitik ebilzan
ur harroki ta astinduak
jausi ta gero hor doaz beheruntz
bilatzen troka itzaltsuak.

06 Ahonetan otzan dagozanean
zeruragino badoaz
lurrin eginik eguzki ederrak
baltzen daben beroaz.

07 Ur da tximista, haize ta eguzki
guztiak langin azkarrak
zati eginda behera ekarteko
gailurretako labarrak.

08 Honen hondakin apur haustuai
trokan emonaz hobia
bete gizendu, goratuteko
ibai ondoko zelaia.

09 Ezetaldian gizon jagiak
gorantza joaten dira
sarri, sekulan itxiko ez daben
izugarritzko tokira.

10 Ezetzak barriz hondatzen ez dau
apal, gaiso ta txikirik
zerura bide goruntz daroaz
beren sorbaldan jarririk.

11 Iluntzan dabil Txerren gaiztoa
jaso ebalako burua
Jaunan aurrean makurtu zan da
zeruan dago aingerua.

12 Euren ahalmena nun zabalduko
artega ebilzan herriak
Nun dira baina? Zer egin jake?
Haustuta dagoz guztiak!

- 13 Ehunkidetako haize sendoak ezereztu dauz Persia Kartago, Erroma, Sidon da Tiro Godoak eta Grezia.
- 14 Inor mendetu nahi izan ez daben gure Euskal Herri maitea kondaira aurretik etorten dakust itzali baga izatea.
- 15 Etorkizunak beren altzoan dakazan ekatx garratzak itxiko deutse, triminduteko dierri lapur zikotzak.
- 16 Neure Sorterri bakezalea goruntza jaso bihotza lehenago hilgo da zu ostikopean gaur zarabilzan arrotza.
- 17 Gorde eizuz, Ama, ekandu onak jarraituteko Jaunari gorde eizu, Ama, hizkuntza zaharra zor deutzazuna berari.
- 18 Eskatu, Ama, Jaungoikoari lokabe zaharra zeurea eskatuiozu honez ganera beti betiko bakea.
- 19 Horretara, Ama, iraungo dozu oin arte legez aurrera ta zure etsaiak bigundu ezik joango dira lurrera.
- 20 Halan izan dain eskatu daigun bihotzak gora jasorik batera, geldi ez daitela egon Euskal Herrian besorik.



Jagia: burugoia, harroa.
Eratsia: eraitsia, jaitsi arazia, beheratua.

01. **Ekatx:** ekaitz, denborale.
Jaurti: aurtiki, iraitzi, bota.
Zugatz: zuhaitz.
Zutunik: zutik.
Gera zirean: geratu, gelditu ziren.
Bedar: belar.
Me-meiak: mehe-meheak.
02. **Beren:** beraren, bere.
Troka: sakosta, lurraren beherakada sakona.
Ebilen: zebilen.
Bitsez: aparrez.
03. **Igaro:** iragan.
Ziamartu: marraztu, irudiak egin.
Leiardun: kristaldun, kristalezko.

04. **Oineztu:** oinaztu, tximista.
Dabez: dituzte.
Gangarrak: gailurrak, erpinak, tontorrak.
Beian dagozan: behean dauden.
05. **Ebilzan:** zebiltzan.
Harroki: harro, astin, belaki antzeko.
06. **Ahonetan:** honetan. Aurreko *a* bokal hori enfatikoa da, Bizkai aldean oso erabilia: *ahor ba, ahorra, aholan* etab.
Zeruragino: zeruraino.
Daben: duen.
07. **Langin:** behargin, langile.
Labar: haitz bertikalki ebakia edo oso erripea. Hemen haitzean behera erori ohi den harri xehea.

08. **Apur haustuai:** apurtu eta hauts bihurtuei.
Hobia: lurreko zulo edo barrunbea, batez ere hilobia.
09. **Ezetaldi:** okerraldia, kontrako aldia, gauzak aldrebes doazen bolada.
Sarri: sarritan, maiz, askotan.
Itxiko ez daben: utziko ez duten.
10. **Ezetzak:** kontrakarrak, kontratasunak.
Daroaz: daramatza.
Beren: beraren, bere.
11. **Iluntzan:** ilunpean, iluntasun handian.
Txerren: deabru.
Ebalako: zuelako.
12. **Artega:** larri, urduri, ezinegonez.
Jake: zaie.
13. **Ehunkide:** mende.
Dauz: ditu.
14. **Mendetu:** menperatu, azpiratu.
Kondaira: historia.
- Dakust:** ikusten dut.
Baga: bage, gabe.
15. **Altzoan:** magalean.
Dakazan: dakartzan.
Itxiko deutse: utziko diote.
Trimindu: jota txikitu, birrindu.
Dierri: nazio.
Zikotz: zikoitz, zeken.
17. **Eizuz:** itzazu.
Ekandu: ohitura, usadio.
Eizu: ezazu.
Deutzazuna: diozuna.
18. **Lokabe:** askatasuna.
Eskatuiozu: eskaiozu, eska iezaiozu.
19. **Horretara:** horrela, era horretan.
Oin: orain.
Legez: bezala.
20. **Halan izan dain:** hala izan dadin.
Daigun: dezagun.
Ez daitela: ez dadila.

GAZTE ETA ZAHARRA

(Ibaizabal, Durangaldeko aldizkaria, 1979, 4. zenbakia, 21. or. Baita Ibaizabal Bilboko gerraurrekoa, 84. zenbakia, 3. or. 1903ko Agorrila. Hemen izengabe datoz)

Gaztea:

- 01 Hemen gara etorririk guztion aurrera bertsoetan nagusi zein dan ikustera. Hitz alperreko barik goiazan sailera ta ikusi nok saria daroian etxera.

Zaharra:

- 02 Konpañero, uste det dala egokia edukazinoi ona ez bada faltia errespeto guztian saludatutzia aiuntamentu eta publiko maitia.

G.

03 Hori ez dala ondo
ez dot esango nik
baina bai esango dot
guzurra esan barik
bertso hori daukazula
zeugan antxinatik
eta orain ez dozula
atara burutik.

Z.

06 Egiak esan leikez
asko modutara
baina burdia ez daigun
bidetik atara.
Zeure pentsamentua
emoizu argitara
egun onak ematen
bildur ete zara?

Z.

04 Pentsamentu txar hori
ein dozu lijero
zuzenduko dozula
laster dot espero.
Ez zera, gazte, izango
inoiz kaballero
errespetoa zaharrai
behin galdu ezkeru.

G.

07 Bildur izateko da
onak emotea
eta txarrak noberen
aldean istea.
Geure buruak lehenen
maite izatea
lege dogula eukiko
dozu entzutea.

G.

05 Egiaz inoz ez da
lotsarik galduten
zure lehengo bertsoa
agurra egiten.
Bertsolariakandik
sari dot entzuten
gizona, jardun bertso
barriak neurtuten.

Z.

08 Kontestetan deustazu
zelebrekerian
hitz egin behar degu
formalidadian.
Kontu euki dezagun
gure memorian
autoridade jauna
daukagula aurrian.

G.

09 Ez baneuz daukadazan
erderan apurrik
ez neukez ulertuko
nik zure bertsoak.
Erdiak euskera da
erderaz erdiak
ez arrain ez haragi
dira behintzat eurak.

Z.

12 Ni ixiltzekorik ez da
oraindik jaio
bota dozun ezkeru
horla desafio
ikusitako hehar dogu
nor garian gehio
ez dot uste nazarik
zu baino gitxio.

Z.

10 Gaztetxoa zara zu
mais izateko
euskaria nekian
zu jaio ordurako.
Badozuz lezinoak
gorde zeuretzako
bada zedorri jatzuz
akaso faltako.

G.

13 Ez ixiltzeak ez dau
ezer esan gura
garbiak egiteko
behar da ganora.
Baita eta politak
horrezaz ganera
zetarako bertsoak
trauskilak badira?

G.

11 Ez egitera balitz
erderaz berbarik
ukatu eragingo
neuskizu laster nik.
Berihala zeunkake
iturria agorrik
ta laster baino laster
geratu ixilik.

Z.

14 Ganorazko bertsoak
nok eiten dituen
kasualmente degu
zeinek esan hemen.
Alkate jauna hor dago
gure buru egiten
ta publiko maitia
bertsoak entzuten.

G.

15 Itaunetxu bat zuri
noa egitera
kasualmente hori
nungo berbea da?
Bizkaitar, kiputz edo
nungoa da bera?
Jokatuko neuskizu
Burgoskoa dala.

Z.

16 Formalidade gitxi
da erakustia
holango preguntakaz
hemen ibiltia.
Horretara lijero
mina erabiltia
konozidu leiteke
zerala gaztia.

G.

17 Formalidade lehenen
da gero pregunta
konozidu lijeron
aurrean jarrita.
Hori ete da gizon
formalen berbeta?
Zu langoakaz dago
euskeria galduta.

Z.

18 Euskerien ganean
niri destrainia
zelan botako zabiz
larregian ia.
Ni langoakaz bada
galdu euskeria
zu langoak bai dabe
galdu kriantzia.

G.

19 Gizona, berba txarrik
ez deusut zuzendu
horretara aurrekoa
zegaitik iraindu?
Dinozun kriantzia
baldin badot galdu
deritxot ez dozula
ondino zeugandu.

Z.

20 Umekin batzen danak
berak du kulpia
aterako dau beti
mantxauta erropia.
Edukazinoiena
badozu premia
hau ikasita gero
etorri zaitia.

G.

21 Behar dan hazikera
eraz irakatsi
behar deusala nago
zaharrak gazteari.
Irakasteko baina
behar da ikasi
ta zuk ez dozu bera
sekulan ikusi.



01. **Barik:** bagarik, gabe.
Goiazan: goazen.
Sailera: arlorra, dagokion lanera.
Daroian: daroan, daraman.
02. **Konpañero:** lagun, adiskide.
Edukazinoi: edukazioe, edukazio.
Faltia: falta, hutsa, akatsa.
Saludatutzia: agurtzea, salutatzea.
03. **Antxinatik:** aspalditik, duela anitz denboratik.
04. **Lijero:** arin, azkar, fite.
Kaballero: zaldun, jaun.
05. **Egiaz:** egiarekin.
Lotsarik: ahalkerik.
Bertsolariakandik: bertsolariengandik.
Sarri: sarritan, maiz, askotan.
06. **Leikez:** litezke.
Ez daigun: ez dezagun.
Emoizu: emazu, eman ezazu.
Ete: ote.
07. **Noberen:** norberaren, norbere, bat berderaren.
Aldean istea: alderdian, partean uztea, lagatzea.
Eukiko dozu entzutea: edukiko duzu aditzea, entzuna izango zara.
08. **Kontestetan:** kontestatzen, erantzuten, ihardesten.
09. **Ez baneuz:** ez banitu.
Daukadazan: dauzkadan.
Erderan apurrak: erdararen pixkak, poxiak, dakidan erdara apurra.
Ez neukez: ez nituzke.
10. **Jatzuz:** zaizkizu.
11. **Ez egitera balitz erderaz barbarik:** erdaraz hitzik ez egitera jokua balitz.
Ukatu eragingo: uka eraziko.
Ukatu: lurjo, pot edo porrot egin, gehi-go ezinean gelditu.
Neuskizu: nizuke.
Zeunkake: zeneukake, edukiko zenuke.
12. **Horla:** horrela.
Garian gehio: garen gehiago.
Gitxio: gitxiago.
13. **Gura:** nahi.
Ganora: jas, egokiera, funts, kanore.
Horrezaz ganera: horrez, hortaz gainera.
Trauskilak: zaskarrak, baldarrak, itxuragabeak.
14. **Kasualmente:** hain zuzen, halabeharrez.
Buru egiten: nagusi lana egiten.

15. **Itaune:** itaun, galdera.
Noia: noa.
Berbea: elea, hitza.
16. **Preguntakaz:** itaunekin, galderekin.
Mina: mihia.
Konozidu: ezagutu, antzeman, igarri.
17. **Berbeta:** hizketa, mintzaira.
Langoakaz: lakoezin, bezalakoezin.
18. **Euskerien ganean:** euskararen ganean, euskara dela bide.
Destrainia: destaina, arbuioa, erdeinua, meziprezua.
Zelan botako zabiz: nola botako pentsatzen zabilta, ari zara.
Larregian ia: ia gehiegi, kasik neurritik gora.
Bai dabe: bai dute, bai dutela.

Kriantzia: gizalegea, gizabidea, jendetasuna.

19. **Ez deutsut:** ez dizut.
Horretara: era horretan, horrela.
Dinozun: diozun, erraiten duzun.
Deritxot: deritzat, iruditzen zait.
Ondino: oraino, oraindio, oraindik.
20. **Umekin batzen danak:** umeezin, haurrekin biltzen, juntatzen denak.
Kulpia: kulpa, errua.
Mantxauta: orbandurik, zikindurik.
Erropia: arropa, jantzia, soinekoak.
Zaitia: zaitetz.
21. **Hazikera:** hazkuntza, hazteko era edo modua.
Eraz: erara, ongien dagokion moduan, alde onetik edo errezetik.
Deutsala: diola.

Bertso sorta honek argi dago bi bertsokera edo euskara molde kontrajarri nahi dituela, bata garbia eta bestea mordoiloa edo gaztelaniarekin nahasia. Baina bitxi da kritikatu nahi duen hizkera gizon zaharraren ahoan jartzea, gehienez alderantzizkoa itxoiten bait da. Aldizkarian ustez gaitzesteko lirategien hitzak letra kurtsiboz markatzen dira: *konpañero, edukazinoi, espero, kaballero, kasuamente, lijero, akaso, mantxauta*, etab. Ohartzekoa da hauen artean datozela: *errespeto, publiko, pentsamentu, zelebrekeria, faltako, faltia* etab. Gainera, hitz hauekin batera, demakide zaharrak, gipuzkerazko formak ere sartzen ditu, gehiena bizkaieraz egiten duen arren. Eta azkenik, lexikoa alde batera utzita, aipagarri da euskara ustez mordoiloazko bertsoak besteak baino naturalago eginda dardela. Ala gaztelaniazko hitz horiengatik iruditzen ote zaizkit naturalago? Hala balitz, neu ere nahiko mordoilotua nago.

LUKEN MONASTERIO URIARTE

Bizkaitarra aldizkarian honela sinatzen duela beste daturik ez daukat gizon honetaz.

ARRANTZALIEN BIXITZEA

(*Bizkaitarra*. 1912-9-14. 195. zenbakia. Hemen halaber uztaileko 20. *Euskaria* asterokotik hartuak direla dio.)

- | | |
|--|---|
| 01 Goxian goiz ogetik jagirik
itxasorako asmuaz
arrantzaliak ilargiaren
argitasunian duaz. | 05 Besapian be otzaratxu bat
zueza buru gainian
esku batian jake narrua
zolja barriz bestian. |
| 02 Marierdikuaz mutil gaztiak
euren indarrakin didar
egiten dautse arrantzaliei
ogetik jagi deixen azkar. | 06 Oinetan dituz ur bota astunak
ta galtzak olanazkuak
eta neguan goxeko hotzak
tximurtzen dautsoz eskuak. |
| 03 Luken, Andoni, Txomin, Julian
itxasorako sasoi darian
didar eginik etxeko atian
goxian goiz bai benetan. | 07 Bere etxetik ur ertzeraino
euren botak bilin balan
gero untzian juaten dira
tertzak errietera kaian. |
| 04 Arrantzaliak ogetik jagirik
hartzen dau tertza, trabola
baita be bere lepuan
eskeiten dau kordela. | 08 Kala barritik kala txikira
goiko kalatik barrura
hauze da gure arrantzalien
betiko ibili biharra. |

09 Arrantzalien biximodua
bixitzarik itxelena
goxian jua gabaz etorri
beti itxasuan zer lana!

10 Lihortar danok ez dakixue
itxastarraen bixija
ikusi barik ezin lei jakin
arrantzalien barrija.

11 Iperra eta herriko haxe
galarrena-edo danian
arrantzalien andra ta seme
dagoz negarrez etxian.

12 Geure aita! diñue seme-alabak
Neure senarra! andreak
Itxastarraen bixi itxela!
diñue lihortar guztiak.

13 Emazte, seme eta alabak
joanik Donibanen aurrera
eskatzen deutse Deun onari:
ekarri beiz lihorrera!

14 Oh Deun ona, gaurtik aurrera
egin bei berorrek ahalegin
arraina sarri ekarteko ta
beti bakia Euskadin.



01. **Goxian:** goizean.
Jagi: jaiki.

02. **Marierdikuaz:** marierdikoarekin.
Marierdiko: soldata eta mantenu erdia-
ren truke dabilen untzimutla.
Didar: deihadar, oihi.
Dautse: diete.
Deixen: daizen, daitezen.

04. **Tertza:** subila, arrantza aparailuko soka
luzea, bertatik amuak eskegitzekoa.
Trabola: traola, aparailua biltzeko zu-
rezko laukia.
Eskeiten: eskegitzen, zintzilikatzen.

05. **Otzaratxu:** saskito, otarretxo.
Zueza: ez dakit zer den.
Jake narrua: larruzko jakea, jaka.
Zojja: aparailuak uretatik tiratzean, un-
tziaren karelari jartzen zaion babeski li-
zarrezko, banbuzko edo plastikozkoa.

06. **Galtzak:** galtzerdiak.

Olana: oiha gogor eta sendoa, aterpeak
egiteko eta abar.
Tximurtzen dautsoz: zimurtzen dizkio.

07. **Errietera:** erriatzera.
Erriatu: jarein, askatu, hedatu.

09. **Itxelena:** itzalena, izugarriena, neurriga-
beena.

10. **Barik:** gabe.
Lei: liteke.

11. **Iperra:** ifarra.
Herriko haxe: herriko haize, hego hai-
ze.
Dagoz: daude.

12. **Diñue:** diote, erraiten dute.

13. **Dautse:** diote.
Deun: santu.
Beiz: bitza.

14. **Bei:** beza.
Sarri: sarritan, askotan, maiz.

JUAN ZARAKONDEGI

Bertso hauek Basarrik, 1962ko martxoan, *Arantzazu* hilerokoan argitaratuak direla dio A. Zavalak, eta Basarriren azalpena transkribatzen du. Basarrik Bilbotik gutun bat hartu omen zuen, Nevada aldean artzain egondako bizkaitar batena. Honek zionez, ba omen zeukaten, han ibili ziren denboran, Juan Zarakondegi izeneko mutiko bat, bizkaitarra hura ere, ogia baino hobea, bertsolari abila eta euskalzale sutsua. Ea ingurukoa ote zen errezeloa agertzen du gutungileak eta hark egindako bertsoak -hogeita hiru ahapaldi- bidaltzen dizkio Basarri. Honek, denak argitara-tzea luzetxo litzakeela-ta, atseginen iruditu zaizkionak ematen ditu, iruz-kin hau erantsiz: "Nevada'ko artzai bizkaitar onek badu bertsolari sena; gatza ta piperra badira beregan".

BERTSOAK JARTZEN NOIA

(Ameriketako bertsoak. A. Zavala. *Auspoa* 176. 123-126 or.)

01 Bertsoak jartzen noia
entretenuidiaz
a zer kontuak diran
Amerikan gugaz.
Gomutatzen gera lehen
pasatutakuaz
erdi tonto urteak
hemen badijuaz.

02 Batzuek ardietan
besteak hor minan
Amerikak izena
ona du Espainan.
Kaskabelen soinu
sarri hemen eskinan
ez gera kabalduko
lehen zoro baginan.

03 Bizi honek badauka
gazte denbora antza
legoi eta katuak
eiten dabe dantza.
Koioteak gabero
beti dabe arrantza
Euskal Herritik hona
badago mudantza.

04 Basahuntzak hor saltoka
erreka eskinetan
zer bailiak doguzen
pesta egunetan.
Azkonarrak purrustaz
zulo guztietan
beste zaratik ez da
hemen auzuetan.

05 Trumoi eta oinezuz
txispak eta garrak
elur eta haizeak
baditu indarrak.
Koiote antsi honek
balitzaz dolarrak
aberatsak ginake
Ameriketarrak.

06 Zer bait egitekotan
badegu adina
orain saia beharko
hemen ahalegina.
Amerika kaskoan
sarri haize fina
ez gendun ezer galtzen
etorri ez bagina.

07 Egiten ez banabe
arbolan esegi
urte bat edo bian
hemen nahi det segi.
Bat guzurra badinot
hiru dira egi
ixiltzera dijoa
Jaun Zarakondegi.



01. **Jartzen noia:** jartzera noa.
Entreteniduaz: entretenuz, entretenu-
gari gisa.
Gugaz: gurekin.
Gomutatzen: gogoratzen, oroitzen.
Badijuaz: badoaz.

02. **Minan:** meategian, meatzean.
Kaskabelen: kriskitinsugeen.
Sarri: maiz, askotan, aunitzetan.

Eskinan: bazterrean, alboan.
Kabaldu: zentzuneratu, zentzuzko bihur-
tu.

03. **Legoi:** lehoi.
Eiten dabe: egiten dute.

04. **Bailiak:** dantzaldiak.
Doguzen: ditugun.

05. **Oinezuz:** tximista, ihortziri.

Txispak: txinpartak, pindarrak.
Antsi: ulu, oihu.
Balitzaz: balira.

06. **Kaskoan:** tontorrean, gailurrean, goial-
dean.
07. **Esegi:** eskegi, zintzilikatu, dilindan jarri.
Badinot: badiot.

“Bizkaitarra izanik, bizkaieraz jarritako bertsoak dira” -dio Basarrik. Gero berriz gizpuzkerazko formak ere hainbat ageri dira: *gera, du, denbo-
ra, elur, degu, det...* Bertsolariak hala jarriak ala geroko eskuren batek
alduatuak ote dira? Eta garrantzitsuena litzatekeena, bertso sorta osoa non
aurkitu ote liteke?

INAZIO ZABALENA «XERENDIETA»

Gernikako Julio Bareñok A. Zavalari, bertsoekin batera, argibide hauek bidaltzen dizkio: "Lexartza'ko Juan Goiriena'k eta Aulestia'ko Andres Uriguen'ek Mendata'ko eleizaldian izan eben jokoaren Bertso Berriak. Bertsolaria Iñaxio Zabaleña *Xerendieta* izan ei zan". A. Zavalak talemalez bertsolari horretaz ezer ez dakiela dio. Nik ere ez.

MENDATAKO PALANKA JOKUA I

(Euskal jokoak bertsoetan (II). A. Zavala. *Auspoa* 183. 47-49 or.)

- | | |
|--|---|
| 01 Sugertie bota eben
aurretik zein hasi
Aulestiarrek egin eben
hori irabazi. | 05 Euren mutil eder hori
lastimez agertu
kontrarioa ezautu barik
oraindik gelditu. |
| 02 Hagaitik egin ziran
a petxutik hasi
eurok izatekotan
markiaz nagosi. | 06 Edadien konforme
gorputza polite
hain da mutil ederra
begira egon leike. |
| 03 Ikusi ebenian
borrauta markie
orduaz zarratu jakuen
piska bat argie. | 07 Azala urdine
gorputze sotle
Nariarrak hazi dabe
ederra mutile. |
| 04 Aulestiarrek egin eben
sentimentu hartu
hiru puntuarekin
atzetik gelditu. | 08 Geldirik egon balire
baipiska batien
urtetxu bat edo bi
igaro artien. |

09 Biak joango zirian
irabazteko ustian
desgrazi bat pasau da
horregaz Aulestian.

10 Aprilaren erdian
bai hamabostian
Mendatan jokatu zan
mezien ostian.

11 Mendatara batu ziran
hiru palankari
Juanek bota eta
sakristauak ekarri.

12 Felipe Urrutxua
aurrian zoztrari
barre egiten zion
hirurak alkarri.



01. **Sugertie bota:** zotz egin.
Eben: zuten.

02. **A petxutik:** gogotsu, ahal osoan. Gazte-
laniazko *a pecho*.
Markiaz: markarekin.

03. **Borrrauta markie:** onduta, hautsita mar-
ka.
Zarratu jakuen: itxi, hertsi zitzaien.

05. **Lastimez:** tamalez, zoritxarrez.
Ezautu barik: ezagutu gabe.

06. **Edadien:** adinean.
Leike: liteke.

07. **Sotile:** sendoa eta jareina, indartsua eta
airosoa.

Naria: Aulestiko auzo bat.
Hazi dabe: hazi dute.

08. **Igaro:** iragan, pasatu.

09. **Horregaz:** horrekin.

10. **Mezien ostian:** meza ostean, ondoan,
ondoren.

12. **Zoztrari:** zoztra edo sostra sartzailea.
Sostra: palanka noraino heldu den mar-
katzeko sartzen den zotza edo abartxoa.
Barre: irri.

IBAIKATX ETA JOSE MARI LEGARRA

“Aulestiarren izenean, Ibaikatx palankari eta Legarra Joxe Mari bertsolariak erantzun eben urrengo bertsuakin” -idazten dio Julio Bareño gernikarrak A. Zavalari, bertsoekin batera. Aurreko sortari emandako erantzuna da, beraz.

MENDATAKO PALANKA JOKUA II

(Idem. 51-54 or.)

01 Bizkaian jarri dira
bai palankariak
begira egoteko
gutziz egokiak.

02 Gernikatik ein dabe
albistia ekarri
oraingo ez-bentajok
esaten alkarri.

03 Kinto izateko dagoz
oraindino biak
orain kontau bioguz
euren historiak.

04 Meritua bihar leuke
oraingo palankariak
egiten dituelako
abilidade handiak.

05 Lehengo nahia oraindik
etxaku amaitu
ezta diruak bere
oraindik amaitu.

06 Mendatan jokatu zan
palanka jokua
ha ikusten joan zan
lagune nahikua.

07 Goitiandi ere bazan
palankan nagosi
oraindik bihar leuke
nunbaiten bizi.

08 Erregela sartu deu
hiru ehun da seiko
Ibargoitik Markinen
apuntaurik dauko.

09 Ez da marka handia hori Bizkairako Andresek borraukoitu haren sasoirako.

10 Sasoi ona dauko Juanek hogei urterekin Andres oraindik gazte hamazortzirekin.

11 Grazia ona dauko palankiarekin baita segitzen dio oraindik berakin.

12 Pixukorik badago nahi leuke jokatu alturarik ein gabe inori bajatu.

13 Aiketara ez da ere entero argia apaizak emongo dau horren sententzia.

14 Gizon bat aurkitu zan plaza hegalian Aulestiarren alde berba eiteko ustian.

15 Zibilak hartu zuten inpentsamentian sartu bihar ebela kartzela batian.

16 Juan egin zanian plazara agertu zezen bat egin jakun guri begitandu.

17 Plazia nora eguan laster zan agertu Andresen barru ona ez zan asko poztu.

18 Inazio Zabalena egin jaku hasi bera izatekotan bertsuetan nagosi.

19 Zerbait hobetoago biharko dau ikasi ofizio horretan gure badau bizi.



02. **Ein dabe:** egin dute.
Albistia: berria, notizia.

Ez-bentajok: ez-abantailok, kontrako aldeak.

03. **Kinto:** soldadugai, soldadu joatea tokatu zaiona.
Dagoz oraindino: daude oraino, oraindik.
Kontau bioguz: kontatu behar doguz, ditugu.

04. **Leuke:** luke.

05. **Etxaku:** ez jaku, ez zaigu.
Bere: ere.
Amaitu: raroa da bi puntuak oin berarekin errimatzea.

06. **Ha ikusten:** hura ikustera.
Lagune: jendea, pertsona.

07. **Goitiandi:** Aulestiko Zubero auzoko baserri bat.

08. **Deu:** du.
Apuntauurik dauko: apuntaturik dauka.

09. **Borraukoitu:** ezabatuko, onduko, hautsiko ditu.

12. **Bajatu:** jaitsi, jetxi.

13. **Aiketara ez da ere:** hau zer den ez dakit. *Hainketara* edo *hanketara* ote da?
Emongo dau: emango du.

14. **Hegalian:** bazterrean, ertzean.
Berba egiteko: hitz egiteko, mintzatzeko, elekatzeko.

15. **Inpentsamentian:** ez ustean, oharkabean. Gaztelaniazko *impensadamente*.
Ebela: zutela.

16. **Jakun:** zitzaigun.
Begitandu: iruditu.

17. **Plazia:** plaza.
Eguan: zegoen.

18. **Jaku:** zaigu.

19. **Zerbait hobetoago:** zerbait hobeki, hobe kiago. Textuak *zenbat* dakar, baina *zerbait* behar duela dirudi. *Zenbat* horrela erabilia ez dut inguru horretan inoiz entzun.
Gure badau: nahi badu.

EUGENIO BERNAOLA

Orozkoko Olabarri Andikoa baserrian bizi izan zen, baserritar, artzain, abeltzain, ikazkin eta gisako lan guztiak eginez, 1954an 84 lau urte-ekin hil arte. 1920 inguruko bertso hauen egileak gehiago ere egingo zuen kontixu, baina haren iloba Jesus Mari Bernaolak, Arrigorriagan bizi denak, hauexek bakarrik gordetzen ditu, beronen aita Benjamin Bernaolari jasoak.

TXORBEL

01 Bertso barriak esplikatzeko
motibu dira boto bi
Orozkoko kaballeruak
derrotau behar naude ni.
Hainbeste gizon prudentziako
etorri dire nigana
uzabaren aginduekaz
badoaz Txorbelegana.

02 Txorbelegana joateko bai
oraindo danak ez dire
hatxurrik asko konpontzen dot nik
hogeiko zaharrak balire.

03 Eskribiente bat enderdau daude
ondo egon dan lekutik
kalte haundiak guri eginda
joango dire mundutik.
Eskribiente hau kolokatu da
beste ofezina batera
adiskideak ez dire falta
ta orain bertsoak atera.



01. **Derrotau:** hondatu, apaldu.
Naude: nabe, naute.
Prudentziako: prudentziadun, zuhur,
prudent.

Uzabaren: ugazabaren, nagusiaren.
Aginduekaz: aginduekin.
Txorbel: orduko orozkotar baten ezizena.
Errementaria edo suarotza zen.

02. **Oraindo:** oraindio, oraino, oraindik.
Hogeiko zaharrak: balio handiko txanponak, metal preziazuzkoak zirelako.

03. **Enderdau:** endredatu, zuzen dagoena oker jarri.
Ofezina: bulego.

Bertso sorta honek luzeago izan behar zuen nahitaez. Zortziko handian eginak dira, baina Bizkaiko tradizio zaharraren eran, bi puntu batera eta bi bestera. Boto biren, -Txorbel errementariaren eta eskribientearen botoen-, eros-nahia kontatzen da. Hauek ez zuten euren bururik saldu eta eskribienteari behintzat okerra eragin zioten. Bertso jartzailea eskribientearen baitan jartzen dela dirudi.

MIREN AGURNE

A. Zavalak beherago aipatu liburuan dio: "Bilbo'ko Euzkadi egunkarian agertu ziran, 1932.X.29'an, Miren Agurne firmatzen duan batek bialduta. (...) Izenburua honela du Euzkadi'k: *Bertso zarrak Zaldibartik*. Guk lenengo bertsoaren asiera berezi ta ezarri degu orretarako".

Miren Agurne hau, beraz, egilea barik bidaltzailea besterik ez da, bera ere Zaldibartarra segurrenik.

TXAKUR FAMATUA DA

(Noeren ontzia. A. Zavala. *Auspoa* 136. 93-96. or.)

01 Txakur famatua da
ixena du Blanko
ez dauka minpekorik
artua badauko.

05 Ganera ardiari
jarraitu atzian
gaizki egiten ebanik
berak ez zekian.

02 Artuakin bakarrik
ez dala kontentu
auzora jua eta
oiluak jan ditu.

06 Paluaz eman diot
odoldu artian
juiziuari sartu da
neure eritxian.

03 Jan-gauzerik onenak
eskojitzen ditu
arrautzak be beretzat,
bilatzen baditu.

07 Orain ez dala juaten
ardien atzian
kirikiuak topatzen
dituela sasia.

04 Bilots bat auzuan da
beste bi etxian
hirurak jan zituan
denpora gutxian.

08 San Prudentxi eguna
zelebratu zuan
bakailua gendukan
beratzen potzuan.

- 09 Gu akordatu orduko guzia jan zuan gazitasuna zer zan aprobatu zuan.
- 10 Sukaldeko galdarak hutsitu zituan beste ekinaldi bat egin du potzuan.
- 11 Gaba pasatu eta hurrengo goxian gure txakurra zegon estadu tristian.
- 12 Hazurren bat zeukala trabauta hestian ez zala sosegatu libratu artian.
- 13 Gaztainak ta saldia jaten dituanian uzkerak botatzen dauz basora bidian.
- 14 Barrez ito lezake haren esturian pausuko bat edo bi hiru gehienian.
- 15 Barre asko egin gendun juan dan neguan neskatxiaren ohian bilatu genduan.
- 16 Neskatxa apaldu ta ogera zan juan txakurrak ogetikan mur-mur egin zuan.
- 17 Neskatxa bildurtuta sukaldera larri ogeko lagunari ez zion igarri.
- 18 Argia piztu eta juan gura dau arin ohian tenplau lo eguan gure txakur hori.
- 19 Neskatxa hasarratu egin zan orduan makila hartu eta txakurra hil zuan.
- 20 Txakur horren bixitza holantxe izan da heriotza be hor nola neskatxak emanda.



01. **Txakur famatua:** testuak *amatua* dakar, baina segurtzat joko nuke *famatua* dela. Alde batetik hauxe da honelako kasuetan ohi den adjetibo naturala eta bestetik rarroa da hemen *amatua* aurkitzea, bai kontzeptu gisa, bai hitza bera, ezinezkoa ez da baina.

Ixena: izena.
Minpeko: mihipeko, mihihari. Mihiari azpitik eusten dion mintza edo haria. Ahoan trabarik ez daukala esan nahi du. Edozer esateko bildurrik edo lotsarik ez daukanaz esan ohi da: *horrek ez dauka minpekorik*.

- Artua:** artoa, arto hirinez egindako opilak.
Badauko: badauka.
03. **Eskojitzen:** hautatzen, aukeratzen.
Be: ere.
04. **Bilots:** bildots, axuri, arkume.
05. **Ganera:** gainera.
Ebanik: zuenik.
06. **Paluaz:** paluarekin, makilarekin. Testuak *paluak* dakar, baina *paluaz* da esakera ohizkoa eta naturala. Sekula ez dut entzun *paluak emongo deusadaz* (emongotsetaz, emongotsadaz eta aldaera guztiekin), *palukadak emango dizkiot* esateko. Bestalde *paluak* plurala ez dator bat *diot* aditzarekin.
Eritzian: iritzian, ustean.
07. **Kirikiuak:** kirikioak, kirikinoak, trikuak, sagarroiak. Testuak *kirikiyuak* dakar, baina *erre* bakarrez behar du. Eta *yota* barik jota frantsesa, ipintzekotan.
08. **Potzuan:** putzuan, urzuloan.
09. **Aprobatu:** probatu, dastatu.
10. **Galdarak:** pertzak.
Hutsitu: hustu. Urez beterik zeuden galdarak alegia.
11. **Goxian:** goizean.
- Estadu:** egoera, aldarte.
12. **Trabauta:** trabatua, oztopatua.
Hestian: hestean, hertzean.
13. **Dauz:** ditu.
14. **Barrez:** irriz.
Lezake: liteke. Gipuzkerazko forma gaizki aplikatua, bizkaitarrei maiz gertatzen zaiena.
Esturian: esturan, estuasunean, larritasunean.
Pausuko bat edo bi: urrats bakoitzeko uzker bat edo bi.
15. **Neskatxiaren ohian:** neskatxearen, neskatxaren ohean, ohatzean.
16. **Apaldu:** afaldu, afaria jan.
Ogera: ohera, ohatzera.
18. **Argia piztu eta:** argia piztera sukaldera jaisteak esan nahi du argindarrik ez zegoela. Beraz, kriseilua edo esku-argiren bat piztu zuen, oherakoan sukaldean utzi ohi zena.
Gura dau arin: nahi du azkar, fite, agudo.
Tenplau: lasai, bare.
Eguan: zegoen.
20. **Bixitza:** bixitza, bizia.
Holantxe: honelaxe nahiz horrelaxe.

Balada aireko sorta bitxi hau bertsolaritzan barik koplartzan sartu beharko nukeen agian. Bizkaiko tradizioko pieza koplartuen jite osoa dauka, narrazioa eramateko tankeran eta formuletan: *ez dala kontentu, orain ez dala juaten, topatzen dituela sasian, hazurren bat zeukala, ez zala sosegatu...* Indikatiboen ordezeko forma konpletibook oso bereak ditu Bizkaiko koplartzak.

LUKAS AÑIBARRO

Bertso paperak sinadura lez dio: *Lucas de Añibarro, errementarie, katoliku gustien alegrigorriac*. Hitz honek *alegrigarriac* behar du, hots, alaitzaileak, alagarriak. Ondoren data jartzen du: Ceberio y Enero 20 1907. Beraz, lanbidea eta herria badazkigu. Honen ondorengoak Zeberion bat baino gehiago izango dira gaur ere.

URTEILEN HAMAIRUEN

(Jon Irazabalek eskuraturiko bertso papera).

01 Urteilen hamairuen
Kasillako landan
hainbeste mile gizon
egon ginen bandan.
Gizon handiak bere
badagoz aldetik
Jaunak gorde daizala
orain eta beti.

02 Birjina Begoñako
Jaungoikoaren Ama
zuregan daukagu guk
konfiantza dana.
Lehen bere zu zinean
bakeak egina
uxela albagentoz
guztiok zeugana.

03 Lagunduko ez baleude
zeruko santuak
ezkaunkez bentziduko
persegimentuak.
Erregutu sarritan
ez izan mutuak
aterako badoguz
hemendik frutuak.

04 Blasfemiak bota ta
igual ortutan
bizimodu triste horrek
enau ni portutan.
Izerdie bota ta
fin izan gaitean
gero deskantsaukogu
eternidadean.

- 05 Jaungoikoa beti dago munduan emoten lehengo urteko kositxa aurten gagoz jaten. Eskatu eiten dogu egun betekoa eta emoten deusku urte guztikoa.
- 06 Mile bederatzirehun zazpigarrenean fedean defentsara presentau ginean. Geure kontra danari egiteko frente zeinek pentsauko eban horrenbeste jente.
- 07 Gugaitik emon eban Jesusek odola lelengo pasau eta kalbario gogorra. Horixe sarritxutan ekarri gogora katoliku guztiok igon daigun gora.
- 08 Jesusaren pausauk sarri akordatu ta bere lege santua zuzen guardatu. Hori egin ezker ezin kondenatu ta bai sari ederra ingo dogu hartu.
- 09 Garbitu nahi dauenak norbere arima kuidadu onarekin egin esamina. Esamina eginda hau da honorea bihotzean hartzea penaz dolorea.
- 10 Ofendidu duleko guk Kriadorea zeru eta lurreko Jaun eta jaubea izanik hain justoa eta amablea hutsa da konfesino damurik bagea.
- 11 Zaharrak emon beadau ejenplu munduen Jaungoikoa serbietako ahalbait eta ondoen. Ikusite daukaguz altu ta bajuek herririk herri doaz nire kontsejuek.
- 12 Ez da bertso papel hau itxure bakoa Biba mundu honetan fede onekoa. Orain mundu honetan ta gero bestean Jasus maiteagana presentau gaiten.



01. **Urteil:** urtarril.
Kasillako landan: Kasillako zelaian. Gaur Bilboko toki honetan kiroldegia eta plaza daude.
Bandan: andanan, multzoan, aldran, saldoan.
Bere: ere.
Badagoz: badaude.
Aldetik: hemen beste gabe *alde* esan nahi duela uste dut.
Daizala: ditzala.
02. **Uxela:** oxala.
03. **Ez baleude:** ez balebe, ez balute.
Ezkaunkez: ez geunkez, ez genituzke.
Sarritan: maiz, anitzetan.
Badoguz: baditugu.
04. **Ortutan... portutan:** ostutan... poztutan? Horrela balitz, ostuten... poztuten, edo osten, lapurtzen... pozten.
Gaiten: gaitzen.
Deskantsaukogu: deskantsatuko gara, atsedean hartuko dugu.
05. **Kositxa:** uzta.
Gagoz: gaude, ari gara.
Deusku: digu.
06. **Zeinek pentsauko eban:** nor pentsatuko zuen. Akatsez josita dagoen paperak
- uniak** jartzen du. Nik **zeinek** ulertu dut. Zeberion forma hau ez da normala, **nork** baizik, baina bertsolari honek, bertso kultura bat bezeukalarik, **zeinek** sartzea sinesgarri da. Esaldiak ere horixe eskatzen du, edo behintzat ondo datorchio.
07. **Sarritxutan:** anixkotan, maiz samar, sarri samar.
Igon daigun: igan, igo gaitzen.
08. **Jesusaren:** Jesus izena artikulu mugatzaile eta guzti. Gaur baliabide arkaikoa da hori.
09. **Kuidadu:** kontu, arta, axola, arreta.
10. **Duleko:** doguleko, dugulako.
Kriadorea: sortzailea, kreatzailea.
Hutsa da: alperrik da, ez du ezertarako balio.
Konfesino: konfesione, konfesio.
Bagea: bakoa, gabea.
11. **Beadau:** behar du.
Serbietako: serbitzeko, zerbitzatzeko.
Ahalbait eta ondoen: ahalik ongien.
Daukaguz: dauzkagu.
Bajuek: baxuak, apalak.
Kontsejuek: kontseiluak, aholkuak.
12. **Itxure bakoa:** itxura gabea.

Bertso hauen egikera guztiz bizkaiko tradiziokoa da. Gehienez bi oin batera eta bi bestera eta kontakera eta arrazoen estiloa ere koplaritza solemnearen airekoa. Motiboa ez dator gaizki, Bilbon egin bide zen manifestazio erlijioso handiren bat bait dirudi. Zer izan ote zen bera? **IZEN-GABEAK** lehen liburukiaren *Gertaerak eta umorezkoak* sailean eman nuen *San Antonio Santu haundia* sortako Domingaren bertsoak Añibarro honexenak ez ote diren susmoa daukat.

MARTZELINO URKIAGA

Gernikako Julio Bareñok 1930 inguruan jokatu zen proba baten berri ematen du, A. Zavalak beherago aipatu liburuan dakarrenez. Morgako Martzelino Urkiaga, *Pardilla* izeneko behiaren jabea eta probalaria, bera izan zen koplagile ere.

BEHIAK BURRUKAN

(Euskal jokoak bertsoan (II). A. Zavala. *Auspoa* 183. 121. or.)

- | | |
|---|--|
| 01 Adarra zorroztuta
ekarri dabe plazara
uste izan dabelako
harentzakorik ez dala. | 05 Pardilla koitedue zegoan
triste eta larri.
-Non egon da hori Martzelino,
zaku bat edo bi baba ez emoteko niri? |
| 02 Idijeri gehiau eginda
harro zegoen behije
-Ekarrixue gure Pardilla
hemen ikusikogu komedijje. | 06 Horrenbeste erronka Pardillak
entzun ebanien
buelta zan esperantza
formalidadien. |
| 03 Behiek egoten dire
batien da bestien
ez dabe sinistuten ixen
hori ikusi artien. | 07 Burue ipini eutsan
buruen erdira
pentseu ebalako: horraitik
ez deust niri ardura. |
| 04 Lehenengoko puntue Pardillak
egin eban galdu
makina bat erronka Fernandok
orduan izan du. | 08 Tarraska joan zani
behi hori atzerantza
Fernandok begituten eban
orduan beherantza
euki ebalako
galduaren antza. |

- 09 Fernandok pinuaren ondotik eiteban sokorru
-Adarra loka euki deu eta horregaitik galdu du.
- 10 Galtzailiak beti ohi deu mila endredo
holangoari kasurik ezin egin leio.
- 11 Ni ta Alejo handik beluko mezara sarri bidiaren ondoan jaten zegoan behi hori.
- 12 Pentsamentue inoiz ez dago lez geldi
-Zer egingo ete leukio, Alejo, honek gure Pardillari?
- 13 Etxera joanda ezin sufridu
-Zaku bat edo bi baba Pardilla honeri egin biharko deutsaluz sartu.
- 14 Lehenengo alaba eta gero emaztiak
-Horrek ez dira, Martzelino etxe mejoragarriak.
- 15 Horrek entzunda neu bere ixilik gelditu.
-Etxeko kontentue be ona izangogu.



01. **Dabelako:** dutelako.
02. **Idijeri:** idiari. Testuak *idixeri*, *beixe* eta *komedixe* dakar, baina Morga aldean jota frantsesa da. Beste kontu bat da *ekarrixue*, *ixen*, *ixilik* eta abarrena, aurreko i bokalaren eraginez, s-z kontsonanteak bustitzen direna.
Ekarrixue: ekarxue, ekar ezazue.
Pardilla: behiaren izena.
Ikusikogu: ikusiko dogu.
03. **Batien da bestien:** batean eta bestean.
Ixen: izan.
05. **Koitedue:** gaizoa, gizajoa, urriagarria.
Hori Martzelino: Martzelino hori. Bizkaieraz erakuslea aurrera pasatzea normala da. Atzetik ere bai noski, baita bietatik ere: *hori Martzelino hori*.
06. **Ebanien:** zuenean.
07. **Eutsan:** zion.
Pentseu ebalako: pentsatu zuelako.
Horraitik ez deust: horregaitik ez dit.
08. **Tarraska:** tatarrez, herrestan, arrastaka.
Begituten: begitzen, begirutzen.
09. **Eiteban:** egiten zuen.
Sokorru: deihadar, oiher, orro.
Loka: koloka, finkatu gabe.
Deu: du.
10. **Endredo:** nahasmahas, nahaspil, katramila.
Holangoari: holakoari.
Leio: dakiok.
11. **Belu:** berant, berandu.
Beluko meza: meza nagusia, azken edo beranduen izaten dena.

- Sarri:** maiz, aunitzetan, sarritan.
12. **Ez dagon lez:** ez dagoenez gero, ez bait dago.
Leukio: lioke.
13. **Honeri egin biharko deutsaluz:** honi egin beharko dizkiogu.
14. **Horrek:** horreik, horiek.
Mejoragarriak: hobegarriak, hobeago-tzekoak.
15. **Neu bere:** ni ere.
Kontentue be: kontentua, poza ere.
Izangogu: izango dogu.

Kopla hauek argi dago teknikaz ez daudela eredutzat hartzerik, batez ere neurrian. Gehienez zazpi-sei silabako kopla txikiaren inguruan badabilta ere, handirainoko tarte guztiak pasatzen dira, komenentziaren arabera. Julio Bareñok dio: "Martzelino Urkiaga, gaur 88 urte daukazanak, (...) ber-berak abestu daustazan lez ipinten dodaz, eta batian luzetu eta bestian laburtu, berak beintzat polito abestuten dauz, bertsolarien tranpa guztiak egiñaz".

Adin horrekin baliteke erdi ahazturik edukitzea eta martxan halamoduzko luzapenak egitea. Oroimena huts egiten hasten denean, asma-mena ere ez da abilegi egoten eta lekukoa horretan saiatzean, deformazio handiak sortu ohi dira, neuk ere askorengan probatua dudanez. Bertso hauen akatsak hortik etor litezke gehienbat. Orraztu bat emanik, sorta honetan badira kondaira dotore bat osatzeko elementuak.

TIBURTZIO URROSOLO

Tiburtzio Urrosolo, *Diburtzio*, 1854. urteko uztailaren hamaikan jaio zen Ondarroan eta bertan hil, 1905. urteko martxoaren hamaikan. Birritan ezkondu eta birritan alargundu zen, eta hain zuzen emazte biak ahizpak izan zituen. Beraz, lehenengoz alarguntzean, bere koinatarekin beretzkondu zen. Lanbidez dendari, saltsa guztietako perrezila omen zen, alai inor izatekotan. Baita musikaria ere. Herriko *Armonía Municipal*-eko bigarren zuzendari izan zen. (Datu hauek beherago aipatu liburutik ematen ditut).

KARNABALAK

(Ondarru, kantu, otoi, orru... 38. or. Ondarroako Kultur Etxea, 1984)

- | | |
|--|--|
| 01 Alkate jaunak baimenarekin
bakian gera atera
kalerik kale kantuan gatoz
karnabal zelebratza.
Urten guztiok balkoiatar
marinelak ikustera
gauza ontxo bat emon egizu
limosneria bazera. | 03 Lorentzon kantak, Bartolon dantzak
Antonio Marin barriak
ondo pozikan entzuten ditu
hemen dabilan jentia.
Urrufiñoren zortziak eta
Soteroren komediak
ez deusta inori gatxik egiten
holako merienda. |
| 02 Asko daukanak kapoi eder bat
edo korda bat txorixo
solomo zati lodi lodi bat
pozik estimau leikixo.
Beste guztiak txakur txiki bat
hori be ez da preziso
zerren senarrak tabernarako
lehenago kendu leikixo. | 04 Kaleko jira eginda gero
daukagu merienda
hara juateko pozikan dabil
gure kuadrila guztia.
Usain gozozko tajadak janda
gero gainian kafia
ez dakit zeinek pasako daben
karnabal azken hobia. |

Errepika:

Juan dan urtietako
gure kostunbria
komeni da aurrera
hala segitzia.
Afari ona jan da
gero kantatzia
lehengo usuario zaharrak
betiko ez galtzia.



01. **Emon egizu:** eman ezazu.
Limosneria: emkume limosna emalea, erremusina emalea.
02. **Kapoi:** oilasko zikiratua, okelarako gizen-tzen dena.
Estimau leikixo: estima lekiok.
03. **Barriak:** barreak, farrak, irriak.
Deutsa: dio.
Gatzik: gaitzik, kalterik.
04. **Tajadak:** xerrak.
Daben: duen.
- Preziso:** nahitaezko, beharrezko.
Zerren: ze, zeren, zergatik. Kausala.
Kendu leikixo: ken liezaioke.
- Txakur txiki:** pezetaren hogeigarrena, txakur handiaren erdia.
Be: bere, ere.

Bertso hauek beste aldaera hau ere ba omen daukate:

Ondarroan:

Nikolas degu presidente ta
Garmendia komandante
hoiek honela ikusi eta
zerbaitxo eman lezake.
Ez degu eskatzen gauza handirik
txakur txiki bat bastante
apari on bat ein ahal bagendu
osasuna dagon arte.

Errepika:

Hauxen da ditxa eta
hau dek umoria
geuri begira dago
herririk erdia.
Sabela betetzeko
hau da saiatzia
ai nere bihotzeko
Maritxu maitia!

KARNABALETAKUAK

(Aurreko bera, 40. or.)

- 01 Armosua pagatzen
ginan instantian
lagun batek badio
nire aldamenian:
Zer egingo ote dogu
gaur arratsaldian?
Mamo jantzita ibili
plazan da kalia?
Ez! Hoba dogu jan da edan
leku on batian.
- 02 Seiren pentsamentuz zan
merienda jarri
eta parte emoteko
beste lagunari
gurekin nahi al zuten
broma honetan jarri
kasurik egin gabe
mamo zantarrari
azken ona emoteko
karnabal gabari.
- 03 Esan bezela jarri
ditu tabernariak
arautza, okela ta
lebatz saltsa biak.
Gainian prijituta
tajada haundiak
ondo pozik jan ditu
batu dan jendiak
hamaika laguneko
kuadrila gosiak.
- 04 Jaun bat zutik zebilen
nire aldamenian
edozer gauza esaten
bere ahopian.
Batian euskera ta
erdera bestian
bera zala nagusi
txalupa egilian
guri lebatza janda
iges azkenian.
- 05 Karabineru traje
bere ros da guzi
hantxe mamo polit bat
genduan ikusi.
Hara gaizki egin nahian
beste bat zan hasi
nunbait bere arpegia
nahi zion ikusi
gizon bat zapaldu ta
juan ziran igesi.



01. **Armosua:** gosaria.
Mamo: mamu, mozorroturik.
02. **Zantarrari:** zitalari, gaiztoari, madarika-tuari.
Gabari: gauari.
03. **Okela:** haragi hila, jatekoa.
Tajada: xerra.
04. **Txalupa egilian:** txalupagintzan, batelak egiten.
05. **Traje:** soineko, jantzi.

EDURRA

(Aurreko bera, 29. or.)

- 01 Mila zortzirehun laroita zortzi ditu aurtengo urtiak eta bertsoak paratutzeko daude motibo handiak. Edurtza handiak harrapau ditu mendi altuko jentziak pozez da penaz hilgo ote dira jaiota dauden umiak.
- 02 Probintziatik Madril aldera bota dituzte partiak guztiak dira desgrazia-zko barri txit negargarriak. Danak diote nola edurrez beterik dauden mendiak ardi txabola baserri etxe kalerainoko guztiak.
- 03 Nola egongo ote dirade han bizi diran tristiak penatutzian bakar bakarrik harritzen gara guztiak. Dudarik gabe pasau bihar dute hotz handi eta gosiak historian bat kontauko dabe handik datozen biziak.
- 04 Elur handien pixuarekin teilatu danak jausiak haixe ipar hotzak pasatzen ditu orma zaharraren artiak erdi itxirik dauden ate ta bentana zulo guztiak etxe guztian korritutzen du beneno bildurgarriak.

- 05 Famili dana kuxkurturikan dago baztertxo batian eskastxo duen leku epel ta su apurraren aurrian. Entzuten dira otso zarata bildurgarriak atian etxe danaren jiran dabilta zerbait iruntsi artian.
- 06 Ganadu danak gosez hil behar behi txahal eta ardiak bedar preskorik ez da agiri tapau dirade guztiak. Gaztainak eskas artua gitxi nagusiantzat gariak agustuan eramanak dira jan ez daiezan txoriak.
- 07 Azkena eman du egurtokiak eta bost kanan edurra kristau bizirik ezin pasatu txara edo egur lekura. Dispentsa hutsa lumarik gabe hau pena eta tristura mendi altuko labradoria aurtengo urtian galdu da.
- 08 Eguna juanda bildur da penaz arratsak dakar iluna bihotza triste begiak negar iturri bien modura. Jesus onari erregututzen famili danak estura arren libratu gagizuz Jauna bestela eraman zerura.
- 09 Konsideratu dezagun nola egiten degun pekatu eta batera bildurrik gabe Jesus maitea ukatu. Horregaitikan erakusten du go nola eskarmentatu zahar eta gazte, pobre ta aberats danok kastigatzen gaitu.
- 10 Nere bihotza urtzen dijua negara dator begira ilundurikan daukadaz biak moteltzen hasi da mina. Sentidu danak gelditu nahian odola jira ta bira zerbait gehiago kantau nahi arren ezin emanik argira.



01. **Paratutzeko:** jartzeko, ontzeko.
Edurtza: elur geruza lodia, mardula. **Edurtza-k** kantitate handia adierazten du eta **edurte-k** denbora luzea. Hau gehienik kantitate handiari loturik doa, elur meheak nekez irauten bait du luze.
02. **Probintziatik:** Gipuzkoatik.
Partiak: albisteak, zerbaiten berri ematea.
- Barri:** berri, albiste.
Txit: agitz, arrunt, oso, guztiz.
03. **Historian:** historiaren.
Kontauko dabe: kontatuko dute.
04. **Jausiak:** eroriak.
Haixe ipar hotzak: ipar haize hotzak.
Artiak: tarreak, bitarteak, zirrituak.
Bentana: leiho.

- Beneno:** pozoin.
05. **Kuxkurturikan:** kuzkurturik, makurturik, uzkurturik, kokildurik.
Eskastxo: gutxitxo, doidoi, justu samar.
Su apurraren aurrian: su txikiaren, su pixkaren aitzinean.
Jiran: inguruan, itzulka.
06. **Bedar preskorik:** belar freskorik, berderik.
Tapau: estali.
Eskas: urri.
Gitxi: guti, gutxi.
Ez daiezan: ez ditzaten.
07. **Egurtokia:** egurra edukitzeko tokia edo bazterra.
Kana: luzera neurria, metroa baino zerbait laburragoa. *Bost kanan edurra* ez daiteke izan, handiena izanik ere. Beharba-
- da *kana* garai hartan eta Ondarroan neurri laburragoa izango zen?
Txara: txaraka, zuhaitz motzez eta zuhaizkaz osaturiko baso trinkoa.
Dispentsa: despentsa, janariak edukitzeko gela edo bazterra.
Lumarik gabe: hegaztikirik edo lumadunen jakirik gabe.
Labradoria: laboraria, baserritarra, nekazaria.
07. **Estura:** estutasun, larritasun.
 08. **Gagizuz:** gaitzazu.
 09. **Kastigatzen:** zehatzen, zigortzen.
 10. **Daukadaz:** dauzkat.
Mina: mihia.
Sentidu: zentzu.
Kantau nahi arren: kantatu nahi izan arren, izanik ere.

ARRAIN HANDIARENAK

(Aurreko bera, 31. or.)

- 01 Mila zortzirehun larogeita hamar garren urtian sarturik april hilaren hogeigarrena jarri da seinalaturik. Españan eta estranjerian guziak ahotan harturik bota dituzte paperak danak oso gloriuz beterik "Ondarrutarrak haiek mutilak!" ez da entzuten besterik.
- 02 Egun horretan zer egin zuten hemengo arrantzaliak mundu guztiak jakin dezaten jarriko du historiak. Begira danok papera honi zabal zabalik begiak gezurrik gabe jarriko ditut pasatutako egiak baldin laguntzen badit honetan gure Jaunaren graziak.

- 03 Berrogei eta bat oinak luze dauzkan treneru batian hamar gizon ta hiru mutilak itxasora atera ziran. Gehienez ere legorretikan izango ziran hiru milan bildurgarrizko arrain haundi bat azaldu zan hoién jiran ta berehala persegitzeko gogoz preparatu ziran.
- 04 Isidro Elu hoién patrioak esan zien laguneri nahi badezute arrimatzia gustora egingo det hori. Boga aurrera hara nun dagon errez joko degu hori gero kontuan egon guziok minik egin gabe inori tiburoi kasta gaizto itxurako arrain itzala da hori.
- 05 Ailegatzian bere aurrera tira ondo arponada ia mutilak, leku onian sartu inola ahal bada. Txikotak listo arriatzeko arrain oso haundia da galduko gaitu guzi guziok ondo trinkatzen ez bada hartu labanak, ebaki sokak asko moduz hasten bada.
- 06 Esponiturik momentu hartan guztiz peligro handian azkar Liborio Bedialauneta jarri zan txalupa aurrian. Eta harturik arpoi ta soka bere besoan betian garboz tiratu eta sarturik utzi zion haragian oso egoki enkajatu zan lantza tripa barrenian.
- 07 Ondo erituta jarri zanian orduantxe bai kontuak Norestian barruna hasi zan zabaldurikan heguak. Buztan palakin singatzen zuen bapore haundien moduan momentu hartan bildurtuko ez zan gizonik ez da munduan bere arpoia libratu nahirik errebenta zan orduan.
- 08 Luzaro behian ibili arren etorri zan azalera hiru lau aldiz eragin zigun makina bat gorabehera. Bainon harturik era on baten txikotakin gogor bera aldatu ginon lehengo lekutik arpoia buru partera sokakin fuerte sagan harturik abia ginan etxera.

- 09 Goizeko hamaika orduak ziran lehenengo jo zutenian gaua eginda zortzirak ia legorrera zutenian. Zenbat trabaju igaro zuten hoiek bien bitartian ezin lezake plumakin jarri klaro begien aurrian hondar sekutan altxata utzi zuten bizi zan artian.
- 10 Hogeit ta hamabi pie zan luze pisuz zazpirehun arrua ondoko arraia pustoki gabe diote dala eskaulua. Ez du inortxok ezagututzen ai hau piztia modua Klub Nautikuen bapora azkar Bilbo aldera dijua Ondarrutarrak sozio oidi horra zer erregalua.
- 11 Ailegatu ta paratu zuten Bilboko Ripa partian behar bezela esponiturik almazen haundi batian. Soziedade klase guztiko jakintsuak batu zian ta esaten zuten: holako arrairik ez daukagu historian merezi luke konserbatzia sekulako Espainian.
- 12 Gure bizkaino Martin Zabala senadoria Madriden arrainan peska diskurtsu baten klaro esplikatu zuben Ondarruatar balientiak zelan harrapatu zuben eta Bilboko diptau jaunak nola konserbau nahi zuben operazio hori egiten ia utziko al zuben.
- 13 Arraina berriz ekarri dute Bilbaotik Ondarruara gobernatu ta eskeletua eramateko bertara. Mediku jaun ta destripadore asko etorri da hortara lehen historian ez dagon gauza berri bat horra bistara gure Bilbaoko Institutuan ikusiko da gustora.
- 14 Hau ikusita errial bina kendu diote danari Ondarrutarrak kobratu dute horrekin diru ugari. Mila pezeta garbi premio arraia jo zutenari orain mila esker guzion partez Klub Nautikoko jaunari Biba Bilbao! Biba Ondarroa! Lagundu hola alkarri.



03. **Treineru:** arraunez eragiteko untzi mota txikia.
Jiran: inguruan.
04. **Boga:** bogatu, arraunean egin.
Tiburoi: marrazo.

05. **Txikota:** soka muturra edo soka puska motza.
Listo: prest, gertu.
Arriatzeko: jareiteko, askatzeko.
Trinkatzen: lotzen, estekatzen, atxekitzen.
06. **Garboz:** kemenez, oldarrez.
Enkajatu: egokitu, tokiratu.
07. **Norestian:** Ipar-Ekian, Ipar-Ekialdean.
Barruna: barrura, barnera.
Heguak: hegalak.
Singatu: popako arraunez untziari aurre-ra eragin.
Errebenta zan: lehertu zen.
08. **Bainon:** baina.
Sagan: atoian, tiraka, *saga* izeneko hariatz atuna arrastatzen den bezala.
Abia ginan: abiatu ginen.
09. **Trabaju:** lan zail, neketsu, nahigabe.
Plumakin: lumarekin.
- Klaro:** klarki, argi.
Sekutan: sikutan, lehorretan, idorretan.
10. **Pie:** oin.
Arrua: arroa, hamabi kilo eta erdiko pisu neurria.
Pustoki: ez dakit zer den.
Eskaulua: ezkaulua, arrain txiki bat.
Bapora: bapora, motoredun itsasuntzia.
Oidi: *hoiei* izan liteke, okerren bat ez bada.
11. **Paratu:** ipini, ezarri.
Almazen: biltegi.
Horlako: horrelako.
Sekulako: betiko.
12. **Bizkaino:** bizkaitar.
Peska: arrantza. Bertso honetan *zuben* lau aldiz agertzeak esan nahi du aditz la-guntzailea ez zutela pototzat hartzen, aditzaren atzizki gisa baizik.
14. **Errial:** erreal, pezetaren laurdena.

FALUA ERREALA (1887)

(Aurreko bera, 34. or.)

- 01 Fiestak egiteko komisionatuak firmatuak zeuzkaten diptaziak. Bilbo horretan badira gizon jakintsuak guarda dezala beti gure Jaungoikuak.
- 02 Erregina ta errege alteza errealak Donostian egondu dira aurten danak. Baina enpeinaturik gure Bilbotarrak baporetan ekarri zituzten horra danak.

03 Bilbotik urten eta
zuzen zuzenian
ailegatu ziraden
Ondarruko herrian.
Txalupa ta gizonen
gauden gu premian
erregina erabiltzeko
gure barrenian.

04 Ondarrutik urten eta
Bilbora ailegatu
laster esan ziguten
nola preparatu.
Falua erreala
pintau ta doratu
Espainiako grandezak
zuek behar zaitu.

05 Bilbora abia ginan
Portugaletetik
gu aurretikan eta
bestiak atzetik.
Tringadorak guardian
alde bietatik
ez zuan apartatzen
behin ere gugandik.

06 Ezker eskubi zeuden
bapore handiak
estranjero ingeles
Bilbora etorriak.
Ederrak zeduzkaten
bandera ta argiak
saludatzen zituen
gure erreginak.

07 Txupinazo kainoi ta
kantera tiruak
sarri gelditzen ginan
gehienak gortuak.
Ixildu gabe kantari
inguratutakuak
musika tanbolin da
korneta soinuak.

08 Ia Ondarrutarrak
egin ahalegina
eta kontuz eraman
Bilbora erregina.
Herria luzia da
bai ongi egina
timonela dezute
platiku jakina.

09 Gizonak zirudien
aingeru tropia
falua erreala
Madriko kortia.
Harek barrena zeukan
sedaz estalia
terziopelozkua
zeukan sileria.

10 Te Deuma kantauta
bisitan Begoña
asko gustatu zaio
hango imajina.
Egun horretan zebilen
Bilbon erregina
eleizak bisitatzin
egin du ahalegina.

11 Bilbotik abisata
Tiburtziok jarri
horra gauza guztiak
paperian garbi.
Ofensarikan gabe
batere inori
biba Ondarrutarrak
biba beti beti.

01. **Fiestak:** bestak, jaiak.
Firmatuak: sinatuak.
Guarda: gorde.
02. **Alteza:** errege-erreginen eta hauen seme-
alaben tratamentua gaztelaniaz.
Enpeinaturik: saiaturik, buruan sartu-
rik.
Bapore: motoredun untzia.
03. **Barrenian:** barnean, barruan.
04. **Falua:** itsasuntzi mota bat, itsasoko eta
bestelako agintariak eta erabiltzekoa.
Grandezak: haundigoak, haunditasunak.
05. **Abia:** abiatu.
Tringadora: untzi mota bat.

Errepika:

Ondarruatik Bilbora juanda
faluan ibiliak gera
erregina ta Alfonso Trece
ziran gurekin batera.
Diploma eder honorekuak
danok erretratau gainera
Bizkaiko diputazio jaunak
bialdu diguz etxera.



07. **Txupinazo:** jai adierazteko danbatzen
diren suziri handiak.
Kantera: harrobi.
Sarri: sarritan, maiz, anitzetan.
08. **Timonela:** lemazaina, lemaria.
Platiku: praktikoa, ingurua ezagutzen
duelako, unziak gidatzeko zeregina
daukana.
09. **Tropia:** tropa, saldoa, andana.
Kortia: gortea.
Sedaz: zetaz.
Sileria: aulkiteria, kadira multzoa.
11. **Abisata:** abisaturik.
Ofensa: irain, laido.

Errepika:

Honorekuak: ohorezkoak.
Diguz: dizkigu.

JOSE MANUEL IMAZ

“Jose Manuel Imaz Etxegarai. Mutriku'n jaioarren Ondarroan'n bizi zan. 32 urte eukazala, 1909'ko Maiatzaren 24'n itto zan. 13 lagun itto ziran batera. Bere osaba Fermin Imaz'ek *Galerrena* deiturako bertsoak egin zitun, ondamendi a gogoratuaz”. (*Ondarru, kantu, otoi, orru...* 77. or.)

Fermin Imaz hau Txirritarekin hainbat sesio ukan zuen bertsolari ospetsua da.

ANTIGUAKO AMARI (I)

(*Ondarru, kantu, otoi, orru...* 75. or. Ondarroako Kultur Etxearen argitarapenak, 1984)

01 Mila bederatzirehun
gainera lau urte
pelegrinazio bat
disponitu dute.
Agostuan hogeta
bat seinalamente
Ondarruara etorri da
makina bat jente
Ama Antiguakua
bisitatu dute.

02 Antiguako eleizatik
plazara ekarri
bere guardian bazan
jendia ugari.
Musika ta aingeru
bandera ta guzi
aurretikan apaizak
guztien nagusi
alabantzak ematen
Birjin Amari.

03 Plazan paratu zuten
beretzat lekua
loraz apaindurikan
altara santua.
Fray Bartel jaunarentzat
berriz kulpitua
herriko printzipalak
zan disponitua
biba Ondarruako
Aiuntamentua.

04 Bandera ta lujua
balkoi bentanetan
arku ederrak berri
kale kantoietan.
Arbola hostruakin
arraunak e bertan
lora txuri-txuriak
ia tapaurikan
zenbat kristau pasa da
hoien azpitikan?

05 Fray Bartel jaunarekin
gaude harrituak
negar eragin digu
horren predikuak.
Amari erreguka
altzaurik eskuak
klaro esplikatatu ditu
fedeko kontuak
zeini ez dio irten
begitik malkuak?

06 Sermoi hau egin zuan
Ondarruko plazan
zortzi mila arima
gutxienez bazan.
Fray Bartel jaun horretzek
kontu asko esan
Jesukriston dotrina
irakurria zan
kanta dezagun orain
bere alabantzan.

07 Probintziatik jente
asko etorrira
Bizkaiatik gehiago
hala komenita.
Birjina Amarengana
bihotzak poztuta
hainbeste mila kristau
danak ahuzpeztuta
imajina adorutzen
belaunikatuta.

08 Bizkaian bazeguan
jaun honen beharra
Jesusen dotrinari
emateko indarra.
Bizkaiko jauna ere
ez degu hain txarra
edadian aurrera
bastante da zaharra
sermoia predikatzen
txit gizon azkarra.

09 Engainatuta gabiltz
munduko guztiak
erlejiua galtzen
persona gaiztuak.
Jesusek gugatikan
emandako pausuak
manifestuan horra
eleizan santuak
bizi geran artian
atera kontuak.

10 Jesusen pausuetan
akordatzen gera
guregatik zer moduz
ibili zan bera.
Ikusi nahi badegu
begira kurutzera
ultziakin josirik
esku oinetara
etsaiak jarri zuten
modu horretara.

11 Arantzazko koroia
etsaiak sartua
buru guztia dauka
dana zulatua.
Lepotik dariola
odola tantua
hain zitala izanik
gure pekatua
gurutzean hor dago
Jesus penatua.

12 Nahi badeguz arimak
zeruraino jaso
sekulako desterra
pekatua preso.
Luziferren galdara
berua da oso
infernuko etsaiari
zertan egin kaso
Jesukriston banderan
egon alimoso.

13 Ama Antiguakua
bihotzen graziak
harrigariak dira
horren mirariak.
Zuzendu bihar gaitu
zure mesediak
Aita San Pedro iriki
zeruko atiak
gloria gozatzeko
arima tristiak.

14 Agoniako trantza
etorri ezker
luzaro bizitzerik
ez degu espero.
Izerdi tantuakin
gorputzetik gero
azkenengo arnasak
iges egin gero
Jesusen sententzia
etorriko zaio.

15 Ama Antiguakua
orain erremata
agonian hurrena
heriotza da-ta.
Gure defensoria
imajina da ta
laguntzaliak ere
makina bat santa
zeruan sartutzeko
alabantzak emanda.



01. **Pelegrinazio:** erromesaldi.
Disponitu: antolatu, prestatu.
Seinalamente: hain zuzen.
03. **Paratu:** prestatu, atondu, jarri.
04. **Hostruakin:** hostoekin.
E: ere.
Tapaurikan: estalirik.
05. **Altzaurik:** jasorik, altxaturik.
Klaro: klarki, argi.
07. **Probintziatik:** Gipuzkoatik.
Ahuzpeztuta: ahoz behera, makurturik, erreberentziazko jarreran.
08. **Edadian:** adinean.
Bastante: aski, nahiko.
Txit: oso, biziki, arrunt, agitz.
09. **Erlejiua:** erlijioa, erligionea.
Manifestuan: agerian, bistan.

10. **Ultziakin:** iltzeekin.
11. **Tantua:** tanta, tangada.
12. **Deguz:** ditugu.
Sekulako desterra: betiko desterratu, aldendu, urrundu.
Galdara: bertza, pertza.
Zertan: zergatik, zertarako.
Alimoso: adoretzu, kuraios.
13. **Mirariak:** mirakuluak.
Tristiak: gaizoak, errukarriak.
14. **Agonia:** hilzoria.
Trantza: trantzea, kinka, unea.
Gero... gero: oin bera bi aldiz jarraian nahiko susmagarri da. Zaila da Imazek horrela jartzea.
15. **Erremata:** errematea, azkena, amaia.
Imajina: Ama Birjinaren irudia.
Laguntzaliak: laguntzaileak.

BILBAOKO ESTROPADETA KO KANTAK (1902)

(Treiñeru Estropadak. Ondarroa'ko Talaitik. 1865-1970. Augustin Zubikarai. 72. or.)

- 01 Kontrario asko ikusi arren
ez dira bate sustatu
Ondarrutarren hasieria
danai zaiote gustatu.
Aurretik hasi ziran txalupai
kostautikan pasatu
mutil abilak ikusi ziran
ez ziran asko nekatu.
- 02 Oriotarrak etorri ziran
irabazteko ustian
pentsatu zuen arraunlaririk
ez zeguala Bizkaian.
Panparroi honek ibili ziran
sosegau ezinik kaian
marka polita egin dute oso
Portugaletako plaian.
- 03 Ondarrutarrak eginak dira
izugarritzko markia
harriturikan gelditua zan
begira zegon jendia.
Uran gainian horrenbestian
arraunian korritzia
beste gauzarik ez da suerta
indarraren bentajia.
- 04 Bermeotarrak arrazoiakin
saiatu dira gogotik
sokakin lotu erramoa ta
buelta emanak lepotik.
Hoiek hola probatu dira
ez dakit bada zergatik
modu horretako sistemarikan
ez da ikusi oraindik.
- 05 Errege Jauna Alfonso XIII
baporetikan begira
ikusi zuan nolakoa zan
txalopa horren salida.
Aldameneko ministruari
galdetu zion segira
aber hoiek nunguak ziran
hoiek Ondarrutarrak dira.
- 06 Bermeotarrak hasi ziran
edozer gauza esaten
halaxe ere haien....
..... ikaratzen.
Lehendabiziko tiruarekin
emango digu aditzen
atxekiarik ez degu bihar
hasi arraunak dantzatzan.

07 Zazpigarren bertsoarekin
akabatutzero, jaunak
beste asko pasatu arren
ezin esplikatu danak.
Mundu guztiak emango ditu
merezi dituzten famak
ajola gabe uju egin zazu
Biba Ondarroatarrak!



01. **Bate sustatu:** batere ikaratu, izitu.
Hasieria: hasera, hastapena.
Zaiote: zaie.
Kostautikan: albotik, saihetsetik.
02. **Panparroi honek:** fanfarroi, harroputz
hauek.
Sosegau: sosegatu, baretu, mantsotu.
03. **Uran:** uraren.
Ez da suerta: ez da gertatu.
Bentajia: aldea, abantaila.

04. **Erramoa:** arrauna, erremua.
05. **Bapore:** motoredun itsasuntzia.
Salida: irteera, jalgipena.
Segira: segiran, berehala.
Aber: ea.
06. **Halaxe ere...:** hemen puntu bat erdi jan-
da dator.
Atzekiarik: aitzakirik, estakururik.
07. **Ajola:** axola, ardura, kezka.
Uju: pozezko oihua.

BERRIATUAKO EZKERRA

Franzisko Aranberri 1934an hil zen 74 urtekin. Berriatuko Antzubiako dorreari datxekola, badago etxe bat, *Ezkerra* edo *Ezkerranea* deritzona eta hortik zetorkion bere goitizena. Berriatuarra izan arren, Ondarroan eman zuen bere bizimodurik gehiena, itsasotik Antzubiara hondar lorrean gabarra batez, gero hemendik gurdiz behar zen tokira eramateko. Zenbaiten ahotik entzun dut Ezkerrak bertso paper bat baino gehiago atera zuela, Burgoari erantzunez eta abar, baina ez dut aurkitzeko zor-terik izan, estropaden haxe besterik.

1926ko ESTROPADAK

(Treñneru Estropadak. Ondarroa'ko Talaitik. 1865-1970. Augustin Zubikarai. 110. or.)

01 Mila bederatzirehun
ta hogetasei urte
liburuetan dala
behintzet dizute.
Bertso berri batzuek
jarri nahi nituzke
goidokira nago
laguntzaren eske
Jesus eta Maria
lagun zaidazute.

02 Komeni dan bezela
autortu dezagun
Donostian joko bat
guri kendu zigun.
Gizon faltso batgaitik
irabazi zigun
baina indarra nun dan
beti da ezagun
berriro ere laister
ginaden txapeldun.

03 Gizon hori (bizi) da
gugandik aparte
Montañako lurrian
egin du hainbat urte.
Gauza bastua beti
saldutzen da merke
berak probetxu gutxi
guri asko kalte
aberastasun gabe
dago orain arte.

04 Agorreko hilaren
lehenengo eguna
Donostiko estropada
ikusi genduna.
Han ba zan indarra ta
bai azkartasuna
batzuk tamala zuten
guk alaitasuna
Ondarrutarrarontzat
orduko fortuna.

05 Hilaren hamabian
berriro bestia
ai ze poza guretzat
hori ikustia.
Berriro erakutsi
zioten atzia
lan gehiegia zuten
lehenak bardintzia
gertatu zan dobliaz
bentaja kentzia.

06 Bigarren estropada hau
amaitu zanian
bazan tronpet soinua
Donostiko herrian.
Gure mutilak zeuden
berriz proba nahian
Errege Alfonsoren
yate aurrian
buelta eman zioten
txanpa ederrian.

07 Jaun honek ikustian
beraren aurrian
nola korritzen zuten
halako indarrian
neuk eramango zaituet
etxera bidian
bai entregatu ere
Ondarruko herrian
neuk azpian daukadan
yate berrian.

08 Goguan hartzekua
zan ikusgarria
orduko sarrerria
Ondarruko herrian.
Estropada mutilak
bapore aurrian
etxapelo ta soinu
portu berrian
Errege Alfonsoren
yate ederrian.

09 Donostiarrak egon
zindezkez etsita
orain gertatu dana
horrela ikusita.
Faltsokeriz lehen egon
ginaden jausita
diruak eta famak
zuentzat utzita
baten ordeztu lau orain
gaude irabazita.

10 Sei gariza haundiak
arraun indarretan
irabazi dituguz
Donostian bertan.
Diruak eta ere
lehenen ordainetan
korridu eta guzti
bai alajainetan
zer gertatu zaizute
Donosti horretan?

11 Orguiloz beterikan
zeuden Donostian
menden zeukelako ustez
Kantabri guztia.
Gizonak horrenbeste
harro izatia
batez ere Ondarru
nahi menperatzia
gerta zaizu diru ta
bandera galtzia.

12 Oriok desafio
Ondarrutarrari
“La Voz”-ian askok du
hori irakurri.
Errespuesta bertan
giniozan jarri
Bilboko premiora
eiteko etorri
jokatuko ginola
dirua alkarri.

13 Juan ginadenian
geure txalopak
Donostian honela
ziguten hitz egin.
Zertan zatozte hona
gabarra hoiekin
konparatzen al dezu
gure usuakin?
Usuak gabarriak
harrapatu ezin.

14 Juan Bautista Beitia
zu zera mutila
urtebeten barruan
horra sei bataila.
Abila zaralako
zu eta kuadrila
ikusiak badira
mikina bat mila
urte askotan horrela
portatu zadila.



01. **Liburuetan dala behintzet dizute:** esaldi honetan zerbait oker dagoela dirudi. Esan nahiko du: *liburuetan behintzat hala jartzen dute.*
Goidokira: donokira, zerura.
02. **Zigun:** *ziguten* behar lukeela dirudi, erri-matzeko laburtua. Horrela bada, ez da zuzena.
03. **Montaña:** Santander.
Bastua: zaskarra, traketsa.
05. **Lehenak:** lehengoak, lehengo markak.
Bentaja: aldea, abantaila.
06. **Yate:** luxuzko untzia, kirolerako eta aisiarako.
08. **Sarrerria:** sarrera, sartzea.
Bapora, bapore: motoredun itsasuntzia.
Etxapelo: etxafero, txapligu, suziri.
09. **Zindezkez:** zintezkete.
- Jausita:** erorita.
10. **Gariza:** badirudi *garaitza* dela, sei garai-pen izan bait zituzten.
Lehenen: lehengoan, lehenago jokatuena.
Korridu: korritu, interes.
11. **Orguiloz:** urguluz, harrokeriz.
Menden: mendean, azpian.
Zeukelako: zeukatelako.
12. **“La Voz”:** *La Voz de Guipúzcoa*, erdal egunkari baten izena.
Errespuesta: arrapostua, ihardespena.
Giniozan: genien.
Ginola: geniola.
13. **Usua:** usoa, hots, usoa bezain arin lasterkatzen den untzia.
14. **Urtebeten:** urtebeteren, urte baten.
Zadila: zaitezela.

JOSE BURGOA

Jose Burgoa Pagote (1887-1951) Ondarroako arrantzale bat izan zen, sei seme-alabaren aita. Lasaia eta parrandari samarra izan behar zuen. Bertsoak jartzeko zaletasun handia zeukan, baita beste batzurenak eskuz idatzita gordetzeko ere. Ikasteko edo ikasia ez ahazteko egingo zuen hori. Aita Zabalak Zabaleta anaiak liburuaren 143. orrialdean dio: “Ondarroa ko bertsolari batek, Burgoak, bertso auek artu, an da emen, komeni zitzaion bezela, aldatu, berak iru bertso asmatu, ta guziak bereak balira bezela atera zituan. Plagio itxusi bat, beraz”.

Ez dut uste Burgoak hain juzku gordinik merezi duenik. Hark, esan bezala, bertsoak kopiatzeko zaletasun izugarria zeukan, gero berak kantatzeko edo norbaiti emateko. Haren esku-izkribuetan ikusi ditut Pello Mari Otañorenak eta beste askorenak, oso kurioso idatziak, arrantzale soil bat izateko. Zabaletarenak ere hala zeuzkan, eta baliteke izenak eta tokiak Ondarroa ingurura egokitzea, berak kantatzean, egitasun gehiago emateko, baina ez bereak bezala kantatzeko. Gero, Burgoa hil ondoren, norbaitek Aita Zabalari paper hura bidali zion eta hortik heldu zen okerra.

TXAKURRARI

(Jose Burgoaren eskuizkribuak, bere iloba Maite Uribek eskuratuak, honi halaber Ondarroako Kepa Arrizabalaga Sagastak bere bilduma ugaritik fotokopiatuak emanak).

01 Kalandiko kaletik
moilara baino lehen
txakur txiki polit bat
hantxe galdu nuen.
Egiaz da jauberik
atzetik etzuen
baina jateko nola
pernilik etzuen
kontatuko dizut zertzuk
seinale zituen.

02 Zegamak jarritako
izena du "Pertxa"
goizero juaten zan
bustitzera fletxa.
Muturra zorrotza du
bizkar gaina beltza
ondo ebakirikan
belarriko ertxa
bi tajada ederrakin
atzetikan ertxa.

03 Luzez ez da izango
holako handikan
lo dagonian ez du
egiten zaunkikan.
Zertzuk ebiltzen ditun
harek atzetikan
hanka bien azpian
eta zintzilikan
nik uste det ez dela
ez dakienikan.

04 Bere ile txuriak
dirudi hirina
begi zabala eta
beherago orina.
Gorputza egokia
pausua arina
atzian du buztena
kizkurtu fin fina
behekuak tapatzeko
apropos egina.

05 Horregatik ez zuen
salduko ez eta
nahi urretan pagatu
mila bat pezeta.
Lepua koskabilo
politez beteta
hoien danen gainian
nausiaren letra
eta tripa atzian
ezetra ezetra.

06 Goizero jartzen nion
katilu zabala
txokolate onakin
kabidu ezin zala.
Badakit putz-ontzia
handikua zala
ez bazituen onak
kaja bat kanela
ez zan jaten hasiko
bera berehala.

07 Gainera jale ona
izanagatikan
kriantzan zerbitzen zan
plater garbitikan.
Gauza bat ez zuen hark
jango lurretikan
ez eta edan ere
uran tantarikan
arrebak ez bazuen
sartzen esponjikan.

08 Udako arratsaldetan
askotan etxetik
biok urtetzen gendun
pasiatzeagatik.
Baina sufritzen zuan
txakurrak burutik
sonbrila zabalduten
nion momentutik
eguzkiak gaitzik ez
egitiagatik.

09 Kalandiko kale
ilunaren bazter
etxe hartan bizi naiz
kaletikan ezker.
Txakurra bialdutzen
dabenari laster
hitzez emango diot
nik hainbeste esker
gero ez du izango
eskupetik ezer.



01. **Moila:** kaia.
Pernilik: xingarrik, urdaiazpirik.
Zertzuk: nolako gauzak. *Zer* pluralean.
02. **Fletxa:** fletxara? Toki izen bat dirudi.
Tajada: xerra.
Atzetikan ertxa: ez dakit. Puntu bat aurreragoko *ertxa* edo *ertza* izateak zail dirudi.
03. **Holako handikan:** holako handirikan, horren handia.
Zaunkikan: zaunkarik, ahausirik.
04. **Orina:** orainena, azaleko orban pigmentatu txikia.

- Apropos:** berariaz, bereziki.
05. **Nahi:** nahiz, nahizta.
Ezetra: etcetera, etabar.
07. **Kriantzan:** gizalegez, edukazioz.
Uran: uraren.
Esponjikan: esponjarik, belakirik.
08. **Urtetzen gendun:** jalgiten, ateratzen ginen.
Sonbrila: itzalkina, geriza egitekoa.
09. **Dabenari:** duenari.
Eskupetik ezer: eskupeko edo saritzat deus.

ANTIGUAKO AMARI (II)

(Aurreko bera)

01 Bertso batzuek jartzera nua
Antiguako amari
eskatzen diot lagundutzeko
aste barruan lanari.
Goi aldetikan begira dago
herri hontara danori
ondo dakigu zu zariala
Ondarruako zaindari.

02 Tontor horretan ikusten zaitut
Ama, zagoz zu hor goitik
Seme Jesusi erregututzen
gu pekatariokaitik.
Itxasoari begira zagoz
leku sagradu hortatik
Oh zenbateri lagundu diozun
ateratzen uretatik.

03 Zu zera, Ama, gure zaindari
graziaz beterikua
itxastarrari sarri askotan
luzatu diezu eskua.
Gu ere ezin ahaztu gerade
oh, Ama Antiukua
fediarekin aitortzen degu
zerala egiazkua.

04 Oh gur Ama, oh gure Ama
zera graziaz betia
goi aingerua agertu zaizu
esanaz Agur Maria.
Zu zera bada itxas gizonen
izar eder ta argia
pekatarien Ama laztana
zainduizu Euskal Herria.

05 Ama maitia, Ama laztana
maite zaitugu benetan
gure fedia sinisten degu
itxastar herri honetan.
Gure guraso maitagarriak
hor dagoz zure oinetan
eraman zazuz zure ondora
aingeruekin kantetan.



01. **Zariala:** zarela.

02. **Tontor:** gailur, erpin. Antiguako Amaren eliza Ondarroaren gain gainean eta altu samar dago.

Zagoz: zaude.

Sagradu: sakratu, saildu.

03. **Sarri askotan:** oso maiz, anitzetan.

04. **Zainduizu:** zain ezazu, gorde ezazu.

05. **Dagoz:** daude.

Zazuz: itzazu. Bizkaiera-gipuzkeren forma nahastua.

Kantetan: kantatzen, kantatzera.

BERRIATUKO ZEZENA

(Aurreko bera)

01 Berrituko herrian
pasatu dalako
obligatua nauka
bertsuetarako.
Plaza bat egina da
ez dakit zetako
askoren iritzian
zezenketarako
ganantziak ederrak
ditu aterako.

02 Zezen plaza zeudela
Berrituko herrian
ezin sinistu nuen
nere barrenian.
Behin baten joan nitzan
ikusteko irian
farrez egondua naiz
ordu ta erdian
plazaren ingurura
sartu nitzanian.

03 Jarri nitzan txokatzen
zezen plazarekin
endemas han dagozan
jarri lekuakin.
Preparaturik zeuden
egur zaharrarekin
ez det engainatu nahi
inor gezurrakin
ikusi detelako
nere begiakin.

04 Zezenak ailegatu
ziraren herrira
ikusitzera jente
asko etorri da.
Izugarrizkua zan
orduko korrira
zezena atera zan
plazaren erdira
nora ez zekiela
jarri zan begira.

05 Zezenak erakusten
baserritarrari
gauza txokantien bat
izango zan hori.
Ez dakit nondik ziran
honera etorri
behintzat ibilia zan
estu eta larri
azkeneko orduan
zubelako jarri.

06 Zezen horrek zeukaten
abilidadia
ikaratu omen zan
toriadoria.
Artaburu bat auban
zeukan janaria
atzeko ostikua
berriz dantzaria
zezena ezin hil de
ha zan korriria.

07 Nik ez dakiat ondo
nola zan pasatu
iskanbila handi bat
omen zan altxatu.
Jendiari ez zaien
nunbait gustatu
gizon balientiak
ziraren sustatu
zezenak plazatikan
zien eskapatu.

08 Suzko zezenak gisa
plazako tartia
aguro libra zuen
hango estratia.
Toriatzeko ustez
kapa ta ezpatia
gora altxaturikan
buzten da patia
orduan pentsa zuten
aurrera jotia.

09 Gero pasatu zana
gauza txokantia
zezenak atzetikan
bazuan jentia.
Begi argiak eta
buztena tentia
merezi izan dute
han zeguan juntia
kartzelan sartu eta
kentzia muntia.

10 Belarriak zutunik
dantzari adarrak
astinduten zituzen
suak eta garrak.
Zezen horrek zeraman
otak eta larrak
baserritarrak bildur
eme eta arrak
arrazoia dezute
nere lagun zaharrak.

11 Gizonikan gehienak
egin ziran eten
nok esplikatu hemen
nora ziran juaten.
Automobilarekin
azkar ziran urten
inola ere ezin
harrapatu zuten
azkeneko ere
tiroka hil zuten.

12 Nere lagunak, hau zan
zezen zelebria
behintzat han ikusten zan
jende alegria.
Farrez itotzen zeuden
herririk erdia
ernegatutzen berriz
toriadoria
eraman ziolako
bestik belarria.

13 Jendia begiraka
Berrituko herrian
zezena toriatzen
Iturri Barrian.
Hau ere gertatu zan
gure alderdian
horra bertso berriak
euskera garbian
zezenaren kontuak
jarri paperian.



01. **Zetako:** zertako, zertarako.
Ganantziak: irabaziak.

02. **Zeudela:** *zegola* behar luke.
Irian: idian, idean, asmoan.

03. **Txokatzen:** harritzen, txundituzen.
Endemas: gainera, batez ere.
Dagozan: dauden.
Jarri lekuak: eserlekuak.

04. **Ziraren:** ziraden, ziren.
Korrira: korrida, zezenketa.

05. **Txokantien bat:** harrigarriren bat.
Honera: hona, hunat.

06. **Zeukaten:** *zeukan* behar luke.

Toriadoria: toreatzailea, toreroa.

Auban: ahoan.

Ezin hil de: ezin hil eta.

Ha zan korriria: hura zen korrida, zezenketa.

07. **Ez zaien:** ez zitzaion.
Sustatu: izitu, ikaratu.

08. **Aguro:** laster, fite, azkar.
Libra zuen: libre utzi edo jendez hustu zuen.
Estratia: estrata, gupide ibiliak sakondua.
Patia: gaztelaniazko *pata*, zangoa, ostikoa.

09. **Juntia:** junta, batzordea, zezenketa antolatua zuena.
Muntia: multa, isuna.
10. **Zutunik:** zutik, tente.
Astinduten zituzen: altxarazten zituen.
Otak eta larrak: oteak eta sasiak. *Larreak*, Bizkaialdean, *larreak* ere izan daitezke.

11. **Urten:** jalgi, atera, irten.
12. **Zelebria:** xelebrea, irrigarria.
Alegria: alegera, alaia.
Ernegatutzen: ernegatzen, amorratzen, sumindurik.
Bestik: besteak.

EZKERRAREN BIZIMODUARI

(Aurreko bera)

- 01 Bi bertso paratzeko hartu detan era beltzitu bihar diat honetan papera. Ezkerra etorri zaigu Ondarru aldera kontatuko dizkizut horren gorabehera.
- 02 Beraren hazienda da zaraku zaharra askok egiten dio burla eta farra. Bere kargamentua omen da hondarra hortan enpleatzen du Ezkerrak indarra.

- 03 Zarkuak muturra badauka hausita atzeko txatadela du erdi josita. Farre egin lezake bera ikusita Ezkerra hortxe dabil soluak utzita.
- 04 Korrentak eramanda uholak ekarri makina batek daki Ezkerraren berri. Patxaran batzuetan baina askotan larri horren bizimodua daukat errukarri.

- 05 Goizeko bedratziak ziraren puntuan zarakua zedukan moilaren onduan. Bajamarra noiz zanik ez zeukan goguan talentu ona dago Ezkerran buruan.

- 06 Eskilaran kontrara arrimaturikan berak honela dio: Ez da bildurrikan. Hondorik ez du joko hemen oraindikan ordu puskaten bila noa hemendikan.

- 07 Eskuan harturikan txopatik botila segituan dijua arduaren bila. Zurrutian jarrita haren iskanbila horra inkaila zaio zarakuari kila.

- 08 Uste zuen bazala bera platikua moila kontran inkaila zaio zarakua. Gizon hori ote da Antzubiakua? Preso hartuko nuke banitza kabua.

- 09 Inori kantak jartzen zebilen berori baraje ederrian gaur zera erori. Boleturik gabeko gizona da hori eman lezake parte Komandantiari.

- 10 Gero ziran komeriak moila muturrian Ezker hori zebilen eten biharrian. Oraintxe gelditzen naiz altura ederrian hondarrikan gabe zaraku zaharrian.

- 11 Hasi zan bultzadaka indar guziakin baina inola ezin egin zien zirkin. Gero ikusia da hatxur da parakin Ezkerra bueltan jua zan karga erdiakin.

- 12 Ni naiz arrainzale bat euskaldun jatorra horren bizitza berriz Antzubiko Torra. Adituko dituzu ez bazera gorra hamabi bertso berri Ezkerrantzat horra.

Istribillo:

Ezkerra bueltan etortzen bada
zaraku zaharrakin
ibili beharko dute
kontu handiakin.
Herri guzia kejurikan
daukazu zurekin
ordainak bueltan jarri ezazu
hartu badezu min.



01. **Beltzitu:** beztu, beltz jarri.
Dizkizut: *dizut* beharko luke.
02. **Hazienda:** ondasunak, edukia.
Zaraku: untzi mota bat.
03. **Txatadela:** toletera, toleta bertan sartze-ko pieza.
Soluak: soroak. Ezkerra baserritarra bait zen.
04. **Korrentak:** korronteak, goaiak.
Uholak: ur handiak, uholdeak.
05. **Ziraren:** ziraden, ziren.
Moilaren: kaiaren.
Bajamarra: itsasbehera.
06. **Eskilaran:** eskilararen, zurubiaren.
Ordu puskatzen: denbora pixka batean.
07. **Txopa:** untxiaren atzealdea.

- Iskanbila:** zalaparta, arrabotsa, nahastea.
Kila: gila.
08. **Platikua:** praktikoa, ingurua ezagutzen duelako, untzia gidatzeko zeregina daukana.
Inkaila: enkailatu, hondartu, hondoa jo.
09. **Baraje:** paraje, inguru.
Boleturik: baimenik. Itsas komandantziak ematen duenari esaten zaio.
11. **Zirkin egin:** mugitu, mugiarazi.
Zirkin: mugimentu txikia.
Hatxur da parakin: haitzur eta palarekin.
12. **Antzubiko Torra:** Antzubiko Torre, Ezkerraren baserriaren izena.
Istribillo: errepika.
Jarri ezazu: *jarri itzazu* beharko luke.

SANTA LUZIETAN

(Aurreko bera)

- 01 Santa Luzi eguna
seinalagarrian
ni arkitzen nitzala
moila barrenian
Ezkerra ikusi nuen
zaraku zaharran
bera bakar bakarrik
hondar bazterrian.
- 02 Zarakua zedukan
beteta hondarrez
bakarrik ezin zuan
eraman indarrez.
Jende asko zeguan
moilatikan farrez
zebilela ikusirik
olatutan trabes.
- 03 Tragatu behar zuen
ia olatuak
larri zeuden botatzen
ordarka muntuak.
Horlakoxiak ziran
Ezkerran kontuak
horrelan ibilitzen
dirare tontuak.
- 04 Hondartzara trabeska
azkar beheraldiak
enpleatzen zituzen
abilidariak.
Atzera eta aurrera
korrika biriak
Ezkerrakin pasatu
dira komeriak.
- 05 Berga mutur batekin
sakara balantzak
irten behar zikiren
gibela ta gantzak.
Itsutu behar berriz
olatuan hautsak
Ezker horrek zebiltzen
indarra ta putzak.
- 06 Egun sinalatua
Santa Luzietan
komeri hau pasa da
hamar da erdietan.
Zarakua puskatzen
zeuken arroketan
Ezker hori arrazoiak
estu zan praketan.



01. **Moila:** kai.
Zaraku: untzi mota bat.
02. **Olatutan trabes:** uhinetan zeharka, okerka, noraezean.
03. **Tragatu:** irentsi.
Ordarka muntuak: hondar multzoak, hondar pilak. *Ordarka* garbi irakurtzen da, baina *hondar* izan behar duela dirudi.

- Dirare:** dirade, dira.
 04. **Biriak:** bidiak, bideak.
 05. **Berga:** makila, hage.
Sakara: sakada, bultzada.
Balantzak: kulunkak, albokadak.

- Zikiren:** zioten.
Olatuan hautsak: olatuak edo uhinak jasotzen duen apar-urezko hauts fina.
 06. **Estu zan praketan:** larri zegoen bere galtzetan. Estura edo larritasun handia adierazteko esamoldea.

MEKOLETAN

(Aurreko bera)

- | | |
|--|--|
| <p>01 Txoritxo maitagarriak
 poztuta udaberriak
 kantari dagoz jarriak.
 Lainopetikan hasi badira
 argitzen goiko mendiak
 eta zelaiko herriak
 larrosa muxu gorriak
 dituguz berri berriak.</p> | <p>03 Euskal Herrian kukuak
 aspaldi etorritakuak
 badaude tripotx bajuak.
 Argal samarrak etorri arren
 ondo hartu ditu lekuak
 sartu arte arregluak
 gero nagusi goikuak
 gu hemen gizarajuak.</p> |
| <p>02 Kukuak zaiguz etorri
 ezer ez digu ekarri
 eta gaudez hemen larri.
 Euskal Herrian guk ez badogu
 ekiten irmo lanari
 gogoz eginaz danari
 galduko zaigu Euskadi
 ez bai digute nahi guri.</p> | <p>04 Habek dirare egiak
 euskaldunari jarriak
 argi ditzagun begiak.
 Ez digu beti guk ari bihar
 hazitzen kukun umiak
 gosiak digula guriak
 topa ditzagun hobiak
 izateko norberiak.</p> |



- | | |
|---|---|
| <p>01. Dagoz: daude.
 02. Zaiguz: zaizkigu.
 Irmo: tinko, gogor.</p> | <p>Ez bai digute nahi guri: ez bait gaituzte gu maite.
 03. Tripotx: tripa.</p> |
|---|---|

- Arregluak:** konponketak, onezko tratuak.
Gizarajuak: gizajoak, gaizoak, errukarriak.

04. **Habek:** hauek.

- Dirare:** dirade, dira.
Hazitzen kukun umiak: hazten kukua-ren umeak.
Gosiak digula: goseak ditugula.
Norberiak: norbere buruaren, geure buruen jabeak.

Mekoleta Otxandioko auzo bat da eta Jose Burgoa gerratean han eduki zuten lan bortxatueta, "trabajadoreetan" esaten zutena.

1926ko ESTROPADAK (I)

(Ondarroako Kepa Arrizabalaga Sagastak eskuz transkribaturiko orri sorta, berak dauzkan Jose Burgoaren eskuizkribuetatik)

- | | |
|---|--|
| <p>01 Mila ta bederatzi egunda
 hogetasei garrenian
 irailaren bostian izan
 ginan Donostiko herrian.
 Zazpi txalupa juntatu dira
 probatzeko arraunian
 aitzaki gabe jokatu dute
 makina baten aurrian.</p> | <p>03 Lehendabizitik jokatutzera
 lau ziraden atariak
 Hondarrabia eta Pasaia
 Donostia ta guriak.
 Gipuzkuarrak uste zuten
 eurak zirala hobiak
 garai honetan ezagutu da
 nun diran arraunlariak.</p> |
| <p>02 Zazpi txalupa hoietatikan
 hiru ziraden Bizkaitik
 Ondarrutarra aurretik baietz
 trabesa bazan gogotik.
 Dirua franko erabili da
 Bizkaitarraren aldetik
 boltsak ederki hustutakuak
 badira Gipuzkuatik.</p> | <p>04 Lau txalupa hoiek Kontxa horretan
 gogotikan dira saia
 aguro azkar isildu ziran
 Donostiarren kanpaia.
 Egun horretan Gaztelutikan
 ez zeuden jente lasaia
 premiorako gelditu ziran
 Ondarrua ta Pasaia.</p> |

05 Premio hori jokatu zana
irailaren hamabia
Pasaiatarrak beretzat uste
dudarik ez dago ia.
Baina aurretik etorri zaie
uste ez zuten erbia
Gipuzkorako hau izango da
egun seinagarria.

06 Aspalditikan oihuka zeuden
gurekin jokatzeko
despreziorik asko izan da
ez degu ukatuzeko.
Donostiarrak harro zebiltzen
gure indarrak neurtzeko
egun alaia ez zan izandu
Kaiako atxuentzako.

07 Hogeita zortzi urte dirade
Kontxan jokatu zutela
orduan ere arraunerako
ez zan kuadrila ustela.
Gaztiak ere gogor egin du
lehenago zaharrak bezela
bigarren aldiz ekarri dute
Gipuzkoako txapela.

08 Desaide asko aditu degu
Bizkaiko portu batetik
haserre samar gaur ere dira
ez dakit hori zergaitik.
Zer kulpa degu arraunlariak
zuek ez izanagaitik?
Hemengo kastak ateratzeko
bialdu pare bat hortik.

09 Premiorikan asko badegu
irabaziak bakian
orainguan be kontentu gaudez
beste danakin batian.
Mingainarekin balientiak
zuek hor zagoz atian
biria libre izango dezu
juan datorren urtian.

10 Premio onak izaten dira
alde batetik bestera
ezagutuko zaituzte noski
hara juaten bazera.
Hamabi mila pezeta eta
sedazkua zan bandera
Ondarrutarrak irabazita
ekarri dute etxera.

11 Desprezio hau aitzen genduen
makina baten agotik
hor jolasian ibili gabe
ekarri Gipuzkoatik.
Aurten Kontxara etorri gera
askoren esanagaitik
juan nahi duanak kontrariorik
ez du izango gugaitik.

12 Guri begira gustora zeuden
familia erreala
baita eskerrak ematera
etorri zan berehala.
Errege jaunak berak esan du
ondo portatu gerala
agindu zigun bere yatian
juan bihar genduala.

13 Ez zait ahaztuko neri sekula
mutil hoien etorrera
ikusgarria izan zalako
egin zioten harrera.
Gipuzkoako matrikulakin
irabazi du bandera
askok pentsatzen ez zuen baina
Ondarruan dago bera.

14 Ai zer pozikan hartu zituen
herriak eta auzuak
hoientzako izandu dira
txalo ugari gozuak.
Bolanderaren tiruak eta
musika soinu ta ujuak
aurten gehiago merezi dute
mutil indartsu brabuak.

15 Arraunlariak ikusi deguz
sanuak eta fuertiak
ondra haundia irabazi du
Juan Bautista Beitiak.
Azaina handiak eginak dira
hain dira balientiak
mutil hoieri bildurra zaie
Kantabriako jentia.

16 Ez det esango gaizki portatu
dirala Gipuzkoatik
irabaziak zerbait jartzia
dudarik ez da hortatik.
Gure fabore asko izan da
Deba ta Mutrikuatik
hain jente pila txalotutzera
etorri zaigu bertatik
zuei eskerrak bialtzen dizuet
auzuak geran partetik.



01. **Egunda:** ehunda, ehun eta.

02. **Trabesa:** jokua, apustua.
Franko: frango, ugari.

03. **Atariak:** jalgiak, irtenak.

06. **Atxuentzako:** atsoentzat.

08. **Desaide:** arbuio, mesprexu, erdeinu.
Bizkaiko portu batetik: Lekeitiotik esan
nahi du. Baditu beste bertso batzuk Le-
keitiarren aurka.

09. **Zagoz:** zagoze, zaudete.
Biria: bidea.

11. **Aitzen:** entzuten.
Agotik: ahotik.

14. **Bolandera:** suzeria, txapligua, etxaferoa.
Ujuak: sorgin antzeko oihuak.
Brabuak: suharrak, kementsuak.

16. **Gure fabore:** gure alde.

Sorta honetako zortzigarren bertsoan dionagatik, Burgoari isuna ezarri zioten. Orduan jende askok lagundu nahi izan omen zion bertsolariari eta diru batzea antolatu zen, batzailea Barbare Arrizabalaga Sagasta izan zelarik. Paperak ehundik gorako izen-abizen zerrenda dakar, lagun-

tzaile haienak, bakoitzak zenbana eman zuen izendatuz. Hamar pezetako hiru, bosteko mordotxoa, gehienak pezeta bat edo bikoak, eta ez gutxi pezetatik beherakoak, 0,10, 0,25, 0,45, 0,50 eta horrela. Okin batek lixiba kaxa bat ere bai. Guztira 207,85 pezeta. Gero ordaintzera joan zenean, barkatu egiten zitzaiola esan zioten eta berriro denei bakoitzari berea bihurtu zien.

JOSE «BRONTXE»

Jose Otxoantezana Urkiola, Ondarroakoa, baporetako makinista zen. Denek Jose Brontxe lez ezagutzen zuten.

1926ko ESTROPADAK (II)

(Berriatuko Altzalei bertsolariaren etxean daukaten bertsopapera. Azpian jartzen du: *Imprenta Moderna. Deva*)

- | | |
|---|--|
| 01 Bertso berriak jartzera nua
gusto duenak aditu
nere barrena betia dago
gehiago ezin kabitu.
Pentsamentuan jarri orduko
bihotza gata mugitu
nahiago nuke pasa bezela
zuzen kontako banitu. | 03 Hogeita zortzi urte dirade
Donostiara juan ziran
hiru treneru hilaren lauan
ederki probatu ziran.
Hilan zortzian Donostiarra
ura bentajaz atzian
premiua ta bandera hartuta
etxera etorri ziran. |
| 02 Motiborikan asko badegu
zerbait esaten hasteko
danontzat igual egon da aukera
estropara jokatzeko.
Gure auzuak modu honetan
gu gorrotuan hartzeko
arrazoidikan ez det bilatzen
tamaino hortan jartzeko. | 04 Handik lau urte pasata gero
Bilbora ziraren juan
hiru premio egondu eta
danok ziran Ondarruan.
Bizkai danetik herri bakarra
falta izan zan orduan
beti ikasten baldin badabiz
ez jarri haren onduan. |

- 05 Harrezkerotik aditu degu
makina bat desprezio
lehenago izanagarren zerbait
gaur ez duela balio.
Hiru nagusi hor daudetela
Pasai, Donosti ta Orio
hoiek guztiak aditu arren
egondu gera serio.
- 06 Klub Deportibo Ondarrutarra
juan dan urtian zan jarri
Portugaleten dagon kopia
behar zuela ekarri.
Da bost treneru alkarren kontra
kostauan ziran izarri
kopak gureztat ziraren baina
bai gorrotua ugari.
- 07 Estropada hau irabazita
jentia hasi zan esaten
Bilboko kaldereruari
errez dala irabazten.
Horren abilak izanda zertan
Donostira ez zera joaten
Gipuzkoako mekanikuak
probatu ditugu aurtan.
- 08 Gipuzkoako profesoriak
pentsata zeuken jokua
Donostiarra lehendabiziko
bigarren Pasaiakua.
Hirugarrengo Fuenterrabia
laugarren Ondarrukua
baina Beitian kuadrila ez da
horrela gelditzekua.
- 09 Lekeitio hortan omen zeukazen
fiestak preparatuta
Ondarrutarrak baldin badatoz
Donostiatik galduta.
Hiru korrida eiteko asmu
dirua ere batuta
zezen jaubia bialdu dute
bere zezenak hartuta.
- 10 Bizkai aldian euki nabogu
gure onra eta fama
bi portu horri erregalatu
lezake treneru bana.
Da euren bila datozenian
gainera jan da edana
errege jaunak kopatik berriz
eran dezaten txanpana.
- 11 Portu bi horrek nortzuk diraren
Lekeitio ta Bermeo
egia klaru esatekotan
ajolarikan ez dio.
Motibu gabe eman dizue
makina bat desprezio
orain isilik egon zeintek
ez badezue balio.
- 12 Mundu honetan ikusten degu
persona askoren grina
norbera baino abilagorik
inor ikusi ezina.
Guk estropada irabaztiak
eman al dezute mina?
Akaso igual zuek nagusi
juanda probatu bazina.

- 13 Bizkaia eta Gipuzkoarrak
konbenzitu al zera on?
Ondarrutarrak baldin badatoz
berriz ere listo egon.
Horregatikan musikak ere
gaur jotan digu aleron
nahi ez duenak aditu behar:
Ondarrutarrak kanpeon!
- 14 Sei estropada bost trenerutan
eta seiretan lehenbizi
gure denporan holakorikan
inor ez degu ikusi.
Ondarrutarrak arraun lanian
eginagaitik itxusi
hobe zenduke eurak bezela
kostautik juaten ikasi.



01. **Gata:** jata, zait.
03. **Traineru:** traineru, hamairu arraunlari
eta patroia dituen estropada untzia.
Ura bentajaz atzian: ura abantailaz,
alde eduki arren, atzian gelditu, hots, han-
goak izanik, euren urak zirela, hobeto
ezagutzen zituztenak.
04. **Ziraren:** ziraden, ziren.
Dabiz: dabiliz, dabilza.
05. **Harrezkerotik:** geroztik.
Desprezio: mesprexu.
06. **Kopia:** kopa.
Kostauan: alboan, aldamenean.
Izarri: ezarri, jarri.
07. **Zeukatu:** zeukaten.
Kaldereruari: galdaragileei, berzkinei.
Zertan: zergatik.
09. **Zeukatu:** zeukaten.
Fiestak: besteak, jaiak.
Korrida: zezenketa.
10. **Nabogu:** nahi badogu, badugu.
Onra: ohorea.
Bi portu horri: bi portu horiei.
11. **Diraren:** diraden, diren.
Klaru: argi.
Ajola: axola, ardura.
Dizue: diguzue, edo duzue.
Zeintek: zintezke, zintezkete.
12. **Dezute:** dizue.
13. **Zera:** zarete.
On: orain.
Listo: argi, erne.
Aleron: aliron. Irabazle oihua, Athleticen
eresitik zabaldua.
14. **Eginagaitik itxusi:** egiten edo jartzen
dituzuen arren itsusi.

ERREGINE DIENESI

(Ondarru, kantu, otoi, orru..., 17. or.)

01 Bertso berriak jartzera nua
gusto duenak erosi
fiestak nola pasa ditugun
nahi nuke adierazi.
Musika eta tanborrarekin
gainera orfeoi ta guzi
Donostiako etorreria
esan behar det lehenbizi.

02 Motor ta bapor etorri ginan
Donostiatik batian
eta Debara sartu ginaden
ia hondarrera artian.
Txupinazo ta txistua joaz
danok umore onian
da Mutrikuko agintariak
han ziran gure tartian.

03 Handik urtenda Mutrikun ere
igual egin genduan
mendietatik guri begira
jendia franko zeguan.
Mutrikuar ta Elantxobetar
danok alkarren onduan
anaiak ginan bezela igual
etorrera egin genduan.

04 Erregearen "Facun"-en ziran
gure mutilak atzetik
motor ta bapor musikarekin
atera ziran etxetik.
Lehor guztia betia jentez
biba deharrez bestetik
gaur ez dakigu zeinbat pertsona
etorri zan herbestetik.

05 Gero gabian etorri zakun
Mutrikutik tanborrada
aditutzian gure bihotzak
hasi ziraden dardara.
Guk hain gustora entzun genduen
horren tanborren arrara
gure atzetik etorri zakun
musikarekin Debarra.

06 Mutrikuarrak eta Debarrak
gurekin portatu zera
zeregaitikan gu alabatzen
gugana etorri zera.
Gu hemen gaude, gure preminan
inoiz arkitzen bazera
anaitasun handienarekin
bizi nahi degu aurrera.

07 Handikan laister aditu nuen
belarrietan pregoia
gu alabatzen nola datorren
Durangotik orfeoa.
Leku batetik adituko zan
horren kantuen orroia
kristau hoiek merezi dute
sonbreru orde z koroia.

08 Beheko fiestak akabatuta
kale handira ginan jaso
ezin emanik egondu ginan
ordu betian lau pauso.
Erreginatzat Dienesi ta
tanbolinakin Damaso
hobiagorik egongo ote da
mundu honetan akaso?

09 Biba Mutriku eta Debarrak
da biba Durangokuak
guztien partez miloi bana esker
Brontxe Ondarruakuak.
Agradezitzen ondo dakigu
geuri ondo egindakuak
zeruetara jasoko al zaitu
danok gure Jaungoikuak.

10 Ondo dakigu Kalanditarrak
zuek zerana nagusi
lehenago ere zuen kalia
hobetu zan ikusi.
Kalia horrek horlan ipintzen
nun ote dute ikasi?
Danon erregin hor daukazute
Saguneko Dienesi.

11 Mahai handi baten gainian zeuan
Kalandiko erregina
jendiak bera salutatutzen
eitan zuan ahalegina.
Ondo ederki ematen dezu
bada zerbaiten premina
hobetuago emango zuan
pixkat pintatu bazina.

12 Gure mutilak nobliak dira
da bihotzetik zabalak
horregaitikan horren buruak
harturik daukatez ahalak.
Herri guztia disfratzatuta
ustez ziran karnabalak
horrelangorik ez zan izango
izan baziran makalak.

13 Fiestarikan asko ein degu
estropaden izenian
jendia ere aspertua da
gehiago ezin eginian.
Da pelikulak atera ditu
bialtzeko zuzenian
hemen ikusi ez dituenak
ikusikoitu zinian.

14 Kozineriak ere ez dezute
aurten eduki hain txarrak
zeuei danori jaten ematen
atera tuzte aparrak.
Berez umila eta garbiak
jenioz barriz azkarrak
horregaitikan agertu dira
gure mutilen indarrak.

15 Hamabosgarren bertsuarekin
banua despeditzera
piska bateko erretirua
orain baguaz hartzera.
Guregaitikan gaizki esaten
barriro hasten bazera
gaizki esanka gugana aurten
zertan etorri etzera?



- | | |
|---|---|
| 01. Fiestak: bestak, jaiak.
Etorreria: etorrera, yitea. | 09. Agradezitzen: eskertzen. |
| 02. Txupinazo: jai bati hasera emateko suzi-
ri handi bat danbaraztea. | 10. Kalia horrek: kalea horreik, horiek.
Horlan: horrela.
Sagune: Saguene. Familia baten izena,
<i>Sagu ezizenetik.</i> |
| 04. Deharrez: deihadarrez, oihuka. | 11. Zeuan: zegoen. |
| 05. Gabian: gauean.
Zakun: zitzaigun.
Horren danborren: horien danborren.
Edo baita <i>danbor horien</i> .
Arrara: arrada, danborren eta gisakoen
hotsa. | 12. Horren buruak: horien buruak.
Horrelangorik: horrelakorik. |
| 06. Zeregaitikan: zergatik, ze, zeren.
Premian: premian, beharrean. | 13. Ikusikoitu: ikusiko ditu.
Zinian: zinean. |
| 07. Horren kantuen: horrein, horien kan-
tuen. Edo baita <i>kantu horrein</i> , horien. | 14. Kozineriak: kozinerak, emakume suka-
dariak.
Tuzte: dituzte. |
| | 15. Esanka: esaka, esaten.
Zertan: zergatik. |

ONBE

Domingo Besoita Ormaetxea Berrizko Sarria auzoko Onbe base-
rrikoa zen eta hortik zetorkion ezizena. Jaiotza-heriotzen data zehatzik ez
daukat, gerra aurretik hil zela besterik. Bertso hauek jarri zituenak ge-
hiago ere jarriko zuen segurrenik, baina nire eskura ez dira heldu. Pape-
rak gaztelaniazko idazpuru bat dakar: *Inclito eta ilustre Santuario de los
Santos Antonios de Urquiola*. Gero jarraitzen du:

“El portador de este billete N° 4 ha entregado la limosna de cin-
cuenta céntimos para las atenciones de la muy antigua Venerable Cofra-
día de los Santos Antonios, canónicamente erigida en este venerado San-
tuario, la cual, siguiendo tradicional costumbre, inmediatamente despues
de la Misa mayor de la festividad de San Antonio Abad del presente año,
regalará entre los Hermanos de la Vble. Cofradía y demás piadosos devo-
tos del Santo, dos hermosos cerdos y un objeto artístico que para este fin
los tiene destinados.

Urquiola 1° de enero de 1927. El Administrador.

NOTA.- De no comparecer los agraciados dentro de los ocho pri-
meros días, los animales serán vendidos y su importe se reservará hasta
el día 31 de diciembre y una vez pasada esta fecha será entregada la can-
tidad en concepto de limosna para la obras de Santuario a la Junta cons-
tructora del mismo”.

Eta jarraian Onberen lau bertsook datoz. Urkiolako Santutegiko obra
kontua aspaldikoa da, antza.

URKIOLARA

(Jon Irazabalek Urkiolatik eskuraturiko fotokopiak).

01 Urkiolara ni noanetan
han egoten naz begira
zeinbat gixajo gatz haundidunak
hara heldu ete dira!
Makuluak han, burdi haundia
betetako lain badira
osaturiko herren geixuak
itxitakuak ei dira.

02 Zeinbat mirari egin dituan
San Antoniok munduan
ez da erreza agertutia
hemen orain ta behinguan.
Marinelari lagundu deutse
itxas lanetan sarritan
horren gomutan txalupatxuak
eseita dagoz han bertan.

03 Baserrikuak aldi askotan
Urkiola jo ohi dabe
laguntasuna eskatutera
ta horren damurik ez dabe.
Santu haundiak gordetan deutsez
solo ta ganauak bere
Horrixegaitik sal-erosian
San Anton aitatzen dabe.

04 Osagile ta Albaiteruak
dira munduan ugari
osagei onen bila dabilta
geixo direan danari.
Ez naz horretan areriuua
jarrai beioe lanari
Baina San Anton baixen hoberik
ez da oindino agiri.



01. **Gixajo:** gaizo, gajo, errukarri.

Gatz: gaitz.

Betetako: betetzeko.

Lain: aina, beste, bezanbat.

Osatu: sendatu.

Itxitakuak: utziak, utzitakoak.

02. **Behinguan:** berehala, bat batean.

Deutse: die.

Gomutan: oroitzapenean, oroimenean, gogorapenean.

Eseita: esegita, eskegita, zintzilik, dilin-dan.

Dagoz: daude.

03. **Dabe:** dute.

Gordetan deutsez: gordetzen dizkie.

Ganauak: ganaduak, aziendak, abereak.

Bere: be, ere.

04. **Osagile:** sendagile, mediku.

Osagei: osagai, sendagarri, sendakin, medizina.

Areriuua: etsaia, kontrakoa.

Beioe: biezaiote, diezaiotela.

Baixen: baino.

Oindino: oraino, oraindik.

Bertso hauen jartzaileak, orduko uste nahiko zabalduari jarrai, *dira*, *dabe* eta abar ez zituen pototzat jotzen, aditzaren atzizkitzat baizik.

PAULO ZAMARRIPA

1877an Laredon jaiotako eta 1950ean Sondikan hil zen idazle honek hainbat gramatika lan eta bestelako idatzi zuen prosan, poesia eta bertso-gintza ere landu zuelarik. Bizkaieraren eta batipat Txorierriko euskararen lekuko oparoa da. Garaiko euskalgintzan, Altube, Azkue eta abarrek, figura garrantzitsua izan zen.

MOZKORTI BATEN NEURTITZAK

(Euskalzale. 1898. garagarrilaren 28, 236. or.)

01 Entzun nahi bozuz, irakurlea
mozkorti baten neurtitzak
entzuizuz gogoz, adiskidea
harturik danak egizat.

05 Ardao hain onak atzipeturik
mozkor polita dot hartzen
ezin nei urten ardantegitik
edonon bada naz jausten.

02 Domekan noa ardantegira
ardao gozoa edaten
bada ur hotza edan nahi banau
edonon dot hau bilatzen.

06 Neu neuretara ardantegian
zutunik banaz ibiltzen
behingo behingoan jausten naz zehar
ez bausat ezeri eusten.

03 Eskatuten dot pitxerditxu bat
hau da sartu ta behingoan
bigarren aldiz eskatuten dot
hau edan egin orduan.

07 Neu baino lehenao ardao jaubea
larrituten da nigaitik
etxeratu ni eitea nahi dau
urtenik ardantegitik.

04 Edan da edan nago poz pozik
han arratsalde guztian
andra ta ume egonagaitik
neure begira etxean.

08 Banakardie gizon batzuek
euron bizkarren ganean
neure etxera han ipintera
ohitxurik astinenean.

- 09 Andra ta ume egon diranak jateko neuri begira mozkorturik ni ikusitean surturik geratzen dira.
- 10 Zer dozu gizon -diraust andreak- aiturik makal makalik zer dozu gauaz etorriteko beti lez gaur be hordirik?
- 11 Seme-alabak be dirautsie: Aita, zer dozu aldean beti lez gaur be ekarriteko gizonak bizkar ganean?
- 12 Kendu zaitzeze -dirautsiet nik- amataizuez argiak ez dauste bada itxiten niri ondo zabaltan begiak.
- 13 Baldin ixilik ez bazagoze gaur ein dau zuron aldiak. Zutunik barriz egon nahi badot nahiko ez dodaz oin biak.
- 14 Hain da handia katu-mozkorra hartu eiten dodana nik ze oraindino astelehen gauaz daukat bai kendu bagarik.
- 15 Martitzena be helduagaitik ohian egoten naz ni lo eguaztenez begi bat bere ondo zabaldu ezin dot.
- 16 Eguenean oste handiaz nago aulkian jarririk behar ein gura izanagaitik makurtu egin ezinik.
- 17 Sorgin eguna heldu orduan lan asko neuke ein gura baina bat bere egin bagarik igaroten jat eguna.
- 18 Zapaturako oso kentzen jat hartu ein dodan mozkorra baina behar bat eiten hasteko edan behar dot paitarra.
- 19 Ozta mezea eiten dot entzun oso domeka goizean larritxu nago eliz barruan bertatik urten artean.
- 20 Urten da hazten noa etxera bazkalduteko ustean ta ikusirik pitxar bat ardao baino ez dala etxean...
- 21 Hasten naz arin tresnak jaurtiten andrean buru ganean zeinek sokorru egiten daben auzoak heldu artean.
- 22 Auzoko honek bazkaltan biok ipinten gaituz bakean ta biok gagoz gudarik barik bazkaldu egin artean. Bazkaldu ta artez jarten naz barriz ardantegira bidean.

- 23 Behar eiterik ez dot gogoan mutilak, aste guztian zegaitik eze dana daroat neure mozkorra kentzean.
- 24 Horra non doan nire bizia gizonak, mozkor hutsean kalterik asko euki behar dau naukanak bere etxean.



01. **Bozuz:** badozuz, badituzu.
Entzuizuz: entzun itzazu.
02. **Domekan:** igandean.
Edaten: edatera.
03. **Pitxerditxu bat:** pitxar erditxo bat.
Behingoan: berehala, sartuz batera.
Hau edan egin orduan: hau edan-dakoan, edan ondoren.
04. **Neure begira:** genitiboan nahiz datiboan erabil daiteke, gaur bigarrena nagusitu bada ere: *neure begira* edo *neuri begira*, *lagunaren begira* edo *lagunari begira*.
05. **Atzipeturik:** enganiaturik, engainaturik.
Ezin nei urten: ezin ninteke jalgi, atera.
Edonon bada naz jausten: nonnahi erortzen bait naiz, zeren edonon jausten naiz.
06. **Neu neuretara:** neure kontura, neure kabuz, neu bakarrik.
Zutunik: zutik, tente.
Bautsat: badautsat, badiot.
07. **Lehenao:** lehenago.
Jaubea: jabea.
Etixeratu ni eitea nahi dau: ni etxera-tzea nahi du.
Urtenik: jalgirik, irtenik.
08. **Banakardie:** banakarte.
Ohitxurik: ohetxorik, ohatzeñorik.
Astin: apatz, harro eta bigun.
09. **Surturik:** zurtz eginik, harriturik, txunditurik.
10. **Diraust:** diost, erraiten dit.
Aiturik: aditurik, begiraturik, ikusten nauelarik.
- Beti lez:** beti bezala.
Gaur be: gaur ere.
Hordi: mozkor.
11. **Diraustie:** dioste, esaten didate.
12. **Zaitzeze:** zaitzte.
Dirautsiet: diotset, erraiten diet.
Amataizuez: amata itzazue, itzal, iraungi itzazue.
Ez dauste: ez didate.
Itxiten: uzten, lagatzen.
Zabaltan: zabaltzen.
13. **Ez bazagoze:** ez bazaudete.
Gaur ein dau zuron aldiak: gaur egin du zuen aldiak, amaitu da zuen denbora, zuenak egin du.
Ez dodaz: ez ditut.
14. **Katua:** mozkorra adierazteko hitza.
Oraindino: oraindio, oraindik, oraino.
Bagarik: barik, gabe.
15. **Martitzena:** asteartea.
Eguaztenez: asteazkenez.
Bat bere: bat ere.
16. **Eguenean:** ostegunean.
Oste: atze, ondorio, zerbaitek ondoren uzten duen eragin astuna.
Jarririk: jezarririk, eserita.
Behar ein gura: lan egin nahi.
17. **Sorgin-eguna:** barikua, ostirala.
Igaroten jat: iragaiten, pasatzen zait.
18. **Zapaturako:** larunbaterako.
Behar bat: lan bat.
19. **Ozta:** nekez, kostata.
Oso: osorik, guztia.

- Larritxu:** larri samar, nahiko estu. Dimi-
nutiboak superlatiboaren kutsua ere
eman dezake. Beraz, *larritxo*: oso larri.
Ondotxo: txit ongi, biziki ontsa.
20. **Hazten:** handitzen, hots, ardoaren po-
zean harrotzen.
Baino ez dala: baizik, besterik ez dela.
21. **Arin:** azkar, fite, agudo.
Jaurtiten: botatzen, harrikatzen.
Zeinek: erlatiboa.
Sokorru egin: laguntza eske deihada-
rrak, oihuak egin.
22. **Gagoz:** gaude.
Gudarik barik: gerla gabe.
Bazkaldu ta artez: bazkaldu ta zuzen,
berehala.
23. **Zegaitik eze:** ze, zergatik ze. Kausala adie-
razteko, *zergatik* erabiltzen bada, atzetik
beti *ze* edo *eze* jartzen zaio, hauek baka-
rrik joan daitezkeelarik.
Daroat: daramat.
Kentzean: kentzen.

Sorta hau neuk zenbakitu dut, oharrak hobeto lekutzeko eta bertso
edo kopen ikuskera emateko. Zamarridak denak jarraian idazten zituen
eta segurrenik haren burua ez zen inolako doinuen arabera ibiliko, aha-
paldiak ez bait dira beti ez puntu binaka ez launaka koadratzen.

GERNIKAKO ZUGATZA

(Euskalzale. 1898. garagarrilaren 21, 227. or.)

- 01 Erdaldun haserreak
ez ebala uste
zugatz bat jatsi jakun
orain hainbat urte
zeruetatik hona
Jaunan borondatez
gure onerako ta
erdaldunen kaltez.
- 02 Zugatz on hau hazteko
zan lez egokia
Jaunak izentau eban
Gernikako huria
zeinetan hartu eban
sustraia behingoan
orain Batzer-Etxea
dagoan ondoan.

03 Zugatz hori orriaz
laister zan estaldu
jaio egin zanetik
urte gitxi barru.
Baina orritxu honek
ez ziran orriak
ezpada ze zeruko
aingeru-loreak.

04 Orritxu harek jaio
baino lehenagotik
hiru adartxu ziran
jaio hain hondotik.
Baina hiru adarrak
ez ziran adarrak
ezpada ze zeruko
argidun izarrak
zeinek beti eukazan
Euskal Herri danak
argituta, kendurik
bere ilun nabarrak.

05 Zugatzan gerizpean
hainbat huri ta herri
euskaldunak emonik
eskuak alkarri
erdal herritik libre
egin ziran jarri
erdaldunan bihotza
iminirik larri.

06 Orduan erdalduna
ez zan azartuten
euskaldunan lurrari
oinaz ukututen.
Euskaldunari barriz
inongo lekuten
holangorik ez jakon
inoiz galazoten.

07 Orduan euskaldunak
foruak gorderik
ez eukan inoiz bere
biraldur beharrik
bere seme maitea
hogeit bat urterik
soldadu su-makila
lepoan harturik.

08 Orduan zugatza be
gogoz ikusirik
bere magalpetxuan
polito jarririk
Euskal Herri osoa
katikuntza barik
bihotza eukan beti
bai pozez beterik.

09 Euskaldun eurak bere
eukian bihotza
erakusten ebela
sakonetik poza.
Orduan euskerea
ta euskera hutsa
izan zan honetako
betiko hizkuntza.

10 Da hauxe zan poztasun da
atsegina dana
zugatz onetsi honi
emoten eutsana.
Denpora gitxi barru
zer da jazo dana?
Orain ehunkida gitxi
itxaron ez zana.

11 Antxina egoana
eder da loratsu
gaur dakust lora barik
sotil da makaltxu.
Orduan egon zana
pozik eta barrez
oin dakust atsekabez
beterik negarrez.

12 Banoa artez artez
baina adore barik
negar horren zioa
jakin ein gurarik.
Banoa zugatz hori
dagoan lekura
beragana ez bada be
beraren ondora.

13 Zer daukazun esaizu
zugatz onetsia
nik orain ikusteko
saminez betea.
-Zer izango dot, ume
euskaldun maitea?
Lehen goian egon da oin
nagola jatsia.

14 Lehen orritsu nengoan
baita be loratsu
ta hagaitik euskalduna
egoan indartsu
zegaitik nik eukirik
neure magalpean
indarra emoten neutsan
itzalaz batean.

15 Baina orain orria
joan egitean
indarra be joan jat
orrion artean.

16 Jakinik nik hau dala
semean kaltean
malkoa isuritzen jat
zatean zatean
ta alperrik diharduat
indarra galtzean
malkozko iturri hau
niri ez jat lotzean.

17 -Egonik hainbat urtez
ta ehunkidaz loratsu
oin holan egoteko
zer jazo egin jatzu?
-Ene seme maitea
niri gauza asko
baina hau esatea
izango da nahiko.

18 Erdaldunik lehen inoiz
ez bazan azartu
antxina hemen sartzea
ez baeban lortu
ointsu seme saltzaile
batzun borondatez
erdaldun maisu asko
sartu dira artez.

19 Ta hemen ein daben lez
lur ona bilatu
ez dira pozik lotu
eginagaz sartu
ta holan Euskal Herrian
ein dira geratu
ta gure euskerea
gura dabe urkatu.

20 Zetan esan ez dago
guk eginaz lana
jaditxiten dabela
eurontzat zer jana.
Erdaldun maisu honek
euskerak itxirik
erdera irakasteko
daukaguz bizirik.

21 Erdaldun maisu honek
eurok direan lez
euskaldun gaizto asko
erdaldundu dabez.
Ahaleginak einaitik
beste asko barrez
neu maite nabelako
ezin egin dabez.

22 Baina maite nabenak
gitxi direan lez
haamen zeitik naukazun
hemen ni negarrez.

23 Erdaldunak erdera
eiten dabenean
erderazko hiztxo bat
dinon bakotxean
orri bat gitxiago
nire hegalean
behingoan ikusten dot
aitu daidanean.

24 Euskaldunak erderaz
hasiten badira
hitz bategaitik bina
jausten hasten dira.

25 Honek badinerdue
euskerak garbian
euskerazko hiztxo bat
dinon bakotxean
bi orritxu gehiago
daukadaz aldean
ta atsegin bat gehiago
neure bihotzean.

26 Baina euskera eiten
daudienak baino
erderaz dihardunak
diran lez gehiago
haror nire orriak
einagaitik gehitu
beste aldetik gehiago
ein jataz gitxitu.

27 Ta niri orritxuak
zelan ein gitxitu
halan bizia bere
eiten jat txikertu.
Nire orritxu danak
badoaz jaustera
ta eurokaz batean
neu bere hiltera.

28 -Ene zugatz maitea
ez zaitez larritu
bada eginagaitik
oin arte gitxitu
maite zabezanak be
badagoz oin batzuk
ta oindino ikusko zara
lehen legez loratsu.

29 Ez badira euskaldunak
esan gatzekoak
ta amatxo bat hain sotil
ikus gurakoak
etorko jatzuz barriz
zure orritxuak
berba eginaz danok
lur honetakoak
sehaskatik dakigun
eder hizkerea
erdera baino hobea,
zein dan euskerea.

30 -Euskalduna ez bazan
esan gatzekoa
ez eban egin behar
neuk esanekoa?
-Baina izanagaitik
holan oin artean
ez uste izango danik
ez aurrerantzean.

31 Uste dot euskaldunak
hemendik aurrera
eingo dabela berba
beti bai euskera.
Euskeratxua, bere
euskera garbia
eiteko imingo dau
bere ahalegina.

32 -Holan izaten bada
zuk uste dozun lez
egingo naz ni jarri
loratsu lehen legez.
Hartuko dot orduan
nik lehengo bizia
eta nigandik gero
euskaldun guztiak.

33 Etorriko jatzuez
asaben legeak
oingo legeak baino
askozaz hobek.
Baita hartukozue
indarra euskaldunak
hemendik botateko
maisur erdaldunak

34 Eta aurrerantzean
inongo erdaldunik
ez dau ez ukutuko
euskaldunen lurrik.
Eta orain dagoan
legean ordeaz
foruak euko doguz
poztasun handiaz.

35 Eta Euskal Herria
izango da libre
enbidia dautsala
erdaldunak bere.



01. **Haserreak:** haserretuak. Bizkaieraz *hasarre*-k, adjetibo gisa, badu beste esanahi hau ere: suhar, sendo, errespetoa ematekoa.
Ebala: zuela, zuelarik.
Zugatz: zuhaitz.
Jatsi jakun: jaitsi, beheratu zitzaigun.

02. **Zan lez:** zen bezala.
Izentau: izendatu, seinalatu.
Huria: hiria.
Zeinetan: non. Erlatiboa.
Behingoan: berehala, bat batean.

03. **Orriaz:** orriz, hostoz.
Urte gitxi barru: urte gutiren buruan.
Honek: honeik, hauek.
Ezpada ze: baizik, bai ordea.

04. **Harek:** hareik, haiek.
Hain hondotik: haien enborretik.
Zeinek: erlatiboa.
Eukazan: zeuzkan.

05. **Zugatzan gerizpean:** zuhaitzaren gerizan, itzalean.
Iminirik: ipinirik, jarririk.

06. **Azartuten:** ausartzen.
Oinaz ukututen: oinarekin ukitzen, hunkitzen.
Barriz: berriz, ordea.
Inongo lekuten: inongo lekutan, ezin lekutan, inon ere.
Holangorik: horrelakorik, honelakorik.

Jakon: zitzaion.
Galazoten: galerazten, debekatzen.

07. **Eukan:** zeukan.
Bere: ere.
Biraldu: bialdu, bidali.
Hogei bat urterik: hogei bat urtetik, urtekin.
Su-makila: fusila, suzko arma.
Lepoan: bizkarrean.

08. **Be:** bere, ere.
Polito: poliki.
Katikuntza: kateatze, gatibutza.
Barik: bagarik, gabe.

09. **Euskaldun eurak bere:** euskaldunek berek ere.
Eukian: zeukaten.
Ebela: zutela.
Honetako: hauetako, hots, inguru edo alde hauetako.

10. **Onetsi:** bedeinkatu.
Emoten eutsana: ematen ziona.
Jazo: gertatu.
Orain ehunkida gitxi: duela mende guti.

11. **Antxina:** aspaldi, behinola, behiala, duela anitz denbora.
Egoana: zegoena.
Dakust: ikusten dut.
Sotil: goibel, triste.
Barrez: irriz.
Oin: orain.

12. **Artez:** zuzen.
Adore: kemen, kuraia.
Zioa: zergatia, motiboa.
Jakin ein gurarik: jakin nahirik.
13. **Esaizu:** errazu, esan ezazu.
14. **Baita be:** baita ere.
Hagaitik: hargatik.
Zegaitik: ze, zeren. Kausala.
Neutsan: nion.
Itzalaz batean: itzalarekin batera.
15. **Jat:** zait.
16. **Zatean zatean:** ez dakit. Aldizka aldizka, txitean pitean edo horrelako zerbaite dirudi.
Galtzean: galtzen.
Lotzean: lotzen, gelditzen, geratzen.
17. **Holan:** horrela, honela.
Jatzu: zaizu.
18. **Ez baeban:** ez bazuen.
Ointsu: oraintsu, berriki, duela denbora gutxi.
19. **Daben lez:** dutenez, dutenez gero.
Lotu: gelditu, geratu.
Eginagaz sartu: sartzearekin.
20. **Zetan esan ez dago:** zertan esanik ez dago, ez dago esan beharrik.
Jaditxi: erdietsi, lortu, eskuratu.
Dabela: dutela.
Itxirik: utzirik, lagata.
Daukaguz: daukagu.
21. **Honek:** honeik, hauek.
Direan lez: diren bezala.
Dabez: dituzte.
Einaitik: eginagaitik, egin arren.
Barrez: barriz, berriz, ordea.
Nabelako: nautelako.
22. **Nabenak:** nautenak.
Gitxi direan lez: gutxi direnez, direnez gero.
Haamen: *aamen* jartzen du Zamarripak, *a* bokala luzatuz, indartzeko. Beraz, *haamen* edo *heemen*: hona hemen.

Zeitik: zergatik.

23. **Dabenean:** dutenean.
Dinon: dion, erraiten duen.
Hegalean: alboan, aldamenean, bazterrean.
Aitu daidanean: aditu dezadanean, begiratzen, so egiten dudanean.
24. **Hasiten:** hasten.
25. **Honek:** honeik, hauek.
Badinerdue: badihardute.
Daukadaz: dauzkat.
Aldean: soinean, neuregan.
26. **Daudienak:** dutenak.
Diran lez: direnez, direnez gero.
Haror: hara hor.
Einagaitik gehitu: gehituagatik, gehitu arren.
Ein jataz gitxitu: gutitu zaizkit.
27. **Zelan ein gitxitu, halan... txikertu:** nola gutxitu, hala txikitu, gutitzen den heinean tipitu.
Eurokaz: eurokin, berauekin.
Neu bere hiltera: neu ere hiltzera.
28. **Bada:** ze, zeren.
Zabezanak be: zaituztenak ere.
Oin: orain.
Oindino: oraino, oraindio, oraindik.
Legez: bezala.
29. **Esan gatzekoak:** esan gaitzekoak, mengaitzak, obeditzen ez dutenak.
Ikus gurakoak: ikusi nahi dutenak.
Etoriko jatzuz: etorriko zaizkizu.
Barriz: berriz, berriro.
Berba egin: hitz egin, mintzatu.
Zein dan: zeina den. Erlatiboa.
30. **Esanekoa:** esanikoa, esana.
Aurrerantzean: hemendik aintzina, hon-taz aurrera.
31. **Imingo dau:** ipiniko, jarriko du.
33. **Jatzuez:** zaizkizue.
Asaben: arbasoen, aitasoen.
Oingo: oraingo.

Askozaz: askoz, anitzez.

Hartukozue: hartuko duzue.

Botateko: botatzeko, bidaltzeko, jaurtitzeko.

34. **Inongo erdaldunik:** inongo *erdaldunek* behar luke. Errimogatik egin duela garbi badago ere, ez da bidezko.

Legean ordeaz: legearen ordeaz.

Euko doguz: eukiko, ukanen ditugu.

Handiaz: handiarekin.

35. **Enbidia:** bekaitza, ondamura.

Dautsala: diola.

Zenbakiak neuk jarri dizkiodan sorta honetan ere, argi dago Zamarripak ez darabilela ahapaldi eredu zehatzik. Jarraian eta libreki konposatzen du, batzutan oin binaka eta bestetan launaka errimatuz, aukera datorkion moduan, nahizta gehienean binaka abantzatu.

Ohartzekoa da baita zenbat aldiz jartzen duen *ein-egin* aditza beste aditz baten sostengutzat: *jaio egin zanetik, egin ziran jarri, jakin ein gurarik, orria joan egitean, zer jazo egin jatzu, eginagaz sartu, ein dira geratu, zelan ein gitxitu, eiten jat txikertu* eta abar. Bizkaieraz hori nahiko normala da, baina ez Zamarripak darabilen beste, neurtu beharraren eraginez segurrenik.

ANJEL MARKANO

1930. urteko ihauterietan, Eibartar batzuk, Anjel Markanok eta bere kuadrilak, eurek egindako hegazkin ikusgarri bat erabili zuten kaleetan zehar, egitera omen zihoazen hegaldi fantastikoaren berri bertso haue-tan emanaz. Bertsoak denen artean jarri omen zituzten. Baten bat izango zen lana gehienik burutu zuena, nahizta agian ideak lagunartean jaulki, baina paperak denen artean jarri zituztela dio.

MARKANOKIN AMERIKETARA

(Eibar 1990. Otsaila. 319. zenbakia, 7. or.)

01 Kanta berri batzuek
dituguz atara
aitzen emoten gatoz
herri hontara.
Arioplanuan juateko
asmuetan gara
bihar urtetzen degu
Ameriketara.

02 Hamairu lagun gera
guziok argiak
ez gaitu bildurtuko
hotzak ez euriak.
Bizirikan etortzen
bagera erdiak
kontauko dizueguz
guk hango berriak.

03 Bihar urtetzen degu
guziok aidian
ikusiko gaituzu
agurka bidian.
Ondo urtetzen besku
daukagun idian
ez gera etorriko
beste urte bian.

04 Nueva Yorkera guaz
lehenengo runbuan
handik Brasileraino
berriz hurrenguan.
Gero Polo Nortera
hirugarrenguan
bazterra bilauko degu
badago munduan.

05 Anjel Markano jauna
 degu pilotua
 gazte gaztetatikan
 estudiatua.
 Harek hartzen duanian
 martxa direktua
 laister izango gera
 Amerikatuak.

06 Benito Regil jauna
 gizona justua
 obserbazinorako
 dao nonbratua.
 Agustin Etxeberria
 mekanikokua
 Serafin Esnaola
 kozinarakua.

07 Polo Norten ei daude
 hain paraje baltzak
 harako egin dituguz
 aproposko galtzak.
 Eskuetan harturik
 galtzairuzko lantzak
 galdu ez gaitezen han
 hotzak edo hartzak.

08 Izotzez einda ei dago
 hango mendi dana
 hara gora igotzen
 izangou lana.
 Edukitzen badegu
 edana ta jana
 esperantza badegu
 llegauko gerana.

09 Igotzen badegu hango
 mendi tontorrera
 begiratukou handik
 zer daon beste aldera.
 Biderik ikusten
 badegu aurrera
 laister llegauko gera
 munduan bazterrera.

10 Aparatu eiten ein degu
 urte bian lana
 hortan gastatu degu
 geure diru dana.
 Biderako ere berriz
 bihar degu jana
 horreatik eskatzen degu
 errialtxo bana.

11 Horra berri berriak
 guk hamaika bertso
 esanaz nola diran
 gure pasadizo.
 Jaungoikuari eskatzen diogu
 osasuna oso
 berriz hona etortzeko
 danok animoso.

Hiztegitxoa ikus hurrengo sortan. Bertso hauek grazia handia egi-
 ten didate. Gaiari eta trataerari buruz, oso umore-bertso politak lirateke,
 forman dauzkaten akatsengatik ez balitz, neurrian batez ere. Emandako
 bertsioari ez diot fidagarriegi irizten, baina orijinalean ere nahasi sama-
 rrak izango ziren tankera daukate. Sorta hauxe da kasu argi bat, orraztu
 txiki batez, istorio dotorea izan litekeena.

Lau urte geroago, 1934. urteko ihauterietan, Berrizko eta Zaldibar-
 ko beste gazte talde batek, Eibartarren inspiraturik, beste hegazkin
 itzel bat atera zuten. Bertsoak Eibarko berak kantatu zituzten, izenak
 eurenekin trukatu eta bi bertso gehiturik. Berriz eta Zaldibarkoek "ban-
 da txiki bat" ere bazeramaten espedizioan.

BERRIZ ETA ZALDIBARKO ABIADOREAK

(Berriztar *Julen Alberdik* eskuratu didan bertso paper bat. Baita *Berriz eta Zaldibarko abiadoreen
 berbak*. Gure kantuak. Udako Euskal Ikastaroa. Derio, 1991, 36. orrialdetik aurrera)

01 Kanta berri batzuek
 dituguz atera
 aitzen emoten gatoz
 herri honetara.
 Aeroplanuan juateko
 asmoetan gara
 bihar urtetzen degu
 Ameriketara.

02 Guk ez degu izango
 gauza hoberikan
 bihar ondo armozau
 goizian goizikan.
 Ez degu eramango
 barrutik hotzikan
 bildur gabe juateko
 lainuan goitikan.

03 Bihar urtetzen degu
guztiok aidian
ikusiko gaituzuz
agurka bidian.
Ondo urtetzen badeusku
daukagun idiak
ez gerala etorriko
beste urte bian.

04 Don Juan Txaparro jauna
degu pilotua
gazte-gaztetatikan
estudiatua.
Harek hartzen duenian
martxa direktua
laster izango gera
Amerikatuak.

05 Don Alberto Narbaiza
gizona justua
obserbaziorako
dago nonbratua.
Pildain da Uribarri
mekanikakuak
Sabino ta Teodoro
kozinarakuak.

06 Banda txiki bat bere
badegu geuregaz
Aramendi jauna
filarmonikiagaz.
Ebaristo ta Fermin
flautaz ta gitarraz
Paxiko ta Adolfo
bandoliniagaz.

07 Nueva Yorrera guaz
lehenengo runbuan
handik Brasileraino
berriz hurrenguan.
Gero Polo Nortera
hirugarrenguan
baztarrak bilau doguz
badago munduan.

08 Polo Norten ei dare
hain paraje baltzak
harako egin dituguz
aproposko galtzak.
Eskuetan harturik
galtzaiduzko lantzak
geu galdu ez gaitezen
hotzak edo hartzak.

09 Izotzetan ei dare
hango mendi danak
hara gora igotzen
izango da lana.
Edukitzen badegu
erana ta jana
esperantza badegu
llegauko gerana.

10 Igotzen badegu handik
mendi tontorrera
begiratuko degu
zer dan beste aldera.
Biderikan ikusten
badegu aurrera
laster llegauko gera
mundu baztarrera.

11 Hamasei lagun gera
guztiok argiak
ez gaituz bildurtuko
hotzak eta euriak.
Bizirikan etortzen
bagera erdiak
kontatuko dituguz
guk hango berriak.

12 Aparatua eiten
urte bian lana
hortan gastatu degu
gure diru dana.
Biderako ere berriz
behar degu jana
horregaitik eskatzen deusut
errialtxu bana.

13 Horra berri-berriak
guk hamairu berso
esanaz nola duaz
gure pasadizo.
Jaungoikuari eskatzen diogu
osasuna oso
berriz hona etortzeko
danok animoso.



01. **Aitzen emoten:** aditzera ematen, jakin
eraztera.
Urtetzen degu: jalgitzen, irteten gara.
02. **Armozau:** gosaldu.
Lainuan: lainuaren. *Lainuen* ere izan
daiteke.
03. **Aidian:** airean.
Badeusku: badigu.
Idiak: ideak, ideiak.

05. **Nonbratua:** izendatua.
06. **Geuregaz:** geurekin.
07. **Runbuan:** abioan, norabidean.
08. **Ei:** omen.
Dare: daude.
Galtzaidu: altzairu.
09. **Llegauko:** helduko, iritsiko.
12. **Deusut:** dizut, dizuet.

SIMON GANDARIAS

Ipar Amerikara emigraturiko milaka euskaldunetarik bat dugu Simon Gandarias Elantxobekoa. Honek, 1932. urtean, Boiseko Idahon, bertso paper bitxi bat atera zuen, euskara eta ingelesa nahasturik. Bertsogintzan hizkuntza arrotzak sartzea ez da gauza berria, latina, frantsesa eta gaztelania maiz nahastu izan bait dira, baina ingelesa tartean dela, ez da askorik egongo. Normala bestalde ingelesaren eremuan bizi direnentzat.

WE ARE PLENTY IN HERE

(Ipar Amerikan egindako bertso papera. Adolfo Arejita. Idatz-Mintz 7, 16-17. or.)

01 We are plenty in here
Euskaditik eginak
and we want to advertise
pasatzen dan egiak.
Tran la ran la ra la rai
pasatzen dan egiak.

02 Today-ko neskatilak
jazten dira pretty
powder ipini eta
ensegida all ready.
Tran...
ensegida all ready.

03 Side walk-ien pasatzen dan
people guztiari
begia ginatu eta
come on right in honey.
Tran...
come on right in honey.

04 Sartun barrura eta
ensegida all ready
lehenik erraten dabe
gimme first my money.
Tran...
gimme first my money.

05 How much money-zuk
kobratu horregaz
besides the war taxes
bakarrik two dollars.
Tran...
bakarrik two dollars.

06 Two dollars gaitikan
skirts-ak alztatu
all right erran eta
chewing gomie maskatu
Tran...
chewing gomie maskatu.

07 Two dollars juaten dira
kaltza barrenera.
Oh! Sweety etorri berriz
zure mamma ikustera.
Tran...
zure mamma ikustera.

08 Pretty soon juaten dira
begira looking glass-eri.
Euran munak gorriturik
begi beltzakin pretty.
Tran...
begi beltzakin pretty.

09 Laster juaten dira
window ondora.
Kaleko people-ari
begia ginatzera.
Tran...
begia ginatzera.

10 Palo Suria juaten da
kalien erraten.
Come on everybody
good time pasatzen.
Tran...
good time pasatzen.

11 Baltza zein txinua
we don't matter who it is.
Dirue dakarrela ta
come on right in honeys.
Tran...
come on right in honeys.

12 Urten kanpora eta
atzera begiratu.
We can find tomorrow
it is number fifty-two.
Tran...
it is number fifty-two.

13 Juan Marvin's-en kafera ta
gimme piece of apple pie.
Orain hau jan eta
we will be feeling fine.
Tran...
we will be feeling fine.

14 I had hamalau bertso
in this paper jarriak
Idaho-ko estaduko
Euskaldunen berriak.
Tran...
Euskaldunen berriak.

Euskaldun askori Ameriketako dolarrak nola joaten zaizkion susmatzen genuen. Ingeles apur bat dakienak orain paperean ere irakur dezake, beste euskara apur baten laguntzaz. Hango *today*-ko neskatilek dirua nola irabazten duten jakiteko, seigarren bertsoa aski da: *Bi dolargaitikan gonak altxatu, ongi da erran eta txiklela maskatu*. Bertso hauek argitaratu ziren garaian bi dolar ez zen huskeria izango.

ELANTXOBETARRA

Bertso hauek ez dakarte izenperik. Izenburutzat daukate: *Olerki barriak, Kaliforniatik bialduak*. Argitu nahi duenak Elantxoben galdetzen hasi beharko du.

ELANTXOBETARRA NAZ

(Ekin. 1932. Jorraila, 23. 12. zenbakia, 3. or.)

01 Elantxobetarra naz
ezin dot ukatu
neure herri maitia
nahi neuke goraldtu.
Herri ederrak asko
munduak baditu
neuretzako hobarik
ezin dot aurkitu
ene ama laztana
eleixa ta portu
neure maitiak dira
ezin ditut ahaztu.

02 Hortxen jaio nintzan da
hortxen nintzan hazi
neure ama negarrez
hortxen neban itxi.
Nahita Kalifornian
luzaroan bizi
egunero zaituet
gomutaz ikusi
iruditxu maitiak
ez dauste igasi
eurak dira ba neure
jaube ta nagosi.

03 Ama Begoñakuen
irudi maitia
idunetik zeustana
ipini eskegia
bular ganian dabilt
maitero gordia
bera da neure lagun
eta zaindaria
berak alaituten daust
mendiko bizia
bera da zeure orde
amatxu neuria.

04 Euskadiko herritxu
itxas ertzekua
arrantzale apalen
hobia gozua.
Nevadako mendian
jaurtitako oihua
itxas ganian zihar
zuganuntza dua
ene bihotz agur hau
beragaz darua
Gora Euskadi eta
neure herritxua!



01. **Hobarik:** hoberik, hobeagorik.
Eleixa: eliza.
02. **Neban itxi:** nuen utzi.
Nahita: nahizta, nahiz eta.
Luzaroan: luzaro, luzaz.
Gomuta: oroitzapen, gogorapen.
Ez dauste igasi: ez didate ihes egin, eskapatu.
Jaube: jabe.

03. **Idun:** lepoa, sama.
Eskegi: zintzilikatu, dilindatu.
Dabilt: darabilt.
Alaituten daust: alaitzen, alegeratzen dit.
04. **Hobi:** zulo, bazter, zoko.
Jaurti: bota, aurtiki.
Zihar: zehar, barrena.
Dua: doa.
Beragaz darua: berarekin darama.

KURUTZE-GANE

Izenordeaz eta non argitaratu zen aldizkariak beste daturik ez daukat.

ANTXINAKO ARTZAIN ABESTIAK

(Ekin. 1933. jorrailaren 8. 62. zenbakia, 1. or.)

01 Egun nabarraz ixarten gara
mendiratzeko ardiak
ikusgarrizko artaldiakaz
betetan doguz mendiak.
Hortik hemendik joten dituguz
alboka soinu zoliak
holantxe beti ixan ohi dira
artzainen zorakeriak.

02 Artzain guztiok neska ta mutil
haritx tantaien azpian
jarriten gara pozez beterik
zoragarrizko mendian.
Uste dogula han gagozala
geure asaben herrian
toki hobarik ez da izango
gure lurbira guztian.

Ardiak dakazkuez...

Errepika:

Ardiak dakazkuez
diru urredunak
bildots, esne ta gaztai
ugari egunak.
Ardi-ule ta narru
haragi ta hazurrak
horra zeinbat dirian
euren ondasunak.

03 Bee hortik eta bee hemendik be
egunabarrak batera
larrara duaz ardi ederrak
bedarra gogoz jatera.
Bee hortik eta bee hemendik be
dihadarrakaz oster
zoli ta pozik bihurtzen dira
ilunabarrak etxera.

Ardiak dakazkuez...

04 Sarri sarritan egon ohi dira
mendiko bide txarretan
lupatzak eta edurrik asko
neguko egun hotzetan.
Horrek nekiok daukaguzan lez
betiko ekanduetan
gogaldi onaz gabiltzaz beti
artzainok geure lanetan.



01. **Egun nabarra:** egunsentia, oilaritea,
argi-hastea.
Ixartu: itzartu, ernatu, esnatu, atzarri.
Artaldiakaz: artaldiekin.
Betetan doguz: betetzen ditugu.
Zoliak: bizkorrak, biziak, erneak.
Holantxe: honelaxe.
Ixan: izan.

Errepika:
Dakazkuez: dakarzkuez, dakarzkigute.
Ardi-ule ta narru: artile eta larru.

02. **Haritz:** haritz.
Jarriten: jartzen, esertzen.
Gagozala: gaudela.

Hobarik: hoberik, hobeagorik.

03. **Be:** bere, ere.
Larrara: larrera, bazkatokira.
Dihadarrakaz: deihadarrekin.
Ostera: berriz, berriro.
Bihurtzen: itzultzen.
Ilunabarraz: ilunabarrarekin.

04. **Lupatz:** lupetz, lokatz, basa, lohi.
Horrek nekiok: neke horiek.
Daukaguzan lez: daukagunez gero, bait
dauzkagu.
Ekandu: ohitura, aztura, usadio.
Gogaldi: gogoaldi, aldarte, animu.

AZKATU ARTE

Bertso hauek *Azkatu Arte* ezizenez sinaturik datoz eta Ereñokoa zen bera, beste bertso batzutan ere agertzen denez. Ezizenak eta bidaltzen zituen bertso sortek abertzale beroa zela adierazten dute. Ereño, hain herri txikia izanik, oso nahasturik zebilen politikoki orduan.

KABELINA GORRIERI

(Ekin. 1933. 67. zenbakia, 4. or.)

01 Bertsuak jartzen noie
neskatxa bateri
ha ikusi ezinde
mabil barregarri.
Udie dan bezela
arpegie argi
eskue eskatzeko
nabil zoragarri.

02 Ikusi neban legez
txadonan sartuten
txadonpian on nitzan
luzaro jaboten.
Ez eban errezua
sekule amaitzen
gogaitute nengoan
bertan itxaroten.

03 Bizi dan legez bera
nahiko urrunian
arin ostikatzen dau
bide zabalian.
Jarri nintzakon legez
beraren parian
barria susma nion
bere arpegian.

04 -Zer dakaztazu bada
gaur Azkatu Arte?
-Ezin egon naz zuri
hitz bi esan arte.
Ezkonduko nitzake
ni zurekin laster
zure borondatie
holan balitzake.

05 Hori esatititik
jartzen naz parian.
-Nahiko gazte zagoz zu
neure eretxian.
Inok ikusi barik
hizketan bidian
etorri hadi neugaz
gaurko iluntzian.

06 -Amak agirika ta
aita be hasarrez
zuri hitz egiteko
aina ez naizenez.
Gaztetxu egon arren
ganetik gorputzez
ondo sartuta daukat
gogua bihotzez.

05 Ereñon egon arren
neskatxak nahikoa
zuri begira daukat
nik neure gogoia.
Zeure gorputz ta arima
zoragarrikoa
eta arpegie barriz
euzkie langoa.

06 -Azkatu Arte bada
bai zure ixena
ni naiz Josefina
gure dotzutena.
Abertzale zintzua
entzun dot zarala
eta askatasunen
bila zabizela.

07 Jaungoikuak osasuna
badigu ematen
txadonara bihogu
halakoren baten.
Mikel Deunan txadona
deukagun lez hemen
Peli hasiko jaku
laster buztartuten.

08 Kontuak kontu beti
izaten badire
Josefina ta Azkatu
alkartuko dire.
Atsedenan beti
biziten badire
hori opa deutsegu
beste danari be.

09 Kabelina gorrie
nahi bozu gurekin
zuri begira dozu
auzoko Katalin.
Nahi ona ta nahi txarra
ez hitzikan egin
juan bihar dogulako
danok alkarrekin.

01. **Jartzen noie:** jartzera noa.
Ha: hura.
Barregarri: irrigarri, errukarri.
Udie: uda.
Zoragarri: zoraturik esan nahi du.
02. **Neban legez:** nuenez gero, bait nuen.
Txadon: eliza.
On nitzan: egon nintzen.
Luzaro: luzaz.
Jaboten: zaintzen, begiratzen.
Ez eban: ez zuen.
Gogaitute: aspertuta.
03. **Bizi dan legez bera:** bizi denez gero,
bera bizi bait da.
Arin: azkar, fite.
Ostikatzen: korritzen, zangoak botatzen.
Jarri nintzakon legez: jarri bait nin-
tzaion.
Barria: barrea, irria.
Susma nion: susmatu, nabaritu, antze-
man nion.
04. **Dakastazu:** dakardazu, dakarkidazu.
Holan: horrela.
05. **Esatititik:** esateagatik.

- Zagoz:** zaude.
Eretxian: iritzian, ustean.
Barik: gabe.
Neugaz: nirekin.
06. **Agirika egin:** errietan egin, larderiatu,
gogor egin.
Be: ere.
Aina: beste, bezanbat.
07. **Euzkie langoa:** eguzkia bezalakoa.
08. **Gure dotzutena:** gura dautzudana, mai-
te zaitudana.
Zabizela: zabiltzala.
09. **Bihogu:** behar dogu.
Deunan: deunaren, santuaren.
Deukaguz lez hemen: hemen daukagu-
nez gero.
Jaku: zaigu.
Buztartuten: uztartzen.
10. **Opa deutsegu:** opa diegu, desiratzen
diegu.
Beste danari be: beste denei ere.
11. **Bozu:** badozu.
Nahi... nahi: nahiz... nahiz.

NONOR

Gerra aurreko urteetan, euskarazko aldizkarietan edo euskarari tokia ematen zitzaionetan, bertso, koplak eta olerkiak bidaltzeko joera handia egon zen, baita eskea ere zenbait aldizkariren aldetik. Zenbait izenordek, bai EKIN-en eta bai beste aldizkari batzutan, hainbat kolaboratu zuten, garaiko politika astinduz eta elkar zirikatuz. Hona zenbait izenorde: *Nonor, Azkatu Arte, Larragane, Goizeko Izarra, Txepetxa...*

Sail honetan *Nonor*-en sorta batzuk hautatu ditut, besteenak ez bait zaizkit txukunegiak iruditu. *Nonor*-en koplek, neurritz eta errimaz dotore eginak izanez gainera, badute grazia eta naturaltasuna. Arteagakoa izanik, -handik bidaltzen bait ditu bere lanak-, inguru horretako azpi-euskalkia nabari zaio, baita herritar soil batek baino euskara landuagoa ere.

TXIRRIPI TXIO

(Ekin. 1934. 109. zenbakia, 5. or.)

01 Txirripi txio txio
txirripi txarra txa
EUZKO-tik lagun bila
jatorku Txepetxa.

02 Txirripi txio txio
txirripi txerre txe
ze abestu euki ez da
larri dabil ointxe.

03 Txirripi txio txio
txirripi txirri txi
Nonor-eri didarrez
sasi artetzuti.

04 Txirripi txio txio
txirripi txorro txo
zu ezeze Nonor bere
estu dabil kontxo!

05 Txirripi txio txio
txirripi txurru txu
benetan zeuk nahi bozu
laguna euko zu.

06 Txirripi txio txio
txirripi txaparra
ni baino hoba dozu
Goizeko Izarra.

- 07 Txirripi txio txio
txirripi txio lin
aori bai litzakela
Txepetx da Poxpolin.
- 08 Txepetxak idazkortza
Poxpolinak orratz
zuentzat bizitzia
ez litzateke latz.
- 09 Ibili barik bada
Nonor-eri deiez
Goizeko Izarra-ri
esaiok behin baietz.



01. **Euzko:** *Euzko Deya* aldizkaria.
Jatorku: datorkigu.
Txepetxa: idazle baten izenordea, *Nonor* bera eta beherago agertzen den *Goizeko Izarra* bezala.
02. **Ze:** zer.
Ointxe: oraintxe.
03. **Didarrez:** dehiadarka, hoska, deika.
Sasi: lar.
Artetxuti: artetik, artetxotik. Diminuti-boak kutsu jostaria, maitekorra ematen dio.
04. **Ezeze:** ez ezik, zutaz gainera.
Bere: ere.
05. **Nahi bozu:** nahi badozu.
Eukozu: eukiko dozu.
06. **Hoba:** hobe.
07. **Aori:** hori. Aurreko bokala enfatikoa, indargarria da, eta bizkaieraz oso ohizkoa da, beti ere (h)o bokalez hasten diren izeordain eta adberbio erakusleetan: *aor*, *aori*, *aolan*, *oorrek*...
08. **Idazkortza:** idazluma.
09. **Barik:** gabe.
10. **Sasijen:** sasiaren edo sasien.
Habije: habia, kabia.
Barriz: berriz, ordea.
11. **Bihar bozu inor:** behar badozu norbait.
Deitxu bat: deitxo, dei txiki bat.
Gerturik: gertu, prest.
Dau: dago.

HELDU DA LEKEITIORA

(Ekin. 1934. 111. zenbakia, 6. or.)

- 01 Heldu da Lekeitiora
Txepetxaren barri
Larraganek behinipehin
eiten dotso ziri.
- 02 Baina Txepetxak orain
jaurti dau eupada
museko txapelketan
hobarik han bada.
- 03 Musian, Larragane
nahi badozu egin
Gautegiz Batzokira
heldu zaite arin.
- 04 Goizeko Izarra be
bertan ixango da
Txepetxa bildur bada
egiteko aida.
- 05 Danoi ba dinotzuet
Goizeko Izarra
neskia zalakuan
dala mutilzaharra.
- 06 Narrua baltza eta
zarratu bixerra
zelan hartu dau berak
ixen hain ederra?
- 07 Musien deukoz barriz
berak barrabanak
Txepetxari kentzeko
hamarreko danak.
- 08 Baina berari bere
heltzen botso Nonor-k
hordau bataz hilko dau
hil ez badau inork.
- 09 Zuk barriz, Larragane
eiteko bakie
ekarri zeinkena da
besigu parie.
- 10 Eta arraina hutsik
balegoke ligor
Naparra ekarteko
prest deukozu Nonor.



01. **Larragane:** idazle baten izenordea. Izenordeak baita: *Txepetxa*, *Goizeko Izarra*, eta *Nonor* bera.
Behinepehin: behinik behin, behintzat, bederen.
- Eiten dotso ziri:** egiten dio ziri, zirikatzen du.
02. **Jaurti:** aurtiki, bota.
Eupada: eup deihadarra, erronka, axuta.

- Hobarik:** hoberik.
03. **Arin:** azkar, fite, agudo.
04. **Be:** ere.
Ixango: izango.
Aida: idiei eta behiei aurrera egin deza-
ten esaten zaien hitza.
05. **Dinotzuet:** diotsuet, erraiten dizuet.
06. **Narrua:** larrua.
Zarratu bixerra: bizar trinkoa, itxia,
ugaria.
Zelan: nola.
Ixen: izen.
07. **Deukoz:** dauzka.
- Barrabanak:** deabruak. *Barrabanak, barrabasak, deabruak, demonioak... eduki:* zerbaitetan oso trebea, artosoa izan.
Hamarreko: musean bost tantuko alea.
08. **Bere:** ere.
Heltzen botso: heltzen badio.
Hordau: hordago, museko hitza, tantu guztiak batera jokatzen direla adierazteko.
Bataz: batez, batekin.
09. **Bakie:** bakea.
Zeinkena: zenezakeena.
Besigu parie: bixigu parea.
10. **Ligor:** lehor, idor.
Naparra: ardo naparra.
Deukozu: daukazu.

AZKETSI NONOR-ERI

(Ekin. 1934. 114. zenbakia, 5. or.)

- 01 Azketsi Nonor-eri
Goizeko Izarra
ez zekiela zutzaz
ein eban okerra.
- 02 Esan baneban bere
mutilzaharra zala
orain ba dinotzuet
neskatxa bat dala.
- 03 Hamasei urte eta
EAB-eko bazkide?
zorionak zeuri ta
biok gara aizkide.
- 04 Igaro zan astian
etzan lez agiri
amatau zalakuan
gengozan gu larri.
- 05 EUZKO-tik Txepetxak be
esan eban ba ze
hil zalakuan berau
rekieskatinpaze.
- 06 Halan da guzti bere
habijagintzera
gertu dagola dino
juateko batera.

- 07 Museko txapelketa
ta habijagintzie?
Arraintzat, Larragane
ointxe dau erie.
- 08 Besegurik ije ez da
papardua be latz
hoba ekarten bozak
laubost libra lebatz.
- 09 Arraina zuria ta
naparra gorria
artxo izter lodiagaz
uraza orlegia.
- 10 Hauxe bai, Larragane
mahaialde polite!
Ta abertzalientzako
ez txarto ipinite.
- 12 Apitto Piñaga ta
Bixente Esturo
oinez juan zirian
ta ez gero astiro!
- 13 Prantzisko Aranguena
hirugarren zala
hona hiru morrosko.
Hobarik bai ala?
- 14 Larogei urte batek
hur-hur beste bijek
beste hiru holako
ez dauz Aberrijek.
- 15 Euskadin balegokez
holako ehun gixon
Askatuta legoke
Aberria berton.

Gasteizera:

- 11 Aberri eguna ta
burdin-belbilik ez?
Gure agurak doiez
kopla barik oinez.



01. **Azketsi:** barkatu.
Ein eban: egin zuen.
02. **Baneban bere:** banuen ere.
Dinotzuet: diotsuet, esaten dizuet.
03. **Aizkide:** adiskide.
04. **Igaro:** iragan, joan.
Etzan lez agiri: ageri ez zenez gero, ez bait zen agertzen.
Amatau: amatatu, itzali, iraungi.
Gengozan: geunden.
05. **Esan eban ba ze:** esan zuen ezen.

- Ze, eze, ezen:** konpletiboa edo beste antzeko zerbaite iragartzen duten partikulak. Bizkaian *ze* hori oso erabilia da.
- Rekieskatinpaze:** latinezko *requiescat in pace*, atsedean bedi bakean, har beza atsedean bakean. Hilei dagokien otoitza.
06. **Habijagintzera:** habiagintzara, kabigintzara, habiak egitera.
07. **Habijagintzie:** habiagintza, kabiak egiteko ofizioa.
Ointxe dau erie: oraintxe dago era, aukera, une egokia.
08. **Besegurik ije:** bixigurik ia, kasik.
Papardua: papardoa, arrain mota bat.
Be: ere.
Hoba ekarten bozak: hobe ekartzen badituk.
Lebatz: legatz.
09. **Artxo:** bildots, arkume. *Artxoa* gehienik jaten den bildotsari esaten zaio.
Lodiagaz: lodiarekin.
Uraza: letxuga, letxua.
Orlegia: berdea.
10. **Mahaialde:** mahai inguru, mahaikada.
Txarto: gaizki.
11. **Burdin-belbilik:** trenik.
Agurak doiez: agureak doaz.
Kopla barik: aitzaki gabe. *Kopla* hitza bizkaieraz oso erabilia da aitzaki edo kexu esanahian. Baita zurikeri, engainuzko hitz eta antzeko esanahian ere.
12. **Astiro:** mantxoki, geldiro.
13. **Hobarik bai ala:** hoberik ba ote, hoberik ba al da.
14. **Hur:** hurbil.
Bijek: biak.
Ez dauz: ez ditu.
Aberrijek: aberriak.
15. **Balegokez:** baleudeke, baleude.
Gixon: gizon. Bustidura horrek ez dauka beste euskalki batzutako kutsu txarkoirik. Bizkaieraz, hainbat eskualdetan, *i* bokala aurretik denean, normala da zeta bustitzea: *ixan, ixar, gixon, bixi, haixie, ixekoa, elixa*, etab.
Berton: hemen bertan.

IDAZLE BATZUEI

(Ekin. 1934. 116. zenbakia, 4-5. or.)

- 01 Azkatu Arte bere agertu jaku-ta honi be bihar deutsat bertso txu bat bota.
- 02 Eskarrik asko zeuri bihotz bihotzetik emon biharra deutzut goralbenakaitik.
- 03 Holan da guzti bere gaur ez uste ixan hemeko Txepetx-kumak zinaikezanik jan.
- 04 Txepetxa dagan lez lagun gaberikan ezin ba jaio orduko bere kumarik jan.

- 05 Gura badozu baina tripabete egin aitu Txepetxagaz ta Larraganerekin.
- 06 Naparra ekarkot nik Txepetxak artxua Larraganen lebatzaz bete leik papua.
- 07 Txepetxa baina triste deukogu bakarrik Ereñon beretzako ez al dau lagunik?
- 08 Hemen badeukogu bat Goizeko Izarra baina zeuk dakixun lez gaztetxu samarra.
- 09 Emakumiek, hau bai! urte kontuetan gehienian jakijek eiten lapurretan.
- 10 Hamasei urte dino ta umie oraindik topaik ba zahartxuau bat Ereño aldetik.
- 11 Txepetxa zoriotsu ta ni bere pozik Goizeko Izarra, zuk ez euki zelorik.
- 12 Nik deukot zuretzako Goizeko Izarra Txepetxaren lekuan Euzko urretxindorra.



01. **Azkatu Arte:** idazle baten izenordea. Baita sortan ageri diren besteok ere: *Txepetxa, Larragane, Goizeko Izarra*.
Bere: be, ere.
Jaku: zaigu.
Bihar deutsat: behar diot.
02. **Deutzut:** dizut.
Goralbenakaitik: goralbenengatik, goralbenengatik.
03. **Holan:** horrela edo honela.
Ixan: izan.
Hemeko: hemengo.
Kumak: kumeak, umeak.
Zinaikezanik: zenitzakeenik.
04. **Dagan lez:** dagoenez, bait dago.
05. **Gura:** nahi.
- Tripabete egin:** betekada bat egin, asealdi bat hartu.
Aitu: ulertu, konpondu.
Txepetxagaz: Txepetxarekin.
06. **Naparra:** ardo naparra.
Ekarkot: ekarriko dot.
Artxua: artxoa, bildotsa, arkumea.
Lebatzaz: legatzarekin.
Leik: litekek.
Papua: papoa, masaila, matraila.
07. **Deukogu:** daukagu.
Ez al dau: ez al dago.
08. **Dakixun lez:** dakizun bezala.
09. **Jakijek:** zekitek.
Eiten lapurretan: lapurtzen, lapurretan egiten, ebasten.

10. **Dino:** dio, erraiten du.

Umie: umea, haurra.

Topaik: topa, aurki, ediren ezak.

Zahartxuau: zahartxoago, zaharxeago, zaharrago.

11. **Zelarik:** jelsiarik.

12. **Deukot:** daukat.

Urretxindorra: erresinula, txori mota bat, oso kantari ona.

ATZO

Bertso hauek ez dakarte ez izenik ez izenorderik.

ATZO, ATZO, ATZO

(Ekin. 1932. 47. zenbakia, 5. or.)

01 Atzo, atzo, atzo

atzo hil ziran

hamar atso.

Baldin ardaua

merkatzen ez bada

hilgo dirala

beste asko.

Atzo, atzo, atzo

atzo hil ziran

hamar atso.

03 Miaumiau, miaumiau, miaumiau

ez dozu jango

gure besau.

Gabon gabian

apari luzian

majen ertzian

zenbat arda.

Miau, miau, miau

ez dozu jango

gure besau.

02 Kuku-rruku-kuku

oilarra dabil

hortik estu.

Gabon gabian

apari luzian

danon artian

jango dogu.

Kuku-rruku-kuku

oilarra dabil

hortik estu.

04 Uauau, uauau, uauau

gure txakurrak

atrapa dau

atzo goixian

mendi hegalian

bedar artian

erbitxo hau.

Uauau, uauau, uauau

gure txakurrak

atrapa dau.

05 Erdu, erdu, erdu
kalian zihar
bagoiaz gu.
Herri maitia
pozik ikustia
asmo guztia
hori dogu.
Erdu, erdu, erdu
kalian zihar
bagoiaz gu.



03. **Gure besau:** gure besegu, gure bixigu.
Maijen: mahaiaren.
04. **Atrapa dau:** harrapatu du, hatzeman du.
Goixian: goizean.
Hegalian: hegalean, bazterrean, ertzean.

Bedar: belar.
05. **Erdu:** zatoz, etor zaitez.
Zihar: zehar, barrena, barna.
Bagoiaz: bagoaz.

Kopla hauetako lehenengoa oso ezaguna da. Beste laurek horri jarraituz asmatuak dirudite.

MUTIL GAZTE BAT

Bertso hauek Ereñotik bidali zituen batek, *Mutil Gaste Bat* ezize-
nez. Berak zuela bederatzi urte ikasi omen zituen, "eta orain gure neuke
beste batzuk be ikasi deiezan neure moduen". Azken bertsoan Jose Jua-
kin Azpeitiarra agertzen da, beraz, honek behar du bertso jartzaile izan.
Ereñotarraren bertsoiak, bizkaierazko moldakerez gainera, bistan da
hainbat oker dakarrela. Santa Katalinaren bertsook segurrenik bertso
egokian edo egokiagoan nonbait jasota egongo dira, baina badaezpada
hemen sartzea pentsatu dut.

SANTA KATALINA

(Ekin. 1933. 78. zenbakia, 4-5. or.)

01 Mila zortzirehun larogei eta
hamalagarren urtian
historia bat jartzera nua
ejemplo eder batian.
Santa bat nola azaldu zaigun
Mendaroko partian
haren legiak beti jagoten
gu ere saia gaitian.

02 Hirurehun bat urte inguru
hilik enterratu zala
haren gorputza dago oin bere
sartu zanian bezela.
Iduritzen zait lege santuan
fedegabia etzala
hainbeste urtian mudatu gabe
ez zan egongo bestela.

03 Katalina da bere izena
bautismokoan emana
eta Juan Ramos eta Mariana
zituan aita ta ama.
Bere denporan karinosua
Jaungoiko onarengana
harek doblan pagatutzen du
berakin portatzen dana.

04 Haren bizitza ezagutzeko
gaude kaso egokian
jaio zanian batiatu zan
Olasoko parrokan.
Padrino onak imini eben
Jaungoikuaren grazian
fedegabia segidu zuen
bizi zan urte guztian.

- 05 Mojatzarako bokaziua hartu zuen txit gazterik harek ez zuan zerua nundik irebaziko besterik. Ama maitiak ez zeukan hari karrera erakusterik apenas zeukan malamentian enpleatzeko usterik.
- 06 Gazte denpora igaro zuen aita eta amak bayezan bere anima etsai artera birian jarri ete zan. Ejenplo onak erakutsiaz izugarrizko noblezan haren orduko umildadia zeinek juzgatu zeinbat zan.
- 07 Mendaron bertan profesatu zan San Agustin komentuan aurrerantzian bizi izan zan Jaunaren bildur santuan. Birjindadia ondo zainduta guztizko errespetuan laguntza onak izan zituan heriotzako orduan.
- 08 Eskarmenturik ez degu hartzen bestiak ikusi arren Jesus maitiak bere eskutatik erruki gaizela arren. Kristau guztiok izan gaitian karinosuak alkarren begiratuaz geroko ditxa zein bidetatik datorren.
- 09 Projimo danak alkar maitatu okerrik bada zuzendu Katalinaren lege ederrak honelan erakusten du. Preminarikan izaten bada danok alkarri lagundu animarentzat ai zer zoruna hori egingo bagendu.
- 10 Txikitatikan hartu zituan onbide izugarriak esaten zuan hutsak zirala munduko zorakeriak. Beti Jesusi erregutuaz zabaldurikan begiak haren bihotza poztuten zuan zeruetako gloriak.
- 11 Zorigaiztoko Frantzialdeko gerra izan zan urtian hala bihar da suzeditu zan bilatutzia lurpian. Gorpu santua oso osorik konserbatu zan artian soldatu haiek tratatu zuten lastimaz malamentian.
- 12 Gogoangarri izan zan hango soldau gaiztoen sarrera on biharrian bere urteera egin zuen okerrera. Gorpu santua danen artian jasorik kanpantorrera ahal zan guztia zatitu zeiten jaurti ein eben lurrera.

- 13 Haren galera nola izan zan horra nik eman berehala irakurrita bestiak ere jakitun izango dira. Gizon gaiztoen enteraldiak horrelakoxiak dira egunen baten etorriko da haientzat ere galtzia.
- 14 Lan honetan ni enaz jarri lizentziarik gabia Don Pedro Migel parroko jaunak eman dit libertadia. Esan du esai baldin badago holako borondatia konbeni dala mundu guztian aditzera emotia.
- 15 Ama kristauak, bertso berriak nua oin amaitutzera familiaren konsuelorako baina eraman etxera. Relijuan enteratzian preminan baldin bagera kanta papel hau irakurtzia oraziuhan pare da.
- 16 Haren lanetan gogoratuta egin zeinbat orazio denpora beti sobrian dago harturikan espazio. Zahar eta gazte gerta gaitian aingeruakin sozio Jose Juakin Azpeitiarrak ez du besterik desio.
- ❧
01. **Jagoten:** zaintzen, gordetzen.
02. **Oin bere:** orain ere.
04. **Padrinoak:** aitama pontekoak, aitabitxi-amabitxiak.
Imini eben: ipini zuten.
05. **Txit:** oso, arras, agitz. Bertso honen hirugarren puntua honela dator: *ama maitiak etzaizkion karrera era osterik*. Argi dago okerra eta bigarrenak gutxienez *karrera erakusterik* izan behar duela.
Malamentian: gaizki, era txarrean.
06. **Bayezan:** hau ere okerra noski. *Bajezan* ote? Hala ere puntu osoa ez dago argi.
Birian: bidean.
08. **Gaizela arren:** gaitzala mesedez, otoi.
Ditxa: poza, zoriona.
09. **Zoruna:** zoriona.
11. **Gorpu:** hilotz.
12. **Urteera:** irtera, jalgipena.
Zatitu zeiten: puska zedin.
Jaurti ein eben: bota egin zuten.
13. Bertso hau bistan da dena ere nahiko aldrebes dagoela, batez ere errimaz. Ziur bertsolariak ez zuela horrela jarri.
14. **Enaz:** ez naiz.
Esai: hau ere okerrera bat.
15. **Ama kristauak:** segurrenik *hara kristauak* izango da, hatxe gabe *ara* idatzia.
Oin: orain.
Enteratzian: ez dirudi *enteratu* (jakin, jabetu) aditza izan daitekeenik.
Preminan: premian, beharrean.
16. **Sobrian:** sobera.
Espazio: segurrenik *despazio* (astiro, poliki, mantxo) izango da, beste zerbait ez bada.

FERMIN BEITIA

Paperak izenburutzat textu hauxe dakar: "Fermin Beitiak, Azkotierdiko Jaungoiko zaharrak, egin eta kartaz bidalitako bertsoak Eusebio Arteagari Mañariko Axpe baserrira Aldebaraietako bidea egin zutenean".

GURE MAÑARIAN

(Paper solte bat, nondik ekarri dudana ez dakidana)

01 Mila bederatzirehun
hogeita zazpian
ez dok honangoik pasau
oingo gizaldian.
Europako sarian
España Bizkaian
Durangotik gorako
gure Mañarian.

02 Hiru gizon ziraden
hasiak lanian
Telleria buruko
aldatz barrenian.
Auzobide bat jardun
zioten hasian
euren kostuz eiteko
Jaunaren grazian.

03 Angel de Kapanaga
Juan de Belakortu
Leon de Amantegi
ziraden juntatu.
Beitia zaharra zuten
perito nonbratu
bidia gidatu ta
langileei ein kontu.

04 Erretore jaunari
eman nion parte
bidia markatzeko
inmediatamente.
Neu jua nintzan gero
sobresaliente
aurretik dabilena
beti baliente.

05 Eusebi dabil pintxe
Josetxu uretan
enparau konpainia
harri ta lurretan.
Lurrak astunak dira
arbela gatxian
hemen lan egin baino
hoba dok etxian.



01. **Honangoik:** honelangorik, honelakorik.
Oingo: oraingo.
02. **Aldatz:** aldapa, malda.
Barrenian: beherengo aldean.
Jardun zioten hasian: esaldi hau aldre-
besa da, oker jasota ez badago.
05. **Uretan... lurretan:** ur lorrean, ura ekar-
tzen.
Enparau: gainerako, gainontzeko.
Gatxian: gaitzean, zailean. *Hatxian* edo
haitzean ez bada.
Hoba dok: hobe duk.

Bertso gehiago izango ziren beharbada. Bosgarrenak, esaterako, bi estrofa erdi gainjarrita dirudi, nahizta egileak errima oso zabal hartzea ere izan zitekeen.

MAÑARI

Paperak eskuzko ohar batean dio: "Jose Ignazio Bilbao, Mañariko dultzaineruen semeak emanak. Antton Mari Aldekoa-Otalorak transkribitua. Mañariako Aldebaraietako fotokopia". Eta azkenean, makinaz idatzitako beste ohar batean: "Ameriketara artzai joandako euskaldunek egin-dako kanta bat da, antza denez. Mañarin entzun dudanez, han artzai izandako mañariarren batek ekarritakoa".

AGUR EUSKAL HERRIA

- 01 Agur Euskal Herria
ta ez dakit noiz arte
agur ene maitia
gura dozun arte.
Urrin on arren zugaz
ezin ahaztu neike
beti zaitudalako
bihotzetik maite.
- 02 Zelan ahaztu neiteke
neure herri laztanaz
benetan maite badot
neure bihotz danaz?
Maitasunen indarrez
nahigabez ta penaz
Euskera galtzen bada
neu be galdua naz.
- 03 Neure bihotz erdiko
ama eta aita
jatorrizko hizkuntza
nik oso dot maita.
Hemen nago zuekin
hitz bat egin nahita
baina gaur ezin neike
urrin bizi naiz-ta.
- 04 Ameriketa aldian
egin dot gogaitu
neure bihotzik hemen
ezin jat alaitu.
Txoritxuak ditun lez
hego bi banitu
laister nintzatekela
Euskal Herriratu.



01. **Urrin:** urrun, urruti.
On arren: egon arren.
Zugaz: zutaz, zurekin.
Neike: ninteke.
02. **Neiteke:** ninteke.
Maitasunen: maitasunaren.
Neu be: neu ere.
03. **Ezin neike:** ezin ninteke.
04. **Gogaitu:** aspertu.
Jat: zait.
Lez: legez, bezala.
Hego: hegal.

JOSE BERGARETXE

Bertso hauek 1971an argitaratu zituen *Eibar* aldizkariak. Segurrenik gerrostekoak dira eta, beraz, nire eremuaz kanpokoak, baina Arrate inguruak eragiten didan xarmagatik, sartzea pentsatu dut.

ARRAGUETARI

(Eibar, Junio-Julio. 1971. 34. zenbakia, 7. or.)

- | | |
|---|--|
| 01 Bertso bat edo bi
jartzera nua ni
Arragueta zuri
kale jator horri
Eibarren ez bai da zu
bezelakorik. | 04 Zure etxeoandrak
leial ta maratzak
bakite ateratzen
gizonen arantzak
Arragueta etxiak
lore baratzak. |
| 02 Ez zera haundia
eztare txikia
ondo ebakia
da zure neurria
Arikitxa ta Urku-
zuko zubiak. | 05 Gizon biharginak
langile abilak
baitare artistak
nahiz kontrabandistak
Arragueta danetik
daukagu pixkat. |
| 03 Zure neskatilak
zein baino zein finak
aukera ezinak
hain dira sorginak
Eibarko mutilentzat
Jaunak eginak. | 06 Abade, torero
sartzen da noizero
baitare bankero
inork nahi ezkerro
Amerikan be badi-
tugu bakero. |

07 Gure umoria
nahitarez hobia
kalterik gabia
beti da garbia
bihotz ilun guztien
alaigarria.

08 Triste garanian
Arragueta aldian
edo ezinian
hemen lainopian
izar bat agertzen da
Arrate ganian.

09 Arraguetan jaio
eta bertan hazi
eusko odolez naiz
bizi eta hezi
beti maiteko zaitut
kale ta aberri.
10 Euskera degunez
beti gure hizketa
euskeraz eiten da
hemen berriketa
hortan beti nagusi
da Arragueta.



01. **Arragueta:** Eibarko kale bat.

02. **Zein baino zein finak:** *zein baino zein finagoak* litzateke esamolde naturala. Edo bestela *zein bezain zein finak*.

03. **Maratza:** gogoz eta ganoraz lan egiten duena.

Bakite: badakite.

05. **Noizero:** noizean behin, noiz edo noiz, aldian behin. *Noizero* forma bitxi samarra da.

06. **Nahitarez:** nahita ere ez.

Bertso hauen neurria bederatziko laburraren azken bost puntuena bezalakoa da, batzutan ez ditu denak errimatzen baina. Eta badute euren xarma eta egitasun lokala, niri behintzat gustagarri egin zaidana.

FELIX MARKIEGI

Bertso hauek 1986an argitaratu zituen *Eibar* aldizkariak. Ez dago dudarik liburu honen eremuaz kanpokoak direla, baina Arrateko xarma eta antzinako kopia zaharren airea dakartelako, eta batez ere politak direlako, sartzea pentsatu dut.

MENDIAN LORATXOAK

(Eibar. Agosto-Septiembre. 1986. 284. zenbakia. 9. or.)

01 Mendingo loratxoak
zuri eta gorri
nork jarri dizu, Ama
koroierder hori?
Krabelin bat, krabelin bi
Arraten hamabi
loretan ederrena
zu duda gaberik.

02 Zeru-zelai beltzean
izar bat da ageri
zure buru inguruan
bada gehiagorik.
Izartxo bat, izartxo bi
Arraten hamabi
izarrik ederrena
guretzat zu beti.

03 Pago itzalpe batean
harrizko iturri
nork eman dizu, Ama
jantzi apain hori?
Iturri bat, iturri bi
Arraten hamabi
ur garbi nahi duenak
eskatu Amari.

04 Arrateko bidean
Azitain aldetik
harrizko gurutze bat
dago antzinetik.
Han kredo bat, han kredo bi
nahi dunak hamabi
laguna topatzeko
ez da gauza hoberik.

05 Jende mordera dator
bide zabaletik
nork piztu dizu, Ama
kandela apain hori?
Mordoska bat, mordoska bi
Arraten hamabi
zu zera gure Ama
ta gu zure Herri.



04. **Azитай:** Eibarko auzo bat.
Antzinetik: aspalditik, duela anitz denboratik.
Topatzeko: aurkitzeko, kausitzeko.
05. **Mordoska:** mordotxoa, multzoa, taldea.

GEHIGARRIA

Lehen liburua inprimatu zenetik bigarrenera bitartean, zenbait material izengabe eskuratu zait eta penagarri neritzon auskalo noiz izango den bigarren argitalpenerarte gordetzeari. Orduan gehigarri bat hementxe sartzea pentsatu dut, nahizta lehen liburuko izengabeen tokia dagokion. Gero ere beti joango dira berriak agertuz, baina sartuak sartuta geratuko dira.

PEPATXUK ESAN EUSTAN

(**Bertsogintza Bizkaian. Koplatik bertsoa.** 8. orrialdetik aurrera. Abel Muniategi Elorza. *Irurac bat.* Colección LANAK. Núm. 10. *Euskalerraren adiskideen elkartea.* 1995.)

Abel Muniategik 1995.eko Urrian berak idatzitako liburuxka bat eman zidan, non Ereñoko bere ama Maria Luisa Elorzari jasotako hainbat kopla sartzen duen. Iturri honetatik lehen liburuak ere badakar sorta polita, baina orain gehiago dator. Han errepikak ekiditen saiatu nintzen eta hemen ere batzu, lehen liburuan jasota daudela segur nagoenak, al-bora utziko ditut. Dudazkoak sartu egin ditut, zerbait kanpoan uzteko arriskua baino hobe bait da bi aldiz agertzea. Hona kopla zerrenda, neurri-errimen arabera sailkatua eta zenbakitua, liburuxkan beste ordena batean badator ere.

01 Papatxuk esan eustan
niri gau batian
ezkondu bihar dogu
Jaunaren legian.

02 Igetargi zuritan
Igeko kalien
esaidazu Maritxu
nun bizi zarien.

03 Amaren txitatxuak
ia dira hazi
nire nobiotxuek
jun dira igesi.

04 Eidertxu doianien
Bilbora plantxera
handik ekarriko dau
dotia etxera.

- 05 Eidertxu doianien
Bilbora trenien
Anertzek urtengotso
automobilien.
- 06 Igorrek atrapau dau
sasian zozue
Eiderrek prestau dautso
saltsatxu gozue.
- 07 Gorengo kamarara
bidie labana
galdarara sartu jat
mutil barrabana.
- 08 Oraingo mutiltxuek
zer daben merezi
errekan beratu ta
leixiban egosi.
- 09 Badakit zagozana
kortina tartian
neure koplak entzuten
kamixa hutsian.
- 10 Errementari baino
hoba da zesteru
lepo bete palogaz
kolko bete diru.
- 11 Nabarnizen ei dago
morokila merke
txakur txiki bategaz
topinie bete.
- 12 Hamar hamaseiko ta
ohie ta kaixie
Maiazkunien dago
neskatil gaztie.
- 13 Mariquita Pelona
Bilbora bidien
un cuartillo de vino
arnasa batien.
- 14 Mahatsak orria zabal
Begoña ganien
neu bere hangoxie
bai zorionien.
- 15 Hortik hemendik, Zamudiotik
dago Bilbora bidie
Barren Kalien agure batek
saltzeko ei dauko andrie.
- 16 Ereñoko hiru mutilek
egin ei dabe juntie
zeinek arinau atrapau
San Migeleko puntie.
- 17 Santiago-Santanetan
Ispazterko tabernetan
ez da mutilik faltako
gabeko hamabietan.
- 18 Porrusalda mingotsa
arto lizundue
sarritan damutu jat
zugaz ezkondu.



01. **Eustan:** zidan.
Bategaz: batekin.
Topinie: tupina, metalezko ontzi estalki-
duna, esnea gordetzekoa.
02. **Igetargi:** ilargi.
Ige: Ea, Bizkaiko itsas herri bat.
04. **Doianien:** doanean.
Dau: du.
05. **Urtengotso:** irtengo, jalgiko, aterako
zaio.
06. **Atrapau dau:** harrapatu, hatzeman du.
Prestau dautso: prestatu dio.
07. **Kamarara:** ganbarara.
Bidie labana: bidea labaina, bide irris-
takorra.
Jat: zait.
Barrabana: barrabasa, gaiztoa, bihurria.
08. **Daben:** duten.
Leixiba: lixiba, lisiba, garbiketarako
erabiltzen den likido alkalinoa.
09. **Zagozana:** zaudena.
10. **Errementari:** suarotz.
Zesteru: otargin, saskigile.
Lepo: bizkar.
Palogaz: palorekin.
11. **Ei:** omen.
Morokila: artazuku, dungulu, arto hiri-
nez egindako ahia.
12. **Hamaseiko:** hamasei hogerlekoko diru
zahar bat.
Ohie: ohea, ohantzea.
Kaixie: kaxa, kutxa.
Maiazkunien: Maiazkurenean, Maiazku-
ren etxean. *Maiazku* izeneko etxean
ere izan daiteke.
13. **Pelona:** iletsu.
14. **Ganien:** gainean.
Bere: ere.
Hangoxie: hangoxea, bertakoa.
15. **Ei dauko:** omen dauka.
16. **Dabe:** dute.
Juntie: junta, batzarra, bilera.
Zeinek arinau atrapau: nork lehenago
hatzeman, harrapatu.
Puntie: punta, tontorra.
18. **Kopla hau ez da sorta honetakoa, baina
berton sartzen dut. Ez daukat gogoan
nork eman zidan.**

AMA EZKONDU

(**Areitio sorta.** Juan Mari Areitio Abadiñar bertsolari eta orain Iurretan bizi denak Abadiñon kantatzen ziren koplak eta bertso letra batzu ekarri zizkidan).

01 Ama ezkondu, ezkondu
denboria dan artian
ene alaba zer ditxa daukazun
nobiorik ez etxian.

03 Agur esanda orain banoia
nahi dezunian etorri
amodiozko begi ederrok
erakustera alkarri.

02 Ezkontzia da gauza erreza
sinisturikan ohi nago
lehengo moduan bizi biharko
beti bildurrez banago.



01. **Ditxa:** zoriona, zorte ona.
Nobio: senargai, gizongai.

NEURE ANDRIA

(**Areitio sorta.**)

01 Neure andria andra ona da
gobernu ona auzoan
hartzen dabela bere alaba
Mari Kattalin altzoan.

03 Zu beti Fraisku Txomin tabernakua
zu ikustera nator pozez betia
ai ze kontentu, hau da poz-poza
eska zaidazu, ene maitia.

02 Esaizu zer nahizun
gero be honelan
mundu honetan
biok biziko gera gu
baldin bazera kontentu.

04 Arrautzatxoa eta kaiku esnia
kaiku, kaiku, kaiku, kaiku,
kaiku, kaiku esnia
arrautzatxoa eta kaiku esnia.



01. **Gobernu:** mantenu, zaintze, bizipide.
Dabela: duela.

02. **Be:** ere.

04. **Kaiku:** ardi-esnea biltzeko zurezko ontzia.

AMA EZKONDU

(Areitio sorta. Juan Mari Areitio Abadiñar bertsolari eta orain Iurretan bizi denak Abadiñon kantatzen ziren koplak eta bertso letra batzu ekarri zizkidan).

01 Ama ezkondu, ezkondu
denboria dan artian
ene alabia zer ditxa daukazun
nobiorik ez etxian.

03 Agur esanda orain banoia
nahi dezunian etorri
amodiozko begi ederrok
erakustera alkarri.

02 Ezkontzia da gauza erreza
sinisturikan ohi nago
lehengo moduan bizi biharko
beti bildurrez banago.



01. **Ditxa:** zoriona, zorte ona.
Nobio: senargai, gizongai.

NEURE ANDRIA

(Areitio sorta).

01 Neure andria andra ona da
gobernu ona auzoan
hartzen dabela bere alaba
Mari Kattalin altzoan.

03 Zu beti Fraisku Txomin tabernakua
zu ikustera nator pozez betia
ai ze kontentu, hau da poz-poza
eska zaidazu, ene maitia.

02 Esaizu zer nahizun
gero be honelan
mundu honetan
biok biziko gera gu
baldin bazera kontentu.

04 Arrautzatxoa eta kaiku esnia
kaiku, kaiku, kaiku, kaiku,
kaiku, kaiku esnia
arrautzatxoa eta kaiku esnia.



01. **Gobernu:** mantenu, zaintze, bizipide.
Dabela: duela.

02. **Be:** ere.

04. **Kaiku:** ardi-esnea biltzeko zurezko ontzia.

GERBASEN KANTAK

(**Areitio** sorta. *Gerbas* izeneko erdi-eskeko batek Abadiñon bere gitarra zahartxoarekin kantatzen omen zituenak).

01 Tengo pueblos enteros
Malaga aldian
tengo dos mil molinos
gau ta egun lanian.
Tengo otro gran piano
Bizkarran ganian
porque allí dormía
lastozko ohian.

Da Galtzaundi, da Galtzaundi
apellidua det ongi.

02 A mí a palos nadie me mata
porque soy balientia
allí en Sevilla tengo un ganbara
gizonen larruz betia.

Da Galtzaundi...

03 Kis-kas kis-kas kis-kas
iluntzeko seirak
din-dan din-dan din-dan
orain hamabiak.
Dan ordu batak eta
bun-bun ordu biak
holango erlojurik
etxaukok elizak.

Da Galtzaundi...

04 Lo menos tengo cien mil millones
hori diru jakinian
y los billetes del Banco rojo
gainezka berriz kofrian.

Da Galtzaundi...

05 Kafian denpora asko
biharrian gutxi
ostera be euko degu
poltsan diru gutxi.

06 Mi padre gobernador
mi tío es alcalde
mis hermanas maestras
conmigo cásate.
A mirarme, gazteak
erantzun zazute
zertarako hordiekin
ibiltzen zerate?



01. **Bizkarran:** izan daiteke *bizkar* edo *sorbalda*, baina baita segurrenik izen berezia ere. Deitura hau Abadiño aldean ugaria da eta badu handiki kutsua ere. Eskekoak halako etxe handiren bateko eskepean lo egingo zuen, lastozko ohean, gainean pianoa zeukala.
03. **Iluntze:** arrastiri, ilunabar, ilunde.
Holako erlojurik: ez zen nolanhiko eskalea, elizak ere ez zeukan bezalako erloju eta guzti.

Etxaukok: ez zeukak.

04. **Kofrian:** kutxan.

05. **Kafian:** kafetegian.

Biharrian: beharrean, lanean.

Ostera be: ostera ere, berriz ere.

Euko: eukiko, ukanen.

Poltsan: patrikan, sakelean.

06. **Hordiekin:** mozkorrekin, mozkortiekin.

Erdi koplak erdi bertsoen nahaste honetako eskaleak ez zuen bere burua hain errukarri ikusten. Limosna apur bat batzeko, nolako fantasiak asmatu behar diren!

KURUTZE-BIDE

(1934. urteko liburuxka, "Durango'n Florentino Elosu'ren etxean". Gatikako abade Jesus Etxebarriak eskuratua).

01 Pilatok agindu dau
lapurren artean
untzez gogor josteko
Jesus kurutzean.

02 Sorbaldian harturik
kurutze astuna
hiltzera orain dua
gure Jesus Jauna.

03 Lurrera jausiten da
Jesus nekaturik
jasoten laguntzeko
ez da errukirik.

04 Agertzen jako Ama
negarrez bidean
ai zer samintasunak
bien bihotzean!

05 Simon Zirenetarra
hartzan dabe lagun
kurutzea eruaten
ikasi dagigun.

06 Pekataria nun da
zure errukia
Jesusi garbitzeko
bere arpegia?

07 Ludiko pekatuen
astunaren handiz
kurutzepean Jesus
jausiten da barriz.

08 Jerusalemgo alabak
ez niri negarrik
negar egidazue
pekatuagaitik.

09 Hainbeste neke-minez
ahul eginik Jauna
hirugarren aldia
hemen jo dau lurra.

10 Ludiaren aurrean
jantzia kendurik
hor dago Jesus ona
oso lotsaturik.

11 Kurtzian josi dabe
zanak urraturik
hazurrak askatuaz
euren giltzetatik.

12 Kurutzean jasota
minez aseturik
hil da Jesus maitea
gure onagaitik.

13 Semearen gorputza
jatsi dabenean
ai zer ezpata daukan
Amak bihotzean!

14 Hobira dabenean
Jaunaren gorputza
itxaso samina da
Amaren bihotza.



01. **Dau:** du.
Untze: iltze.
02. **Sorbaldian:** sorbaldan, bizkarrean.
03. **Jausiten:** jausten, erortzen.
Jasoten: jasotzen, zutitzen, altxatzen.
04. **Jako:** zaio.
05. **Dabe:** dute.
Eruaten: eramaten.
Dagigun: dezagun.

07. **Ludiko:** munduko.
10. **Lotsaturik:** ahalketurik.
11. **Kurtzian:** kurutzean, gurutzean.
Zanak: zainak.
13. **Jatsi:** jaitsi, eraitsi, beheratu.
14. **Hobira:** hilobira.
Kurutze untzetu: gurutziltzatu, gurutzifikatu, gurutzean iltzez josi.

Zazpigarreneko *berriz*, zortzigarreneko *neri* eta hamairu-hamalau-garreneko *dutenean* hemen *barriz*, *niri*, *dabenean* jarri ditut, beste bertsio batzutan kantatzen direnez. Dena bizkaiera hutsean doalarik, argi dago forma horiek inkoherentziak direla.

Gurutzebide hau kantatu edo entzun ez duen kristaurik ez da egongo, Bizkai aldean behintzat. Elizetan, hormen erdi-altueran eta bueltan-bueltan, hamalau gurutze daude, Jesukristoren pasioaren hamalau urrats edo egotaldiren gomutaz. Gurutzebidea hamalau egotaldi horiek egitea da, bakoitzean, dagokion gurutzera begira, halako otoitz, kantu edo gogoeta bat eginez. Koplak hauek urrats horiexek kantatzen dituzte, bakoitzean zer gogoratzen den adieraziz. Eta denek batera, fededun izan ala ez, bere edertasuna daukan drama bat osatzen dute.

BOST ZAURIAK

(Aurreko liburuxka bera)

- | | |
|---|---|
| 01 Ezkerreko oineko
zauri maitetsua
mun egiten deutzut nik
bihotz damutua. | 04 Eskumako eskuko
zauri maitetsua
mun egiten deutzut nik
bihotz damutua. |
| 02 Eskumako oineko
zauri maitetsua
mun egiten deutzut nik
bihotz damutua. | 05 Saihets santuko zauri
maite maitetsua
umil eskatzen deutzut
nik parkazinoa. |
| 03 Ezkerreko eskuko
zauri maitetsua
mun egiten deutzut nik
bihotz damutua. | |



01. **Deutzut:** dizut.
02. **Eskumako:** eskuineko, eskubiko.
05. **Parkazinoa:** barkamena, barkazioa.

Kopla hauek, formula soil baten errepikaz, efektu hunkigarria lor-
tzen dute. Estilizazio xumea herri-literaturan oso maitea da, batez ere dra-
ma bat tartean dagoenean. Eta asmatzen denean, solemnitare handia ezar-
tzen dio.

ILARGIERI EITEN JAKOZ

(Mungiako Asier Legarretak Jatabeko Ziriaka Urrutiari jasoak)

- | | |
|---|--|
| 01 Ilargieri eiten jakoz
begiak ilundu
zaindu beharrik ez dau
ez dadin aldendu. | 07 Heriotzia jatorku
gugana gaiztorik
zaharrak hartuko gaituz
beste asko gazterik. |
| 02 Baina Jaunak ohi dausku
gauza bat agindu
biziak lur emoten
eiteko lagundu. | 08 Gazte batzuk ez dauke
holango usterik
baina lur zaharra baino
ez dauke besterik. |
| 03 Badaki nahiko ez dala
heriotz zigorra
ta bizi ahal izateko
denpora laburra. | 09 Heriotzia laster
daukagu atian
itziko ez daukuna
inori bakian. |
| 04 Ludiari ein behar
betiko agurra
arimeagaitik daukot
geroko bildurra. | 10 Artez ibili gaitezan
ahal dogun artian
oker ibili ezkerro
ariman kaltian. |
| 05 Goiz jaio nintzalako
bizi naiz berandu
gaztetasun guztia
eginik aldendu. | 11 Bizi garen guztiok
gaude gu zorpian
heriotizan itzala
agertu artian. |
| 06 Hori oin ezin geinke
atzera gogandu
bestela hartuko geunke
nork emon bagendu. | 12 Zor hori ordainduo dogu
egunen batian
sartu baino lehenago
gu danok lurpian. |

- 13 Hila ezin da euki
bizien lekuan
geuk eroango dogu
harturik lepuan.
- 14 Senideen atzetik
negarrez lautua
ai zein egun itzela
hori ahal gaituan.
- 15 Naizi izan zenuen
naizi izan dadila
bizirik jaio dana
izango da hila.
- 16 Heriotza gau ta egun
dabil guri deika
ta egun zoriontsu baten
agertu dadila.
- 17 Zelakua dan gure
munduko bizitza
halantxe izango da
gero gure heriotza.
- 18 Asko bizi ohi dire
munduan harrorik
zerua itxaroten
dau nekatu barik.
- 19 Zenbat dagoz erreta
infernu barruan
uste ebenak zeudela
betiko zeruan.
- 20 Zeuri beste hainbeste
jazoten bajatzu
belu ezetu barik
zeuk egin beharko dozu.
- 21 Zeure burutazino
lagunen esanak
nahizta zorigaiztokoak
galdu zinduzanak.
- 22 Munduko ezti gozo
poztu zinduzanak
ez ditubez izango
azken atseginak.
- 23 Arimeagaz ez ahaztu
bizi atseginez
halan dozun guztia
amaitzeko onez.
- 24 Jaunaren berbiari
ez burla edo gortu
beti sinesten dozun
bidia bilatu.
- 25 Jaun onak aginduak
imini zituan
horretarako sartuko
bagina zeruan.
- 26 Bere berba handiak
ez dau huts emongo
oraingo isiltasuna
da bai agertuko.

- 27 Harako azkeneko
egun hasarrian
agertuko da ondo
guztien aurrian.
- 28 Ez da inoiz izango
burla ta barrerik
ez dau inoiz izango
bihotz pozgarririk.
- 29 Asko badira bere
bide nasaikoak
danok hartuko gaitu
epai betikoak.
- 30 Oh Jaun handi ta jabe
beti betikoa
egizu izan nadila
zeure aldekoa.
- 31 Ondo bizi nadila
gero ondo hiltako
betiko zeruetan
zeugaz izateko.



01. **Jakoz:** zaizkio.
Aldendu: urrundu, desagertu.
02. **Dausku:** digu.
Eiteko lagundu: laguntzeko.
04. **Ludiari:** munduari.
Daukot: daukat.
06. **Oin:** orain.
Geinke: genezake.
Atzera: berriro.
Gogandu: pentsatu.
Geunke: genuke.
07. **Datorku:** datorkigu.
08. **Dauke:** daukate.
Holango: horrelako.
09. **Itziko ez dauskuna:** utziko ez diguna.
10. **Artez:** zuzen.
11. **Heriotzian itzala:** heriotzaren geriza.
13. **Eroango:** eramango.
14. **Senide:** ahaide.
Lautua: honek *lutua* izan behar du.
- Hori ahal gaituan:** hemen zerbait oker dago, ez bait dauka zentzurik.
15. **Naizi izan zenuen naizi izan dadila:** hemen ere zerbait oker dago. Honelako zerbait izan daiteke: *nahi izan zenuen bizi izan nadila*.
17. **Zelakua:** nolakoa.
Halantxe: halaxe.
18. **Dauz:** hemen *dauz* dagokiola dirudi.
Dagoz: daude.
Barik: gabe.
19. **Dagoz:** daude.
Ebenak: zutenak.
20. **Jazoten:** jazotzen, gertatzen.
Belu: berandu.
Ezetu barik: ezagutu gabe.
21. **Burutazino:** burutapen, pentsakizun.
Zinduzanak: zintuztenak.
22. **Ditubez:** dituzte.
23. **Arimeagaz:** arimarekin.
Halan: hala.

24. **Berbiari:** hitzari.
Burlau: burlatu, trufatu, isekatu.
25. **Imini:** ipini, ezarri.
26. **Ez dau huts emongo:** ez du huts eman-
go, ez du hutsik egingo.
27. **Egun hasarrian:** egun gogorrean, bildur-
garrian.
28. **Barrerik:** irrik.
29. **Nasaikoak:** laxokoak, zabalekoak.
31. **Zeugaz:** zeurekin.

Sorta honen lehen erdiak zortziko txikiena dirudi, erriman binaka ondo bait datoz. Hortik aurrera banaka doaz. Hala egina ala bertsioaren kontua ote da? Argi dago bertsioa ez dela guztiz zuzena, honelakoetan normala denez. Zatiak falta daitezke, ordena aldatu egon daiteke, neurrian egilearen hutsak ez diruditenak daude... Gehiena bizkaiera zarratuan egonik, gipuzkerazko forma horiek nola sartu dira? Lekukoaren aldakuntza oharkabeak ala beste zerbaiten egokipenak ote dira? Beharba da norbait jakinaren sorta ezaguna izango da, baina nik behintzat ez dut ezagutzen. *Gogandu, ludi* eta horrelako neologismoetatik, ez dirudi koplak zaharregiak direnik.

TXIKI TXIKITXUE

(Mungiako Asier Legarretak, Mungialdean baturik, eskuratu zizkidan askoren artetik, lehen liburuan agertu ez ziren batzu doaz orain).

- | | |
|--|--|
| 01 Txiki txikitxue ta
polit politxue
gure umetxue dala
polit politxue. | 03 Kaskar karkartxue ta
polit politxue
gure umetxue dala
bihor bihortxue. |
| 02 Polit politxue ta
txiki txikitxue
gure umetxue dala
kaskar kaskartxue. | 04 Bihor bihortxue ta
kaskar kaskartxue
gure umetxue dala
oker okertxue. |



- | | |
|--|-----------------------------------|
| 01. Txikitxue: txikitxoa, tipittoa, nimiñoa.
Politxue: pollita, politñoa. | 03. Bihor: bihur, bihurri. |
| 02. Kaskar: txatxar, erkin, erdizkako. | 04. Oker: gaizto, bihurri. |

- | | |
|--|---|
| 01 Txikitxu polit hori
zer dozu merezi?
Errekan berotu ta
galdaran egosi. | 02 Galdaran egosi ta
harrian golpe bi
harrian golpe bi ta
kakoan eskegi. |
|--|---|



02. **Kako:** arropak eskegitzeko soka, alanbre edo bestelakoa.
Eskegi: dilindatu, zintzilikatu. Arropa garbitzeko sistemaren eskarmentua agintzen zaio haurrari, lokartzen ez delako. Hitzez hitz harturik, mehatxu krudela dirudi haurtxo barentzat, baina honi berdin dio, gozo kantatzen eta eragiten bazaio.

01 Txilin-txilin, parau belauniko
altza Jesukristo!
Aitatxu, amatxu hurrian
hurrian txitetxu babalorian.

02 Loratxu ala kinkilera
ona samurrera
Zuriñe Bidebarriko
buelta beste aldera.



01. **Parau:** paratu, jarri.
Hurrian: hur, hurrean, hurbil.
Txitetxu: txitatxo, txito tipia.
Babalorian: babalorean, baba-landarearen lorean.
02. **Kinkilera:** *kinkilero*-ren femeninoa, kinkilaria, kinkilak saltzen dituen emakumea.

KUKUARENAK

(Muxikako Ariatzako Deunoro Sarduik Serafin Goikoetxeari, Muxikako Eleizaldeko Bulukukoari, zintaz jasoak, 1996. Urtarrilaren 17an. Sorta honi ikutu batzuk erantsi dizkiot, Jon Lopategik emandako bertsoaren arabera).

- 01 Horra hor goiko hareztitxu baten
kukuak umiak egin jozak aurtan.
Kukuak egin, txanbilotxak jan
haxe bere kukuaren zoritxarra zan.
- 02 Kukua dabil penaz beterik
txanbilotxan bila arbolarretik.
Txanbilotxak dino haretx barrutik:
“Ez haz hi sartuko nire zilotik”.
- 03 Ez naizala sartuko hire zilotik
gaizto zital horrek ondo dakik hik.
Baina urtetan badok haretx barrutik
heu be ez haz apartauko heriotzatik.
- 04 Txanbilotxa larri bere ziloan
eukala jaboten kukua alboan.
“Ujela -dino- banengo kanpoan
bestela hil binajok gosiak oingoan”.
- 05 Txanbilotxak dino bildurrez beterik
“hiru kume ditut -haretx barrutik-
hiru kume dituk -haretx barrutik-
eutsozak bi eta joadi hemetik”.
- 06 Kukuak entzun zituanian
berba samur horrek arbolarretian:
“Emoten badaustazak hirurak onian
joan egingo nok neure bidian”.
- 07 Oh, txori bihotz gogorrekoa!
Ondo mindu daustak nire barrua.
Baina egina jaukat nik juramentua
hiri be emoteko umien pagua.



01. **Hareztitxu:** hariztitxo, harizti txiki.
Jozak: ditik.
Txanbilotx: amilotx.
Haxe bere: huraxe ere.
02. **Dino:** dio, esaten du.
Zilo: zulo.
03. **Urtetzen badok:** irteten, ateratzen ba-
haiz.
Hi be ez haz: hi ere ez haiz.
04. **Eukala jaboten:** zeukala zaintzen, begi-
ratzen, zelatan.
Ujela: oxala, hobe.
Binajok: behar najok, behar naik.
Oingoan: oraingoan.
05. **Kume:** ume.
Eutsozak: har itzak.
Joadi hemetik: joan hadi hemendik.

06. Berba: hitz.

Horrek: horiek.

Emoten badaustazak: ematen badizkidak.

Eingo nok: egingo nauk.

07. Daustak: didak.

Jaukat: zeukaat, diat.

Hiri be: hiri ere. Lekukoak *daukat* eta *zuri be* kantatu zuen, baina bistan da, aurreko *daustak* aditzarekin eta bertsoaren tonuarekin bat egiteko, hauek ere hiketan behar dutela.

Pagua: ordaina.

BESAIZKO LECTIO EPISTOLAE

(Deunoro Sarduri Jose Luis "Majoak" eta Erramon Urkietakok abestuak. Aldaera bakarra ematen dut, etxe izenetan alde txiki batzu badauzkate ere eta bitan ezizen ezberdinak, parentesian datozenak. Auzo bateko etxe guztien izenak eta ugazaba edo ugazabandarearen ezizenak izendatzen dira. *Artolateko* doinuan edo bestela aureskuko erregelakoan kantatzen ei dira).

Itzuli-palu Palazioko
Mari Urkulu Jeuriko
Muxikako Triskili-Trauski (Modorroa)
Solaiko Txintxilin Borlas
Uruburuko Morroie
Artetako Patronie
Biesko Katutxue
Eurreko-Etseko Kaletra
Goizko Miru eratsia
Etsebarriko Turuntañe
Ikoetako Txaguretxue
Urkietako Txantxarra
Sarrakako Sagua (Andaparie)
Erdiko-Errotako Kirikolatza
Larrabeko Erbia
Larragoiko Azeria
Kukutxueneko famelia.

TIBURTZIO

(Deunoro Sarduik jaso eta kontatua)

Tiburtzio esne saltzailea zen. Ariatzako Usparitxatik geltokirainoko esneak batu eta trenez Basaurira bildatzen zituen, han bere alaba biek banatzen zituztela. Hilarean azkenean, ordainketa zenean, ez omen zen harekin giro izaten. Haren berbeta latza ere latza zen eta norbaitek koplak atera. Hauek baino gehiago izango ziren segurrenik.

01 Tiburtzio mutil haundi
ganora bakoa
astoa ere badok
heure modukoa.

03 Madriletik etorri zan
komediantie
astoa notizia
jakin ebanien.

02 Hankak okerrak eta
ulie luzie
harek pasatuten jok
aspaldin gosie.



01. **Ganora:** taxua, funtsa, fundamentua.
Bakoa: bagekoa, gabekoa, gabea.
02. **Ulie luzie:** ilea luzea.
Pasatuten jok: pasatzen dik.
Aspaldin: aspaldian, azken aldian.
03. **Ebanien:** zuenean.

NEURE MAITEA

(Deunoro Sarduik jaso eta kontatua)

Mendatako Teresa "Baltzak", lau ume txiki zituela; gizonak Ameriketara ihes egin ondoren (gaur arte), koplak bi hauek kantatzen ei zituen:

01 Neure maiteak joanak joan
ez daust egiten kartarik
esperentzie luzie da ta
harekek nauka bizirik.

02 Baltza nazela dirauste baina
ardura daust gitxi niri
ardaua bere baltza da baina
askok eiten dau erosi.



01. **Daust:** dit.
02. **Dirauste:** dinoste, dioste, esaten didate.
Ardura dit gitxi: axola dit guti.
Eiten dau erosi: erosten du.

IGEZ GINEAN

(Deunoro Sarduik kontatua. *Arietza* etxean senar-emazte gazteak lehenengo haurra izateko zeuden. Senarra Agedaren tabernan zegoela, emazten umeminetan zela eta etxeratzeko errekadua eman zioten. Gelako atetik bertso hau bota eta barriri tabernara joan omen zen).

Igez ginean gazte zoroak
aurten barriz amoroso
igarri neutzun zu zengozala
niganantzako ganoso
ikusten danez laster gara gu
famiaren guraso.



Igez: iaz, joan zen urtean.

Barriz: ordea, oster, berriz.

Neutzun: nizon.

Zengozala: zeundela.

Niganantzako: nigananzko, niganako, nire aldera.

Ganoso: gogoz, gogotsu.

SANTA AGEDA

(Orozkoko Juanjo Respaldiza bertsolariak eskuraturiko paper bat, azpian Paulina Ugarte ipintzen duena. Beraz, emakume honengandik jasotako sorta da).

01 Bedeinkatua izan daitela
etxe honetako jentia
kantetan gatoz Santa Ageda
bertako mutil guztiak.

Haren bizitza garbia
benetan miragarria
gure artian bere izena
izan daitela maitia.

02 Siziliako uritxo baten
jaino zan Santa Ageda
txiki txikia izan zanetik
gazte garbi ta zuzena.

Eder ta aberats izanik
ez zan harrotu haugaitik
Jaungoikuaren laguntasunak
zainduten eban zerutik.

03 Martiri gogor irago eban
gaztetan Santa Agedak
aingerutxo bat izatearren
bere gaiztakeri dana.

Gorrotuaren indarra
jentilen bihotz gogorra
lelengo zigortuta ebagi
eutsozan gero bularrak.

04 Gero kartzelan egon zanian
zan mirari bat handia
zeruetatik jatsi ei jakon
Jaungoikuaren argia.

Mirari ikaragarria
Santa honen pozgarria
San Pedrok berak oratu eutson
gorputz odolez betia.

05 Kinsiano enperadoriak
maite eban Santa Ageda
ikusirikan bere aurrean
ekarri eban etxera.

Gaiztakeri hau entzunik
Agedak dino bakarrik
neuk agurtzen dodan jauna baino
ez dot maitatzen besterik.

06 Enperadore bihotz gogorak
gorrotoz hil gura eban
neskatil gaztearen bihotza
poz pozik dua hiltera.

Neke handien erdian
dauka barrez arpegia
pozez beterik zeruratzeko
beren arima garbia.

07 Agur orain egiten dautsagu
San Agedagaz batian
urte ontxu bat igaro daigun
osasanaz ta bakian.

Probe guztien artian
erruki izan gaitian
Santa Agedak lagundukosku
zeruetako atian.



01. **Daitela:** dadila.
Kantetan: kantatzen, kantatzera.
02. **Uritxo:** hiritxo, hiriska.
Zainduten eban: zaintzen zuen.
03. **Irago eban:** iragan, pasatu zuen.
Izatearren: izateagatik.
Ebagi eutsozan: ebaki, moztu zizkion.
04. **Jatsi ei jakon:** jaitsi, jetxi omen zitzaion.
Oratu eutson: heldu, atxeki zion.
05. **Eban:** zuen.
Dino: dio, esaten du.
Jauna baino... **besterik:** jaunaz besterik, jauna baizik.

06. **Gura eban:** nahi zuen.
Dua: doa.
Barrez: irriz.
Beren: beraren, bere.
07. **Dautsagu:** diogu.
Agedagaz: Agedarekin.
Ontxu: ontxo, on ona. Diminutiboak batzutan superlatibo kutsua dauka.
Daigun: dezagun.
Probe: pobre, behartsu.
Lagundukosku: lagunduko digu.

Bikoa eta bestea hirukoa, bakoitza bere doinuarekin txandan kantatzekoak. Sorta honek beste koplak batzuren oihartzun komunak badauzka ere, nahiko multzo ezberdina osatzen du.

SASIEN TXORI LARROSA

(Kopla hauek -lehen laurak jotakoak, hurrengoak bueltakoak- Zeanuriko Jose Ramon Arbe irakasleak Zeanuri aldean jasotako sorta batetik hautatuak dira. Izengabeen lehen liburuan eman gabeak bakarrik datoz hemen)

- | | |
|--|---|
| 01 Sasien txori larrosa
zeure berbaren donosa
sarritan emon daustazu
zeugaz egoteko poza. | 07 Izerratu kalma-kalma
idergi betea
baserriko umeentzat
taloa ta esnea. |
| 02 Urrin urrin dau Ferrolen
hiantxe dau sedia merke
sedia behar dauana
joan leiteke haraxe. | 08 Aihen eta patana
bederatzi kana
jantzi-erantzien be
urrutu jatana. |
| 03 Larrosa bentanakoa
ipinten zaitut kontuen
baltzeorik ez eiteko
neure fandro soinuen. | 09 Oraingo neskatilak
zer daure merezi
errekan beratuta
leixiben egosi. |
| 04 Mutil zaharraren bentia
ezer badauko kentzia.
Mutil zahar edo donaue
azkenerako sobraue. | 10 Antezko frakak eta
txaleko berdea
satorraren hankokaz
zeuk bere andrea. |
| 05 Atxurre soloan da
kirtena basoan
askok hartuko leukek
maitea besoan. | 11 Neronek ikusie
kortako leihotik
txapela urdin eta
neskatxa besotik. |
| 06 Neska zahar birrotxia
tejamanapian
batek esan baleio
ezkondu gaitian. | 12 Aienak eta penak
hau dok historie
matrimonio barik
hiru familie. |

13 Dimen erromerie
maietz pazkoetan
mutilek hara dire
neskak konbidetan.

14 Urkiola ganeko
pago ondo baten
hamalau neska-mutil
morokile jaten.

15 Atsoa ta agurea
alkarren atzean
kortako baztarrean
pekorotz batzean.

16 Oraingo neskatilak
satorren hankakin
ezkontuko litekez
mutil galantakin.



01. **Berbaren donosa:** hitzaren dotorea, do-
haiz edo graziaz betea izatea.
Daustazu: didazu.
Zeugaz: zeurekin.

02. **Urrin:** urrun, urruti.
Dau: dago.
Sedia: seda, zeta.
Dauana: duena.

03. **Bentanakoa:** leihokoa.
Baltzeo: valseoa, dantza lotua.

04. **Bentia:** benta, salmenta, saltzeko kasuan
lukeen balioa.
Ezer badauko: zerbait baldin badauka.
Donau: donadua, mutilzaharra. Gaur
Iparraldean bizi den hitz hau bizkaieran
ere bazegoen, beraz, lehenago.
Sobraue: sobratua, sobera gelditua.

05. **Atxurre soloan:** haitzurra soroan, alo-
rrean.
Leukek: likek.

06. **Birrotxia:** gaztelaniazko *birrocha*, hitz
despektiboa.
Tejamanapian: tejabana azpian.
Tejabana: teilatu hutseko lehorpea, sarri-
tan etxeari itsatsia.
Baleio: baliezaio.

07. **Izerratu:** izarratu, gaueko oskarbia, iza-
rrak baizik ikusten ez dena.
Kalma-kalma: bare-bare.
Idergi: ilargi.

08. **Patana:** batana, menda, belar usaintsu
bat.
Kana: luzera neurria, metroa baino la-
burtxoagoa.
Be: ere.
Urrutu jatana: urratu, apurtu zaidana.

09. **Daure:** dabe, dute.
Leixibe: lixiba, lisiba, arropak garbitze-
ko likido alkalinoa.

10. **Hankokaz:** hanka horiekin.
Zeuk bere: zeuk ere.

11. **Korta:** ikuilu, tegi.

12. **Aienak:** aieneak, min oihuak.
Dok: duk.
Barik: gabe.

13. **Dime:** Dima, Bizkaiko herri bat.
Konbidetan: gonbidatzen, gonbidatzera.

14. **Morokile:** morokila, dungulua, arta-
zukua, arto hirinez egindako ahia.

15. **Pekorotz:** bekorotz, behien gorotza.
Batzean: batzen, biltzen.

16. **Litekez:** lirateke.

JULIENA ARRIJANDIKO

(Jon Aurrek Jorge Bilbaori Muxikan jasoak, Bizkargipeko Kurtzia baserriko Gregorio Arribaltzagak kantatzen omen zituenak. *Arrijandi* inguru horretako antzinako baserri bat zela dirudi).

01 Juliena Arrijandiko, morena
eitten deu altzora negarra
Gergorijjo Kurtziako, morena
behar deuela senarra.

03 Gelditzen bazara be, morena
Gergorijjo bagarik
han daukazu Juliantxu, morena
begijjek zabalik.

02 Eta ez eixu ein Juliena, morena
altzora negarrik
etzarala geldituko, morena
Gergorijjo bagarik.



01. **Altzo:** magal.
Eitten deu: egiten du.

02. **Bagarik:** barik, gaberik, gabe.

03. **Be:** bere, ere.

LI LO LO

(Jon Aurrek Ereñoko Gaztanbeko baserrian kantatzen zen eran Ana Zubiagari jaso).

01 Li lo lo loluetan
Erramon boluen
Erramonen alaba
Liona trokue.

Ooo...Ooo...

02 Li lo lo loluetan
luaren gozue
luek engainetan deu
gure umetxue.

03 Tiriki tauki tauki
mailuaren hotsa
noz ezkonduko ete da
gure neska motza.

04 Tiriki tauki tauki
lapiko tapie
txokolatez beteta
baneuko tripie.

05 Txotxotxu, zer dinozu
itturrijegaittik?
Batzuek dinuenez
ez dagola urik.

06 Urik ez badago be
nire eritxijen
etzara geldittuko
ur barik herrijen.



01. **Boluen:** boloan, boloetan.
Bolo: bataio ondoren, elizatik irteeran, haurrei botatzen zaien dirua, baita gozokiak ere.
Trokue: trokoa, mardoa, potoloa.
02. **Luek:** loak.
Engainetan: engainatzen, enganatzen.
03. **Ete:** ote.
Motza: bizkaieraz, zenbait lekutan, itsusia, zatarra. Beste leku batzutan, hemen bezala, afektuzkoa da, neska koxkorra esatea bezalatsu.

04. **Lapiko tapie:** eltzearen tapa, estalkia.
Tripie: tripa, sabela.
05. **Txotxotxu:** txotxo-ren diminitiboa.
Txotxo: haurtxo txikia.
Itturrijegaittik: iturriagatik.
Dinuenez: diotenez, esaten duten lez.
06. **Eritxijen:** iritzian.
Barik: gabe.

BATA DA MAINTON

(Jon Aurrek Zeberion jasoak).

01 Bata da Mainton eta
bestea da Lulu
hagaitio etorten da
Zifriano belu.

02 Maintonek gure ez baleu
Zifriano joatea
Zifrianok badaki
etxera bidea.

03 Txakur gosearentzat
ez da okela latzik
gosea eukiten deu te
jan eiten deu pozik.



01. **Hagaitio:** hargatik.
Belu: berant, berandu.
02. **Gure ez baleu:** gura, nahi ez balu.
03. **Okela:** jaten den haragia.
Eukiten deu: edukitzen du.

LAPURRE ELITE

(Bilboko **Irale taldeak**, Jon Aurre eta Kolesti Agirresaroberen gidapean, Lezamako Andres Lejarragari jasoak).

- 01
..... batera
faltsoa bota bihar dou
euren artera
askon kaltera
berandu ixen arren
inon atera.
- 02 Lapurre elite kantseu
ez loguretu
inon gauzia franku
ahal badeu hartu
hori zigertu
hagaitik inpernuan
behako deu sartu.
- 03 Han ez deu balioko
gaiztakeriak
ezpabeze bakarrik
egi garbiak
ordu larriak
han damutuko jakoz
gaiztakeriak.
- 04 Konfesetara joan
joan sarriten
hilian behin ez bada
biterik baten
endemas eurten
Jaungoikuan legetik
ez deigun urten.
- 05 Murmurazinoa balitz
errezetia
orduente bai ona
oingo jentia
balientia
baina bestera dauko
borondatia.
- 06 Hordieren samia
beti sikurik
zagie ez badeuko
piku pikurik.
horrelakorik
zolimena balitz be
ez nahi nik urik.
- 07 Hordie beti dago
zer egin adi
martitzenian bada
berandu jagi
zer egin adi
egueztenian bere
lanera nagi.



01. **Ixen:** izan.
Inon: inoren, besteren.
02. **Elite kantseu:** ez liteke kantsatu, nekatu.
Loguretu: logaletu.
Badeu: badu.
Zigertu: ziertu, ziur, segur.
Hagaitik: hargatik.
Behako deu: beharko du.
03. **Ezpabeze:** ezpadaze, aitzitik, baizik.
Jakoz: zaizkio.
04. **Konfesetara:** konfesatzera.
Sarriten: sarritan, maiz, anitzetan.
Biterik: bitatik.
Endemas: gainera, batez ere.
Ez deigun urten: ez gaitezen irten, ez gaiten jalgi.
05. **Murmurazinoa:** maiseoa, gaizki errana, marmarra.
Errezetia: errezatzea, otoitz egitea.
Oingo: oraingo, egungo.
Dauko: dauka.
06. **Hordieren:** hordiaren, mozkorraren.
Samia: zintzurra, eztarria.
Sikurik: lehorrik, idorrik.
Zagie: zahagia.
Piku pikurik: tente, zutik. Beterik, beraz.
Solimena: sublimatu korrosibo bat.
Be: bere, ere.
07. **Adi:** begira, zain.
Martitzen: Martitz gerra-jainkoaren eguna, asteartea.
Jagi: jaiki, jeiki.
Eguezten: eguazten, asteazken.
Bere: ere.

Neurriगतik eta estilo osoगतik hain deigarri den bertso sorta honek luzeagoa izateko itxura guztia dauka. Lehen bertsoak falta duen zatiaz gainera, ahapaldi osoak ere bat baino gehiago falta diren errezeloa daukat hemen. Lapurreria, gaizki esatea eta mozkorreria aipatzen dituen sorta honek zerrenda luzeagoa kantatu behar zuen nahitaez orijinalen. Orain dozena bat urte, bertso hauek jasotzean, laurogei urte zeuzkan Andres Lejarragak bertso hauek Urdulizko bertsolari batenak-edo zirela esaten omen zuen. Bertzio osoa -segurrenik bertso paper bat- aurkitzea eskertzekoa litzateke. Baita bertzio zuzena ere, ematen dugun honen hirugarren eta zazpigarren ahapaldiko errepiketik *-gaiztakeriak* eta *zer egin adi-* lekukoaren akatsak baitirudite.

MIRU ZURIA

(Jon Enbeita bertsolariak eskuraturiko sortatik).

- | | |
|--|---|
| <p>01 Aramotzetik Aramendira
tximista baten antzean
miru zuria hegazka doa
oilandatxoan atzean.</p> | <p>03 Andra gordinak entzuten baittu
haren txiuak etxean
kurra ta kurra solora doa
oilandatxoan atzean.</p> |
| <p>02 Miru zuriak erpeak zorrotz
pikua dauka makurra
errotan legez huruntzen ditu
oilandatoxen hazurrak.</p> | |



01. **Aramotz, Aramendi:** Zornotza eta Arratia arteko mendikatearen gailur batzuk.
Hegazka: hegaz, hegan.
02. **Pikua:** mokoa.
Legez: lez, bezala.
Hurundu: hirindu.
03. **Baittu:** baditu, baldin baditu.
Kurra: oiloei deitzeko hotsa.
Solo: soro, alor.

SEÑORA IÑUZENTZIA

(Aurreko Idem).

- | | |
|--|---|
| <p>01 Ai Señora Iñuzentzia
Maltzagatik haruntz Plazentzia
intxaurra nuez
Eibarren Martzelo juez
nahi dauenak sinistu
nahi ez dauenak ez.</p> | <p>03 Por las mañanas
aurpegia garbitu urakin
al mediodía
ogi zati bat txorixoakin
y por las tardes
kanpora goaz umeakin
y por las noches
errietan alkarrekin.</p> |
| <p>02 Muy buenas tardes
arratsaldeon nahi dauenari
aquí os presento
famili on baten gurari.
ésta es mi esposa
ixilik egon zaite, kokola
ésta es mi Señora
izena dau Isidora.</p> | <p>04 El día treinta
panaderua pasa la cuenta
le contestamos
inundik ez dago errenta
a la lechera
joan zaite hemendik etxera
y al carbonero
boltsiloan agujero.</p> |



02. **Gurari:** nahikari, desio.
Kokola: *kokolo*-ren femeninoa. Inozoa, malezi gabea.
Dau: du, dauka.
03. **Errietan:** liskarrean, haserre, gaizki esaka.

ETA IA IA IA

(Aurreko Idem)

Eta ia ia ia
atso zaharraren fantasia
sartzen badunat ilintia
erreko dunat ipurdia.

Atso zaharra binbolin
hire onak egin din
hortzak ere joan zaizkin
deabrua dirudin..



Badunat: badinat.
Ilinti: egur zati erdi errea.

SAN JUAN GAUBIAN

(Aurreko Idem).

Nik ikusi nituen
San Juan gaubian
Txomin eta Bartolo
tabernako atian.
Ormia zalakoan
batak bestiari
txisa eiten eutsen zar-zar
praketan alkarri.



Gaubian: gauean.
Ormia: orma, paret.
Eutsen: zioten.
Praketan: galtzetan.

OHARRAK LEHEN LIBURUARI

Izengabeen gehigarri hau probetxatu nahi nuke, lehen liburuari buruzko ohar batzuk emateko.

– Han *Jon Aurre sorta* izenez datorren kolaborazio garrantzitsua Bilboko IRALEko ikasle-irakasleen arteko elkarlan baten emaitza da, hainbat ikasturtetan zehar bizkaiera lantzeko antolatua. Irakasleetan, batez ere *Kolesti Agirresarobe* eta *Jon Aurre* izan ziren gidari.

– Jon Enbeita bertsolariak ohar bi helarazi dizkit, esanez: “Lehenengo liburuan, 482. orrialdean datozen GURE IRAKASLE SABINEN GOMUTAZ izeneko bertsoak Manuel Enbeita, Urretxindorraren anaiarenak dira. 495. orrialdean SASIAK SORTZEN DIREZ titulupean datozenak Urretxindorrarenak dira. Benetako titulua MUXIKAKO TXORIA da. Gure Urretxindorra liburuan 36. orrialdean datoz eta zazpi bertso dira”.

– Azkenik, 425. orrialdetik aurrera datorren BERTSO BIZKAITARRAK izeneko sorta noizkoa den jaten deskuidatu nintzen eta ernegua eman zidan, kasu honetan, hain antzinakoa izanik, xehetasun garrantzitsua baita. Sorta hura 1688. urtekoa da eta ezin interesgarriagoa, bai hizkuntz, bai histori eta bai estilo aldetik.

HIZTEGIA

Zerrenda honetan agertzen diren berba orokorretan ez ditut noski bakoitzaren azeptzio guztiak ematen, bizkaieran ezberdin direnak baizik. Horrela, esaterako, *lotu* aditzaren azeptzio ezagunak ez ditut izendatzen, Bizkaiko zenbait eskualdetako esanahi lokala baizik: *gelditu*, *geratu*.

A

Abade: apez, apaiz.

Abazuza: txingor, kazkabar, harri, inetazi.

Adi: begira, beha, so.

Adierazo: adierazi, jakinarazi.

Aditu, aitu: begiratu, behatu, so egon. / Ulertu, konprenitu.

Adur: ahotik erioten den ttua, listua. Inguru batzutan adurra gozoa, kutuna da, haurrena adibidez. Handienari edo higuina ematen duenari *lerdena* deritzo.

Agiraka: haserre, errita, akar, larderia.

Ahal: desira edo itxaropena adierazten duen partikula. *Sendatuko ahal naiz:* ainendi senda, hobe sendatuko banintz.

Aharrausi, arrausi, arrausin: logurak edo goseak eragiten duen aho-zabaltzea.

Ahuspaz: ahozpez, ahoz behera.

Aiko: hona, horra, hara. *Aiko hemen, aiko hor, aiko han:* hona hemen, horra hor, hara han.

Aitita: aitajaun, aitatxi, aitaxe, aitona.

Aitaxe: aitita.

Akabu: amai, azken, bukaera.

Aldats, aldatz: aldapa, malda. *Aldasgora, aldasbehera:* gorako malda, beherako malda.

Aldendu: urrundu, desagertu.

Aldra: talde, mordo, saldo.

Aloger: alokairu, soldata.

Altzo: magal

Amama: amandre, amaxe, amatxi, amona.

Amatatu: iraungi, itzungi, itzali.

Amaxe: amama, amona, amatxi, amandre.

Amore: amodio, maitasun.

Anae, anaje: anai, anaia.

Anda: hilkutxa, zerraldo. / Gaisoak eramateko ohetxo.

Andan eroan: zerbait bi edo gehiagoren artean bizkarrera jaso gabe eraman.

Andari: anda edo hilkutxa eramalea.

Anega: pisu neurria, berrogeita hamar kilo.

Antxina, antzina: aspaldi, duela anitz denbora.

Apalazio: Erregenetakoa, Errege egun inguruko kantuetan agertzen den hitza. Latinezko *apparitio*-tik, agerpena esan nahi duena.

Apatx: animalien hatzazala.

Arat, aratean, aratinik ahoz gora, *ahozpez*-en alderantzia.

Aratoste: haragi uzte, ihauteri.

Ardi: kukuso, arkakuso.
Arean: apur bat, pixkat. *Arean bez, arean bere ez:* deus ez, bat ere ez.
Arerio: izterbegi, etsai.
Arin: azkar, fite, agudo.
Arineketan: lasterka, antxintxika, korrika.
Arrabio: amorru, sumin.
Arran: arren, joare, zintzarri.
Arrasti, arrastiri: arratsalde.
Arren: otoi, mesedez.
Artasi: guraize.
Artez: zuzen.
Artxo: bildots, arkume.
Asabak: antzinako gurasoak, aspaldiko burrasoak.
Aspertu: ase, asetu, nahikotu.
Astiro: geldiro, poliki, emeki, baratxe, mantxo.
Atarte, etarte: ataria, batez ere baserri batzuk ataurrean daukaten gune estali gabea.
Atoian: tiraka, beste zerbaiti loturik, rulota eraman ohi denez.
Atondu: konpondu, moldatu, eratu.
Atxaki: aitzaki.
Aube: amaginarreba, andrearen edo senarraren ama.
Aurretiaz: aurrez, alde zurretik, aintzinetik.
Azartu: ausartu.

B

Baga: bage, barik, gabe.
Bagakoa: bagekoa, gabekoa.
Baia: baina.
Baino ez: baizik ez, besterik ez.
Baizen: baino. / Bezain.
Bakoa: bagekoa, gabekoa.
Baltz: beltz.
Baltzio: dantza lotua. *Vals* edo *valseo*-tik.
Baltzitu: baltz bihurtu, beztu.
Banakak: bakanak, gutxi-gutxiak.

Banan, banango: banaka, banakako.
Bape: bat be, bat ere.
Bapere: bat bere, bat ere.
Baratz: mantso, bare, astiro.
Barberu: sendagile, praktikante antzekoa.
Barik: bagarik, bage, gabe.
Barraban: barrabas, bihurri, gaizto.
Barre: irri, parra.
Barren: gauza baten beheko aldea.
Barrena: gutxienez.
Be, bere: ere.
Bedar: belar.
Behar: lan.
Behatz, bihetz: zango edo hankako hatza. Eskukoa *hatza* edo *hatzamarra*.
Behingoan: berehala, atonan.
Beilegi, belegi: hori, laru.
Bekoki: kopet, beko.
Belu: berandu, berant.
Berakatz: baratzxuri, baratzuri.
Berariz, berarizko: apropos, bereziki, aproposko.
Berba: hitz, ele.
Berebiziko: berarizko, aparta, zerbaiterako oso egokia.
Beresi, berezi: txaraka, basobera, berezko zuhaitz eta sastrakaz jantzitako baso trinkoa.
Beste, besteko: aina, ainako, bezanbat, bezanbateko.
Bez: be ez, ere ez.
Bider, bidar: aldiz. *Mila bider:* mila aldiz.
Birrindu: xehetu, zehatu, txiki-txiki egin. *Ogi birrina:* ogi papurra.
Birritan: bitan, bi bider, bi aldiz.
Bits: apar.

D

Deunge: gaizto, zantar.
Dingiliz: dingilizka, dilindan, zintzilik.
Domun Santu: domu santu, domuru santuru, omia saindu, santu guztien eguna.

Done: jaun. / Santu.
Donge: deunge, gaizto.
Dontsu: dohatsu, santu.
Duban, dubarik, dubako: dohain, dohainik, dohaineko, debaldeko.
Dukat, duket: antzinako txanpon bat, balio aldakorra, baina beti ere handia zeukana.
Dulabre: indartsu, ekinkor.

E

Ebagi: ebaki.
Ebali: erabili.
Ebatu, obatu, oratu: heldu, atxiki.
Edegi, idigi, edei: ireki, zabaldu.
Eden, edendu: pozoin, pozondu.
Ederto: ederkiki.
Eguno, egundo: egundaino, inoiz, sekula.
Eho, eiho: ehuna egin. / Aleak hirindu.
Ehule: ehungile, ehuna egiten edo ehoten duena.
Ehun: edozein motatako hari edo zuntzak elkar gurutzatuz egiten den materiala, oiha.
Ei: omen.
Ekandu: ohitura, aztura. / Ohitu.
Ekatx: ekaitz, denborale.
Elaztun, eroztun: eraztun.
Elexa, eleiza: eliza.
Eli: saldo, talde, samalda, multzo handia.
Enda: eta. / Arraza, leinua.
Enparadu, enparau: gainerako, gainontzeko, beste guztiak.
Entzuna: ospetsua, famatua.
Entzute: ospe, fama.
Era: aukera, egokiera. *Erara:* aukeran, modu egokian, alde.
Erabagi: erabaki.
Eragin: egin erazi. / Arazi, arazo. *Jan eragin:* janarazi.
Eraitsi, eratsi: jaitsi erazi, lurreratu, behe-
 ra ekarri.

Eraso: erasan, esan erazi, norbaitek ezkutu-
 an daukana atera. / *Meza eraso:* bereter
 lana egin mezan, mezan apaizari lagundu.
Erdu: zatoz, etor zaitez.
Eritxi: iritzi.
Ernegu, ernegatu: haserre, haserretu,
 amorru, amorratu.
Eroan, eruan, erun, eron: eraman.
Erpe: animalien hatzazal kurbatua.
Erralde: pisu neurria, bost kilokoa.
Erramu: erromeru. / Aste santuan sartzen
 den igandea.
Erratu: huts egin, oker egin, tronpatu.
Errime: iaioa, zerbaiterako jite edo joera
 handia daukana.
Erroi: bele.
Esamesa: elemele, erran-merran.
Esetsi: eraso, ekin.
Eskape, eskepe: aterpe, lehorpe.
Eskatz, eskaratz: sukalde, sute.
Eskegi, esegi, esei: eseki, dilindatu, zintzi-
 likatu.
Eskeko: eskale, eskean dabilena.
Eskerga, eskarge: izugarri handia.
Eskuma: eskuin, eskubi.
Ete: ote.
Etxagun: etxejaun, etxejabe. *Etxaguntza:*
 norberea den etxaldea.
Etxe-kalte: etxearentzat edo etxe koentzat
 txarra den pertsona, etxe hondatzailea.
Etzun, etxun: etzan
Eutsi: tori, har ezazu.
Eutsiz: har itzazu.
Ezain, ezaindu: itxurga, itxurgatu, deforme,
 deformatu.
Ezelan: nehola, inola.
Ezpa: baizik, bestela.
Ezpabe, ezpabere: baizik, bestela.
Ezpada: bestela. / Baizik, baino.
Ezpadaze: baizik.
Ezpan: ezpain.
Eztegu: eztei.

F

Frakak, prakak: galtzak.

G

Galazo, galerazo: debekatu.

Galtzu: gariaren lastoa.

Gan, ganean, ganera: gain, ganean, gaine-
ra.

Gangar: gangor, galdor, kukulin. / Harroxxka,
nabarmena, buruarina.

Garau, garaun: ale, bihi. / Burmuin.

Garbai: damu.

Garbatu: damutu.

Gatx: gaitz, kalte. / Gaitz, zail.

Gedar: dei, deihadar, oihu.

Geli: behikia, okela.

Geriza, gerizpe, kerizpe: itzal, itzalpe.

Gitxi: gutxi, gutti.

Gogait: asper, aspertasun.

Gogaitu, gogait egin: aspertu.

Goien: zerbaiten goiko aldea. *Mendiaren barren-goienak:* mendiaren beheko eta goiko aldeak.

Goitu: goia hartu, garaitu, menperatu.

Gomuta: gogorapen, oroitzapen.

Gomutatu: gogoratu, oroitu.

Gorpu: gorputz hila, hilotza.

Goru: iruteko edo haria egiteko tresna.

Gozatsu: samurra, ahogozo onekoa.

Gura: nahi.

H

Ha, hak: hura, hark.

Habia: kafia, kabi.

Hage: etxe batean jatorriz edo herentziaz datorren izaera. Esaterako, umeek gurasoen biziorren bat, edo zorte txarren bat dakartean, esan ohi da: *etxe horrek hagea dauka.*

Haginka, haginkada, haginkatu: horzka, horzkada, horzkatu, kosk egin.

Halan, halantxe, halango: hala, halaxe, halako.

Halanik: halan, hala.

Harik: handik.

Hats: kirats. *Usaina ona dok, hatsa dok txarra.*

Hatsitu: kirastu.

Hatx: haitz.

Hatxur: haitzur.

Hautu: hautatu, aukeratu. / Solas, berriker-
ta, ele gaia.

Hegal: bazter, ertz.

Hegaz: hegan, airean.

Hileta: kexu solasa, beti txarra kontatzen ari denarena.

Hileta jo: koita jo, alde txarrak edo penaz-
koak kontatu.

Hoba: hobe.

Hogerleko: hogeirealeko, bost pezetako, duroa.

Holan, holantxe, holango: honela, hone-
laxe, honelako. Baita horrela, horrelaxe, ho-
rrelako.

Hordi: mozkor, mozkorti.

Hotzitu: hoztu.

Hun: muin, zerbaiten barneko gaia, hezurre-
na adibidez.

Hur, hurreko: hurbil, hurbileko.

Huri: hiri.

Hurrean: hur, hurbil. / Hain baten, nonbait,
dirudienez.

Hurrik emon: antzik eman, zerbaitera in-
guratu.

Hurun, hurundu: hirin, hirindu.

Hutsitu: hustu.

I

Idigi: ireki, zabaldu.

Idoro: ediren, aurkitu, kausitu.

Idun: sama, lepo.

Iju: irrintzi, zantzo.

Iko: piku, biku.

Imina: ale neurria, anega laurden.

Imini, ifini: ipini, ezarri, jarri.

Inausi, inosi, inusi: zuhaitzari adarrak
moztu.

Indazu: emaidazu.

Inetazi: txingor, kazkabar, abazuza, harri.

Inude, inunde, unide: beste baten haurra
hazten edo bularra ematen dion emakumea.

Ira, iratze: garo.

Irago: igaro, iragan.

Iraitzi, irai: jaurti, egotzi, indarrez bota.

Iraungi, itzungi: itzali, amaturu.

Iruntz, inontz: ihintz.

Iretargi, irargi, itargi, idergi: ilargi.

Irritu: larritu, artega jarri. / Ernegatu, ar-
mindu, haserretu.

Itaun, itaundu: galde, galdera, galdetu.

Itxi: utzi, laga.

Itzal, itzel: oso handia, oso ona.

Itzartu: ernatu, esnatu.

Itzuli: irauli.

Izara: maindire, mihise.

Izeko: izeba.

Izilu, zizeilu: eserleku luzea, mahaitzat ere
moldatzekoa.

Izio, iziotu, ixotu: piztu, izeki.

J

Jagi: jaiki.

Jagon, jabon: zaindu, begiratu.

Jantza: dantza. Bizkaierarik gehienean ez da
dantza esaten, *yantza*, *jantza* edo *jjantza* bai-
zik.

Jaramon, jamon: arreta, kontu, kasu.

Jaramon egin: kasu egin.

Jaretxi, jaritxi: erdietsi, lortu, eskuratu.

Jarki: aurre egin, kontra egin.

Jaurti: jaurtiki, aurtiki, bota.

Jausi: erori.

Jazo: gertatu.

Jezarri, jazarri: eseri.

Juzgu, juzku: eritzi, uste.

K

Kadera: hanka, zango.

Kana: luzera neurria, metroa baino zerbait
gutxiago.

Kanpo-eder: etxean ohi duen baino itxura
hobe kanporatzen saiatzen dena, kanpoan
ondo portatzen edo atsegina izaten saiatzen
dena.

Karabi, karobi: karea edo kisua egiteko ho-
bia edo zuloa.

Karu: kario, garesti.

Katigatu, katiatu: lotu, estekatu, gatibu egin.

Kerexa, kerixa: gerezi.

Kirikino, kirikio, kirikolat: triku, sagra-
rroi.

Koinata, koineta: *koinatu*-ren femeninoa.

Koitadu, koitedu, koitau: gaizoa, gizajoa,
errukarria.

Koiu, koxu, kohidu: harrapatu, hatzeman.

Koko: zomorro, intsektu.

Kokot: lepo edo samaren atzekaldea, garon-
do azpia.

Kopla: aitzaki, kexu, muzinkeria, zurikeria.

Koltza: ganbara antzeko gunea baserrietan.

Kopeta: buruko ilez egiten den txorta luzea.

Korta: ikuilu, tegi.

Koxo: herren.

Kristinai: giristino, kristau.

Kurtze, krutze, kurutze: gurutze.

L

Laban: irristakor, lerrakor, labain.

Lain: aina, beste.

Landa: zelai, pentze, belaze.

Lango: lako, bezalako.

Lantzean: noizean, tarteka. *Lantzean bat:*
noizean bat, aldian bat.

Lantzean-lantzean: noizik noizera, noizean
behin.

Lapiko: eltze.

Laprast egin: laban, irrist egin, lerratu.

Lar, larregi: gehiegi.

Lata: teila azpian sartzen den ohola.

Lau: zelai, ordeka.

Legez: lez, bezala.

Lei, leitu: izotz, horma, jel, izoztu, hormatu, jeldu.

Leisiba, lixiba: lisiba, garbi-ikuzirako likido alkalinoa. *Lisiba jo:* likido horretan edukitako arropa harri gainean jo. Oro har, garbiketako osoa.

Lelo: ergel, tentel, inozo. / Behin eta berriz errepikatzen den zerbait.

Lepo: bizkaierarik gehienez bizkarra. Gorputzaren eta buruaren artekoari *sama* deritzena.

Letxe, legetxe: bezalaxe.

Lez: legez, moduan, bezala.

Linetazi: txingor, kazkabar, harri.

Loka: koloka, ondo lotuta ez dagoena. / *Oilo loka:* oilo kolka. *Lokatu:* kolkatu.

Lor: zama, gauza neketsua, atsekabea.

Lorrin: euriak ereiteko lurtean jartzen duen azaro likina, lehortu arte itxoin beharrekoa. / Lardaska, gauza taxu gabe eta nahasian egina.

Lotu: gelditu, geratu.

Lupetz: basa, lokatz, lohi.

Lupu: azaleko kiste bat. / Zomorro bat. / Gaiztoa, zitala.

M

Madari: udare, txermen.

Mailatu, mailetu: kolpeen ondorioz sakongune edo bihurtuneak egin. / Kolpeen ondorioa bera.

Mailuki, mailubi: marrubi.

Makatz: madari txertatu gabea. / Zerbait basa, landu gabea, berez datorren modukoa.

Malmutz: maltzur, azpikari.

Mankatu: kolpearen ondorioz zauritu.

Marai, mari: lehengo espainiar txanpon bat, marabedia.

Mardo: mardula eta sendoa, betea.

Marro: zerbaiten barruko hutsunea, hari-tzarena adibidez, barrutik huts dagoena. *Marro egin:* zapuztu, engainatu.

Martitz: Erromatarren gerrako jainkoa. Hortik *martitzena*, asteartea.

Matrail: masail, masela.

Matxango: tximu, tximino.

Merkatari: erosle.

Miesa: mihise, lihoz edo kalamuz eginiko ehuna.

Min: mihi, mingain.

Mizke: edozer jaten ez duena, beti zerbait berriaren bila dabilena.

Morokil: arto hirinez egindako ahia, artazukua, dungulua.

Mosu: mutur. Oro har, aurpegia. / Laztan, musu.

Muna: soro eta landa ertzeko lur zatia, belarrez estalia. / Aldasbeheran dauden soroei egiten zaien jasounetxea.

Mustur: mutur.

Mutildu, muskildu: moztu, bipildu, lumatu, dena kendu.

N

Nabar: kolore bat baino gehiago daukana.

Nar: lur joana, lurjausia, lubizia. *Nar egin:* lurra irristatu, joan.

Nasai: laxo, jarein.

Neba: senideen artean neskaentzat mutila, arrebaren alderantzizkoa.

Nekezale, nekazale: nekazari, baserritar.

O

Odoleste, odoloste: odolki, odol egosia eta zenbait osagarri estean sarturik egiten dena.

Oinaztu: tximista, justuri, iortziri.

Okan, okaran: aran.

Okela: jaten den haragia. *Haragia:* gorputz

bizian dagoena.

Ola: burdinola, burdina lantzeko lantegia.

Oles: agurra, batez ere atera heltzean egiten dena.

Olgadu: jolastu, jostatu, dibertitu.

Olgetan: jolasean, jostetan. / Txantxetan, benetaren alderantzia.

Ondamu: bekaitz, inbidia.

Ondino, oindino: oraino, oraindik.

Ondorik: atzetik, segika.

Oneretxi: maite izan. / Maitasuna.

Opa, opatu: nahi izan, desiratu. / Eskaini.

Oraindo, oindo: oraindio, oraindik, oraino.

Oraintsu, ointsu: berriki, duela denbora gutxi.

Oratu: heldu, atxiki.

Orio: olio.

Orri: hosto.

Ortozik: oin hutsik.

Ortu: baratz.

Ortuari: barazki.

Osatu: sendatu, gaisotasuna kendu.

Oste: atzean, zerbaitz handik dagoen gunea. / Ondorioa, atzea. Mozkorrak *oste txarra* uzten du. / Ondo, ondoren. *Jan ostean:* jan ondoan, ondoren.

Ostean, ostantzean: bestela, bertzenaz.

Ostendu: ostean gorde, izkutatu.

Ostera: berriz, berriro. / Joanetorria, itzulia.

Ostu: ebatsi, lapurtu. / Ostendu, izkutatu, gorde.

Otsain, otsein: zerbitzari, morroi nahiz nekame.

P

Paratu, parau: jarri, kokatu. *Parau hor:* jarri hor.

Pasadizo: gorabehera, gertakaria, pasatzen edo gertatzen den zerbait.

Patari: animalia, pizti.

Pentzutan, pentzudan, pentzuan, pentzu-

ra: gorabehera, mendean, arabera. *Inoren pentzura egon beharra tristea dok:* besteren gorabehera egon beharra tristea duk.

Pernil: xingar, urdaiazpi, urdaiazpiko.

Polito: poliki.

Postura: apustu, joko, trabes.

Pozarren: poz pozik, arrunt pozik.

Premina: premia, beharrian.

Proba: dema, abereekin egin ohi den harri arrastea *Gizon-proba:* gizonetzkoek egiten dutena.

Probalari: kirol horretan diharduena.

S

Sabai: mandio, lastategi.

Sama: lepo, idun.

Sats: simaur, abereen azpi hartzitua, ongarriztat erabiltzen dena.

Satsa lez: ugari, erruz. *Dirua satsa lez eduki:* diru asko eduki.

Sein: haur.

Seintxo: haurtxo.

Senide: ahaide, familiarreko.

Siku: lehor, idor.

Solo: soro, lantzen den lur zatia, alorra, belardia ez dena.

Sorotsi: begiratu, zelatatu, zaindu.

Sunde: kutsu, keru, usain.

Sur: sudur.

Sustar, suster, zuztar: sustrai, erro. / Gadora, zentzun, pulamentu.

Sute, suete: sukalde.

T

Tangada: tanta, istil.

Tarras, tatarrez: herrestan, arrastaka.

Tertzio: tenore, ordu, sasoi.

Topatu: aurkitu, kausitu.

Trabes: joko, apustu.

Troxak: haur txikia biltzeko oihalak.
Txairo: dotore, txukun, airoso.
Txapligu: suziri, etxafero.
Txarto: gaizki.
Txatal: zati txikia, batez ere ehun, paper eta holakoena.
Txerren: deabru, demonio.
Txikar, txiker, txikin: txiki, tipi.
Txilio: oihu edo garraisi zorrotza eta larria.
Txindor: txantxangorri, papargorri. / Txinor, betxindor, begian irteten den bekatxoa.
Txingor: abazuzi, kazkabar, harri.
Txito: txit, oso, arrunt, biziki.
Txolet: edontzi bat, gehienez metalezkoa.
Txotxo: seintxoa, haurtxo txikia. / Mutikoari eta oro har edozein gizonezkori aplikatzen zaion hitz kolokiala.
Txurruplin, txurrunplet, txunpletin: zurrua, batez ere edari alkoholikoena.

U

Udaguena, udagoien: udazken, larrazken.
Ugar, uger: uhar, herdoi, herdoil. / Igeri.
Ugarazio, ugelazio, ugazio: igel.
Ugatz: bularra, titia.
Ugazaba, uzaba: nagusi, patroia.
Ukatu: lurjo, pot edo porrot egin, gehiago ezinean gelditu.
Ule: ile.
Untze, ultze: iltze.
Upa: upel, kupel.
Urin: ur, jus, zuku.
Uriola: uhol, uholde.
Urlia: izenik zehaztu gabe aipatzeko era.
Urliak esan du: halakok esan du. *Urliak hau, berendiak hori, sandiak hura:* honakok hau, horrelakok hori, halakok hura.

Urrin: urrun, urruti.
Urten: irten, jalgi, atera.
Usegi, usiki: ausiki, kosk, horzka egin.
Uxatu: urrunarazi, izutu.

Z

Zaldar: azal azpiko zelulak zoltzean sortzen den bikorra.
Zan: zain.
Zapa: ile, hari eta gisakoen multzo handia eta eragabea. / Behiei eta idiei, uztarri he-deek minik ez egiteko, bekokian jartzen zaien babeskia.
Zarratu: hertsu, itxi. / Trinkoa.
Ze: zeren, zerren.
Zegan: zer preziotan. *Zegan daukazuz intxaurreak:* zer preziotan daukazu intxaurreak.
Zemai: mehatxu.
Zikotz: zikoitz, zeken, esku-eutsia, gordeza-lea.
Zindo: zuhaitz eta fruetuetan ustelik edo harririk gabea. / Pertsonetan zintzoa, amarrurik gabea.
Ziogi: urri, faltan.
Zirkin: mugimendu edo higadura oso txikia.
Zisku: poltsa, zorrotxoa, batez ere dirua erabiltzekoa.
Zoli: erne, argi, bizkor.
Zuhur: argi, bizkor, oharkabea ezer pasatzen ez zaiona.
Zurtu, surtu: txunditu, harritu. *Zur eta lur:* erabat txunditurik.
Zutundu: zutitu, tentetu.
Zutunik: zutik, tente.

ASTEAREN EGUNAK

Astelehen.
Martitzen: astearte.
Eguazten: asteazken.
Eguen: ostegun.
Bari(a)ku, egu(b)akoitz: ostiral, ortzirale.
Zapatu: larunbat.
Domeka: igande.

URTEAREN HILAK

Urtarril, urteil, ilbaltz.
Zezeil: otsail.
Marti, epail: martxo.
Jorrail, apiril.
Maiatz, lorail.
Bagil: ekain.
Garagarri: uztail.
Dagenil, abuztu.
Irail.
Urri, urril.
Zemendi, azil: azaro
Abendu, gabonil, lotazil.

Hauetatik, *martia* eta *ilbaltza* gaur ere erabilera osoan dagoz, *zezeil*, *epail*, *bagil* eta *zemendi* adinekoen ahoan entzun daitezke eta besteak idatzietan aurkitzen dira.

ADITZ FORMA OHIZKOENAK

IZAN

Naz, haz, da, gara, zara, zare-zarie, dira.
Naiak: natzaik.
Naiatzu-e, natxatzu-e: natzaizu, natzaizue.
Naiako, naiake: natzaio, natzaie.
Jat, jak, jako, jaku, jatzu, jatzue, jake: zait, zaik, zaio, zaigu, zaiguz, zaizue, zaie.
Jataz, jazak, jakoz, jakuz, jatzuz, jatzuez, jakez: zaizkit, zaizkik, zaizkio, zaizkigu, zaizkizu, zaizkizue, zaizkie.
Nintzan, hintzan, zan, ginan-gintzan-gintzazan, zinan-zintzan-zintzazan, ziran.
Nintzaan, nintzakon, nintzatzun, nintzatzuen, nintzaken: nintzaian, nintzaion, nintzatzun, nintzatzuen, nintzaian. Nintzake-nintzateke.
Nintzakik, nintzakio, nintzakizu, nintzakizue, nintzakie: nintzaiake, nintzaioke, nintzai-

zuke, nintzaizueke, nintzaieke.

Litzake-litzateke. **Litzakit, litzakik, litzakio, litzakigu, litzakizu, litzakizue, litzakie:** Litzaidake, litzaiake, litzaioke, litzaignuke, litzazuke, litzazueke, litzaiieke. Litzakez-litzatekez.

Litzakidaz, litzakizak, litzakioz, litzakiguz, litzakizuz, litzakizuez, litzakiez: litzazkidake, litzazkiake, litzazkioke, litzazkiguke, litzazkizuke, litzazkieke.

Naiten, haiten, daiten, gaitezen, zaitezen, daitezen: nadin, hadin, dadin...

Zakidaz, zakiguz: zakizkit, zakizkigu.

EDUN

Dot, dok, dau, dogu, dozu, dozue, dabe-daue daude-deure-dabie-deurie: dut, duk...

Dodaz-ditut, dozak-dituk, dauz-ditu, doguz-ditugu, dozuz-dituzu, dozuez-dituzue: bietara herrien arabera.

Dabez-dauez-daudez-deurez-dabiez-deuriez: dituzte.

Dautsat, dautzut: diot, dizut.

Dautsadaz, dautzudaz: dizkiot, dizkizut.

Daust-deust-dost-dust, dautsa-deutso, dausku: dit, dio, digu.

Daustaz, dautsoz, dauskuz: dizkit, dizkio, dizkigu.

Dauste, dautse-dautsie, dauskue: didate, diote, digute.

Daustez, dautsez-dautsiez, dauskuez: dizkidate, dizkiote, dizkigute.

Neban-neuen, eban-zeban-zeuen, eben-zeben-euren: nuen, zuen, zuten.

Nebazan, ebazan, ebezan: nituen, zituen, zituzten.

Neutsan-neutson, neutzun: nion, nizun.

Neutsazan, neutzuzan: nizkion, nizkizun.

Eustan, eutsan-eutson, eutzun: zidan, zion, zizun.

Eustazan, eutsazan, eutzuzan: zizkidan, zizkion, zizkizun.

Neukez, heunkez, geunkez, zeunkez, zeunkiez, leukez, leukiez: nituzke, hituzke, genituzke, zenituzke, zenituzkete, lituzke, lituzkete.

Neuskik, neuskio, neuskizu, neuskizue, neuskie: nieke, nioke, nizuke, nizueke, nieke.

Leuskit, leuskik, leuskio, leuskigu, leuskizu, leuskizue, leuskie: lidake, liake, lioke, liguke, lizuke, lizueke, lieke.

Da(g)idan, da(g)ian, da(g)igun, da(g)izun, da(g)ien: dezadan, dezan, dezagun, dezazun, dezazuen, dezaten.

Daidazan, daizan, daiguzan: ditzadan, ditzan, ditzagun.

Daiala, daiela: dezala, dezatela.

Daizala, daiezala: ditzala, ditzatela.

E(g)idazu, e(g)iozu, e(g)guzu: iezadazu, iezaiozu, iezaguzu.

EKARRI

Dakardaz, daka(r)z, dakarguz, dakaruz, dakarrez-dakardez: dakartzat, dakartza, dakartzagu, dakartzazu, dakartzate.

Nenkarzan, ekarzan, genkarzan, zenkarzan: nekartzan, zekartzan, genekartzan, zenekartzan.

Ekazu: ekarzu.

Beka(r)z, daka(r)zala: bekartzan, dakartzala.

EROAN

Daroat, daroak, daroa, daroagu, daroazu, daroazue, daroe-darioie: daramat, daramak, darama...

Daroadaz, daroazak, daroaz, daroaguz, daroazuz, daroazuez, daroaz-darioiez: daramatzat, daramatzak, daramatza...

Neroan, eroian-eroian, eroen-eroien: neraman, zeraman, zeramaten.

Neroazan, eroazan, eroezan: neramatzan, zeramatzan, zeramatzaten.

Eroaizu, eroaidazu, eroaiozu: eramazu, eramaidazu, eramaiozu.

EDUKI

Dauka-dauko-deko, dauke-deke-dekoie-dekie: daukate.

Daukadaz, daukazak, daukaz, daukaguz, daukazuz, daukazuez, daukez: dauzkat, dauzkak, dauzka, dauzkagu, dauzkazu, dauzkazue, dauzkate.

Neukazan, heunkazan, eukazan, geunkazan, zeunkazan, eukezan: neuzkan, heuzkan, zeuzkan, geneuzkan, zeneuzkan, zeuzkaten.

JAKIN

Dakie: dakite.

Dakidaz, dakizak, dakiz, dakiguz, dakizuz, dakizuez, dakiez: dakizkit, dakizkik, dakizki, dakizkigu...

Ekien: zekien, zekiten.

Nenkizan, henkizan, ekizan, genkizan, zenkizan, zenkiezan, ekiezan: nenkizkien, henkizkien, zekizkien, genkizkien, zenkizkien, zenkizkiten, zekizkiten.

Banekiz, balekiz, begenkiz, bazenkiz, balekiez: banekizki, balekizki, bagenekizki, bazenekizki, balekizkite.

ESAN

Dinot, dinok, dino, dinogu, dinozu, dinoe-dinue: diot, diok, dio, diogu, diozu, diote.

Dinodaz, dinozak, dinoz...: esaten ditut, esaten ditut, esaten ditu...

Dinost, dinotso, dinosku, dinotzu, dinotse: esaten dit, esaten dio, digu, dizu, die.

Ninoen, inoen, inuen: nioen, zioen, zioten.

Dinostaz, dinoskuz, dinotzuz: esaten dizkit, dizkigu, dizkizu.

Ninoezan, inoezan, inuezan: esaten nituen, zituen, zituzten.

Dirautsat, dirautsut, dirautsuet, dirautset: esaten diot, dizut, dizuet, diet.

Dirautsadaz, dirautsudaz...: esaten dizkiot, dizkizut...

Bistan da bi aditz hauek, *esan*-en esanahaia eduki arren, ez datozela aditz horretatik. *Esan*-ek bazuen bere joko propioa. Liburu honetan hiru forma hauek agertzen dira: *besa*, *desadan*, *desagun*: esan beza, esan dezadan, esan dezagun.

ERETXI-ERTXI

Deritxat, deritxak, deritxo, derisku, deritxu, deritxue, deritxe: deritzait, deritzaik, deritzaio, deritzaigu, deritzaizu, deritzaizue, deritzaie: deitzen naiz, deitzen haiz..., hots, halako izena eduki.

Deritxot, deritxok, deritxo, deritxogu, deritxozu, deritxozue, deritxe: deritzaiot, deritzaio..., hots, irizten diot, diok... iruditzen zait, zaik...

Neritxon, eritxon: neritzaion, zeritzaion, hots, irizten nion, zion, iruditzen zitzaidan, zitzaion.

EGON

Nago, hago, dago, gagoz, zagoz, zagoze, dagoz.

Nengoen, hengoen, egoen, gengoan, zengoan, zengozen, egozan: nengoen, hengoen, zegoen, zeunden, zeunden, zeunden.

Gengokez, zengokez, zengokez, legokez: geundeke, zeundeke, zeundekete, leudeke.

Bagengoz, bazengoz, balegoz: bageunde, bazeunde, baleude.

Nagoko-naiagoko, nagotzu: nagokio, nagokizu.

Dagot-iagot, dagoko-iagoko, dagoku-iagoku, dagotzu-iagotzu, dagoke-iagoke: dagokit, dagokio, dakokigu, dagokizu, dagoke-iagoke.

Begoz: beude.

IBILI

Nabil, habil, dabil, gabiz, zabiz, zabize, dabiz: gabiltza, zabiltza, zabiltzate, dabilta.

Nenbilen, henbilen, ebilen, genbizan, zenbizan, ebizan: zebilen, genbiltzan, zenbiltzan, zebiltzan.

Bagenbiz, bazenbiz, bazenbize, balebiz: bagenbiltza, bazenbiltza, bazenbiltzate, balebiltza.

Dabil-iaibilt, dabilko-iaibilko, dabilku-iaibilku, dabiltzu-iaibiltzu, dabilke-iaibilke: dabilkit, dabilkio, dabilkigu, dabilkizu, dabilkizue, dabilkie.

Nenbilkon, nenbizun-nenbiltzun, nenbilken: nenbilkion, nenbilkizun, nenbilkien.

Ebildan, ebilkon, ebilgun, ebiltzun, ebilken: zebilkidan, zebilkion, zebilkigun, zebilkizun, zebilkien.

Bebiz: bebiltza, ibil bitez.

JOAN

Noa, hoa, doa, goaz, zoaz, zoaze, doaz.

Noako, noatzu, noatzue, noake-noakie: noakio, noakizu, noakizue, noakie.

Ioat, ioako, ioaku, ioatzu, ioatzue, ioake: doakit, doakio, doakigu...

Beihoa: bihoa, joan bitez.

ETORRI

Nator, hator, dator, gatoz, zatoz, zatoze, datoz.

Natorko, natortzu, natorke: natorkio, natorkizu, natorkie.

Iatort, iatorko, iatorku, iatortzu, iatorke: datorkit, datorkio, datorkigu, datorkizu, datorkie.

Gatorkoz, gatortzuz, gatorkez: gatorkio, gatorkizu, gatorkie.

Zatordaz, zatorkoz, zatorkuz, zatorkez: zatorkit, zatorkio, zatorkigu, zatorkie.

Iatordaz, iatorkoz, iatorkuz...: datozkit, datozkio, datozkigu...

Nentorkon, nentortzun: nentorkion, nentorkizun.

Etordan, etorkon, etortzun: zetorkidan, zetorkion, zetorkizun.

Gentozkon, gentortzun, gentozken: gentozkion, gentozkizu, gentozkien.

Zentordazan, zentorkozan, zentorkuzan, zentorkezan: zentozkidan, zentozkion, zentozkigun, zentozkien.

Etordazan, etorkozan, etorkuzan, etortzuzan: zetozkidan, zetozkion, zetozkigun, zetozkizun.

JARDUN-IHARDUN

Dihardut, diharduk, dihardu, dihardugu, diharduzu, diharduzue, dihardue.

Niharden, hiharden, ziharden (hark, eurek), ginarden, zinarden (zuk-zuek).

IKUSI

Dakust, dakus, dakuse: ikusten dut, du, dute.

Zakustaz: ikusten zaitut.

Nekusan, zenkusan: ikusten nuen, ikusten zenuen.

IRAKIN

Diraki, zirakian: irakiten du, irakiten zuen.

ERAGO-ERAGON

Daragoiot, daragoiok-n, daragoio, daragoiozu, daragoiozue, daragoioe.
Neragoion, eragoioen.

Badago esanahi berean beste aditz joko bat, oso ezaguna gaur ere Lea-Artibai inguruan:

Deutsot, deutsok, deutso, deutsogu, deutsozu, deutsozue, deutse: ari naiz, ari haiz...

Neutson, heuntson, eutson, geuntson, zeuntson, zeuntsoen, eutsen: ari nintzen, ari hintzen, ari zen...

Aditz honek datiboa eskatzen duela badirudi ere, ez da horrela. Beraz, *lanean deutsot, dantzan deutse, zertan deutsozu...* eta ez: *lanari deutsot, dantzari deutse* etab.

ERDU, EUTSI

Bi aditz forma hauek oso erabiliak dira gaur ere, eta forma horietan fosildurik daude.

Erdue: etor zaitez, etor zaitezte. Gaur zuek subjektu denean, *erdue* edo *erduze* entzuten da.

Eutsi: tori, har ezazu.

Eutsiz: har itzazu.

ZENBAIT ATZIZKI

DAKO-TAKO: norendako, zuendako, niretako.

ETAN-ATEN: pentsetan, kantetan, topetan, sometan... edo pentsaten, kantaten, topaten, somaten...: pentsatzen, kantatzen, topatzen, somatzen.

TZEAN-TZIEN: hartzean-hartzien, saltzean-saltzien, sartzean-sartzien...: hartzen, saltzen, sartzien.

KETAN: urketan, sinesketan, zabalketan, igarketan...: urtzen, sinesten, zabaltzen, igartzen.

TAKO-TEKO: pentsetako-pentsateko, kantetako-kantateko, parkatako-parkateko...: pentsatzeko, kantatzeko, parkatzeko.

TZEAKO-TZIEKO: hartzeako-hartzieko, saltzeako-saltzieko: hartzeko, saltzeko.

TEA-TIE: olgetea-olgetie, betetea-betetie, koloketea-koloketie...: olgatzea, betetzea, koloketzea.

TUTEA-TUTIE: apurtutea-tie, ostutea-tie, lagundutea-tie...: apurtzea, ostea-ostutzea, laguntzea.

TUTEKO: onduteko, hartuteko, biztuteko...: ontzeko, hartzeko, bizteko.

TEARREN-TZEARREN: jotzearren, egitearren, ikustearren... jotzeagatik, egiteagatik, ikusteagatik.

ADU-AU: kantadu-kantau, paradu-parau, olgadu-olgau...: kantatu, paratu, olgatu.

IDU: mogidu, hornidu, sentidu, errendidu...: mogitu, hornitu, sentitu, errenditu.

TZITU-TSITU: silababakar batzuk adiztean: baltzitu, hatsitu, hotzitu, hutsitu, putzitu...: beztu, hastu-kirastu, hoztu, hustu, puztu.

GINEN-GINAN: kakaginen-ginan, ikazginen-ginan, hariginen-ginan, ogiginen-ginan: kaka egiten, ikatza egiten, haria egiten, ogia egiten.

AZO-ERAZO: atarazo, janazo, biztuazo, galazo...: atara erazi, jan erazi, biztu erazi, gal erazi.

TAN: iratan, egurretan, perretxikotan, behitan...: ira, egur, perretxiko, behi... bila ibili, haien garraioan ari.

REAN: idunerean, bentanarean: idunetik, bentanatik. Atzizki arkaikoa.

GAZ: nigaz, zugaz, gugaz, amagaz, hagaz, horregaz...: nirekin, zurekin, gurekin, amarekin, harekin, horrekin.

KAZ: aurrekoaren plurala: zuekaz, eurekaz, txoriekaz, diruekaz...: zuekin, eurekin, txoriekin, diruekin.

TX = ITZ: bakotx, bikotx, gatx, hatx, ekatx, haretx...: bakoitz, bikoitz, gaitz, haitz, ekaitz, hareitz-haritz.

ZINO-SINO: salbazino, okasino, parkazino, sesino...: salbazione-zio, okasione-sio, barkazione-zio, sesione-sio. N hori bizkaieraren eskualde askotan busti egiten da: salbaziñoa, salbaziñua, salbaziñue, salbaziñú...

ZIÑO-SIÑO: forma hau erabiltzen den leku guztietan bustitzen da N-a: *leziñoia-leziñoie-leziñoi*: lezioea-lezioa.

RO: osoro, gozaro, dultzero, zintzoro, barrero...: osoki, gozoki, dultzeki, zintzoki, berrero.

DO-TO: ondo, txarto, ederto, hobeto, gaiztoto, zuzento...: ongi, txarki-gaizki, ederki, hobeki, gaiztoki, zuzenki.

OK: plural hurbila: danok, guztiok, gizakiok, begiok, ederrok: gu denak, gu guztiak, gu gizakiak, begi hauek, eder hauek. Aurreko hurbiltasuna ere izan daiteke. *Nok emon dautzuz begi ederrok?*: nork eman dizkizu begi eder horiek?

MUGATZAILEA: A berezkoz amaitzen diren hitzak bizkaiera guztian batuaz ezberdin osatzen dira mugatzaile singularrean, subjektu, konplementu, datibo, genitibo, genitibotik harako atzizki, eta AZ-GAZ atzizkian eta ergatiboan. Har dezagun, adibidez, **berba** hitza. Subjektua: noren *berbea* izan da? Konplementua: *berbea* jan dozu. Datiboa: *berbeari* eutsi. Genitiboa: *berbearen* balioa. Genitibotik harako atzizkiak: *berbearentzat*, *berbearekin*... AZ-GAZ atzizkia: *berbeaz* edo *berbeagaz*. Ergatibo singularra: *berbeak*. Jokaera honek, jakina, azpi-euskalkien aldaera guztiak hartzen ditu, eskualdeen arabera: *berbia-berbie-berbé-berbi*, *berbiak-berbiek-berbék-berbík* etab.

Hori ez da gertatzen zenbait atzizkitan, non, nongo, nondik, nora... adierazten dutenetan. Haue-
tan batuan bezala dihardu. Beraz, *berban* (ez *berbean*), *berbako*, *berbatik*, *berbara*... Hauekin
osaturiko atzizki bikoitzetan ere berdin noski: *berbarako*, *berbatiko* etab.

Besteetan ere, plural mugatuan, ergatibo pluralean eta mugagabe guztian, batuan bezala de-
klinatzen da. Azalpen honek ez dauka guztizkoa izateko asmorik. Horretarako deklinabide
eta atzizki zerrenda osoa zehaztu beharko genuke. Hemen handi-handika bururatu zaidana
jarri dut. Eta garrantzitsuena duda gabe.

ERAKUSLEAK: Aditzarekin batera, beharbada izenorde erakusleak dira bizkaieraz kanpokoei
arraroen egiten zaizkienak.

Hau-honek-honeik: hau-honek-hauek.

Hori-horrek-horreik: hori-horrek-horiek.

Ha-hak-harek-hareik: hura-hark-harek-haiek.

Teorikoki eta zenbait idazkitan bereizketa honi eusten bazaio ere, berbakeran ez da ia inon
errespetatzen, hizlari kultoren baten ahoan izan ezik, ergatiboa eta plurala nahasten direlarik.
Horrela, berdin entzungo da: *ume honek zoratu behar nau*, nahiz *ume honek zoratu behar nabe*
(naute) edo *sagar horrek kolore ederra dauka*, nahiz *emoidazuz sagar horrek* (emaizkidazu
sagar horiek). Leku askotan azentuak bereizten du noiz den bata eta noiz bestea. Eta bestela
kontextuak.

Horrez gainera, bizkaierarik gehienez erakuslea atzean nahiz aurrean nahiz bietan batera
jartzeko ohitura -edo agian bizioa- dago. Honela: *gizon hori ondo ezagutzen dot*, nahiz *hori*
gizon hori ondo ezagutzen dot, nahiz *hori gizona ondo ezagutzen dot*. Edo: *ume honek buru argia*
dakar, nahiz *honek ume honek buru argia dakar*, nahiz *honek umeak buru argia dakar*. Edo:
diru horregaz ez dozu ezer egingo, nahiz *horregaz diru horregaz ez dozu ezer egingo*, nahiz *horre-*
gaz diruaz ez dozu ezer egingo. Erakusle hauek hizkeran etengabe biraka dabilzanak izanik, ez
da harritzekoa belarri ez-ohitua deskolokatzea, baita mintzea ere.

Azkenik, esan dezadan atal honetan emandako argitasunok bizkaierazko oihanaren argi-ikutu
bat besterik ez direla. Ez du inola ere esan nahi forma horiek bizkaiera osokoak direnik,
hango edo hemengoak baizik. Baina baita ere bego argi ez direla lokalismo xeheak, denak ere
esparru handi samarra hartzen dutenak baizik.

ITURRIAK

- *Aberri*. (Aldizkaria).
- *Ameriketako bertsoak*. A. Zavala. Auspoa 176.
- *Antigüedades de Vizcaya*. J. R. Iturriza.
- *Au, ori ta bestea*. Etxeita'tar Joseba Imanol.
- *Auspoa 129*. A. Zavala.
- *Baskishen Sprache*. 1967. Antropological publications Oosterhout. Niederlande.
- *Bizkaitarra*. (Aldizkaria).
- *Berso berriak*. *El demonio fuido*.... J. Urzelai.
- *Bertsogintza Bizkaian*. Abel Muniategi.
- *Bizitzaren joanean*. Balendin Enbeita.
- *Bizkaierazko idazle klasikoak*. Xabier Altzibar.
- *Bonaparteren mikrofilmeak*. Azkue Biblioteka. Euskaltzaindia.
- *BRSBAP, 22, año XXII*. Cuaderno N° 11.
- *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. Ibon Sarasola.
- *Cristinauben dotrinia*. Bartolome Olaetxea.
- *Domingo de Heguiari kantua*. Adolfo Arejita.
- *Durangoko plateruak*. Antton Mari Aldekoa-Otalora.
- *Eibar*. (Aldizkaria).
- *Ekin*. (Aldizkaria).
- *Euskal jokoak bertsotan (II)*. A. Zavala. Auspoa 183.
- *Euskal kantak*. Euskaltzaindiaren ardurapean. 1960.
- *Euskalduna*. (Aldizkaria).
- *Euskaldunak*. Orixe.
- *Euskalerrriaren Yakintza IV*. Resurrección Maria Azkue.
- *Euskalzale*. (Aldizkaria).
- *Euskarazko bertsoak*. Eusebio Maria Azcue-koa. Bilketa eta edizioa: Asier Astigarraga eta K. Josu Bijuesca.
- *Euskera*. XXIX. (Euskaltzaindiaren urtekaria).
- *Euskeraren iker atalak*. (Aldizkaria).
- *Euzkadi*. (Egunkaria).
- *Fábulas en dialecto vizcaíno*. Juan Mateo Zabala.
- *Frantzesteko bertsoak (II)*. A. Zavala. Auspoa 213.
- *Gabon kanta de Guernica de 1757*. Jose Antonio Arana Martija.
- *Gabon-kantak de Guernica (1764)*. Un documental de euskera vizcaíno del siglo XVIII. Ygnacio Tellechea Idigoras y Manuel de Lecuona.

- *Gandararen gabon kanta ezezagun bat*. Adolfo Arejita.
- *Gure kantuak*. Udako euskal ikastaroa. Derio. 1991.
- *Historia general de Vizcaya*. J. R. Iturriza.
- *Hiztegi entziklopedikoa*. Elhuyar.
- *Ibaizabal*. (Gerra aurreko aldizkaria).
- *Ibaizabal, Durangaldeko aldizkaria*.
- *Idatz-Mintz. Literatur atalen sorta*. (Aldizkaria).
- *Ipar Amerikan egindako bertso papera*. Adolfo Arejita.
- *Jose Antonio astarloak Markinako iturriari eginiko bertsoak*. Adolfo Arejita.
- *Kopla zaharrak*. Juan Mari Lekuona, J.I. Lopez de Luzuriaga, Antxon Narbaiza, Juan San Martin.
- *Milla euskal olerki eder*. Aita Santi Onaindia.
- *Modo breve de aprender la lengua vizcaína*. Rafael Mikoleta.
- *Noeren ontzia*. A. Zavala. Auspoa 136.
- *Octabas de la agonía... por Maria Antonia de Soloaga*. Ander Manterola, Adolfo Arejita.
- *Olerkiak*. Felipe Arrese Beitia. Euskaltzaindiaren ardurapean. Bilbao.
- *Ondarru, kantu, otoi, orru...* Ondarroako Kultur Etxea. 1984.
- *Ondarruko bertso ta abestiak*. Jose Maria Etxaburu.
- *Peru Abarka*. Joan Antonio Mogel.
- *Peru Dubakoren bertsoak*. Adolfo Arejita.
- *Poesía Bascongada en dialecto vizcaíno*. Jose Antonio Uriarte. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatutako edizioa.
- *Sebastián de la Gandara*. Jose Antonio Arana Martija.
- *Textos arcaicos vascos*. Luis Mitxelena.
- *Treñneru estropadak. Ondarroa'ko talaitik. 1865-1970*. Augustin Zubikarai.
- *Urduliz ingeru. Berbak eta bizimodu*. Iñaki Gaminde.
- *Vida del apóstol Santiago*. Jose Lezamiz.

KOLABORATZAILEAK

Agirresarobe, Kolesti. Irakaslea. Zizurkil.
Aldekoa-Otalora, Antton Mari. Idazlea. Iurreta.
Arana Martija, Jose Antonio. Euskaltzaina. Gernika.
Jose Ramon Arbe. Irakaslea. Zeanuri.
Areitio, Juan Mari. Bertsolaria. Iurreta.
Arrizabalaga Sagasta, Kepa. Itsasgizona. Ondarroa.
Artetxe, Txomin. Abadea. Ibarriuri.
Aurre, Jon. Irakaslea. Zornotza.
Basterretxea, Jose Luis "Altzalei". Bertsolaria. Berriatua.
Bernaola, Jesus Mari. Langilea. Arrigorriaga.
Elordieta, Jorge. Baserritarra. Ereño.
Enbeita, Jon. Bertsolaria. Gernika.
Etxebarria, Jesus. Abadea. Gatika.
Irazabal, Jon. Idazlea. Durango.
Legarreta, Asier. Bertsolaria. Mungia.
Lopategi, Jon. Bertsolaria. Muxika.
Muniategi, Abel. Abokatua. Ereño.
Olabarria, Josune. Euskaltzaindiko liburuzaina. Gernika.
Respaldiza, Juanjo. Bertsolaria. Orozko.
Sardui, Deunoro. Bertsolaria. Muxika.
Uribe, Maite. Bertsozalea. Ondarroa.
Uribe, Julen. Argazkilaria. Berriz.
Zubikarai, Augustin. Idazlea. Ondarroa.

Izengabeen lehen liburuan **Jon Aurre Sorta** izenez datorren kolaborazio garrantzitsua Bilboko IRALE-ko ikasle-irakasleen arteko elkarlan baten emaitza dela argitu beharra daukat, bizkaiera lantzeko hainbat ikasturtetan zehar antolatu zutena. Irakasleetan, *Kolesti Agirresarobe* eta *Jon Aurre* izan ziren gidari nagusi.

AURKIBIDEA

Hitzaurrea.....	7
XVII. MENDEA	
Juan Bautista Alzola.....	15
Rafael Mikoleta	23
Martin Iturbe.....	27
Nikolas Zubia - Jose Lezamiz	31
XVIII. MENDEA	
Migel Basterretxea.....	33
Maria Antonia Soloaga	39
Agustin Basterretxea.....	43
Sebastian de la Gandara	55
Bartolome Olaetxea.....	73
Pablo Pedro Astarloa	83
Juan Antonio Mogel.....	89
XIX. MENDEA	
Juan Jose Mogel.....	113
Bizenta Antonia Mogel.....	125
Antonio Aboitiz.....	137
Juan Kruz eta Antonio De la Fuente anaiak.....	155
Mateo Zabala	187
Franzisko Zengotita-Bengoa	191
Pantxillon	199
Juan J. Ibazesa.....	207
Tomas Obieta	209
Ramon Etxezarreta.....	213
Aita Meagerre	217
Enbil	219
Domingo Larragan	221
Jose Antonio Uriarte.....	227
Eusebio Maria Azkue	231
Manuel Araluzea	265
Jaun Antonio Gabiola.....	269

Felipe Arrese Beitia	273
J. Urzelai	305
Txotxojeuri	311
Txankan	315
Pedro Ormaetxe	317
Bitor Bilbao	323
Eliztxori.....	327
Errebido.....	231
F.A.	241
Meltxor Andonegi.....	345
Koblakari	351
Arnoldoren alarguna	353
Artatxori	355
Arzubiaga.....	363
Joseba Imanol Etxeita	367
Diego Amelburu	375
Mesias	381
J. C. de G.....	387
Bonifazio Latxa Agirre	389
Fermin eta Otxotene	411
Anastasio eta Karlos	415
Jose Joakin eta Jose Mari.....	419
Domingo Belaustegigoitia «Naparra»	423

XX. MENDEA

Txomin Agirre	439
Miguel Unamuno	445
Eustakio Eulea	447
Meltxior Lastra.....	459
Bihargin bat.....	465
Gregorio Mujika	481
Jose J. Alberdi	485
B.	489
Trumon	491
Jon Aizkibel	495
Kirikiño	499
Luken Monasterio	509
Juan Zarakondegi.....	511

Inazio Zabalena "Xerendieta"	515
Ibaikatx eta Jose Mari Legarra.....	517
Eugenio Bernaola	521
Miren Agurne	523
Lukas Añibarro	527
Martzelino Urkiaga	531
Tiburtzio Urrusolo	535
Jose Manuel Imaz	547
Berriatuako Ezkerra.....	553
Jose Burgoa	557
Jose "Brontxe"	573
Onbe	579
Paulo Zamarripa.....	581
Anjel Markano	593
Simon Gandarias.....	599
Elantxobetarra	603
Kurutze-Gane	605
Azkatu arte	607
Nonor	611
Atzo	619
Mutil gazte bat	621
Fermin Beitia	625
Mañari	627
Jose Bergaretxe	629
Felix Markiegi.....	631
Gehigarria	633
Oharrak lehen liburuari.....	670
Hiztegia	671
Iturriak	689
Kolaboratzaileak	693
Aurkibidea	695
Egileen aurkibide alfabetikoa	700
Sorten aurkibide alfabetikoa	703

EGILEEN AURKIBIDE ALFABETIKOA

Aboitiz Antonio	137
Agirre Txomin	437
Aizkibel Jon	495
Alberdi Jose J.	485
Alzola Juan Bautista	15
Amelburu Diego	375
Anastasio	415
Andonegi Meltxor	345
Añibarro Lukas	527
Araluzea Manuel	265
Arnoldoren alarguna	353
Arrese Beitia Felipe	273
Artatxori	355
Arzubiaga	363
Astarloa Pablo Pedro	83
Atzo	619
Azkatu arte	607
Azkue Eusebio Maria	231
B.	489
Basterretxea Agustin	43
Basterretxea Migel	33
Beitia Fermin	625
Belaustegoitia Domingo «Naparra»	423
Bergaretxe Jose	629
Bernaola Eugenio	521
Berriatuako Ezkerra	553
Bihargin bat	485
Bilbao Bitor	323
«Brontxe» Jose	573
Burgoa Jose	557
De la Fuente Antonio	155
De la Fuente Juan Kruz	155
Elantxobetarra	603

Eliztxori	327
Enbil	219
Errebido	331
Etxeita Joseba Imanol	367
Etxezarreta Ramon	213
Eustakio Eulea	447
F. A.	341
Fermin	411
Gabiola Juan Antonio	269
Gandara Sebastian de la	55
Gandarias Simon	599
Ibaikatx	517
Ibazesca Juan J.	207
Imaz Jose Manuel	547
Iturbe Martin	27
J. C. de G.	387
Jose Joakin	419
Jose Mari	419
Karlos	415
Kirikiño	495
Koblakari	351
Kurutze-Gane	605
Larragan Domingo	221
Lastra Meltxior	459
Latxa Agirre Bonifazio	389
Legarra Jose Mari	517
Lezamiz Jose	31
Mañari	627
Markano Anjel	593
Markiegi Felix	631
Meagerre Aita	217
Mesias	381
Mikoleta Rafael	23
Miren Agurne	523
Mogel Bizenta Antonia	125
Mogel Juan Antonio	89
Mogel Juan Jose	113
Monasterio Luken	509

Mujika Gregorio	481
Mutil gazte bat	621
Nonor	611
Obieta Tomas	209
Olaetxea Bartolome	73
Onbe	579
Ormaetxe Pedro	317
Otxotene	411
Pantxillon	199
Soloaga Maria Antonia	39
Trumon	491
Txankan	315
Txotxojeuri	311
Unamuno Miguel	445
Uriarte Jose Antonio	227
Urkiaga Martzelino	531
Urrusolo Tiburtzio	535
Urzelai J.	305
Zabala Mateo	187
Zabalena Inazio "Xerendieta"	515
Zamarripa Paulo	581
Zarakondegi Juan	511
Zengotita-Bengoia Franzisko	191
Zubia Nikolas	31

SORTEN AURKIBIDE ALFABETIKOA

A

Aberria	495
Adiskide bat daukat	39
Adiskide bi eta hartza	213
Aguazilen bizimodua	485
Agur Antonioak	301
Agur Euskal Herria	627
Agure-kanta	441
Ai ai Jesus	221
Ai heriotziaren	265
Aita Palacios	181
Alper da Maria makilatua	209
Alperrak	253
Ama bat	439
Ama bat eta seme loti bat	357
Ama dontzeilaren zeruratzari	348
Ama ezkondu	638
Ama maitegarriari bere jaiotzan	57
Ama maitegarriari, zortziko	55
Amarentzat	333
Amoren kontentuenak	23
Andra alarguna eta oilua	99
Antiguako amari (I)	547
Antiguako amari (II)	560
Antonioak	303
Antxinako artzain abestiak	605
Arbola bat zan	274
Arbola bi	397
Ardiak	174

Ardoaren ganian	58
Arin-arina	339
Arineketia	401
Arloraren alabeari	406
Arraguetari	629
Arrain handiarenak	540
Arrantzalia ta arraintxua	95
Arrantzalien bixitzea	509
Arratia	161
Arratiako neskatilen eresia	398
Askoren arteko bateri	341
Astoa astoa langoa	237
Astodunak	163
Ataratzera noa	204
Ate aina maratil	297
Atsua eta ispilua	96
Atzo atzo atzo	619
Azketsi Nonor-eri	614

B

Bata da Mainton	663
Bazkari barik	473
Behargin alegere bat	291
Behi antzuenak	415
Behiak burrukan	531
Belaskilloren kantia	141
Belia eta sugia	98
Bermeotar astodunai	246
Berriatuko zezena	561
Berriz eta Zaldibarko abiadoreak	595
Berrogeta hamazortzi	429
Bertso batzuk Romanari	403
Bertsoak jartzen noia	511
Bertsolari edo koblakaria	240
Besaizko lectio epistolae	653
Beti nago kantetan	128

Bigarren aldia	400
Bilboko estropadetako kantzak	551
Bilbotik Ipiñaburura	392
Birjina Ama Mariak	133
Bizi bedi euskera maitia	373
Bizi bedi Jesus	73
Bizi bedi Mesias	381
Bizi bitez Eskibel	306
Bizkaiko bazter baten	199
Bost zauriak	644

C

Chisperos	183
-----------------	-----

D

Denpora baten	24
---------------------	----

E

Edurra	538
Egun baten gaba eginda	93
Egunsentia	489
Egur handi bategaz	499
Ehizari bertsolari bat	295
Eibarko burdinbidea	289
Elantxobetarra naz	603
Eresiak Jesusi	444
Erregiñe Dienesi	576
Eta ia ia	668
Etxagunen ezkontzia	233
Euliak	172
Euskal Herriko arbola	390
Euskaldun bat Veracruzen	256

Euskaldun baten kantua	387
Ez da hilgo	501
Ezkerraren bizimoduari	564
Ezta idigiten	81

F

Falua erreala	543
Famea igaro da	27
Franzisko Orbegozoko	451

G

Gabon abestia	445
Gabon gaba	346
Gabon kanta Gernikakoa	59
Gaboneko kantak	157
Garagarrileko proba	411
Garbitegiko arimak	345
Gau on santu honetan	31
Gaurko mutil banakok	394
Gazte eta zaharra	503
Gerbasen kantak	640
Gernikako gabon-kanta	67
Gernikako gabon-kante	62
Gernikako zugatza	584
Gernikari	282
Gerrara euskaldunak	207
Gizon esku-etsi	187
Gizon guztien batzarra	87
Goazen goazen, mutilak	219
Gorbeiako artzainarenak	287
Goxaldeko lua	249
Guazan guazan, mutilak	227
Gure arbola gazteari	281
Gure Mañarian	625

H

Haretxari	336
Haritzari	290
Hau nahibagia	370
Haur kanta	87
Heldu da Lekeitiora	613
Hilteko egoan	189

I

Ia zazpi mila urte	424
Idazle batzuei	616
Igez ginean	656
Igez txapel ona ta	428
Ikasla ikastun bati	355
Ilargieri eiten jakoz	645
Itxasua	367
Itxasuan Amerikatik etxerutz	372

J

Jesukristori kendu ezkerro	43
Juliena Arrijandiko	661

K

Kabelina gorrieri	607
Kalbarioak	75
Kantatu gura ditut	431
Karlos Hirugarrena	109
Karlos IV.ari	85
Karnabalak	535
Karnabaletakuak	537
Katamotza eta txakurra	97
Katu-arratoiak	470

Katu bi txopo puntan	419
Katua ehizan	104
Kausino	177
Kontu barri bat	33
Kristinau baten lanak	118
Kukuarenak	651
Kurutze-bide	642

L

Lapiko konpontzaile bi	391
Lapurre elite	664
Larri ta triste	224
Laubiko elizgizonak	328
Lehengo egun baten	327
Lelengo tximurra	214
Li lo lo	662
Linuaren penak	100
Lora bateri	332

M

Mariari bere Sorkunde garbian	363
Marinela	169
Markanokin Ameriketara	593
Markinako iturria	108
Markinako pelotariena	88
Matxango	146
Mekoletan	568
Melillako gudarien alde	302
Mendatako palanka jokua I	515
Mendatako palanka jokua II	517
Mendian loratxoak	631
1926ko estropadak (I)	553
1926ko estropadak (II)	569
1926ko estropadak (III)	573
1867ko San Migelak	269

Miru zuria	666
Misionistak dirade	191
Misterio dolorosuak	78
Misterio gloriosuak	80
Misterio gozосуak	77
Mogel eta Txaraka	242
Mozkorti baten neurtitzak	581
Mutilzaharra	477
Muxikako probak	311

N

Neguko gau izugarri bat	276
Neguko loria	472
Nekazarienak	166
Neskazaharrak	468
Neure andria	639
Neure emazte Manu Mari	351
Neure jaioterriari	467
Neure Jesus maitea	375
Neure maitea	655
Ni naz gauza bat gozua	217
Nola gerrari pozez	83

O

Ordu hobetan ezin	125
Ostarsuari	308
Otxandioko astotxo bati	459

P

Pepatzuk esan eustan	635
Peru Dubako	140
Phelipe Hespañaiko	16
Probalariak	323

R

Relox de Dima 176

S

Sabas artzainaren agurrak 369
 Sagarra 178
 Sagu bi zelai baten 89
 Saguak eta katua 238
 San Antonio Paduakoarenak 116
 San Antonio Urkiolakuarenak 113
 San Juan gaubian 669
 Santa Ageda 657
 Santa Katalina 621
 Santa Luzietan 567
 Sasien txori larrosa 659
 Señora Iñuzentzia 667

T

Taberneruen bizimodua 465
 Tanbolinteruen bizimodua 481
 Tarantantan 222
 Tiburtzio 654
 Tortolatxu bat basuan 145
 Trakamailgo erregina 151
 Trenari 308
 Trumon euria 491
 Txakur baten kontuak 317
 Txakur famatua da 523
 Txakurrari 558
 Txandres da Iomanu 356
 Txanton Pipirri 137
 Txiki txikitxue 649
 Txirripi txio 611

Txirrist nor da 359
 Txorbel 521

U

Urkiola 300
 Urkiolara 580
 Urruntasuna 331
 Urteilen hamairuen 527

W

We are plenty in here 599

Z

Zabaldu belarriak 259
 Zerbitzariak 158
 Zeugana nator, Pedro 143
 Zortzi nobio 448
 Zu joan zara 353